

BIGARREN LIBURUA

I

Gure ekintzen aldakortasunaz

Giza ekintzen ikertzen ari direnak, ez dira ezertan hain trabatuak nola haien antolatzen handitasun berdinean ezartzeko; zeren ukatzen ohi baitira hain modu bitxian, non ezinezkoa baitirudi saltegi beretik jalgiak direla. Mario gaztea aurkitzen da behin Marteren semea, behin Venusen semea. Bonifazio zortzigarrena, aita saindua, bere karguan azeri bat bezala sartu omen zen, lehoi bat bezala ibili, eta zakur bat bezala hil. Eta nork sinets lezake Neron, basakeriaren zinezko itxura hura, ohiturari jarraikiz, gaizkile kondenatu baten sententzia sina zezala aurkeztu zitzaizolarik, izan zela erantzun zuena: Aileza Jainkoak sekula ez nezan idazten jakin! bihotza hainbat hertsatzen baitzion hiltzera gizon baten kondenatzeak? Adibide horietaz hain beterik da dena, eta bakoitzak bere buruari hainbat aipa diezazkioke, non arrotz aurkitzen baitut batzuetan adimeneko jendeen ikustea puska horien antolatzeko neketan sartzen; zalantza iruditzen baitzait gure izaeraren makurrik arrunt eta ageriena, Publio itxuralariaren neurtitz famatu hau lekuko,

Malum consilium est, quod mutari non potest ¹.

Bada itxura zerbait gizon baten epaitzean bere biziaren ekintzarik ohituenen bidez; baina gure aztura eta iritzien berezko kordoka ikusirik, maiz iruditu zait autore onak ere zuzengabea direla tematzean gutaz egitura iraunkor eta gotor baten moldatzen. Hautatzen dute egite orokor bat, eta itxura horri jarraikiz, badoaz pertsonaia baten ekintza guztiak lerrokatuz eta argituz eta, aski bihur ez baditzakete aski, gordetzera dramatzate. Augusto itzuri zaie; zeren gizon honen baitan hain ekintza-aldatze ageri, bapateko eta etengabe bat aurkitzen baita, haren bizi osoan, non epailerik ausartenek utzia baita, oso eta zalantzan. Gizonez nekeago sinesten dut gogo-iraupena, beste edozein gauza baino, eta deus ere hain erraz nola aldakortasuna. Xeheki eta zuzenez zatiz zati epaituko lituzkeenak maizago aurkituko luke egiaren esateko.

Zaharraro osoan, neke da hamabi gizonen bereiztea beren bizia ibilera gertu eta seguru batez zuzendu dutenak, zuhurtziaren jomuga nagusia baita. Zeren hitz batean denaren hartzeko, dio aitzineko batek, eta gure biziaren arau guztien batean besarkatzeko, “gauza bera beti nahi eta ez nahi izatea baita; ez nuke onartuko, dio, gehitzea: borondate zuzena bada; zeren, zuzena ez bada, ezinezkoa baita beti bat izan dadin” Zinez, behiala ikasi dut bizioa ez dela desarautze eta neurririk ezaz baizik eta, beraz, ezinezkoa da iraupena hari lotzea. Demostenesen elea omen da bertute ororen hasiera ikertzea eta gogoratzea dela; eta helburua eta betegina, iraupena. Gogoetaz hartuko bagenu bide bat, beti ederrena hartuko genuke; baina inork ez du horretan gogoetatu,

Quod petiit, spernit; repetit quod nuper omisit;

Æstuat, et vitæ disconvenit ordine toto ².

Gure modu arrunta geure nahiaren aiherraren ondotik ibiltzea da, ezker, eskuin, aldapa gora, aldapa behera, aldiaren haizeak garamatzan arabera. Ez dugu nahi duguna gogoetatzen, nahi dugun istantean baizik, eta aldatzen gara ezartzen den lekuaren kolorea hartzen duen ihizi hori bezala. Orain deliberatu duguna, gero aldatzen dugu, eta gero berriz ere itzultzen gara geure urratsen gainetik; kordoka eta aldakortasunik besterik ez da,

Ducimur ut nervis alienis mobile lignum ³.

Ez goaz; eramanak izaten gara, urak daramatzan gauzak bezala, noiz emeki, noiz bortizki, ura irakina edo geldia den arabera:

nonne videmus

Quid sibi quisque velit nescire, et quærere semper,

Commutare locum, quasi onus deponere possit? ⁴

Egunero nahikeria berria, eta badabiltza gure aldiak aroaren mugimenduekin batera,
Tales sunt hominum mentes, quali pater ipse

Jupiter auctifero lustravit lumine terras ⁵.

Aburu ezberdinen artean gabiltza; ez dugu deus ere nahi libreki, deus osoki, deus etengabe.

Lege eta antolatze zenbait bere buruan arautuak eta finkatuak lituzkeenari, osoki eta orotan aztura-berdintasun bat argitzen ikusiko genioke, egokitze eta huts gabeko harreman bat gauza batzuetarik besteetara.

Empedoklesek akats hau ikusten zien agrigentiarei, atseginei ematen zizkiela biharamunean hiltzekoak balira bezala, eta eraikitzen zutela sekula hil behar ez balute bezala.

Aski erraza litzateke solasaren egitea, Katon gazteaz ikusten den bezala: mota bat jo duenak dena jo du; hagitz hots arautuen harmonia bat da, ukatzen ahal ez dena. Gure baitan, aitzitik, hainbat ekintza, hainbat aburu berezi behar dira. Seguruena, ene ustez, aldameneko gorabeherei egokitzea litzateke, bila luzeagotan sartu gabe eta beste ondoriorik atera gabe.

Gure estatu gaizoaren itsuskerietan, aipatu zitzaidan neska bat, nengoen lekutik oso hurbil, leiho batetik beheiti egotzi zela bere etsai soldadu zirtzil baten bortxaketatik itzurtzeko; ez zen hila erortzean eta, bere egitekoaren berriztatzeko, zintzurrean eman nahi zuen ganibet ukaldi bat, baina eragotzia izan zen, azkarki zauritua izan ondoan hala ere. Berak aitor zuen soldaduak ez zuela oraino hertsatua baizik eta errekerizia, eskaera eta emaitzekin, baina beldur zela azkenean indarka etor zekion. Eta horren gaineko hitzak, itxura eta odol hori, haren bertutearen lekuko, beste Lukrezia⁶ baten zinezko moduan. Baina orain jakin izan dut, egiatan, lehenago eta gero ere ez zela hain neska antolagaitza. Ipuinak dioen bezala: Horren eder eta zintzo bazara ere, zeure haitaldian huts egin duzularik, ez ezazu zeurehala atera garbitasun hunkiezin baten ondorioa zeure maitatuarengan; ez du esan nahi mandazainak hor bere ordua aurkitzen ez duenik.⁷

Antigonok, gogoko izan zitzaiolarik bere soldaduetarik bat haren bertute eta suhartasunagatik, bere sendagilei manatu zien luzaz oinazetu zuen eritasun luze eta barreneko batetik senda zezaten; eta, ohartuz sendatu ondoan askoz ere hotzagoa zihoala egitekoetara, galdegin zion zerk aldatu eta lotsatu zuen horrela: “Zuhaurek, Jauna, erantzun zion, nire bizia kontutan ez hartzera naramaten gaitzetarik arindu nauzularik”.Lukuloren soldaduak, etsaiek ebatsirik, egin zuen haien gainean, mendekatzeko, ekintza eder bat. Bere galtzea berreskuratu zuelarik, Lukulok, iritzi onean harturik, bulkatzen zuen menturazko ekintza bati buruz, gogoratzen ahal zitzaizkion sustatzerik ederrenen bidez,

Verbis quæ timido quoque possent addere mentem ⁸.

,Erabil ezazu hor, ihardetsi zuen, soldadu ebatsi esteiari bat
quantumvis rusticus: ibit,

Ibit eo, quo vis, qui zonam perdidit, inquit ⁹.

eta joatea gogorki ezeztatu zuen.

Irakurtzen dugunean Xasan, jenizerien¹⁰ buruzagia, Mehmetek ahalkegarriki iraindurik, ikusten zuelako bere gudalostea hungariarrek zehakatua, eta lazoki baitzebilen guduan, erantzunez joan zela bortizki gudukatzera, bakarrik, zegoen bezala, armak eskuan, ageri zitzaion lehen etsai-osteari buruz, non eta berehala irentsia izan baitzen; ez da, menturaz, hainbat zurialdi baizik eta zuzenketa, ez hainbat bere jatorrizko heroitasuna baina gaitzitze berri bat.

Atzo hain ausarta ikusi zenuen hura, ez ezazu arrotz hatzeman biharamunean hain lotsati ikusiz: edo haserreak, edo beharrak, edo lagungoak, edo ardoak, edo tronpeta baten asotsak ezarri zion bihotza sabelean; ez da arrazoiez horrela moldatu bihotz bat, gorabehera horiek azkartu diote; ez da miresgarria hor badago beste gertaldi kontrako batzuk bestelakaturik.

Gure baitan ikusten den nabartasun eta bihurtze arin honek eragin du zenbaitek itxura diezazkiguten bi gogo, beste batzuk bi ahalmen, laguntzen eta inarrosten gaituztenak, bakoitzak bere moduz, ongi aldera bata, besteak gaizki aldera, hain ezberdintasun bapatekoa ez daitekeelarik ongi antola gai soil batean.

Ez bakarrik gorabeheren haizeak narabil haren ahierraren arabera, baina, gainera, neronek darabilt eta daragit neure burua neure jarreraren aldakortasunagatik; eta lehenik so egiten duenak ez du doi aurkitzen bere burua bi aldiz egoera berean. Neure gogoari ematen diot noiz begitarte bat, noiz beste bat, pausarazten dudana alderdiaren arabera. Ezberdin mintzo banaiz neure buruaz, ezberdin dakusadala da. Aurkako guztiak aurkitzen dira inoiz eta inola ere den. Ahalkekorra, ozarra; garbia, lizunkoia; talataria, isila; langilea, xuria; argia, zozotua; saputza, xaloa; gezurtia, egiatia; jakilea, ezjakina; eta eskuzabala, eta zekena, eta barreiatzalea, hori guztia, dakusat neure baitan inola ere, itzulikatzen naizen arabera; eta bere burua ernekei ikertzen duen nornahik aurkitzen du bere baitan, eta bere arrazoian berean, arinkeria eta desadostasun hau. Osoki, soilik eta gotorki, nabarrik ez nahasterik gabe, ez eta hitz batez ere, ez dut neure buruaz esateko deusik. Ene logikaren zatirik orokorrena distingo ¹¹ da.

Nahiz eta ongiaz beti ongi esateko ustekoa naizen, eta gehiago onaren alde argitzeko horrela izan daitezkeen gauzak, gure baldintzaren bitxitasunak badakar askotan bizioak berak garamatzala ongiaren egitera; ekintza ona xede soilaz epaitzen ez balitz. Horregatik bada, kuraiazko ekintza batek ez du ondoratzen gizon bihoztoi bat; behar denean eginen lukeenak beti eginen luke, eta aldiro. Bertutezko ohitura bat balitz, eta ez ateraldi bat, berak eginen luke gorabehera orotarako berdin deliberatu den gizon bat, berdin bakarrik nola lagungoan, zelai hertsian nola gudu batean; zeren, diotena diotela, ez da suhartasun bat karrikan eta beste bat zelaian. Hain bihoztoiki jasanen luke eritasun bat ohean, nola zauri bat gudazelaian, eta bere etxean ez litzateke heriotzaren beldur erasoaldi batean baino gehiago. Ez genuke ikusiko gizona bera urraduran oldartzen segurtasun suhar batekin, eta gero bere buruaren oinaztatzen, emakume bat bezala, auzi edo seme baten galtzeaz.

Laidoan lotsati izanez, gabezia iraunkor denean; bizarregileen ebakigailuen erdian beratz izanez, etsaien ezpaten kontra gogor denean, ekintza laudagarria da, ez gizona.

Greko askok, dio Zizeronek, etsaiak ez ditzakete ikus eta eritasunetan iraunkorrak dira; zinbriak eta zeltiberiarrek erabat alderantziz: “nihil enim potest esse aequabile, quod non a certa ratione proficiscatur

B”ere motan, ez da Alexandrorena baino suhartasun bortitzagorik; baina bere motan baizik ez da, ez aski betea orotan eta orotarakoa. Ezin alderatua bada ere, badauzka bere akatsak; ikusten baitugu ikaratzen hain zoroki bere biziaren kontrako azpilanez hartzen dituen gogoan behartzerik arinenetan, eta ikerketa horretan halako zuzengabe sutsu eta neurrigabean ibiltzen eta bere arrazoi naturala iraultzen dion beldur batez. Sineskeriak ere, hartaz hain gogorki joa baitzen, badakar buru arinkeraren irudiren bat ere. Eta Klitoren erahilketaz egin zuen doluaren sobera ere bere kuraiaren ezberdintasunaren lekukoa da.

Gure ekintza, zati moldaturik besterik ez da, “voluptatem contemnunt in dolore sunt molliores; gloriam negligunt, fraguntur infamia” eta ukan nahi dugu ohore bat gezurrezko ezaugarriez. Bertuteak ez du bere buruaz landako jarraitunik nahi; eta, inoiz hartzen bada haren mozorroa beste aldi baterako, berak kentzen digu aurpegitik

berehala. Tindura bizi eta azkar bat da, gogo hartaz asetuz geroz, eta ez zaio joaten bere puska eraman gabe. Horra zergatik, gizon baten epaitzeko, haren hatzei jarraiki behar zaien luzaz eta xeheki; iraupenak ez badirau bere funtsetik, “cui vivendi via considerata atque provisa est”, gertakarien ezberdinak urratsez aldarazten badu (bidez diot, zeren urratsa arintzen edo mantsotzen ahal baita), utz ezazu joatera; hori haizearen aitzinean badoa, gure Talbot¹⁵en zuhurtitzak dioen bezala.

Ez da miraria, dio aitzineko batek, menturak hainbeste ahal izatea gure gainean, menturaz bizi baikara. Bere bizia, orokorki, helburu batera zuzendu ez duenari ezinezkoa gertatzen zaio ekintza berezien antolatzea. Ezinezkoa zaio zatien lerrokatzea osotasunaren molde bat bere buruan ez duenari. Zertako zaio koloreen biltzea zer margotu behar duen ez dakienari? Inork ez dago bere biziaren xede segururik, eta zatikaz baizik ez dugu gogoan hartzen. Arkulariak lehenik jakin behar du nora xedatzen duen, eta gero hartara jarri eskua, arkua, zurda, gezia, eta higidurak. Gure aburuak galtzen dira helbiderik ez jomugarik ez baitute. Ez du haizeak ekintzarik zein portura doan ez dakienarentzat. Ez naiz Sofoklesentzat egin zen erabaki harekin ados: etxeko gauzen erabilerako ustetsi baitzuten, semearen salaketaren aurka, bere tragedietarik bat ikusi eta.

Eta ez dut aurkitzen parostarren ustea, miletarren zuzentzeko igorritik, atera zuten ondoriorako doia. Irlaren ikuskatzen, ohartu zitzaizkien hobekien landu lurraldeei eta hobekien gobernatu etxaldeei; eta, haien nagusien izenak harturik, hiritarren batzarrea eginik hirian, izendatu zituzten nagusi horiek agintari eta epaile berri; ustez eta, beren gauzen axoladunak izanez, publikoenak izanen zirela.

Dena betatxuka gara eta hain egitura moldagabe eta ezberdinekoa, non puska bakoitzak, aldi bakoitzak, bere jokoa egiten baitu. Eta gugandik guhaurengana hainbeste ezberdintasun aurkitzen da nola gugandik beste batengana. “Magnam rem puta unum hominem agere”. Handinahiak gizonei irakasten ahal dienez geroz suhartasuna, neurtasuna, eskuzabaltasuna, eta zuzenbidea ere; zikoizkeriak landatzen ahal duenez geroz botikako morroi baten kuraian, itzal eta alferkerian hazirik, etxeko sutondotik hain urrun jauzteko segurantz, uhin eta Neptuno haserrearen menara, itsasontzi hauskor batez, eta begiratzea eta zuhurtzia irakasten dituela, gainera; eta Venusek berak erabakimenduz eta ausartziaz hornitzen oraino azote eta zaharopean den gazteria, eta erabiltzen neskatoen bihotz xamurra amen altzoan,

Hac duce, custodes furtim transgressa jacentes,

Ad Juvenem tenebris sola puella venit ¹⁷:

ez da funtsezko adimen baten egitekoa gure epaitzea soilik ekintza agerien bidez; barreneraino bilatu behar da, eta ikusi zein eragingailuz ematen den inarrostea; baina, eginkizun menturazkoa eta gora denez geroz, nahi nuke jende gutiago horretan sar dadin.

II

Mozkorreriaz

Mundua nabardura eta berezkizunez baizik ez da. Bizioak orobat dira denak bizioak direlako, eta modu honetan aditzen dute, menturaz, estoikoek. Baina, berdin bizioak badira ere, ez dira bizio berdinak. Eta mugak ehun urratsez gainditu dituen,

Quos ultra citraque nequit consistere rectum ¹⁸,

ez dela hamar urratsetan dagoena baino izaera gaitzagokoa, ez da sinesgarri; eta sakrilegioa ez dela gure baratzeko aza baten ebasketa baino gaitzago;

Nec vincet ratio hoc, tantumdem ut peccet idemque

Qui teneros caules alieni fregerit horti,

Et qui nocturnus divum sacra legerit ¹⁹.

Horretan bada beste edozein gauzatan bezainbat ezberdintasun.

Bekatuaren ordena eta neurriaren nahasketa galgarria da. Erahileek, traidoreek, tiranoek irabazpide sobera dute hor. Ez da arrazoirik haien kontzientzia lasai dadin halako hura, edo alferria, edo lizunkoia, edo deboziorako hotza delakoan. Bakoitzak zamatzen du bere lagunaren bekakoa, eta arintzen berea. Irakasleek ere maiz gaizki sailkatzen dituzte nire irudiko.

Sokratesek zioen bezala zuhurtziaren lehen ofizioa ongien eta gaizkien bereiztea zela, guk, zeinetarik hoberena beti bizioan baita, gauza bera esan behar dugu bizioaren bereizteko jakintzan; haren zehaztasunik gabe bertutetsua eta gaiztoa nahasiak eta ezezagunak gelditzen baitira.

Mozkorria, bada, iruditzen zait bizio zakar eta zarpaila, besteen artean. Gogoak parte gehiago badauka besteetan; eta badira bizioak eskuzabaltasunezko ez dakit zer daukatenak, hala esan behar bada. Badira jakintza, bizkortasuna, suhertasuna, zuhurtzia, antzea eta zorrotasuna beraiekin dituztenak; hau osoan gorputz eta lurrezkoa da.

Horrela, gaur egun diren herrietarik zakarrena²⁰ omen onean daukan bakarra da. Beste bizioek adimena andeatzen dute; honek uzkailezen, eta gorputza balditzen:

cum vini vis penetravit,

Consequitur gravitas membrorum præpediuntur

Crura vacillanti, tardescit lingua, madet mens,

Nant oculi; clamor, singultus, jurgia gliscunt ²¹.

Giza egoerarik txarra bere buruaren ezagutza eta manua galtzen duelarik da.

Eta esaten da, besteak beste, beruinak, ontzi batean irakiten, hondoa dagoen guztia gora bulkatzen duen bezala, horrela ardoak gainetik aterarazten dizkiela sekreturik barrenean neurritz gora hartu dutenei,

tu sapientium

Curas et arcanum jocoso

Consilium detegis Lyæo ²².

Josefok kontatzen du aitorrarazi ziola etsaiek igorri zioten enbaxadore bati, ausarki edanarazirik. Hala ere, Augusto, bere eginkizunik barrenean Trazia konkistatu zuen Luzio Pisorik aitorturik, ez zen inoiz ere huts eginik gertatu; ez Tiberio Kosorengandik ere, bere xede guztiak aitortzen baitzizkion, nahi eta badakigun ardoari hain gogorki emanak zirela non anitzetan senatutik eramana izan behar baitziren hordi arrailak bata eta bestea,

Externo inflatum venas de more Lyæo ²³.

Kasio ur-edaleari bezain segurki fidatu zion Zimberi Zesarren hiltzeko asmoa, nahiz eta maiz mozkortzen zen. Horretaz erantzun zion jostetan: “Nik ardoa jasan ez dezakedana, tirano bat jasan nezan!” Gure alemanak dakuskigu, ardoan itoak, beren gudalategi, ezagutitz eta mailaz oroitzen,

nec facilis victoria de madidis, et

Blæsis, atque mero titubantibus ²⁴.

Ez nukeen hain mozkorraldi barren, hatsankatu eta pisuan sinetsiko, historietan hau irakurri ez banu: Atalok afaltzera gonbidaturik, laido nabarmen baten egiteko, gero gauza beragatik Filipino, Makedoniako errege -bere nolakotasun ederrez, Epaminondasen etxean eta lagungoan hartua zuen hazkundearen lekukotasuna ematen zuen errege- hil zuen Pausanias bera, hainbeste edanarazi zion non utzi ahal zien bere edertasuna, sentimendurik gabe, sasiko puta baten gorputza bezala, mandazainei eta bere etxeko morroi okaztagarri askori.

Eta ohoratzen eta bereziki estimatzen dudan andere batek aipatu didana: Bordeletik hurbil, bere etxea den Kastres aldean, herrixkako emazteki alargun batek, omen

garbikoa, haurdunaldiaren lehen itzaluneak sentituz, auzokoei esaten zien izorraldian zela pentsatuko zuela senarrik balu. Baina, egunetik egunera gogoan behartze horren aldia haziz eta, hondarrean, agertzeraino, iragarri zuen bere elizako predikuan agintzen zuela ekintza horren egilearen barkamena, aitortu bazuen, eta, on iruditzen bazitzaion, harekin ezkonduko zela. Bere nerabe laborari gazte batek, iragarpen horrek sustaturik, aitortu zuen aurkitu zuela, jai egun batez, bere ardoa ausarki edanik, hain pisuki lokartua sutondoan, eta hain lizunki, non hartaz baliatu ahal baitzen, iratzarri gabe. Oraino bizi dira elkarrekin ezkonduak.

Egia da zaharraroak ez duela gogorki gaitzetsi bizio hau. Filosofo anitzen idazkiak beraiek aski bigunki mintzo dira hartaz; eta, estoikoen artean ere, badira ausarki edatera noizean behin uztea aholkatzen dutenak, eta gogoaren lasatzeko mozkortzea:

Hoc quoque virtutum quondam certamine, magnum

Socratem palmam promeruisse ferunt ²⁵.

Katoni, besteen orraztaile eta zuzentzaile horri, ausarki edateagatik erantzuki egin izan zaio,

Narratur et prisci Catonis

Sæpe mero caluisse virtus ²⁶.

Ziro, hain errege aipatuak, bere beste laudorioen artean aipatzen du, Artaxerxes anaiaren aurrean bere buruaren hobesteko, hark baino anitzez hobeki zekiela edaten. Eta erresuma hobekien arautu eta antolatuetan, hainbeste edateko entseiu hau oso erabilia zen. Silviori²⁷, Parisko sendagile bikainari entzun diot esaten, gure urdailaren indarrak alfer ez daitezen, on dela, hilabeteen behin, haien ernatzea eta bizkortzea soberakin horren bidez, moteltzetik begiratzeko²⁸.

Eta idazten da persiarrak, ardoaren ondotik, beren eginkizunik nagusienez solasean zeudela.

Nire gustu eta gorpuzkera bizio horren etsaiagoa da nire arrazoa baino. Zeren, aitzineko iritzien manupean nire sinesmenak errazki estekatzen ditudanez landara, aurkitzen baitut oso bizio ihabali eta zozoa, baina besteak, gizarte publikoa kasik erdiz erdi kontraktotzen baitute, baino maltzurkeria eta kalte gutiagokoa. Eta, dioten arabera, geure buruari ez badiezaiokegun zerbait kostatzen ez zaigun atseginik eman, uste dut bizio hau gutiago kostatzen zaiola gure kontzientziari besteak baino; gainera ez da antolaketa gaitzekoa ez hatzematuko zaila, ez baita gogoeta gaitzesgarria.

Handitasun eta adinean gizon aurreratu batek, bizian gelditzen zitzaizkion eta esaten zizkidan hiru erraztasunen artean, bazeukan hau. Baina gaizki hartzen zuen. Finezia eta ardoaren hautatze axolatia baztergarriak dira hor. Finkatzen baduzu atsegina ardo gozoaren edatean, noizean behin zeure burua behartzen duzu gozorik gabearen edateko atsekabera. Gustua laxo eta libreago izan behar da. Edale on izatekotan, ez da hain ahoxuria izan behar. Alemanek ardo orotarik kasik berdinki edaten dute atseginaz. Haien helbura irenstea da gustatzea baino gehiago. Askoz ere merkeagoa zaie. Haien atsegina anitzez nasai eta eskuragarriagoa da. Bigarrenik, frantses eraz edatea, bi janaldietan eta zuhurki, osasunaren beldurrez, Jainko horren faboreen sobera neurtzea da. Denbora eta iraupen gehiago behar da. Aitzinekoek gau osoak ematen zituzten ariketa horretan, eta maiz egunak gehitzen ere. Egunerokoa, bada, zabal eta gotorrakoa eraiki behar da. Neure denborako jaun handi bat ikusi dut, eginkizun handi eta arrakasta aipatuko pertsonaia, eginahalik gabe eta bere janaldi arruntetan, doi bost lot²⁹ ardo baino gutiago edaten ez zuena; eta handik aurrera zuhur eta adituegia baizik ez zen agertzen gure eginkizunetan. Gure biziaren iragaitean kontutan hartu nahi dugun atseginak alde gehiago erabili behar du. Botikako morroiek eta langileek bezala, edateko gertaldirik ez litzateke errefusatu behar, eta beti buruan eduki txirrinta hori.

Badirudi egunero laburtzen dugula horren erabilera; eta gure etxeetan, neure haurtzaroan ikusi dudanez, otorduak, askariak eta afariak orain baino maiz eta arruntagoak izaten zirela. Gauza zerbaitetan hobetze aldera goazela ote litzateke? Ez, egiazki. Baina lizunkeriara gure arbasoak baino emanagoak garelako. Beren indarretan elkar oztopatzen duten bi ariketak dira. Alde batetik gure urdaila ahuldu du eta, bestetik, janurriak maitasuneko lehiakoi eta andderetuago bilaka gaitezen balio du.

Miresgarri da zein ixtorioak entzun dizkiodan neure aitari entzun dizkiodan kontuak bere mendeko kastitateaz. Berari zegokion esatea, andereekiko harremanetarako, izaeraz eta antzez, biziki gaia izanez. Gutxi eta ongi mintzatzen zen; eta bere mintzaira liburu arruntetako apaindura zerbaitez nahasten zuen; liburu espainolak, oroz gain; eta, espainolen artetik, ohi zitzaion beraiek Marko Aurelio³⁰ deitzen dutena. Larritasun ezti, apal eta xume baten begitartearen zeukan; bere buruaren eta jantzien zintzo eta gisakotasunezko ardura berezia, bai oinez nola zaldiz. Bere hitzetan zintasun izigarria, kontzientzia eta erlijioa sineskeriara gehinean isuriagoak beste edozein jomugara baino. Tailu laburreko gizon batentzat, indarrez betea eta garaiera zuzen eta ongi arautukoa. Aurpegi atseginakoa, beltzarana. Ariketa noble guztietan antzetsu eta gaitua. Oraino ikusi ditut kanabera berunez beteak, haiekin besoak bizkortzen omen baitzituen barra edo harriaren botatzen prestatzeko, edo esgriman, eta oinetako zola beruneztatuak lasterrean eta jauzian arintzeko. Oldetasunean, mirakulu txikiak utzi ditu oroimenean. Ikusi dut, hirurogei urtetarik harat, gure alaitasunez burlatzen, bere jantzi harroekin zaldi baten gainera jauzitzen, mahaiaren itzultzen bere behatzaren gainean, bere gelara ez joaten hiruzpalau maila jauzi egin gabe. Nioenari buruz, zioen herrialde oso batean doi bazegoela omen txarreko aitoralaba bat; pribazitate bitxiak aipatzen zituen, bereak bereziki, andere zintzoekin batera gogoan behartzerik gabe. Eta, bere buruaz, sainduki zin egiten zuen birjina etorri zela bere ezkontzara; gainera, parte hartu zuen luzaz mendiz haraindiko gerretan, haietaz utzi baitigu bere eskuzko egunkari bat gertatu zenari jarraikiz xehetasunez xehetasun, jendearentzat eta beretzat.

Halaber ezkondu zen adinean oso aitzinaturik, 1528 urtean -bere hogeita hamahirugarrenean-, Italiatik itzultzearekin. Itzul gaitezen geure botiletara.

Zahartzaroko gaitzek, laguntza eta freskagarri zerbaiten beharra baitute, arrazoiarekin sortaraz liezadaketan ahalmen horren nahia; zeren kasik urteen iragaiteak ebasten digun azken atsegina baita. Bero naturala, diote adiskide onek, oinetan hartzen ohi da lehenik; hori haurtzaroari dagokio. Hortik erdiko eskualdera igaiten da, non eta luzaz finkatzen baita eta eragiten baititu, ene irudiko, gorputzezko biziaren zinezko atsegin bakarrak; gainerako plazerrak lotan daude haren ondoan. Azkenean, goratzen eta bafatzen doan laino baten moduan, zintzurrera iristen da, non eta bere azken pausa egiten baitu.

Ez dut, hala ere, aditzen ahal edateko atsegina nola hedatzen den egarriaz haraindi luzatzeraino, eta irudimenean naturaren aurkako aiher moldatu baten egiteraino. Nire urdaila ez doake haraino; lanik aski baitu beharrerako hartzen duenaren bururatzeke. Nire jitea edateaz ez axolatzea jatearen jarraipenerako baizik da; eta horregatik kasik beti edaten dut handiena azken klikaldia. Anakarsis harritzen zen grekoek edaten zutelako bazkarien azkenaldean hasieran baino edalontzi handiagoetan. Nire ustez, alemanek hori berori dagiten arrazoi beragatik zen, orduan hasten baitira hainbat edateko gudaldian. Platonek hurrei debekatzen die ardoaren edatea hemezortzi urteak baino lehenago, eta mozkortzea berrogeiak baino lehen; baina, berrogeiak gauditutik dituztenei, manatzen die hartaz laketzea; eta nasaiki nahastea beren oturuntzetan Dionisioren eragina, gizonei alaitasuna bihurtzen dien jainko ona, eta gaztetasuna agurei, gogoaren pasioneak eztitzen eta biguntzen dituen, burdina sutan biguntzen den bezala. Eta bere legeetan baliagarritzat dauzka horrelako edale batzarreak (buruzagi bat izanez geroz, zuzentzeko eta arautzeko), mozkorraldia baita bakoitzaren izaeraren froga

on eta egiazkoa, eta aldi berean egokia adineko jendeei dantza eta musikan pozteko kuraiaren emateko, gauza onak eta sosegutan egitera ausartzen ez direnak. Ardoa gogoari neurtasun eta gorputzari osasunaren emateko gai baita. Hala ere, atsegin zaizkio zatiz kartagotarrei hartu debeku hauek: begira dadin gudaldietan; kargudun eta epaile orok utz dezala bere karguaren egiteko eta eginkizun publikoen erabakitzeke aldian; ez diezaiola eman eguna, beste eginbeharrei baitagokie, ez haurren sortzeko xedatu den gaua ere.

Badiote Estilpo filosofoak, zaharreriaz larriturik, ardo hutsaren edateaz lehiatu zuela berariaz bere amaiera. Kausa berdinak, baina ez bere nahiaz, adinak akitu Arkesilao filosofoaren indarrak ito zituen.

Baina eztabaida zahar eta jostakaria da jakintsuaren arima menara ote lezakeen ardoaren indarrak

Si munitæ adhibet vim sapientiæ ³¹.

Zenbat hutsalkerietara garamatzan geure buruaz dugun iritzi on honek! Munduko gogorik arautuenak sobera lan du zutik irauteko eta bere buruaren zaintzeko lurrera joatetik bere ahuleziaz. Miletarik, ez da bat bere biziaren instant batez zuzen eta jarria denik; eta dudatan ezar liteke, haren izaeraren arabera, inoiz ere ote daitekeen. Baina iraupenaren gehitzea haren azken betegina da; eta hori diot deusek kordokatzen ez duenean, mila ustekabek egin dezaketena. Lukrezio, poeta handi hura, alferrik ari da filosofatzen eta azkartzen, horra amodiozko edabe batek erotua³². Uste ote dute apoplexia batek ez duela Sokrates burxoratzen zamakari bat bezainbat? Batzuk beren izena bera ahantzi dute gaitzaldi baten indarrak, eta zauri arin batek adimena irauli die besteei. Nahi bezain zuhurra, baina ororen buru gizon bat da: zer da erorkor, dohakabe eta ezteusagorik? Zuhurtziak ez ditu gure baldintza naturalak goratzen:

Sudores itaque et pallorem existere toto

Corpore, et infringi linguam, vocemque aboriri,

Caligare oculos, sonore aures, succidere artus,

Denique concidere ex animi terrore videmus ³³.

Begiak kliskatu behar ditu mehatxatzen duen ukaldian; ikaran egon behar da erroitz baten ertzean, haur bat bezala; Naturak beretzat eduki nahi izan dituelarik bere manu-indarraren ezaugarri arin horiek, gure arrazoiarentzat eta bertute estoikoarentzat menperaezinak, haren hilkortasunaren eta gure ezteuskeriaren irakasteko. Beldurrez histen da, ahalkez gorritzen; aieika da sabelmin baten ziztadan, ahots etsitu eta ozen batez ez bada ere, bederen ahots hautsi eta erlastu batez,

Humani a se nihil alienum putet ³⁴.

Poetak, beren ofizioan dena itxuratzen baitute, ez dira beren heroien malkoez libratzera ere ausartzen:

Sic fatur lachrymans, classique immittit habenas ³⁵.

Askiets beza haren aiherren bridatzea eta neurtzea, zeren meneratzea ez baita bere baitan. Gure Plutarko hau bera, giza ekintzen hain epaile hauta eta bikaina, Bruto eta Torkuato beren semeen hiltzen ikustearekin, zalantzan sartu da bertutea haraino eman ote daitekeen, eta pertsonaia horiek ez ote ziren beste pasione batek inarrosiak izanak. Ohizko mugez haraindiko ekintza guztiak itzulpen makurren gaiak dira, zeren gure gustua ez baitagokio bere gainean denari azpian denari baino gehiago.

Utz dezagun burgoitasunaren aitorkuntza egiten zuen beste alderdi hori. Baina, beratzena jotzen ohi den alderdian berean, Metrodororen goresmen hauek aditzen ditugunean: “Occupavi te, Fortuna, atque cepi; omnesque aditus tuos interclusi, ut ad me aspirare non posses”; Anaxarkok, Nikokreon Txipreko tiranoak manaturik, harrizko ontzi batean etzanik eta burdinezko mailu ukaldika zanpaturik, etengabe dioenean:

“Jo, hauts ezazue, ez duzue Anaxarko baina haren estalia errausten duzuenaz”; gure martiriak aditzen ditugunean garraren erdian tiranoari oihuka: “Aski erre duk alderdi honetarik, zehaka ezak, jan ezak, egina duk, has berriz bestetik”; Joseforen baitan aditzen dugunean haur hori, suhartz ausikitzailak osoki zehakaturik eta Antiokoren ziriek zulaturik, oraino desafiatzen, ahots azkar eta berme batez: “Tiranoa, denbora galtzen duk, hona nauk oraindik gustuan; non da min hori, non mehatxatzen hizkidan oinazeak? besterik ez dakik? neke gehiago ematen dik ene iraupenak hire basakeriak sentitzen dudana baino: oilo busti ezteusa! hik amore ematen duk eta ni gotortzen nauk; kexa, kordoka, errendiaraz nazak, ahal baduk; kuraia eman heure morroi eta borraroei; horra dituk hatsankatuak, ez zezaketek gehiago; arma, susta itzak”; -egiazki, aitor behar da arima horietan aldakuntza eta gaitzaldiren bat badela, nahi bezain saindua bada ere. Ateraldi estoiko hauetara iristen garenean:”Nahiago dut haserre izan atsegingose baino”, Antistenesen hitza: Μᾶνεῖεν μᾶλλον ἢ ἡθεῖεν; Sestiok dioskunean nahiago duela oinazeak harrapatua izan atseginak baino; Epikuro entseiatzen denean hezurrerian laketzen, eta, atsedena eta osasuna errefusatzuz, bihotz alaiez gaitzak desafiatzen dituenen, eta, garraztasun gutiagoko minak gaitzetsiz, haiekiko gatazka eta borroka gutiatsiz, deitzen eta nahi dituenen bizkorrak, ziztagarriak eta bere buruaren gaiak, Spumantemque dari pecora inter inertia votis

Optat aprum, aut fulvum descendere monte leonem ³⁷,

nork ez du uste bere lekutik landara ateraita den kuraia baten jauziak direla? Gure gogoak ez lekike bere jarlekutik hain gora jotzen. Utzi behar du eta goiti joan, eta, ahokoa hortzetan harturik³⁸, eramanez eta antzaldatu hain urrun, non gero bera harrituko baita bere ekintzaz; gerrako hertsaldietan bezala, guduaren beroak maiz daramatza soldadu bihoztoiak hain menturazko urratsen egitera, non beren baitaturik harrituraz ikaritzen baitira lehenak; nola poetak ere askotan miresmenak joak izaten baitira beren lanez eta ez dazagute gehiago hain abialdi ederrean iragan bidea. Hori da haien baitan garra eta zoramena deitzen dena. Platonek dioten bezala alferrik jotzen duela poesiaren atean gizon zentzudun batek, halaber dio Aristotelesek gogo bikainik batere ez dela zoraldi nahasmenik gabea. Eta arrazoiak dauka zoraldia deitzeko burutik joanaldi orori, hain goresgarria bada ere, gure zentzu eta adimena gainditzen baditu. Zeren zuhurtzia gure gogoaren erabilpen arautu bat baita, neurritz eta heinean zuzentzen baitu, eta bere buruaren erantzule baita.

Platonek argudiatzen du ere aztiatzeko ahalmena gutaz goiti dela; gutaz kanpo egon behar garela darabilgunean; gure zuhurtasuna loak edo gaitzaldi batek ilundurik egon behar da, edo zeruko liluraldi batek bere jarlekutik eramana.

III

Zea irlako ohitura

Filosofatzea, dioten bezala, dudatzea baldin bada, arrazoi handiagoan arinkeriatan eta ameskerietan ibiltzea, dagidan bezala, dudatzea izan behar da. Zeren ikasleak baitagokie galdegitea eta eztabaidatzea, eta katedradunari argitzea. Nire katedraduna jainkoen borondatearen manu-indarra da, ukatzerik gabe zuzentzen gaituena eta bere maila duena giza erantzute hutsal hauen gainetik.

Filipo Peloponeson armen indarrez sarturik, norbaitek Damidasi esaten zion lakedemoniarrek pairatzeko anitz ukanen zutela haren graziara meneratzen ez baziren: “Beldurtia, erantzun zuen, zer paira dezakete heriotzaren beldur ez direnek?” Agisi ere galdegiten zitzaion nola bizi litekeen gizon bat libre: “Hiltzea gutiatsiz”, zioen. Solas hauek eta horri buruz aurkitzen diren mila berdinek ageriki adierazten dute heriotzaren, datorkigunean, pazienki igurikatzea baino zerbait gehiago. Zeren bizian baitira heriotza bera baino ezbehar makurrakorik asko. Antigonek hartu eta morroitzat saldu haur lakedemoniar hura lekuko, bere nagusiak hertsaturik zerbitzu okaztagarri baterako:

“Ikusiko duk erosi duana zioen; ahalke nindukek zerbitzeaz, libertatea hain eskuar dudalarik.” Eta hori esanik, etxetik behera bota zuen bere burua. Antipatrok lakedemoniarrak garrazki mehatxatzen zituela bere eskaera baten menera erakarri nahian: “Heriotza baino gaitzago denarekin mehatxatzen bagaituk, erantzun zuten, gogotikago hilen gaituk” Eta Filipori, idatzi baitzien haien eginkizun guztiak eragotziko zituela: “Zer! Hiltzetik ere eragotziko gaituk?”. Esaten dena, jakintsua bizi dela behar duen artean, ez nahi duen artean; eta naturak egin digun emaitzarik faboragarriena eta gure egoeraz kexatzeko bide oro kentzen diguna, ihesbidearen uztea da. Bizirako sarrera batez baizik ez du manatu eta ehun mila aterabide. Bizitzeko lurgabezia izan dezakegu, baina hiltzeko ez dezakegu lurgabeziarik izan, Boiokatok erromatarrei ihardetsi bezala. Zergatik kexatzen haiz mundu honetaz? ez zatzikik: penan bizi bahaiz heure nagikeriagatik duk; hiltzeko aski duk nahi izatea:

Ubique mors est: optime hoc cavit Deus

Eripere vitam nemo non homini potest;

At nemo mortem: mille ad hanc aditus patent ³⁹.

Eta ez da eritasun bakarreko erremedioa: heriotza gaitz ororen erremedioa da. Portu bat da hagitz segurtatua, sekula ez beldurtzeko, eta maiz bilatzeko dena. Oro batera doa, gizonak bere buruari azkenaren ematea, edo haren jasatea; bere egunaren aldera lasterrari ematea, edo haren beha egotea: nondiknahi heldu bada ere, beti berea da; nonnahi ere hausten bada haria, hor da dena, matazaren azkena da. Heriotzarik nahietsiena, ederrena da. Bizitza besteren nahian datza, heriotza gurean. Ezertan ez gara geure oldeari egokitu behar horretan baino gehiago. Omenak ez dio eragiten halako eginkizunari, erokeria da haren begirunea izan. Bizitzea zerbitzatzea da, hiltzeko libertateak huts egiten badu. Sendakuntzaren abiatze arrunta gauzatzen ohi da biziaren bizkar; ziztatzen, txokarratzen gaituzte, gorputzadarrak mozten, janaria eta odola kentzen; urrats bat gehiago, hona erabat sendatuak. Zergatik ez da zintzurreko zaina gure erabilerarako ukondokoa bezainbat⁴⁰? Gaitzik azkarrenei erremediorik azkarrenak. Servio gramatikoak, hezurreria ukanik, ez zuen pozoinaren hartzea eta bere zangoen hiltzea baino bide hoberik aurkitu. Izan zitezen hezurreriak beren lekuan, sentimendurik gabe ziren ber! Baimenik aski ematen digu Jainkoak, halako egoeran ezartzen gaituenean non bizitzea hiltzea baino makurragoa baitzaigu.

Gaitzei amore ematea ahulkeria da, baina haien haztea erokeria da.

Estoikoek diote zuhurarentzat naturaren arabera bizitzea dela bizitzatik abiatzea, zorian osoan izanik ere, tenore egokian egiten baldin badu; eta zoroarentzat berearen iraunaraztea, dohakabea izanik ere, naturaren arabera esaten dituzten gauzarik gehienetan dohakabea baldin bada.

Neurea daramadanean eta neure moltsa xahutzen dudanean, ebasleen aurka egin legeak ofendatzen ez baititut, ez eta suemaileen aurkakoak neure egurra erretzen dudanean: halaber ez dagozkit erahileen aurka egin legeak neure bizia kentzeagatik.

Hegesiasek zioen, bizimodua bezala, heriotza-modua ere gure hautaketaren arabera izan behar zela.

Eta Diogenesek, Speusipo filosofoa aurkiturik, hidropesiak luzaz joa bere burua andetan eraman arazten baitzuen, oihukatzen ziolarik: “Gorantziak, Diogenes! –Hiri goraintzirik ez, erantzun zion, bizitza pairatzen baituk, horrelako egoeran”.

Zinez, handik labur, Speusipok bere burua hil zuen, hain bizimodu nekagarriaz asperturik.

Hau ez doa kontrasterik gabe. Zeren anitzek baitiote ez dugula munduko gotorleku hau uzten ahal ezarri gaituenaren baimen garbirik gabe; Jainkoari dagokiola, hona igorri baikaitu ez geuretzat bakarrik, baina haren osperako eta besteren zerbitzurako, baimenaren ematea nahi duenean, eta ez guri horren hartzea. Ez garelako geuretzat sortu

baina geure herriarentzat ere. Legeek gure kontua eskatzen digute beren interesarako, eta badaukate erahiltzeko boterea gure aurka; areago ere, gure egitekoaren ihesleak bezala, zigortuak gertatzen gara mundu honetan eta bestean:

Proxima deinde tenet mœsti loca, qui sibi lætum

Insontes peperere manu, lucemque perosi

Projecere animas ⁴².

Askoz ere bermetasun gehiago da datxikigun katearen erabiltzean ezen ez haren haustean, eta gotortasun froga gehiago dela Reguloren⁴³ baitan Katonengan baino. Jakin nahiak eta ezinegona da urratsa arintzen diguna. Bertute hutsari inolako gorabeherak ez dio bizkarra emanarazten; gaitzak eta mina bilatzen ditu bere janaria bezala. Tiranoen mehatxuek, oinazeek eta borreroek sustatzen eta bizkortzen dute:

Duris ut ilex tonsa bipennibus

Nigræ feraci frondis in Algido

Per damna, per cædes, ab ipso

Ducit opes animumque ferro ⁴⁴.

Eta besteak dioen bezala:

Non est, ut putas, virtus, pater,

Timere vitam, sed malis ingentibus

Obstare, nec se vertere ac retro dare ⁴⁵

Rebus in adversis facile est contemnere mortem:

Fortius ille facit qui miser esse potest ⁴⁶.

Lazokeriaren egitekoa da, eta ez bertutearena, zulo batera joatea gordetzera, harlausa lodi baten azpian, zoriaren ukaldietarik itzurtzeko. Hark ez du bere bidea ez bere abialdia eteten datorkion erauntsiagatik,

Si fractus illabatur orbis,

Impavidam ferient ruinæ ⁴⁷.

Eskuarki, beste eragozpenetarik ihes egiteak bulkatzen gaitu honetara; eta inoiz ere heriogandik ihes egiteak harengana lasterkarazten gaitu,

Hic, rogo, non furor est, ne moriari, mori ⁴⁸?

erroitzaren beldurrez hartara beren burua botatzen dutenak bezala:

multos in summa pericula nisit

Venturi timor ipse mali; fortissimus ille est,

Qui promptus metuenda pati, si cominus instent,

Et differre potest ⁴⁹

Usque adeo, mortis formidine, vitæ

Percipit humanos odium, lucisque videndæ,

Ut tibi consciscant mœrenti pectore lethum,

Obliti fontem curarum hunc esse timorem ⁵⁰.

Platonek, bere Legeetan, hilobiratze laidogarria manatzen du bere adiskide hurbil eta minena, bere burua baita, biziaz eta halabeharraren bidez gabetu duenarentzat, auzi publikoak ez zoriaren ezbehar ilun ezinbesteko batek ez ezinjasanezko ahalke batek behartua ez bada, baizik eta gogo beldurti baten nagikeriak eta ahulkeriak. Eta gure bizia gaitzesten duen iritzia irrigarria da. Zeren, azkenean, gure izatea da, eta gure osoa. Izate noble eta aberatsago bat duten gauzek gutiesten ahal dute gurea; baina naturaren aurka da geure buruaren gutiespen eta gaitzespenari lotzea; eritasun berezia da, beste edozein izakitan ikusten ez dena, bere buruaren gorrotoa eta arbuioa. Hutsalkeria berdina da garenaz beste nahi izatea. Halako nahiaren mozkina ez dagokigu, bere burua kontresaten eta trabatzen duen ber. Gizonetik aingeru bilakatu nahi duenak ez du bere

alde deusik egiten, ez litzaioke hoberako izanen. Zeren, gehiago ez izanik, nor alaituko eta sentituko da, haren orde, hobetze horretaz?

Debet enim, misere cui forte ægreque futurum est,
Ipse quoque esse in eo tum tempore, cum male possit

Accidere ⁵¹

Heriotzaren saritan erosten dugun bizi honetako segurantz, nagitasuna, soraiotasuna eta gaitzik gabeziak ez dakarkigu erraztasunik batere. Alferrik itzurtzen da gerratik bakeaz goza ez dezakeena; eta alferrik itzurtzen da neketik, pausa zertaz dasta ez daukana.

Lehen aburuko artean, zalantza handia izan da honi buruz: Zein dira aski aldi zuzenak gizon baten sarrarazteko bere buruaren hiltzeko erabaki honetan? Horri deritzote ενλογον εξαγωγην ⁵². Zeren, nahiz badiote ere maiz hil behar dela kausa arinengatik, bizi edukitzen gaituztenak ez baitira aski gotorrak, neurri zerbait behar baita. Badira ametsezko oldeak eta arrazoi gabeak beren buruaren suntsitzera bulkatu dituztenak ez bakarrik gizon bereziak baina jendaldeak ere. Honen aitzinean aipatu ditut adibideak; irakurtzen dugu, gainera, birjina milesiarrei buruz, azpiakordio zoro batengatik, batzuek besteen ondotik beren burua urkatzen zutela, harik eta kargudunak behar zuena egin zuen arte, manatuz horrela urkaturik aurkituko zirenak kaprestu beretik herrestan ibiliak izan zitezen, biluz gorritan, hirian barrena. Treizionek Kleomenesi predikatzen diolarik bere burua hil dezan, bere egitekoen egoera txarragatik, eta, galdu berri zuen guduan heriotza ohoragarriagotik itzuririk, onar dezan ohoretan bigarren mailako den beste hau, eta ez eman garaileari heriotza edo bizi ahalkegarri baten jasanarazteko aldirik, Kleomenesek, kuraia lakedemoniar eta estoiko batez, gaitzesten du aholku hori laxo eta andderetua bezala: "Sekula huts egin ez diezadakeen erremedioa da, zioen, eta esperantza bihi bat dagoen bitartean baliatu behar ez dena; bizitza batzuetan baita iraupen eta suhartasun; nahi duela bere heriotza bere herriaren alde izan dadin eta hartaz egin ohore eta bertutezko ekintza bat." Treizionek bere burua lehertu eta hil zuen berehala. Kleomenesek beste hainbeste egin zuen gero; baina zoriaren azkenara entseiatu ondoan izan zen. Eragozpen guztiek ez dute balio hil nahi izatea haietarik itzurtzeko.

Eta gero, giza gauzetan hainbat aldakuntza delarik, zail da epaitzea zein alditan garen zuzenki geure esperantzaren azkenean:

Sperat et in sæva victus gladiator arena,

Sit licet infesto pollice turba minax ⁵³.

Gauzak oro, dio esaera zahar batek, igurikagarriak zaizkio gizon bati bizi den artean. "Bai, baina, baderantzu Senekak, zergatik hartuko dut gogoan gehiago hori: zoriak dena badezakeela bizirik denarentzat, hau baino: zoriak ez dezakeela deus hiltzen dakienaren gainean?" Josefo ikusten da hain peril ageri eta hurbilean, herri oso bat haren kontra goraturik, non, arrazoigarriki, ez baitzezakeen batere aterabiderik ukan; hala ere, adiskide batek aholkaturik horri buruz, berak dioen bezala, bere burua hil zezan, ongi baliatu zitzaion oraino ere esperantzan tematzea; zoriak ingurikatu baitzuen, giza arrazoi ororen gainetik, ez behar hori eta libratua gertatu zen eragozpenik gabe. Kasiok eta Brutok, aitzitik, osoki galdu zituzten libertate erromatarraren erlikiak, zaindaria baitziren, aldia eta ordua baino lehen beren burua hil zuten lehia eta ausarkeriagatik. Ikusi ditut ehun erbi ihes egiten erbi-zakurren hortzen azpitik. "Aliquis carnifici suo superstes fuit".

Multa dies variusque labor mutabilis ævi

Rettulit in melius; multos alterna revisens

Lusit, et in solido rursus fortuna locavit ⁵⁵.

Pliniok dio hiru eritasun-mota direla bakarrik bere buruaren hiltzeko zuzenbide ezinukatuzkoa daukatenak; orotan garratzena, harria pizontzian gernua eragotzia delarik⁵⁶. Senekarentzat, soilik gogoaren ofizioak luzaz nahasten dituztenak.

Heriotza makurrago batetik itzurtzeko, badira ziren lekuan hartu behar dela uste izan dutenak. Demokrito, etoliarren buruzagiak, Erromara preso eramanez, gauaz aurkitu zuen ihes egiteko bidea. Baina, bere zaindarien jarraikirik, berriz harrapatzea utzi baino lehen, ezpataz trebeskatu zuen bere gorputza.

Antinook eta Teodotok, beren Epiroko hiria erromatarrek azkeneraino beharturik, jendeari prediku egin zioten denek beren buruaren hiltzeko; baina errenditzeko aburuak irabazi baitzuen, herioaren bila joan ziren, etsaiengana laster eginik, jotzeko eta ez gerizatzeko asmotan. Gozeko irla turkiarrek bortxaturik, duela urte zenbait, bi alaba eder ezkontzekotan zeuzkan siziliar batek bere eskuaz hil zituen eta haien ama gero, haien heriotzera heldu zelarik. Hori eginik, balezta eta arkabuz batekin karrikara ateratzen, bi ukaldiz hil zituen bere atera hurbildu zitzaizkion lehen bi turkiarrak, eta gero, ezpata eskuan, borrokara joan zen bortizki, non eta bapatean inguratua eta zehakaturik izan baitzen, morrointzatik bere burua salbatuz bereak hortik libratu ondoren. Emakume juduak, beren haurrak zirkuntzidarazi eta gero, beraiekin batean egozten ziren, Antiokoren krudelkeriatik itzuriz. Aipatu didate etxe oneko preso bat gure garteletan egonik, haren gurasoek, segurki kondenatua izanen zela jakinik, halako heriotzaren ahalketik ihes egin nahian, apez bat igorri ziotela esan ziezaion bere libertaterako erremediorik gorena zela halako sainduari gomenda zedin, holako eta halako otoitzekin, eta zortzi egunez egon janaririk batere hartu gabe, zernahi ahultze eta aldixartze sentitzen bazuen ere. Sinetsi zuen eta bide horretarik libratu zen, horretan gogoetatu gabe, bere biziaz eta galbidez. Eskribaniak, bere iloba Libori aholkatuz bere burua hil zezala zuzenbidearen eskuari beha egon baino lehen, esaten zion zinez besteren eginkizunaren egitea zela bere biziaren iraunaraztea hiruzpalau egunen buruan haren bila etorriko zirenen eskuetan ezartzeko, eta bere etsaien zerbitzatzea zela bere odolaren gordetzea haiek sarraskia egin zezaten.

Biblian irakurtzen da Nikanor, Jainkoaren legearen jazarleak, Rasias, bere bertutearen ohoreaz “juduen aita” goitizendatu agure onaren atzemaiteko bere nerabeak igorririk, nola gizon on horrek ez baitzuen antolabiderik ikusi, bere atea erre eta etsaiak haren hartzeko prest, gaiztoen eskuetara jo eta bere mailako ohorearen aurka zakur gisa erabiltzera utzi baino lehen, eskuzabalki hiltzea hautetsiz, ezpataz jo zuela bere burua; baina ukaldia, lehiaz, ez izanik ongi zertua, lasterka joan zen harresi batetik behera egozteko gudalostearen erditik, eta hau baztertu eta lekua utzirik, buruaren gainera zuzen erori zela. Horrekin ere, bizi hondar zenbait sentituz, kuraia berpiztu zuen, eta, berriz zutiturik, osoki odolatan eta ukaldiz zamakaturik, harrapatzetik itzuriz, burkaitz bateraino heldu zen eta, gehiago ezinik, zauri batetik hartu zituen bere erraiak bi eskutara, urratuz eta marruskatuz, egotzi zituen jazarleen erdira, haien gainera deituz Jainkoaren mendekua.

Kontzientziari egiten zaizkion bortxaketetan, baztergarriena, nire ustez, emakumeen kastitateari egiten zaiona da, hainbat nola baita gorputzezko atsegin zerbait artetik nahasirik; eta, honengatik, kontrako oldartzea ez daiteke aski osoa izan, eta badirudi indarra nahikunde zerbaitekin nahasten dela. Pelagia eta Sofronia, kanonizaturik biak, hura ibaira egotzi zen bere ama eta ahizpekin soldadu zenbaiten bortxatik itzurtzeko, eta honek bere burua hil zuen ere Maxentzio enperadorearen indarretik itzurtzeko. Elizako historiak ohoretan dauzka debozioko pertsonen halako adibideak, herioa deitu zutelako berme bezala tiranoek haien kontzientziarako prestatzen zituzten laidoen aurka.

Menturaz ohoragarria izanen zaigu etorkizuneko mendeen aitzinean aro honetako jakintsu bat, paristarra zehazkiago, gure mendeko anderee sinestarazteko neketan

sartzen dela, halako etsipenaren aholku ikaragarrian sartu baino lehen oso alderdi ezberdin hartu behar dutela. Damu dut jakin ez baitu, bere argudioen emendatzeko, Tolosan, soldadu zenbaiten eskuetarik iragan emakume batengandik ikasi nuen ateraldi ona: “Lauda bedi Jainkoa, zioen, gutienez neure bizian behin ase bainaiz bekaturik gabe!”

Egiazki, basakeria hauek ez dagozkio eztitasun frantsesari; hala, Jainkoari esker, gure airea ezinago garbitua aurkitzen da aholku on horren ondotik; aski da ezetz esan dezaten dagitenean, Marot⁵⁷ onaren arauari jarraikiz.

Historia osoki betea da, mila modutan, bizi nekagarri bat heriotzarako aldatu dutenez.

Luzio Aruntiok bere burua hil zuen, zionez, iragan eta etorkizunetik ihes egiteko.

Granio Silvanok eta Estatio Proximok, Neronek barkatu eta gero, beren burua hil zuten, edo halako gizon gaiztoaren faboreaz ez bizitzeko, edo berriz bigarren barkamen baten neketan ez izateko, jende onari buruz gogoan behartze eta salaketentzat haren erraztasuna ikusirik.

Espargapizes, Tomiris erreginaren semea, Zioren gerrako presoan izanik, honek egin zion laxatzeko lehen faboreaz baliatu zen bere buruaren hiltzeko, libertatetik beste mozkinik ez baitzuen nahi hartua izanaren ahalkea bere bizkar mendekatzekoaz baizik.

Bogez, Eionan Xerxes erregeren ordeztutako agintariak, Zimonen buruzagitzapean atenastarren gudalosteak setiatuak, ukatu zuen Asiara bere ontasunekin segurantzaz itzultzeko antolabidea, bere nagusiak zaintzeko eman ziona galduz geroztik bizirik irautea ezin jasanez; eta hiria azkeneraino defendatu ondoren, jatekorik batere ez gelditzen, egotzi zuen lehenik Estrimon ibaira urre guztia eta etsaiak mozkin gehiago egin zezakeen iruditu zitzaion guztia. Eta gero, sute handi baten piztea eta emakume, haur, ohaide eta zerbitzariei lepoaren moztea manatu ondoren, sutan ezarri zituen, eta gero bere burua.

Ninatxueten, jaun indiarak, itxurazko kausarik gabe Malakan zeukan kargutik kentzeko eta Kanpareko erregeri emateko errege orde portugesaren erabakiaren lehen haizea somaturik, delibero hau bere baitan hartu zuen. Eraiki zuen taulatu bat, luzeagoa zabala baino, habeetan finkatua, erret moduan oihaleztatua eta lorez eta urrin goxoez ausarki hornitua. Gero, urre oihalezko jantzi bat, balio handiko harri bitxiez josia, ezarriarik, kanporatu zen eta mailetan goiti igan zen taulatu gainera, zoko batean baitzen usain oneko egur muku bat sutan. Jendea zetorren ikustera zertarako ote ziren ohiz kanpoko prestaketa horiek. Ninatxuetenek goraki zioen, begitarte ausart eta larri batekin, herri portugesak zor ziona; zein fidelki jokatu zuen bere karguan; besterentzat armak eskuan ohorea bizia baino anitzez ere baliosoagoa zitzaiolako lekukotasuna emanik hain maiz, bere buruarentzat ez zela ohorearen ardura uzteko prest; bere zoriak ez emanez egin nahi zitzaion laidoari kontra egiteko biderik, kuraiak bederen manatzen ziola halako gauzaren eta jendearentzat irri-solas eta bera baino gutiago balio zuten pertsonentzat garaipen izateko sentimenduaren kentzea. Hori esanik, sutara bota zuen bere burua.

Sestilia, Eskauoren emazteak, eta Paxea, Labeoren emazteak, beren senarren sustatzeko hertsatzen zituzten galbideetarik itzurtzera, nahiz ezkontzezko maitasunaren interesagatik baizik ez zuten parterik, ezinagoko beharkunde horretan adibide eta lagungotzat balio izateko gogotik sartu zuten beren bizia. Haiek beren senarren alde egin zutena, bere sorterriaren alde egin zuen Kokeio Nervak, baliotasun gutiagorekin, baina maitasun berdinekin. Lege gizon handi honek, osasun, ontasun, ospe eta enperadorearen estimu betean, ez zuen bere buruaren hiltzeko beste kausarik errepublika erromatarraren egoera dohakabeaz baizik. Fulvio, Augustoren ahaidearen emaztearen heriotzeko fineziari ez zaio deus ere gehitzen ahal. Augustok, aitortu zion sekretu inportante bat barreiatu zuela jakinik, ikustera zetorkion goiz batez beltzuri egin zion. Hura etxeratu zen, etsipenez beterik; eta zintzoki esan zion emazteari zorigaitz

horretan eroria izanik, bere buruaren hiltzera deliberatua zela. Emazteak zioen lainoki: "Zuzenik besterik ez duk eginen, nire mihiaren lazotasuna anitzetan frogaturik, ez baihaiz hartaz ohartu. Baina utz nazak nik lehenik dagidan" Eta gehiagoko solasean aritu gabe, ezpataz jo zuen bere gorputzean.

Vibio Viriok, erromatarrek setiatu zioten hiriaren salbatzeaz eta haien urrikariaz etsiturik, bere senatuaren azken deliberamenduan, helburu horretarako erabili argudio askoren ondotik, ondoriatu zuen ederrena zela zoritik ihes egitea beren eskuen bidez. Etsaiek ohoretan edukiko zituztela eta Hanibalek sentituko zuela zein adiskide fidelak utzi zituen. Aburua onartzen zutenak bere etxean antolatu afari on baten hartzera gonbidatzen zituela, non eta, ausarki jan ondoren, elkarrekin edanen baitzuten eman zitzaientetik: "Gure gorputzak oinazetarik libratuko dituen edaria, gogoak laidoetarik, begiak eta belarriak garaile hagitx krudel eta ofendatuengandik garaituek jasan behar dituzten hainbat gaitx iraingarrien sentimendutik. Manatu dut, zioen, neure etxe aitzineko su batera gure botatzeko pertsona egokiak izan daitezen, azken hatsa emana garelarik." Askok onartu zuten erabaki gora hori, inor gutik imitatu. Hogeita zazpi senatariek jarraiki zizkion eta, ardoan gogoeta mingarri horren itotzera entseiatu ondoren, afaria bururatu zuten janari hilgarri horrekin; eta, beren herriaren zorigaitza deitoratu ondoren elkar besarkatuz, batzuk etxeratu ziren, besteak gelditu ehortziak izateko Vibioaren sutan harekin batean. Eta orok izan zuten hain heriotza luzea, ardoaren lurrinak zainak harturik pozoinaren ondorioa luzatzen baitzuen, non zenbait hurbil baitziren ordu batez Kapuan etsaien ikusteko, biharamunean hartua izan baitzen, eta hain sutuki ihes egin dohakabeetan erortzeko. Taurea Jubelio, hango hiritar batek, Fulvio kontsula berreun eta hogeita bost senatariez egin zuen sarraski ahalkegarritik itzultzean, deitu zuen harroki haren izenaz, eta geldiarazirik, egin zion: "Mana ezak sarraski nazaten ere, hainbaten ondotik, heure burua goستن ahal dezaan hi baino gizon suharrago bat erahil duala." Fulviok zoro bezala gutietsirik (halaber ukanak berri baitzituen Erromatik bere erahilketaren basakeriaren kontrarioak ziren gutunak, eskuak estekatzen zizkietenak), Jubeliok jarraiki zuen: "Neure herria harturik, adiskideak hilik, eta neure eskuaz emaztea eta haurrak erahilik hondamen honen atsekabetik itzurtzeko, debekatu zaidanez geroz neure hirikideen heriotzaz hiltzea, bertutetik har dezagun bizi hastigarri honen mendekua" Eta, gorderik zeukan ezpata bat ateraz, bularretik gaindi eman zion bere buruari, kontsularen oinetan eroriz azken hatsetan.

Alexandrok setiatzen zuen hiri bat Indietan; barrenekoak, hertsatuak aurkiturik, bortizki deliberatu ziren garaipen horren atseginaz gabetu behar dutela, eta erre ziren orobat guztiak, beren hiriarekin batean, Alexandroren gizatasunagatik ere. Gerra berria izan zen: etsaiek haien salbatzeko gudukatzen, haiek beren buruaren galtzeko; eta heriotzaren segurtatzeko egiten zituzten biziaren segurtatzeko egiten ohi diren gauza guztiak.

Astapa, Espainiako hiria, erromatarrei eusteko harresiez eta defentsaz ahul baitzen, biztanleek beren aberastasun eta puskekin meta bat egin zuten plazan, eta mukuru horren gainean emakumeak eta haurrak ezarriak, egurrez eta supituki izekitzeko gaiez inguraturik, eta haietarik berrogeita hamar mutil utzirik erabaki horren gauzatzeko, ateraldi bat egin zuten non eta, beren agintzari jarraikiz, garaitu ezinean, guztiek beren burua hilarazi baitzuten. Berrogeitahamarrak, beren hirian zehar bizirik zen oro sarraskitu ondoren, eta mukuruan sua izekirik, egotzi ziren ere, beren libertate eskuzabala amaituz egoera soraioan mingarri eta ahalkegarrian baino lehen, eta etsaiei erakutsiz, zoriak nahi izan balu, edukiko zutela haiei garaipenaren ebastea kuraia ere, gabetu eta okaztagarri bilakatzeko zeukaten bezala, eta hilgarria ere, garretan zerion errearen distirak erakarririk eta metaka hurbildurik, han itoak eta erreak izan zirenentzat, ondotik zeukaten osteak haien atzerapena debekaturik. Abidearrek, Filipok

hertsaturik, berdin erabaki zuten. Baina, hurbilegitik hartuak izanik, erregek, erahiltze horren gauzatze ausartaren higuinza edukirik (naufragio eta sutara kondenatu zituzten tesoroak eta puskak bahiturik), bere soldaduak erretiratu, hiru egun eman zizkien astiz elkarren hiltzeko; edozein etsaiezko krudelkeriaz haratagoko odolez eta sarraskiz bete baitzituzten; eta ez zen bere buruaren gain ahalmen zeukan inor salbatu.

Jendalde osoen amaitze berdinen adibide mugagabeak dira, garratzagoak baitirudite ondorioa orokorragoa den ber. Ez dira jende berezienak bezain garratzak. Hitzaldiak nor bakoitzaren baitan eginen ez lukeena badagi ororen baitan; elkargoaren garra aburu bereziak eramaten baititu.

Erahiltzea igurikatzen zuten kondenatuek, Tiberioren aroan, ontasunak galtzen zituzten eta ehortzeaz gabetuak izaten ziren; beren burua hilez aitzinatzen zutenak ehortziak ziren eta testamentua egin zezaketen.

Baina halaber heriotza nahi izaten ohi da inoiz ere ontasun handiago baten esperantzaz: “Nahi dut dio San Paulok, suntsitua izan Jesukristorekin egoteko”; eta: “Nork bereziko nau esteka hauetarik?” Kleonbroto Anbraziota, Platonen Fedon irakurririk, etorkizuneko biziaren halako egarrian sartu zen non, beste aldirik gabe, joan zen itsasoan murgiltzera. Hortik ageri baita zein desegoki deitzen diogun etsipena maiz esperantzaren beroak eta askotan adimenaren ahier lasai eta jarri batek garamatzan gogozko desegite honi. Jacques du Chastel, Soissonseko apezpikuak, San Luisek itsasoz haraindi egin zuen bidaiari, errege eta armada osoa ikusiz Frantziara itzultzen erlijioaren eginkizunak osatugabeak utziz, parabisura lehenbailehen joateko erabakia hartu zuen. Eta adiskidei agur esanik, jo zuen bakarrik, bakoitzaren begien aitzinean, etsaien armadara, non eta zehakatua izan baitzen.

Lur berri haietako erresuma batean, ospe handiko prozesio baten egunean, handitasun miresgarritzko orga batez baitabil jendearen aurrean goresten duten idoloa, honi eskaintzeko beren haragi biziaren ebakitzen ikusten diren askoz landara, beste anitz ikusten dira plazaren erdian ahozpe, zirriken azpian beren burua eho eta errautsarazten dituenak, heriotzaren ondoan saindutasunaren onespeneren erdiesteko, hori ematen baitzaie.

Apezpiku horren heriotzak, armak ukabilean, ezkuzabaltasun gehiago du, eta sentimendu gutiago; guduaren garra baitarama zati bat.

Badira gobernuak gogozko heriotzen zuzen eta egokitasunaren arautzean sartu direnak. Gure Marseilan gorde zen, aspaldiko aroan, hotzerri-belarraz⁵⁸ egin pozoina, herriaren bizkar beren egunak arindu nahi lituzketenentzat, lehenik Sehieunetan, haien senatua baitzen, beren eginkizunaren arrazoia onartuz geroz; eta ez zen zilegi kargudunaren baimenaz eta legeztatu aldiez baizik nork bere buruaren zertzea.

Lege hori bazen oraino beste lekuetan. Sesto Ponpeio, Asira zihoalarik, Negropontoko Zeako irlan barrena iragan zen. Menturaz gertatu zen, han zegoen bitartean, bere lagungoko batek dioskun bezala, manu handiko andere batek, bere hirikideei kontu emanik zergatik deliberatu zen bere biziaren bururatzera, Ponpeiori eskatu zion egon zedin bere heriotzean ohoragarriago bilakatzeko: egin baitzuen; eta, alferrik entseiatu ondoren, miresgarriki eskuhar zeukan elegintza eta sinestaztearen bortxaz, haren eginkizunetik baztertzeko, jasan zuen, azkenean, nahi zuena egin zezan. Iraganak zituen larogeita hamar urte gogo eta gorputzezko egoera biziki zorionekoan; baina orduan, ohi baino hobeki apaindua zen bere ohean etzana eta ukondoan bermatua: "Jainkoek, zioen, O Sesto Ponpeio, eta gehiago uzten ditudanek aurkitu behar ditudanek baino, gogoko har hazaten ez baituk gutiatsi ene bizitzean aholkulari eta nire heriotzean lekuko izatea! Ene aldetik, beti zoriaren aurpegi faboragarria ezaguturik, sobera bizitzeko nahiak kontrario bat erakuts diezadan beldurrez, ene arimaren hondarren agurtzera noak

zorioneko amaitze batekin, neuregandik bi alaba eta iloba andana bat utzirik." Hori eginik, bereak batasun eta bakera sustaturik, bere ontasunak banaturik eta etxeko jainkoak bere alaba zaharrenari gomendaturik, hartu zuen esku seguru batez pozoina zegoen edalontzia; eta, Merkuriori agintzak eginik eta beste munduan zorioneko leku batera eramateko otoitzak, bapatean irentsi zuen edari hilgarria. Orduan solastatu zion lagungoari bere eginkizunaren aitzinatzeaz eta nola gorputzeko zatiak bata bestearen ondotik hotzak atzipetuak sentitzen ziren, harik eta, azkenean, bihotz eta erraietara heltzen zela esanik, alabak deitu zituen azken laguntzaren emateko eta begien hesteko. Ipar bazterreko erresuma batez aipatzen du Pliniok, airearen aro goxoagatik, biziak ez ohi direla bururatzen biztanleen borondateaz baizik; baina, bizitzaz nekatuak eta aseak izanik, adin luze baten buruan, oturuntza on bat egin eta gero, horretarako duten burkaitz batetik behera beren buruaren itsasora botatzeko ohitura daukatela.

Ezinjasanezko oinazea eta heriotza gaitzago bat iruditzen zaizkit aitzakirik barkagarrienak.

IV

Egitekoak biharko

Jacques Amyoti ematen diot, arrazoiarekin uste dut, gure idazle frantses guztien gaineko lehentasuna, ez bakarrik hizkuntzaren soildura eta garbitasunagatik, besteak oro gainditzen baititu, eta ez hain lan luzean iraun duelako, ez haren jakintzaren barrentasunagatik, hain egile arantzatsu eta gogorra hedatu ahal duelarik (zeren nahi dena esanen baitzait⁵⁹: grekoz deus ere ez dut entelegatzen; baina badakusat zentzu bat hain ederra, hain ongi josia eta zaindua haren itzulpen osoan gaindi non, edo zinez aditu baitu egilearen egiazko irudimena, edo, harreman luzeaz Plutarkoren ideia orokor bat biziki landaturik bere gogoan, ez baitio behintzat gezurta edo uka dezan deusik ere eman); baina, oroz gain, eskertzen diot hain liburu goren eta egoki baten bereizten eta hautazen jakin izanik bere herriari eskaintzeko. Gu, ezjakinok, galduak ginen, liburu honek ez bagintu lohiputzutik atera; hari esker, orain ausartzen gara mintzatzeri eta idazteri; harekin, andereek eskolako irakasleak zuzentzen dituzte; gure laburtegia da. Gizon on hau bizi bada, Xenofon ematen diot beste hainbeste egin dezan; eginkizun errazagoa da eta haren zahartzaroko egokiagoa; eta gero, ez dakit nola, iruditzen zait, ateka txar batetik hagitz bapatean eta garbiki bereizten den arren, hala ere, haren estiloa berbaitaratuagoa dela, behartua ez denean eta bere gisa dabilenean.

Orain banengoen pasartean Plutarkok bere buruaz dio, bere deklamazio batean egonik Erroman, Rustikok ukan zuela gutun sorta bat enperadorearen partetik eta haren irekitzea luzatu zuela dena egina izan zen arte: zertan, dio, entzule guztiek bereziki goretsi baitzuten pertsonaia horren egokitasuna. Egiazki, jakin-nahiaz ari delarik, berriez gose eta jangile den antsia horretaz, hainbat neurgabekeria eta ezinegonarekin gauza guztiak uztaizten dizkiguna etorri berri batekin ihardukitzeko, eta, nonnahi ere gauden, begirune eta egonkortasun guztia galarazten ekartzen dizkiguten gutunen irekitzeko, arrazoia eduki du Rustikoren egokitasunaren goreseteko; eta oraino gehitzen ahal zuen haren gizabide eta jendetasunaren goresmena bere deklamazioko emankizuna moztu nahi ez izateagatik. Baina zalantzan nago zuhurtasunagatik goreseten ahal den; zerengatik, ustekabeen gutunak ukanik eta bereziki enperadore batengandik, ongi gerta baitzitekeen irakurpenaren luzatzea kalte handikoa zatekeela.

Jakin-nahiaren aitziko bizioa ezaxoltasuna da, jiteaz ageriki aiherrak bainatzaio, eta gizon asko ikusi baititut hain ezinagoko emanak non, hiruzpalau egun geroago, oraindik erabat hetsiak aurkitzen baitziren haien sakeletan bidali zitzaizkien gutunak.

Ez bakarrik gomendatu zaizkidanak, baina zoriak eskuetarik iraganaraziko zizkidanak ere, ez ditut sekula ireki; eta kontzientzia dagit, handi baten aldamenen nagoelarik,

begiek oharkabeen ebasten badute hark irakurtzen dituen muntako gutunetarik ezagutza zerbait. Inoiz ere ez da gizonik gutiago sartu ez kirikatu denik besteren eginkizunetan.

Gure gurasoen aroan, Boutièreseko jaunak uste zuen Turin galtzen zuela, lagungo onean afaltzen ari zelarik, berak manatzen zuen hiri horretan antolatzen ari ziren azpikeriez ematen zaion oharpen baten irakurpena luzatzeagatik; eta Plutarko honek beronek ere irakatsi dit Julio Zesar salbatu zatekeela, senatura zihoalarik azpilankideek erahil zuten egunean, irakurri izan balu aurkeztu zitzaion agiri bat. Eta badio ere Arkias Tebaseko tiranoaren kontua, herria berriz libertatean ezartzeko Pelopidasek haren hiltzeko antolatu zuen eginkizuna baino lehenagoko gauan, beste Arkias batek, atenastarra, idatzi zion buruz buru antolatzen ziotena; eta gutun sorta hori afaldu bitartean eman zitzaiolarik, luzatu zuen haren irekitzea, ele hau esanez, gero, Grezian zuhurtitz bilakatu dena: “Egitekoak biharko”.

Gizon zuhur batek, ene ustez, besteren axolaz edo lagungoaren nabarmenki ez hausteko, Rustikok bezala, edo beste eginkizun nagusi baten ez eteteko, berriki ekartzen zaionaren entzutea luza dezake; baina, bere axola edo atsegin bereziarengatik, kargu publiko daukan gizona bada, bere afariaren ez eta bere loaren ez etentzeko, desenkusaezina da horren egitea. Eta behiala bazen Erroman leku kontsularra zeritzotena, mahaian ohoragarriena zena, han jarririk zegoenarekin solastatzeko etorriko liratekeenentzat eskuar eta helgarriena zegoelako. Mahaian egoteagatik, beste egiteko eta gertakizunen artekotasunetik baztertzen ez zirelako lekukotasuna.

Baina, dena esana bada ere, gaitz da arrazoiaren solasaz giza ekintzetan hain arau zuzenaren ematea, zoria bere eskubideari atxiki ez dakion.

V

Kontzientziaz

Egun batez, Brousseko jauna ene anaia eta biok bidaian ginelarik, gure gerra zibilen aroan, molde oneko aitoren seme bat aurkitu genuen; gure alderdiaren kontrariokoa zen, baina ez nekien deus ere, zeren besterik itxuratzen baitzen; eta gerra hauen makurrena, kartak hain nahasiak direla, zeure etsaia zeugandik bereizten ez delarik itxurazko ezaugarri zerbaitez, ez mintzairaz, ez plantaz, lege, ohitura eta aro berean hazirik, non gaitz baita engainatze eta nahasmenaren itzurtzea. Horrek beldurtzen ninduen: gure tropen aurkitzeak ezaguna ez nintzen lekuan, neure izenaren esateko eta menturaz zerbait makurragoko neketan ez izateko. Bestaldian gertatu zitzaidan bezala: zeren halako huts batean gizonak eta zaldiak galdu bainituen, eta besteen artean erahil zitzaidan txarki nerabe bat, aitoren seme italiarra, artoski hazten nuena, eta haren baitan iraungi zen haurtzaro txit eder bat, esperantza handiz betea.

Baina honek hain izialdura zoroa zeukan, zaldizko gizonekin elkartze bakoitzean eta erregeren aldeko hirietarik iragaitean hain hilik banekusan non, azkenean, asmatu bainuen haren kontzientziak ematen zizkion deiadarrak zirela. Gizagaixo hari iruditzen zitzaion mozerro eta kasakako gurutzen artetik bihotzeraino bere xede gordeen irakurtzera helduko zela. Hain miresgarria baita kontzientziaren indarra! Geure buruaren gaizki saltzera, salatzer eta gudukatzera garamatza eta, lekuko arrotzik ezean, geure kontra garabiltza:

Occultum quatiens animo tortore flagellum ⁶⁰.

Haurren ahotan dabil ipuin hau. Beso peoniarrek, bihotz alaiez etxe-txori habia bat bota eta haiek hil zituelako erantzuki egin baitzitzaion, zioen arrazoia zeukala, zeren xoriño haiek faltsuki salatzen baitzuten etengabe aitaren erahilketaz. Ordura arte, gordea eta ezezaguna izan zen aita-hiltze hura; baina kontzientziaren mendekuzko haserraldiek agertarazi zioten zigorra jasan behar zuen berari.

Hesiodok zuzentzen du Platonen solasa, penak hurbiletik darraiola bekatuari: zeren baitio bekatuaren aldi eta istant berean sortzen dela. Penaren zain dagoenak jasaten du; eta merezi duena zain dago. Gaiztakeriak oinazeak asmatzen ditu bere aurka,

Malum consilium consultori pessimum ⁶¹

liztorrak bestea ziztatzen eta oldartzen duen bezala, baina areago ere bere burua, zeren hor sekulako galtzen baitu eztena eta indarra,

vitasque in vulnere ponunt ⁶².

Errauliek badute beren baitan beren pozoinaren aurka sendagailutzat balio duen zati bat, naturazko aitzikotasun batengatik. Halaber, bizioan atsegin hartzen den heinean, kontzientzian sortzen da aitziko ezatsegin bat irudimen nekagarri askorekin oineztatzen gaituena, iratzarriak eta lokartuak,

Quippe ubi se multi, per somnia sæpe loquentes,

Aut morbo delirantes, protraxe ferantur,

Et celata diu in medium peccata dedisse ⁶³.

Apolodorok ametsetan bere burua zekusan eskitarrek larrutzen eta gero eltze batean egosten, eta bere bihotza marmar ari zitziola esaten: “Ni nauk hire gaitz guztien kausa” Ez da gordelekurik gaiztoentzat balio duenik, zioen Epikurok, zeren ez baitira segurtatzen ahal gorde izateaz, kontzientziak salatzen dituelako, prima est hæc ultio quod se

Judice nemo nocens absolvitur ⁶⁴.

Beldurrez betetzen gaituen bezala, halaber badagi segurantza eta konfiantzaz. Eta esan dezaket mentura askotan urrats azkarrago batez ibilia naizela neure borondateaz eta xedearen garbitasunaz neukan jakintza gordearengatik.

Conscia mens ut cuique sua est, ita concipit intra

Pectora pro facto spemque metumque suo ⁶⁵.

Mila adibide badira; aski izanen da hiruren aipatzea pertsonaia berari buruz.

Eszipionek, salaketa nagusi batez Erromako jendearen salaturik, bere burua desenkusatu edo bere epaileak lausengatu ordeztu, esan zien: “Ongi dagokizueke: mundu osoaren epaitzeko manu-indarra haren bidez daukazuelarik, nor eta buru horren epaitzera abiatzea” Eta, beste behin, herriko tribuno batek haren bizkar egin salaketei ihardespene oso bezala, bere kausa defendatu ordeztu: “Goazen, zioen, hirikideok, goazen Jainkoei eskertzera gaur bezalako egun batean kartagindarren aurka ematen zidaten garaipenagatik” Eta, aitzinetik abiatuz tenploari buruz, horra batzarre osoa eta bere salataria bera haren ondotik. Eta, Katonek Petilio akuilaturik Antiokiako herrialdean erabili diruaren kontua eska liezaion, Eszipionek, Senatura etorritik horretarako, erakutsi zuen jantzien azpian zeukan kontu-liburua eta bazioen liburu horrek egiazki bazeukala hartua eta emana; baina, nola eskatzen baitzitzaion auzi-agirian ezartzeko, ezeztatu zuen, esanez ahalke hori bere buruari ez ziola egin nahi; eta bere eskuez, senatuaren aurrean, urratu eta zehakatu zuen. Ez dut uste gogo maltzur batek dakienik halako segurantzaz itxuratzen. Jitez bihotz zabalegia eta zori goregian ohitua zuen, dio Tito Liviok, gaizkile izaten jakiteko eta bere garbitasunaren defendatzeko apalkeriara behehitzeko.

Asmatze arriskatua da torturarena, eta badirudi jasankortasunaren entseiu bat dela egiaarena baino gehiago. Jasan dezakeenak gordetzen du egia, eta jasan ez dezakeenak ere bai. Zergatik, bada, oinazeak aitorraraziko dit izaten dena, ez dena aitorraraziko didan baino gehiago? Eta, aitzitik, salatzen zaiona egin ez duena aski jasankorra bada oinaze horien pairatzeko, zergatik ez da izanen egin duena, bizia bezalako sari ederra agindua zaiolarik? Uste dut asmatze honen funtsa oinarritua dela kontzientziaren indarraren gogoetan. Zeren, hobendunaren baitan, baitirudi torturak laguntzen duela

hutsaren aitorrarazteko, eta ahultzen duela; eta, bestaldetik, hobengabea gotortzen duela torturaren aurka. Egiaren esateko, perilez eta zalantzaz betea den bidea da.

Zer ez litzateke, bada, esanen eta zer ez eginen, hain min larriarik itzurtzeko?

Etiā innocentes cogit mentiri dolor ⁶⁶.

Hortik heldu baita hobengabe ez erahiltzeko epaileak torturatu dena erahiltzen duela hobengabe eta torturatua. Horregatik, mila pertsonak beren burua zamakatu dute aitorpen faltsuez. Haien artean Filotas ezartzen dut, Alexandrok egin zion auziaren gora beherak eta haren aitorpenaren bilakaera kontsideraturik.

Baina beti ere, badiote, giza ahuleziak asmatu ahal duen gaizkirik gutiena da.

Arras basaki eta alferrik, hala ere, ene ustez! Grekoek eta erromatarrek barbaroak izendatu erresuma zenbaitek, horretan ez baitira haien bezain barbaroak, itsusi eta krudel deritzote zalantzan duzun hutsarengatik gizon baten oineztatzea eta zehakatzeari. Zer jakin dezake zure ezjakintza baino gehiago? Ez ote zarate zuzengabeak, kausarik gabe ez hiltzeagatik hiltzea baino makurrago egiten baitiozue? Hala dela: ikus ezazu hiltzea baino mingarriago den galdeketa horretarik iragaitea, eta maiz, garratzaren garratzaz, hiltzea aitzinatzen eta gauzatzen baitu, zenbat aldiz nahiago duen arrazoirik gabe hil. Ez dakit nondik daukadan istorio hau, baina zehazki itxuratzen du gure zuzenbidearen kontzientzia. Herriakako emakume batek salatzen zuen, zuzentzale handia zen armadako buruzagi baten aitzinean, soldadu bat bere haurtxoei ebatsirik haien hazteko gelditzen zitzaion zopa apurra, armada horrek inguruko herriak guztiak xehakaturik. Frogarik ez zuen batere. Buruzagiak, emakumea hertsatu ondoren ongi begira ziezaion zioenari, bere salaketaren hobenduna izanen litzatekeelako gezurretan ari bazen, irekiarazi zion sabela soldaduari gertatuaren egia argi izan zedin. Eta aurkitu zen emakumeak arrazoa zeukala. Erabaki irakasgarria.

VI

Lantzeaz

Gure sinesmena gogotik lotu eta ere, gaitz da arrazoiak eta irakaspenak aski ahalduak izan daitezen gure bideratzeko ekintzaraino, horretaz landara ez badugu esperientziaz geure gogoan lantzen eta moldatzen antolatu nahi dugun modura: bestenaz, ondorioen erdian izanen denean, dudarik gabe oztopatua aurkituko da. Horra zergatik, filosofoen artean, bikaintasun handiago batera heldu nahi izan dutenek ez dute askietsi estalpe eta pausan zoriaren gogortasunen igurikatzea, landu gabeak eta guduan hasi berriak atzeman ditzan beldurrez; baina aitzinatu zaizkio, eta jakinean egotzi dira zailtasunen frogara. Batzuek aberastasunak utzi dituzte behartasun nahietsi batez beren buruaren erabiltzeko; besteek nekea eta bizi latz baten larderia bilatu dute, beren buruaren gogortzeko gaizkian eta lanean; besteak gorputz zatirik maiteenez gabetu dira, hala nola ikusmen eta sorkunderako gorputzadarrez, haien erabilpenak, sobera atsegingarri eta beratz, beren gogoaren bermetasuna laxa eta bigun zezan beldurrez. Baina hiltzeko, egiteko dugun beharkizunik handiena baita, ariketak ez gaitu laguntzen ahal. Ohituraz eta esperientziaz gotor gaitezke min, ahalke, behartasun eta beste halako ezbeharren aurka; baina, heriotza, behin batez baizik ez dugu entseiatzen ahal; guztiok gara apendizak hartaratzen garelarik.

Aitzinaroan aurkitu izan dira hain denbora-baliatzaile bikainak non, heriotzean berean, entseiatu baitira haren dastatzera eta gozatzera, eta beren gogoan tinkatu dute ikusteko iraganbide hori zer ote zen; baina ez zaizkigu horren berrien emateko itzuli:

nemo expēgitus extat

Frigida quem semel est vitae pausa sequuta ⁶⁷.

Kanio Julio, bertute eta bermetasun bereziko aitoren seme erromatarra, Kaligula gaiztagin hark heriotzera kondenaturik, bere azkartasunaz eman zituen beste frogez harago, borroaren eskua jasan hurran zegoelarik, bere adiskide filosofo batek galdegin

zion: "Orduan, Kanio, zertan dago orain zure gogoa? Zer dagi? Zein gogoetatan zaude? -Gogoetatzen nuen, erantzun zion, neure indar guztiez prest eta tink egotea, ikusteko, hilaldi horretan, hain motz eta labur, ohartzen ahalko ote natzaion arimaren abiatze zerbaiti, eta bere jalgitzearen oharpenen bat edukiko ote duen, zerbait ikas baneza haren berriaren ematera itzultzeko gero, ahal baneza, neure adiskideengana." Hau filosofatzen da ez bakarrik hil arte, baina hiltzean berean. Zein segurantza, eta kuraiaren burgoitasuna, nahi izatea bere heriotza ikasbidetzat izan zekion, eta halako eginkizun handian besteetan gogoetatzeko astirik edukitzea gainera!

Jus hoc animi morientis habebat ⁶⁸.

Iruditzen zait, hala ere, badela harenganatzeko eta entseiatzeko bide zerbait. Haren esperientzia ukan dezakegu, osoa eta betea ez bada ere, behinik behin alferrik ez den halakoa, eta gotor eta seguruago bilaka gaitzan. Harengana hel ez bagaitezke ere, hurbil gakizkioke, badazagukegu; eta haren gotorlekuraino joaten ez bagara ere, bederen ikusiko ditugu eta maiztatuko haren etorbideak. Ez da arrazoirik gabe geure loari begiarazten digutela, daukan heriotzaren antzagatik.

Zein errazki gabiltzan itzartzetik lotara! Zenbat interes gutirekin galtzen dugun argiaren eta geure buruaren kontzientzia!

Menturaz ezteus eta naturaren aurka dirudike loaren ahalmenak, ekintza eta sentimendu oroz gabetzen baikaitu, ez balitz ere naturak, haren bitartez, erakusten digula berdinki egin gaituela hiltzeko eta lo egiteko, eta, bizitzetik, aurkezten digula haren ondorako gordetzen digun betiereko egoera, ohitzeko eta haren beldur izan ez gaitezen.

Baina ezbehar bortitz zerbaitengatik bihotz ahultze batean erori direnak eta sentimendu guztiak galdu dituztenak, haiek, ene irudiko, haren egiazko aurpegi naturalaren ikustetik osoki hurbil izan dira; zeren, iragaitearen instant eta puntuari dagokionez, ez baita beldurtzeko lan edo neke zerbait dakarrenik, astirik gabe ez sentimendurik batere ukan ez dezakegunez geroz. Gure minaldiek denbora behar dute, heriotzean hain labur eta lehiatua delarik non, halabeharrez, soraioa izan behar baita. Hurbilketak dira beldurtzekoak ditugunak; eta haiek esperientzian eror daitezke.

Gauza asko iruditzen zaizkigu uztez handiagoak egiaz baino. Neure adineko zati on bat osasun bete eta osoan iragan dut: ez osoan bakarrik, baina oraino alai eta sendoan diot. Egoera horrek, gordintasun eta bestaz beterik, hain beldurgarria aurkiarazten zidan eritasunen gogoeta non, haien ezagutzera etorri naizelarik, haren ziztadak beratz eta bigun aurkitu baititut neure beldurraren arabera.

Hona egunero gertatzen zaidana: ekaitz- eta erauntsi-gau batez, estalpean eta beroki banago gela eder batean, harritzen eta nahigabetzen naiz bitartean kanpoan daudenengatik; neroni banago han, ez dut beste inon egon nahi ere.

Hori bakarrik, beti gela batean hetsirik egotea, jasanezinezkoa iruditzen zitzaidan; neurehala egotera behartua izan nintzen aste batez, eta hilabete batez, hunkimenduz, nahasduraz eta ahuleziaz beterik; eta aurkitu dut osasunean eriei urrikaltzen nintzailea eta eri naizelarik neure burua urrikalgarria dakusadan baino hagitzez gehiago, eta neure beldurkundearen indarrak gauzaren izate eta egiaren erdia inguru garestitzen zuela. Agian berdin gertatu zait heriotzarekin, eta ez duela merezi eraikitzen ditudan hainbat prestaketa eta haren oldartzeari eusteko deitzen eta biltzen ditudan hainbat laguntza; baina, zer gerta ere, ez diezaiokegu geure buruari abantaila sobera eman.

Gure hirugarren edo bigarren nahasmenduetan⁶⁹ (ez naiz ongi hartaz oroitzen), egun batez ibiltzera joana nintzelarik neure etxetik lekoa batean, Frantziako gerra zibil guztien erdiunean jarria bainaiz, ustez segurantza osoan nintzela eta neure aterbetik hain hurbil non hornidura hoberik ez bainuen behar, hartua nuen zaldi oso erraz bat, baina ez hagitz azkarra. Neure itzuleran, aukera agerturik zaldi hartaz baliatzeko ez zegokion zerbitzu baterako, neure jendeetarik bat, larri eta azkar, aho sendigaitza zuen zalditar

ahaldun baten gainean, fresko eta azkar gainera, ausartarena egin nahiz eta bere lagun
aitzinateko, brida osoan abiarazi zuen zuzenik neure bidean, eta heldu zen gizon txiki
eta zaldi txikiaren gainera koloso bat bezala jotzera eta lehertzera haren oldeaz eta
pisuaz, bata eta bestea igorri gintuelarik erroz gora: eta horra zaldia eroria eta etzana
erabat zentzordatua, eta ni hamar-hamabi urrats harago, hila, ahozpez etzana, begitarte
osoki zauritua eta larrutua, eskuan neukan ezpata hamar urratsez goiti urrunago,
gerrikoa pusketan, enbor batek baino mugimendu ez sentimendu gehiagorik gabe. Orain
arte sentitu dudan alditxartze bakarra da. Neurekin zeudenek, neure baitaratzeko egin
zitzaketen modu guztietan entseiatu, hiltzat nindaukatelarik, hartu ninduten haien
besoetan eta neke handitan neure etxera ninderamaten, handik lekoa frantses erdi bat
inguruan baitzen. Bidean, bi ordu luzez zendutzat edukirik izan ondoren, hasi nintzen
mugitzen eta hatsartzen; zeren hain odol ugari erori baitzitzaidan urdailera non, hartaz
arintzeko, naturak bere indarren berpizteko beharra izan baitzuen. Zutitu ninduten eta
odol mokor ferrata bete bat oka egin nuen eta bidean anitz aldiz egin behar nuen berdin.
Hortik hasi nintzen bizi apur baten hartzen, baina apurka izan zen eta hain luzaz non
nire lehenbiziko sentimenduak heriotzetik hurbilagoak baitziren bizitzetik baino,
Perche, dubbiosa anchor del suo ritorno,

Non s'assecura attonita la mente ⁷⁰.

Gogoan azkarki inprimaturik daukadan oroipen honek, haren begitarte eta ideia
naturaletik hain hurbil itxuratuz, nolabait adiskidetzen nau harekin. Ikusten hasi
nintzelarik, hain ikusmen uher, ahul eta hil batekin izan zen, non ez bainuen oraino
argirik besterik bereizten,
como quel ch'or apre or chiude

Gli occhi mezzo tra'l sonno è l'esser desto ⁷¹.

Gogoaren eginkizunei dagokienez, gorputzarenen abiatze berean sortzen ziren. Erabat
odoletan nekusan neure burua, jantzia orotarik zikindua baitzen oka egin nuen
odolarekin. Zetorkidan lehen gogoeta izan zen buruan arkabuzaldi bat neukala; zinez,
denbora berean, asko tiratzen ziren gure inguruan. Iruditzen zitzaidan biziak ez
nindukala haren ezpain ertzetik baizik; kanporatzera lagundu ustetan, begiak hesten
nituen, eta atsegin nuen neure buruaren ilauntzean eta joatera uztean. Irudimen bat zen
ene gogo azalean igeriz baizik egiten ez zuena, gainerakoa bezain xamur eta ahul, baina,
egiazki, ez bakarrik ezatseginez gabea, baizik eta beren buruaren lotara lerratzerantz
dutenek sentitzen duten ezintasunarekin nahasia.

Uste dut hil hurrantzean ahulduraz alditxartzen doazenak aurkitzen diren egoera bera
dela; eta banago arrazoirik gabe deitoratzen ditugula, min garratzez inarrosirik edo
arima gogoeta latzez hertsaturik direlako ustetan. Beti izan da nire iritzia, askoren eta
Estienne de la Boétie beraren aburuaren kontra, beren azkenetik hurbil dakuskigun
erauziek eta lokartuek, edo gaitzaren luzetasunak, edo apoplexia edo erortzeko min⁷²
baten gertaldiak lehertuek,

vi morbi sæpe coactus

Ante oculos aliquis nostros, ut fulminis ictu,

Concidit, et spumas agit; ingemit, et fremis artus;

Desipit, extentat nervos, torquetur, anhelat,

Inconstanter et in jactando membra fatigat ⁷³,

edo buruan zaurituek, zurrungatzen eta aldian behin hasperen zorrotzak botatzen
entzuten baititugu, oraindik ezagutza gelditzen zaiela haiengandik ateratzen ditugun
ezaugarri zenbaiten arabera dirudien arren, eta gorputzarekin higidura zenbait egiten
dakuskigun arren; beti uste izan dut, diot, horiek bai gogo bai gorputza ehortzirik eta
lokarturik daukatela:

Vivit, et est vitæ nescius ipse suæ ⁷⁴.

Eta ez nezake sinets, hain gorputzadarren herabetasun eta zentzuen ahulezia handian, barrenean gogoak indar zerbait gordetzen ahal duenik bere buruaren ezagutzeko; eta, beraz, ez zutela haien egoera dohakabea juzga eta sentiaraz ziezaieketen gogoeta oinaztagarririk batere, eta, horren ondorioz, ez zirela biziki urrikalgarriak.

Neuretzat ez dut irudikatzen hain egoera jasangaitz eta lazkarririk nola gogoaren edukitzea bizi eta atsekabetua, adierazpiderik gabe; mihia mozturik, oinazera igortzen direnen haietaz nerrakeen bezala -ez balitz ere, heriotza-mota honetan, mutuena iruditzen zaidala egokiena, begitarte berme eta larri batez lagundua bada-; eta aro honetako borrero soldadu zital hauen eskuetan erortzen direnak bezala, erabiltze basa mota oroz oinazetuak izaten baitira ordainketa gehiegi eta ezinezko zerbaitetara behartzeko, bitartean beren dohakabetasun eta gogoeten adierazteko eta ezagutarazteko biderik batere ez daukaten baldintza eta lekuan atxikiak.

Poetek itxuratu dituzte jainko faboragarri zenbait heriotza ilaungarri bat horrela herrestatzen dutenen libertaterako,

hunc ego Diti

Sacrum jussa fero, teque isto corpore solvo ⁷⁵.

Eta belarrietara oihukatze eta gaitzitzearen bortxaz jalgiarazten zaizkien ahots eta erantzun motz eta josi gabeak, eta galdegiten zaienari buruz baieztapen zerbait daukatela diruditen higidurak, ez dira, halarik ere, bizi direlako lekukotasuna, osoki bizi bederen. Gertatzen zaigu ere, loaren motelduran, osoki har gaitzan baino lehen, gure inguruan egiten denaren ametsetan bezala sentitzea, eta ahotsei jarraikitzea gogoaren bazterretara baizik jotzen ez duela dirudien entzumen uher eta nahasi batez; eta esan zaizkigun azken hitzen ondotik zentzu baino zori gehiago duten ihardespentak egiten ditugu.

Bada, izatez frogatu baitut, zalantzarik ez dut ongi juzkatu dudala orain arte. Zeren, lehenik, osoki alditxartua nintzela, grinatzen bainintzen neure jantziaren irekitzeko azazkal hutsez (armadurarik gabe bainintzen), eta badakit ez nuela gogoan sentitzen zauritzen ninduen ezer: geure baitan baitira geure manutik abiatzen ez diren mugimendu anitz,

Semianimesque micant digiti ferrumque retractant ⁷⁶.

Erortzen direnek halaber luzatzen dituzte besoak beren behaztopatzearen aurrera, gure gorputzadarrei adimenetik landako ofizioak onartarazten eta inarrosaldiak sortarazten dizkien oldarpen natural batengatik:

Falciferos memorant currus abscindere membra

Ut tremere in terra videatur ab artubus id quod

Decidit abscissum, cum mens tamen atque hominis vis

Mobilitate mali non quit sentire dolorem ⁷⁷.

Urdaila odol gatzatuz hertsaturik neukan, eta eskuak berak hara zihoazen, maiz hazkura dugun lekura doazen bezala, gure borondatearen aburuaren aurka. Ihizi asko badira, eta gizonak ere bai, hil ondoan, giharren hertsatzen eta higitzen ikusten direnak. Nor bakoitzak badaki esperientziaz badirela anitzetan bere baimenik gabe ikaratzen, goratzen eta etzaten diren zatiak. Azalez baizik hunkitzen ez gaituzten pasioneak, ez dira gureak deitzen ahal. Gureganatzeko, gizona eman behar zaie hatz-behatz oso; eta, lotan garelarik, oinak edo eskuak somatzen dituzten minak, ez dira gureak.

Ettxera hurbiltzen ari nintzelarik, neure erorketaren deiadarra jadanik lasterkatua baitzen, eta neure familiakoek hartu nindutelarik halako gauzetan ohi diren oihuekin, ez nion bakarrik erantzuten solas zerbaitekin galdegin zitzaidanari, baina oraino diote arduratu nintzela manatzeaz neure emazteari zaldi bat eman zekion, ikusten bainuen bidean

behaztopatzen eta trabatzen, menditsu eta zakar baita. Badirudi axola hark abiatu behar zuela gogo erne batengandik, ordea ez nintzen inola ere; gogoeta hutsalak ziren, lainoetan, begi eta belarrien zentzuek eraginak; ez zetozen ene baitatik. Ez nekien, bitartean, nondik nentorren, ez nora nindoan; ez nuen pisatzen ez gogoetatzen ahal galdegiten zitzaidana: ondorio arinak dira horiek, zentzuek, beren kabuz, eragiten dituztenak, ohitura batetik bezala; hor gogoak ematen zuena, ametsetan zen, arras arinki hunkitua, eta milikatua eta ureztatua bezala zentzuen eragin beratzak.

Bitartean, egiazki, egoera hagitz ezti eta lasaia nuen; ez nuen atsekaberik ez bestegatik ez neuregatik; ilauntze eta ezinagoko ahultze bat zen, inolako minik gabe. Etxea nekusan ezagutu gabe. Etzan nindutenean, mugagabeko ezintasuna sentitu nuen atsedean horretan; jende gaizo haiek dorpeki herrestatua izana bainintzen, bide luze eta oso gaizto baten barrena haien beso gainean nire eramateko nekea hartu baitzuten, eta bizpahiru aldiz akitu baitziren batzuk besteen ondotik. Eskaini zizkidaten erremedio anitz, haietarik batere hartu ez bainuen, egiazkotzat edukirik buruan hiltzerako zauritua nintzela. Izan zatekeen, gezurrik gabe, oso zorioneko heriotza; zeren neure adimenaren ahuleziak begiratzen baininduen deusen juzgatzetik, eta gorputzarenak ezeren sentitzetik. Jarriotzera uzten nuen neure burua hain eztiki eta hain modu gozo batez non doi ez baitut beste ekintzarik sentitzen hura zena baino pisu guttiagokorik. Berpiztera eta sendatzera nentorrenean,

Ut tandem sensus convaluere mei ⁷⁸,

bizpahiru orduren buruan izan baitzen, neurehala berriz minei estekatua sentitu nintzen, gorputzadarrak erortzetik guztiz ehotuak eta errautsiak izanez; eta geroko bizpahiru gauetan hain gaizki nengoen non uste bainuen berriz ere hiltzen ari nintzela, baina heriotza biziago batez; eta oraindik mintzen naiz xehatze haren inarrosaldiaz. Hau ez dut ahantzi nahi: gogoratzen ahal nuen azken gauza ezbehar horren oroimena izan zela; eta, gogoan hartu ahal baino lehenago, esanarazi nien anitz aldiz nora nindoan, nondik nentorren, zein ordutan gertatu zitzaidan hori. Neure erorketa-moduari zegokionez, gordetzen zitzaidan haren eragilearen faboretan, eta besteak moldatzen zitzaizkidan. Baina denbora luze baten buruan, eta biharamunean, oroimena zetorrelarik erdi zabaltzera eta zaldi hari neuregana jotzen ohartu nintzaioneko istantean aurkitu nintzen egoeraren itxuratzera (zeren orpoetan ikusi bainuen eta hiltzat ukan nuen neure burua, baina gogoeta hori hain lasterra zen non beldurrak ez baitzuen sortzeko astirik), irudititu zitzaidan tximista bat zela gogoan jotzen ninduela inarrosiz eta beste mundutik itzultzen nintzela.

Gertakari hain arin baten aipamen hau aski hutsala da, ez balitz ere hartarik neuretzat atera dudan irakaspena; zeren, egiazki, heriotzean laketzeko uste baitut ez dela harenganatzea bezalakorik. Bada, Pliniok dioen bezala, nor bere buruari oso irakaskuntza ona zaio, hurbiletik zelatan egoteko jakintza duen ber. Honako hau ez da nire irakaspena, nire ikerpena da; eta ez da besteren ikasgaia, nirea da.

Eta ez zait gaizki hartu behar adierazten baldin badut. Balio didanak menturaz balio diezakioke beste norbaiti. Bestalde, ez dut deusik gastatzen, neureaz baizik ez naiz baliatzen. Eta zoroarena badagit, neure bizkar da eta inoren kalterik gabe. Zeren nire baitan hiltzen den zoramena baita, ondoriorik ez duena. Bide hau urratu duten aitzineko bizpahiruren berririk besterik ez dugu; eta ez dezakegu esan honen modu guztiz bezalako batean ote zen, izenez baizik ezagutzen ez dugularik. Gero inor ez da haien hatzaren gainetik abiatu. Eginkizun arantzatsua da, dirudien baino gehiago, gure gogoarena bezain ibiltaria den urrats bati jarraikitzea, haren barreneko izurren sakontasun ospelen zulatzea, haren inarrosten hainbat aire xumeen bereiztea eta gelditzea. Lantze berri eta ez ohitua da, munduko ariketa arruntetarik, eta

gomendatuenetarik ere, baztertzen gaituena. Badu urte zenbait ez dudala neure buruaz beste jomugarik neure gogoetetan, neure buruaz baizik neurtzen eta ikertzen ez dudala; eta, besterik ikertzen badut ere, neurehala da neure gainean etzanarazteko, neure baitan, hobeki esateko. Eta ez dut uste huts dagidanik, alderatzerik gabe ezteusagoak diren beste jakintzetan bezala, honetan ikasi dudanetik berri ematen badut; askiesten ez badut ere egin dudan aitzinamendua. Zailtasunean, ez da nor bere buruaren erakustera hel daitekeen deskribapenik; eta baliotasunetan ere ez. Plazaratzeko gehiago apaindu behar da, gehiago eta areago antolatu eta ondu. Bada, etengabe apaintzen naiz, neure burua etengabe deskribatzen baitut. Ohiturak biziodun egin du nor bere buruaz mintzatzea, eta temoski debekatzen du bere buruaren aipamenei beti estekatua dirudien handikeriaren hastiogatik.

Hori, haurra zintzatu beharrean, haren sudur gabetzea deitzen da,

In vitium ducit culpæ fuga ⁷⁹.

On baino gaitz gehiago aurkitzen dut erremedio horretan. Baina, egia balitz ere halabeharrez harrokeria dela jendearen solastatzea nork bere buruaz, neure xede orokorrari jarraikiz, ez dut nolakotasun gaizto hori agertzen duen ekintza bat errefusatu behar, neure baitan denez geroz; eta ez dut gorde behar ez soilik ohituraz baina ofizioz dudan huts hau. Nolanahi ere, uste dudanaren esateko, ohitura horrek huts dago ardoaren kondentatzean, hartaz asko horditzen baitira. Gauza onekin baizik ez baita neurritz goiti aritzen ahal. Eta arau horretaz uste dut ez dagokiola jende arruntaren ahuleziari baizik. Aretzeentzako bridak dira, haiekin ez sainduak, hain goraki entzuten baititugu beren buruaz mintzo, ez filosofoak, ez teologoak, ez baitira bridatzen. Ez eta ni ere, bata bezain guti bestea ez naizen arren. Ageriki ez badute beren buruz idazten, aldiak daramatzanean, bederen, ez dute hortik itzurtzeko itxurarik egiten. Zertaz idazten du Sokratesek bere buruaz baino zabalkiago? Zeri buruz bideratzen ditu bere ikasleen solasak, beren buruaz mintzatzea baizik, ez beren liburuko ikasgaiaz, baina beren gooaren egoeraz eta higiduraz. Aitortzen diogu erlijioski Jainkoari, eta geure konfessoreari, geure auzokideek⁸⁰ jende guztiari bezala. Baina, erantzunen zait, salaketez baizik ez ditugu aipatzen. Oro diogu, beraz: gure bertutea bera hutsegile eta damugarria baita. Nire ofizioa eta nire artea bizitzea da. Hartaz mintzatzea nire zentzu, esperientzia eta ohituraren arabera debekatzen didanak mana biezaio arkitektoari eraikuntzez mintzatzea, ez bere arabera, baina bere aldamenekoaren arabera; besteren jakintzaren arabera, ez bere arabera. Nork bere goresmena egitea bada nork bere balioen publikatzea, zergatik ez du Zizeronek goraipatzen Hortentsioren elegintza eta Hortentsiok Zizeronena⁸¹? Menturaz, haiek nahi dute eman dezadan neure buruaren lekukotasuna ekintzez eta ondorioez, eta ez solasez. Eskuarki, neure gogoetak margotzen ditut, molde gabeko gaia baita, eskuzko ekintzara etortzen ahal ez dena. Nekearen nekez, etzaten ahal dut ahotsaren airezko gorputz honetan. Gizon zuhurrago eta jainkokoiagoak bizi izan dira itxurazko ekintza guztietarik ihesi. Ekintzek zoriaz esanen lukete nitaz baino gehiago. Beren eginkizunaren lekukoak dira, ez nirearenak, ustezko eta menturazko modu batez ez bada: erakustaldi berezi baten erakuskariak. Neure burua zabaltzen dut osoki: *skeletos* ⁸² bat da, begitaldi batez zainak, giharrek, zurdak agertzen baitira, zati bakoitza bere lekuan. Eztularen ondorioak, aldiz, zati bat dago; zurbiltasun edo bihotz taupadak beste bat, eta zalantzan.

Ez dira neure keinuak nik idazten ditudanak, baina neure burua, neure izatea. Banago zuhurra izan behar dela nor bere buruaren aipatzean, eta, halaber, zintzoa lekukotasunaren ematean, izan dadin apalki edo goraki, berdin. Neure burua iruditzen balitzait on eta zuhur, edo izateko hurbil, aho betez goretsiko nuke. Bere buruaz dagoena baino gutiagoren esatea ergelkeria da, ez apaltasuna. Nork balio duena baino

gutiatotan baliaraztea, beraztasun eta herabekeria da, Aristotelesen arabera. Bertuterik batere ez da faltsukeriaz baliatzen; egia sekula ez da engainagaia. Bere buruaz dagoena baino gehiagoren esatea ez da beti hanpakeria, gainera maiz ergelkeria da. Nor bera neurritz goiti gozatzea eta bere buruaren maitasun nabarmenean erortzea, nire ustez, bizio horren gaia da. Haren sendatzeko antolabide nagusia hauek manatzen dutenaren guztiz aitzikoaren egitea da: nor bere buruaz mintzatzea debekatuz gehiago debekatzen baitute, beraz, nork bere buruaz gogoetatzea. Hanpakeria gogoan datza. Mintzoak ez du oso zati arin batez baizik hartzen ahal. Bere buruaz solastatzea, iruditzen zaie bere buruaz laketzea dela; maiz ibiltzea eta ezagutzea, berriz, sobera maitatzea. Izaten ahal da. Baina gehiegikeria hori bakarrik sortzen da axalez baizik beren burua ukitzen ez dutenengan; beren egitekoen ondotik dakusatenak, bere buruaz solastatzeari ameskeria eta alferkeria deitzen diotenak eta bere buruaren hornitze eta eraikitzeari mutur hutseko ametsak: berenganako arrotz eta landakotzat harturik beren burua.

Norbait ere, bere azpira begiratuz, mozkortzen bada bere jakintzaz: gora bitza begiak iragan mendei buruz, adarrak apalduko ditu, oinez ostikatzen duten hainbat mila gogoren aurkitzean. Bere suhartasunaz lausenguzko hanpakeria zerbaitean sartzen bada, oroit bedi bi Eszipionen biziez eta urrunez haien gibelean uzten baitute hainbat armada eta jendaldez. Inolako nolakotasun bereziak ez du hanpatuko bere baitan dauden hainbat nolakotasun osatugabe eta ahulak harekin batean, eta, ororen buruan, giza baldintzaren ezteusa, kontutan hartuko dituen.

Horregatik Sokrates egiazki zatxikion soilik bere jainkoaren manamenduari, bere buruaren ezagutzekoari, eta ikerpen horren bidez bere buruaren gutiesterara heldu zen; hautetsia izan zen zuhurraren goitzenaren merezidun bakarra. Bere burua horrela ezagutzen duena mintza bedi ausarki bere buruaren ezagutarazteko.

VII

Ohorezko sariez

Augusto Zesarren bizia idazten dutenek haren gudan antolaketan haxe azpimarratzen dute: emaitzetan, miresgarriki eskuzabala zela merezi zutenen alderako, baina, ohore hutsezko sariei zegokienez, biziki zuhurra zela. Eta, sekula gerran egon baino lehen, bera izan zen bere osabak sariztatua gudan sari guztiekin. Asmatze ederra izan da, eta munduko gobernu gehinetan onartua, bertuatearen saristatzeko eta ohoratzeko ezaugarri hutsal eta baliorik gabe zenbaiten ezartzea, hala nola erramu-boneta, haritzezkoa, mitrezkoa, jantzi baten moldea, hirian barrena kotxez⁸³ joateko bereiztasuna, edo gauaz suziriekin, batzarre publikoetan jarleku berezi zerbit, goititzen eta izendapen zenbaiten bereiztasuna, armarrietan ezaugarri zenbait, eta antzeko gauzak, erabilera ezberdinki onartua izan baita erresumen usteen arabera, eta oraindik ere badirau.

Geure aldetik baditugu, eta geure aldameneko askok ere bai, zaldungoko ordenak, helburu horretarako baizik ez baitira ezarri. Ohitura on eta baliagarri da, zinez, gizon arraro eta bikainen balioaren ezagutzeko bidearen edireitea, eta haien gogabetetzea eta sariztatzea publikoren bizkar inola ere ez diren eta printzeari deus kostatzen ez zaizkion ordainketekin. Behialako esperientziaz ezagutua izan dena eta geure artean aspaldi ikusi ahal duguna, mailako jendeak txirrinta gehiago duela halako sariei buruz irabazpidea eta mozkina dituztenei baino, hori ez da arrazoirik ez itxura handirik gabe. Ohore hutsezko izan behar den sariari nahasten bazaio beste erraztasun eta aberastasun zerbit, nahaste horrek, balorea berretu beharrean, apaltzen eta edekitzen du. Sainct Michel ordena, gure artean hain luzaz omen handitan egon denak ez zeukan hau baino erraztasun handiagorik: beste inolako erraztasunerako eskubiderik ez izatekoa. Horrek zeragien behiala ez zela ez kargurik, ez egoerarik, zernahi ere zen, aitoren semegoak nahi zuenik hainbat irrika eta atxikimenduz nola orden hura, ez hainbat begirune eta handitasun zekarren nolakotasunik: bertuteak gogotikago besarkatzen eta lehiatzen baitzuen bere

hutsa zuen sari bat, ospetsuagoa baliagarria baino. Zeren, egiazki, gainerako emaitzek ez baitute beren erabilera hain zuzena, aldi-mota guztietarako erabiltzen direnez geroz. Aberastasunen bidez ordaintzen da morroi baten zerbitzua, mandatarari baten lehia, dantzatzea, airean itzulikatzea, mintzatzea eta ukaiten ohi diren ofiziorik arruntenak; bizioa ere ordaintzen da, lausengukeria, putaneria, tradiketa: ez da miraria bertuteak gogo gutiagorekin hartzen eta desiratzen badu diru arrunt mota hau, egokia eta berezia zaiona baino, guztiz noble eta eskuzabala. Augustok arrazoa zeukan zuhur eta zikoitzago izateko honekin bestearekin baino, ohorea bere funtsezko izatea bakantasunetik ateratzen den lehentasuna denez geroz; eta bertuteak berak ere:

Cui malus est nemo, quis bonus esse potest? ⁸⁴

Gizon baten gomendiorako, ez ohi da azpimarratzen bere haurren hazkurriaren ardura duela, ekintza arrunt bat baita, nahi bezain zuzena bada ere, zuhaitz handi bat nabarmentzen ez den bezala oihan osoa berdina den lekuan. Ez dut uste Espartako hiritarrik batere bere suhartasunagatik hanpatzen zenik, bertute herrikoia baitzen haien erresuman, ez eta fideltasun eta aberastasunen gaitzespenagatik. Ohitura bilakatu den bertute bati, nahi bezain handia bada ere, ez dagokio saririk; eta ez dakit ere nola deituko genukeen inoiz ere handi, arrunt izanez.

Ohorezko berezitasun haiek jende gutik gozatzen dituelako balio eta preziazterik baizik ez dutenez geroz, haien suntzitzeko ez da ausarki barreiatzeaz besterik egin behar. Iraganean baino gizon gehiago gure ordena mereziko luketenak orain aurkituko balira ere, ez litzateke haren balioa usteldu behar. Eta errazki gerta daiteke gehiagok mereziko luketela, zeren ez baita hain errazki hedatzen den bertuterik nola gudal suhartasuna. Bada beste bat, egiazkoa, betegina eta filosofikoa, hartaz ez bainaiz mintzo (gure erabileraren arabera baliatzen naiz hitz horretaz), hori baino handi eta beteagoa, gogoaren indar eta bermetasun bat baita, etsaiezko ezbehar guztiak berdin arbuizatzen dituen: berdina, aldaezina eta iraunkorra, gurea ez baita haren izpi xume batez baizik. Azturak, irakaskuntzak, ereduak eta ohiturak nahi dutena ahal dute mintzo naizen horren finkatzerako eta errazki arrunt bilakatzen dute: hagitik ikusterraza den bezala gure gerra zibilek ematen diguten esperientzian. Eta norbaitek ere biltzen ahal bagintu eta ororen egizkizun baterako gure jende osoa sustatzen, geure aitzineko gudal omena berpiztuko genuke. Egia da ere ordenaren sariak ez zuela lehenago kontutan hartzen bakarrik gogoeta hori; urrunago xederatzen zen. Sekula ez da izan soldadu suhar baten saria, baina kapitain ospetsu batena. Obeditzeko jakintzak ez zuen hain ohorezko berezitasuna merezi. Behiala eskatzen zen gudal jakinduria bat orokorragoa eta gudagizon baten zatirik handienak eta gehienak hartzen zituen: “Neque enim eaedem militares et imperatoriae artes sunt” eta, horretaz landa, halako merezimenduari egokigarria izan behar zen. Baina, badiot, lehen baino jende merezidun gehiago aurkituko balira ere, ez litzatekeela, haatik, harekin eskuzabalago izan behar; eta hobe zatekeen zor zitzaien guztiei ez ematea ezen ez sekulako galtzea, egin berri dugun bezala, hain asmamen baliosoaren erabilera⁸⁶. Gizon bihoztotirik batere ez da askorekin partzuergoan daukanaz abantailatzen; eta sari hori gutienik merezi izan duten gaur egunekoek itxura gehiago dagite gutietsiz, horrela ezaugarri horren apaltzean eta bilauki hedatzean kalteatu diren eta bereziki zor zitzaienen lerroan beren buruaren ezartzeko.

Uste izatea, bada, hau ezabatuz eta ezteustuz, bapatean halako ohitura berriztatu eta berriz omenean ezarri ahal dela, ez da orain aurkitzen garen honen aro galdu eta gaiztoari dagokion eginkizuna; gertatuko da azkenak⁸⁷ sortze beretik jasanen dituela bestea hondatu berri dituen eragozpenak. Orden berri honen emateko arauak izan beharko lirateke ezinago zuzenak eta hertsia, manu-indarraren emateko; eta aro nahastekari hau ez da brida labur eta arautuaren gaia; gainera, omena eman ahal izan baino lehen, lehenbizikoaren oroimena eta erori zen gutiesteara galdu behar da.

Leku honi legokioke hizaldiren bat suhartasunaren gogoetari buruz eta bertute honen eta besteen arteko ezberdintasunari buruzkoa; baina Plutarkok maiz erabili duelaik gai hau, deustako has ninteke hark dioenaren hemen aipatzen. Baina aipagarria da gure herriak suhartasunari ematen diola bertuteen lehen maila, izenak darakusan bezala, baliotik heldu baita; eta, gure ohituran, gizon batek anitz balio duela, edo onez-oneko gizon bat, diogularik, gure gorte eta nobleziaren moduan, ez da gizon bihoztoi batez baizik esatea, erromatarren modu berean. Zeren bertutearen izen orokorrak haien baitan indarretik hartzen baitu etimologia⁸⁸. Frantzian, aitoren semegoaren modu berezkoa, bakarra, eta funtsezkoa gudar ofizioa da. Itxurazkoa da gizonen artean agertarazi zen lehendabiziko bertutea eta batzuei besteen gaineko abantaila eman diena hau izan dela, haren bidez azkar eta bihoztoienek ahulenen nagusi bilakatu baitira, eta ukan baitute maila eta omen berezia, nondik eta gelditu baitzaio mintzairazko ohore eta gorentasun hau; edo herri horiek, hagitz gudatiarrak izanik, saria eta izenbururik gorena eman diotela izaten zitzaien bertuteetan hurbilenari. Halaber gure pasioneak eta emakumeen kastitateari buruz dugun grina sukartiak daragi emakume on bat, onez-oneko emakume bat eta ohorezko eta bertutezko emakume bat, ez dela guretzat emakume garbi batez baizik; eginbehar horretara behartzeko garaitiko guztiak ezaxolara utziko bagenitu bezala, eta beste huts ororentzat brida laxo utziko bagenie bezala, horretarik bazterrarazteko trukean sartzeko.

VIII

Haurrenganako guraso-maitasunaz

D'ESTISSAC ANDEREARI

Anderea, arrotasunak ez banau salbatzen, eta berritasunak, gauzei balioa eman ohi baitiete, ez naiz sekula neure ohoretan aterako eginkizun ergel honetarik; baina hain ameskoia da eta badu ohitura arruntetik hain urrundua den aurpegi bat, non horrek iraganbide ematen ahalko baitio. Olde goibel bat izan da eta, beraz, nire izaera naturalaren biziki etsaia den olde bat, duela urte zenbait egotzi nintzen bakarduraren nekeak eraginik, lehenik gogoan ezarri zidana idazkeran sartzeko ameskeria hau. Eta gero, beste edozein gaiz osoki gabetua eta hutsa aurkiturik, neroni agertarazi diot neure buruari argudio eta gaitzat. Munduan bere motako liburu bakarra da, helburu basa eta bitxi batekoa. Eginbehar honetan, bitxikeria horretaz landa ez da azpimarragarririk batere; hain gai hutsal eta apal bati munduko egilerik hoberenak ez bailekike modu aipagarririk ematen. Bada, anderea, neure burua gordinik marrazkitu beharrean, muntako marra bat ahantziko nuen itxuratu izan ez banu zure merituei beti agertu diedan ohorea. Eta ezagutuki esan nahi izan dut kapitulu honen buruan, zeure beste nolakotasun onen artean zeure haurrentzat erakutsi duzun adiskidantzak lehen lerroetarik bat baitu. D'Estissac jaunak, zure senarrak, alargun utzi zintuen adina dakikeenak; zure mailako Frantziako andereari bezala eskaini zaizkizun ezkongai handi eta ohoregarriak; hainbat urtez eta hainbat zailtasun arantzatsutan gaindi, eraman duzun haien egitekoen zama eta zuzendaritza, Frantziako bazter guztietan barrena ibilarazi zaituztenak eta oraindik ere setiatzen zaituztenak; zure zuhertasun hutsaz edo zorionaz, eman diezun bideratze dohatsua; errazki esanen du, nirekin, gure aroan ez dugula zurea baino ama-maitasun eredu ageriagorik.

Jainkoa goستن dut, anderea, hain ongi erabilia izan baita; zeren D'Estissac jaunak, zure semeak, bere buruaz darakuskien esperantza onek aski segurtatzen baitute, adinean izanen delarik, harengandik ukanen dituzula oso seme on baten obedientzia eta ezagutza. Baina, bere haurtzaroagatik ez baititu eskertzen ahal zuregandik hain ausarki ukan dituen ezinagoko faboreak, nahi dut, idazki hauek egun batez eskuetara badatozkizu, gehiago edukiko ez dudalarik derrakeen ahorik ez hitzik, neuregandik ukan dezan egia osoko lekukotasun hau, oraino bizikiago agertuko baitiote, Jainkoak nahi

badu, orduan sentituko dituen ondorio onek: ez dela Frantzian aitoren semerik bere amari hark baino gehiago zor dionik; eta etorkizunari ez diezaiokeela bere ontasun eta bertutearen froga hoberik eman zure halakotzat ezagutzea baino.

Lege egiazki naturalik baldin bada, esan nahi baita, orokorki eta betierekoki ihiziengan eta gure baitan ikusten den asmo zerbait (eztabaidarik gabe ez den gauza), esan dezaket, neure ustez, animalia bakoitzak bere iraupeneko eta kalteatzen duenetik ihes egiteko daukan axolaren ondotik, sortzaileak bere sortuarengan duen maitasunak bigarren lekua daukala maila horretan. Eta, naturak gomendatu digula dirudienez geroz, bere tresna honen jarraipeneko zatien hedatze eta aitzinatzeri begiratuz, ez da harritzeko baldin eta, gibelka, seme-alabengandik gurasoengana, hain handia ez bada.

Gehi beste gogoeta aristoteliko hau, norbaiti on egiten dionak hobeki maite du maitatua izan dena baino; eta hartzekodunak hobeki maite duela zordunak baino; eta egile orok hobeki maite duela bere egina, honek hura baino, eginak sentimendurik balu. Izatea maite baitugu: eta izatea mugimendu eta ekintza da. Beraz, bakoitza badago, inola ere, bere egitean. Ongi dagienak, lantzen du ekintza eder eta zintzo bat; hartzen duenak, bakarrik erabilgarria lantzen du; erabilgarria ez da, anitzez ere, zintzoa bezain maitegarria. Zintzoa egonkor eta iraunkorra da, egin duenari etengabeko eskerron bat ematen diolarik. Erabilgarria aise galtzen eta itzurtzen da; eta haren oroimena ez da hain bizi ez hain ezitia. Gehien kosta zaizkigun gauzak zaizkigu maiteenak; ematea zailagoa da hartzea baino.

Jainkoak gogoetatzeko ahalmen zerbait eman nahi izan digunez geroz lege arruntetara, ihiziak bezala, apalki azpiratuak izan ez gaitezen amoreagatik, baina adimenez eta borondatezko libertatez lot gakizkion, eman behar diogu apur bat naturaren manamendu hutsari, baina ez geure burua utzi harengana eramatera; arrazoi hutsak izan behar du gure ahierren zuzendaritza. Gustua, neure aldetik, gogorki kamutsa dut gure adimenaren manu eta artekotasunik gabe gure baitan sortzen diren ahierrei buruz. Mintzo naizen gai honi buruz, ez baitut onartzen ahal doi sortu berri diren haurrak besarkatzen ohi diren pasionea, maitagarri bilakatu ahal izateko gogoan higidurarik eta gorputzean molde ezaugarriarik ez daukatelarik. Eta ez ditut gogotik jasan neure hurbilean hazirik. Egiazko maitasun ongi arautu bat sortu behar litzateke eta emendatu beren buruaz ematen diguten ezagutzarekin batean; eta orduan, balio badute, aiher naturala arrazoiarekin batean abiatuz, haien maitatzea egiazko aita-adiskidantza batekin; eta besterik badira, haien juzkatzea berdin, indar naturala izan eta ere. Maizenik alderantziz ohi da; eta, eskuarkienik, hunkituagoak sentitzen gara geure haurren ostikatto, josteta eta ergelkeriengatik, gero haien ekintza guztiz moldatuengatik baino, geure denborapasarako maite izan bagenitu bezala, tximinoak bezala, ez gizonak bezala. Eta halako batek eskuzabalki hornitzen du jostagailuez haien haurtzaroa, eta hertsia dager adinean egonik behar duten gasturik apurrenean. Areago ere, badirudi munduaz gozatzen -gu handik urruntzekotan garelarik ere- eta agertzen ikusiz dugun jeloskeriak bilakatzen gaituela haienganako zikoitz eta hertsia; aspertzen gara geure orpoz orpo badabiltza, ateratzeko baimenaren eskatzeko bezala. Eta horren beldur baginen, gauzen antolabideak baitarama haiek ahal ez daitezen, egiaren esateko, bizi ez izan gure biziaren eta izatearen bizkar ez bada, ez genuen geure burua aita izatean sartu behar.

Neroni dagokidanez, uste dut krudelkeria eta zuzengabea dela gure ontasunen partzuergo eta elkartean ez onartzea, eta gure etxeko egitekoen gogaikidegoan, horren gai direlarik, eta gure erraztasunen ez laburtzea eta hertsatzea haienen hornitzeko, horretarako sortu ditugunez geroz.

Zuzengabe da aita zahar, kraskatu eta erdi hil baten ikustea, sutondoko zoko batean, seme askoren aitzinamendu eta hazkunderako aski izanen liratekeen ontasunez gozatzen, eta uzten dituela, bitartean, biderik ezean, haien urterik hoberenen galtzera

zerbitzu publiko eta gizonen ezagutzera bulkatu gabe. Beren beharraren hornitzerako edozein bidetarik, zuzengabea bada ere, bilatzeko etsipenera egozten dituzte; neure aroan ikusi ditudan bezala etxe oneko gizon gazte anitz, ebasgoari hain emanak, non batere zuzenketarik ez baitzituen itzularazten ahal. Bat dazagut, jendaki onekoa, haren anaia aitoren seme zintzo eta bihoztoiaren eskariaz, behin mintzatu bainintzaion ondorio horretarako. Guztiz biribilki erantzun eta aitor zidan bideratua izan zela hondakin horretara bere aitaren garratz eta zekenkeriak, baina gaugero hain ohitua zela non ez baitzen baztertzen ahal; eta orduan andere baten eraztunen ebasketan harrapatu berria zen, haren ohetik jaikitzen gertatu baitzen beste anitzekin batera.

Oroitarazi zidan beste aitorenseme bati buruz entzuna nuen ipuina, hain egina eta moldatua baitzen lanbide horretara gaztaroan non, bere ontasunen jabegora etorri eta ibilkera horren uztera deliberaturik, hala ere, behar zuen gauza zegoen denda baten ondotik iragaiten bazen, ez baitzitekeen ebatsi gabe egon, gero ordaintzera igortzeko neketan ere. Eta ikusi ditut horretan hain trebe eta antzetsuak non, beren ebaskideen artetik beretik ere, ebasten ohi zituzten gero bihurtu nahi zituzten gauzak. Gaskoina naiz, eta hala ere ez da gutiago ezagutzen dudana biziorik. Izaeraz apur bat gehiago gorrotatzen dut solasez salatzen dudana baino; ez txirrintaz ere, ez diot sekula inori deus ere ebasten. Horri buruz, egiazki, eskualde hau erresuma frantseseko besteak baino gaitzetsiagoa da; geure aroan ikusi ditugu, zenbait aldiz, zuzenbidearen eskuetan, beste eskualdetako etxeko jaunak ebasketa askotako salaturik. Beldur naiz itsuskeria hau eman behar dela, inondik ere, gurasoen bizio horren bizkar.

Eta erantzuten bazait adimen oneko jaun batek egun batez egin zuena: aberastasunak aurrezkitzen zituela, ez haietarik mozkinik ez erabilerarik ateratzeko, baina bere buruaren ohorazteko eta bereak ondotik ibil zekizkion, eta adinak haren indar guztiak kendurik, bere familian manu-indarrean irauteko eta mundu osoaren gaitzespen eta gutiestetik itzurtzeko gelditzen zitzaion bide bakarra zela. (Zinez, ez zaharreria soilik, baina zozokeria oro, Aristotelesen arabera, zekenkeriaren eragilea da.) Zerbait da hori: baina jaiotzetik begiratu behar den gaitz baten antolabidea da. Aita bat, aski esteiaria da bere seme-alaben maitasuna bere laguntzaz duten beharraren bidez baizik ez bada lotua, hori maitasuna deitzen ahal bada ere. Errespetagarri bilakatu behar da nor bere bertuteaz eta jakintzaz, eta maitagarri bere ontasun eta ohituren ezintasunaz. Gai aberats baten hautsek ere badute beren balioa; eta ohorezko jendeen hezur eta erlikiak begirune eta agurtzapenetan ohi dauzkagu. Bere adina ohoretan iragan duen pertsona baten zahartzarora ez daiteke hain erorkor eta karmindua izan non, bere seme-alabei bereziki, agurgarria izan ez zaien, hauen gogoia bideratu behar baita eginbeharrari buruz arrazoiak, ez beharraz eta premiaz, ez bortxaz ez eta indarraz ere,

et errat longe, mea quidem sententia,

Qui imperium credat esse gravior aut stabilis

Vi quod fit, quam illud quod amicitia adjungitur ⁸⁹.

Ohore eta libertaterako eraikitzen den gogo xamur baten hezkuntzan bortizkeria oro salatzen dut. Bortxan eta indarketan bada apalkeriazko ez dakit zer; eta banago arrazoiak, zuhur eta trebetasunaz egin ez daitekeena sekula ez dela indarraz egiten. Horrela hezi naute. Badiote neure hartzaro osoan ez ditudala bi aldiz baizik azoteak dastatu, eta aski bigunki. Berdin egin dut izan ditudan hurrekin; unidegoan hil zitzaizkidan denak⁹⁰; baina Leonor, zorigaitz horretarik ihes egin den alaba bakar batek, sei urte eta gehiago bete ditu haren zuzenketan eta haur hutsen zigorrerako, hartako amaren barkakoitasuna errazki lehiatzen baita, hitzez besterik erabili izan gabe, eta poliki eztiak. Eta nire xedeak huts eginen balu ere, badira beste kausa ugari haien bizkar emateko, nire hezikarari erantzuki egin gabe, zuzena eta naturala dela baitakit. Horretan askoz ere zuzenagoa nintzatekeen gizonei buruz, zerbitzatzeari gutiago

emanak eta izaera libreagokoak: atsegin zitzaidakeen haien bihotzaren betetzea makurgabeziaz eta irekitasunez. Azoteetan ez dut beste ondoriorik ikusi, gogoak laxoago edo maltzurki tematiago bilakatzeaz baizik.

Nahi ote dugu geure seme-alabek maita gaitzaten? geure heriotzaren opatzeko parada kendu nahi ote diegu (hainbat gehiago non halako opa izigarri baten paradarik batere ez baitaiteke zuzen ez desenkusagarria izan: “nullum scelus rationem habet”)? erraz diezaiozun bizia, arrazoituki, geure ahalmenean den bezainbat. Horretarako, ez genuke hain gazterik ezkondu behar non geure adina haienarekin kasik nahastera etorriko den: eragozpen horrek zailtasun handietara garamatza. Nobleziari buruz ari naiz bereziki, bizi modu astidunekoa baita eta bizi ez dena, dioten bezala, bere errentetarik baizik. Zeren, bestela, bizi beharduna den lekuan, haurren ugaritasuna eta lagungoa etxeko ontasun bat baita, beste hainbeste aberasteko bide eta tresna direnez geroz.

Hogeita hamahiru urtetan ezkondu nintzen, eta goستن dut hogeita hamabosteko ustea, Aristotelesena dela baitiote. Platonek ez du nahi hogeita hamarrak baino lehen ezkont gaitzen; baina arrazoia du berrogeita hamarren ondotik beren ezkon-prestaketei lotzen zaizkienez burlatuz; eta kondenatzen du hauen sorkizuna janari ez biziaren ez mereziduna bezala.

Talesek eman zituen mugarik egiazkoenak, gazterik erantzun baitzion ezkontzeko hertsatzen zuen bere amari ez zela aroa; eta, adinean sarturik, ez zela gehiago arorik. Aldia ezezkatu behar zaio aldigabeko ekintza orori.

Aitzineko galietrek ezinago gaitzesgarri zeritzoten hogeit urtetako adina baino lehen ema-ezagutzaren ukaiteari, eta gerrarako prestatu nahi zuten gizonei bereziki gomendatzen zien gorde zezaten adinean biziki luzaz haien osotasuna, hainbat nola kuraiak berazten eta desbideratzen baitira emakumeekin uztartzeaz.

Ma hor congiunto à giovinetta sposa,

Lieto homai de' figli, era invilito

Ne gli affetti di padre e di marito ⁹²

Historia grekoak Jekus Tarentokoaz, Krisoz, Astiloz, Dioponpoz eta beste zenbaitez azpimarratzen du haien gorputzen azkarrik edukitzeko joko olinpikotako lasterraren, borrokaren eta beste lantzeen zerbitzurako, axola horrek iraun zien artean, ekintza venusiar mota ororik gabe egon zirela.

Muleazes Tunezeko erregek, Karlos bosgarrena enperadoreak bere estatura berriz ezarri zuenak, bere aitaren omenari erantzuki egiten zion haren emakumeekiko maizkeriatatik, eta beratz, anddere, haur-egile deitzen zion.

India espainoletako eskualde batean ez zitzaizen gizonei ezkontzeko baimena ematen berrogei urtetarik goiti baizik, eta neskei ematen, aldiz, hamar urtetan.

Hogeita hamar urte dituen aitoren seme batek ez da ordua hogeit dituen semeari lekua eman diezaien: bera bere printzearen gortean da eta gerretako bidaietan agertzeko aldian; bere gauzen beharra du, zinez haietarik parte eman behar dizkio, baina ez halakoa non ez dezan bere burua ahanzt besterentzat. Eta horri balio diezaioke aitek eskuarki ahotan duten erantzun honek: “Ez dut erantzi nahi etzatera joan baino lehen”

Baina urtez eta gaitzez lurreratua den aita batek, bere ahuleziak eta osasunik ezak giza harreman arruntez gabaturik, bere burua eta bereak kalteatzen ditu aberastasun-meta handi baten zaintzean. Aski egoeran dago, zuhur bada, etzateko erantzi nahi izateko: ez atorraraino, baina gaueko jantzi poliki bero bateraino; garaitiko ospeekin, haietaz egitekorik ez baitu, emaitza egin behar dio, naturaren arabera, egoki behar zaizkionari. Arrazoi da haien erabilera eman diezaien, naturak haietaz gabetzen duenez geroz: bestenaz, dudarik gabe, bada maltzurkeria eta bekaitzik. Karlos bosgarrena enperadorearen ekintzarik ederrena, bere mailako aitzineko zenbaitek bezala, jantziek

zamatzen eta trabatzen gaituztelarik arrazoiak erazteko manatzen digula ezagutzen jakitea izan zen; eta etzateko zangoak huts egiten digutelarik. Utzi zizkion bere lanbide, handitasun eta ahalmena semeari, bere baitan somatu zuelarik egitekoen zuzentzeko, lehen erdietsi zuen ospearekin, bermetasuna eta indarra huts egiten.

Solve senescentem mature sanus equum, ne

Peccet ad extremum ridendus, et ilia ducat ⁹³.

Nork bere buruaren ezagutzen ez jakiteko huts honek, eta ez ohartzea adinak naturaluki gorputz eta gogoari dakarkien ezintasun eta ezinagoko gaiztotzeaz, nire ustez gauza bera baita (gogoak erdia baino gehiago ez badu ere), munduko gizon handirik gehienen omena galdu du. Ikusi eta trebeki ezagutu ditut neure aroan manamendu handiko pertsonaiak, hagitz ikusterraza baitzen beren urterik hoberenetan erdietsi zuten omenaz ezagutzen nuen aspaldiko jakitatetik gogorki eroriak zirela. Gogotik, beren onerako, opatuko niekeen etxeko erretiroan egotea beren gogara publiko eta gudar eginkizunez arinduak, gehiago ez baitziren haien bizkarrerako. Behiala egon naiz arrotz aitorenseme alargun eta oso zahar baten etxean, aski zaharraro berdekoa beti ere. Bazituen ezkontzeko alaba asko eta seme bat jadanik agertzeko adinean; horrek etxea zamatzen zion gastu eta kanpoko agerraldi anitzekin, hartaz atsegin eskas baitzuen, ez bakarrik aurrezkitzeko axolarengatik, baina areago ere zeren hartua baitzuen, adinarengatik, guretik hagitz urrundua zen bizimodu bat. Egun batez esan nion, apur bat ausarki, ohi dudan bezala, hobeki zitzaiokeela guri lekuaren egitea, eta semeari uztea etxe nagusia (hura baizik ez baitzuen ongi ezarria eta erraztua), eta erretiratzea auzoan zuen etxalde batera, han inork ez baitzion haren atsedinari oztoporik ekarriko, gure trabatik ez baitzen itzurtzen ahal, seme-alaben egoera ikusirik. Gero sinetsi zidan, eta ongi kausitu zen.

Ez diot ere eginbeharraren bidez ematea, hartarik gehiago ezin itzultzekotan. Utziko nieke, eginkizun honen jokatzeko heinean naizen honek, neure etxe eta ontasunen gozamena, baina damutzeko libertatearekin, horretarako biderik ematen balidate. Erabilera utziko nieke, gehiago ez bainuke gozagarri; eta neure eginkizun orokorren manutik gordeko nuke neuretzat atsegin nukeen bezainbat; beti uste izan baitut gozamen handia izan behar zaiola aita zahar bati berak seme-alaben ezartzea bere eginkizunen zuzentzean, haien ibilera ikertzen ahal duelarik, daukan esperientziaren araberrako irakaskuntza eta aholkurekin hornituz, eta berak ere etxearen aitzineko ohore eta antolabidearen bideratzea bere ondokoen eskuetara, eta hortik ere haien etorkizuneko bideratzetik izan ditzakeen esperantzez askiestea. Horretarako bada, ez nuke haien lagungotik ihes egin nahi: hurbiletik argitu nahi nituzke, eta haien bestez eta lagungoaz gozatu neure adinaren baldintzaren arabera. Haiekin biziko ez banintz (ez bainuen egiten ahalko haien batzarrea laidostatu gabe, neure adinaren neke eta eritasunen zamaz, eta orduan nituzkeen arau eta bizi moduak bortxatu eta behartu gabe), haiengandik hurbil bizi nahi nuke bederen neure etxeko alderdi batean, ez agertuenean, baina errazenean. Ez, duela urte zenbait, Poitierseko S. Hilaireko apez nagusi bat ikusi nuen bezala, halako bakartasunean ezarria bere goibeltasunaren gaiztaldiak non, haren gelan sartu nintzenean, baitzuen hogeita bi urte ez zuela urratsik ateratzeko egina; eta bazituen bere ekintza guztiak libre eta errazak, salbu urdailean jotzen zion erreuma bat. Doi astean behin nahi zuen norbait sar zedin ikustera onartu; barrenetik hetsirik zegoen beti bere gelan, bakarrik, egunean behin janaria zekarkion nerabe batez salbu, sar eta atera besterik egiten ez zuena. Haren lana ibiltzea eta liburu zenbaiten irakurtzea zen (letren ezagutza baitzuen inola ere), bestela, horrela hiltzera tematurik, handik biziki labur egin zuen bezala.

Entseiatuko nintzateke, solasaldi ezti baten bidez, seme-alabengan neure alderako adiskidantza bizi eta borondate on ez itxuratu baten haztera, ongi sortu izaera baten

baitan errazki erdiesten dena; zeren ihizi suminduak baldin badira, gure mendeak mukuruka sortzen dituen bezala, halakotzat hastiatu eta ihes egin behar baitzaie. Gaitzesten dut seme-alabei aitaren deitura debekatzen dien ohitura eta, agurgarriagoa bezala, arrotz bat ematen, naturak bere baitarik gure manua ez baitu aski indartu; Jainko guzti ahalduna aita deitzen dugu, eta gutiesten dugu geure seme-alabek hala dei gaitzaten. Halaber, zuzengabe eta zoramena da adinean dauden haurrak gurasoen trebetasunaz gabetzea, haiengana erabili nahiz begitarte beltzuri eta gutiesgarri bat, horregatik beldur eta obedientzian egonen direlakoan. Arras ezteustako itxura bat da gurasoak hastiagarri eta, makurrago dena, irrigarri bilakatzen dituen haurren aldetik. Gaztetasuna eta indarra eskuar dituzte eta, beraz, munduaren haizea eta faborea; burlaz hartzen dituzte ez bihotzean ez zainetan odolik ez duen gizon baten, egiazko xori-mamurroak baitira, aurpegi haserre eta tiranikoak. Neure buruaz beldurrazten ahal banu ere, oraino nahiago nuke maitarazi.

Hainbat akats-mota badira zaharraroan, hainbat ezintasun; gutiesteari hain egokia da non, egin dezakeen erdiespenik hoberena, etxekoen maitasuna eta amodioa baita: manamendua eta beldurra ez dira gaurgero haren armak. Bat ikusi dut, gaztaroa hagitz burgoia izan zuena; adinean sartu delarik, ahal bezain sendo iragaiten badu ere, jotzen, ausikitzen, arnegatzen du, Frantziako nagusirik erauntsikorrena da, axolaz eta zainketaz bere burua alatzten du: hori guztia muntaketa batez baizik ez da, familiak berak laguntzen duena; bihitegitik, sototik, eta haren moltsatik ere, besteek badute erabileraren zatirik hoberena, bitartean hark baditu giltzak sakelean, begi-niniak baino maitekiago. Bere mahaian aurrezkiz eta xuhurkeriaz askiasten den artean, dena dario parrandan haren etxeko zoko askotarik, joko eta xahuketan, eta haren haserre eta begiramendu hutsaleko ipuinen denborapasan. Bakoitza zelatari da haren aurka. Menturaz, morroi xumeren bat fidelki lotzen bazaio, sarri gogoan behartzen da hari buruz: horretara zaharraroa berez ezinago emana baita. Zenbat aldiz arrandiatu zait berei ematen zien bridaz, eta ukaten zuen obedientzia zehatz eta agurpenaz; zein garbi zekusan bere egitekotan,

Ille solus nescit omnia ⁹⁴.

Ez dazagut gizonik, manamenduaren gordetzeko, hark baino alderdi natural eta erdietsi gehiago ekar ditzakeenik; eta, halarik ere, haur bat bezala engainatua da⁹⁵. Hargatik hautatu dut, halako baldintzetan dazaguzkidan askoren artean, eredugarriagoa bezala.

Eztabaida eskolastiko baten gaia litzateke horrela ala bestela hobeki ote den. Haren aurrean, gauza orok amore ematen dio. Eta haren manamenduari uzten zaio ibilbide hutsal hau: inoiz ez zaiola kontra egiten; sinesten, beldurtzen, errespetatzen zaio nahi bezainbat. Etxetik igortzen badu nerabe bat, hark bere puskak biltzen ditu, hara abiatua; baina haren aurrean soilik. Zaharraroaren urratsak hain emeki doaz, zentzuak hain nahasi, non bizi eta eginen baitu bere lanbidea etxean berean urte batez, ohartua izan gabe. Eta, behar denean, etorrarazten dira urruneko gutunak, urrikalkorrak, otoiztiak, hobe egiteko agintzez beteak, nondik eta berriz faborean ezartzen baita. Jaunak egiten du atsegingarri ez den salerospen edo gutun bat? Ezabatzen da berehala moldatuz egiterik edo erantzunik ezaren desenkusatzeko kausarik aski. Lehenean, kontrako gutunik batere ez aurkezturik, ez dakuski bere jakintzari egokiak diruditenez baizik. Menturaz hartuko balitu, pertsona baten bidez baliatzen ohi baita irakurtarazteko, bere hartan aurkitzen da nahi dena; eta itxuratzen da gutunean berean laidostatzen duenak barkamena eskatzen diola. Ez dakusa, azkenean, bere egitekoetan ahal bezain antolatu, moldatu eta askigarri den irudi baten bitartez baizik, haren neke eta herraren ez berpizteko. Itxura ezberdinen azpian ikusi ditut ekonomia luze, iraunkorrik anitz, orobat ondorio berdinekoak.

Emazteak beti aiher dira beren senarrekin ados ez izatera: bi eskuz hartzen dute haien kontrakotzeko estalki guztiak; lehen aitzakiak balio die zuritze orokorrerako. Ikusi dut senarrari ausarki ebasten ziona, bere konfessoreari baitzioen, limosna handiagoen egiteko. Fida zaitez erlijiozko ordain horretaz! Ezein erabilerarik ere ez zaie aski zuzena iruditzen, senarraren emankortasunetik heldu bada. Ebatsi behar dute abilki edo harroki, eta beti laidogarriki, grazia eta manamenduaren emateko. Nire aipuan bezala, zahar gaizo baten aurka eta seme-alaben alde denean, orduan datxikizkio izenburu horri, eta hartaz beren pasionea berdintzen dute ospearekin; eta morrointza berean balira bezala azpilantzen dute errazki haren menperatze eta manamenduaren kontra. Semeak badira, handiak eta sasoian, berehala erosten dute, bortxaz ala faborez, gelazaina, diruzaina eta garaitiko guztia. Emazterik ez semerik ez dutenak nekeago erortzen dira zorigaitz horretan, baina krudelki eta laidogarrikiago ere. Katon zaharrak zioen bere aroan, hainbat nerabe bezainbat etsai. Ikus ezazu, haren mendearen garbitasunetik gurerraino den aldearen arabera, ez ote digun ohartarazi nahi: emazte, seme eta nerabe, hainbat etsai guretzat. On dagokio zaharreriarik gure hornitzea oharpenik eta jakintzarik ezaren ontasunaz, eta engainatzera uzteko erraztasunaz. Sartuko bagina, zertaratuko gineteke, gure auziak erabaki behar dituzten epaileak haurtasunaren aldekoak ohi diren aro honetan?

Engainu hau itzurtzen bazait ikusi gabe, ez zait itzurtzen, bederen, hagitx engainagarria naizela ikusi gabe. Inoiz esana izan ote da aski zer balio duen adiskide batek, eta harreman zibil hauek baino zenbatez baliosoagoa? Zein erlijioarekin errespetatzen dut ihizien baitan ikusten dudaren haren irudia bera!

Besteek engainatzen banaute, ez dut bederen neure burua engainatzen haiengandik gordetzeko gaitzat harturik, ez eta gai bilakatzeko neure burmuinaren alatzeari. Halako tradiketarik salbatzen naiz neure altzoan, ez jakin-nahi grinati eta irakin batez, baina desbideratze gehiago eta deliberamenduz ere. Norbaiten egoeraren aipamena entzuten dudanean, ez naiz harengana denbora galtzen ari; neurehala inguratzen ditut begiak neure aldera, nola nagoen ikustera. Hura hunkitzen duen guztia dagokit. Haren gertaldiak ohartarazten eta ernatzen nau alde hartatik. Egunero eta aldiro beste batez diogu egokiago geure buruaz esanaren gurekeena, baldin eta geure oharpenaren biltzen bagenekiko hedatzen dakigun bezain ongi.

Idazle anitzek kalteatzen dute horrela beren kausaren geriza, oldartzen zaizkionaren aurrera ausarki larterkatzen direlarik, eta beren etsaiei aurtikitzen berriz beraiei aurtikitze egokiak diren geziak.

Monluceko jaun mariskala zenak, Madeira irlan hil zitzaion semea galdurik, aitorenseme zinez bihoztoia eta esperantza handikoa, gogorki azpimarratzen zidan, bere beste nahigabeen artean, harekin sekula harremanetan ez egon izanaz sentitzen zuen atsekabea eta bihotzmina; eta, aita itxura eta ihakinaren gogo horregatik, galdu zuela bere semeaz gozatzeko eta ongi ezagutzeko erraztasuna, eta halaber hari adierazteko harengana zeukan ezinagoko adiskidantza eta haren bertuteaz zuen aburu zuzena. "Eta mutil gaizo horrek, zioen, ez du niregandik ikusi itxura hoztu eta gutiespenez bete batez baizik, eta bere merituaren arabera maitatzen ez apreziatzen jakin ez dudalako sinesmena eraman du. Zeren igurikan nengoen gogoan eramaten nion maitasun berezi horren agertzeko? ez ote zen hura bera horren atsegin eta eskerron osoa ukan behar zuena? Bortxatu eta indarkatu dut neure burua mozorro hutsal honen edukitzeko; eta galdu dut haren solasaldiaren atsegina, eta haren borondatea ere, hagitx hotz batez baizik ez ziezadakeen izan, nire aldetik zakarkeriarik besterik ez ukanik, eta modu tiraniko batez baizik ez sentiturik." Aurkitzen dut kexa hau ongi hartua eta arrazoigarria zela; zeren, esperientzia hurbilegi baten bidez dakidan bezala, ez baitago gure adiskideen galtzean hain kontsolamendu ezirik nola haiei esatekorik batere ahortzi ez

dugulako jakintzak daramakiguna, eta haiekin harreman bete eta oso bat izan dugulakoa.

Neurei buruz irekitzen naiz ahal bezainbat; eta oso gogotik adierazten diet neure borondatearen egoera eta haien aldeko, nola bakoitzaren aldeko, aburua. Lehiatzen naiz neure buruaren agertzerak eta azaltzerak; zeren ez baitut nahi, edonon ere den, horretaz engaina daitezen.

Gure aitzineko galiarrek zeuzkaten beste aztura berezien artean, Zesarren arabera, honako hau zen: semeak ez zitzaizela aitei agertzen, eta ez zirela publikoan haren ondoan aurkitzera ausartzen, armak eramaten hasten ziren arte, esan nahi balute bezala orduan zela aroa ere aitek har zitzaten beren ondoan eta lagungoan.

Oraino ikusi dut beste zuzengabe-mota bat neure aroko aita zenbaitengan, ez baitute askiesten beren bizi luzean ontasunetan naturalki beren semeek ukan behar zuten zatiaz haien gabetzea, baina uzten dietela gero ere beren emazteei ontasun guztien gaineko manamendu hori berori, eta haien nahikeriaren arabera antolatze bidea. Jaun bat ezagutu dut, gure koroako lehendabiziko ofizio dutenatarik, berrogeita hamar mila ezkututako errenta batera etortzeko esperantza zuzena zuelarik, behardun eta zorrez itoa hil dena, berrogeita hamar baino gehiago urtetako adinean, ama azken zaharraroan haren ontasun guztiez oraindik gozatuz aitaren manamenduz, bere aldetik larogei urte inguru bizi ondoren. Hori ez zait iruditzen inola ere arrazoigarria.

Horrekin ere, aitzinamendu eskasa aurkitzen dut egitekoak ongi doazkion gizon batentzat dote handia dakarkiokeen emazte baten bila joatea: ez dago etxeei hondamen handiago dakarren zor arrotzik; nire aitzinekoek aholku hau bete ohi dute egoki, eta nik ere bai. Baina emazte aberatsak aholkatzen ez dizkigutenak, antolagaitzak eta eskertzarrekoak izan daitezten beldurrez, engainatzen dira egiazko erraztasun bat galaraziz ustezkatzeko hutsal baten truk. Zentzugabeko emazte bati ez zaio gehiago kostatzen arrazoi baten gainetik iragaitea beste baten gainetik baino. Zenbat eta zuzenaren kontra gehiago egon hainbat eta gehiago maitatzen dute beren burua. Zuzengabeak erakartzen ditu; onak beren ekintza bertutetsuen ohoreak bezala; eta onkoteagoak dira aberatsagoak diren heinean, eta garbiak gogotik eta ospetsukiago ere ederragoak diren ber.

Arrazoi da eginkizunen ihardukitzea amei uztea, legeen arabera, seme-alabak adinean ez diren artean, zamaren erabiltzeko; baina oso gaizki hazi ditu aita igurika ez badezake adin horretan bere emazteak baino zuhurtasun eta jakintza gehiago izan dezaten, emaztekiaren ohizko ahulezia ikusirik. Halarik ere, puskaz ere naturaren kontrakoagoa litzateke amen egonaraztea beren semeen nahiara. Eman behar zaie ausarki beren egoera zertaz sostenga izan dezaten, beren etxeko baldintza eta adinaren arabera, beharra eta eskasgoa desegoki eta jasangaitzagoa baitzaie ere gizonei baino; zuzenago da haurrek jasan dezaten amak baino gehiago.

Eskuarki, hiltzean gure ontasunen zatikatzerik zuzenena iruditzen zait zatikatzerak uztea herriko ohituren arabera. Guk baino hobeki gogoetatu dute legeak; eta hobe da haien hautaketan huts egin dezaten uztea ezen ez gurean huts egitera menturatzea. Ez dira garbiki gureak, gu gabe eta manamendu zibil baten bidez, ondoko batzuei eman ohi zaizkienez geroz. Eta libertate zenbait badugu ere, banago kausa handi eta ongi itxuratu bat behar dela norbaiti kentzeko zoriak erdietsi ziona eta zuzenbide arruntak deitzen zuena; eta, arrazoiaren aurka, libertate horretaz makur erabiltzea dela, gure nahikeria hutsal eta pribatuetarako baliaraztea. Neure zoriak arau arrunt eta zuzenetik neure maitasunaren baztertzeko gutizialdirik batere ez agertzeko faborea egin dit. Ohartzen naiz norbaiten aldeko ekintza onen egiteari luzaz lotzea denbora galdua dela; alde gaiztora hartzen den hitz batek hamar urtetako meritua ezabatzen du. Dohatsu azken iraganaldi horretan haien borondatearen gantzutzeko doi aurkitzen dena! Hurbileko

ekintzak darama: ez faborerik hoberenek eta maiztatuenek, baina berrienek eta agertuenek dagite ondorioa. Interes dutenen ekintza bakoitzaren saristatuz edo zigortuz beren testamentuez sagar edo azoteez bezala baliatzen diren jendeak dira. Ondorio luze eta pisu handiegiko gauza da istantero horrela ibilarazteko, horretan zuhurak behingoz finkatzen baitira, arrazoi eta jarraipen publikoari begira.

Sobera bihotzez hartzen ditugu gizonen ordezkatzeko horiek. Eta aitzinatzen diegu betierekotasun irrigarria geure deituri⁹⁶. Haur-gogoek ematen dizkiguten etorkizunaren ustezkatzeko hutsalak sobera pisatzen ditugu ere. Menturaz, zuzengabea egin zitzaidakeen neure mailatik aldaratuz neure ikasketan izana nintzelako luzakor eta motelena, ez bakarrik neure anaia guzien baina neure herrialdeko haur guztien artean asmuluze eta dorpeena, luzakor eta motelena izateagatik neure ikasgaian, bai gogoan nola gorputzean. Hain maiz engainatuak garen asmamen horien fedearen arabera ohiz kanpoko bereizteen egitea zorakeria da. Arau hau hausten ahal bada eta zuzentzen berak gure ondokoetarik hautaketarako zoriztatu egin dituenak, itxura gehiagorekin egiten ahal da gorputzezko moldagaizkeria ohargarri eta handi bati begira, bizio irakunkor eta zuzengaitza baita eta, edertasunaren maitale handien arabera, kalte larrikoa.

Platonen legeegileak bere hirikideekin duen solasaldi gozagarriak ohoratuko du pasarte hau: "Nola, bada -diote, beren azkena hurbil sentiturik-, ez genezake geureaz erabaki nahi dugunaren alde? Alajainkoak, zein krudelkeria guri zilegi ez izatea, eritasun, zaharraro eta eginkizunetan gurek zerbitzatu gaituzten arabera, haiei gehiago edo gutiago ematea geure nahikerien arabera!" Legeegileak erantzuten baitu modu honetan: "Laster, dudarik gabe, hil behar duzuen adiskideak: gaitz da zuek zeuen burua eta eta zeuena denaren ezagutzea, idazki delfiarraren arabera⁹⁷. Nik, legeak egiten baititut, daukat zuek ez zaretela zeureak, eta ez dela zeurea gozatzen duzuen ere. Zuenak eta zuek zeuen iragan eta geroko familiarenak zarete. Baina are gehiago publikoarenak dira zuen familia eta ontasunak. Horregatik, zuen zaharraroan edo eritasunean lausengariren batek edo pasione batek gaizki erakartzen bazaituzte zuzengabeko testamentu baten egitera, nik hortik zainduko zaituztet. Baina hiriaren interes orokorraren eta zuen familiaren aldeko begirunea edukirik, legeak finkatuko ditut eta adieraziko dut, arrazoigarri bezala, nor bakoitzaren erraztasunak amore eman behar duela ororenaren aurrean. Zoazte ezтики eta gogo onez giza beharrak deitzen zaituzten lekura. Niri dagokit, gauza bati besteari baino gehiago ez baitiot begiratzen, eta ororenaz, ahal bezainbat, arduratzen bainaiz, uzten duzuenaz arduratzea."

Neure solasera itzuliz, iruditzen zait, ez dakit nola, modu orotan nagusitasuna ez dagokiela inola ere emakumeei gizonen gainean, salbu eta amazkoa eta naturala, eta non ez den, sukarraldi zerbaitegatik, haien menara gogotik azpiratzen direnen zigorrarako; baina honek ez ditu atsoak ukitzen, haietaz mintzo baikara hemen. Gogoeta honen itxurak moldarazi eta finkarazi digu hain gogotik sekula inork ez zekusan lege hau: koroaren ondoregoaz emakumeak gabetzen dituen⁹⁸; eta munduan jaurerri guti da, egia-itxura batengatik, hemen bezala, lege hori aipatzen ez denik; baina zoriak sinesmen gehiago eman dio leku batzuetan besteetan baino. Periloso da gure ondoregoko zatikatzearen uztea haien erabakira, haurren artean eginen duten hautaketaren arabera, orotan orobat gaiztoa eta nahikeriazkoa baita. Zeren haurdunaldian duten nahikunde desarautu eta gustu eri hori, gogoan baitaramate denbora guztian. Eskuharki ikusten dira ahul eta konkortuenei isurtzen edo, baldin badituzte, lepotik zintzilikatzen zaizkienei. Zeren, arrazoiezko indarrik aski ez izanez balio duenaren bereizteko eta hautatzeko, gogotikago uzten baitute beren buruaren eramatera naturaren ziztadak soilagoak diren lekuetara; ihiziek bezala, bere umeen ezagutza ez baitute ugatzetan dauzkaten artean baizik.

Bestela ere, esperientziaz ikusterraza da hainbat sinesmen ematen diogun maitasun natural horrek oso erro ahulak dituela. Irabazte arin batentzat egunero erauzten ditugu amen besoetarik beren haurrak eta gureak jasanarazten; berenak uztaezten dizkiegu geureak eman nahi ez dizkiogun unide ahul bati, edo ahuntz bati: debekatzen diegularik ez bakarrik haien edoskitzea baina, zernahi arriskurik gertatuko balitzaie ere, oraino haietaz inola ere arduratzea, osoki emateko geureen zerbitzura. Eta ikusten ahal da, haietarik gehienek baitan, ohikuntzaz sortzen dela isurpen orde bat, naturala baino bortitzagoa, eta mailegatu haurren aldera kezka handiago bat haienei buruzkoa baino. Eta ahuntzak aipatu baititut, hainbestekoa da non ikusten ohi baita nire etxe inguruan herriakako emakumeek, beren ditietarik haurrak hazten ahal ez dituztelarik, ahuntzengana jotzea beren laguntzarako; orain badauzkat bi nerabe ema-esnea zortzi egunez baizik behin ere edoski ez zutenak. Ahuntz horiek berehala ohitzen dira haurñoen edoskitzera etortzen, haien ahotsa dazagute oihu egiten dutenean, eta haienganatzen dira: beren unide-haurraz beste agertzen bazaie, ezezkutzen dute; eta haurrak beste hainbeste dagi beste ahuntz batekin. Lehengo egunean ikusi nuen haur bat, bere ahuntzaz gabeturik zeren aitak auzokide batengandik mailegatu baitzuen: sekula ez zitzaion lakatu ahal agertu zitzaion besteari, eta dudarik gabe gosez hil zen. Ihiziek aldaratzen eta ordezkutzen dute guk bezain errazki aiher naturala.

Herodotok Libiako herrialde batez aipatzen duen horretan, emakumeekin bereiztu gabe nahasten ohi dela, baina haurrak, ibiltzeko indarra duelarik, aiher naturalak bere lehen urratsak bideratzen dizkionari buruz aurkitzen duela bere aita, uste dut huts egiterik aski badela.

Bada, gure haurren sortzeagatik haien maitatzeko bide soil hori gogoan hartuz - horregatik beste geure buruak deitzen baititugu-, badirudi badela guregandik datorren beste ekintza bat, gomendatze gutiagokoa ez dena: zeren, arimatik sortzen duguna, gure gogoaren umaldiak, gure kuraia eta jakintzarenak, gorputzezkoa baino nobleago den zati batek eginak baitira, eta gureagoak dira; aita eta ama elkarrekin gara sorkunde horretan; anitzez gehiago kostatzen zaigu, eta ohore gehiago ekartzen digu, onetik zerbait baldin badute. Zeren beste haurren balioa hagitzez ere haienagoa baita gurea baino; daukagun zatia oso arina da; baina hauetarik edertasun, grazia eta balio osoa da gure. Horregatik, ordezkutzen eta itxuratzen gaituzte besteek baino askoz ere bizikiago.

Platonek gehitzen du haur hilezinezkoak direla hauek, beren gurasoak hilezin egiten dituztenak, eta jainkotu ere, Likurgo, Solon, Minos bezala.

Beraz, historiak seme-alabenganako guraso-adiskidantzaren eredu beteak izanik, ez zait gaiz kanpokoa horren eredu zerbaiten hautatzea.

Heliodoro Trizeako apezpiku on hark nahiago izan zuen hain apez-nagusigo agurgarriaren zuzentasun, irabazpide, debozioaren galtzea bere alabarena⁹⁹ baino, oraindik dirauen alaba, aski gisakoa, baina menturaz, hala ere, sobera poliki eta bigunki apaindua eliz eta apez alaba bezala, eta modu amultsuegi batez.

Izan zen Labieno bat Erroman, balio eta manu handiko pertsonaia, eta beste nolakotasunen artean, bikaina literatura-mota guztietan, Labieno handi haren semea baitzen, uste dut, Galierrietako gerran Zesarren azpian ziren kapitainen artean lehena, gero Ponpeioren alderdira iraganik hain ausarki iraun zuena Zesarrek Espainian desegin arte. Mintzo naizen Labienok bere bertutearen bekaizti asko zeuzkan eta, itxurazkoa den bezala, enperadoreen gorteliaz eta faboritoak oraindik tiraniaren aurka gordetzen zituen aitaren aldien eta irekitasunaren etsaitzat, sinesgarria baita bere idazki eta liburuak haiekin tindatu zituela. Etsaiek jazarri zioten epailearen aitzinean Erroman eta erdietsi ere argitaratu zituen liburu askoren erretzera kondenatzea. Harekin hasi baitzen zigor-mota berri hori, gero Erroman beste askorekin jarraiki zuena, idazki eta ikerpenen ere heriotzez kondenatzekoa. Ez zen krudelkeria biderik ez gairik aski, eta

naturak sentimenduz eta jasankizunez gabetu zituen gauzak nahasi genituen ere, hala nola omena eta geure gogoaren asmamenak, eta joan ginen gorputzezko nekeak Musen lantze eta eraikuntzeetara hedatzera. Labienok, bada, ez zuen galtze hori jasan ahal, ez bere sorkunde hain maite hori gabe bizi; bizirik eraman eta hertsarazi zuen bere burua bere aitzinekoen mausoleoan, han aldi berean bere burua erahil eta ehortzi baitzuen. Gaitz da hori baino beste aitazko maitasun sukartiago baten erakustea. Kasio Severo, ele ederreko gizonak eta Labienoren ahaideak, liburuen erretzen ikusirik, oihukatzen zuen erabaki beragatik bizirik erretzera kondenatu behar zutela bera ere; oroimenean eraman eta gordetzen baitzuen eduki zutena.

Ezbehar beretsua gertatu zitzaion Greuntio Kordori, bere liburuetan Bruto eta Kasioaren goresteagatik salatutik. Senatu zital, azpikari eta usteldu hark, Tiberio baino nagusi makurrago baten merezidunak, sutara kondenatu zituen haren idazkiak; nahietsi zuen haien heriotzaren laguntzea, eta bere burua erahil zuen jaterik ezaz.

Lukano ona Neron zazar horrek epaiturik bere biziaren azken aldietan, jadanik hiltzeko sendagileari ebakiarazi zizkion zainetarik odolik gehiena jariorik, eta hoztasunak harturik soinadarren buruak eta bizi zatietara hurbildurik, oroimenean izan zuen azken gauza bere Farsaliako liburuen neurtitz zenbait izan ziren, haiek ozendu baitzituen; eta hil zen azken ahots hori ahoan edukirik. Zer zen hori baizik eta bere haurretarik hartzen zuen agur xamur eta aitazko bat, hiltzearekin geureei ematen dizkiegun adiokak eta besarkadak itxuratzen, eta, azken horretan, geure bizian maiteen ukan ditugun gauzek geure oroimenera deitzen dituen aiher natural horren ondorioa?

Uste ote dugu Epikurok, hiltzean sabelmineko ziztada gaitzek oinaztaturik, berak dioen bezala, munduari uzten zion irakaskuntzaren edertasunean kontsolamendu osoa baitzuen, hainbat atsegin ukanen zukeela ongi sortu eta hazi haur andana batengandik, eduki izan balu, bere idazki aberatsetarik zeukan bezainbat? eta haur konkortu eta gaizki sortu bat ala liburu ergel eta ezteus baten uzteko hautaketan egon izan balitz, ez zukeela gehiago hautetsiko, eta ez hark bakarrik, baina jakintza beretsuko gizon orok, lehen zorigaitzaren jasatea bestea baino? Menturaz erlijio gabetasuna zatekeen San Augustinen baitan (adibidez) alde batetik proposatzen bazitzaion haren idazkien ehortzea, haietarik gure erlijioak hainbat mozkin baitu, ala, eduki izan balu, haren haurren ehortzea, nahiago izan ez bazuen haurren ehortzea.

Eta ez dakit ez ote nukkeen hagitzez ere nahiago musen uztartzetik baten sortzea, osoki ongi egina, neure emaztearen uztartzetik baino.

Honako honi, den bezala, ematen diodana, osoki eta ezeztasunik gabe ematen diot, gorputzezko umeei ematen zaien bezala; egin diodan ongi apurra, ez da gaurgero neure eskupean; honek dakizkike nik engoiti ez dakizkidan gauzarik asko, eta neuregandik eduki nik gorde ez dudana eta, arrotz batek bezala, harengandik mailegatu beharko nukena, behar banu. Ni baino aberatsagoa da, eta ni bera baino zuhurragoa.

Poesiari emana den gizon guti da bere burua gehiago sariztatuko ez lukeena Eneida-ren aita izateaz Erromako mutilik ederrenarena baino, eta errazkiago pairatuko ez lukeena galtze bat bestea baino. Zeren, Aristoteles arabera, egile orotan poeta bereziki bere ekintzaren maitemindua baita. Sinesgaitza da Epaminondasek, harrotzen baitzen gerokotasun osotzat beren aita egun batez ohoratuko luketen alaben uzteaz (lakedemoniarren gainean irabazi zituen bi garaipen goretsiak ziren), nahietsi izan zukeela gogotik haien trukatzera Greziako ederrenengatik, edo Alexandrok edo Zesarrek sekula nahi zuketela bere gerrako ekintza ospetsuen handitasunaz gabetuak izatea, seme-alaben eta ondokoen edukitzeko erraztasunagatik, oso eta beteagoak balira ere; eta gogorki dudatzen dut ere Fidiasek, edo beste estatuegile bikain batek, maita zezan hainbat bere haur naturalen gordetze eta irautea nola lan eta ikerpen luze batekin edergintzaren arabera bete zukeen irudi bikain batena. Eta inoiz aitak beren alabei

buruz, edo amak beren semeei buruz, berotu dituzten pasione bizioso eta zoragarri horiei dagokienez, oraino ere aurkitzen dira halakoak beste ahaidetasun-mota honetan; Pigmalionez aipatzen dena lekuko, edertasun bereziko ema-irudi bat eraikirik, bere ekintzari buruzko maitasun erogarriak hain zoroki harturik zertaratu zen non, bere amorraren faboretan, jainkoek biziratu behar baitzioten,

Tentatum mollescit ebur, positoque rigore

Subsedit digitis ¹⁰⁰.

IX

Partoen armez

Gure aroko aitorensemegoaren modu makur eta bigunkeriaz bete bat da armen ez hartzea behar ezinago baten zorian ez bada, eta haietaz arintzea arriskua lekutu deneko itxurarik gutiena den bezain laster. Nondik nahasmen asko heldu baitira. Zeren, bakoitza oihuka eta lasterka bere armei buruz kargaldiaren heinean, batzuek koraza estreinatu gabe dutenean, beren lagunak jada lehertuak dira. Gure aitek zelata¹⁰¹, lantza eta besokoak uzten zituzten eramateko, eta bere pusken garaitikoa ez zuten zerbitzuak iraun artean uzten. Gure armadak dabilta guztiz harrotu eta moldegaberik pusken eta nerabeen nahasmenduagatik, hauek beren nagusiengandik ez baitira lekutzen ahal, haien armengatik.

Tito Livio, gureetaz mintzo delarik: “Intolerantissima laboris corpora vix arma humeris gerebant”

Herri anitz gerrara doaz orandik eta zihoazen lehen beren burua estali gabe; edo ezteusezko gerizez estaltzen ziren,

Tegmina queis capitem raptus de subere cortex ¹⁰³.

Alexandro, sekula izan zen kapitainik ausartena, gogorki bakanka armatzen ohi zen. Eta gutarik armadurak gutiesten dituztenek ez dute horregatik gaizkiagotzen beren ibilera. Ikusten bada norbait erahila armadura baten ezagatik, ez dira doi gutiagoak armen eragozpenak galdu dituenak, pisutasunaren azpitik entrabatuak, edo marruskatuak eta lehertuak, edo kontraukaldi batengatik, edo beste moduz. Baitirudi, egiazki, gureen pisua eta lodiera ikusirik, geure buruaren defendatzeaz baizik ez dugula bilatzen; eta zamakatuagoak gara estaliak baino. Eginkizunik aski dugu zamaren sostengatzen, eragotziak eta behartuak, soilik armen topaketaz gudukatu behar bagenu bezala, eta haien defendatzeko eginbeharra ez bagenu bezala, haiek gure duten bezainbatekoa.

Tazitok irrigarriki itxuratzen ditu gure aitzineko galiarren gudal jendeak, horrela armaturik beren buruaren gordetzeko soilik, ez oldartzeko ez oldartuak izateko biderik gabe, ez jaikitzeorik ere behin eroriz gero. Lukulok, armagizon medar zenbait ikusirik Tigranesen armadan aurreko aldea egiten zutenak, pisuki eta dorpeki armaturik, burdinazko gartzeletan bezala, hortik uste zuen errazki deseginen zituela eta haietarik hasi zuen bere oldartze eta garaipena.

Eta, gure arkabuzlariak omenean dauden honetan, uste dut edirenen dela geure buruaren harresiztatzeko asmaketaren bat haiengandik gerizatzeko, eta gerrara gerizategietan gure garraiatzeko, aitzinekoek beren elefanteei eramanarazten zizkieten bezalakoak.

Joera hau oso urrundua da Eszipion gaztearenetik, garrazki salatu baitzituen bere soldaduak, ur azpiko zepoez erein zutelako setiatzen zuten hiri batekoek ateraldiak egin zitzaketen hobiko lekuan; esanez setiatzen zutenek ekitea eduki behar zutela gogoan eta ez beldurtzea, arrazoiarekin beldur izanik ekintza horrek loarazi zuela beren buruaren gordetzeko zainketa.

Esan zion ere haren ezkutu ederra erakusten zion gizon gazte bati: “Zinez ederra duk, seme baina soldadu erromatar batek bere eskuineko eskuan fidantza gehiago eduki behar dik bere ezkerrean baino”

Beraz, ohituraz baizik ez da gure armen zama jasangaitz egiten diguna:

L'husbergo in dosso haveano, e l'elmo in testa,
Dui di quelli guerrire, de i quali io canto,
Ne notte o di, doppo ch'entraro in questa
Stanza, gli haveano mai mesi da canto,
Che facile a portar comme la vesta

Era lor, perche in uso l'avean tanto ¹⁰⁴.

Karakala enperadorea beti oinez zebilen herrian barrena, zati guztiez armaturik, bere armadaren buruan.

Oinezko erromatarrek ez zuten bakarrik kaskoa, ezpata eta ezkutua eramaten (zeren, armei zegokienez, dio Zizeronek, hain ohituak ziren bizkar gainean edukitzera non ez baitzituzten gainerako soinadarrek baino gehiago oztopatzen: "arma enim membra militis esse dicunt") baina, haiekin batean ere, hamabost egunetarako behar zuten janaria, harri-peza zenbait harresien egiteko, hirurogei liberatako pisuraino. Eta Marioren soldaduak, horrela zamakatuak, bost lekoa bost ordutan egiteko prest zeuden, eta sei ere, lehia baldin bazen. Haien gudar araubidea gurea baino biziki latzagoa zen; horrela eragiten zituen ere oso bestelako ondorioak. Honi buruz miresgarria da soldadu lakedemoniar bati, gerra bateko abialdian egonik, erantzuki egiten ziola ikusia izan zela etxe bateko estalpean. Nekerako hain gogortuak zeuden non ahalkea baitzen zerukoaz beste estalpe batean ikusiak izatea, zernahi aro bazegien ere. Eszipion gazteak, Espainian bere armadaren birrantolatzean, bere soldaduei manatu zien zutik baizik ez jatea, eta egosirik batere. Ez genituzke aski urrun eramaneen geure jendeak baldintza horretan.

Bestalde, Martzelino, gerra erromatarretan hazi gizonak, ohargarriki azpimarratzen du partiarrek zeukaten armatzeko modua, eta azpimarratzen du erromatarretik urrundua zen bezainbat. "Bazeuzkaten, dio, armadurak luma xumeen antzera ehunduak, bere gorputzen higidurak oztopatzen ez zituztenak: eta hai gotorrak ziren non gure geziak birjauzten baitziren" (ezkatak¹⁰⁶ dira, gure aitzinekoak haietara oso ohituak baitziren). Eta beste lekuan: "Zaldiak zeuzkaten, dio, azkar eta gogorrak, larru lodiz estaliak; eta beraiek ere armatuak ziren, burutik zangora, burdinezko xafla lodiez, halako antzez antolatuak non gorputzadarren juntagailuen lekuan mugimendua errazten baitzuten. Esan zatekeen burdinezko gizonak zirela; buruestalkiak hain egoki jarriak baitzituzten, eta naturalki itxuratuz aurpegiaren moldea eta zatiak, non ez baitzen jotzeko biderik begiei zegozkien xilo biribiletarik baizik, argi apur bat ematen baitzieten, eta sudurren lekuan ziren artaketarik, handik arnasa hartzen baitzuten aski dorpeki."

Flexilis inductis animatur lamina membris,

Horribilis visu; credas simulacra moveri

Ferres, cognatoque viros spirare metallo.

Par vestitus equis: ferrata fronte minantur,

Ferratosque movent, securi vulneris, armos ¹⁰⁷.

Horra arma gizon frantses baten tresneria, bere puska guztiekin, arras azkarki itxuratzen duen deskribapena.

Plutarkok dio Demetriok moldarazi zuela beretzat eta Alzinorentzat, haren ondoan zen lehen gerra gizona, ehun eta hogeitaz libera pisatzen zuen armadura oso bat, armadura arruntek hirurogei pisatzen zutelarik.

X

Liburuez

Ez dut dudatzen maiz gertatzen zaidala ofizioko maisuek hobeki eta egiazkiago darabiltzaten gauzei buruz mintzatzea. Hemen soilik nire ahalmen naturalen entseia da, eta ez ahalmen erdietsiena; eta jakinezaz salatuko nauenak ez du deus eginen nire kontra, zerengatik ez baitiot inori erantzunen neure hitzaldiei buruz neure buruari

erantzun ez diodanik; ez ditut askiesten. Jakintzaren bila denak har beza den tokian: ezer ez da gutiago arrandiatzen dudanik. Neure ameskeriak dira hauek, ez baitut gauzen ezagutzera eman nahi, baina neure burua: menturaz ezagunak izanen zaizkit egun batez, edo izanak zaizkit inoiz, argirik zeuden lekuetara zoriak eraman ahal nauen arabera. Baina ez naiz gaurgero oroitzen.

Eta irakurpen zerbaitetako gizona banaiz ere, oroitzapen ezteusetakoa naiz.

Beraz ez dut egiazkotasunik batere bermatzen, non ez den ezagutaraztekoa zein heineraino doan daukadan ezagutza. Ez bekie gaiei ohar, baizik eta haietan ematen dudan moduari.

Ikus dadin, maileguz hartzen dudanaren baitan, neure gaia zertaz eraiki bereizten jakin ote dudan. Zeren besteei esanarazten baitiet nik hain ongi esan ez dezakedana, behin neure mintzaiaren ahuleziaz, behin neure zentzuenaz. Ez ditut neure maileguak kontatzen, pisatzen ditut. Eta zenbakiaz baliarazi nahi izan banitu bi aldiz gehiago zamatuko nukeen neure burua. Denak dira, edo gutiz gehienak, hain izen famatu eta zaharretakoak non baitirudi aski izendatzen direla ni gabe. Neure lurrera birlandatzen ditudan arrazoi eta asmamenetan jakinez utzi dut noizean behin egilearen izena aipatu gabe, idazki-mota guztien gain, bereziki oraindik bizi diren gizonek mintzaira arruntez¹⁰⁸ -jende guztiak mintzabidea baitu, sorkundea eta moldea arruntak direla ere salatzen duela baitirudi- egin idazki berriak, egozten ohi diren sententzia lehiati horien bridapean edukitzeko. Nahi dut sudurreko bat eman diezaioten Plutarkori neure sudurraren gain, eta Senekaren laidostatza bero daitezen neure baitan. Nire ahulezia gorde behar da sinesmen handi horien azpian.

Nahi nuke norbaitek nire bipiltzen¹⁰⁹ jakin dezan, ustearen argiaz eta solasbideen indar eta edertasunaren bereizkunde hutsaz. Zeren nik, oroimenik ezaz, aldiro huts egiten baitut haien herrien arabera sailkatzeko, hagitz ongi baitakit sentitzen, neure helmenaren neurtzean, neure baratzen ez dela inola ere ereinik aurkitzen ditudan lore aberatsegi batzuen gaia, eta neure baitako fruitu guztiek ezin luketela ordaintzen.

Honen erantzule izan behar dut: baldin neure burua oztopatzen badut, baldin neure hitzaldian hutsalkeria eta biziorik bada, ni ez ohartzea edo ohartzeko gai ez izatea neure aurrean azaltzearekin. Zeren hutsak itzurtzen baitzaizkie maiz gure begiei, baina zentzuaren gaitza beste batek agertarazten dizkigunean ohartzen ahal ez izatean datza. Jakintza eta egia badaudeke gure baitan zentzurik gabe, eta zentzua ere badagoke haiek gabe; jakinezaren ezagutza da aurkitzen dudan zentzuaren lekukotasunik eder eta seguruenetarik bat. Zoria da eta ez beste oste-sargenturik neure zatien antolatzeako daukadana. Neure ameskeriak agertzen diren bezala, metatzen ditut; behin hertsatzen dira mukuruka, behin herrestatzen dira erreldoka. Nahi dut neure urrats natural eta arrunta ikus dadin, den bezain dorpea ere. Neure burua uzten dut naizen bezala joatera; hemen ez dira, beraz, ez jakiteko edo menturazki eta ausarki mintzatzeko zilegi ez diren gaiak.

Ongi nahietsiko nuke gauzen adimen osoaren edukitzea, baina ez dut erosi nahi kostatzen den bezain garesti. Neure gogo da bizitzeko gelditzen zaidana eztiki, eta ez nekez, iragaitea. Ezeren alde ez nuke neure burua hautsi nahi, ez jakintzaren alde, balio handiagokoa bada ere. Liburuetan lantze zintzo baten bidez atseginaren emateaz baizik ez dut bilatzen; ikertzen badut neure buruaz ari den jakintzarik besterik ez dut bilatzen, eta ongi hiltzen eta bizitzen irakats diezadan hura:

Has meus ad metas sudet oportet equus ¹¹⁰.

Irakurtzearekin zailtasunak aurkitzen baditut ez ditut neure azazkalak ausikitzen; hantxe uzten ditut, oldarpen bat edo bi egin ondoren.

Tematuko banintz galduko nintzateke, eta denbora ere: gogo jauzkari bat badut. Lehen oldarrean ez dakusadana, are gutiago hartan tematzean. Alaitasunik gabe ez dut ezer

egiten; iraupen eta indarkatze sobera berme batek itsutzen du neure zentzua, goibeltzen eta nekatzen. Ikusmena nahasten eta barreiatzen da. Baztertu behar dut eta aldizka ezarri: halaber ere gorriminareneko distiraz epaitzeko manatzen zaigu begien gainetik iragaiteko, ikustaldi ezberdinetan ibiliz, behin eta birritan errepikatuz.

Liburu honek aspertzen banau, beste bat hartzen dut; eta deus ez egiteko gogaidurak harrapatzen hasi orduetan baizik ez natzaio ematen. Berriei ez natxikie kasik, zaharrak bete eta tinkoagoak iruditzen baitzaizkit; eta grekoei ere ez, neure gogoak ez baitaki bere uzta egiten adimen haur eta hasi berri batetik.

Liburu soil atsegingarrien artetik, aurkitzen ditut, modernoetarik, Boccaccioren Decameron, Rabelais, eta Joanes Bigarrenaren¹¹¹ Musuak, atsegingarrien izenburupean ezarri behar badira. Amadis eta halako idazki-motei dagokienez, ez zuten nire haurtzaroa ere erakartzeko sinesmerik. Oraino hau esanen dut, ausarki edo lotsagabeki, gogo zahar dorpe honek ez duela uzten, ez Ariostok bakarrik, baina oraindik ere Ovidio onak kilika dezan, honen erraztasunak eta asmamenek, behiala liluratu nindutenek, orain doi jostatzen naute.

Nasaiki badiot neure ustea gauza orotaz, menturaz neure jakintza gainditzeko dutenez ere bai, eta ez diot neure menekoak direnik. Haietaz diodana neure ikusmen neurriaren adierazteko da ere, ez gauzen neurria. Platonen Axioko-z¹¹² nardaturik aurkitzen naizelarik, halako egilearen aldeko idazki motel bat bezala, neure irizpideak ez du sinesten: ez da beste irizpide ospetsu eta zaharren kontra ezartzeko hain ergela, baditu bere gidari eta irakasleak eta nahiago du haiekin huts egin. Bere burua larderatzen du, eta kondenatzen, edo azalean gelditzeagatik, barrenareino ezin sarturik, edo gauzari begiratzeagatik distira faltsu zerbitzetik. Askiesten du nahasmendu eta desarautzetik gordetzea; bere ahuleziari dagokionez, ezagutzen eta onartzen du gogotik. Uste du itzulpen zuzena ematen diela bere sorkundeak agertzen dizkion itxurei; baina zozo eta eskasak dira. Esoporen alegiarik gehienek zentzu eta ulerpen asko dituzte. Mitologizatzen dituztenek bereizten dute alegiari ongi dagokion aurpegi bat; baina, gehienentzat, lehen eta azalezko aurpegiak besterik ez da; badira beste zenbait bizi, funtsezko eta barrenekoagoak, sartzen jakin ez dituztenak: horra nik nola egiten dudana.

Baina, neure bidetik jarraitzeko, beti uste izan dut poesian Virgiliok, Lukreziok, Katulok eta Horaziok oso urrundik daukatela lehen maila: eta bereziki Virgiliok bere Georgikoetan, poesiaren idazkirik beteena bezala onesten baitut; haren aldean errazki ezagutzen ahal da badirela Eneidako pasarteak egileak orraztaldi zenbait eman zizkiokeenak, astirik izan balu. Eta Eneidan bosgarren liburua iruditzen zait beteena. Lukano onesten dut ere eta gogotik maiztu; ez hainbat haren idazkeragatik nola haren iritzi eta usteen egia eta berezko balioagatik. Terentzio onari dagozkio mintzaira latinaren girgileria eta graziak, miresgarria aurkitzen dut gogoko aldien eta gure ohituretako baldintzen itxuratzeke; ordu orotan gure ekintzek banaramate harengana. Ez dut sekula irakurtzen edertasun eta grazia berririk aurkitu gabe. Virgilioren arokideek deitoratzen zuten zenbaitek Lukrezio alderatzen ziotelako. Uste dut, zinez, soberazko alderaketa dela; baina lanik aski badut uste horri atxikitzeke, Lukrezioren pasarte ederretarik bati estekatua aurkitzen naizelarik. Alderaketa horretaz gaitzitzen baziren, zer esanen lukete orain Ariosto alderatzen diotenen zozokeria eta ergelkeria basaz? eta zer esanen luke Ariostok berak?

O seculum insipiens et infacetum ¹¹³!

Uste dut aitzinekoek deitorabide gehiago zutela Plauto Terentziori hurbiltzen ziotenez (honen baitan hobeki dago bere aitoren semea¹¹⁴), Lukrezio Virgiliori baino. Terentzioren onespenean eta hobesteren alde anitz egiten du elegintza erromatarren aita¹¹⁵ maiz ahotan duela, haren mailako bakarra bezala, eta poeta erromatarren lehen

epaileak haren lankideaz ematen duen epaiketaz¹¹⁶. Anitzetan gogoratu zait nola, gure aroan, komedien egitera nahasten direnek (hala nola italiarrek, aski zorionekoak baitira) darabiltzaten Terentzio edo Plautoren hiruzpalau gai beraienetarik baten moldatzeko. Komedia bakar batean metatzen dituzte Boccaccioren bospasei ipuin. Modu horretan gaiz zamarazten dituen beren graziez sostengatu ahal izateaz duten mesfidantza da; ediren behar dute gorputz bat beren buruaren bermerako; eta, gure erakartzeko beraienetarik ez edukirik, nahi dute ipuinak josteta gaitzan. Nire egilearekin guztiz aitzitik da: haren elekaeraren beteginak eta edertasunak galarazten didate haren gaiaren gosea; haren gisakotasuna eta grazia datxizkigu alde guztietarik; orotan hain atsegina da,

liquidus puroque simillimus amni ¹¹⁷,

eta gogoia hainbat betetzen digun bere dohaiez non ahanzten baititugu haren ipuinarenak.

Gogoeta honek beronek narama aurrerago: badakusat aitzineko poeta onak hanpatze eta handikeriatik itzuri direla, ez soilik ameskeriazko goratze espainol eta petrarkiarretarik, baina ondoko mendeetako ekintza poetiko guztien apaindura dagiten zorrozturea ezti eta neurtuagoetarik ere. Ez baita epaile onik aitzinekoen baitan halakorik aurkitzen duenik, eta alderatzerik gabe gehiago miresten ez dituenik Katuloren Epigramen apaindura berdina, etengabeko eztitasuna eta edertasun loreztagarria, Martzialek bere epigrametako dilingoen hornitzeko darabiltzan ezten guztiak baino. Arestian aipatzen nuen arrazoia bera da, Martzialek bere buruaz dioen bezala, “minus illi ingenio laborandum fuit, in cuius locum materia successerat”. Haiek, hunkitu eta gaitzitu gabe, adierazten dute; orotan badute irrigaia, ez dute beren burua kilikatu behar; hauek behar dute kanpoko laguntza; gogo gutiago duten arabera, gorputz gehiago behar dute. Zaldiz badabiltza ez baitira aski azkarrak zango gaineen. Dantzetan bezala, horretan eskola duten baldintza zitaleko gizonak, gure nobleziaren planta eta gisakotasuna ezin itxuratuz, entseiatzen dira beren buruaren gomendatzera jauzi perilos eta beste mugimendu bitxi eta saltomakoen bidez. Andereek hobe dute bazterrean egon gorputzezko bihurtze eta inarrote diren dantzetan beste erakustaldiko dantzetan baino, soilik urrats natural batez ibiltzea eta jitezko planta bat eta bere ohizko graziaren itxuratzear baizik ez baitute egin behar. Ikusi ditudan antzezleri bikainek bezala, ohi bezala jantzirik eta itxura arrunt batez, haien lantzetik atera daitekeen atsegin guztia guri ematen; ikasleek eta hain antze handikoak ez direnak, aldiz, aurpegia irineztatu behar, mozorrotzen eta kordokatzen mugimendu eta keinu zoroetan irri egitera abiarazteko. Sorkunde hau berau beste inon baino hobeki ezagutzen da Eneida eta Eroa-ren¹¹⁹ arteko alderaketan. Hura ikusten da hegaldatzen, hegaldaldi gora eta berme batez, beti bere jomugari jarraikiz; hau hegaldakatzen eta jauzikatzen ipuinez ipuin, adarrez adar bezala, bere hegaletan fidatzen ez delarik ibilaldi oso motz baterako ez bada, eta bazter orotan pausatzen, arnasak eta indarrak huts egin beldurrez,

Excursusque breves tentat ¹²⁰

Horra, bada, gai-mota horri buruz, gehien atsegin zaizkidan egileak.

Eta neure beste irakurpenari dagokionez, atseginari mozkin zerbait gehiago nahasten baitio, neure olde eta baldintzen antolatzen ikasten baitut, balio dizkidan liburuak Plutarko, frantsesa denez geroztik¹²¹, eta Seneka dira. Biek dute nire olderako erraztasun handia den hau: bilatzen dudak jakintza josi gabeko zatietan emana dela, ez baitute lan luze baten eginbeharra, ez bainaiz gaia, hala nola Plutarkoren Idatzi laburrak eta Senekaren Gutunak, honen idazkietan zatirik eder eta baliagarriena baita. Ez dut eginahal handirik behar haiei lotzeko; eta uzten ditut nahi dudanean. Ez baitute batzuetarik besteetarako jarraipenik. Egile hauek elkarrekin ados dira aburu baliagarri

eta egiazko gehienetan; halaber haien zoriak sortarazi zituen mende beretsu inguruan, biak bi enperadore erromatarren irakasleak, biak herri arrotzetik etorriak, biak aberats eta ahalduak. Haien irakaskuntza filosofiaren lorea dira, modu soil eta egoki batez agertua. Plutarko berme eta iraunkorragoa da; Seneka aldakor eta ezberdinagoa. Hau nekatzen, gotortzen eta tinkatzen da bertutearen armatzeko ahulezia, beldur eta aiher biziosoen aurka; besteak badirudi ez duela bere eginahala hainbatetan preziatzen, eta gutiesten duela bere urratsaren lehiatzea eta gerizan jartzea. Plutarkok baditu iritzi platonikoak, gizarte zibilari ezti eta egokiak; besteak estoiko eta epikuroarrak baditu, ohitura arruntetik urunduagoak, baina, nire irudiko, bereziki errazagoak eta bermeagoak. Senekaren baitan badirudi apur bat ematen diola bere aroko enperadoreen tiraniari, zeren egiazkotzat baitut epaiketa bortxatu bat dela Zesarren erhiltzaile eskuzabalen kausa kondenatzen duela; Plutarko libre da orotan. Seneka zorrozte eta jauziz beterik da; Plutarko, gauzez. Hark berotzen eta hunkitzen zaitu gehiago; honek lehenago asetzen eta hobeki ordaintzen. Gidatzen gaitu, besteak bulkatzen.

Zizeroni dagokionez, haren baitan neure xederako balio diezadaketen idazkiak filosofia bereziki moralari buruz aritzen direnak ditut. Baina, egiaren esateko ausarki (zeren axolagabekeriaren hesiak gaindituz geroz ez baita gehiago bridarik), haren idazkera aspergarria iruditzen zait, eta halako modu guztiak ere bai. Sarrerek, mugatzeek, zatitzeek, etimologiek haren idazki gehiena jaten baitute; bizi eta mamizko dena ito dute haren prestaketen luzakeriek. Ordu bat eman badut haren irakurpenean, neuretzat anitz baita, eta gogoratzen badut mamiz eta zukuz zer atera dudana, aldirik gehienetan haizerik besterik ez dut aurkitzen: zeren oraindik ez baita etorri bere solasaldiari dagozkion argudioetara, eta bilatzen dudana korapiloa berez jotzen duten arrazoietara. Neuretzat, zuhurrago eta ez jakileago edo elestariago bilakatzeaz baizik ez baitut eskatzen, arau logiko eta aristoteliar horiek ez dira beharrezkoak: nahi dut azken puntutik has gaitezen; aski aditzen dut zer den heriotza eta atsegin; ez dezagun denbora iragan haien xehatzean: hasieratik bilatzen ditut arrazoi on eta bermeak, eginahalari eusten irakats diezadaten. Ez dute balio gramatikazko sotileziek, ez hitzen eta argudioen antolaketa abilak; nahi ditut lehen oldarra duda minean jotzen duten hitzaldiak: harenak ilauntzen dira itzulinguruka. Eskola, epaitegi eta predikurako onak dira, lo kuluxketan aritzeko astirik baitugu, eta ordu laurden bat geroago oraindik solas-hariaren berriz aurkitzeko tenorez baikara. Hala mintzatu behar zaie artez edo makurrez irabazi nahi diren epaileei, haurreri eta jende xeheari, dena esan behar baitzaie ea zerbaitek badaramatzen. Ez dut nahi erne egonarazteko ari daitezen eta berrogeita hamar aldiz oihuka diezadaten: “Entzun bada!” gure mandatarien moduan. Erromatarrek zioten beren erlijioan: “Hoc age” guk geurean “Sursum corda” dioguna; hitz galduak dira niretzat. Etxetik nator erabat prest: ez dut onkailu ez saltsarik behar: ongi jaten dut haragi guztiz gordina; antolaketa eta aitzin-josteta horietaz gosea zorroztu orde, nekatzen eta moteltzen didate.

Aroko atrebentziak desenkusatu ote nau ausartzia sakrilego honengatik, Platonen beraren solasaldiei sobera herrestagarriak eta itogarriak haren gaiarentzat irizteagatik, eta hitzaldi luze hutsal eta prestatzaile horietan hainbat gauza hoberen esateko zeukan gizon batek ematen duen denboraz dolu egiteagatik? Neure jakinezak desenkusatu nau hobeki, haren mintzaiaren edertasunean deus ere ez baitut ikusten.

Eskuarki, eskatzen ditut zientziez baliatzen liburuak, ez antolatzen dituztenak.

Bi lehendabizikoek, eta Pliniok, eta horien bezalakoek ez dute Hoc age-rik batere; nahi dute beren buruari abisatu dioten jendeekin ari; edo, baldin badute ere, mamizko Hoc age bat da, bere gorputza duena.

Gogotik dakuskit ere Gutunak “ad Atticum”¹²⁴, ez soilik haren aroko egiteko eta historiaren irakaskuntza hagitik zabal bat daukatelako, baina, anitzez gehiago, haren

barreneko aldartearen edireiteko. Jakin-nahi berezi bat baitut, beste inon esan dudanez, neure egileen gogo eta aburu hutsen ezagutzeko. Munduko antzokian hedatzen duten beren idazkien erakustaldi horretarik, haien jakintza epaitu behar da, baina ez haien ohiturak ez haiek beraiek. Mila aldiz damu izan dut galdu dugulako Brutok bertuteaz idatzi zuen liburua: zeren ongi ikasi behar baita praktika ongi dakitenen teoria. Baina, predikua eta predikuegilea ez baitira gauza bat eta bera, berdin nahiesten dut Brutoren ikustea Plutarkoren baitan nola bere baitan. Gehiago hautetsiko nuke zinez jakitea, dendan eta gudu baten bezperan, bere adiskide minetarik batekin eduki aitzinusteak, biharamunean bere armadari egin solasak baino; eta gehiago zer egiten zuen bere ganbaran eta gelan, plaza erdian eta senatuan baino.

Zizeroni dagokionez, haren gogoan jakintzaz landako bikaintasun handirik ez zelako uste arruntekoa naiz: hiritar ona zen, jite bihotz-beratz batekoa, hura bezalako gizon gizen eta gantzatiak diren bezala; baina, gezurrik gabe, haren baitan bazen bigunkeria eta handikeria hutsalik asko. Eta ez dakit nola desenkusa uste izateagatik bere poesia argitaragarria zela; ez da akats handiegia neurtitzen gaizki egitea; baina haren arrazoibiderik eza da ez ohartzea bere izenaren ospearen zein ez gaiak ziren. Haren elegintzari buruz, alderaketaz osoki kanpoan da; uste dut ez duela inork sekula berdinduko. Zizeron gaztea, bere aitaren egiterik izenean besterik ez duena, egun batez gertatu zen bere mahaian arrotz askorekin, eta besteen artean Zestio, bazter apalean jarriarik, handikien mahai zabaletan ohi den bezala. Zizeronek galdegin zuen nor zen, eta bere jendeetarik batek esan zion haren izena. Baina, beste zerbaitetan gogoan daukan eta esaten zaiona ahanzten duenak bezala, berriz galdegin zuen, gero, bizpahiru aldiz; nerabeak, hain maiz gauza beraren errepikatzeko neketan gehiago ez sartzeko, eta ezagutarazteko xehetasun zerbaitengatik zioen: “Zure aitaren elegintza harenaren ondoan ezer handirik goresten ez duela inoiz aipatu zaizun Zestio da hori.” Zizeronek, bapatean horretaz gaitziturik, manatu zuen har zedin Zestio hori, eta zeharazi zuen bere aurrean: horra jendetasunik gabeko arrotzain bat. Denaren aipatzeko, haren elegintza alderagaitza goretsi dutenen artean badira haren akatsak azpimarratu gabe utzi ez dutenak: Bruto handi hura, bere adiskideak, zioen elegintza hautsi eta indarririk gabe bat zela: .fractam et elumbem Haren mende hurbileko elestariak gaitzesten dute haren baitan, solasaldien bururatzean lelo luze zerbaiten maizkeria, eta bereziki hitz hauek: esse videatur, hainbatetan darabiltzanak. Neuretzat, nahiago dut laburragoan jotzen duen errepika bat, ianboetan¹²⁷ mozturik. Noizean behin nahasten ditu bortizki bere neurkadak, baina bakanka: pasarte hau hauteman diet neure belarriei: Ego vero me minus diu esse mallem quam esse senem, antequam essem.

Historialariak nire eskuko lotakia¹²⁹ dira: atseginak eta errazak dira; eta gizona, haren ezagutzaren bila bainaiz, orokorrean agertzen ohi da beste edonon baino bizi eta osoagoa, bere barreneko baldintzen ezberdin eta egiatasuna larriki eta xeheki, bere elkarbideen bereiztasuna eta mehatxatzen duten ezbeharrak. Bada, biziak idazten dituztenak, gertakariei baino gehiago aholkuei ematen zaizkienez geroz, eta gehiago barrenetik abiatzen denari kanpoan gertatzen denari baino, horiek egokiagoak zaizkit. Horra zergatik, zori orotarako, Plutarko den nire gizona. Biziki damu dut Laertzio andana bat ez baitugu, edo hedatuagoa eta entzunagoa ez baita. Zeren ez baititut jakin-nahi gutiagorekin gogoan hartzen munduko irakasle handi horien zoria eta bizia, haien sinesmen eta ameskeriak baino.

Historien ikerpen sail honetan, eskuztatu behar dira bereizkunderik gabe egile-mota guztiak, zaharrak eta berriak, mordoilodunak eta frantsesak, ezberdinki darabiltzaten gauzen ikasteko. Baina, nire irudiko, Zesarek bereziki merezi du ikertzea, ez bakarrik historiaren jakintzagatik, baina hura beragatik, hainbat betegin eta bikaintasun baitu besteen gainean, horien artetik Salustio bada ere. Egiazki, irakurtzen dut egile hori giza

idazkiak irakurtzen ohi diren baino agurtasun eta begirune apur bat gehiagoarekin: inoiz hura bera gogoan hartuz haren ekintzak eta handitasunaren mirakuluagatik, inoiz haren mintzairaren garbitasun eta apaindura imitagitza, gainditu baitu, ez bakarrik historialari guztiak, Zizeronek dioen bezala, baina, menturaz, Zizeron bera ere. Hainbat zintzotasunekin haren aburupenetan, etsaiez mintzo delarik, non, bere kausa gaiztoa eta bere handinahi kiratsaren zaborra estali nahian darabiltzan itxura faltsuez salbu, uste baitut horretaz esan daitekeen bakarra bere buruaz mintzatzeko zuhurregia izan dela. Zeren hainbat gauza handi ezin baitaitezke hark eginak izan, beretik joan izan gabe ezartzen duena baino gehiago.

Historialariak maite ditut edo gogorki bakunak edo bikainak. Bakunek, ez baitute beretik zertaz nahasi deus ere, haien ezagutzara datorrenaren biltzeko ardurarik eta lehiarik besterik ez baitute ezartzen eta bereizterik ez hautesterik gabe gauza guztien idatziz ezartzekoa, adimen osoa uzten digute egiaren ezagutzarako. Hala da, besteen artean, adibidez, Froissard ona, bere egitekoan ibili izan baita hain zintzotasun zabalarekin non, huts bat eginik, ez baita beldurtzen ohartarazia izan den lekuan ezagutzeko eta zuzentzeko; erakusten baitizkigu bazebiltzan zurrumurruen berezkundea bera eta aipatzen zitzaizkion berri ezberdinak. Historiaren gaia da, hutsa eta moldegabea; bakoitzak egin dezake bere mozkina adimena daukan arabera. Hagitz bikainek badute jakingarria denaren bereizteko jakintza, bi aipamenetarik hauta dezakete itxuragarriena; printzeen baldintza eta aldarteetarik ondoriatzen dituzte haien usteak eta hitz egokiak ematen dizkiete. Badute gure sinesmena berenaren arabera ezartzeko manu-indarraren hartzeko arrazoirik; baina, egiazki, hori jende gutiri baizik ez dagokio. Bien artekoek (modurik arruntena baita) dena hondatzen digute; zatiak moztortu nahi dizkigute; epaitzeko eskubidea ematen diote beren buruari, eta beraz beren alderako historiaren makurtzekoa; zeren, ustea alde batera isuriz geroz, ezin baita aipakizunaren zehiarbide horretarako inguratze eta okertzetik itzurtzen ahal. Entseiatzen dira gauza jakingarrien hautatzera, eta anitzetan estaltzen digute hobeki irakatsiko ligukeen halako hitza eta halako barreneko ekintza; baztertzen dituzte, sineskaitzak bezala, ulertzen ez dituzten gauzak, eta, agian zerbait ere, latin edo frantses garbiz esaten ez dakitelako. Heda dezaten beren elegintza hitzaldietan, epai dezaten beren aldian; baina, utz diezaguten zeren epai haien ondotik eta ez dezaten deus alda ez bazter, beren mozte eta bereizteen bidez, gaiaren gorputzetik: bidal diezaguten, beraz, garbirik eta osorik bere neurkizun guztietan.

Maizenik hautatzen ohi dira eginkizun horretarako, eta bereziki mende hauetan, jende arruntaren arteko pertsonak, ongi mintzatzen direlako arrazoi bakarragatik, hor gramatikaren ikastea bilatzen bagenu bezala! Eta horiek arrazoi dute, horretarako baizik ordainduak ez izanik eta talatarik besterik salgai ez eskainirik, nagusiki zati horretaz baizik ez ardurtzeko. Hala bada, hitz ederren hutsez, moldatzen doakigu opil eder bat hirietako gurutzebideetan bildu dituzten hotsekin. Historia on bakarrak, edo egitekoetan manatzen zutenek beraiek edo haien gauzatzearen parte hartzaileek idatzia dira, edo, behintzat, mota bereko besteen zuzentzeko zoria ukan dutenek. Halakoak dira greko eta erromatarrik gehienak. Zeren, begizko lekuko askok gai berari buruz idatzirik (handitasuna eta jakintza elkargana biltzen ohi zen aro hartan gertatzen zen bezala), hutsik baldin bada ere, miresgarriki arina izan behar da, eta azkarki gertaldi dudagarri bati buruz. Zer igurika daiteke gerraz diharduen sendagile batengandik, edo printzeen xedeez diharduen ikasle batengandik? Azpimarratu nahi badugu erromatarrek honetan zeukaten begirunea, eredu honetaz baizik ez da behar: Asinio Poliok aurkitzen zuen Zesarren historietan huts zerbait, gertatu baitzitzaion bere armadako zati guztietara begiztatu ahal ez izateagatik, eta ez aski egiaztatu gauzez aipatzen zitzaizkion berezitasunen sinesteagatik; edo bere ordezkariak ez baitzioten aski xeheki ohartarazi

bere urrunaldietan haiek zuzendu gauzez. Eredu honen bidez ikus daiteke egiaren biltze hau hauskorra den: ez baita gudu batez fidatzen ahal hura manatu duen jakintzaren arabera, ez soldaduei beraien ondoan gertatu denaz, non ez diren, epai-argibide baten moduan, lekukoak elkar alderatzen eta gauzakiak onartzen gertakari bakoitzaren xehetasunen frogaren arabera. Zinez, gure egitekoen dugun ezagutza askoz ere laxoagoa da. Baina hau Bodinek doiki landua izan da, eta nire aburuaren arabera.

Neure oroimenaren tradiketa eta ahuleziaren laguntzeko, hainbaterainokoa baita non behin baino gehiagotan gertatu baitzait liburuaren birreskuratzea berriak eta neuretzat ezezagunak bezala, urte zenbait lehenago irakurriak eta oharrez zirimarratuak izanik, duela denbora zer bait, liburu bakoitzaren buruan (aldi bat baino gehiago erabili nahi ez ditudanak) irakurpena bururatu dudan aroaren eta orokorki atera dudan ustearen ezartzeko ohitura hartu dut, horrek, behinik behin, erakus diezadan irakurtzearekin egileaz gogoan hartu nuen itxura eta iritzi orokorra. Hemen birridatzi nahi ditut neure oharretarik zenbait.

Hona zer ezarri nuen, duela hamar urte inguru, neure Guichardin-ean (zeren, zernahi hizkuntzaz mintzo badira ere neure liburuak ni neureaz mintzo bainatzaie): Historiografo lehiatia da, harengandik, nire ustez, inorgandik bezain zehazki ikas baitaiteke haren aroko egitekoen egia: gehienetan bera egile izan baita eta maila ohoragarrian. Gorrotoz, faborez, edo hutsalkeriaz gauzak estali dituelako itxurarik batere ez da: fede baitagite handiez ematen dituen uste libreek, bereziki aitzinatu eta karguetan erabili zutenek, hala nola Klemente zazpigarrena aita sainduaz ere. Eta bere burua gehien arrandiatu nahi duen zatiari buruz, bere zeharbide eta hitzaldiak baitira, badira onik eta marraldi ederrez aberasturik; baina beteegia da: zerena, esan gabe deus ere ez uzteagatik, hain gai zela eta zabal bat ukanik, kasik mugagabea, laxo bilakatzen baita, eta talata eskolastikoaren urrin apur bat dauka. Honi ere ohartu natzaio: epaitzen dituen hainbat gogo eta ondorioetarik, hainbat mugimendu eta aburuetarik, ez duela sekula bertute, erlijio eta kontzientziara batere eramaten, zati horiek munduan osoki iraungiak balira bezala; eta, ekintza guztien etorkia, berez itxura ederragoak badira ere, ohi darama gertaldi bizioso edo mozkinbide batera. Gogoraezina da, epaitzen duen ekintza zenbaki mugagabe horren artean, batere izan ez zedin arrazoiaren bidez eragina. Inolako usteltzerik ez dakieke gizonei hain orokorki atxiki non inor ez den izurretik itzuri; horrek gogoan behartzen nau bere gustuaren bizio apur bat ote den; eta gertatu ahal izan da besteaz gogoetsi duela bere buruaren arabera.

Nire Philippe de Comines-ean hau da: Mintzaira ezti eta atsegin aurkituko duzu, berezko soiltasun batekoa; kontatze garbia, egilearen xede ona ageriki distiratzeko baita, bere buruaz mintzatzean harrokeriarik gabe, atxikimendu eta bekaitzerik gabe beste norbaitez mintzatzean; bere hitzaldiak eta aholkuak lehia onaz eta egiaz lagunduak jakintza arraro zerbaitez baino gehiago; eta alde orotarik larderia eta handitasuna, maila oneko gizona eta eginkizun handietan landua itxuratuz.

Du Bellay jaunaren Oroitzapenen gainean: Beti atsegin da gauzak nola zuzendu behar diren entseiatu direnek idatzi gauzen ikustea; baina ez daiteke uka ageriki edireiten dela, bi jaun hauen baitan¹³⁰, beren mailako aitzinengan distiratzeko den zintzotasun eta idazteko libertatearen beherapen handi bat, hala nola Jouinvile jauna, San Luisen nerabea, Eginardo, Karlomagnoren kantzalaria, eta, oroimen berriagokoa, Philippe de Cominesen baitan. Hau gehiago da Frantzisko erregeren aldeko auzi-mintzaldi bat Karlos bosgarren enperadorearen kontra, historia bat baino. Ez dut sinetsi nahi deus aldatu dutenik egitearen funtsari buruz; baina ofizioa egiten dute gertakarien ustearen makurtzeko, maiz arrazoiaren aurka, gure alde, eta beren nagusiaren bizian itzaltsua den guztiaren baztertzeke; Montmorency eta Brion jaunen gibelamenduak lekuko, ahanziak baitira; Estampes¹³¹ anderearen izena ere ez da aurkitzen. Ekintza sekretuak estaltzen

ahal dira; baina mundu guztiak dakienaren eta halako jendarteko ondorioak eduki dituzten gauzen isiltzea, barkaezinezko akatsa da. Hitz batez, Frantzisko erregeren eta bere aroan gertatu gauzen ezagutza osoaren edukitzeko, joan bedi beste inora, sinesten bazait; hemen egin daitekeen baliokoa aitoren seme hauek egon diren gudu eta gerrazko ekintzen aipamen bereziengatik da; haien aroko printze batzuen solas eta barreneko ekintza zenbait; eta Langeay-ko jaunak bideratu lantze eta harremanak, gauza jakingarriz osoki beterik baita, eta hitzaldi ez arruntak.

XI

Krudelkeriaz

Iruditzen zait bertutea gure baitan sortzen diren ontasunerako isurpenez besterik dela eta haiek baino nobleagoa. Berez ongi arautu eta sortu gogoek abialdi berean diraute, eta beren ekintzetan bertutetsuen aurpegia bera darakusate. Baina bertuteak hots dagi, zorioneko izaera batengatik, eztiki eta mantsoki, arrazoiaren ondotik bideratzera bere buruaren uztea baino ez dakit zer handiago eta ekileagorik. Norbaitek ere, berezko ezti eta erraztasun batez, gutietsiko bailituzke ukan dituen laidoak, horrek gauza txit ederra eta laudagarria eginen luke; baina norbait ere, laido batek giharreraino gaitziturik eta mindurik, arrazoiaren armez armatuko bailitzateke mendeku aiher gaitz horren kontra, eta gatazka larri baten ondoan nagusituko bailitzaioke, horrek eginen luke, dudarik gabe, anitzez gehiago. Hark ongi legike, honek bertuoski; ekintza bat dei liteke ontasun; bestea bertute; zeren baitirudi bertutearen izenak azpiaditzen dituela zailtasun eta aitzitasuna, eta ez dela lantzen ahal ekimenik gabe. Horregatik, menturaz, Jainkoa izendatzen dugu on, azkar, eskuzabal eta zuzena; baina ez dugu bertutetsu izendatzen: haren ekintzak sortzez eta bortxarik gabe baitira denak.

Filosofoetarik, ez bakarrik estoikoak baina epikuroarrak ere (eta gehitze hau iritzi arruntetik maileguz hartzen dut, faltsua baita, zernahi badio ere Arkesilaoren hitz joko zorrotz horrek, erantzuki egiten baitzitzaion jende asko iragaiten zela haren eskolatik epikurearrera, baina sekula ez alderantziz: “Bai segurki! Oilarretarik egin daitezke oilaxikeroak, baina oilaxikeroetarik sekula ez dira oilarrak egiten” Zeren, egiazki, iritzi eta arauen bermetasunean, alderdi epikuroarra ez baitzaio inondik ere gibelatzen estoikoari; eta estoiko batek, eztabaidari horiek baino fede hobe erakutsiz, Epikurori oldartzeko eta josteta onaren egiteko, esanarazten baitiote gogoan sekula izan ez zuena, haren hitzak makurki moldatuz, gramatikaren arabera bere mintzairaren beste zentzu bat argudiatuz eta haren gogoan eta ohituretan zegoela zekitenaz beste sinesmen ezberdin bat, badio epikuroar izatea utzi duela gogoeta honengatik, besteak beste: haien bidea gora eta malkerregia aurkitzen duelako: et ii qui φιληδονοι, vocantur sunt φιλοκαλοι et φιλοδικοι omnesque virtutes et colunt et retinent) filosofo estoiko eta epikurearretarik, diot, asko dira uste izan dutenak ez dela aski gogoaren edukitzea jarleku onean, bertuteari buruz ongi arautu eta prest; ez dela aski gure erabaki eta hitzaldien edukitzea zoriaren oldarpen guztien gainean, baizik eta oraino bilatu behar zirela frogara jotzekoaldiak. Ikertu nahi dituzte mina, beharra eta gaitzespena, haiei oldartzeko eta gogoaren iraunarazteko hats gainean: multum sibi adjicit virtus lacessita Arrazoiatarik bat da Epaminondasek, beste alderdi batekoa baitzen, ukatzen dituelako zoriak, arras zuzenbidean, eskuetan ezartzen dizkion aberastasunak, pobreziaren aurka trebatzeko, dio, eta beti halako ezinagokoan egon baitzen. Are bortizkiago entseiatu zen Sokrates, nire ustez, bere emaztearen gaiztotasunaren gordetzen bere lantzerako: burdin zorrotzarekin entseiu bat baita. Metelok, senatore erromatar guztien artean bakarrik bere bertutearen indarraz entseiatu Saturnino Erroman herriko tribunoaren bortizkeriari kontra egitera, ororentzat kaltegarri zen zuzengabeko lege bat indarka iraganarazten nahi baitzuen, eta horregatik irabazirik Saturninok errefusatzailen aurka ezarri heriotze-kondenak, halako trantzean plazara zeramatenak honako solasez

ihardukitzen zituen: “Gauza errazegia eta laxoa zela gaizki egitea, eta ongi egitea arriskurik ez denean, gauza arrunta zela; baina ongi egitea arriskurik denean, bertuteko gizon baten ofizioa bera zela” Meteloren hitz hauek aski garbiki erakusten digute nik egiaztatu nahi nuena, bertuteak ez duela erraztasuna lagungotzat nahi; eta sortzezko aiher on batek arautu urratsak dabiltzan bide erraz, ezti eta isuria ez dela zinezko bertutearena. Hark eskatzen du bide malkar eta arantzatsu bat; ukan nahi ditu edo kanpoko zailtasunak borrokatzeko, Metelorenak bezala, haien bidez zoriak hausten baitio haren lasterraldiaren abiadura; edo gure izaeraren aiher desarautuek eta akatsek ekartzen dizkioten barreneko zailtasunak.

Honaraino poliki neure gisan heldu naiz. Baina, hitzaldi honen buruan, gogora datorkit Sokratesen gogoia, neure ezagutzara etorri den beteena baita, gomendio eskasekoa litzatekeela neure arabera; pertsonaia horren baitan ez baitut asmatzen ahal nahikeria biziosozko eginahalik batere. Haren bertutearen moldean, ez dut irudikatzen ahal batere zailtasunik ez bortxaketarik; badakit arrazoiak hain ahaldu eta nagusia zela haren baitan non sekula ez baitzion nahikeria bizioso bati sortzeko biderik ere eman. Harena bezalako bertute hain gora bati ez diot aitzinean deus ere ezartzen ahal. Uste dut ikusten dudala urrats garaile eta ospezko batez, handizki eta bere gisan, oztoporik ez bazterbiderik gabe. Bertutea ez bada distirutzen ahal aiher kontrarioen gatazkaren bidez baizik, esanen dugu, beraz, ez dagokela bizioren laguntzarik gabe, eta zor diola sinesmenean eta ohorean ezarri izatea? Zer bilakatuko litzateke horrela atsegin epikuroar bihoztoi eta eskuzabal hori magalean bigunki hazten baitu bertutea, jostakintzat ematen dizkiolarik ahalkea, sugarrak, beharkundea, heriotza eta oinazeak? Bertute osoa minaren jasankortasunez eramatean eta jarlekutik aldaratu gabe hezurreriaren sistaden pairatzean ezagutzen delako aitzinustea baldin badut; beharrezko gaitzat garraztasun eta zailtasuna ematen baldin badiot: zer bilakatuko da, ez bakarrik minaren gutiesterainokoan, baina sabelmin batez goza eta kilikatzerainoko heinera goratu den bertutea, epikurearrek finkatu eta haietarik anitzek beren ekintzen bidez oso egiazko frogak utzi dizkiguten bezala? Beste askok dutena bezala, uste baitut haien araubideko erregelak gaingitu dituztela ondorioz. Katon gaztea lekuko. Dakusadalarik hiltzen eta erraien urratzen, ez dut askiesten ahal gogoia nahasmenduz eta ikaraz gabeturik zeukala sinestearekin, ez dut sinesten ahal bakarrik bazirauela alderdi estoikoaren arauak manatzen zioten egoeran, lasai, hunkimendurik gabe eta soraioturik; gizon horren bertutearen baitan bazen, nire irudiko, burgoitasun eta gordintasun sobera bere hartan gelditzeko. Uste dut, dudarik gabe, plazer eta atsegin izan zuela hain ekintza ederrean, eta gogaran egon zela bere biziko beste edozeinetan baino gehiago: Sic abiit e vita ut causam moriendi nactum se esse gauderet Hainbateraino sinesten dut, non zalantzan bainago nahi izan ote zukeen halako ekintza eder baten aldia ebatsia izan zekion. Eta erraztasun publikoei harenei baino gehiago estekatzen zuen ontasunak bridapean edukiko ez banindu, aise eroriko nintzateke aburu honetan: eskerronak ematen zizkiola zoriari haren bertutearen hain frogaldi ederrera eramateagatik, eta ohoin¹³⁵ horren faboretan jokatzegatik haren sorterriaren libertate zaharra ostika zezan. Ekintza horretan iruditzen zait irakurtzen dudala haren gogoaren ez dakit zein gozamina, atseginezko hunkimendu ohiz landako eta gizonezko bat, haren eginkizunaren noblezia eta goresmena gogoan zuelarik:

Deliberata morte ferocior ¹³⁶,

ez ospearean esperantza zerbaitez jantzirik, gizon batzuen iritzi herrikoi eta andderetuek uste izan duten bezala, zeren gogoeta hori apalegia baita hain bihotz eskuzabal, gora eta gogor baten hunkitzeko; baizik eta gauzaren berezko edertasunagatik: hark, lotpideak baitzerabiltzan, askoz ere garbikiago eta beteago baitzekusan, guk ezin dezakeguna.

Hain ekintza eder bat Katonenaz beste den gogo batean desegoki legokeela epaitzeko atsegina egin dit filosofiak, eta soilik harenari zegokiola horrela bururatzea. Horregatik manatu zien, arrazoiaren arabera, semeari eta laguntzen zuten senatorei, besterik egin zezatela. Catoni cum incredibilem natura tribuisset gravitatem, eamque ipse perpetua constantia roboravisset, semperque in propositio consilio permansisset, moriendum potius quam tyranni vultus aspiciendus erat.

Heriotza oro bere bizitza bezala izan behar da. Ez gara hiltzeagatik bestelakutzen. Beti neurtzen dut heriotza bizitzaren arabera. Eta, bizi ahul bati estekaturik, itxurazko heriotza bortitza aipatzen badidate, uste dut kausa ahul batek eragina izan dela eta bizitzari egokigarria.

Hiltze horren aisetasunak, eta haren gogoaren indarraz erdietsi zuen erraztasunak, esanen ote dugu apaldu behar duela haren bertutearen distiratik zerbait? Eta nork, egiazko filosofiaz burua apur bat tindaturik dutenetarik, askiesten ahal du Sokratesen irudikatzea beldurrez eta pasionez gabetua bakarrik, haren gartzelatze, kateatze eta kondenatzeko ezbeharrean? Eta nork ez du haren baitan ezagutzen ez bakarrik bermetasuna eta iraupena (haren ohizko egoera baitzen) baina oraindik ere ez dakit zer askiespen berria eta alaitasun gozo bat haren azken solas eta moduetan? Ikaraldi horretan, burdinak kendu ondoren zangoaren hazkatzean duen atseginaz, ez ote da halako eztitasun berdina haren gogoaren baitan salatzen, iraganeko oztopoetarik askatua izateagatik, eta etorkizuneko gauzen ezagutzean sartzean berean¹³⁸? Barkatuko nau Katonek, nahi badu; haren heriotza tragiko eta tinkoagoa da, baina hau, ez dakit nola, are ederragoa da.

Aristipok deitoratzen zutenei: esan zien.

Bi pertsonaia hauen eta beren imitatzailleen (zeren gogorki dudatzen baitut berdinak liratekeela) gogoetan ikusten da bertuteari buruz halako aztura osoa non izaera bilakatu baitzaie. Ez da gehiago bertute nekerik ez arrazoi araurik haien gogoaren irauteko eta gogortzeko; haien gogoaren funtsa bera da, haren modu natural eta ohizkoa da. Halakotu dute filosofiaren arauen lantze luze baten bidez, izaera eder eta aberats bat aurkiturik. Gure baitan sortzen diren pasione biziosoen ez dute gaurgero haien baitan sarbiderik; haien gogoaren indar eta gogortasunak ito eta iraungitzen ditu nahikeriak higitzen hasten diren bezain sarri.

Bada, ez dut uste zalantza denik, erabaki gora eta jainkoen baten bidez, galbideen sortzearen eragozte, eta halako molde bertutera ohitzea haziak berak errotik erauzterainokoa ederragoa dela, haien aurreratzearen indarka eragozte eta, pasioenen lehen hunkimenduetara utzirik, nork bere buruaren armatzea eta gogortzea haien lasterraren geldiarazteko eta garaitzeko baino; eta bigarren ondorio hau oraindik ederragoa dela izaera erraz, on, eta berez bizioaren galbidez hastiatu batez soilik hornitua izatea baino. Zeren hirugarren eta azken modu honek baitirudi gizon bat hobengabe bilakatzen duela, baina ez bertutetsu; gaizki egitekoaz salbuetsirik, baina ongi egiteko ez aski egokia. Gainera, baldintza hau hain hurbila zaio eskasgo eta ahuleziari non ez baitakit ongi mugarriak nola argitzen eta bereizten. Ontasun eta hobengabetasunaren izenak beraiek ere honetarako, inola ere, gutiesteko izenak dira. Ikusten dut bertute asko, hala nola kastitatea, urritasuna eta neurtasuna datozkigukeela gorputzaren beheratzearen bidez. Arriskueta bermetasuna (horrela deitu behar bada), heriotzaren gutiestea, ezbeherretan jasankortasuna, badatorke eta anitzetan aurkitzen da gizonen baitan halako gertakarien ongi epaitzeko ezinetik eta diren bezala gogoan ez hartzetik. Zuhurtasunik ezak eta ergelkeriak itxuratzen dituzte inoiz ere bertutezko ondorioak: askotan ikusi dudak bezala gizonak goretsi izan direla gaitzespena merezi zuenagatik.

Jaun italiar batek solasbide hau zeukan nire aitzinean, bere herriaren kaltetan: italiarren sotilezia eta haien gogoeten bizitasuna hain handia zela non gerta lekizkiekeen

galbideak eta ezbeharrak aurreikusten baitzituzten, hain urrunetik, non ez baitzen bitxia aurkitu behar gerran maiz ikusten baziren beren segurtasunaz arduratzen arriskua ezagutu baino lehen ere; gu eta espainolak, ez baiken hain finak, haratago gindoazela, eta galbidea begiz ikusi eta eskuz ukitu behar genuela ikaratu baino lehen, eta orduan ez geundela bermeki ere; baina alemanek eta suitzarrek, zarpail eta zakarragoak, ez zutela ohartzeko zentzurik, doi ukaldien azpien zanpatuak egon eta ere. Menturaz, irri egiteko baizik ez zen. Aski egiazkoa bada ere, gerrako ofizioan ikasberriak agudo egozten direla galbideetara, han doi irakinez geroztik egiten ez duten arinkeria batekin:

haud ignarus quantum nova gloria in armis,

Et prædulce decus primo certamine possit ¹³⁹.

Horra zergatik, ekintza berezi baten epaitzean, gorabehera asko eta egin duen gizon osoa kontutan hartu behar den bataiatu baino lehenago.

Neure buruz hitz baten esateko. Inoiz ikusi ditut neure adiskideak zuhurtasuna deitzen neure baitan zoria zena; eta kuraia eta jasankortasunezko abantaila iriztea adimen eta aburuzko abantaila zenari; eta izenburu bat beste baten ordeaz ematea, behin neure alde, behin neure kaltetan. Bestalde, bertutetik aztura egiten ohi den bikaintasuneko maila lehen eta osoen horretara heltzeko hainbat falta zait non bigarren mailaz ere ez baitut doi dastatu. Ez naiz eginahal handietan ibili hertsatu nauten aiharren bridatzeko. Neure bertutea, menturazko eta zorizko bertute, edo, hobeki esateko, hobengabetasun bat da. Sortu izan banintz izaera makurrago batekoa, beldur naiz zorigaizki gertatu litzaidakeela. Zeren doi ez bainaiz bermetasunean entseiatu pasionei aitzitik egiteko, apur bat bortitzak izan balira ere. Ez dakit neure baitan eztabaida eta auzien hazten. Ez dut, beraz, espantu handirik egin behar bizio askotarik salbuetsirik naizelako:

si vitiis mediocribus et mea paucis

Mendosa est natura, alioqui recta, velut si

Egregio inspersos reprebendas corpore nævos ¹⁴⁰,

gehiago ematen diot neure zoriari neure arrazoiari baino. Sortarazi nau zintzotasunean famatua den arraza eta aita ezin hobe batengandik: ez dakit neure baitara haren aldartearen zati bat iragan den, edo etxeko ereduak eta neure haurtzaroko hezkunde onak nabariki lagundu duten; edo besterik honela sortu naizen,

Seu Libra, seu me Scorpius aspicit

Formidolosus, pars violentior

Natalis horæ, seu tyrannus

Hesperia Capricornus undæ ¹⁴¹;

baina, nolanahi ere den, biziorik gehienak hastiatzen ditut neurez. Ikasbiderik hoberena galdegiten zionari Antistenesen erantzunak: “Gaizkiaren desikastea”, badirudi dagokiola irudi horri. Hastiatzen ditut, diot, hain iritzi natural eta neureaz non hazkundetik dakardan sen eta joera hori gorde izan baitut beste gertaldiek ezin alda liezadaketelarik; ez eta neure hitzaldiak ere, gauza batzuetan ohizko bidetik errebelatuak direnez, libratuko bainindukete isurpen natural horrek hastiarazten dizkidan ekintzetara.

Mamurreria bat esanen dut, baina esanen beti ere: hortik aurkitzen dut, gauza anitzetan, gelditze eta arau gehiago neure azturetan neure usteetan baino, eta neure nahikeria makurkeria gutiagokoa dela neure arrazoiari baino.

Aristipok atsegin eta aberastasunen alde hain aburu ausartak finkatu zituen non filosofia osoa omenean ezarri baitzuen bere kontra. Baina, bere azturei dagokienez, Dionisio tiranoak hiru neska eder agerturik hauta zezan, erantzun zion hirurak hautatzen zituela eta Parisi gaitzetsi ziola bat haren lagunen artetik hobesteagatik; baina bere egoitzara eramanez, bidali zituen ukitu gabe. Bere nerabea bidean zamakaturik gertatuz harengana zekarren diruaz, manatu zion egotz eta barreia zezala oztopatzen zuena.

Eta Epikuro, bere arauak erlijio gabeak eta bigunak baitira, bere bizian jokatu zen ezinagoko debozio eta neke handiekin. Bere adiskide bati idatzi zion ogi beltzez eta urez bizi zela, igor liezaion gazta apur bat ospezko janaldi bat egin nahi izanen duenerako. Egia ote dateke, zinez ona izateko, izan behar dugula izaera gorde, natural eta orokor batez, legerik, arrazoirik, eredurik gabe?

Estekatu gertatu naizen makurkeriak ez dira, Jainkoari esker, gaizkienak. Biziki kondenatu ditut neure baitan, balio duten arabera; zeren neure adimenak ez baita haietaz kutsatua izan. Aitzitik, bortizkiago kondenatzen ditu neure baitan beste inorengan baino. Baina hori da dena; zeren, bestela, ihardukitze eskas baitakart, eta errazkiegi uzten baitut neure buruaren eramatera balantzako bestaldera, salbu eta arautzeko eta beste bizioen nahasmendutik eragozteko, zain ez dagoenari elkarri atxikitzen eta kateatzen baitzaizkio gehienetan. Neureak, moztu eta hertsatu ditut ahal izan dudana bezain bakar eta soilik,
nec ultra

Errorem foveo ¹⁴².

Zeren, estoikoen usteari buruz, baitiote zuhurak dagiela, dagienean, bertute ororen bidez, ekintza motaren arabera bat baledi ere itxura gehiagokoa (eta horretarako balio liezaieke inondik ere giza gorputzaren antzekotasunak, zeren haserretzearen ekintza ezin ari baitaiteke aldarte guztiek gure ez laguntzera, hasertzea nagusitzen bada ere), hortik ondorio berdina atera nahi badute: hutsegileak huts dagienean, bizio ororen bidez huts dagiela, ez ditut sinesten horrela soilik, edo ez ditut aditzen, zeren zinez kontrarioa sentitzen baitut. Sotilkeria zorrotz eta hutsalak dira, haietan inoiz filosofia gelditzen baita.

Bizio batzuei banarraie baina beste zenbaitetarik itzurtzen naiz, saindu batek egingen lukeen bezainbat.

Peripatetikoek ere ez dute atxikitze eta jostura hautsezinezko hori onartzen; eta badio Aristotelesekin gizon zuhur eta zuzen bat badaitekeela neurgabea eta lizunkoia.

Sokratesek aitortzen zuten bere begitartean bizioari buruzko aiherren bat dazagutenei egiazki bere isurpen naturala zela, baina lantzeaz zuzendu zuela ¹⁴³.

Eta Estilpo filosofoaren ahaideek zioten, ardo eta emakumeei emana sortu izanik, ikertzeagatik bataz eta besteaz biziki gabekoi bilakatu zela.

Onetik dudana, aitzitik ¹⁴⁴, neure sortzapenaren zoriaz badut. Ez daukat legez, arauz, ez eta beste ikasbidez. Nire baitan den hobengabetasuna jitezkota da; indar guti eta lantzerik batere. Beste bizioen artean gogorki hastio dut krudelkeria, izaeraz eta adimenaz, bizio guztietako burua bezala. Baina halako bigunkeriaren da non ez baitut oilasko baten lepo-zulatzeari ikusten ezatseginik gabe, eta egonezean entzuten baitut erbi baten kirrinka neure zakurren hortzen azpian, ihizia atsegin bortitza bada ere.

Atsegina gudukatzen dutenek gogotik darabilte argudio hau, guztiz biziosoa eta arrazoi gabea dela erakusteko: haren eginahalik handienean nagusitzen zaigula halako moldez non arrazoiak ez baitu bideratzeko ahalmenik; eta aipatzen dute emakumeekiko atxikimenduan sentitzen dugun esperientzia,

cum jam præsagit gaudia corpus,

Atque in eo est venus ut muliebria conserat arva ¹⁴⁵;

hor iruditzen baitaie atseginak garamatzala hain azkarki gutaz landara non gure adimenak ez bailekike orduan bere eginkizunaren egiten, atseginen erabat ezindua eta liluratua. Badakit besterik ere doakeela, eta sekula erdietsiko dela, nahi bada, instant horretan berean gogoaren egozte besta asmoetara. Baina berariaz tinkatu eta gotortu behar da. Badakit menpera daitekeela atsegin horren ahala; ongi dazagut neure burua, eta Venus ez dut neroni baino kastoagoak diren askok adierazten duten bezain jainkosa lehiagarria aurkitu. Ez dut

mirakulutzat hartzen, Nafarroako erreginak dagien bezala bere Heptameron-eko ipuin batean (liburu atsegina baita bere heinean), ez ezinagoko zailtasuntzat, gau osoen iragaitea, libartate eta erraztasun osoz, luzaz nahietsiriko maitale batekin, musuez eta ukitze soilez askiesteko zin egin lekiokkeen hitzean iraunez. Uste dut ihiziaren eredu egokiagoa litzatekeela (atsegin gutiago baita, liluratze eta ezuste gehiago bada, nondik eta gure arrazoi harrituak galtzen baitu haren kontra prestatzeko eta azkartzeko aldirik), zainketa luze baten ondoren basahizia datorrelarik bapatean, menturaz, gutien uste genuen lekura. Inarrosteak eta huien¹⁴⁶ sugarrak hainbat jotzen gaitu non gogor bailitzaieke ihizi-mota hori maitatzen dutenei sistaldi horretan gogoetaren beste inora eramatea. Poetek ere Diana garaile egiten dute Kupidoren gar eta gezien gainean:

Quis non malarum, quas amor curas habet,

Hæc inter obliviscitur? ¹⁴⁷

Neure gaira itzultzeko, hagitx berazki urrikaltzen natzaie besteren atsekebee, eta errazki negar eginen luke lagungoan, baldin eta, izan ledin aldirako, negar egiten banekike. Ezer ez da malkoei gehiago naragoienik malkoak baino, eta ez egiazkoak bakarrik baina, nolana ere diren, alegiaz edo itxurazkoak ere. Hilak ez ditut deitoratzen, inbidiatuko nintzaieke gehiago; baina biziki deitoratzen ditut hil hurranak. Giza jaleek ez naute hainbat laidostatzen zenduen gorputzek erre eta jateagatik, nola bizirik oinaztatzen eta jazartzen dietenek. Zuzenbidearen erahiltzeak ere, arrazoiagarriagoak badira ere, ez ditut ikuspide berme batez ikusten ahal. Norbaitek, Julio Zesarren urrikaria aipatu behar zuela, zioen: "Mendekuetan ezia zen; itsasohinak bere menpera errendarazi ondoren, lehen bera apesatu eta ordaingai ezarri baitzuten, mehatxatu izan zituelarik gurutzetan erazartzeko, horrela kondenatu zituen, baina urkarazi ondoren izan zen. Filomon, haren idazkaria, pozoindu nahi izan baitzuen, ez zuen heriotza soil bat baino zigor garratzagorekin zigortu." Laidostatzaileen bakarrik erahiltzea urrikariaren eredu bezala aipatzera ausartzen den idazle latino hori nor den esan gabe, erraz asmatzen ahal da hunkitua dela tirano erromatarrek ohituran ezarri zituzten krudelkeriaren eredu zital eta izigarriek¹⁴⁸.

Neuri dagokidanez, zuzenbidean berean, hiltze soil batez haratago den oro iruditzen zait krudelkeria hutsa, eta bereziki gure baitan, arimen egoera onean bidaltzeko begirunea eduki behar baikenuke; izaten ahal ez dena, jasanezinezko oinazeetan inarrosi eta etsi ondoren.

Iragan egun hauetan, soldadu preso batek, zegoen dorretik oharturik plazan zurginak hasten zirela beren tresnak eraikitzen, eta jendea elkargana biltzen, uste zuen beretzat zela, eta, etsipenean emanik, bere buruaren hiltzeko besterik ezean, hartu zuen zoriak agertu zion orga-itze herdoil bat eta bi ukaldi larri eman zion bere buruari zintzuraren inguruan; eta ikusirik ez zuela bizia deus handirik erauzi, beste bat eman zuen geroxeago sabelean, nondik alditxartua erori baitzen. Egoera horretan aurkitu zuen haren ikusteko sartu zen lehen zaindariak. Berbaitarazi izan zen; eta, alditxartu baino lehen, denboraren irabazteko, irakurrarazi zitzaion bere hartan epaia, lepoaren moztekoa baitzen, hortik ezinagoko arindua aurkitu zen eta onartu lehen ezeztatu zuen ardoaren hartzea; eta, epailei eskerronak emanez haien kondenaren emetasun ustegabea, zioen bere buruaren hiltzeko erabaki hori etorri zitzaiola oinaze garratzago baten izialduragatik, beldurra berretu baitzioten prestaketek¹⁴⁹... jasangaitzago batetik itzurtzeko.

Aholkatuko nuke garraztasun eredu hauek, haien bidez eduki nahi baita jendea eginbidean, egin daitezen gaizkileen gorputzen kontra: zeren ehortzi gabe, irakiten eta zehakutzen ikusteak jende xehea hunkituko bailuke bizirik sofriarazten zaizkien nekeek bezainbat, nahiz eta zinez guti den, edo deus ere ez, Jainkoak dioen bezala: Qui corpus

occidunt, et postea non habent quod faciant Eta poetek bereziki baliarazten dute margo horren izialdura, heriotzaren gainetik:

Heu! reliquias semiassi regis, demudatis ossibus,

Per terram sanie delibutas fæde divexarier 151.

Egun batez Erroman nengoen, Katena, ebasle ospetsu bat, erahiltzen zenean. Ito zuten jendaldearen batere hunkimendurik gabe; baina, zehakatzerakoan, borreroak ez zuen ukaldirik jotzen jendaldeak ahots kexati eta oihu batez jarraiki ez zionik, bakoitzak bere sentimendua eman izan balio hilki hari.

Gizagabeko soberakeria horiek azalaren aurka egin behar dira, ez biziaren aurka. Horrela, kasu nolabait berdin batean, bigundu zuen Artaxerxesek Persiako lege zaharren garraztasuna, manatuz beren eginbeharretan huts egin zuten jaunak, ohi bezala zehatu beharrean, erantziak izan zitezen, eta jantziak haien orde zehatuak izan zitezela; eta, ohi bezala ileak erauzi beharrean, beren boneta gora ken zekien bakarrik.

Egiptokoek, hain jainkotiarrek, uste zuten ongi ordaintzen zutela jainkozko zuzenbidea, sakrifikatzen zizkiotelarik itxurazko zerri irudikatuak: asmamen ausarta, itxuraz eta itzalez ordaindu nahi izatea Jainkoa, hain gai funtsezkoa.

Bizi naiz bizio horren eredu sinestezinak mukuruka biltzen ditugun aro batez, gure gerra zibilen desmasiagatik; eta historia zaharretan ezer ez da ikusten guk egunero gauzatzen dugunetik. Baina horrek ez nau inola ere ohitu. Doi sinestarazi nion neure buruari, ikus nezan baino lehen, hain gogo higuingarriak aurkitzen zirenik, erahiltzearen atsegin hutsez, egin nahi zutenik: aizkorakatu eta zehakatu besteren soinadarrak; beren gogoia zorroztu oinaze ohigabetuen eta hiltze berrien asmatzera, etsaitasunik gabe, irabazpiderik gabe, soilik keinu eta higidura urrikgarrien eta arrenkuran hiltzen den gizon baten oihumin eta ahots deitoragarrien ikuskizunaz gozatzegatik. Bada, horra krudelkeriak erdiets dezakeen heinik gorena. Ut homo hominem, non iratus, non timens, tantum spectaturus, occidat.

Neurez, ez dezaket ezatseginik gabe ikus defentsarik gabe den eta batere kalterik egiten ez digun ihizi errugabe bati jazartzen eta hiltzen. Eta, eskuarki gertatzen den bezala, oreina, hats eta indarrez husturik sentitzen denean, azken beltzean, gibelatzen eta errenditzen zaigularik jazartzen diogunoi, grazia eskatzen digularik haren malkoen bidez,

quætusque, cruentus

Atque imploranti similis 153,

beti irudituz zait ikuskizun biziki ezatsegin bat.

Bakanka atzematen dut berriz zelai zabalera bidaltzen ez dudana ihizi bizirik. Pitagorasek arrantzale eta xoriketariei erosten zizkien beste hainbesteren egiteko:

primoque a cæde ferarum

Incaluisse puto maculatum sanguine ferrum 154.

Ihizien aldeko izaera odolietik darakusate krudelkeriara isurpen natural bat.

Erroman, ihizi-erahiltze ikuskizunetara laketu ondoren, heldu zen gizon eta gladiatoreengana. Beldur naiz naturak berak iratxiki diola gizonari gizagabekeriazko sen zerbait. Inor ez da basaihezien elkarrekin jostetan eta berekan ikustera lehiatzen, eta inor ez da elkarren urratzen eta zehakatzen ikustera lehiatu gabe gelditzen.

Eta haien aldera dudana gogokidetasun honetaz inor burla ez dadin, teologiak berak manatzen digu haien aldeko fabore zerbait; eta, gogan hartuz, nagusi bakar batek ezarri gaituela jauregi honetan bere zerbitzurako eta haiek direla, gu bezala, bere familakoak, arrazoiak dauka guri manatzeko haien aldeko begirune eta maitasun zerbait. Pitagorasek mailegatu zien metempsikosisa egiptoarrei; baina gero herri askok onartua izan da, bereziki gure druidek:

Morte carent animæ; semperque priore relictâ

Sede, novis domibus vivunt, habitantque receptæ 155.

Gure aitzineko galiarren erlijioak bazioen arimak, betierekoak izanik, etengabe bazebiltzala gorputz batetik bestera lekuz aldatzen; ameskizun horretara nahasirik jainkozko zuzenbidearen gogoeta zerbait: zeren, Alexandroren baitan zegoen bitartean arimaren jokaeren arabera, baitiote Jainkoak manatu zion bizitzeko beste gorputz bat, neke gehiago edo gutiagorekin, haren izaerari egokigarria; muta ferarum

Cogit vincla pati, truculentos ingerit ursis,
Prædonesque lupis, fallaces vulpibus addit;
Atque ubi per varios annos, per mille figuras
Egit, lethæo purgatos flumine, tandem

Rursus ad humanæ revocat primordia formæ 156.

Suharra izana bazen, lehoi baten gorputzean ezartzen zuen; atseginkoia zerri batenean; laxoa orein edo erbi batenean; maltzurra azeri batenean: eta horrela garaitikoak, harik eta, zigor horrek garbiturik, beste gizonen baten gorputzari berriz zatxikion arte.

Ipse ego, nam memini, Trojani tempore belli

Panthoides Euphorbus eram 157.

Gure eta ihizien arteko lehengusutasun horri buruz, ez dut kontu handirik egiten; ez eta herri askok, bereziki zahar eta nobleenak, ez dutela bakarrik ihiziak onartu beren lagungo eta harremanetan, baina eman dietela beren buruaren hagitz gaineko maila bat, inoiz ere beren jainkoen ahaideak eta faboritoak kontsideratuz, eta haien alde edukiz begirune eta errespetu gizagaindiko bat; eta beste zenbaitek jainkorik ez jainkotasunik ez ezagutuz haietaz landara: belluæ a barbaris propter beneficium consecratae

Crocodilon adorat

Pars hæc, illa pavet saturam serpentibus Ibin;

Effigies sacri hic nitet aurea cercopitheci;

hic piscem fluminis, illic

Oppida tota canem venerantur 159.

Eta Plutarkok huts honi ematen dion itzulpena bera, oso ongi hartua baita, ohoragarria zaie ere. Zeren baitio ez zela katua, edo idia (adibidez) egiptoarrek agurtzen dutena, baina animalia horien baitan agurtzen zutela jainkozko ahalmenen itxura zerbait; honen baitan jasankor eta erabilgarritasuna, horren baitan bizitasuna; edo, gure aldameneko borgoniarrek, Alemania osoarekin batean, giltzapeturik aurkitzeko jasangaiztasuna¹⁶⁰, nondik eta libertatea itxuratzen baitzuten, beste edozein jainkozko ahalmenen gainetik agurtzen baitzuten; eta horrela garaitikoak. Baina edereiten ditudalarik, aburu neurtuenen artean, gure eta ihizien arteko antzekotasun hurbilaren erakustera entseiatzen diren hitzaldiak, eta nola lehentasun handiak dauzkaten gurekin alderatuz, eta zenbait egiazkotasunekin parekatzen zaizkigun, zinez, gure hantustetik anitz apaltzen dut, eta gogotik lekutzen naiz beste izakien gainetik ematen zaigun ametsezko erretasunetik.

Denaren esateko ere, ez ihiziei bakarrik, baina zuhaitzei beraiei eta landareei estekatzen gaituen begirune eta gizabidezko eginbehar orokor zerbait bada. Zuzenbidea gizonei zor diegu, eta grazia eta ontasuna gai izan daitezkeen garaitiko izakiei. Haien eta gure artean, bada harreman eta elkarrenganako betebehar zerbait. Ez naiz herabe adierazteko neure izaeraren hain beraztasun hurrezkoa non ezin baitiezaioket neure zakurrari ezeztasasoiz kanpoan eskaintzen edo eskatzen didan balakua. Turkiarrek badauzkate erremusinak eta eritetxeak ihizientzat. Erromatarrek bazuten antzaren hazkundeaz ardura publiko bat, haien zainketagatik salbatua izan baitzen Kapitolioa; atenastarrek manatu zuten Hekatompodon zeritzoten tenploaren eraikuntzarako zerbitzatu zuten

mando eta mandarrak libratuak izan zitezen, eta utz zekien nonnahi alatzea eragozpenik gabe.

Agrigentoarrek ohitura arrunta bezala zeukaten maitatu izan zituzten abereen larderiki ehortzea, hala nola meritu arraroko zaldiak, zakur eta xori erabilgarriak, edo beren haurrentzat denbora-pasarako balio izan zutenak ere. Eta beste gauzetan ohi zuten handitasuna agertzen zen horrela bereziki helburu horretarako eraiki oroitarrietako apaintasun eta ugaritasunean, zutik iraun baitute mende askoren buruan.

Egiptoarrek leku sakratuetan ehortzen zituzten otsoak, hartzak, krokodiloak, zakurrak eta gatuak, haien gorputzak gantzutzen eta dolu eramaten haien heriotzean.

Zimonek hilobi ohoragarri bat egin zien Joko olinpikoetan hiru aldiz lasterraren saria irabazi zioten behorrei. Xantipo zaharrak ehortzarazi zuen bere zakurra muino baten azpian, gero haren izena gorde duen itsas bazterrean. Eta Plutarkok damu egin zuen, dio, saltzeagatik eta harategira bidaltzeagatik, sari arin baten truk, luzaz zerbitzatu zuen idi bat.

XII

Raimon Sebond-en goresmena

Zinez, jakintza hagitz gauza erabilgarria eta handia da. Gutiesten dutenek aski darakusate beren zozokeria; baina ez dut haren balioa goersten batzuek ematen dioten ezinagoko hein horretaraino, Herilo filosofoak bezala, hartan ezartzen baitzuen ongirik gorena eta uste zuen hari zegokiola gure zuhur eta alai bilakatzea; sinesten ez dudana besteek diotena da: jakintza bertute ororen ama dela eta bizio oro jakinezak sortua dela. Hori egia bada, argitze luze bati atxikia da.

Nire etxea aspalditik irekia izan da jakintzako jendeentzat, eta oso ezaguna izan da, zeren nire aitak, berrogeita hamar urtez eta gehiagoz ere gobernatu zuenak, Frantzisko erregek letrak besarkatu eta omenean ezarri zuen sustatze berri horrek joa, ardura eta gastu handiz bilatu baitzuen gizon jakileen harremana, pertsona sainduak eta jainkozko zuhurtasunaren argidura berezi bat balute bezala hartzen baitzituen etxean, haien zuhurtitzak eta hitzaldiak goiko-erantzunak bezala bilduz, begirune eta erlijio gehiagoarekin epaibide gutiago zeukan bezainbat, zeren letren berririk batere ez baitzuen, haren aitzinekoek bezala. Nik ongi deritzet, baina ez ditut jauresten.

Besteen artean, Pierre Brunelek, bere aroan jakintzazko omen handiko gizonak, Montaignen egun zenbaitez gelditurik nire aitaren lagungoan bere gisako beste gizon batzuekin, eman zion, abiatzearekin, Theologia naturalis sive liber creaturarum magistri Raymondi de Sabonde ¹⁶¹ izenburua duen liburu bat. Eta nire aitari ezagunak baitzitzaizkion italiar eta espainol hizkuntzak, eta liburu hori eraikirik baita bururatze latinez josi den espainol batez, uste zuen laguntza apur batekin hartaz balia zitekeela, eta gomendatu zion liburu biziki on bezala eta egokia ematen zion sasoirako: orduan baitzen Luteroren berritasunak sinesmenean ezartzen hasten zirela eta leku anitzetan gure sinesmen zaharraren inarosten. Horretan oso uste ona baitzuen, arrazoiaren bidez aurrikusten eritasun haste hori errazki beheratuko zela ateismo hastigarri batera; zeren jende xeheak, ez ukanik gauzen epaitzeko ahalmenik, zori eta itxuretara eramatera utzirik, ezinagoko begiramendutan ukan dituen gauzen, hala nola bere salbazioari buruzkoen, ikertzeko eta gutiesteko ausartzia eskuetan eman zaionez geroz, eta haren erlijioa arau zenbait duda eta zalantzetan ezarri direnez geroz, antzeko kordoka batera egozten baititu bere sinesmenaren garaitiko zati guztiak, ez baitzuten bere baitan inarrosi zaizkionek baino manu-indar ez funts gehiagorik; eta uztarri tiraniko batetik bezala baztertzen da legeen indarrez edo aitzineko azturaren begirunez hartu zituen hunkimendu orotarik,

Nam cupide conculcatur nimis ante metutum ¹⁶²,

handik aurrera erabakirik bere deliberoa artekatu eta baimen berezi eman ez dion deus ere ez onartzea.

Bada, bere heriotza baino egun zenbait lehenago, ene aitak, liburu hori menturaz aurkiturik beste paper abandonatu mukuru baten azpian, manatu zidan frantsesez eman niezaion. Ongi da hori bezalako egileen itzultzea, doi ez baita gaiaz beste itxuratzekorik; baina mintzairaren grazia eta apaindurari anitz eman dietenak, entseiatzeko arriskutsuak dira: bereziki mintzaira ahulago batera eramateko. Ihardukitze aski arrotz eta berria zen niretzat; baina, zorionez orduan astidun izanik, eta sekula izan zen aitarik hoberenaren manamenduari deus ezin ezeztatuz, bururatu nuen ahal bezala; nondik atsegin berezi bat hartu baitzuen, eta enkargatu zuen inprimaraz zedin; haren heriotzaren ondotik gauzatu zena¹⁶³.

Ederretsi nituen egile horren irudimenak, haren idazkiaren egitura ongi jarraikia, eta haren xedea debozioz betea. Jende anitzek baitihardu irakurtzen, eta bereziki andereek, zerbitzu gehiago zor baitiegu, maiz gertatu naiz lagundu behar nituela, liburuaren libratzeko egiten zaizkion bi argudio nagusiez. Haren xedea ausarta eta kuraiatia da, entseiatzen baita, giza arrazoi naturaleen bidez, kristau erlijioaren arau guztien finkatzea eta egiaztatzea jainkogabeen aurka: hor, egiaresateko, hain berme eta zorionekoa aurkitzen baitut non ez baitut uste hobeki egin daitekeenik argudio horretan, eta banago inork ez duela berdindu. Idazki hori iruditzen zitzaidalarik sobera jori eta eder izena hain guti ezaguna duen egile batentzat, hartaz dakigun guztia espainola zela eta Tolosan duela berreun urte inguru medikuntzaren ofizioa egiten zuela baita, Adrien Tourneburi, gauza guztiak baitzekizkien, galdegin nion zer zitekeen liburu hori; erantzun zidan uste zuela San Tomas Akinokoarengandik atera laburpen bat zela; zeren, egiazki, gogo hura bakarrik baitzen halako irudimenen gaia, mugagabeko erudizio eta finezia miresgarri batez beterik. Nolanahi den, zeinnahi bada ere egilea eta asmatzailea (eta ez da arrazoiak gertaldi handiagorik gabe Sebondi izenburu horren kentzea), hagitx gizon jakilea zen eta nolakotasun eder asko zeuzkan.

Haren idazkiaz egiten den lehen gaitzespena da kristauak huts dagitela beren sinesmena giza arrazoiaren bermatu nahian, fediaz baizik ez baita gogoan hartzen eta jainkoaren grazia argidura berezi batez. Gaitzespen horretan badirudi deboziozko lehia zerbait dela, eta horregatik hainbat ematasun eta errespetu gehiagorekin entseiatu behar dugu aipatzen dutenen asetzera. Hobe litzateke teologian aditu den gizon baten eginkizuna, eta ez nirea, deus ere ez baitakit.

Hala ere, uste dut hain gauza jainkoaren eta gora batean, eta giza adimena hain urrundik gaintzen duena, nola baita Jainkoaren ontasunari guri adieraztea atsegin zaion egia hori, behar handia dela oraindik eman diezagun haren laguntza, ohiz landako fabore berezi batez, gure baitan gogoratze eta onartzeko; eta ez dut uste giza modu hutsak inola ere gai direnik; eta, izan balira ere, hainbat gogo arraro eta bikainek, aitzineko mendeetan indar naturalez hain nasaiki horniturik, ez zuten huts egin beren arrazoi bidez ezagutza horretara heltzeko. Fedea bakarrik da biziki eta egiazki gure erlijioaren misterioei datzikiena. Baina horrek ez du esan nahi gure fedearen zerbitzurako Jainkoak eman dizkigun giza tresna naturalen antolatzea eginkizun oso eder eta laugarri ez denik. Ez da zalantzan ezarri behar hori dela eman diezaikegun erabilbiderik ohoragarriena, eta ez dela gizon kristau bati bere ikertze eta gogoeta ororen bidez bere sinesmenaren egiaresate, hedatze eta zabaltzeko buruz bideratzea baino hobeki dagokiokkeen lantzerik ez xederik. Ez dugu askiesten Jainkoaren zerbitzatzea gogoz eta arimaz; oraindik zor eta ematen diogu gorputzezko agurtasun bat; gure soinar, higadura, eta kanpoko gauzez lehiatzen gara haren ohoratzea. Berdin egin behar da, eta gure fedea lagundu gure baitan den arrazoi osoaz, baina beti gutaz

beharra daukanik ez pentsatzeko salbuespenarekin, ez eta gure eginahal eta argudioak hel daitezkeela hain jainkozko eta naturaz gaindiko jakintzara.

Ez bada gure baitara sartzen ohiz landako isurmen baten bidez; sartzen bazaigu ez bakarrik arrazoiz, baina giza moduen bidez, orduan ez dago bere gorentasun eta distiramenduan. Eta, zinez, beldur naiz ere soilik azken bide honetaz gozatzen dugula. Jainkoa heldu balitzaigu fede bizi baten bidez; heldu balitzaigu bere eta ez gure bidez; oinarri eta funtsa jainkozko bat bagenu, giza gertaldiek ez lukete, duten bezala, gure kordokatzeko ahalmenik; gure gotorlekua ez litzaioke hain bateria ahulari errendituko; berrizaleatasunak, printzeen bortxak, alderdi baten zorionak, gure usteen aldakuntza ausarta eta menturazkoak, ez lukete gure sinesmenaren inarrosteko eta aldatzeko indarrik; ez genuke argudio berri baten arabera eta ustekeriara utziko, ez eta sekula izan zen elegintza osoarena ere; uhin horiei jazarriko genieke bermetasun gogor eta mugiezin batez,

Illis fluctus rupes ut vasta refundit,

Et varias circum latrantes dissipat undas

Mole sua 164.

Jainkotasunaren izpi horrek inondik ere hunkituko bagintu, orotan agertuko litzateke; ez soilik gure hitzek, baina oraindik ere gure ekintzek laramakete haren argitze eta distira. Guregandik abiatuko litzatekeen oro ikusiko litzateke garbitasun gora horrek argiturik. Ahalke behar ginateke giza alderdietan sekula ez baita jarraitunik, haren irakaskuntza zail eta bitxiago balitz ere, haren jokaera eta biziari inola ere dagokienik; eta hain erakunde jainkozko eta zerutiarrak ez baititu kristauak mihiaz baizik ezagutarazten.

Hori nahi duzu ikusi? Aldera itzazu gure ohiturak musulman batengana, pagano batengana; beti geldituko zara haren azpian: gure erlijioaren abantailaren arabera, ezinagoko alde alderaezin batetik, bikaintasunez distiratu behar baikinategi; eta esan beharko bailitzateke: Garaitiko itxurak oro erlijio guztienak dira: esperantza, konfiantza, gertaldiak, ospakizunak, ordainak, martiriak. Gure egiaren ezaugarria geure bertutea izan beharko litzateke, halaber ezaugarrikeria zerutiar eta zailena eta egiaren mozkinik gorena den bezala. Arrazoia zuen, halarik ere, gure San Luisek, kristautu zen errege tartaroak Lyonera etorri nahi izan zuenean aita sainduari oinen musukatzeraz eta gure ohituretan uste zuen aurkituko zukeen saindutasunaren ezagutuz, berehala desbideratzeko, beldurrez eta, aitzitik, gure bizimodu gaindituak hastiatuko baitzukeen hain sinesmen sainduaz. Alabaina, gero guztiz ezberdin gertatuko zitzaion beste hari, Erromara joanik xede bererako, eta aro hartako apezpiku eta jendeen galkeria ikusirik, hainbat azkarrago finkatu baitzen gure erlijioan, gogoan harturik zenbat indar eta jainkotasun eduki beharko zuen hainbat ustelkeriaren artean eta hain esku makurretan bere zuzentasun eta ospearen gordetzeko.

“Fede ttantta bakarria bagenu, mendiak aldaratuko genituzke” dio hitz sainduak, gure ekintzak, jainkotasunak gidatu eta lagunduak bailirateke, ez lirateke gizatiarrak bakarrik; miresgarritzko zerbait lukete, gure sinesmenak bezala.-*Brevis est institutio vitae honestae beataeque, si credas*

Batzuek jendeari sinestarazten diote sinesten dutela sinesten ez dutena. Besteek, gehiago baitira, beren buruari sinestarazten diote, ez jakinik ikertzen sinestea zer den.

Eta bitxia aurkitzen dugu baldin eta, ordu honetan gure estatua hertsatzen duten gerretan, ondorioak ikusten badiugu zalantzan eta alda-maldan molde arrunt eta ohizko batez: gureaz baizik ez baitugu haietan ekartzen. Alderdietarik batean dagoen zuzenbidea, apaindura eta estalgarako baizik ez da; hor ongi aipatua da, baina ez da onartua, etxeratua eta atxikia; abokatuaren ahoan bezala da, ez alderdiaren bihotz eta maitasunean bezala. Jainkoak zor die bere ohiz landako laguntza fede eta erlijioari, ez

gure pasionei. Gizonak eramaileak dira hor eta erlijioaz baliatzen dira; guztiz atzikoa izan beharko litzateke.

So egizu ez ote dugun geure eskuez erabiltzen, ezkotik bezala hainbat itxura kontrario ateratzen hain arau zuzen eta berme batetik. Noiz ikusi da Frantzian gure aro honetan baino hobeki? Ezkerrez hartu dutenek, eskuinez hartu dutenek, beltza diotenek, zuria diotenek, hain berdinki darabilte beren eginkizun bortitz eta handigosetarako, hain bezalatsuko molde batez jokatzeko dira gaindikeria eta zuzengabea, non dudakor eta sinesgaitz bilakatzen baitute beren usteen nahi duten ezberdintasuna, gure biziaren bideratze eta legea dauden gai batean. Ikusten ahal da eskola eta irakaskuntza beretik abiatzen ohitura bateratu eta batuagorik?

Ikus ezazu jainkoen arrazoiak nolako axolagabekeria eskuztatzen ditugun, eta zein erlijioagabeki hartu eta egotzi ditugun erauntsi publiko hauetan zoriak lekutik aldaratu gaituen arabera. Eztabaidagai hain funtsezko hau: zilegi ote zaion azpikoari bere printzearen aurka oldartzea eta armatzea erlijioaren defentsarako, oroit zaitez zein ahotan zegoen, iaz, haren baietza alderdi baten zutabea baitzen, ezetza zein beste baten zutabea baitzen; eta entzun orain zein bazterretatik datorren bataren eta bestearen ahotsa eta irakaskuntza; eta armak kausa honengatik gutiago dabilzan harengatik baino¹⁶⁶. Eta erretzen ditugu egiari jasan arazi behar zaiola gure behararen uztarria diotenak; eta zer ez du Frantziak egin esatea baino makurragorik?

Aitor dezagun egia: armadatik bereziko lituzkeenak, armada zilegi eta neurtutik¹⁶⁷ bada ere, erlijiozko sugartasunez bakarrik doazenak, eta oraino ere bakarrik beren herriko lekeen gerizatzeari edo printzearen zerbitzuari begiratzen dietenak, ez luke jende armatu konpania oso bat ere eraiki. Nondik heldu da gure mugimendu publikoetan hain guti aurkitzen baitira borondate eta ibiltze bera eduki izan dutenak, eta ikusten baititugu noiz urrats laburrean noiz tarrapatan ibiltzen; eta gizonak berak noiz higitzen gure egitekoak beren bortizkeria eta garraztasunaz, noiz beren hoztasun, bigunkeria eta pisutasunaz, non ez den bulkatuak izan direlako gogoeta berezkoek eta menturazkoek, hauen ezberdintasunaren arabera baitabilta?

Ageriki badakusat debozioari ez dizkiogula ematen geure pasioneak berekatzen dituzten egitekoez baizik. Ez da kristaua bezalako etsaigo bikainik. Gure sugartasunak miresgarriak egiten ditu geure herra, krudelkeria, handinahi, zekenkeria, gibelkeria eta bihurraldiari buruzko aiherraren ondorengatik dabilelarik. Alderantziz, ontasun, bihotz beratasun, neurtasunaren aldera, mirakuluz bezala, aldarte arraro batek ez balerama, ez doa oinez, ez hegaka ere.

Gure erlijioa bizioen erauzteko egin da; alabaina, estaltzen, hazten eta akuilatzen ditu.

Ez zaio Jainkoari lastozko bizarra egin behar (dioten bezala). Haren baitan sinetsiko bagenu, ez diot fedez, baina sinetsmen soil batez, areago ere (gure ahalke handirako diot) sinetsiko eta ezagutuko bagenu beste gauza bezala, gure lagunetarik bat bezala, gauza guztien gainetik maitatuko genuke, haren baitan distiratzeko den mugagabeko ontasun eta edertasunagatik; ibiliko litzateke, bederen, gure maitasunean, aberastasun, atsegin, ospe eta gure adiskideen lerro berean.

Gutarik hoberena ez da haren laidostatze beldur, bere auzokide, ahaide, nagusiaren laidostatze beldur den bezala. Ote da hain adimen xehetik, gure atsegin biziosoetarik baten gauzakia alde batean edukirik, eta bestean, ezagutza eta sinetsmen berean, hilezinezko ospe baten egoera, bata bestearen trukean emanen lukeenik? Alabaina, gutieste hutsez ukatzen dugu: zeren, zein atseginek ekartzen gaitu burau egitera, menturaz ez bada laidoaren atsegina bera?

Antistenes filosofoak, Orfeoren misterioetan ikasten hasten zitzaizalarik, apezak baitzioen erlijio hari estekatzen zirenek betiereko ontasun beteak ukanen lituzketela beren heriotzaren ondoan, egin zion:

Diogenesek, zakarkiago bere moduz, eta gure solasbideaz kanpoan, zioen beste munduko ontasunen erdiesteko haren ordenekoa egin zedin predikatzen zion apezari: Betiereko zorionaren agintza handi horiek, onartuko bagenitu solasbide filosofiko baten omen berean, ez genioke heriotzari diogun halako higuindura.

Non jam se moriens dissolvi conquereretur;

Sed magis ire foras, vestemque relinquere, ut anguis,

Gauderet, praelonga senex aut cornua cervus ¹⁶⁸.

Nahi dut ezabaturik izatea, esanen genuke, eta Jesukristorekin izan. Platonen arimaren hilezintasunari buruzko hitzaldiaren indarrak zeramatzan haren ikasleetarik zenbait heriotzera, lasterrago goatzeko ematen zizkien esperantzez.

Hori oro, geure erlijioa geure moldez eta eskuz baizik onartzen ez dugulako ezaugarria da, eta beste erlijioak onartzen diren bezala. Gertatu gara erabiltzen zen herrian; edo begiratzen diogu haren zahartasunari edo bermatu duten gizonen ospeari; edo sinesgabeek estekazen dizkien mehatxuen beldur gara; edo haren agintzei garraizkie. Gogoeta horiek erabiliak izan behar dira gure sinesmenean, baina lagungarriak bezala: giza estekak baitira. Beste erlijio batek, beste lekukoek, agintza eta mehatxu berdinek iratxiki liezaguketen bide beretik sinesmen kontrario bat.

Kristauak gara perigordiarak edo alemanak garen bezala.

Eta Platonek dioena, guti direla ateismoan hain bermeak diren gizonak, non galbide hertsagarri batek ez daramatzen ahalmen jainkotiarraren ezagutzera, horrek ez du egiazko kristau bat hunkitzen. Giza erlijio hilkorrei dagokie giza moduz batez onartuak izatea. Zer fede izan behar da, gure baitan laxokeriak eta bihotz ahuleziak landatzen eta finkatzen dutena? Fede irrigarria, ez sinesteko kuraia ez edukitzeagatik sinesten duenaz baizik sinesten ez duena! Pasione bizioso batek, hala nola aldakortasuna eta harridura ere, egin ote dezake gure gogoan eragite neurtu bat?

Beren adimenaren arrazoiak, dio Platonek, finkatzen dute infernuez eta geroko nekeez aipatzen dena faltsua dela. Baina, zaharreriak edo eritasunek beren heriotzara hurbiltzen dituztelarik, gauzatzeko gertaldia eskainirik, haien izialdurak beste sinesmen berri batez hornitzen ditu etorkizuneko egoeraren lazkeriaz. Eta halako hunkimenduek kuraiak beldurti bilakatzen baititu, debekatzen ditu bere legeetan halako mehatxuen irakaskuntza guztiak, eta jainkoengandik gizona inolako gaitzik datorkiekeelako sinesmena, non ez den hauen onik handienerako, behar denean, ondorio sendagarri batez. Bionez diote, Teodororen ateismoez kutsaturik, luzaz aritua zela gizon sinesleez burlaka; baina, herioak uste gabeak atzemanik, sineskeriarik neurkabeetara isuri zela, jainkoak Bionen egitekoen arabera kenduko eta ezarriko balira bezala.

Platonek eta eredu hauek ondoriatu nahi dute Jainkoaren sinesmenera eramana izaten garela edo amodioz edo bortxaz. Ateismoa delarik naturaz landako eta harrigarria bezalako uste bat, zaila ere eta giza gogoan, ozar eta galduagoa bada ere, finkatzeko gaitza; asko ikusi dira, uste ez arrunten eta mundu aldatzaileen gogoan hartzeko hutsalakeriaz eta harrokeriaz, aitormenaren¹⁶⁹ itxuratzea bortxaz, aski zoroak badira ere, beren kontzientzian finkatzeko aski azkarrik ez direlarik. Ez dituzte eskuak zeru aldera goratu gabe utziko, bularrean ezpata ukaldi on bat jotzen badiezu. Eta, beldurak edo eritasunak egotzi izan duelarik aldarte arin horren irakinaldi galdua, hutsik gabe itzuliko dira eta beren burua utziko dute eramatera sinesmen eta eredu publikoetara. Gauza bat da zinez gogoetartatu dogma bat; eta beste gauza bat da, azalezko hunkimendu horiek, gogo kordokatu baten galtzetik sortuak, igeri baitabiltza ausarki eta nora ezean amestegian. Gizon esteiari eta buru gabeak, ahal duten baino makurragoak izatera entseiatzen baitira!

Paganismoaren hutsak, eta gure egia sailduaren jakinezak, utzi zuen Platonen gogo handi hura (baina handi giza handitasunean soilik) beste soberakeria honetan erortzera: haurrak eta

zaharrak erlijiojarriagoak direla, gure zozokeriatik sortu eta bere omena erdiesten balu bezala.

Gure adimena eta borondatea estekatu beharko lituzkeen korapiloa, gogo hertsatu eta gure sortzaileari iratziki behar liokeena, izan beharko litzateke ez gure gogoeta, arrazoi, eta pasionetarik bere bihurtzeko eta indarrak hartuko lituzkeen korapiloa, baina atxikimendu jainkoen eta naturagaindiko batetik, molde, aurpegia eta distira bakarria duelarik, Jainkoaren manu-indarra eta grazia baita. Beraz, gure bihotza eta gogo fedea zuzendu eta manaturik direlarik, arrazoi da bere xedearen zerbitzurako gure garaitiko zatiak haien ahalaren arabera erakar ditzan. Halaber ez da sinesgarria tresna honek guztiak ez ditzala arkitekto handi horren eskuko ezaugarri zigilatu zenbait, eta ez dadila munduko gauzetan eraiki eta moldatu dituen egileari inola ere egokitzen zaion itxura zerbait. Ekintza gora hauetan utzi du bere jainkotasunaren zigilua, eta gure ergelkerian dago ez baitugu edireiten ahal. Berak baitiosku bere ikustezinezko ekintzak ikusgarrien bidez erakusten dizkigula. Sebonda aritu da ikerpen zuzen horretan, eta erakusten digu nola ez den munduko zatirik bere egilea gezurtatzen duenik. Jainkoen ontasunari bidegabea litzaioke, unibertsoak ez balu gure sinesmena baitetsiko. Zeruak, lurak, lehen gaiek, gure gorputz eta gogoak, gauzek orok azpilotzen dute; hartaz baliatzeko bidearen edireiteaz baizik ez da. Irakasten digute, aditzeko gai baldin bagara. Zeren mundu hau tenplo txit saildu bat baita, gizona sartu baita irudien behatzeko, ez esku hilkorrez landuak, baina jainkoen gogoak sentigarriak egin dituenak: eguzkia, izarrak, urak eta lurra, guri adigarrien erakusteko.

Atque adeo faciem cæli non invidet orbi

Ipsè Deus, vultusque suos corpusque recludit

Semper volvendo; seque ipsum inculcat et offert,

Ut bene cognosci possit, doceatque videndo

Qualis eat, doceatque suas attendere leges 170.

Beraz, gure giza arrazoi eta hitzaldiak, gai dorpe eta antzua bezala dira: Jainkoaren grazia haien molde da; hura da eredu eta balioa ematen duena. Hala nola Sokrates eta Katonen ekintza bertutetsuak hutsal eta ezteus dauden bezala beren xedea ez izateagatik eta ez ikusteagatik gauza guztien sortzailearen maitasun eta obedientzia, eta Jainkoaren berri ez edukitzeagatik: horrela dira gure irudimen eta adimenak; badute gorputz zerbait, baina moldegabeko gaia da, modurik eta argirik gabe, Jainkoaren fedea eta grazia elkartzen ez bazaizkie. Sebonda argudioak tindatzen eta argitzen dituen fedea bilakatzen ditu berme eta azkar; bideratze eta lehen gidarako izateko gaiak dira ikasberri batentzat ezagutza horretarako bidean ezartzeko; moldatzen dute inola ere eta Jainkoaren graziaren ezagutzeko gai bilakatzen, horren bidez osatzen eta gauzatzen baita gure sinesmena. Mailako gizon bat dazagut, letretan hazirik, aitortu baitit Sebonda argudioen bidez berbideratua izan dela sinesgabetasunaren hutsetarik. Eta, apaindura horretaz eta fedea laguntza eta onespenez gabetuak izanen direlarik ere, eta giza amets hustzat hartuko direlarik ere, erlijio gabetasunaren ilunbe izigarri eta higuigarrietan egotzi direnei oldartzeko, oraindik ere aitzikatzan ahal zaien baldintza bereko beste edozein bezain azkar eta berme aurkituko dira: halako molde, non izanen baikara gure solaskideei esateko heinean,

Si melius quid habes, accerse, vel imperium fer 171;

menara bitez gure frogen indarrara, edo erakutsiezazkigute, beste inon, eta beste gai baten baitan, hobeki antolatu eta moldatuak.

Gogoetatu gabe, jadanik erdi sartu naiz Sebonda alde erantzun gogo nuen bigarren gaitzespenean.

Zenbaitek diote argudio hauek ahul eta ezgaiak direla nahi duenaren egiaztatzeko, eta entseiatzen dira errazki ezeztatzen. Hauei zakarkixeago oldartu behar zaie,

lehenbizikoak baino perilos eta maltzurragoak direlako. Besteren idazkien zentzua gogotik makurtzen da nork bere baitan aitzinetik erabaki dituen usteen aldera; eta ateo batek uste du egile guztiak daramatzala ateismora, hobengabeko gaia bere pozoinaz kutsatuz. Hauek badute aitzinuste bat Sebonden arrazoiatarako gustua motel bilakatzen diena. Bestalde, iruditzen zaie josteta ederra ematen zaiela gure erlijioari giza arma hutsez oldartzeko libertatean ezartzen direlako, haren gorentasun manu-indarrez betean oldartzera ausartuko ez bailirateke. Zoramen horren apaltzeko hartzen dudana bidea, egokiena iruditzen baitzait, giza harrotasun eta burgoitasunaren jotzea eta ostikatzea da; gizonaren ezteus, hutsal eta ezerezaren sentiaraztea; haien arrazoiaren arma ahulen eskuetarik erauztea; jainkozko gorentasunaren manu-indar eta agurtasunaren azpira buruaren apalaraztea eta lurraren ausikaraztea. Hari soilik baitagozkio zientzia eta jakintza; hura soilik baita bere burua ezertan eduki dezakeena, guk hari ebasten baitiogu elkarri aipatzen eta hartzen dioguna.

Ου γὰρ ἐὰ φρονεῖν ὁ Θεὸς μέγα ἄλλον ἢ ἐωυτὸν 172

Eroraraz dezagun sinesmen hori, gogo maltzuraren tiraniaren lehen funtsa: Deus superbis resistit; humilibus autem dat gratiam Adimena jainko guztien baitan dago, dio Platonek, eta oso gizon gutiren baitan.

Alabaina, gizon kristauaren kontsolamendu handia da gure tresna hilkor eta erorkorren ikustea hain zuzenki egokiak gure fede saildu eta jainkozkoari non, erabiltzen direlarik beren izaerazko gai hilkor eta erorkorretan, ez baitagozkie, ez berdinago, ez eta indar gehiagorekin ere. Dakusagun, beraz, gizonak bere ahalmenean ote dauzkan Sebondenak baino arrazoi azkarragorik, eta bere baitan ote den segurtasun zerbaitetara heltzekorik, argudioz eta adimenez.

Zeren San Augustinek, jende hauen kontra auzi egiten, haien zuzengabeari erantzuki egiteko gertaldia baitu, gure sinesmenaren zatiak faltsutzat baitituzte, gure arrazoiak ezin dituelako finkatzen ahal; eta, erakusteko gure adimenak haien molde eta kausak finkatzen ez dakizkien gauza anitz izaten eta izan ahal direla, aurrean ezartzen dizkie gizonak deus ere ikusten ez duela onartzen dituen esperientzia ezagun eta dudaezin zenbait; eta hori, beste gauza guztiak bezala, ikertze ikusgarri eta argi batez. Gehiago egin behar da, eta erakutsi haien arrazoiaren ahuleziaren sinestarazteko ez dela eredu bitxien bereizten ibili behar, eta hain eskas eta itsua dela non ez baita aski garbirik zaion erraztasun garbirik batere; erraza eta nekea bat eta bera zaizkiola; gai guztiek berdinki, eta naturak orokorki, ez dituztela haren menpe eta arartekatzea onartzen.

Egia predikatzen digula filosofia mundutarretik ihes egiteko predikatzen digunean, eta hain maiz sarrarazten digunean gure jakintza erokeriaz baizik ez dela Jainkoaren aitzinean; hutsalkeria orotan, hutsalena gizona dela; bere jakintzaz harrotzen den gizonak oraindik jakitea zer den ere ez dakiela; eta gizonak, deus ere ez baita, zerbait ere dela gogoan hartzen badu, bere burua liluratzen eta engainatzen duela? Izpiritu sailduko zuhurtitz hauek hain garbiki eta biziki adierazten dute sostengatu nahi dudana, non beste frogarik batere ez bainuen behar haren manu-indarrera azpikotasun eta obedientzia guztiarekin biltzen diren jendeen kontra. Baina hauek nahi dute beren bizkarrean zehatuak izan eta ez dute jasan nahi beren arrazoiari oldar dakion, non ez den beraren bidez.

Behingoz har dezagun gogoan, beraz, gizon soila, kanpoko laguntzarik gabe, bere armez bakarrik armaturik, eta jainkozko graziaz eta ezagutzaz gabeturik, bere ohore guztia, indarra eta izatearen funtsa baita. Dakusagun zenbat egonkortasun daukan jazkera eder horrekin. Adieraz diezadan, haren adimenaren eginahalaz, zein oinarrien gain eraiki dituen garaitiko izakien gainetik uste dituen abantaila handiak. Nork sinestarazi dio sabai zerutiarren ibiltze miresgarria, suzi biribiltari horien betiereko argia bere buru gainetik, itsaso mugagabeko mugimendu ikaragarriak, finkatu izan direla eta hainbat

mendeetan barrena jarritzen bere erraztasun eta zerbitzurako? Irudika ote daiteke izaki ahul hori baino deus irigarriagorik, ez baita bere buruaren jabe ere, gauza guztien oldarpenera menturaturik, bere buruari izendatzen baitio unibertsoaren jabe eta enperadorea, haren zatirik xumeenaren ezagutzea bere ahalmenean ez baita, eta are gutiago manatzea? Eta bere buruari ematen dion eraikuntza handi honetan bakarrik egoteko lehentasun hori, haren edertasun eta zatien ezagutzeko jakintza izan dezan, arkitektoari eskerrak eman diezaizkion eta munduaren hartze eta zuzentzearen kontua izan dezakeen bakarra, nork berezi dio lehentasun hori? Erakuts diezazkigun kargu eder eta handi horren gutunak.

Emanak izan ote dira bakarrik jakileen faboretan? Jende gutiri dagozkio. Zoroak eta gaiztoak hain fabore ohiz landakoaren merezienteak dira, munduko alderdirik makurrena izanik, garaitiko guztiak baino lehen hobetsiak izateko?

Honako hau sinetsiko ote dugu: Quorum igitur causa quis dixerit effectum esse mundum? Eorum scilicet animantium quae ratione utuntur. Hi sunt dii et homines, quibus profecto nihil est melius Ez dugu sekula aski gaitzetsiko parekatze horren ahalkerik eza.

Baina, gaiztoa, zer du bere baitan halako abantailaren gai? Gogoan hartzearekin gorputz zerutiarren bizi ustelezin hori, haien edertasuna, haien handigoa, haien etengabeko higidura hain arau zuzen batez:

cum suspicimus magni caeleste mundi

Templa super, stellisque micantibus Aethera fixum,

Et venit in mentem Lunae solisque viarum ¹⁷⁵;

gogoan hartzearekin gorputz horiek daukaten menpetasun eta ahalmena, ez soilik gure bizi eta zoriaren baldintzen gainean,

Facta etenim et vitas hominum suspendit ab astris ¹⁷⁶,

baizik eta gure aiher, gure aburu, gure nahikundeen berorien gainean, zuzentzen, bulkatzen eta inarrostoen baitituzte haien eraginen nahiara, gure arrazoiak irakasten digun eta aurkitzen duen arabera,

speculataque longe

Deprendit tacitis dominantia legibus astra,

Et totum alterna mundum ratione moveri,

Fatorumque vices certis discernere signis ¹⁷⁷;

ikustearekin, ez bakarrik gizon soil bat, ez errege bat, baizik eta erregetateak, erresumak eta behereko mundu oso hau dabilela mugimendu zerutiarrik xumeenen arabera,

Quamtaque quam parvi faciant discrimina motus:

Tantum est hoc regnum, quod regibus imperat ipsis ¹⁷⁸!

baldin eta gure bertutea, gure bizioak, gure jakintza eta zientzia, eta izarren indarrak dagigun hitzaldi hau berau, eta haietarik gureganako alderaketa hau, badator, gure arrazoiak uste duen bezala, haien bidez eta faborez,

furit alter amore,

Et pontum tranare potest et vertere Trojam;

Alterius sors est scribendis legibus apta;

Ecce patrem nati perimunt, natosque parentes;

Mutuaque armati coeunt in vulnera fratres;

Non nostrum hoc bellum est; coguntur tanta movere,

Inque suas ferri poenas, lacerandaque membra;

Hoc quoque fatale est, sic ipsum expendere fatum ¹⁷⁹;

zeruko antolamendutik baldin badugu daukagun arrazoi zati hau, nolaz berdintzen ahalko gaitu honek haren aldera? nola azpiratu gure jakintzara haren izate eta

baldintzak? Gorputz horietan dakusagun orok harritzen gaitu. Quae molitio, quae ferramenta, qui vectes, quae machinae, qui ministri tanti operis fuerunt? Zergatik gabetzen ditugu gogoz, biziz eta adimenez? Ezagutu ote dugu haietan ergeltasun dorpe eta soraio bat, haiekin obedientziaz beste harremanik ez dugunok? Baderrakegu ez dugula gizonaz landako ezein izakiengan gogo arrazoigarri baten erabilera ikusi? Eta zer! ikusi ote dugu halakorik eguzkian? Izatetik eten ote da, guk halakorik ikusi ez dugulako? eta izatetik eten dira haren mugimenduak, horiek bezalakorik ez direlako? Ikusi ez duguna ez bada, ederki mozturik da gure jakintza: Quae sunt tantae animi angustiae Ez ote dira giza hutsalkeriaren ametsak ilargiaz lur zerutiar baten egitea eta, Anaxagorasek bezala, han mendi eta ibarren irudikatzea? giza egoitza eta etxaldeen paratzea, eta maiztertegien eraikitzea gure erraztasunerako, Platonek eta Plutarkok bezala? eta gure lurraz izar distiratzaille eta argigarri baten egitea? Inter caetera mortalitatis incommoda et hoc est, calligo mentium, nec tantum necessitas errandi sed errorum amor –Corruptibile corpus aggravat animam, et deprimit terrena inhabitatio sensum multa cogitantem.

Hantustea da gure eritasun natural eta jatorrizkoa. Izaki orotan zorigaitz eta ahulena gizona da eta, hainbatik hainbatean, harroena. Sentitzen eta badakusa bere burua hemen ezarria, munduko lohi eta gorotz artean, unibertsoko zatirik makur, hil eta hirotuenari estekatu eta itzaturik, etxebititzako azken solairuan eta zeruko sabaitik urrunduenan, hiru motatan¹⁸⁴ izaera makurreneko animaliekin; eta irudimenez badoa bere burua paratzen ilargiko inguradura gainean eta zerua ezartzen bere oinen azpira. Irudimen horren berorren hutsalkeriaz berdintzen zaio Jainkoari, jainkozko moldeak bere buruari ematen dizkio, bere burua hautatzen eta bereizten garaitiko izakien erreldotik, zatiak moztzen dizkie bere anaikide diren ihiziei eta bere gogara ematen halako ahalmen eta indar xorta. Nola dazaguzki, bere adimenaren eginahalaz, ihizien barreneko higidura gordeak? haiengandik gukanako zein alderaketaren bidez ondoratzen du ematen dien zozokeria? Neure gatemearekin jostetan ari naizelarik, nork daki hark nitaz badiharduen nik hartaz baino gehiago¹⁸⁵? Platonek, bere Saturnoren azpiko urrezko aroaren margoan, orduko gizonaren abantailen artean kontatzen du ihiziekiko zeukaten harremana, haiei galdeginez eta ikasiz, baitzekizkien bakoitzaren nolakotasun eta ezberdintasunak; nondik adimen eta zuhurtasun hagitz bete bat erdiesten baitzuen, eta guk genekikeen baino anitzez ere dohatsuki zuzentzen baitzuen bere bizia. Froga hoberik behar ote dugu ihizien gaineko giza azolgabeziaren epaitzeko? Egile handi horrek uste izan du naturak eman dien gorputz moldeko zatirik gehienan, soilik begiratu diola aro hartan ateratzen ziren aztiatzeen erabilerari.

Haien eta gure arteko harremana oztopatzen duen akats hori, zergatik ez da gure baitan haiengan bezainbat egonen? Asmatzekoa da gure artean ez aditzeko hutsa norena den; zeren guk ez baititugu aditzen haiek aditzen gaituzten baino gehiago. Arrazoi honengatik beragatik ere, haiek ihizitzat jotzen ahal gaituzte, guk hartzen ditugun bezala. Ez da mirari handia aditzen ez baditugu (halaber ez baititugu euskaldunak eta trogloditak ere egiten). Halarik ere, batzuek beren burua goretsi dute aditzen zituztelako, hala nola Apolonio, Tianeo, Melanpo, Tiresias, Tales, eta beste zenbaitek. Eta, kosmografoek dioten bezala, beren erregetzat zakur bat hartzen duten herriak direnez geroz, beharrezkoa da haren ahots eta higidurei itzulpen zerbait eman diezaieten. Ohartu behar gatzazkio gure artean den berdintasunari. Guk daukagu haien zentzuaren adimen erditsuko zerbait: horrela daukate ihiziek gurearena, neurri berean inguru. Haiek lausengatzen, mehatxatzen eta hertsatzen gaituzte; eta guk haiek.

Bestalde, aski ageriki edireiten dugu haien artean badela harreman bete eta oso bat, eta elkar aditzen dutela, ez bakarrik espezie berekoek, baina espezie ezberdinetakoek ere.

Et mutæ pecudes et denique secla ferarum

Dissimiles suerunt voces variasque cluere,

Cum metus aut dolore est, aut cum jam gaudia gliscunt 186.

Zakurraren halako zaungan ezagutzen du zaldiak haserretua dela; beste halako ahots batez ez da ikaritzen. Ahotsik ez duten ihiziengan, haien artean ikusten dugun keinu elkargotik, errazki argudiatzen dugu beste adierazpide zerbait: haien mugimenduek gogoetatzen eta aritzen dute;

Non alia longe ratione atque ipsa videtur

Protrahere ad gestum pueros infantia linguæ 187.

Zergatik ez, gure mutuek keinuka eztabaidatzen, argudiatzen, eta historiak kontatzen dituzten bezain ongi? Ikusi ditut hain arinak eta hartarako moldatuak, non zinez ez baitzitzaien deus ere huts egiten adierazteko jakintza osoan; maiteminduek elkar gaitzitzen, elkarganatzen, eskatzen, eskertzen, deitzen eta azkenean gauza guztiak adierazten dituzte begietan:

E'l silenzio ancor suole

Haver prieghi e parole 188.

Eta eskuez zer? behartzen ohi dugu, agintzen, deitzen, agurtzen, mehatxatzen, eskatzen, otoizten, ukatzen, ezeztatzen, galdegiten, miresten, izendatzen, aitortzen, damutzen, beldurtzen, ahalketzen, dudatzen, irakasten, manatzen, akuilatzen, kuraiatzen, zin egiten, bermatzen, salatzen, gaitzesten, barkatzen, laidostatzen, gutiesten, desafiatzen, iraintzen, lausengatzen, txalotzen, benedikatzen, apaltzen, burlatzen, elkarganatzen, gomendatzen, goresten, bestakatzen, alaitzen, laketzen, goibeltzen, nahasten, etsitzen, harritzen, idatzen, isiltzen; eta zer ez? mihiaren bekaitzarako bestelakatze eta ugaritasun batez. Buruaz: gomitatzen dugu, bidaltzen, onartzen, gaitzesten, gezurtatzen, onesten, ohoratzen, agurtzen, arbuiatzen, galdegiten, zuzentzen, errebelatzen, deitoratzen, perekatzen, larderiatzen, azpiratzen, goratzen, sustatzen, mehatxatzen, segurtatzen, eskatzen. Zer bekainez? zer sorbaldez? Ez da mugimendurik mintzatzen ez denik, ikaskuntzarik gabeko mintzaira adigarri eta publiko batez: hainbaterainokoa non, besteen ezberdintasun eta erabilera berezia ikusirik, hau onetsia izan behar baitzen giza izaerarena berarena bezala. Bazterrean uzten dut bereziki beharrak laster irakasten diela haren premia dutenei, eta behatz alfabetoak eta keinu gramatikak, eta haien bidez baizik adierazten ez diren jakintzak, eta Plinioen arabera beste mintzairarik ez duten herriak.

Abderako hiriko enbaxadore batek, Espartako Agis erregeri luzaz mintzatu ondoren, galdegin zion: “Orduna Jauna, zer erantzuna nahi duk eraman diezaidan gure hiritarrei?- Utzi haudala nahi izan duanaren esatera, eta nahi izan duan bezainbat, sekula hitzik esan gabe” Ez ote da hori isiltze mintzodun eta biziki adierazgarri bat?

Gainera, zein jakintza-mota gurea ez dugu animalien ekintzetan ezagutzen? Ote da erleena baino antolabide gehiagorekin arautu gobernurik, kargu eta ofizio gehiagotan bereizturik, eta iraunkorkiago zaindurik? Ekintzen eta hutsarteen antolatze hori, gogora ote dezakegu zuzentzen adimenik eta zuhurtasunik gabe?

His quidam signis atque hæc exempla sequuti,

Esse apibus patrem divinæ mentis et haustus

Æthereos dixere 189.

Udaberriaren itzultzean, gure etxeetako zoko guztiak kirikatzen dakuskigun ainarek adimenik gabe bilatzen eta zuhurtziarik gabe bereizten ote dute, mila lekuetarik, pausatzeko errazen zaiena? Eta, beren eraikuntzen egitura eder eta miresgarrian, xoriak baliatzen ahal dira gehiago itxura karratu batez biribil batez baino, angelu zabal batez angelu zuzen batez baino, haien baldintzak eta ondorioak jakin gabe? Hartzen ote dute noiz ura, noiz buztina, gogortasuna hezetuz biguntzen dela uste izan gabe? Orolodioz edo lumaxkaz larrustatzen dituzte beren jauregiak aurrikusi gabe beren umeen soinadar

gurinak bigunki eta errazkiago egonen direla? Haize eurizutik gerizatzen dira, eta beren habia ekialdera paratzen dute, haize horien baldintza ezberdinak ezagutu gabe eta gogoan hartu gabe bata osasungarriagoa zaiela bestea baino? Zergatik loditzen du armiarmak bere amarauna gune batean eta laxatzen bestean? Orain baliatzen da korapilo honetaz, gero hartaz, baldin ez badu erabakirik, gogoetarik eta ondoriamenik? Aski ezagutzen dugu, haien ekintzarik gehienetan, zenbat bikaintasun daukaten ihiziak gure gainetik eta gure antzea zein ahula den haien imitatzeke. Halarik ere, guretan, zakarragoak baitira, dakuskigu erabiltzen ditugun ahalmenak, eta geure gogoia bere indar guztiez baliatzen dela. Zergatik ez dugu beste hainbeste haietaz gogoetatzen? zergatik ematen dizkiogu ez dakit zein aiherraz natural eta arruntari guk naturaz eta antzeaz ahal dezakeguna gainditzeko duten ekintzak? Zertan, gogoetatu gabe, ematen diegu gure gaineko abantaila oso handi bat, zeren naturak, amazko ezintasun batez, eskutik bezala laguntzen eta gidatzen dituelako, beren biziaren ekintza eta erraztasun orotara; eta uzten gaituelako mentura eta zoriara, eta geure iraupenerako behar diren gauzen antzez bilatzera; eta inoiz ere ezeztatzen dizkigu ihizien antzetasun naturalera heltzeko bideak, gogozko ikaskuntza eta bortxamendu batez; halako moldez, non haien ergeltasun basak gainditzeko baitu erraztasun guztietan gure jainkozko adimenak ahal duen oro.

Egiazki, kontu honetan, arrazoi genduke izendatzeko amaizun hagitz zuzengabeko bat. Baina ez da halakorik deus ere; gure ordena ez da hain moldegaitz eta araugabea. Naturak orokorki besarkatu ditu bere ume guztiak; batere ez da bere izatearen iraupenerako bide guztiez hark ausarki hornitu ez duenik; zeren gizonei entzuten dizkiedan kexa arrunt horiek (nola haien usteen nahasmenak goresen baititu inoiz hodeien gainera, eta gero behekitzen antipodeetara), gu garela lur hutsean biluzik utzi den animalia bakarra, estekaturik, uzkalduz, zerez arma eta estal eduki gabe non ez den besteren hondarkinez; bitartean garaitiko izaki guztiak naturak jantzi ditu maskorrez, frintzez, azalez, ilez, artilez, arantzez, larruz, ilazkinez, lumaz, ezkatatzen, zimaz eta zetaz, haien izatearen behararen arabera; armatu ditu atzaparrez, hortzez, adarrez, oldartzeko eta defendatzeko; eta irakatsi die egoki zaiena, igerikan, lasterrean, hegakan, kantuan, artean gizonak ez daki ibiltzen, ez mintzatzen, ez jaten, ez eta negarrik besterik ezer ere ikaskuntzarik gabe:

Tum porro puer, ut sævis projectus ab undis
Navita, nudus humi jacet infans, indigus omni
Vitali auxilio, cum primum in luminis oras
Nixibus ex alvo matris natura profudit;
Vagituque locum lugubri complet, ut æquum est
Cui tantum in vita restet transire malorum.

At variæ crescunt pecudes, armenta, feræque,
Nec crepitacula eis opus est, nec cuiquam adhibenda est
Almæ nutricis blanda atque infracta loquella;
Nec varias quærunt vestes pro tempore cœli;
Denique non armis opus est, non mœnibus altis,
Queis sua tutentur, quando omnibus omnia large

Tellus ipsa parit, naturaque dædala rerum 190;
kexa horiek faltsuak dira, munduko antolamenduak baita berdintasun handiago eta harreman irudikoago bat.

Gure larrua gotortasunez hornitua da, haiena bezain doiki, aroaren oldarpenen aurka; jantzi erabilerarik batere ez duten hainbat herri lekuko. Gure aitzineko galiarrak kasik ez zeuden jantzirik; ez eta irlandarrak ere, gure aldamenekoak, zeru hain hotz baten azpian. Baina geure buruaz dakusagu hobeki, zeren haize eta airera agertarazi nahi ditugun pertsonaren zati guztiak aurkizten baitira jasateko gai: aurpegia, oinak, eskuak, zangoak,

sorbaldak, burua, ohiturak gomitatzen gaituen arabera. Zeren, gure baitan zati ahulik eta hoztasunaren beldur legokeenik baldin bada, urdaila izan beharko litzateke, egosgoa egiten baita; gure gurasoek agerian zeramaten; eta gure andereak, diren bezain beratz eta minberak, badoaz inoiz ere zilborreraino erdi irekiak. Haurren lotze eta estekadurak ez dira beharrezkoagoak; ama lakedemoniarrek bereak bazeramatzen soinadarren askatasun osoan, lotu ez plegatu gabe. Gure negarra beste animalia gehien bezalakoa da; eta kasik ez baita deitoratzen eta kurrinkatzen luzaz sortu ondoren ikusten ez denik: sentitzen diren ahuleziari aski egokia zaion itxura baita. Jateko ohiturari dagokionez, gure baitan dago, haiengan bezala, jitezkoa eta irakaspenik gabe,

Sentit enim vim quisque suam quam possit abuti 191.

Nork dudatzen du haur batek, bere buruaren hazteko heinera heldurik, ez lekikeela bere janariaren bilatzen? Lurrak jasaten du eta eskaintzen dio bere beharrerako aski, beste lantze ez antzerik gabe; eta sasoi orotan ez bada ere, ez du ihizientzat ere egiten, dakuskigun xinaurriek eta besteek urteko aro antzuetarako egin hornidurak lekuko. Ediren berri ditugun herri haiek, janari eta edari jatorrizkoez hain ausarki hornituek, irakatsi berri digute ogia ez dela gure janari bakarra eta, lantzerik gabe, gure ama naturak hornitu gintuen behar genuen guztiaz; areago ere, itxura denez, gure antzea nahasi dugunez geroz, orain dagien baino lainoki eta aberaskiago,

Et tellus nitidas fruges vinetaque læta

Sponte sua primum mortalibus ipsa creavit;

Ipsa dedit dulces fœtus et pabula læta,

Quæ nunc vix nostro grandescunt aucta labore,

Conterimusque boves et vires agrorum 192,

gure gosearen soberakinak eta desarautzeak haren asetzeko bilatzen ditugun asmamen guztiak gaingitzen baititu.

Arnei dagokienez, naturalak dauzkagu garaitiko ihizirik gehienek baino gehiago, soinadarren mugimendu ezberdin gehiago, eta baliabide gehiago ateratzen diegu, naturalki eta ikasbiderik gabe; biluzik borrokatzera ohituak direnak egozten ohi dira gureak bezalakoa diren arriskueta. Ihizi zenbaitek gaingitzen bagaituzte ere abantaila horretan, guk gaingitzen ditugu beste anitzetan ere. Gorputzaren gotortzeko eta modu erdietsien bidez estaltzeko abilezia badaukagu sen eta ikaste jatorrizko batez. Hala delarik, elefanteak zorrozten ditu bere letaginak, gerran haietaz baliatzen baita (zeren berezirik baititu erabiltze horretarako, gordetzen eta inola ere ez darabiltzanak beste zerbitzuetarako). Zezenek, borrokara doazenean, hedatzen eta egozten dute hautsa beren inguruan; basurdeek zorrozten beren defentsak; eta mangostak, krokodiloarekin gorputzez gorputz aritu behar duenean, gerizatzen du bere gorputza, gogortzen eta azaltzen du inguru osoan lohi ongi tinkatu eta ongi betez, koraza batez bezala. Zergatik ez derrakegu ez dela naturala ere geure buruaren armatzea zurez eta burdinez?

Mintzoari dagokionez, egia da, naturala ez bada ere, ez dela beharrezkoa. Hala ere, uste dut bakartasun osoan hazi izan zatekeen haur batek, harreman orotarik urrundurik (egiteko gaitz litzatekeen entseiu bat), ukanen lukeela ele-mota zerbait bere gogoeten adierazteko; eta ez da sinesgarria naturak ukatu zigukeela beste ihizi askori eman dien bide hori: zeren, zer da mintzatzeaz baizik, elkar kexatze, gozatze, laguntzera deitze eta amodiora gomitatzeiko ikusten diegun ahalmen hori, beren ahotsen erabiltzearen bidez dagiten bezala? Nola ez lirateke beren artean mintzatuko? Ongi mintzatzen zaizkigu, eta gu haiei. Zenbat modutan mintzatzen gataizkie geure zakurrei? eta erantzuten digute. Haiekikoaz beste den mintzairaz eta deituraz ari gara xoriekin, zerriekin, idiekin, zaldiekin, eta hizkuntzaz aldatzen dugu espeziearen arabera:

Così per entro loro schiera bruna

S'ammusa l'una con l'altra formica

Forse a spiar lor via, et lor fortuna 193.

Uste dut Laktantziok ematen diela ihiziei, ez bakarrik mintzoa, baina irria ere. Eta gure artean ikusten den hizkuntz ezberdintasuna, eskualdeen ezberdintasunaren arabera, aurkitzen da espezie bereko animalien artean. Aristotelesek aipatzen du, honi buruz, eperren kantu ezberdina, lekuen arabera.

variæque volucres...

Longe alias alio jaciunt in tempore voces...

Et partim mutant cum tempestatibus una

Raucisonos cantus 194.

Baina jakitekoa da zein hizkuntza mintzatuko litzatekeen haur hori; eta asmakizunez esaten denak ez du itxura handirik. Aipatzen bazait, uste honen aurka, jitezko sorgorak ez direla mintzatzen, baderantzut ez dela soilik hitzaren irakaspena belarrietarik ez ukan ahal izateagatik, baina gehiago ere zeren entzumenaren zentzua, hartaz gabetuak baitira, baitagokio mintzamenari eta elkar atxikiak baitira joste natural batez: halako moldez, non mintzatzen garenak, lehenik geure buruari mintzatu behar baikatzaizkio eta geure belarriei eraunsi behar baitiegu, arrotzetara bidali baino lehen.

Hori oro esan dut giza gauzetan dagoen antzekotasunaren zaintzeko, eta gure biltzeko eta gehitzeko andana horretara. Ez gara garaitikoen gainean ez azpian: zerupean den oro, dio zuhurrak, lege eta zori berean datza,

Indupedita suis fatalibus omnia vinclis 195.

Bada ezberdintasun zerbait, badira ordenak eta mailak; baina natura bakar baten aurpegipean:

res quæque suo ritu procedit, et omnes

Fœdere naturæ certo discrimina servant 196.

Gizona hertsatu behar da eta antolatze horren mugetan ezarri. Gaizoa ez daiteke, zinez, haratago iragan; tratatua eta estekatua da, bere mailako izaki guztien behar berera azpiratua da, eta baldintza oso erdiko batekoa da, lehentasunik ez gorentasun egiazkorik ez funtsezkorik gabe. Ustez eta ametsez bere buruari ematen dionak ez du gorputzik ez zaporerik; eta, animalia guztietan, bera bakarrik bada amesteko libertate hori eta gogoeten desaruatzen hori daukana, irudikatzen baitio dena, ez dena, eta nahi duena, gezur eta egiazkoa, biziki garesti saldu zaion abantaila da eta hartaz bere buruaren hanpatzeko oso bide guti du, hortik sortzen baita hertsatzen duen gaitzen iturburu nagusia: bekatu, eritasun, zalantza, nahasmendu, etsipen.

Badiot, beraz, neure solasera itzultzeko, ez dela itxurarik uste izateko ihiziek dagitela aiher natural eta bortxatuez guk geure hautuaz eta antzeaz egiten ditugun gauza berak. Ondorio berdinetarik ahalmen berdinak atera behar ditugu, eta aitortu, beraz, egiteko dugun adimen berau, bide berau, animaliena dela ere. Zergatik irudikaten dugu haien baitan indarkatze natural hori, halakorik somatzen ez baitugu? gainera ohoragarriagoa da jitezko eta itzurezinezko izaeraz ekiteko bideratua eta hertsatua izatea, libertate ausart eta zorizko batez arautuki ekitea baino; eta seguruagoa da naturari uztea gure zuzenketaren uhalak geuri baino. Geure hantusteriaren hutsalak badagi hobets dezagun zor izatea geure jakintza geure indarrei ezen ez haren eskuzabaltasunari; aberasten ditugu garaitiko animaliak ontasun naturalez eta haientzat ukatzen ditugu, ontasun erdietsiez geure buruaren ohoratzeko eta goraipatzeko; aldarte aski zozo batengatik, uste dut, zeren hobe hartuko baintuzke hainbat dohai osoki neure eta jitezko, ezen ez ikasbidez otoiztu eta bilatu behar izan nituzkeenak. Gure ahalmenean ez da Jainkoak eta naturak faboratuak izatea baino gomendio hoberik erdieste.

Horrela bada, azeria, Traziako biztanleek hartaz baliatzen baitira ugalde izoztu bat iragan nahi dutelarik hormaren gainetik eta beren aitzinean uzten baitute horretarako,

ikusiko dugularik ur ertzean horma ondora haren belarria hurbiltzen, alde urrun edo hurran batetik badantzuen ur asotsaren somatzeko eta, horrela, horman loditasun gehiago edo gutiago aurkitzen duen arabera, gibelatu edo aitzinatu, ez genuke arrazoirik uste izateko burutik iragaiten zaiola guretik eginen lukeen hitzaldi bera, zentzu naturaletik atera den arrazoibide eta ondorio bat baita: hots dagiena badabil; dabilena ez da hormaturik; hormaturik ez dena isurkina da; eta isurkina denak badema pisupean? Zeren hori soilik ematea entzumenaren zentzuaren bizitasun bati, arrazoibiderik ez ondoriorik gabe, ameskeria bat baita eta ez da gure irudimenean sartzen ahal. Berdin gogoan hartu behar dira ihizien aurka egiten ditugun abialdietarik haiek beren buruaren gerizatzeko darabiltzaten hainbat engainu eta asmamen mota.

Eta gure baitan delako haien harrapatzea, haietaz baliatzea eta geure gogara erabiltzea, hortik beretik abantaila zerbait hartu nahi badugu, hori ez da batzuek besteen gainean daukagun abantailaz berorretaz baizik. Baldintza horretan ditugu geure esklabuak. Eta klimazideak¹⁹⁷, ez ote ziren Sirian lau hanketan emanik oinaulki eta eskalera bezala zerbitzatzen zuten emakumeak, kotxera igan behar zuten andereentzat? Eta pertsona librerik gehienek oso erraztasun arinen trukean uzten diote beren bizia eta izatea besteren ahalmenari. Traziarren emakume eta ohaideak auzitan sartzen dira beren senarraren hilobian erahila izateko nor ote izanzen den hautetsia. Sekula gelditu ote dira tiranoak beren deboziorako aski gizon presturik aurkitu gabe, gainera haietarik zenbaitek gehituz heriotzean nola bizitzan laguntzeko behar hori?

Armada osoak behartu zaizkie horrela beren kapitainei¹⁹⁸. Ezpatari temati horien eskola zakar horretan zinaren hitzaldiak zekartzan agintza hauek: Zin dagigu geure buruaren kateatzera, erretzera, jotzera eta ezpataz hiltzera uztea, eta legezko gladiatoreek beren nagusitik jasaten duten guztiaren jasatera; oso erlijioski beharturik gorputza eta gogoa haren zerbitzutan,

Ure meum, si vis, flamma caput, et pete ferro

Corpus, et intorto verbere terga seca ¹⁹⁹.

Egiazko behartze bat zen; eta, halako urtean, hamar mila aurkitu ziren han sartzen eta galtzen zirenak.

Eszitarrek beren errege ehortzen zutenean, gorputzaren gainean itotzen zuten haren ohaiderik faboritoena, haren edaltzaina, zamaltzaina, gelazaina, giltzaina eta sukaldaria. Eta haren urteurrenean hiltzen zituzten berrogeitamar zaldi berrogeitamar morroiek zaldizkaturik bizkar-hezurretik zintzurreraino haga bat sartzen baitzieten, eta horrela plantaturik uzten zituzten ospaldian hilobiaren inguruan.

Zerbitzatzen gaituzten gizonek sari merkeagotan egin dute eta guk xoriei, zaldiei eta zakurrei egiten diegun baino erabilaldi itsusiagoan.

Zein axolatan ez gara ezartzen haien erraztasunagatik? Ez zait iruditzen zerbitzaririk zitalenek egin dezaten gogotik beren nagusien alde printzeek beren animalien alde egitea ohoretzat daukatena.

Diogenesek ikusirik bere gurasoak neketan zirela esklabutzatik berrerosteko: “Eroak dira, zioen, hura da zaintzen eta hazten nauena: zerbitzatzen nauena”; eta abereak zaintzen dituztenak gehiago esan behar dira zerbitzatzen dituztela, zerbitzatuak izaten direla baino.

Gero, haiek hau dute eskuzabalagokoa: sekula ez duela lehoi batek beste lehoi bat zerbitzatu, ez eta zaldi batek beste zaldi bat bihotzik ezagatik. Basapiztien ihizian goazen bezala horrela doaz tigreak eta lehoiak giza ihizian ere; eta halako ariketa daukate batzuek besteen gainean: zakurrek erbien gain, luzioek albornen gain, ainarek xirriten gain, belatzek zozo eta larraxorien gain;

serpente ciconia pullos

Nutrit, et inventa per devia rura lacerta,

Et leporem aut capream famulæ Jovis, et generosæ

In saltu venantur aves ²⁰⁰.

Gure ihiziaren mozkina partekatzen dugu geure zakur eta aztoreekin, nekea eta antzea bezala; eta Anfipolis gainean, Trazian, ihiztariek eta belatzek erdi bana dagite mozkina; Palus Mœotides²⁰¹ aldean bezala, arrantzaleek ez badie otsoei uzten, gogo onez, bere mozkinetik zati berdin bat, berehala doazkio sareen zehakatzera.

Eta guk indarrez baino gehiago mainaz gauzatzen den ihizi-mota bat daukagun bezala, hala nola segadetakoa, gure harietakoa eta amukoa, halakoak ikusten dira ihizien artean ere. Aristotelesek dio txipiroiak egozten duela bere lepotik hari bat bezain luze den heste bat, utzirik luzeraz hedatzen duena, eta nahi duenean bereganatzen duena; hurbiltzen den arrain xumeren bati ohartzen zaiolarik, uzten du heste horren puntaren ausikitzea, legarrean edo lohian gordea egonik, eta apurka apurka biltzen du harik eta arrain xume hori hain hurbil dagoen non jauzi batez hatzematen ahal duen.

Indarrari buruz, munduan ez dago animaliarik gizona bezain laidogarria denik: ez dugu behar bale bat, elefante bat ez eta krokodilo bat, ez halako beste animaliarik, haietarik bakar bat gizon andana baten desegiteko gai baita; kukutsuak aski dira Silaren diktaduraren hustarazteko²⁰²; enperadore handi eta ospari baten bihotza eta bizia har txiki baten gosaria da.

Zergatik diogu gizonaren baitan badela jakintza eta ezagutza antzez eta arrazoibidez landurik, bizitzeko eta bere eritasunen laguntzarako gauza erabilgarrien bereizteko halakoak ez direnetarik; lapaitzaren eta iratzearen indarraren ezagutzeko? Eta, Kretako ahuntzak dakuskigularik, gezialdi bat hartu badute, milioi belarren artetik diktamoaren²⁰³ bereiztera joaten beren sendakuntzarako; eta apo armatua, suge gorria jan duelarik, berehala oregaina biltzen garbitzeko; dragoiak bere begiak argitzen eta garbitzen milurriaz; zikoinek beren buruari labatiben ematen itsas ur hutsez; elefanteek erautzen ez soilik beren gorputzetarik eta beren lagunenetarik, baina beren nagusien gorputzetarik ere (Alexandrok desegin zuen Poro erregerena lekuko), guduan egotzi zaizkien azkonak eta geziak, eta hain trebeki erautzen non guk ez baikenekike hain min gutirekin: zergatik ez diogu berdin jakintza eta zuhurtzia dela? Zeren aipatzea, haien beharatzeko asmotan, naturaren irakaskuntza eta nagusigo hutsez dakitela, ez baita jakintza eta zuhurtziaren izenburuaren haiei kentzea, baizik eta guri baino arrazoi zuzenagoz ematea, hain eskolako irakasle seguru baten ohoreagatik.

Krisipo, garaitiko gauza orotan beste edozein filosofo baino epaile gaitzesleagoa ihiziei buruz, zakur baten mugimenduak gogoan harturik, hiru bidetako gurutze batean baitzegoen, edo galdu duen bere nagusiaren bila, edo haren aitzinean ihes doan harrapakizun baten jazarpenean, entseiatuz baitoa bide bat bestearen ondotik, eta, bietaz segurtatuz eta bilatzen duenaren hatza ez aurkituz geroztik, hirugarrenari lotzen baitzaio ikertu gabe, behartua da aitortzea zakur haren baitan halako hitzaldi bat iragaiten dela: “Gurutzebide honetaraino jarraiki diot neure nagusiaren hatzari; hiru bide hauetarik batetik iragan behar da; ez da honetarik, ez hartarik; hutsik gabe iragan izan behar da beste horretarik”; eta, ondorio eta hitzaldi horretaz segurtaturik, ez da bere senaz baliatzen hirugarren bidean, eta ez du gehiago ikertzen, hala uzten du arrazoiaren indarrak bere buruaren eramatera. Aldarte dialektiko huts honek eta perpaus zatikatu eta multzokatu eta zatien izendatze doiaren baliatze honek berdin balio du zakurrak berez ala Trapezonzeren²⁰⁴ bidez badaki ere.

Eta ez dira ihiziak gure moduan irakatsiak izateko ez gaiak. Zozoei, erroiei, miki, papagaiei, mintzatzen irakasten diegu; letra eta silaba zenbaiteraino moldatzeko eta hedatzeko, haien ahots eta arnas hain arin eta meneragarriaz baliatzeko ezagutzen dugun erraztasun horrek lekukotasuna ematen du barrenean arrazoibide bat daukatela, ikasteko

hain eramangarri eta nahietsi bilakatzen baititu. Bakoitza ase da, uste dut, saltinbakiek beren zakurrei irakatsi hainbat tximinokeria-moten ikusteaz; entzuten duten soinuaren neurkadarik batere huts egiten ez dituzten dantzak, eta haien hitzaren manuz eginarazten dizkieten mugimendu eta jauzi asko. Baina miresmen gehiagorekin ohartu natzaioitsuak, bai zelai nola hirietan, baliatzen diren zakurren egitekoari, aski arrunta dena hala ere; nabari dut nola gelditzen ohi diren erremusina ateratzen ohi duten ate zenbaitetan, nola itzurtzen diren kotxe eta orgen topaketarik, nahiz eta beren iraganbiderako alderik aski badute ere; ikusi dut, hiriko hobi baten luzeran, bidaxka zelai eta berdin baten uztea eta makurrago bati lotzea, haren nagusiaren hobotik lekutzeko. Nola harraraz zekiokkeen gogoan zakur hari bere eginkizuna zela nagusiaren segurtasunari begiratzea bakarrik, eta bere erraztasunen gutiestea haren zerbitzatzeko? Eta nola zezaguen bide hura aski zabala zitzaioala, baina ez zatekeela itsu batentzat? Hori oro ulertzen ahal da arrazoibiderik eta adimenik gabe?

Ez da ahantzi behar Plutarkok Erroman zakur baten baitan ikusirik dioena, Martzeloren antzokian, Vespasiano enperadore aitarekin. Zakur horrek zerbitzatzan zuen aurpegi eta personaia askotako antzerkaldi bat ematen zuen jostakin bat. Beste gauzen artean, hilarena irudikatu behar zuen aldi batez pozoin bat jan izateagatik; pozoin hori itxuratzen zuen ogia irentsi ondoren, sarri hasi zen ikara eta dardaratzen xoraturik balitz bezala; azkenean, etzanik eta gogorturik, hila bezala, bere burua uzten zuen leku batetik bestera herrestatzera, jostetako gaiak eskatu bezala; gero, aldia zela ezagutu zuelarik, lehenik hasi zen ederki higitzen lo pisu batetik itzuli balitz bezala, eta, burua goititurik, begiratu zuen hara eta hona zeuden guztiak harritu zituen molde batez.

Susako erret baratzeen ureztatzeko eta uraren ateratzeko ontzi estekatuak dituzten zirrika handi zenbaiten itzulikatze (Languedoc-en anitz ikusten diren bezalakoak), zerbitzatzan zuten idiei manatu izan zitzaaien bakoitzari ehun itzuli egunkal. Hain jarriak ziren zenbaki horretara non ezinezkoa baitzen inolako bortxaz ere itzuli bat gehiago eginaraztea; eta, beren saila eginik, gelditzen ziren bapatean. Gu gaztaroan gara ehuneraino zenbatzen jakin baino lehen, eta ediren berri ditugu zenbakien berririk ez duten herriak.

Adimen gehiago da besteri irakastea nor bera irakatsirik izatea baino. Beraz, bazterrean utzirik Demokritok uste eta frogatu zuena, antzerik gehienak ihiziek irakatsi dizkigutela: hala nola armiarmak ehuntzen eta josten, ainarek eraikitzen, zisneak eta erresinulak musika, eta ihizi anitzek, haien imitazioaz, sendakuntzaren egiten; Aristotelesek dio erresinulek kantatzen irakasten diela beren umeei, eta astia eta ardura darabiltza, nondik heldu baita kaiolan hazten ditugunek, beren gurasopeko eskolara joateko astirik ez baitute izan, beren soinuaren grazia asko galtzen dutela. Hortik uste dezakegu lantzeaz eta ikasketaz hobetze bat hartzen duela. Libreen artean berean ere, batere ez da berdinek, bakoitzak dagi bere ahalmenaren arabera; eta, haien ikaspenaren bekaitzez, elkar ahalara aritzen dira hain lehia sutsuaren grinan non, batzuetan, garaitua hilik baitago, arnasak huts eginik ahotsak baino lehen. Gazteenak ausnarrean dira, gogoetatiak, eta soinu errepikaren baten imitatzeari lotzen zaie; ikasleak badantzu bere irakaslearen ikasgaia eta arta handiarekin kontu bihurtzen dio; aditzen dira hutsen zuzentzen, eta somatzen irakaslearen gaitzespen zenbait. Ikusi dut (dio Arriok) behiala izter bakoitzean zinbalo bat zintzilik, eta beste bat bere sudur luzean zeukan elefante bat, haren soinuaren garaitiko guztiek dantzatzan baitzuten inguruan, neurkada zenbaitetan goratzen eta apaltzen, soinu tresnak gidatzen zituen arabera; eta atsegin zen harmonia horren entzutean. Erromako ikuskizunetan eskuarki ikusten ziren elefante heziak ahotsaren soinuaz mugitzeko eta dantzatzeko, estekatze eta mozte askotako dantzak eta hagitz neurkada ikasgaitz ezberdinak. Ikusi dira, beren bakartasunean, ikasgaia beren buruari oroitarazten, landuz eta ikasiz aritzen, beren nagusiek gaitzetsiak eta joak ez gertatzeko.

Baina mikaren beste historia hau, Plutarko bera baitugu lekuko, arraroa da. Bizargin baten dendan zegoen Erroman, eta miresgarriak egiten zituen ahotsaz itxuratzen entzuten zuen oro; egun batez, gertatu zen turuta zenbait gelditu ziren luzaz jotzen denda horren aurrean; geroztik eta biharamun osoaz, horra mika hori gogoetatia, mutu eta goibel, hartaz jende guztia harritua baitzen; uste zen turuten asotsak hala txunditu eta harritu zuela, eta entzumenarekin batean ahotsa ere iraungi zela; baina azkenean aurkitu zen ikerpen barren eta bere baitarako erretiratze bat zela, bere gogoa lantzen eta ahotsa prestatzen turuta horien soinuaren itxuratze; halako moldez, non bere lehen ahotsa hura baitzen, haien errepikatze, hutsarte eta ñabarduren adieraztekoa, ikaspen berri horrentzat utzirik eta gutietsirik lehen esaten zekien guztia.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi zakur baten beste eredu hau Plutarkok berak ikusi izan duela baitio (zeren, ordenari buruz, ohartzen bainaiz nahasten dudala, baina ez diot gehiago jarraitzen eredu hauen antolatzean neure garaitiko eginbehar osoan baino), itsasontzi batean zegoelarik: zakur hori, neketan izanik eltze batean zegoen olioaren erdiesteko mihiaz ez baitzuen heltzen ahal ontziaren aho hertsitik, harri koxkorren bila joan zen eta eltzean ezarri zituen harik eta olio a ertze ondora eraiki zuen arte, non eta har baitzezakeen. Hori, zer da, oso gogo zorrotz baten egitekoa ez bada? Berberriako erroiek gauza bera egiten omen dute, edan nahi duten ura beheregia denean.

Ekintza hori inola ere hurbila da elefanteei buruz haien herriko errege batek, Jubak, aipatzen zuenetik: ihiztatzen dutenen zorroztasunagatik, haietarik bat harrapatua aurkitzen denean prestatzen zaizkien hobi barren zenbaitetan, horbelaz estaltzen ohi baitira haien engainatzeko, haren lagunek lehian dakartzate harri eta egur puska anitz, horrek lagun dezan kanporatzeko. Baina animalia hori beste hainbat egitekotan hurbiltzen zaio giza jakintzari non, xeheki jarraiki nahi banio esperientziak irakatsi duenari, irabaziko bainuke eskuarki diodana: ezberdintasun gehiago aurkitzen dela halako gizonagandik halako gizonagana ezen ez halako ihizigandik halako gizonagana. Elefante baten zaindariak, Siriako etxe pribatu batean, bazka guztietan ebasten zion manatu izan zitzaion neurriaren erdia; egun batez nagusiak berak bazkatu nahi izan zuen, eta haren azpilean bota zuen bazkatzat manatu zion garagar neurri doa; elefanteak, gaizki begiratzuz zaindari hari, sudurluzearekin bereizi eta baztertu zuen erdia, horrela adieraziz egiten zitzaion kaltea. Eta beste bat, neurriaren emendatzeko bazkan harriak nahasten zituen zaindari bat edukiz, hurbildu zen hark bere bakarirako haragia egosten zuen eltzera eta autsez bete zion. Ondorio bereziak dira horiek; baina jendeek orok ikusi dutena eta jendeek orok dakitena da, ekialdeko herrian eraikitzen ziren armada guztietan indar handienetarik bat elefanteengan zetzala, haiengandik ateratzen baitziren, alderaketarik gabe, orain geure artilleriatik, gutiz goiti beheiti haien lekua baitauka gudu antolatu batean (historia zaharrak dakizkitenentzat epaitzeko erraza baita), egiten dugun baino ondorio handiagoak:

siquidem Tirio servire solebant

Annibali, et nostris ducibus, regique Molosso,

Horum majores, et dorso ferre cohortes,

Partem aliquem belli et euntem in praelia turrim 205.

Gogotik fidatu behar zatekeen ihizi horien sinesmen eta adimenaz, gudu baten zuzendaritza haiei utzirik, egin zuketena geldiketarik xehena, beren gorputzaren handigo eta pisutasunagatik, beren jendeen gainera burua itzularazi zien ikararik xehena, denaren galtzeko aski baitzen; eta beren gudalosteen gainera egozteko eredu gutiago ikusi da gertatzen, gu geure elkarretara egotzi eta geure burua desegin dugunekoak baino. Ez zitzairen mugimendu bakar baten kargua ematen, baizik eta guduko zati ezberdin askorena. Espainolek Indietako konkista berrian zakurrei egin bezala, soldata ordaintzen baitzieten eta mozkingean partzuergoa eman; eta animalia horiek hainbat trebetasun eta

adimena erakusten zuten beren garaipenaren jarraipen eta erdiestean, aldien arabera oldartzen eta gibelatzen, lagunak etsaietarik bereizten, sugartasun eta garraztasunaz egiten zuten bezala.

Gauza arrotzak hobeki miresten eta neurtzen ditugu arruntak baino; eta, hori gabe, ez nintzateke erregistro luze honetan geldituko: zeren, nire ustez, hurbiletik ikertuko lukeenak gure artean bizi diren animalien arrunki dakusaguna, edukiko bailuke herri eta mende arrotzetan bilduz goazen bezainbat egiteko miresgarri. Bere bidea dabilen natura bera da. Orainaldiko egoera doiki gogoetatuko lukeenak egiazki ondoria lezake hortik etorkizun eta iragan osoa²⁰⁶. Behiala ikusi ditut gure artean herri urrunduetarik itsasoz ekarri gizonak, haien mintzaira inondik ere ez baikenuen entelegatzen, eta, bestalde, haien modua, itxura eta jantziak guretarik osoki urrunduak baitziren, gutarik nork ez zeuzkan basa eta aberetzat? Nork ez zuen ergelkeria eta zozokeriatzat hartzen muturik ikustea, frantziar hizkuntza jakin gabetik, gure eskumuina eta agurkada bihurriak jakin gabetik: gure planta eta gure itxura, haien gainetik, hutsik gabe, giza izaerak bere moldea hartu behar baitu?

Arrotz iruditzen zaigun oro, kondentzen dugu, eta entelegatzen ez duguna: ihiziei buruz dagigun aburuan gertatzen zaigun bezala. Badituzte guretara hurbiltzen diren baldintza asko; haietarik, alderaketaz, ustezkatzeko zerbait atera dezakegu; baina bereizirik dutenetik, guk zer dakigu zer den? Zaldiek, zakurrek, idiek, ardiek, xoriek, eta gurekin bizi diren abererik gehienek dazagute gure ahotsa eta uzten dira hartaz zuzentzera; Krasoren itsasugeak egiten zuen ere, eta bazetorkion deitzen zuenean; eta Aretusako iturrian dauden aingirik egiten dute ere. Haztegitik aski ikusi ditut, arrainak, jateko, zaintzen dituztenen oihu zerbaiti baitoazkio;

nomen habent, et ad magistri

Vocem quisque sui venit citatus ²⁰⁷.

Hortik epai dezakegu. Halaber derrakegu elefanteek erlijioan ere partzuergo zerbait daukatela, ikusten baitzaie ikuzte eta garbitze askoren ondotik beren sudurluzea goratzen besoak bezala eta begiak tink edukirik ekialdera, luzaz egonik gogoetan eta behaketan eguneko ordu zenbaitez, beren aiherraz, irakaspenik ez manamendurik gabe. Baina, halako itxurarik beste ihiziengan ez ikusteagatik, ez dugu hala ere finkatzen ahal erlijiorik gabeak direnik, ez baitugu ezertzat hartzen ahal gorderik zaiguna. Kleantes filosofoak nabaritu zuen ekintza honetan guk zerbait ikusten dugun bezala, zeren gureen antza baitu: "Ikusi zuen, dio, beren xinaurritegitik abiatu ziren xinaurriak beste xinaurri hil baten gorputza beste xinaurritegi baten aldera zeramatelarik, handik beste xinaurri asko baitzetozkien aurrera, haiei mintzatzeko bezala; eta, elkarrekin egon ondoren aldi batez, hauek itzuli ziren erabakitzeke, uste duzu, beren hirikideekin, eta horrela egin zituzten bizpahiru bidaia akordioaren zailtasunagatik; hondarrean, azken etorriek lehendabizikoei ekarri zieten beren zulotik har bat, hilaren ordain moduan, har hura lehendabizikoek bizkarrean hartu baitzuten eta beren baitara eraman, besteei utzirik zenduaren gorputza." Horra Kleantesek eman itzulpena, lekukotasuna emanez hortik ahotsik ez dutenak ez dira horregatik elkar harremanez gabetuak, handik parte hartzaileak ez bagara geure akatsa baita; eta horretaz zozoki sartzen gara ustezkatzera.

Bada, beste ondorioak egiten dituzte gure ahalmena urrundik ere gairatzen dutenak, imitazioaz ere hainbat falta baitzaigu heltzeko non, irudimenaz ere, ezin baititugu gogoan hartzen ahal. Anitzek diote Augustoren aurka Antoniok galdu zuen azken itsasgudu handi hartan, haren itsasontzi nagusia geldiarazia izan zela bere lasterraren erdian latinoek remora deritzoten arrain xumeak, datxikien itsasontzi-mota guztien geldiarazteko duen ahalmenagatik. Eta Kaligula enperadorea Romaniako kostaldean barrena itsasarmada handi batekin zebilela, bere itsasontzia bakarrik bapatean

geldiarazia izan zen arrain horrek, harraparazi baitzuen bere itsasontziko beheitiko aldean atxikia zegoen bezala, erabat gaitziturik hain ihizi xumeak indarka batzitzakeen itsasoa, haizeak eta bere arraun guztien bortiztasuna, soilik mokoaz itsasontziari atxikia izateagatik (arrain maskorduna baita); eta areago harritu zen, ez arrazoirik gabe, zeren, itsasontzian erakarri izan zitzaiolarik, ez baitzuen gehiago kanpoan zeukan indar hura.

Zisikako hiritar batek behiala erdietsi zuen matematiko onaren omena sagarroien izaeratik ikasteagatik, horrek baitu bere zuloa leku eta haize ezberdinen aldera irekirik eta, etortzeko den haizea aztiatuz, baitoa haize horren aldeko zuloaren estaltzera; hiritar hark hori nabariturik, hirian aipatu baitzituen jotzeko zen haizearen aztiatze zenbait. Kamalehoiak hartzen du jarri den lekuaren kolorea; baina olagarroak bere buruari demaio nahi duen kolorea, aldien arabera, beldur denarengandik gordetzeko eta bilatzen duenaren atzemateko; kamalehoiaren baitan jasanezko aldakuntza da; baina olagarroaren baitan ekinezko aldakuntza da. Guk badauzkagu kolore aldakuntza zenbait beldurrez, haserrez, ahalkez, eta geure aurpegiaren larrantza ganbiatzen duten beste pasionez, baina jasankortasunaren ondorioz dira, kamalehoiaren baitan bezala; horiduran²⁰⁸ datza gure horiztatzeko, baina ez gure nahikundearen manamenduan. Beraz, beste ihiziengan ezagutzen ditugun ondorio horiek, geureak baino handiagoak, adierazten dute haien baitan gorderik zaigun ahalmen bikain bat, irudikagarri den bezala guri batere itxurarik ematen ez diguten baldintza eta ahalmen anitz direla.

Iragan aroko aztiatze guztietan, zahar eta egiazkoenak ziren xorien hegaldatzeetarik ateratzen zirenak. Guk deus ere ez dugu berdinik eta hain miresgarriarik. Haien hegaleen abioaren arau eta orden hori, etorkizuneko gauzen berri ateratzen baitira, bide bikain batek eramana izan behar da hain ekintza gora hartara; zeren, itzulpena bihurdikatu nahi izatea baita ondorio handi hori araubide natural zerbaiti ematea, eragiten dionaren adimenik, xedetasunik eta arrazoibiderik gabe; eta, ageri dena, uste faltsua baita. Hala dela: ikarak²⁰⁹ badu ahalmen hori, ez bakarrik ukitzen duten soinadarren lokartzekoa, baizik eta sareko harietan gaindi bidaltzen du pisutasun lokartu bat diharduten eta darabiltzen eskuetara; eta areago ere, badiote ura botatzen bazaio gainerik, somatzen dela maldaz goiti igaiten den jasaite hori eskuraino eta lokartzen duela ukimena uretan barrena. Indar hori miresgarria da, baina ikarari ez zaio ezteusa; somatzen du eta baliatzen da halako moldez non, biltzen duen harrapagaiaren atzemateko, ikusten da estaltzen dela lohi azpian, gainerik iragaiten diren beste arrainak, bere hoztasun horrek joak eta lokartuak, bere ahalmenera eror daitezten. Lertxunek, ainarek eta beste xori bidaiariak, egoitzaz aldatuz urteko sasoi arabera, aski darakusate beren ahalmen aztiatzaileaz duten ezagutza eta badarabilte. Ihiztariek segurtatzen digute zakurkume andana batetik hoberena bezala gorde behar denaren bereizteko, ama berak hautatzeko hertsaldian ezartzeaz baizik ez dela egin behar; hala nola, beren zokotik landara eramaten badira, hark hartuko duen lehena beti hoberena izanen da; edo, haren zoko alde orotarik suz inguratze irudi egiten bada, laguntzera joanen den bere zakurkumetarik lehenarengana. Nondik eta baitager guk ez daukagun aztiatzearen baliatze bat daukatela, edo bere umeez epaitzeko bertuteren bat dutela, gure baino biziagoa eta ezberdina.

Ihizien jaiotzeko, sortzeko, hazteko, egiteko, ibiltzeko, bizitzeko eta hiltzeko modua guretik hain hurbila izanik, haien kausa eragingarrietarik moztan digun oro eta geure izaerari haienaren gainerik gehitzen dioguna, hori ez da inola ere abiatzen ahal geure arrazoiaren adimenetik. Gure osasunaren antolabiderako, sendagileek eskaintzen digute ihizien bizi eta moduaren eredu; zeren solas hori betidanik baita jendearen ahoan:

Atxik bero zango ta buruan

Bizi bestela ihizi moduan.

Sorkundea gure jitezko ekintza nagusia da: badugu horretarako egokiagoa zaigun soinadarren antolabide zerbait; hala ere, haiek manatzen digute jarririk eta ihizien modura ezar gaitezen, eragingarriagoa bezala,
more ferarum

Quadrupedumque magis ritu, plerumque putantur

Concipere uxores; quia sic loca sumere possunt,

Pectoribus positis, sublatis semina lumbis 210.

Eta kaltegarri bezala ezezkutzen dituzte emaztekiek beren kabuz nahasi dituzten higidura neurgabe eta ozarrak, beren sexuko ihizien eredu eta aztura apal eta zuhurragoetara eramanez:

Nam mulier prohibet se concipere atque repugnat,

Clunibus ipsa viri venerem si læta retractet,

Atque exossato ciet omni pectore fluctus.

Ejicit enim sulci recta regione viaque

Vomerem, atque locis avertit seminis ictum 211.

Nori berea bada zuzenbidea, beren ongileak zerbitzatzen, maitatzen eta defendatzen dituzten ihiziek, eta arrotzei eta ofendatzen dituztenei jarraikitzen eta jazartzen dietenek, horretan itxuratzen dute gure zuzenbidearen irudi zerbait, eta halaber, beren ontasunen umeei banatzean, berdintasun hagitz zuzen baten gordetzen. Adiskidantzari dagokionez, badute, alderaketarik gabe, gizonak duten baino bizi eta iraunkorragorik. Hirkano, Lisimako erregeren zakurra, bere nagusia hilik, temati egon zen haren ohe azpian edan eta jan nahi izan gabe; eta gorputza erre zen egunean, lasterra hartu eta sutara egotzi zen, errerik izan baitzen. Pirro delako baten zakurrak egin zuen bezala, zeren ez baitzen haren nagusiaren ohe azpitik ilki hura hil zenez geroztik; eta, eraman zenean, utzi zuen harekin batean eramatera, eta azkenean egotzi zen bere nagusia erre zen sutara. Badira gure baitan arrazoiazen aholkurik gabe sortzen diren maitasunezko aiher zenbait, besteek simpatia deritzoten menturazko ausartzia batetik datozenak: ihiziak haien gaiak dira gu bezala. Badakuskigu zalduak atxikimendu zerbaiten elkarri hartzen, bereizirik bizi edo bidaiarazteko neketan ezartzerainokoan; ikusten dira haien maitasuna paratzen beren lagunak ilaje batean, aurpegi batean bezala eta, aurkitzen dutenean, berehala elkartzen besta eta alaitasunezko keinuekin, eta beste molde zerbait, aldiz, hartzen dute gogoz gairi eta gorrotoz. Ihiziek hautabidea dute beren amodioetan eta beren emeengandik badagite bereizte zerbait. Ez dira gure jeloskeriez ez eta ezinagoko bekaitz elkartezinez gabetuak.

Nahikundeak edo naturalak eta beharrezkoak dira, hala nola edatea eta jatea; edo naturalak eta beharrik gabeak, hala nola emeekiko harremana; edo ez dira naturalak ez beharrezkoak ere; azken mota honetakoak dira gizonaren gutiz gehienak; oro baitira azalezkoak eta ordeizunak. Zeren miraria baita zein guti behar duen naturak askiesteko, zein guti utzi digun eskas. Gure sukaldeetako antolabideak ez dira haren araudian sartzen. Estoikoek baziote gizon batek ukanen lukeela bere buruaren mantenurako oliba batekin egunkal. Gure ardoen finezia ez da haren ikasgaikoa, ez amodiozko aiherrei gehitzen diegun errezama, neque illa

Magno prognatum deposcit consule cunnum 212.

Nahikunde arrotz horiek, ongiaren jakinezak eta uste faltsu batek gure baitara isuri dituenak, hain ugari dira non kanporatzen baitituzte kasik natural guztiak; hain zuzen ere, hiri batean hainbeste arrotz balira bezala non kanporatuko bailituzkete hango biztanleak edo iraungiko bailukete haien manu-indarra eta ahalmen zaharra, osoki ebatsiz eta hartaz jabetuz. Ihiziak gu garen baino anitzez ere arautuagoak dira, eta neurtasun gehiagorekin badiraute naturak ezarri digun mugapean; baina ez hain zehazki

non ez dezaten gure galbidearen antzekotasun zerbait. Eta hala nola gizonak ihizien maitasunara bulkatu dituzten aiher zoroak aurkitu diren bezala, haiek ere aurkitzen dira inoiz ere gure maitasunak joak eta hartzen dituzte espezie batengandik besteganako maitakeria hastigarriak. Aristofanes gramatikoaren elefantea lekuko, Alexandriako dendaria gazte batez maitemindurik, ez baitzuen jarraitun apasionatu baten eginkizunik batere egin gabe uzten; zeren fruituak saltzen ziren merkatuan barrena ibilki, sudurluzearekin hartzen baitzizkioten eta eramane; ez zuen ikusmenetik galtzen ahal zuen bezain gutitan, eta golkoan sartzen zion sudurluzea lepoko azpian eta ditiak ukitzen zizkion. Badiote ere neska batez maitemindu dragoi batez, eta Asopeko hirian haur baten amodioak hartu antzara batez, eta Glauzia musikariaren ahari zerbitzari batez; eta egunero ikusten dira makakoak emakumeen amodioak zoroki joak. Ikusten dira ere ihizi zenbait beren sexuko arren amodioari ematen; Opiatok eta besteek eredu zenbait kontatzen dituzte ihiziek beren ezkontzetan duten ahaidegoari buruzko begirunearen erakusteko, baina esperientziak aski maiz erakusten digu kontrarioa, nec habetur turpe juvenca

Ferre patrem tergo; fit equo sua filia conjux;

Quasque creavit init pecudes caper; ipsaque cujus

Semine concepta est, ex illo concipit ales ²¹³.

Maltzurreria bihurria, Tales filosofoaren mandoarena baino ageriagorik ote da? Gatzez zamaturik erreka baten iragaitearekin, menturaz behaztopaturik eta zeramatzan zaku guztiak bustirik, horrela urtu gatzak zama arinago bilakatu ziola oharturik, ez zuen hutsik egiten, erreka baten aurkitzen duen aldiro, barrena urperatsetik bere zamarekin; harik eta nagusiak, haren maltzurreriari ohartu, artilez zama zezaten manatu zuen arte, mutur huts gertaturik, finezia hori ez zuen gehiago egin. Badira anitz gure zikoizkeriaren begitarteak xaloki itxuratzen dutenak, zeren ikusten baitzaie ahal duten guztiaren harrapatzeko eta kontuz gordetzeko ezinagoko ardura bat, haietaz batere erabilerarik ez badute ere.

Aurrezkitzeari dagokionez, gaintitzen gaituzte ez soilik etorkizunerako metatzeko eta begiratzeko aitzinikuste horretan, baina oraino ere badituzte horretarako behar den jakintzaren zati anitz. Xinaurriek beren bihi eta haziak aire zabalean hedatzen dituzte haizatzeko, hozteko eta idortzeko, ikusten dutelarik urdintzen eta minkerki usaintzen hasten direla, ustel eta gal daitezen beldurrez. Baina gari bihiaren kurruskatzeko darabilten arreta eta aurrikusmenak giza zuhertasunaren irudimen oro gaintitzen du. Zeren gariak ez baitirau beti idorrik ez osorik, berazten, urtzen eta biguntzen da esnetan bezala, hozitzerako eta sortzerako bidean ezartzen da: hazi bilaka dadin beldurrez eta haien hazkurirako horniduragaiaren izaera gal dezan, hodia sortzen ohi den muturra kurruskatzen dute.

Gerrari buruz, giza ekintzetan handien eta harroena baita, gogotik jakin nahi nuke lehentasun zerbaiten bereizkuntza bezala baliatu nahi dugun edo, aitzitik, geure ergelkeria eta eskasgoaren lekukotasuna bezala; egiazki gure elkarren zehakatzeko eta hiltzeko jakintzak badirudi ez duela bere burua zertaz desiragarri egitea halakorik ez duten ihizientzat:

quando leoni

Fortior eripuit vitam leo? quo nemore unquam

Expiravit aper majoris dentibus apri? ²¹⁴

Baina ez dira hala ere osoki gabetuak, erleen gudu bortitzak lekuko eta bi armada kontrarioen buruzagien indarkatzeak:

sæpe duobus

Regibus incessit magono discordia motu,

Continuoque animos vulgi et trepidantia bello

Corda licet longe præsciscere 215.

Ez dut sekula ikusten jainkozko deskribapen hori iruditu gabe giza ergel eta hutsalkeria margotua irakurtzen dudala. Zeren beren lazkeria eta izialduraz zoraten gaituzten guda boladaldi horiek, asots eta oihu erauntsi hori,

Fulgor ibi ad cœlum se tollit, totaque circum

Ære renidescit tellus, subterque virum vi

Excitur pedibus sonitus, clamoreque montes

Icti rejectant voces ad sidera mundi 216;

hainbat mila gizonen antolatze beldurgarri hura, hainbeste gaitz, sutze eta kuraia, irrigarri da gogoan hartzean zein bide hutsalek eraginik izan den eta zein bide hutsalez iraungirik:

Paridis propter narratur amorem

Græcia Barbariæ diro collisa duello 217:

Asia osoa galdu eta akitu zen gerretan Parisen lizunkeriagatik. Gizon bakar baten bekaitza, gaitzaldi bat, atsegin bat, etxe barreneko jeloskeria bat, bi sardina-saltzaile arramaskatzera eraman behar ez zituzten kausak nahasmendu handi horren guztiaren arima eta eragingarria dira. Sinetsi nahi ditugu horien egile eta eragile direnak berak? entzun dezagun enperadorerik handien, garaileen eta sekula izan zen ahaldunena, burlatzen eta irri egiten, biziki atseginez eta oso argiki, itsasoz eta leihorrez menturatu gudu askoz, bere zoriari zerraioten bosteun mila gizonen odol eta biziaz, eta bere eginkizunen zerbitzurako munduko bi zatietako indar eta aberastasun akituez,

Quod futuit Glaphyran Antonius, hanc mihi pœnam

Fulvia constituit, se quoque uti futuam.

Fulviam ego ut futuam? Quid, si me Manius oret

Pœdicem, faciam? Non puto, si sapiam.

Aut futue, aut pugnemus, ait. Quid, si mihi vita

Charior est ipsa mentula? Signa canant 218.

(Gogozko libertatean darabilt neure latina, zuhaurek eman zenidan baimenaz²¹⁹) Beraz, gorputz larri hau, hainbateko begitarte eta higiduraz, zerua eta lura mehatxatzen dituela irudi:

Quam multi Lybico volvuntur marmore fluctus

Sævus ubi Orion hybernis conditur undis,

Vel cum sole novo densæ torrentur aristæ,

Aut Hermi campo, aut Lyciæ flaventibus arvis,

Scuta sonant, pulsuque pedum tremit excita tellus 220;

horrenbat beso eta horrenbat besotako mamurro gaitz hau, gizon ahul, zorigaitzeko eta esteiari da beti. Xinaurritegi harrotu eta berotu batez baizik ez da,

It nigrum campis agmen 221.

Haize bolada kontrario bat, bele andana baten beleotsa, zaldi baten behaztopatzea, arrano baten zorizko iragaitea, amets bat, ahots bat, ezaugarri bat, goizeko laino bat, aski dira nahasteko eta lurretik egozteko. Emaiozu soilik eguzki izpi bat begitartean, horra nahasirik eta aldixarturik; haiza bekio soilik errauts apur bat begi aitzinean, gure poetaren erleei bezala, horra gure ikur-oihal, gure gudaloste guztiak eta Ponpeio handia bera haien buruan, hautsirik eta apurturik: hura baitzen, uste dut, Espainian arma eder horiekin Sertoriok garaitu zuena, besteei ere balio baitiete, hala nola Eumenesi Antigonoren aurka eta Surenari Krasoren aurka:

Hi motus animorum atque hæc certamina tanta

Pulveris exigui jactu compressa quiescent 222

Bereiz dakizkion gure erleak gibeletik, berauek ukanen dute ezabatzeko indarririk eta kuraiarik. Orain berriki, portugaldarrek Tamly hiria setiaturik Xiatimako eskualdean, hangotarrek harresira eraman zuten erletegi andana handi bat, horretaz aberatsak baitira. Eta, su hutsez, hain biziki egotzi zituzten erleak etsaien gainera, non ihesean ezarri baitzituzten, haien oldarpen eta ziztaldiak ezin jasanez. Horrela gelditu zen garaipena eta beren hiriko libertatea laguntza berri horren bidez, halako zoriz, non gudutik itzultzearekin ez baitzen batere esatekorik.

Enperadore eta zapatagileen arimak molde berean eginak dira. Printzeen ekintzeen eragina eta pisua gogoan hartuz, sinesten dugu ekarriak izan direla haiek bezainbateko eragin eta pisuko bideek. Engainatzen gara: eramanak eta erabiliak ohi dira beren mugimenduetan guk geurenetan garen maratilek beraiek. Auzokide batekin liskartzera garamatzan arrazoiak berak eraikitzen du printzeen artean gerra bat; nerabe baten zehatzera garamatzan arrazoiak berak, errege baten baitan gertaturik, herrialde baten hondatzera darama. Guk bezain arinki nahi dute, baina gehiago dezakete. Nahikunde berdinek darabilte zorri bat eta elefante bat.

Fideltasunari dagokionez, ez dago munduan ihizi traidorerik gizonaren ondoan; gure historiek aipatzen dute zakur zenbaitek egin duten beren nagusien heriotzari jarraipen bizia. Pirro erregek, gizon hil bat zaintzen zuen zakur bat aurkiturik, eta aditurik hiru egun zuela lan hori egiten zuenetik, manatu zuen ehorts zedin gorputz hori, eta berarekin zeraman zakurra. Haren armadaren erakustaldi orokorretan zegoen egun batez, zakur hori, bere nagusiaren hiltzaileak ikusirik, gainera joan zitzaien zaunga handiz eta herra garratzez, eta ezaugarri horretaz bideratu zuen hilketa haren mendekua, aski laster egin baitzen zuzenbidearen eskutik. Beste hainbeste egin zuen Hesiodo zuhurraren zakurrak, bere nagusiaren baitan egin hilketagatik Ganistor Naupatiarraren semeak salaturik. Beste zakur bat, tenplo baten zainketan egonik Atenasen, bitxirik ederrenak zeramatzen ebasle sakrilego bat ikusirik, haren kontra hasi zen zaungaka ahal bezainbat; baina, tenplozainak ez baitziren horregatik iratzarri, haren jazarpenari lotu zitzaion eta, egunaren etortzearekin, harengandik urrunduago egon zen, ikusmenetik sekula galdu gabe. Jatera eskaintzen bazion, ez zuen nahi; eta bidean aurkitzen zituen iragaileak buztanaz keinatzen zituen eta eskuetarik hartu jateko ematen ziotena; bere ebaslea lo egiteko gelditzen bazen, hura ere leku berean gelditzen zen. Zakur horren berria heldurik tenplozainengana, haren hatzari jarraikitza eman ziren, galdeginek zakurraren ilajeari buruz, eta azkenean ediren zuten Kromion hirian, eta ebaslea ere bai, Atenasera baitzeramaten, non eta zigortua izan baitzen. Eta epaileek, lan eder horren eskerronez, ondasun publikotik manatu zuten halako gari neurria zakurraren bazkatzeko, eta apezei haren zainketa. Plutarkok historia honen lekukotasuna dakar bere mendeko gauza osoki egiaztatu eta ezaguna bezala.

Eskertasunari buruz (zeren uste baitut hitz hau omenean ezarri behar dugula), eredu bakar hau aski izanen da, Apionek aipatzen baitu bera ikusle bezala egonik. Erroman ihizi arrotz askoren borrokaren atsegina jendeari ematen zitzaion egun batez, dio, eta bereziki ohiz gaindiko handitasuneko lehoienak, bazen bat besteen artean, bere planta bortitza, bere gorputzadarren indar eta loditasuna eta orro gora eta izigarri batengatik, jende guztiaren ikusmena bere baitara zekarrena. Ihizi borroka horretan jendeari aurkeztu zitzaizkion beste esklabuen artean, bazen Androdo bat, Daziakoa, kontsulegoko maila zeukan jaun erromatar batena baitzen. Lehoi hori, urrundik oharturik, lehenik gelditu zen bapatean, miresmenaz balitz bezala, eta gero hurbildu zitzaion ezteki, molde gozo eta pausatu batez, haren ezagutza egin nahi balu bezala. Hori eginik eta bilatzen zuenaz segurtaturik, buztana zartatzen hasi zen beren nagusia lausengatzen duten zakurren antzera, eta gaizo esteiari ikaratu eta bere baitarik erauzirik zen haren eskuak eta izterrak musuka eta milikaka. Androdo berbaitaturik lehoi haren

ontasunagatik, eta bere ikusmena segurtaturik haren behatzeko eta ezagutzeko, atsegin berezia zen elkarri egiten zizkieten bereka eta bestakatzeen ikustea. Horregatik jendeak alaitasunezko oihuak eginik, enperadoreak deiarazi zuen esklabua harengandik entzuteko hain gertakari bitxiaren bidea. Historia berri eta miresgarri hau aipatu zion:

"Neure nagusia, zioen, Afrikan prokontsula izanik, beharturik izan nintzen, neure aldera zeukan lazkeria eta larderiagatik, egunero zanparazi baininduen, harengandik lekutzeraz eta ihes egitera. Eta, herrialdean hainbat manu-indar zeukan pertsonaia batengandik segurki gordetzeko, neuretzat errazena aurkitu nuen herri hartako basamortu eta legartegi biziezinezkoetara joatea, erabakirik, neure buruaren hazteko modua huts egin balekit, neure buruaren hiltzeko bide baten bilatzera. Eguzkia ezinagoko garratza izanik eguerdian, eta beroa jasanezina, leize gorde eta helezin bateraino iganik, barrenera egotzi nintzen. Handik oso labur agertu zen lehoi hau, hanka bat odoletan eta zauriturik zuelarik, dena kexu eta intziri pairatzen zituen minengatik. Haren heltzearekin, beldur handia izan nuen, baina hark nire ikustean bere bizitokiko zoko batean altxaturik, oso eztiki hurbildu zitzaidan, haren hanka zauritua aurkeztuz, eta erakutsiz laguntza eske bezala; kendu nion orduan zeukan ezpal handi bat, eta apur bat harenganaturik, zauria hertsatuz, aterarazi nuen egiten zitzaion hiroa, idortu eta garbitu ahal nuen bezain egoki; hura, bere gaitzetik arindua eta minetik libratua sentiturik, pausatu eta lokartu zen, beti nire eskuartean haren hanka zeukala. Handik aitzina, elkarrekin bizi ginen hura eta biok leize hartan, hiru urte osoz, haragi beraietaz; zeren haren ihizian hiltzen zituen basapiztietatik puskarik hoberenak ekartzen baitzizkidan, surik ezean eguzkitan egosten nituenak, eta haietaz bazkatu. Luzeran, bizimodu zakar eta basa hartaz asperturik, lehoi hori bere eguneroko bila joanik, abiatu nintzen handik eta, hirugarren egunean, harrapatua izan nintzen Afrikatik hiri honetara beren nagusiaren baitara eraman ninduten soldaduek, hark bapatean hiltzera eta ihiziei utzirik izatera kondenatu baininduen. Beraz, dakusadanez, lehoi hau harrapatua izan zen handik labur, orain eskertu nahi izan baitit neuregandik ukan zuen ontasun eta sendabidea."

Horra Androdok enperadoreari aipatu historia, jendeari eskuz esku adierazi baitzion ere. Hargatik, denen eskariaz, libratua izan baitzen eta kondena hartarik barkatua, eta jendearen manuz lehoi haren emaitza egin zitzaion. Gero ikusten genuen, dio Apionek, Androdo lehoi hori zeramala soka motz batetik, Erroman ostatuetan barrena ibilki, ematen zitzaion diruaren hartzen, lehoiak egozten zitzaizkion loreez estaltzera uzten zuelarik, eta bakoitzak zioen aurkitzearekin: "Horra lehoia gizonaren arrotzaina, horra gizona lehoiaren sendagilea."

Maiz negar dagigu maite ditugun abereen galtzea, halaber dagite haiek gureaz,

Post, bellator equus, positis insignibus, Æthon

It lachrymans, guttisque humectat grandibus ora ²²³.

Nola gure herrietarik batzuek badiutze emakumeak partzuergoan, besteek bakoitzak berea; hori ez ote da ihizien artean ikusten? Eta gureak baino ezkontza hobeki gordeak? Beren artean erikitzen dituzten elkargo eta konfederakuntzari buruz, elkarrekin estekatzeko eta laguntzeko, ikusten dira idiak, zerriak eta beste animaliak, oldartzen duzunak dagien oihuarekin, saldo osoa heldu dela haren laguntzara eta biltzen dela haren defentsarako. Eskaroak²²⁴, arrantzalearen amua irentsi duelarik, haren lagunak meta batera biltzen dira inguruan eta haria kurruskatzen dute; eta, menturaz, haietarik bat sar baledi pertolean, besteek muturra zabaltzen dute kanpotik, eta hark auskitzen du ahal bezainbat; horrela ateratzen dute kanpora eta herrestatzen. Zarboek, lagunetarik bat gakotua delarik, haria bizkarraren kontra paratzen dute, eraikirik zerra bezala hozkatua duten arantz bat, hartaz ebakitzen eta mozten dutela.

Biziaren zerbitzurako bata bestegandik erdiesten ditugun ofizio bereziei dagokienez, eredu berdin asko ikusten dira haien artean. Badiote balea ez dabilela non ez duen bere

aurrean itsas oilarra bezalako arrain xume bat, horregatik gidaria deitzen dena; baleak darraio, eramatera eta itzultza uzten duelarik lemak itsasontzia itzularazten duen bezain errazki; eta, ordainez ere, mamurro horren ahoko kaos ikaragarrian sartzen den beste gauza oro, dadin ihizia ala ontzia ere, berehala galdurik eta irentsirik denean, arrain xume hori hara pausatzen da segurtasun osoz eta han berean lo dago, bitartean balea ihigitzen ez delarik; baina ateratzen den bezain laster, hura jarrikitzeari lotzen zaio; eta, menturaz, gal baleza, badoa hara hona noraezean, eta maiz harkaitzen kontra joz, lemarik ez duen ontzi bat bezala; Antizirako irlan Plutarkok ikusi duelako lekukotasuna baitakar.

Elkargo berdin bat bada txepetxa deitzen den xori xume eta krokodiloaren artean; txepetxak zelataritzat balio dio ihizi handiari; eta mangosta, horren etsaia, hurbil balekio oldartzera, xori xume hori, lokarturik hatzeman beldurrez, badoa kantari eta moko ukaldika iratzartzera eta haren galbideaz gaztigatzera; bizi da mamurro horren hondakinez, trebezia osoan hartzen baitu ahoan, eta uzten baitu matel hezurretan eta hortzen artean mokokatza, eta gelditu haragi hondarren biltza; eta ahoa hetsi nahi badu, gaztigatzen dio lehenik kanporatzeko, gutika gutika hertsatuz, tinkatu eta kalte egin gabe.

Nakar deitzen den maskorduna pinoteroarekin bizi da, karramarro bezalako animalia xume bat baita, giltzain eta atezaintzat balio baitio, erdi zabaldurik eta irekirik duen maskor horren zirritoan jarriarik, harik eta harrapagai den arrainttoren bat sartzen ikusi arte; orduan nakarraren barrena sartzen baita eta ziztakatuz doakio gihar bizian, maskorraren hestera bortxatuz; gero biek elkarrekin jaten dute beren gortorlekuan giltzatu harrapagaia.

Hegaluzeen bizi moduan nabaritzen da matematikaren hiru zatien jakintza berezi bat. Astrologiari dagokionez, gizonari irakasten diote; gelditzen baitira neguburuak²²⁵ atzeman dituen lekuan eta ez dira mugitzen ondoko neguazkena arte; horra zergatik Aristotelesekin berak gogotik ematen dien jakintza hori. Geometria eta aritmetikari buruz, beti moldatzen dute beren saldoa itxura kubiko batez, alde guztietarik karraturik, eta eraikitzen dute oste gotor, hetsi eta itzulialdi osoan sei alde berdinek inguraturik; gero igeri dabilta antolamendu karratu horretaz, ainetzik bezain zabal gibeletik, hainbat non erreldo bat ikusten eta zenbatzen duenak errazki zenbatzen ahal baitu oste osoa, barrentasunaren zenbakia zabaltasuna bezainbatekoa baita, eta zabaltasuna luzetasuna bezainbatekoa.

Gogo handigoari dagokionez, gaitz da Indietarik Alexandro erregeri igorri zakur handi haren ekintzarena baino aurpegi itxuragarriago baten ematea. Agertu zitzaion, lehenik, orein bat oldar zekion, gero basurde bat, eta gero hartz bat: ez zituen kontutan hartu eta ez zen bere lekutik higitza apaldu ere; baina, lehoi bat ikusi zuelarik, berehala jaiki zen bere zangoen gainetik, ageriki erakutsiz hura zela berarekin borrokatzeko gai bakarra.

Hutsen damu eta ezagutzari buruz, elefante batez aipatzen da, bere zaindaria hil baitzuen haserraldi batean, hain ezinagoko dolu bat hartu zuela non geroztik ez baitzuen sekula jan nahi, eta hiltza utzi zuen bere burua.

Barkakoitasunari dagokionez, tigre batez aipatzen da, ihizi guztietan basatiena baita, ahuntzume bat eskaini zitzaiolarik, bi egunez jasan zuela gosea oldartu nahi baino lehen, eta hirugarrenean hautsi zuela giltzapeturik zegoen kaiola, beste hazkurri baten bila joateko, ahuntzumea, bere lagun eta bizikidea, ez hatzeman nahiz.

Eta, solasaldiaren bidez eraikitzen diren laguntasun eta egokitasunaren eskubideei dagokienez, arrunki gertatzen zaigu gatu, zakur eta erbien elkarrekin haztea. Baina itsasoz, eta bereziki Siziliako itsasoan, dabilzanein alkioinen²²⁶ izaeraz esperientziak irakasten dienak giza gogoeta oro gaingitzen du. Jaiotza, sortzea eta erditzea, zein ihizi-

motarena ohoratu ditu hainbat naturak? Poetek baititote Deloseko irla bat, lehen ibiltaria zena, finkatua izan baitzen Latonaren erditzearen zerbitzurako; baina Jainkoak nahi izan du itsaso osoa gelditurik, finkaturik eta zelaiturik izan dadin, uhinik, haizerik eta euririk gabe, alkioinak bere umeak egiten dituen bitartean, doi neguburua inguruan baita, urteko egunik laburrenean; eta, haren bereizkuntzagatik, gizonek negu minean ditugu sei egun eta sei gau, itsasoz ibiltzen ahal baikara arriskurik gabe. Haien emeek ez dute arrik ezagutzen beraienaz baizik, bizi osoan laguntzen dute sekula utzi gabe; ahul eta hautsirik izatera gerta baledi, bizkar gainean hartzen dute, orotarik daramate eta hil arte zerbitzatu. Baina ezein jakintzarik ez da oraino heldu ahal alkioinak bere umeentzat moldatzen duen habiaren eraikuntza miresgarriaren ezagutzara, ez gaiaren asmatzera. Plutarkok, anitz ikusi eta eskuztatu baititu, uste du iratxikitzen eta, estekatuz, lotzen dituen arrain baten hezurak direla, batzuk luzara, besteak barrenara, bihurtuneak eta biribiltzeak gehituz, halako moldez non azkenean moldatzen baitu ontzi biribil bat itsasoz ibiltzeko prest; gero, eraikitzen bururatu duenean, itsas uhinaren joaldira darama, itsasoak, eztiki joz, erakusten baitu ongi estekaturik ez denaren birmoldatzeko, eta egitura, itsas ukaldiez, xehatzen eta laxatzen den guneen hobeki gotortzeko; eta, aitzitik, ongi estekatua dena, itsas joaldiak hertsatzen eta iratxikitzen dizu halako moldez non ez baita harri eta burdin ukaldika ere hausten, ez ezabatzen edo andeatzen ahal, neke handitan ez bada. Eta miresgarriago dena: barreneko hutsunearen arautze eta itxura da; zeren moldatu eta arautua izan baita halako modura non ez baitu hartzen ez onartzen ahal eraiki duen xoriaz baizik; beste gauza orori sartezin, hetsi eta zerraturik baitzaio, deus ere sar ez daitekeenaraino, ez eta itsas ura bera ere. Horra erikuntza horren deskribapen arras argi bat eta itur onetik mailegatua; hala ere iruditzen zait ez digula aski argitzen oraino ere arkitektura horren zailtasuna. Beraz, zein hutsalkeriatik datorkiguke imitatzen ez entelegatzen ahal ez ditugun eginkizunen gure azpian sailkatzeko eta gutigarriki itzultzeko?

Gure eta ihizien arteko berdintasun eta egokitze honi apur bat urrunago jarraikitzeke, gure gogoak arrandiatzen duen lehentasuna: gogoratzen duen ororen bere izaerara eramatekoa, datorkion orori nolakotasun hilkor eta gorputzekoez gabetzekoa, berekiko elkartzearen gai uste dituen gauzen antolatzekoa, haien izaera ustelkorrez gabetuz eta azalezko jantzi esteusak bezala loditasuna, luzetasuna, barrentasuna, pisua, kolorea, usaina, garraztasuna, leuntasuna, iraupena, biguntasuna eta zentzuzko gorabehera guztiak uztaraziz, bere izaera hilezin eta izpirituzkoari egokitzeke, gogoan ditudan Erroma eta Parisen moduan, irudikatzen dudan Paris, irudikatzen eta entelegatzen dut handigorik eta lekurik gabe, harririk, igeltsurik eta zurik gabe; lehentasun horrek berorrek, diot, badirudi ihizien baitan dagoela; zeren turutaldi, arkabuzaldi eta guduetara jarri den zaldi bat ikusten baitugu ikaran eta dardaran lotan delarik, gatazkan balitz bezala, egia da bere gogoan gogoratzen duela atabal soinu bat hotsik gabe, armarik eta gorputzarik gabeko armada bat:

Quippe videbis equos fortes, cum membra jacebunt

In sommis, sudare tamen, spirareque sæpe,

Et quasi de palma summas contendere vires ²²⁷.

Erbizakurrak ametsetan irudikatzen duen erbia, haren ondotik hatsangaka baitakusagu lotan, buztanaren luzatzen, iztertzairen inarrosten eta lasterraren mugimendu guztien itxuratzen, ilerik eta hezurrik gabeko erbia da.

Venantumque canes in molli sæpe quiete

Jactant crura tamen subito, vocesque repente

Mittunt, et crebras reducunt naribus auras,

Ut vestigia si teneant inventa ferarum.

Experge factique sequuntur inania sæpe

Cervorum simulachra, fugæ quasi dedita cernant:

Donec discussis redeant erroribus ad se 228.

Ametsetan kurrinka dakuskigun zakurtzainak, eta gero zaunga egiten bapatean eta iratzartzen, arrotz bat etorzen ikusi izan balute bezala; haien gogoak dakusan arrotz hori, izpirituzko gizon ohartezin bat da, neurkizunik, kolorerik eta izaterik gabe:

consueta domi catulorum blanda propago

Degere, sæpe levem ex oculis volucremque soporem

Discutere, et corpus de terra corripere instant,

Proinde quasi ignotas facies atque ora tueantur 229.

Gorputzaren edertasunari dagokionez, aitzina jarraiki baino lehen, jakin beharko nuke ados ote garen haren deskribapenean. Itxuragarria da ez dakigula deus handirik edertasuna zer den bai naturan eta orokorki, geure giza edertasunari hainbat molde ezberdin ematen dizkiegunez geroz: araubide natural zerbait balitz orok ezagutuko genuke, suaren beroa bezala. Moldeak irudikatzen ditugu geure arabera.

Turpis Romano Belgicus ore color 230.

Indiarrek edertasuna margotzen dute beltza eta beltzarana, ezpain lodiak eta hanpatuak, sudur idekia eta zabala. Eta urrezko eratzun pisuez zamakutzen dute sudurmintza ahoraino zintzilikarazteko; beheko ezpaina bezala, harri bitxiez aberastu uztai lodiez, kokotzaraino erortzen zaielarik; eta haien grazia da hortzen erakustea erro azpiraino. Perun, belarririk handienak ederrenak dira, eta antzez hedatzen dituzte ahal bezainbat: gaurko gizon batek dio ekialdeko herri batean ikusi duela belarren handitzeko eta pisuko bitxiez zamakatzeko modu hau hain omendurik, non iragan baitzezakeen bere beso jantzia belarri zulo batean barrena. Badira inon ere hortzak arta handiarekin belzten dituzten herririk, eta gaitzesgarritzat dute zurien ikustea; badira ere gorritz tindatzen dituztenak. Ez dira soilik Euskal Herrian ederresten emakume kalimurritzak, baizik eta beste leku askotan; eta, areago dena, eskualde hormatu zenbaitetan, Pliniok dioen bezala. Mexikarrek edertasunen artean kopetaren apurtasuna kontatzen dute eta, emakumeek garaitiko gorputz osoan biloa egiten duten bitartean, kopetan antzez hazten eta sortzen dute; eta ditien handitasunaz hain gomendio handitan daukate non arrandiatzen baitute beren hurrei bularra eman ahal izatea sorbaldaren gainetik. Guk itsuskeria itxuratuko genuke horrela. Italiarrek moldatzen dute lodi eta gizona, espainolek mehar eta bipildua; eta, gure artean, batak zuria dagi, besteak beltzarana; batak beratz eta mardoa, besteak azkar eta gotorra; nork minberatasun eta eztitasuna eskatzen baitu, nork burgoitasun eta gorentasuna. Edertasunean lehentasuna bezala, Platonek itxura esferikoari ematen baitio, epikuroarrek gehiago piramidal edo karratuari, eta ez dute biribil moduko jainko bat irensten ahal.

Baina, zernahi ere den, naturak ez gaitu horretan bereizi ere haren arau arrunten gainetik. Eta, ongi epaitzen badugu, aurkituko dugu gu baino ihiz desfavoratu zenbait baldin badira ere horretan, beste batzuk badira, ausarki, gu baino faboratuagorik, multis animalibus decore vincimur, gure herkide lurtarrak ere bai; zeren, itsastiarrei buruz (itxura utzirik, alderatzerik ez baita, hain besterik denez), kolore, argitasun, garbitasun, eta antolatzean, aski apalago gelditzen baikara; eta ez gutiago, nolakotasun orotan, airekoei buruz. Eta, zeruan jatorria ezarritik, gure zutitasun zuzenaz poetek goraipatzen duten lehentasuna,

Pronaque cum spectent animalia cætera terram,

Os homini sublime dedit, cœlumque videre

Jussit, et erectos ad sydera tollere vultus 232,

egiazki poetikoa da, bista arras bihurtua zeruari buruz duten ihiziño anitz diren ere; eta gamelu eta ostruken lepoa gurea baino gora eta zuzenagoa aurkitzen dut.

Zein ihizik ez du aurpegia gora, eta zeinek ez du aurrera, eta ez du guk bezala bekoz beko begiratzen, eta ez du bere jarreran zeru bezainbateko lur ikusten?

Eta gure gorputzezko antolamenduko zein nolakotasunek ez ahal du, Platon eta Zizeronen baitan, mila ihizi motarentzat balio?

Gure antzekoenak, saldo osoko itsusi eta higuingarrienak dira: zeren, kanpoko itxura eta bekokiaren moldeari buruz, makakoak baitira:

Simia quam similis, turpissima bestia, nobis! ²³³

barren eta bizi zatiei dagokienez, sendagileen arabera, zerria baita. Zinez, gizona irudikatzen dudanean biluz gorritan (are edertasunean parte gehiago duela dirudien sexu horretakoak), haren hutsak, jitezko azpikeria eta akatsak, uste dut beste edozein animaliak baino arrazoi gehiago dugula geure estaltzeko. Desenkusagarriak izan gara naturak gu baino gehiago faboratu dituengandik mailegatzeko, haien edertasunaz geure apaintzeko eta estaltzeko haien hondakinaren azpitik, artilea, luma, ilea, zeta.

Azpimarra dezagun, bide nabar, ihizi bakarra garelako bere lagunak berak ofendatzen dituen akatsa duena, eta geure eginkizun naturaletan geure espeziekoengandik gorde behar dugun bakarrak. Egiazki, gogoan hartzeko akats bat da, ofizioako adituek amodiozko pasionetarako erremediotzat manatzen dutela bilatzen den gorputzaren ikustamen oso eta libre; adiskidantzaren hozteko, maitatzen denaren ikusteaz baizik ez dela behar,

Ille quod obscænas in aperto corpore partes

Viderat, in cursu qui fuit, hæsit amor ²³⁴.

Eta, menturaz mozte hori aldarte apur bat minbera eta hoztu batetik abia badaiteke ere, gure eskasgoaren ezaugarri miresgarria da, erabiltzeak eta ezagutzak hastiatzen gaituela elkarrengandik. Ahalke baina gehiago antzea eta zeharritasuna da gure andereak hain hertsati bilakatzen dituen beren gaiterretako sarreraren guri debekatzeko, erakustaldi publikorako margotuak eta apainduak izan baino lehen,

Nec veneres nostros hoc fallit: quo magis ipsæ

Omnia summopere hos vitæ post scenia celant,

Quos retinere volunt adstrictoque esse in amore ²³⁵,

artean, ihizi anitzen baitan, ez da deus ere atsegin ez zaigunik eta gure zentzuei gogoko ez zaientik, halako molde non haien hondakinetarik beraietarik eta haien hustuketatik ere ateratzen baitugu ez soilik ahoxurikeriak, baina geure apaindura eta lurrinik aberatsenak.

Solasaldi hau ez dagokio gure antolaketa arruntari baizik, eta ez da hain sakrilegoa sartu nahi izateko gure artean noizbait gorputzezko eta lurrezko oihal baten azpian izarrak bezala distiratzeko ikusten diren jainkozko, naturagaindiko eta ohiz landako edertasunak. Bestalde, geure aitorenaz, ihiziei ematen diegun naturaren faboreen zatia hagitzen abantailatsua zaie. Geure buruari ematen dizkiogu irudikeriazko ontasun amestuak, etorkizuneko ontasun hutsak, giza ahalmenak bermatzen ahal ez dituenak, edo geure ustearen nahasmenetatik faltsuki eman ontasunak, hala nola arrazoia, jakintza eta ohorea; eta haiei partzuergoan uzten dizkiegu funtsezko ontasun eskuztagarri eta ukigarriak: bakea, atsedena, segurantz, hobengabetasuna eta osasuna; osasuna, diot, naturak egin diezagukeen emaitzarik eder eta aberatsena. Halako molde, non Heraklitok eta Ferezidesez, trukatu ahal izan balute osasunarekin beren zeharritia eta salmenta horren bidez libratu, bata hidropesiatik, bestea hertsatzen zuen gaitz zorridunetik, filosofia, estoikoa ere, ongi eginen luketela esatera ausartzen baita. Nondik eta balio are handiago bat ematen baitiote zeharritiari, osasunarekin kontrapisatzen eta alderatzen, halakorik ez baitute egiten haiena ere den proposamen honetan: badiote Zirtzek aurkeztu izan balizkio Ulisesi bi edabe, bata gizon baten bilakatzeko zorotik zehar, besteak zeharretik zoro, Ulisesek lehenago onartu beharko lukeela zorokeriarena,

Zirtzek bere giza itxura ihizi batenarekin trukatu lukeela onetsi baino; eta badiote zuhurtzia bera mintzatuko zitzaiokeela modu honetan: Nola? zuhurtzia handi eta jainkozko horri, filosofoak urruntzen zaizkio, beraz, ohal gorputzezko eta lurtiar honengatik? Ez da, beraz, arrazoiak, adimenak eta gogoak ihiziak gaingitzen ditugula; geure edertasunak da, geure larrumintzak eta geure soinadarren antolamendu ederrak, haren alde geure adimena, zuhurtzia eta garaitiko guztia utzi behar baitugu.

Onartzen dut, bada, aitormen xalo eta egiati hori. Zinez haiek ezagutu dute zati haiek, hainbat besta egiten baitugu, ameskeria hutsalak baizik ez direla. Ihiziek balute ere bertute, jakintza, zuhurtzia eta askiespen estoiko osoa, ihiziak lirarteke gero: ez litzaizkioke hala ere gizon esteiari, gaizto eta zoro bati alderagarriak. Azkenean, gu garen bezala ez dena ez da balio duen zerbait. Eta Jainkoak berak, bere buruari balio emateko, gure eitea izan behar du, sarri esanen dugun bezala. Nondik eta baitager ez dela egiazko adimenagatik, baina harrokeria zoro eta temati batengatik hobesten dugula geure burua beste ihiziak baino, eta haien baldintza eta lagungotik baztertzen garela.

Baina, nire solasbidera itzultzeko, geure alde dugu alderrazkeria, zalantza, ezbaia, dolua, sineskeria, etorkizuneko gauzen axola, geure biziaz haratagokoenak ere, handinahia, zekenkeria, jeloskeria, bekaitza, araurik gabeko nahikunde zoro eta hezigaitzak, gerra, gezurra, faltsukeria, azpikoikeria eta jakinnahia. Zinez, gogorki garesti ordaindu dugu arrandiatzen dugun adimen eder hori, eta epaitzeko eta ezagutzeko ahalmen hori, erosi badugu etengabe garabiltzaten pasione andana mugagabe honen saritan. Atsegin ez bazaigu arrandiatzea, Sokratesek bezala, garaitiko animalien gaineko lehentasun nabarmen hori: naturak manatu dizkienean aro eta muga zenbait nahikunde venustarrarentzat, guri brida laxo utzi digula ordu eta aldi orotan. "Ut vinum ægrotis, quia prodest raro, nocet sæpissime, melius est non adhibere omnino, quam, spe dubiæ salutis, in apertam perniciem incurrere: sic haud scio an melius fuerit humano generi motum istum celerem cogitationes, acumen, solertiam, quam rationem vocamus, quoniam pestifera sint multis, admodum paucis salutaria, non dari omnino, quam tam munifice et tam large dari 236."

Zertarako uste dezakegu balio ziela Varro eta Aristotelesi hainbat gauzaren jakintzak? Giza ezbeharrez gabetu ditu? Zamaketari bat hertsatzen duten gaitzez arinduak izan dira? logikatik hezurreriarako kontsolamendu zerbait atera dute? Hezabizi hori hezugiltzetan nola ohi dagoen jakiteagatik, gutiago jasan dute? Heriotzarekin antolatuta izan dira herri zenbait hartaz alaitzen direla jakiteagatik, eta adargintzarekin, eskualde zenbaitetan emakumeak partzuergoan direla jakiteagatik? Aitzitik, jakintzan lehen maila ukaiteagatik, batak erromatarren artean, besteak grekoen artean, eta zientzia gehien loreztatzen zen aroan, ez dugu hala ere jakin beren bizian bikaintasun berezirik eduki izan zutela; eta grekoak lanik aski badu akats nabarmen zenbaitez arintzeko berean.

Ediren ote da atsegina eta osasuna zapoetsuagoak zaizkiola astrologia eta gramatika dakizkienari?

Illiterati num minus nervi rigent 237?

Ahalkea eta beharra eramangarriagoak?

Scilicet et morbis et debilitate carebis,

Et luctum et curam effugies, et tempora vitæ

Longa tibi post hæc fato meliore dabuntur 238.

Neure aroan ikusi ditut mila eskulangile, mila laborari, unibertsitateko zuzendariak baino zuhur eta dohatsuagoak, eta haien antzekoa nahiago nuke izan. Jakintzak, uste dut, bizitzarako gauza beharrezkoen artean badu bere maila, ospe, noblezia, zuzentasunak bezala edo, gehienik jotzen, edertasun, aberastasun eta ageriki balio duten halako beste nolakotasunek, baina urrundik, eta apur bat ameskeriaz berez baino gehiago.

Gure gizartean ez dugu lertxu in eta xinaurriei berenean baino ofizio, arau eta bizi lege gehiagorik behar. Eta, alabaina, badakusagu arras zuhurki dabiltzala erudiziorik gabe. Gizona zuhurra balitz, gauza bakoitzaren balioa hartuko luke bere bizitzarako erabilgarri eta egokiena litzatekeen arabera.

Nork ere aipatuko baikaitu gure ekintza eta jokaeragatik, bikain andana handiago bat aurkituko du ezjakinen artean zuhurren artean baino: bertute mota orotan diot. Erroma zaharra iruditzen zait balore gehiagorekin jokatu zela, bakean eta gerran, bere burua hondatu zuen Erroma jakile hura baino. Hanbatik hanbatean, zintzotasuna eta errugabetasuna baleudeke zaharraren alde, soiltasunarekin bereziki ongi baitago.

Baina hitzaldi hau uzten dut, eramanen baininduke jarraiki nahi nukeen baino urrunago. Soilik esanen dut oraino hau: doi apaltasuna eta menpekotasuna direla oneko gizona egiten ahal dutenak. Ez zaio nor bakoitzaren adimenari utzi behar bere eginbeharraren ezagutza; manatu behar zaio, ez utzi bereiztera haren entelegoari; bestenaz, gure arrazoi eta usteen ergelkeria eta ezberdintasun mugagabearen arabera, moldatuko baikenituzke elkarren jatea manatuko liguketen eginbeharrak, Epikurok dioen bezala. Jainkoak gizonari eman zion lehen legea, obediencia hutsezko legea zen; manamendu huts eta soil bat zen, gizonak ezagutzeko ez mintzatzeko deus ere ez baitzuen; obeditzea gogo arrazoigarri baten ofizio nagusia baita, zeruko goragoko eta ongile bat ezagutuz. Obeditze eta amor ematetik sortzen da beste bertute oro, uste izatetik bekatu oro bezala. Eta, aitzitik, deabruaren partetik giza izaerari zetorkion lehen zirika, haren lehen pozoina, gure baitara lerratu zen egin zizkigun jakintza eta ezagutzaren agintzen bidez: Erictis sicut dii, scientes bonum et malum Itsas lamiek, Homeroren baitan, Ulisesen engainatzeko eta beren urmael perilos eta hondagarrietara erakartzeko, jakintza eskaini zioten emaitza bezala. Gizonaren izurria, jakiteko ustea da. Horra zergatik jakineza hain gomendaturik izan zaigun geure erlijioak, sinesmen eta obedienciazako zati beharrezkoa bezala. Cavete ne quis vos decipiat per philosophiam et inanes seductiones secundum elementa mundi

Honetan bada alderdi guztietako filosofo ororen arteko adostasun bat, onik gorena gogo eta gorputzaren lasaitasunean datzala. Baina non edireiten dugu?

Ad summum sapiens uno minor est Jove: dives,

Liber, honoratus, pulcher, rex denique regum;

Præcipue sanus, nisi cum pituita molesta est ²⁴¹.

Badirudi, zinez, naturak, gure egoera esteiari eta eskasaren arintzerako, ustekeriaz bazik ez digula eman. Epiktetok dioena da: gizonak deus ere ez duela bere, salbu eta bere usteen erabilera. Haize eta kerik besterik ez dugu partzuergoan. Jainkoek izatez badute osasuna, dio filosofiak, eta eritasuna adimenez; gizonak, aitzitik, bere ontasunak ditu ametsez, gaizkiak izatez. Arrazoiak izan dugu geure irudimenaren indarrez baliatzeko, zeren geure ontasun guztiak ametsetan baizik ez baitira. Entzun animalia gaizo eta ahul hau arrandiak: "Deus ere ez da, dio Zizeronek, letren ariketa baino eztiagorik, letra berorien bidez, diot nik, gauzen mugagabetasuna, naturaren handigo neurtezina, mundu honetan berean zeruak, eta lehiorrak eta itsasoak edireinik izan baitzaizkigu; haiek izan baitira erlijioa, neurtasuna, kuraiaren handitasuna irakatsi dizkigunak, eta gure gogoia ilunbetarik erauzi dutenak hainbeste gauza gora, apal, lehen, azken eta erdikoren erakusteko; haiek baitira zertaz ongi eta dohatsuki bizi hornitzen gaituenak, eta gidatzen gure aroaren ezatseginik eta laidorik gabe iragaiteko." Ez ote dirudi honek Jainko guztiz bizi eta guztiahaldunaren baldintzaz mintzo dela?

Eta, izateari dagokionez, mila ematxarrek bizi izan dute herrixketan harena izan zen baino bizi berdinean, gozo eta iraunkorrago bat.

Deus ille fuit, Deus, inclute Memmi,

Qui princeps vitæ rationem invenit eam, quæ

Nunc appellatur sapientia, quique per artem
Fluctibus e tantis vitam tantisque tenebris

In tam tranquilla et tam clara luce locavit ²⁴².

Horra hitz txit gora eta ederrak; baina ezbehar hagitz arin batek paratu zuen haren adimena²⁴³ artzainik xehenarena baino egoera makurragoan, jainko irakasle eta jainkozko jakintza hura eduki eta ere. Axolagabe berekoa da Demokritoren liburuko agintza honek: eta Aristotelesek ematen digun izenburu hau: “Jainko hilkorrez” eta Krisiporen aburu hau, Dion Jainkoa bezain bertutetsua zela. Eta nire Senekak ezagutzen du Jainkoak eman diola bizitza, baina berez daukala ongi bizitzea; beste honen antzera: In virtute vere gloriamur; quod non contingeret, si id domnum a deo, non a nobis haberemus Hau ere Senekarena da: zuhurak Jainkoak bezala daukala azkartasuna, baina giza ahulezian; gainditzen duela, beraz. Ez da halako ausarkeriaren aldarteen aurkitzea baino ezer arruntagorik. Ez da gure artean inor Jainkoarekin parekatzen ikustea laidotzat hartzen duenik, garaitiko animalien mailara apaltzeagatik dagien bezala: hain gara geure interesaren jelskorragoak geure sortzailearena baino.

Baina ostikatu behar da hutsalkeria zoro hori, eta biziki eta ausarki inarrosi uste faltsu horiek oinarritzen diren funts irrigarriak. Bere baitan bide eta indar zerbaiten ukatea uste izan artean, gizonak ez du sekula bere nagusiari zor diona ezagutuko; beti egingen ditu bere arraultzetarik oiloak, dioten bezala; ator has ezarri behar da.

Dakusagun haren filosofiaren ondorio nabarmen zerbait:

Posidoniok, hain eritasun mingarriak hertsatua egonik non besoa bihurrazten baitzion eta hortzak karraskarazten, uste zuen minaz burlatzen zela, haren kontra horrela oihukatzeagatik: Ene morroiaren pasioneak beraiek jasaten ditu, baina arrandiatzen da bere mihia bederen alderdiko legeen arabera indarkatzen duelako.

Re succumbere non oportebat verbis gloriantem ²⁴⁵.

Arkesilao hezurreriaz eria zen; Karneades haren ikustera joanik eta haserturik itzultzen zelarik, deitu zuen eta, zangoen eta bularraren erakustean, esan zion: “Ez duk ezer igan hortik hona” Honek badu grazia hobekixeago bat, zeren mina somatzen baitu eta nahi bailuke libre egon; baina hala ere bere bihotza ez da gaitz horrek apaldurik eta ahuldurik. Besteak badirau bere gotortasunean, hitzekoa gehiago izatezkoa baino, uste dut. Eta Dionisio Herakleote, begietako egosaldi bizi batek joa, hertsatua izan zen bere aburu estoikoen uztera.

Baina jakintzak egiazki egin baleza ere haiek diotena, gertatzen zaizkigun zorigaitzen garraztasunaren beraztea eta apaltzea, zer dagi jakinezak garbiki eta agerikiago dagienaz baizik? Pirron filosofoak, itsasoan erauntsi handi baten menturan gertatzen, ez zien berarekin zeudenei imitatzeko aurkezten erauntsi hura ikararik gabe ikusten zihoan zerri baten segurtasunik besterik. Filosofiak, bere arauen buruan, igortzen gaitu atleta eta mandazain baten erduetara, haiei eskuarki ikusten baitaie heriotza, min eta garaitiko ezbeharrekiko erredura gutiago, eta jakintzak, inoiz ere, sortu eta jitezko ohituraz berez prestatu den inori eman ez dion bermetasun gehiago. Zerk dagi haur baten soinadar mardoak errazkiago ziztatzen eta ebakitzen direla gureak baino, jakinezak ez bada? Eta zaldiren batenak? Zenbat eri bilakatu ditu irudimenaren indarrak? Ikusten ohi dugu odol eginaraztea, sabel hustaraztea eta sendagailuen hartzea, hitzetan baizik sentitzen ez dituzten gaitzen sendatzeko. Egiazko gaitzek huts egiten digutenean, jakintzak ematen dizkigu bereak. Kolore eta larrantza horrek buru-beheitiko jariatze bat dakarkizu; aro bero honek aldarte sukardun batekin mehatxatzen zaitu; zure ezker eskuko bizi marraren ebakidura honek gaitzizatzen dizu alditxartze nabarmen eta hurbil bat. Azkenean zuzen jotzen du osasunaren ebastera. Gaztaroko alaitasun eta azkartasun hori ez dagoke jarleku batean; ebatsi behar zaio odol eta indarra, zure buruaren aurka bihur beldurrez. Aldera bedi halako irudikerietara azpiraturik den gizon baten bizia bere nahikunde

naturalaren ondotik joatera uzten den laborari batenarekin, orainaldiko sentimenduaz gauzak neurtuz, jakintzarik ez ustekeriarik gabe, gaitzik ez baitu duenean baizik; artean, besteak maiz badauka harria gogoan giltzurrintan eduki baino lehen; aski tenorez ez balitz bezala minaren pairatzeko izanen delarik, aurreratzen du ameskeriaz, aitzinera doakio lasterka.

Sendagintzaz diodana, adibidez hedatzen ahal da jakintza orotara. Hortik heldu da onik gorena gure ustearen ahuleziaren ezagutzan ezartzen zuen filosofoen aburu zaharra. Neure jakinezak beldurgai bezainbat esperantzagai ematen dit, eta neure osasunaren beste araurik ez ukanik baizik eta besteren ereduak eta inguruan aldi berdinean dakuskidan gertakariak, mota guztietakoak aurkitzen ditut eta gelditzen naiz faboragarrienak zaizkidan alderaketetan. Osasuna hartzen dut besoak zabalik, libre, plegurik gabe eta osorik, eta neure nahikundea zorrozten dut hartaz gozatzeraz, are gehiago orain bakanago eta arraroagoa zaidanez geroz; aitzitik, ez dut haren pausa eta eztitasuna nahasi behar bizimodu berri eta bortxatu baten mingostasunaz. Ihiziek aski erakusten digute geure gogoaren nahasiak zenbat eritasun dakarkigun.

Brasildarrez aipatzen zaiguna, zaharreriaz baizik ez direla hiltzen, eta haien aroaren lasai eta eztitasunari ematen zaiola hori, nik gehiago ematen diot haien gogoaren lasai eta eztitasunari, grina, gogoeta eta ariketa lehiati edo ezatseginez gabeturik, soiltasun eta jakineza miresgarrian beren bizia iragaiten duten jendeak bezala, letrarik, legerik, erregerik eta ezein erlijiorik gabe.

Eta nondik heldu da, esperientziaz ikusten baita, zarpail eta zakarrenak gotor eta desiragarriagoak direla amodiozko ekintzetan, eta mandazain baten amodioa maiz onargarriagoa egiten dela gizon maitale batena baino, baizik eta honen baitan gogoaren uherdurak bere gorputzeko indarra nahasten, hausten eta laxatzen duelako?

Bere burua laxatzen eta nahasten ohi duen bezala. Zerk gezurtatzen du, zerk egozten du eskuarkiago zoromenera, bere lasterrak, bere zorrotzak, bere arinak, eta, azkenean, bere indarrak berak baizik? Zertaz egiten da zoromenik zorrotzena, zuhurtasunik zorrotzenaz baizik? Adiskidantza handietarik etsaigo handiak sortzen diren bezala; osasun sendoetarik, eritasun hilkorrek; horrela, gure gogoen uherdura arraro eta biziatarik, zorokeriarik bikain eta makurrenak; maratil itzulaldi erdi batez baizik ez da batetik bestera iragaiteko. Gizon eroen ekintzetan badakusagu zein egoki elkartzen den eromena gure gogoaren eginkizun azkarrenekin. Nork ez daki zein ohartezina den eromenaren eta gogo libre baten goratze ausarten eta bertute goien eta ohiz landako baten egitekoen arteko hurbiltasuna? Platonek dio malenkoniatsuak irakasgarri eta bikainagoak direla: halaber badute hainbat isurpen eromenera. Gogo anitz beren indar eta arintasunak berak hondaturik izaten dira. Zein jauzi egin berri du, bere uherdura eta alaitasunagatik, aspaldian poeta italiarren artean izan den zentzuzko, argitsu eta poesia zahar eta hutsaren aroan moldatuenetarik batek²⁴⁶? Ez ote du bere bizitasun hiltzaileari zeren erantzuki egin behar? Itsutu duen argitasunari? Arrazoirik gabe utzi duen arrazoiaren oharmen tinko eta zehatzari? zozokeriari eraman duen jakintzen bilketa ikusgura eta landuari? Lantzerik eta gogorik gabe utzi duen gogo lantzerako egokitasun arraro horri? Urrikari baino gehiago sumindura ukan nuen, Ferraran hain egoera penagarrian ikusiz, bere burua baino gehiago iraunez, bere burua eta ekintzak ezezagutuz, haiek, berak jakin gabe, eta halarik ere bere begien aitzinean, argitaratu izan baitira zuzendu eta moldatu gabe.

Nahi duzu gizon sendo bat, nahi duzu arauturik, jarrera berme eta seguruan? Ingura ezazu ilunbez, alferkeriaz eta dorpetasunaz. Zozotu behar gara zuhurtzeko, eta itsutu gidatzeko.

Eta, erantzuten bazait gaitz eta minetarako gustu hotz eta kamutsaren edukitzeko erraztasunak badakarrela bere ondotik ere, ondorioz, gure ongi eta atseginez gozatzeko

kamuts eta hotz bilakatzeko eragozpen hura, egia da; baina gure baldintzaren eskasgoak badakar gozatzeko ez dugula ihes egiteko dugun bezainbat, eta ezinagoko atseginak ez gaituela hunkitzen min arin batek bezala. Segnius homines bona quam mala sentiunt Ez dugu osasun osoa eritasunik xumeena bezainbat somatzen, pungit

In cute vix summa violatum plagula corpus,
Quando valere nihil quemquam movet. Hoc juvat unum,
Quod me non torquet latus aut pes: cætera quisquam
Vix queat aut sanum sese, aut sentire valentem 248.

Gure ongi izatea, gaizki izatearen gabetzeaz baizik ez da. Horra zergatik atsegina gehien goraipatu duen filosofiaren alderdiak soraiotasun soilean lerrokatu duen. Gizonak igurika dezakeen ongi izaterik goiena gaizkirik ez izatea da; Enniok zioen bezala:

Nimium boni est, cui nihil est mali 249.

Zeren, atsegin zenbaitetan aurkitzen den eta osasun hutsaz eta soraiotasunaz gainetik goratzen gaituela dirudien kilikatze eta zorrozte horrek, atsegin ihardukile, ibilkor eta, nola ere ez dakidala, egosgarri eta ausikitzaille horrek, horrek berorrek ez baitu soraiotasunera baizik jotzen bere helmuga bezala. Emakumeen atxikimendura zoroki garamatzen nahikundeak ez du bilatzen aiher sutsu eta gaitzak darkarkigun nekearen kanporatzeaz baizik, eta ez du eskatzen haren lokartzea eta pausan gelditzea sukar horren gabezia. Horrela ere bestee.

Badiot, beraz, baldin jakinezak bagaramatza gaizkirik ez izatera, hagitz zorioneko egoera batera garamatzala, gure baldintzaren arabera.

Eta ez da hain motela irudikatu behar, batere zaporerik gabea. Zeren Krantorek arrazoia baitzeukan Epikuroren soraiotasunaren gudukatzeko, hain barrena eraikitzen bazen non gaizkien ilortzea eta sortzea ez baitzen. Ez dut ahalgarri ez onuragarri ez den soraiotasun hori goresten. Pozik nago eria ez izateaz; baina, banendi, jakin nahi dut naizela; eta, erretzen edo ziztatzen bazait, somatu nahi dut. Zinez, gaizkiaren ezagutza erauziko lukeenak, iraungiko luke harekin batean atseginaren ezagutza, eta hondarrean gizona ezteusatuko luke: Istud nihil dolore, non sine magna mercede contingit immanitatis in animo, stuporis in corpore.

Gaizkia ongi zaio gizonari bere aldian. Mina ez zaio beti ihes egitekoa, ez eta atsegina beti jarraitzekoa.

Jakinezaren ohorearen abantaila handia da jakintzak berak haren besoetara egozten gaituela gaizkien pisutasunaren aurka gure gogortzeko eragotzirik aurkitzen denean; antolabide horretara etortzeko behartua da, bridaren uzteko eta baimenaren emateko haren magalean gordetzeko, eta haren estalpean zoriaren ukaldi eta laidoen gerizan ezartzeko. Zeren, zer esan nahi du besterik, predikatzen digularik datxizkigun gaitzetarik gure gogoetaren baztertze, eta atsegin galduez ihardukitzeko, eta orainaldiko gaitzen arintzeko iragan ongien oroimenaz baliatzeko, eta gure laguntzara alaitasun ezabatu baten deitza hertsatzen gaituenari aurka egiteko: levationes aegritudinum in avocatione a cogitanda molestia et revocatione ad contemplandas voluptates ponit? Non ez den, indarrrik ezean, amarruaz baliatu nahi duela, eta arinaldi eta zangarte bat egin, gorputzaren eta besoen indarrak huts egin dionean. Zeren, ez bakarrik filosofo bati, baina soilik gizon zentzudun bati, egitez somatzen duela sukar bero baten aldatze egosgarria, zer diru-mota da ardo grekoaren eztitasunaren oroimenaz ordaintzea? Haren egitekoaren makurragotzea litzateke,

Che ricordarsi il ben doppia la noia 252.

Baldintza berekoa da filosofiak ematen duen beste aholku hau, oroimenean soilik iragan zorionari atxikitzea, eta pairatu ditugun ezatseginen baztertzea, ahanzpenaren jakintza gure menpean bagenu bezala. Are gutiago baliatzen garen aholkua.

Suavis est laborum præteritorum memoria 253.

Nolaz, zoriari oldartzeko armak eskuetara paratu behar dizkidan filosofia, giza dohakabeen ororen ostikatzeko kuraia gogortu behar didana, itzulinguru herabe eta irrigarrien bidez untxi bat bezala nere itzurkiarazteko berazkeria horretara badator? Zeren oroimenak ez baitigu agertzen hautatzen duguna, baina nahi duena. Eta gure oroimenean zerbaiten ahanzteko nahiak baino bizikiago markatzen duen deusik ez da: gure gogoan zerbaiten gordetzeko eta iratxikitzekeko modu ona da gal dezan eskatzea. Eta hau gezurra da: Est situm nobis, ut et adversa quasi perpetua oblivione obruamus, et secunda jucunde et suaviter menerimus Eta hau egia: Memini etiam quae nolo, oblivisci non possum quae volo Eta norena da aholku hau? qui se unus sapientem profiteri sit ausus-rena da.

Qui genus humanum ingenio superavit, et omnes

Præstrinxit stellas, exortus uti ætherius sol 257.

Oroimenaren hustea eta gabetzea, ez ote da jakinezarako egiazko bide zuzena? Iners malorum remedium ignorantia est Badakuskigu halako aholku berdin anitz, haien bidez baimentzen baitzaizu jende xehearen itxura arinen hartzea, arrazoi bizi eta azkarrak aski ezin dezakenean, askiespen eta arintzerako balio digutenen ber. Zauria ezin senda dezaketenean, askiesten dute haren lokartzea eta arintzea. Uste dut ez lidaketela hau ukatuko: ahal balukete araubide eta iraupenaren gehitzea adimenezko ahulezia eta eritasun baten bidez atsegin eta lasaitasunean dagoen bizimodu bati, onartuko luketela: potare et spargere flores

Incipiam, patiarque vel inconsultus haberi 259.

Filosofo asko aurkituko lirateke Likasen ustekoak: hura, bestela bere ohiturak ongi arautuak edukirik, familiar ezteki eta lasai bizirik, etxekoen eta arrotzen aldeko eginbeharretan ezein ofiziori huts egin gabe, gauza kaltegarriei buruz bere burua ongi gorderik, bazatxikion gogoan, zentzuaren nahaste batengatik, ameskeria bati; uste baitzuen etengabe zegoela antzokietan emankizun, ikuskizun eta munduko antzezpenik hoberenen ikusten. Sendagileek sendatu izan zutelarik aldarte gaizto horretaz, gutitarik egin zuen ez baitzituen auzitan ezarri bere irudimenen ezintasunean birrantola dezaten, pol! me occidistis, amici,

Non servastis, ait, cui sic extorta voluptas,

Et demptus per vim mentis gratissimus error 260;

Antzeko ameskeria zen Trasilao, Pitodororen semearena, bere buruari sinestarazi baitzion Pireoko itsasadarretik abiatzen eta sartzen ziren ontzi guztiek ez zihardutela haren zerbitzurako besterik: haien itsasketaren zorionaz pozten eta atseginez hartzen. Haren anaia Kritok zentzu hobean ezarririk, damu zuen alaitasunaz beterik eta ezatsegin orotaz arindurik bizi izan zen baldintza-mota harengatik. Hori da neurtitz greko zahar honek dioena, horren jakilea ez izatean erraztasun asko badela,

Εν τῷ φρονεῖν γὰρ μηδὲν ἡδιστοῦ βιοῦ

eta Eklesiastesek: “Jakinduria ugaritan, ezatsegin ugar”i; eta .”jakintza erdiesten duenak, beharra eta oinazea erdiesten du”.

Filosofiak orokorki onartzen duena, beharkunde orotarako manatzen duen azken antolabide hau da, jasaten ahal ez dugun biziaren bururatzea baita: Placet? Pare .Non placet;? Quacumque vix exi.

;Pungit dolor? Vel fodiat sane. Si nudus es, da iugulum; sin tectus armis Vulcaniis, id es fortitudine, resiste eta bazkaltiar grekoek darabilten ele hau: Aut, bibat, aut abeat (hobeki baiterauntsa B gogotik V bilakatzen duen gaskoi baten mintzairan²⁶⁵, Zizeronenean baino);

Vivere si recte nescis, decede peritis;

Lusisti satis, edisti satis atque bibisti;
Tempus abire tibi est, ne potum largius æquo

Rideat et pulset lasciva decentius ætas ²⁶⁶;

zer da bere ezintasunaren aitorpen batez baizik eta ez bakarrik jakinezarako igortze bat, gerizan egoteko, baina zozokeria bera, ez sentitze eta ez izaterako?

Democritum postquam matura vetustas

Admonuit memorem motus languescere mentis,

Sponte sua leto caput obvius obtulit ipse ²⁶⁷.

Antistenesek zioena da, bildu behar zela zentzua aditzeko, ala soka bere buruaren urkatzeko; eta, horri buruz, Tirteo poetaz Krisipok aipazen zuena,

Bertute ala heriogana hurbiltzea.

Eta Kratesek bazioen amodioa gosez hiltzen zela, edo denboraz; eta, bi antolabide horiek atsegin ez zaizkionari, sokaz.

Seneka eta Plutarko hain gomendio handitan mintzo diren Sestio hark, gauza guztiak utzirik, filosofiaren ikerpenara emanik, erabaki zuen bere buruaren itsasora egozte, bere ikerpenen aitzinatzea sobera berantiar eta luze ikusirik. Jakintzara ezean, heriotzara lasterkatu zen. Hona, gai horri buruz, legearen hitzak: Menturaz gerta baledi antola ez daitekeen eragozpen handi bat, portua hurbil da; eta gorputzetik igerika itzur daiteke ur dagien txalupa batetik bezala: zeren hiltzeko beldurra baita, ez bizitzeko nahia, zoroa gorputzari estekatua daukana.

Bizia jakinezaren bidez atsegingarriago bilakatzen den bezala, halaber garbiago eta hobe bilakatzen da, arestian esaten hasten nintzen moduan. “Ergelak, dio San Paulok, eta jakingabeak goratzen dira eta zeruari datxizkio: eta gu, geure jakintza guztiarekin, infernuko erroitzetan erortzen gara”. Ez naiz Valentinianoren baitan gelditzen, jakintza eta letren etsai ageria, ez Lizinioren baitan, enperadore erromatarrak biak, estatu politiko ororen pozoin eta izurritea izendatzen baitzizkieten; ez Mahomaren baitan, entzun dudanez, bere gizonei jakintza debekatu baitzien; baina Likurgo handi haren eredu eta omenak pisu handia eduki behar du, eta gobernu lakedemoniar jainkozkoaren agurtasunak, hain handia, hain miresgarria eta hain luzaz emankorra bertute eta ohoretan, letren erakunderik ez lantzerik batere gabe. Gure gurasoen denboraz espainolek ediren duten mundu berritik datozenek, lekukotasuna eman diezagukete nola herri horiek, epailerik ez legerik gabe, gureak baino zuzen eta arautukiago bizi diren, hemen funtzionarioak gizon soilak baino ugariagoak baitira eta legeak ekintzak bainoago,

Di cittatorie piene e di libelli,

D’esamine e di carte, di procure,

Hanno le mani e il seno, et gran fastelli

Di chiose, di consigli e di letture:

Per cui le facuita de poverelli

Non sono mai ne le citta sicure;

Hanno dietro e dinanzi, e d’ambi ilati,

Notai procuratori e advocati ²⁶⁸.

Azken mendeetako senatore erromatar batek zioena da, beren aitzinekoek zeukatela arnasa baratzuri-urrin, eta urdaila kontzientzia onaz lurrindua; eta, aitzitik, bere arokoek kanpotik lurrin onaren usaina zeukatela, barrenetik bizio-mota guztiez kirasturik; esan nahi baita, uste dudan bezala, jakintza eta handigo anitz zeukatela eta zintzotasunik eza handia. Jendetasunik eza, jakineza, zuntzuneria, zarpailkeria gogotik dabilta hobengabetasunarekin; ikusi nahiak, zorrozetasunak, jakiteak badakarte maltzurreria beren ondotik; apaltasunak, beldurrak, obedientziak, ontasunak (gizartearen

iraupenerako zati nagusiak baitira) eskatzen dute gogo zabal, manukor eta bere buruaz harturik ez den bat.

Kristauek ezagutza berezi bat daukate nola ikus nahia gaitz natural eta jitezko den gizonaren baitan. Zuhurtasun eta jakindurian emendatzeko axola izan zen gizakundearen lehen hondamena; hura betiereko kondenara egotzi den bidea da. Burgoitasuna haren galbidea eta usteltzea da: burgoitasuna da gizona bide arruntetik errebelatzen duena, berritasunak besarkarazten dizkiona, eta galtzerako bidaxkara errebelatu den oste ibilkor baten buruzagia izatea hobetsi, huts eta gezurraren irakasle eta maisua izatea hobetsi, egiaren eskolan ikaslea izatea baino, besteren eskuz bere buruaren eramatera utziz bide eraiki eta zuzenara. Menturaz, ele greko zahar honek dioena da, sineskeriak badarraiola burgoitasunari eta aitari bezala obeditu η δεισιδαιμονία καταπερ πατρι τω τυφωπειτεται. 269.

Ai ustea! Zenbat eragozten gaituan! Sokrates gaztigatua izan zelarik zuhurtasunaren Jainkoak zuhurraren goitizena eman diola, harritu zen; eta, bere buruaren ikertzen eta behatzen, ez zuen jainkozko zuhurtitz hartarako funtsik batere. Bazeukan bera bezain zuzen, doi, suhar eta jakileen berri, eta bera baino eleder, hobe eta herrirako baliosoagoena ere. Azkenean, erabaki zuen ez zela besteenganako berezia eta ez zela zuhurra baizik eta halakotzat bere burua ez zeukalako; eta bere Jainkoak giza izaeraren baitan zozokeria berezia zeritzola jakintza eta zuhurtasunaren usteari: eta bere irakaspenik hoberena jakinezaren irakaspena zela, eta soiltasuna bere zuhurtasunik hoberena.

Hitz sailduak esteiariak izendatzen ditu gure artean beren burua ezertan daukatenak. “Lohia eta hautsa, esaten die, zertaz arrandiatzen haiz?” Eta beste nonbait: Jainkoak itzala bezala egin du gizona; argitik urruntzeagatik ezabatuko denean, nork ukanen du haren berri?” Egiazki ez gara ezer. Gure indarrak hain urrun dira jainkozko gorentasunaren gogoan hartzetik non, geure sortzailearen egitekoetan gutienik entelegatzen ditugunek hobeki baitakarte haren ezaugarria eta hobeki ere harenak dira. Kristaudentzat sinesteko gertaldia da gauza sinestezin baten aurkitzea. Hainbat gehiago arrazoiaren arabera da, giza arrazoiaren aurka den ber. Arrazoiaren arabera balitz ez litzateke gehiago mirakulua izanen; eta, eredu zenbaiten arabera balitz, ez litzateke gauza berezirik izanen. „Melius scitur deus nesciendo dio San Augustinek; eta Tazitok: Sanctius est ac reverentius de actis deorum credere quam scire.

Eta Platonek uste du deboziorik ezazko makur zerbait badela sobera jakin nahiz Jainkoari eta munduari buruz, eta gauzen lehen eragingarriei buruz galdegitean Atque illum quidem parentem hujus universitatis invenire difficile; et, quum jam inveneris, indicare in vulgus, nefas, dio Zizeronek.

Ongi diogu ahalmena, egia, zuzentasuna: zerbait handi adierazten duten hitzak dira; baina gauza hori ez dakusagu inondik ere, ez eta gogoan hartu. Badiogu Jainkoa beldur dela, Jainkoa haserretzen dela, Jainkoak maitatzen duela,

Inmortalia mortali sermone notantes 273;

denak dira Jainkoaren baitan gure moldearen arabera egon ez daitezkeen aldarte eta hunkimenduak; eta guk ez dugu haren moldepean irudikatzen ahal. Jainkoari bakarrik dagokio bere buruaren ezagutzea eta bere egitekoen itzultzea. Eta gure mintzairaz desegoki egiten du, gure aldera apaltzea eta jausteagatik, lurrean baikade etzanik. Nolatan dagokioke zuhurtasuna, ongi eta gaizkiaren arteko bereizketa baita, batere gaizkirik ez dagokion ber? Nola arrazoia eta adimena, haietaz baliatzen baikara gauza ilunetan barrena itxurazkoetara heltzeko, Jainkoaren baitan ilunik batere ez den ber? Zuzenbidea, bakoitzari dagokiona demaiona, gizonen elkargoak eta partzuergoak sorturik, nola dago Jainkoarengan? Nola neurtasuna? Gorputzezko nahikundeen epeltzea baita, jainkotasunean lekurik batere ez baitute. Minaren, nekearen, arriskuen

jasateko gotortasuna guti dagokio ere, hiru gauza horiek harenganako helbiderik ez ukanik. Horregatik Aristotelesekin bertutez eta bizioz gabetutzat dauka.

.Neque gratia neque ira teneri potest, quod quae talia essent, imbecilla essent omnia
Egiaren ezagutzan dugun partea, dena den, ez dugu geure indarrez erdietsi. Jainkoak aski irakatsi digu hori jende xehe, soil eta jakingabeetarik hautatu dituen lekukotasunen bidez, bere ezageri miresgarriez gure argitzeko: geure fedea ez da geure erdiespena, besteren eskuzabaltasunaren emaitza huts bat da. Ez dugu arrazoiak eta geure adimenaz gure erlijioa ukan, kanpoko menpetasun eta manamenduak da. Geure adimenaren ahuleziak laguntzen gaitu indarrak baino gehiago, eta geure itsustasunak geure begi zorrozetasunak baino gehiago. Jainkozko jakitate honen jakileak gara geure jakinezaren bidez geure jakintzaz baino gehiago. Ez da mirestekoa gure bide natural eta lurtiarrek ez badute gogoan hartzen ahal jakintza naturagaindiko eta zerutiar hori: ekar dezagun soilik geure aldetik obedientzia eta manukortasuna. Zeren, idatzirik den bezala²⁷⁵: "Suntsituko dut jakileen jakintasuna eta eroraraziko zuhurren zuhurtasuna. Non da zuhurra? Non idazlea? Non da mende honetako eztabaidaria? Ez ote du Jainkoak mundu honetako jakintza zozotu? Zeren, munduak ez baitu Jainkoa ezagutu jakintzaz, nahietsi baitu sinesleen salbatzea irakaspenaren hutsalkeriaz."

Ikusi behar dut, hondarrean, gizonaren ahalmenean ote den bilatzen duenaren edireitea, eta duela hainbat mende darabilen bilketak indar berri batez edo egia funtsezko zerbaitez aberastu duen.

Banago aitortuko didala, on-onetik mintzo bada, hain jarraipen luzetik atera duen erdieste osoa bere ahuleziaren ezagutzen ikastea dela. Jitez geure baitan zegoen jakineza, baieztatu eta egiaztatu dugu ikerpen luzez. Zinezko jende jakileei gertatu zaie galburuei gertatzen zaiena: badoaz goititzen eta goratzen, burua zuzen eta harro, hutsak diren bitartean; baina, beterik eta bihez gizendurik direlarik beren ontzean, hasten dira apaltzen eta adarren behekitzen. Halaber gizonek, dena entseiatu eta bilaturik, jakintza-meta eta hainbat gauza ezberdin hornizio horretan deus ere azkar eta bermerik ez edirenik, eta hutsalkeriarik besterik ez, uko egin diote beren buru-hantusteriari eta beren baldintza naturala ezagutu.

Kota eta Zizeroni Veleiok erantzuki egiten diena: Filonengandik ezer ez ikastea ikasi dutela.

Ferezidesek, zazpi zuhurretarik batek, Talesi idatziz, hiltzerakoan: "Neurei manatu zieat, zioen, ehortziko nautenez geroztik, eraman diezazkiaten neure idazkiak; askiesten bazaituztete hi eta beste zuhurrak, argitara itzak; bestenaz, ezaba itzak; ez zeukatek neroni askiesten nauen segurtasunik batere. Ez diat egiaren jakiteko ez heltzeko ofiziorik egiten. Gauzak asmatzen ditiat edireiten baino gehiago." Sekula izan zen gizonik zuhurrenak, galdegin zitzaionean zer zekien, erantzun zuen hori zekiela, deus ere ez zekiela. Egiaztatzen zuen esaten dena, dakigunetik zatirik handiena ez dakigunetik zatirik xehena dela; esan nahi baita, dakigula uste duguna bera ere gure jakinezaren zati bat dela, eta arras xumea.

Badakizkigu gauzak ametsetan, dio Platonek, eta ez dakizkigu egiaz.

Omnes pene veteres nihil cognosci, nihil percipi, nihil sciri posse dixerunt; angustos sensus, imbecillos animos, brevia curricula vitae.

Zizeron berak, bere balio osoa jakintzari zor ziona, badio Valeriok zahartzaroan hasi zela letren gutiesten. Eta, landu zituen artean, ezin alderdiren behartzerik gabe zela, menturazkoa iruditzen zitzaionari jarraikiz, noiz alderdi batean, noiz bestean; beti Akademiaren zalantzan egonik,

Dicendum est, sed ita ut nihil affirmem, quaeram omnia, dubitans plerumque et mihi diffidens.

Errazegia nuke gizona bere modu arrunt eta orokorki ikertu nahi banu, eta egiten ahalko nuke, hala ere, bere arauaren bidez, egia epaitzen baitu, ez ahotsen pisuaz, baina zenbakiaz. Utz dezagun hor jendea,

Qui vigilans stertit,

Mortua cui vita est prope jam vivo atque videnti ²⁷⁸,

bere burua somatzen ez eta epaitzen ez duena, bere ahalmen naturalik gehienak alferrik uzten baititu. Haren jarlekurik gorenean hartu nahi dut gizona. Gogoan har dezagun gizon berezi eta hautatuen multzo xume horretan, indar natural eder eta berezi batekin sorturik, artaz, ikerpenez eta antzez azkartu eta zorroztu baitute, eta hel daitekeen zuhurtasunaren heinik gorenera iganarazi baitute. Beren gogo erabili dute zuzen eta norabide orotara, egoki zaion kanpoko laguntza guztiarekin bermatu eta habeztatu dute, mailegatzen ahal den guztiarekin aberastu eta apaindu, haren erraztasunerako, munduko barrenean eta kanpoan; haien baitan dago giza izaeraren ezinagoko gorentasuna. Mundua arautu dute gobernu eta legeez; antzez eta jakintzaz irakatsi dute, eta eraiki beren aztura miresgarrien ereduen bidez. Ez ditut jende haietaz baizik kontutan hartuko, haien lekukotasunik eta esperientziarik besterik. Dakusagun noraino joan diren eta zeri atxiki zaien. Eskola honetan aurkituko ditugun eritasun eta akatsak munduak aitor ditzake ausarki bereak bezala.

Gauza zerbait bilatzen duen edonor badator hein honetara: edo badio ediren dudala, edo ediren ez daitekeela, edo oraindik bilatzen ari dela. Filosofia osoa hiru mota horietan zatikatua da. Haren xedea da egiaren, jakintzaren eta segurtasunaren bilatzea. Peripatetikoek, epikuriarrek, estoikoek eta beste zenbaitek uste izan dute ediren dutela. Hauek finkatu dituzte dauzkagun jakintzak, eta berri seguruak bezala erabili dituzte. Klitomako, Karneades eta akademiakoak etsi dira bilketan, eta epaitu dute egia ez daitekeela gogoan har gure ahalmenen bidez. Hauen ondorioa giza ahulezia eta jakineza da; alderdi honek izan du jarraipenik handiena eta alderdikiderik nobleenak.

Pirronek eta beste Eszeptiko edo Epekistek²⁷⁹ (aitzineko askok baitiote hauen dogmak, Homero, zazpi zuhur, Arkiloko eta Euripidesen baitarik ondoriatuak izan direla eta gehitzen dituzte Zenon, Demokrito eta Xenofanes) badiote egiaren bila ari direla oraindik. Hauek epaitzen dute ediren dutela uste dutenak engainatzen direla mugagabeki; eta giza indarrak heltzeko gaiak ez direla baieztatzen duen bigarren maila horretan oraino giza hutsalkeria sobera ausarta badela. Zeren hori, gure ahalmenaren neurriaren finkatzea, gauzen zailtasunaren ezagutzea eta epaitzea, jakintza handi eta ezainagokoa baita, gizona horren gai denez zalantzan baitute.

Nil siciri quisquis putat, id quoque nescit

An sciri possit quo se nil scire fatetur ²⁸⁰.

Bere burua dazaguen, dakien eta kondenatzen duen jakineza ez da jakineza oso bat: izateko, bere burua ezezagutu behar baitu. Halako molde non pirroniarren ofizioa zalantzatzea, dudatzea eta galdegitea baita, deustaz ez segurtatzea, deustaz ez erantzutea. Gogoaren hiru ekintzetan, irudikorra, aiherkorra eta baieztakorra, lehendabiziko biak onartzen dituzte; azkena gordetzen eta sostengatzen dute ezbaian, alde batera edo besterako aiherrik ez onarpenik gabe, denik arinena bada ere.

Zenonek keinuka itxuratzen zuen bere irudimena gogo ahalmen zatiketa honi buruz: eskua hedatu eta zabalik, itxura zen; eskua erdi hertsirik eta behatzak apur bat mako, baieztapena; ukabila hetsirik, ulerpena; ezkerreko eskuaren ukabila hertsikiago hesten bazuen, jakintza.

Beraz, haien adimenaren jarleku horrek, zuzen eta azkar, gauzaki guztiak onartuz, lehiarik ez baieztapenik gabe, haien ataraxiara bideratzen dituzte, bizimodu pausaturik eta jarriarik baita, gauzei buruz daukagula uste dugun aburu eta jakintzaren hunkimendutik hartzen dugun uherdurarik gabe. Nondik eta sortzen baitira beldurra,

zekenkeria, bekaitza, neurririk gabeko nahikundeak, handinahia, harrokeria, sineskeria, berritasunen nahia, bihurraldia, desobedientzia, temakeria, eta gorputzeko gaitzik gehienak. Eta hortik beren ikasketaren jeloskeriaz ere gabetzen dira. Aski molde bigun batez eztabaidatzen baitira. Ez dira beren hizkatzearen erantzunaren beldur: pisuduna beheiti doala diotenean, goibelduko lirateke sinetsiak izan balira, eta bilatzen dute kontra egin dakien, epaiketaren zalantza eta gibelamenduaren sortzeko, haien helburua baita. Ez dituzte haien aburuak aitzinatzen geure sinesmenean dauzkagula uste dituztenei aurka egiteko ez bada. Haiena hartzen baduzu, aitzikoa gogotik hartuko dute ere bermatzeko: dena zaie orobat; ez dute bereizkunderik batere. Finkatzen baduzu elurra beltza dela, aitzitik argudiatzen dute zuria dela. Badiozu ez dela bata ez eta bestea, haiei dagokie biak batean dela argudiatzea. Uste zerbaiten bidez, argudiatzen baduzu deus ere ez dakizula, bermatuko dizute badakizula. Eta, areago ere, baieztapen baten bidez, segurtatzen baduzu dudatzen duzula, eztabaidatuko dizutela ez duzula dudatzen, edo ez duzula epaitzen eta finkatzen ahal dudatzen duzula. Eta, bere burua inarrosten duen ezinagoko duda horren bidez, molde askoz duda eta jakineza sostengatu dutenen uste anitzetarik urruntzen eta zatikatzen dira.

Zergatik ez zaie zilegi izanen, diote, dogmatikoen artean den bezala bati berdearen eta besteari horiaren esatea, haiei ere zalantzaren egitea? Ba ote da aitortzeko ala ezeztatzeko aurkezten ahal zaizun gauza dudagarri bezala hartzea laudagarri ez denik? Eta, garaitikoak eramanak diren bitartean, edo beren herriko ohiturak, edo gurasoen irakaskintzak, edo menturaz, erauntsi batek bezala, usterik ez hautaketarik gabe, eta maizenik arrazoiaren adina baino lehen, halako edo holako aburura, alderi estoiko edo epikuroarrara, aurkitzen baitira bahituak, azpiratuak eta iratxikiak uzten ahal ez duten atxikimendu bati bezala ad quamcumque disciplinam velut tempestate delati, ad eam tanquam ad saxum adhaerescunt Zergatik ez zaie hauei berdin onartua beren libertatearen iraun araztea, eta gauzen gogoan hartzea behartzerik ez morrointzarik gabe? Hoc liberiores et solutiores quod integra illis est iudicandi potestas Ez ote da abantaila zerbait besteak estekatzen dituen beharretik aske aurkitzea? Ez ote du gehiago balio ezbaian egoteak giza ameskeriak sortu dituen hainbat hutsetan sartzea baino? Ez ote du gehiago balio sinestearen eteteak hainbat zatiketa bihur eta eztabaidagarritan sartzeak baino? Zer hautatuko dut? -Nahi duzuna, hautatzen duzun ber! -Horra erantzun ergel bat, hala ere dogmatismo osoa hartaratzen baita, baimendurik ez baitzaigu ez dakigunaren ez jakitea. Har ezazu alderdirik omentsuena, ez zaizu sekula hain segurua izanen non ez diezun, haren defentsarako, ehun alderdi kontrariori oldartu eta gudukatu behar. Ez ote du gehiago balio nahaste horretaz landan egon? Baimendurik zaizu atxikitzea, zeure ohore eta biziari bezala, arimaren betierekotasunari buruz Aritotelesin sinesmenari, eta Platon ukatu eta gezurtatu horren gain; eta haiei, debekatuko zaie dudatzea? Paneziori goresgarri bazaio azti, amets, orakulo eta asmakizunei buruz bere epaiketaren sostengatzea, estoikoek gauza horiek ez baitituzte zalantzan ezartzen, zergatik zuhur bat ez da gauza guztietan ausartatuko hori bere irakasleengadik ikasi dituenetan ausartzen denara, irakasle eta alderdikide den eskolako ahobateko adostasunean onarturik baitira? Haur bat bada epaitzen duena, ez daki zer den; jakile bat bada, aitzinetik ohartua da. Abantaila miresgarria gorde dute guduan, gerizatzeako axolatik arindurik. Ez zaie axola jotzen bazaie, haiek jotzen duten ber; denetaz baliatzen dira. Garaitzen badute, zure aburua kulunkatzen da; garaitzen baduzu, haiena. Huts badagite, jakineza egiaztatzen dute; huts badagizu, zuk egiaztatzen duzu. Deus ez dela jakiten frogatzen badute, ongi doa; frogatzen ez badakite, ongi da berdin. Ut, quum in eadem re paria contrariis in partibus momenta inveniuntur, facilius ab utraque parte assertio sustineatur.

Ofizioa egiten dute anitzez errazago edireteko zergatik gauza bat faltsua den, egiazkoa den baino; eta zer ez den, zer den baino; eta zer sinesten ez duten, zer sinesten duten baino.

Haien mintzatzeko moldeak dira: Ez dut ezer finkatzen; ez da horrela gehiago honela baino, edo ez bata ez bestea baino; ez dut entelegatzen; itxurak orotarako berdinak dira; aurka ala alde mintzatzeko bideak berdinak dira. Deusek ez dirudi egiazkoa, faltsua ez dirudikeena. Haien ele sakramentala ejpevcw ²⁸⁴ da, esan nahi baita, badiraut, ez nabil. Horra haien errepikak, eta gai beretsuko besteak. Haien jomuga epaiketaren gibelatze eta etete huts, oso eta txit bete bat da. Haien arrazoiak baliatzen dira galdegiteko eta eztabaidatzeko, baina ez gelditzeko eta hautatzeko. Etengabeko jakinezazko aitorten bat irudikatzen duenak, aiherrik ez isurpenik gabeko epaiketa bat, zeinnahi gertaldi bada ere, hark badazagu pirronismoa. Ameskeria hau adierazten dut ahal dudan bezainbat, anitzek gogoan hartzeko zaila aurkitzen baitute; eta egileek beraiek apur bat ilunki eta ezberdinki itxuratzen dute.

Bizi eginkizunei buruz, horretan molde arruntakoak dira. Ematen eta badagozkie aiherkunde naturalei, pasionen bulkatze eta bortxatzei, legeen eta ohituren manamenduei eta lantzeen azturari: Non enim nos Deus ista scire, sed tantummodo uti voluit. Gauza horietan gidatzera uzten dituzte haien egiteko arruntak, abururik edo epaiketarik gabe. Horregatik ez dut hitzaldi honetan egokitzen ahal Pirronez esaten dena. Dorpe eta geldirik itxuratzen dute, bizimodu basa eta jendetasunik gabe bat eramanez, orgen talka igurikatuz, erroitzetara joz, legeetara ez jarri nahiz²⁸⁶. Hori haren irakaskuntzaren gainditzea da. Ez du harri edo zuhaitz bilakatu nahi; gizon bizi, gogo eta arrazoidun bilakatu nahi du, atsegin eta erraztasun natural orotaz gozatuz, bere gorputz eta gogo zati orotaz baliatuz eta erabiliz, artez eta zuzenez. Gizonak ebatsi dituen egiaren arautzeko, manatzeko eta finkatzeko ametsetako lehentasun irudikor eta faltsuei uko egin die gogotik eta utzi.

Ez baita alderdirik bere zuhurrari gauza ez entelegatu, ez ohartu, eta ez onartu askori jarraitzea baimentzera behartua izan ez denik, bizi nahi badu. Eta itsasoratzen delarik, badarraio xede horri, onuragarri izanen zaion jakin gabe, eta itsasontzia ona, lemazaina aditua, aroa egokia direlako menera ematen da, menturazko gorabeherak soilik: haien arabera joan behar baitu eta itxuren arabera ibili, eragozpen ageririk ez daukaten ber. Badu gorputz bat, arima bat; zentzuek bulkatzen dute, gogoak darabil. Bere baitan aurkitzen ez badu ere epaitzeko ezaugarri egoki eta berezi hori eta ohartzen bada ere ez duela bere adimena estekatu behar, faltsu zerbait daitekeen ber egiazkoaren antzera, ez ditu horregatik ere bere biziko eginkizunak beteki eta errazki zuzendu gabe utzi. Zenbat antze ez dira jakintzan baino gehiago ustezkatzean dautzalako ofizioa egiten dutenak, eta egiaz eta gezurraz erabakitzen dutenak, eta soilik itxurari darraizkionak? Bada egiazkoa eta gezurrezkoa, diote, bada gure baitan hura zeren bila, baina ez hura zeren froga. Hobe dugu geure buruaren gidatzera uztea munduko antolamenduari buruz galdegin gabe. Aitzinustetarik gerizatu den gogo batek badu lasaitasunerako aurreratze miresgarri bat. Beren epaileak epaitzen eta zuzentzen dituzten jendeak ez dira inoiz ere behar bezala meneratzen. Erlijio eta politikako legeetan, zenbat manukor eta errazagoak aurkitzen ohi diren gogo soil eta jakingabeak, jainkozko eta giza kausen gogo zaindari eta irakasle horiek baino!

Deus ere ez da giza asmamenean hainbat egiantz eta erabilgarritasun duenik. Honek²⁸⁷ gizona aurkeztzen du biluts eta hutsik, haren jitezko ahulezia ezagutuz, goitik indar arrotz zerbaiten hartzeko prest, giza jakintzaz gabeturik, eta hainbat ere pretago jainkozkoaren onesteko bere baitan, bere ustea suntsituz fedeari leku gehiagoren egiteko; ez sinesgabetuz, eta ez finkatuz ohizko behaketen aurka dogmarik batere; apal, manukor, irakasgarri, ikaskoi; heresiaren etsai amorratua, eta beraz alderdi faltsuek

sartu iritzi hutsal eta erlijioabeetarik bazterturik. Gutun zuri bat da Jainkoaren behatzetik hari atsegin zaizkion moldeen hartzeko prest dagoena. Zenbat eta gehiago goazkion eta gomendatzen gatzazkion Jainkoari, eta geure buruari uko egiten, hainbat hobe baliatzen gara. Onar itzak gauzak, dio Eklesiastesek, gogo onean, agertzen zaizkian itxuraz eta moduaz, egunean egunekoa; gainerakoa hire ezagutzaz landan duk. Dominicus scit cogitationes hominum, quoniam vanae sunt.

Horra nola, filosofiaren hiru alderdi orokorretarik biek zalantza eta jakinezaren aitorten ageria egiten duten; eta, dogmatikoenean, hirugarrena baita, agertarazteko erraza da nola gutiz gehienek ez duten segurantzaren aurpegia hartu itxura hobearen edukitzeko baizik. Ez dute hainbat gogoetatu guri segurtasun zerbaiten finkatzea nola guri erakustea noraino joanak ziren egiaren bila horretan: quam docti fingunt, magis quam norunt.

Timeok, Sokratesi irakatsi behar diolarik jainkoez, munduaz eta gizonez dakiena, eskaintzen du gizon bat gizon bati bezala mintzatzea; aski baita, eta haren arrazoiak beste batenak bezain frogagarriak direla: arrazoi zehatzak ez baitira haren eskuan, ez eta ezein esku hilkorretan. Haren alderdikide batek imitatu baitu ere: Ut potero, explicabo: nec tamen, ut Pythius Apollo, certa ut sint et fixa, quae dixero; sed, ut homunculus, probabilia conjetura sequens, et hori heriotzaren gutiesteari buruz, gai natural eta herrikoia. Beste nonbait, Platonen beraren aburuaren gain itzultzen du: Si forte, de deorum natura ortuque mundi disserentes, minus id quod habemus in animo consequimur, haud erit mirum. Æquum est enim meminisse et me qui disseram, hominem esse, et vos qui judicetis; ut, si probabilia dicentur, nihil ultra requiratis ²⁹¹.

Aristotelesek eskuarki metatzen digu beste aburu eta sinesmen andana bat, harenarekin alderatzeko eta erakusten digu zenbat joan den haratago, eta zenbat hurbilago den egiantzetik: zeren egia ez baita besteren manu-indar ez lekukotasunaz epaitzen. Eta, halarik ere, Epikuroren aipamenetik artoski itzuri zen bere idazkietan. Aristoteles dogmatikoen printzea da; eta harengandik ikasten dugu anitz jakiteak gehiago dudatzeko gertaldia dakarrela. Maiz ikusten zaio jakiara hain iluntasun trinko eta sartein batez inguratzea, non ez baita haren ustetik ezer ere bereizten ahal. Egiazki, molde erabakior batenpean, pirronismo bat da.

Entzun Zizeronen adierazpena, besteren ameskeria berearen bidez argitzen baitigu: "Qui requirunt quid de quaque re ipsi sentiamus, curiosius id faciunt quam necesse est. Hæc in philosophia ratio contra omnia disserendi nullamque rem aperte judicandi, profecta a Socrate, repetita ab Arcesila, confirmata a Carneade, usque ad nostram viget ætatem. Hi sumus qui omnibus veris falsa quædam adjuncta esse dicamus, tanta similitudine ut in iis nulla insit certe judicandi et assentiendi nota ²⁹²."

Zergatik, ez bakarrik Aristotelesek baizik eta filosoforik gehienek itxuratu dute zailtasuna, non ez den gaiaren hutsalkeriari balio emateko eta gure gogoaren jakin nahiaren ihardukitzeko, alatoki bat emanez, hezur huts eta haragirik gabe horren kurruskatzeko? Klitomakok dio ez zekiela sekula aditzen Karneadesen idazkien bidez zein ustetakoa zen. Zergatik Epikuro bereetan itzuri da erraztasunetik, eta zergatik Heraklito deitu izan da skoteinov" ²⁹³? Zailtasuna jakileek darabilten sos bat da, esku jostakariak bezala, beren antzearen hutsalkeriaren ez agertzeagatik, giza zozokeriak errazki hartzen baitu ontzat:

Clarus, ob obscuram linguam, magis inter inanes...

Omnia enim stolidi magis admirantur amantque

Inversis quæ sub verbis latitantia cernunt ²⁹⁴.

Zizeronek bere adiskideetarik zenbait gaitzesten ditu ohitu izan baitira astrologia, zuzenbide, dialektika eta geometriari ematera lantze horiek merezi duten baino gehiago; eta horrek desbideratzen zituela bizi eginbeharretarik, onuragarri eta zintzoagoak.

Filosofo zirenaikoe fisika eta dialektika berdin gutiesten zituzten. Zenonek, bere Errepublikaren liburuen hasiera, ezteusak aitortzen zituen lantze liberal guztiak.

Krisipok zioen Platonek eta Aristotelesek logikaz idatzi zutena, jostetaz eta lantzeaz idatzi zutela, ez zezakeen sinets egiazki mintzatu izan zirela hain gai hutsalaz. Plutarkok metafisikaz dio. Epikurok oraino esanen zukeen ere erretorikaz, gramatikaz, poesiaz, matematikaz, eta fisikaz salbu, jakintza orotaz. Eta Sokratesek ere orotaz, ohiturez eta biziaz dihardutenez salbu. Zernahi ere galdegiten bazitzaion, lehendabizikoan galdegilea bazeraman bere orainaldiko eta iragan biziko baldintzez kontu ematera, ikertzen eta epaitzen baitzituzten, beste edozein ikasbide haren ondokoa eta soberazkoa zela gogoan harturik.

Parum mihi placeant eae litterae quae ad virtutem doctoribus nihil profuerunt Horrela izan dira lantzerik gehienak jakintzak arbuaturik. Baina jakileek ez dute uste irabazpiderik ez zuten gauzetan beren gogoaren lantzea desegoki litzatekeenik.

Bestalde, batzuek Platon dogmatikotzat jo dute; besteek dudakor; besteek, gauza batzuetan bata, eta beste gauzetan bestea.

Haren solasaldietako gidaria, Sokrates, badoa beti galdegiten eta eztabaidaren akuilatzen, sekula gelditu gabe, sekula askietsi gabe, eta badio aurka ezartzeko jakintzarik besterik ez duela. Homerok, haien egileak, filosofiaren alderdi guztiei funtsak paratu zizkien, erakusteagatik zein berdina den nondik goazen. Platonengandik hamar alderdi ezberdin sortu omen ziren. Ene irudiko ere, ezein irakaspenik ez zen sekula zalantzatia eta batere baitetsigarria, harena ez bada. Sokratesek zioen emaginek, besteen sortarazteko ofizio hori harturik, sortzeko ofizioa uzten dutela; berak, jainkoek eman dioten gizaginareen izenburuagatik, utzi zuela, bere giza eta gogo maitasunetan, sortzeko ahalmena; eta askiesten dela bere laguntzaz sortzaileen bermatzea eta faboratzea, haien naturaren zabaltzea, bideen gantzatzea, haien erditzearen ateraldiaren erraztea, haren epaitzea, bataiatzea, haztea, azkartzea, janzteia eta zirkontzidatzea: bere antzea besteren galbide eta menturetan lantzen eta erabiltzen.

Horrela da ere hirugarren motako egileen aldetik: Anaxagoras, Demokrito, Parmenides, Zenofanes eta besteen idazkietan aitzinekoak ohartu bezala. Gaian badute idazkera dudakor bat, eta helburu galdegile bat irakasgarri baino gehiago, nahiz eta beren ibileraren artetik errepika dogmatikoak ereiten dituzten. Ez ote da ikusten ere Seneka eta Plutarkoren baitan? Zenbat dioten, noiz aurpegi batez, noiz beste batez, hurbiletik begiratzen dutenentzat! Lege gizonen antolatzaileek lehenik antolatu beharko lukete bakoitza bere buruarekin.

Uste dut Platonek maite zuela solasaldien bidez filosofatzeko molde hori, jakiara, hobeki eta aho ezberdinetan bere ameskerien ezberdintasun eta aldakuntzaren ezartzeko. Gaian lantzea ezberdinki, arautuki bezain ongi lantzea da ere, eta hobeki: hots, ausarki eta balioskiago. Har dezagun adibidea geure burutik. Sententziak mintzo dogmatiko eta erabakiorraren heinik gorena dira; eta gure parlamentuek jendeari agertarazten dizkieten eredugarrienek, haren baitan zuzentasun horri zor dion begirunearen -bereziki gauzatzen duten pertsonen jakintzagatik- sortzeko egokiek, ez dute beren edertasuna bukaeratik hartzen, egunerokoa baita haietan, eta epaiketa guztietan bezalakoa, baizik eta zuzenbidearen gaiak jasaiten dituen arrazoibide ezberdin eta kontrarioen eztabaida eta erabiltzetik.

Eta filosofo batzuen besteen aurkako erantzukientzat zelairik zabalena ateratzen da haietarik bakoitza eragotzirik aurkitzen den kontramintza eta ezberdintasunetarik, edo jakiara giza gogoaren zalantzaren erakusteko gai ororen inguruan, edo halabeharrez jakin gabe gai ororen mugikortasun eta ulertezintasunagatik.

Zer dio zuhurtitz honek: lerrabide eta malkarretan, eten dezagun sinestetan? Zeren, Euripidesek dioen bezala,

Jainkoaren eginetik modu anitzetan

Ezartzen gaituzte eragozpenetan,

Enpedoklesekin bere liburuetan maiz ereiten zuen bezalakoa, jainkozko zoraldi batekin inarrosirik eta egiak bortxaturik bezala: Ez, ez, ez dugu ezer somatzen, ez dugu ezer ikusten; gauza guztiak estaliak zaizkigu, ez da batere hartaz zer den finka dezakegunik. Jainkozko ele honetara itzuliz, cogitationes mortalium timidae, et incertae adinventiones nostrae et providentiae Ez da arraroa aurkitu behar harrapatzeaz etsirik diren jendeekin ihizian atseginik baldin badute: ikerpena berez ariketa atsegingarria izanik, eta hain atsegina non, atseginen artean, estoikoek debekatzen baitute ere gogoaren lantzetik datorrena, bridatu nahi baitute, eta neurgabekeria aurkitzen baitute sobera jakitean.

Demokrito, bere mahaian ezti-urria zeukaten pikoak janik, hasi zen bapatean bere gogoan bilatzen nondik zetorkien ohiz landako usain hori, eta, argitzeko, mahaitik jaiki behar zuen piko horiek bilduak izan ziren lekuko jarreraren ikusteko; haren neskameak, ibiltze horren kausa entzunik, irriz esan zion ez zedila horregatik neke gehiagotan ari, zeren baitzen berak ezarri zituela ezta izan zen ontzi batean. Gaitzitu zen bilketa horren gertaldia kendu baitzion eta haren jakin nahia gaia ebatsi: Eta gogotik edireiten ohi zuen ondorio faltsu eta irudikatu baten egiazko arrazoi zerbait. Filosofo handi eta omentsu baten historia honek arras argiki erakusten digu erdiesteaz etsi dugun gauzen jarraipenean garabiltzan pasione ikerlari hori. Plutarkok eredu berdin bat aipatzen du zalantzan zeukanaz argitua izan nahi ez zuen norbaitez, bilatzeko atseginaren ez galtzeko; bere sendagileak sukarraren nahastea ken ziezaiola nahi ez zuen besteak bezala, edanez iraungitzeko atseginaren ez galtzeko. Satiū est supervacua discere quam nihil.

Halaber hazkurri orotan maiz bada atsegin bakar bat; eta atsegingarri jaten dugun guztia ez da beti hazgarri edo sendo. Berdinki, jakintzatik gure gogoak ateratzen duena atsegingarria da, jangarria ez osasungarria ez bada ere.

Hona nola dioten: naturaren behaketa gure gogoari egokia zaion hazkurria da; goratzen eta haizatzen gaitu, gauza lurtiarrek arbuiaztzen dizkigu goiko eta zerutiarren alderaketatik; gauza estali eta handien bilaketa bera arras atsegingarria da, are haien begirunea eta epaitzeko beldurraz bazik erdiesten ez duenarentzat ere. Haien ofizioak hitzak dira. Jakin nahi erikor horren irudi hutsala oraino ageriago ikusten da ohorez maiz ahotan duten beste eredu honetan. Eudoxok nahi eta jainkoei otoizten zien behin batez eguzkia hurbiletik ikusi ahal zezan, haren moldeak, handigoak eta edertasuna entelegatu, bapatean erre izateko ordainetan. Nahi du, biziaren saritan, jakintza bat bere hartan haren erabiltze eta ukatea kenduko baitzaizkio, eta, bapateko ezagutza hegaldakor horrentzat, dituen eta gero erdiets ditzakeen ezagutza guztien galtzea.

Ez dezaket nolanahi sinets Epikurok, Platonek eta Pitagorasekin legeko dirutzat eman liezazkiguten beren atomoak, beren ideiak eta beren zenbakiak. Zuhurregiak ziren hain gauza zalantzakor eta eztabaidagarri batez beren fedezko arauen finkatzeko. Baina munduko iluntasun eta jakingabezia honetan, pertsonaia handi haietarik bakoitza entseiatu da argi irudi zerbaiten ekartzera, eta beren gogoak ibili dute itxura atsegingarri eta zorrotz bat bederen zeukaten asmamenetan: osoki faltsua izan eta ere badagoke oposizio kontrarioen aurka: unicuique ista pro ingenio finguntur, non ex scientiae vi Aitzinaroko batek²⁹⁹, erantzuki eginik filosofian aritzen zela baina hartaz kontu handirik egin gabe, erantzun zuen hori zela zinez filosofatzea. Dena hartu eta pisatu nahi izan dute gogoan, eta ariketa hori gure baitan dagoen jakin nahia egokia aurkitu dute. Gauza zenbait gizarte publikoaren beharrerako idatzi dituzte, hala nola beren erlijioak³⁰⁰; eta arrazoigarri izan da, gogoeta horregatik, ez dituztela aburu ohituak giharrean ukitu nahi, beren herriko lege eta ohituren obedientzian nahasterik ez sortarazteko asmotan.

Platonek badihardu ezageri hori aski molde ageri batez. Zeren, bere arabera idazten duenean, ez du egiazki deus ere arautzen. Lege egilearena egiten duenean, hartzen du idazkera larderiatsu eta baieztakor bat, eta nahasten ditu ausarki bere asmamenik ameskoienak, jende arruntaren sinestarazteko hain egokiak nola irrigarriak bere buruaren sinestarazteko, jakinik zein emanak garen hunkimendu guztien onartzera, eta, oroz gain, gaitz eta larrienak.

Eta, halarik ere, bere legeetan, axola handia du ez daitezen jendartean kanta helburu on batera jotzen duten alegiazko irudietako poesiez baizik; eta, giza gogoan hain erraz izanik amesgai guztien markatzea, zuzengabea baita gezur onuragarrietan ez alatzea gezur ezteus edo kaltegarrietan baino gehiago. Hagitz zarpailki dio bere Errepublika-n gizonen onerako maiz engainatu behar zaiela. Bereizteko erraza da, alderdi zenbaitek egiari gehiago jarraikiz eta besteek baliotasunari, hauek sinesmena nondik irabazi duten. Gure baldintzaren gabezia da: gure irudimenari egiazkoena bezala agertzen zaiona ez zaiola gure biziari baliosoena bezala agertzen. Alderdirik ausartenak, epikuroarra, pirroniarra, akademiko berria, oraindik giza legeari amore emateko bortxatuak dira, ororen buruan.

Badira eskuztatu dituzten beste gaiak, nork ezkerrez, nork eskuinez, bakoitza itxura zerbait emateko aritzen dela, artez edo makurrez. Zeren, hain gorderik non hartaz mintzatu nahi ez duten deusik ez aurkiturik, bortxazkoa baitaie anitzetan ustezkatze ahul eta zoroen moldatzea, ez beraiek funtsezkotzat hartzen dituztelako, ez egia zerbaiten finkatzeko, beren ikerpenaren lantzerako baizik: Non tam id sensisse quod dicerunt, quam exercere ingenia materia difficultae videntur voluisse.

Eta, halakotzat hartuko ez balitz, nola zurituko genituzke gogo bikain eta miresgarri horiek eraginik ikusi ditugun usteen iraupenik eza, aldakortasuna eta hutsalkeria? Zeren, adibidez, zer da hutsalagorik geure antzekotasun eta ustezkatzeen bidez Jainkoa asmatu nahi izatea, munduaren arautzea geure ahalmen eta legeen arabera, eta jainkotasunari buruz hark geure izaera naturalari eman nahi izan dion jakintza zirtzil honetaz baliatu nahi izatea baino? Eta, geure ikusmena haren jarleku loriosoraino ezin heda dezakegulako, hemen beheiti apaltzea geure usteltze eta eskasgoetara?

Erljioari dagozkion giza uste zahar orotan, iruditzen zait egiazko itxura eta aitzaki gehiago duela Jainkoa ahalmen adiezinezko bat bezala ezagutzen duenak, gauza guztien jatorria eta iraunarazlea, ontasun hutsa, betetasun hutsa, onartzen eta onesten gizakiek, zeinnahi itxura, izen eta modupean den, ematen dioten ohorea eta begirunea:

Jupiter omnipotens rerum, regumque deumque

Progenitor genitrixque ³⁰².

Axola hau zeruak begi onez ikusia izan da orokorki. Gizarte guztiak emaitza atera dute beren deboziotik: gizonek eta ekintza fedegabeek orotan ukan dituzte gertakari egokiak. Historia paganuek ezagutzen dituzte beren alegiazko erlijioetan zuzentasuna, ordena, zuzenbidea, mirakuluak, eta aztiatzeak beren ontasun eta irakaspenerako erabiliak: Jainkoak, bere urrikariagatik, aldiko ontasun horien bidez sustatu nahi izanik, menturaz, arrazoi naturalak geure ametsetako irudi faltsuetan barrena berataz eman digun ezagutza basa hura.

Ez bakarrik faltsuak, baina sinesgabeak eta laidogarriak dira gizonak bere asmamenaz moldatu dituenak.

Eta, Atenasen San Paulok omenean aurkitu zituen erlijio guztietan, jainkotasun gorde eta ezezagun bati eskaini ziotena iruditu zitzaion desenkusagarriena.

Pitagorasek hurbilagotik itxuratu zuen egia, uste izanik izakien izatearen eta lehendabiziko kausaren ezagutza mugagabea izan beharko zela, araurik ez adierazpenik gabe; gure irudimenaren betetasun aldera ezinagoko eginahalik besterik ez zela, bakoitzak bere ahalmenaren arabera ideia zabaltzen duelarik. Baina Numa entseiatu

zenean bere jendeen debozioaren antolatzaera xede horretara, gogo hutsezko erlijio bati lotzea, erabiltezinezko gauza bat frogatu zuen; giza gogoak ez lekike egoten moldegabeko gogoeten mugagabetasun horretan; bildu behar zaizkio bere eredurako irudi zerbaitetan. Horrela jainkozko gorentasunak bere burua utzi du guretzat inola ere gorputz mugetan apaltzera: haren sakramendu naturagaindiko eta zerutiarrek badituzte gure baldintza lurtiarraren ezaugarriak; haren agurtasuna adierazten da eginkizun eta hitz somagarrietan; zeren gizona baita sinesten eta otoizten duena. Bazterrean uzten ditut gai honetan erabiltzen ohi diren garaitiko argudioak. Baina nekez sinestaraziko zait gure gurutzefika eta oinaze urrikalgarriaren itxuraren ikusteak, gure elizetako apaindurek eta mugimendu zeremoniatsuek, gure gogoetako debozioari ahots egokiek eta zentzuen hunkimendu horrek ez dutela jendeen gogo berotzen erlijiozko pasione batez, eta oso ondorio onuragarrikoa.

Beharrak eskatu bezala gorpuztu direnen artetik, itsutasun orokor horretan, gogotikago estekatua nintzaiekeen, uste dut, eguzkia agurtzen zutenei, ororen argia

Munduko begia; eta Jainkoak buruan begiak badakartza,
Eguzki izpiak haren begi dirdiradunak dira,
Denei bizia demaienak, hazten eta zaintzen gaituztenak,
Eta mundu honetan giza ekintzak behatzen dituztenak:
Urtaroak egiten dizkigun eguzki eder, handia,
Bere hamabi etxeetarik jalgitzen edo sartzen den arabera;
Zeru-lurrak bere indar ezagunez baititu betetzen;
Begikaldi batez hodeiak baitizkigu ezabatzen:
Gogo, munduko arima, sutsu eta distirant,
Zerua oro inguratzen egun bateko ibilaldian;
Handigo gaitzekoa, biribil, ibiltari eta azkar;
Azpian baitu mundu osoa mugatzat;
Geldigabeko geldian; astidun eta asti gabe;
Naturaren seme lehena eta egunaren aita. 303

Haren handigo eta edertasunaz landara, geuregandik urrunena edireten dugun mekanika honetako zatia baita, eta, horregatik, hain guti ezaguna non barkagarriak baitziren harenganako miresmen eta agurtasunean sartzeagatik.

Talesek, honelako gaiak galdegin zuen lehenak, Jainkoa ikusi zuen gauza guztiak urez egin zituen izpiritu bat bezala; Anaximanderek, jainkoak aro ezberdinetan hiltzen eta sortzen zirela, eta munduak mugagabeak zirela zenbakitan; Anaximanese, airea Jainkoa zela, sortua eta baztergabea zela, beti ibiltari. Anaxagorasek, lehenik, gauza guztien deskribapen eta moldea izpiritu mugagabe baten indarrak eta arrazoiak zuzendua aipatu du. Alkmeonek jainkotasuna eman die eguzkiari, ilargiari, izarrei eta arimari. Pitagorasek Jainkoa egin du gauza guztien izaeretan hedaturik, gure arimak harengandik berezi baitira; Parmenidesek, zerua inguratzen duen uztai bat, argiaren sutasunaz mundua iraunaraziz. Empedoklesek bazioen jainkoak zirela gauza guztiak eginak diren lau lehengaiak; Protagorasek, ez zela esaterik, diren ala ez, edo zein diren; Demokritok, noiz irudiak eta haien inguradurak jainkoak direla, noiz irudi horiek egozten dituen natura, eta gero gure jakintza eta adimena. Platonek barreiatzen du bere sinesmena aurpegi ezberdinetan; Timeo-n dio munduaren aita ez dela izendatzen ahal; Legeetan, ez dela haren izateaz galdegin behar; eta beste lekuetan, liburu horietan berorietan, mundua, zerua, izarak, lurra eta gure arimak Jainkoak egiten ditu, eta onartzen ditu, gainera, errepublika bakoitzean erakunde zaharrak onartuak izan direnak. Xenofonek halako nahastea aipatzen du Sokratesen irakaskuntzaz; behin ez dela Jainkoaren moldeaz galdegin behar, eta gero finkarazten dio eguzkia Jainkoa dela, eta

arima ere bai; bat baizik ez dela, eta gero asko direla. Espeusipok, Platonen ilobak, Jainkoa egiten du gauzak zuzentzen dituen indar bat, eta animalia dena; Aristotelesek, orain izpiritua dela, orain mundua; orain beste nagusi bat demaio mundu honi, eta orain Jainkoa egiten du zeruko garra. Zenokratesek zortzi egiten ditu: bostak planeten artean izendatuak, seigarrena izar geldiek orok osaturik haren soinadarrak bezala, zazpigarrena eta zortzigarrena, eguzkia eta ilargia. Heraklides Pontikoak usteen artetik ibilkatzerik besterik ez dago, eta azkenean Jainkoa sentimenduz gabetzen du eta molde batetik bestera ibilgarria egiten du, eta gero dio zerua eta lurra dela. Teofrasto zalantza berdinaz badabil bere ameskeria guztietan barrena, munduaren zaingoa emanez behin adimenari, behin zeruari, behin izarrei; Estratonek, natura dela sortzeko, berretzeko eta gutitzeko ahalmena izanik, molderik ez zentzurik gabe; Zenonek, lege naturala, ongiaren manatzen eta gaizkiaren kondenatzen, lege hori arimaduna izanik, eta kentzen ditu ohiko jainkoak, Jupiter, Juno, Vesta; Diogenes Apoloniarrak, airea dela. Xenofanesez Jainkoa biribila egiten ditu, ikusle, entzule, hatsik gabe, giza izaerarekin antzekotasunik gabe. Aristonek Jainkoaren moldeari ulertezina deritzo, zentzuz gabetzen du eta ez daki arimadun edo besterik den; Kleantesek, behin arrazoia, behin mundua, behin bero goiena dena itzulirik eta inguraturik. Perseok, Zenonen adileak, uste izan du Jainkoa goitizendatu izan direla giza biziari ontasun nabarmen bat dakarkiotenak, eta gauza erabilgarriak berak ere. Krisipok nahas-mahas bat egiten zuen aurreko iritzi guztiekin eta, Jainkoaren mila moldeen artean, aipatzen zituen hilezin egin izan diren gizonak ere. Diagorasek eta Teodorok erabat ukatzen dute jainkorik denik. Epikurok jainkoak egiten ditu distiratsuak, argi eta haizearentzat zehargarriak, bi gotorlekuren artean bezala, bi munduren artean jarriak, ukaldietarik gerizatuak, giza itxuraz jantziak eta gure soinadarrez, soinadar horiek deustarako ez bazaizkie ere.

Ego deum genus esse semper duxi, et dicam cœlitum;

Sed eos non curare opinior, quid agat humanum genus ³⁰⁴.

Fida zaitez zeure filosofiaz; arrandia zaitez bada atzeman duzulako opilean, hainbat burumuin filosofikoen arramantza hau ikusiz! Munduko moldeen nahasteak ekarri dit neureez beste diren ohiturek eta ameskeriek ez nautela hainbat higuintzen nola irakasten, haien alderatzean ez naute hainbat harrotzen nola apaltzen; eta Jainkoaren esku zuzenetik ez datorren hautatze oro iruditzen zait lehentasun eskaseko hautaketa. Bazterrean uzten ditut bizimodu hastiagarriak eta naturaren aitzikoak. Munduko gobernuak ez dira gai horretan eskolak baino elkargarriagoak; nondik eta ikas baitezakegu zoria bera ez dela geure arrazoia baino ezberdin eta aldakorragoa, ez itsu eta arinagoa.

Gauzarik ezjakinenak jainkogarrienak dira. Horregatik geure buruaz jainkoen egiteak, aitzinaroak bezala, arrazoimenaren ezinagoko ahulezia gainditzen du. Gehiago nerraiekeen sugea, zakurra eta idia agurtzen zutenei; haien izaera eta izatea ezezagunagoak zaizkigun ber; eta zuzen gehiago dugu nahi dugunaren irudikatze basaihi horietaz eta ohiz landako ahalmenen emateko. Baina geure baldintzaz -honen eskasgoa ezagutu behar baitugu- jainkoen egitea, nahikundearen, haserrearen, mendekuen, ezkontzen, belaunaldien eta ahaidegoen, amodioaren eta bekaitzaren, geure soinadarren eta hezurren, geure sukarren eta atseginen, geure heriotzen, geure hilobien ematea, hori abiatu izan behar zen giza adimenaren mozkortasun miresgarri batetik,

Quæ procul usque adeo divino ab numine distant,

Inque Deum numero quæ sint indigna videri ³⁰⁵.

Formae, aestates, vestitus, ornatus noti sunt: genera, conjugia, cognationes, omniaque traducta ad similitudinem imbecillitatis humanae: nam et perturbatis animis inducuntur; accipimus enim deorum cupiditates, aegritudines, iracundas. Jainkotasunari ematea bezala ez soilik fedea, bertutea, ohorea, batasuna, libertatea, garaipena, urrikaria, baina

halaber ere nahikundea, amarrua, heriotza, bekaitza, zaharreria, eskasgoa, beldurra, sukarra, zorigaitza, eta gure bizi hauskor eta erorkorraren beste laidoak.

Qui juvat hoc, templis nostros inducere mores?

O curvæ in terris animæ et celestium inanes! 307

Egiptoarrek, zuhurtasun ausart batez, urkaren zigorpean debekatzen zuten inork esan zezan Serapis eta Isis, haien jainkoak, gizonak izan zirela behiala; eta denek zekiten izan zirela. Eta behatza aho gainean irudikaten zuen haien itxurak adierazten zuen, dio Varrok, haien apezei beren jatorri hilkorren isiltzeko manamendu ezageria, beren begirunea ezaba zezakeen arrazoi ezinbestekoagatik bezala.

Gizonak Jainkoarekin parekatzea hainbat nahi zuenez geroz, hobeki egin zukeen, dio Zizeronek, baldintza jainkotiarren bereganatzea eta hemen beheiti ekartzea, bere usteldura eta eskasgoaren hor goiti igortzea baino; baina, ongi hartzera, modu askotan egin du bata eta bestea, ustearen hutsalkeria berean.

Filosofoek beren jainkoen hierarkia xehekatzen dutenean eta lehiatiarenak egiten dutenean haien akordio, kargu eta ahalmenen bereizteko, ez dezaket sinets zinez mintzatzen direla. Platonek itxuratzen digunean Plutonen baratza eta gure gorputzen hondamenaren ondoan oraino igurikatzen gaituzten gorputzezko erraztasun eta nekeak, eta bizi honetan dugun mindurari egokitzen dizkionean,

Secreti celant calles, et myrtea circum

Sylva tegit; curæ non ipsa in morte relinquunt 308.

Mahomak bereei agintzen dienean parabisu oihaleztatu bat, urrez eta harri bitxiez apaindurik, edertasun bikaineko neskez populaturik, ardoez eta jaki bereziez, ongi badakusat gure zozokeriara makurtzen diren burlegileak direla, gure nahikunde hilkorri egokiak zaizkion uste eta esperantza horietaz gure eztitzeko eta erakartzeko. Eta guretarik zenbait halako hutsean erori dira, berpiztearen ondorako beren buruari aginduz bizi lurtiar eta denborazko bat, munduko atsegin eta erraztasun-mota orotaz lagundurik. Uste ote dugu Platonek, bere gogoetak hain zerutiarrak eduki dituenak, eta jainkotasunarekiko hainbat ezagutza non goitizena gelditu baitzaio³⁰⁹, gogoan hartu duela gizonak, izaki esteiari honek, bere baitan ukan lezakeela ahalmen ulertezin horri zegokiokkeen deusik? Eta uste izan duela gure oharmen ilaunduak eta gure zentzuen indarra betiereko zorion edo nekean parte hartzeko gaiak lirakeela? Giza arrazoiaren partez esan beharko litzaioke:

"Beste bizian agintzen dizkiguan atseginak hemen beheiti somatu ditudanetarik baldin badira, horrek ez dik betierekotasunarekin ikuskizunik batere. Ene bost zentzuak asetasunez beterik eta gogo hau nahi eta igurika dezakeen askiespen orok harturik balira ere, bazakiagu hark zer dezakeen: hori ez lukek oraindik ere deus ere. Baldin bada ene den zerbait, ez duk jainkozkorik batere. Hori ez bada gure orainaldiko baldintzari dagokiokkeenaz besterik, ez dezakek kontutan ezar. Hilkorren askiespen oro hilkorra duk. Gure gurasoen, seme-alaben eta adiskideen ezagutzak beste munduan hunkitzen eta kilikatzen bagaitu, halako atseginari oraino bagagozkio, erraztasun lurtiar eta mugatuetan gaituk. Ez zezakeagu zuzenik gogoan har agintza goren eta jainkozko horien handigoa, inola ere gogoan har baditzakegu ere: behar bezala irudikatzeko, irudikaezinak irudikatu behar dituk, ezinesanak eta ulertezinak, eta gure esperientzia eskasarenez osoki besterik. Eta horren gai bilakatzeko, gure izatea birrantolatzen eta aldatzen bada (hik, Platon, dioan bezala heure garbikundeen bidez) hain ezinagoko eta orokorreko aldatze batez izan behar duk non, fisikaren irakaspenaren arabera, ez baikara gu gehiago izanen,

Hector erat tunc cum bello certabat, at ille,

Tractus ab Æmonio, non erat Hector, equo 310.

quod mutatur, dissolvitur; interit ergo:

Trajicuntur enim partes atque ordine migrant 311.

"Zeren, Pitagorasen metempsikosian eta hark arimetan irudikatzen zuen bizilekuaren aldatzean, uste ote dugu Zesarren arima dagoen lehoia datxikiela Zesar hunkitzen zituen pasionei, eta bera dela? Oraindik bera bada ere, haiek arrazoia edukiko liketek, Platonen aurka uste hori gudukatzen zutenek erantzuki eginik semea gerta litekeela bere amaren zaldizkatzen, berau mando baten gorputzaz jantzirik, eta halako zentzugabekeriak. Eta uste ote dugu ihizien gorputzetarik espezie bereko beste zenbait egiten diren bilaketetan, etorri berriak ez direla beren aitzinekoen besterik? Fenix baten hautsetarik sortzen omen duk har bat, eta gero beste fenix bat; bigarren fenix hau, nork irudika dezake ez dela lehendabizikoaz besterik? Gure zeta dagiten harrak, ikusten dituk hiltzen eta idortzen bezala, eta gorputz horretarik berorretarik euli-farfail baten sortzen, eta hortik beste har bat, irrigarria bailitzateke oraindik lehena dela uste izatea. Behin izatetik eten dena, ez duk gehiago izaten,

Nec si materiam nostram collegerit ætas

Post obitum, rursumque redegerit, ut sita nunc est,

Atque iterum nobis fuerint data lumina vitæ,

Pertinet quidquam tamen ad nos id quoque factum,

Interrupta semel cum sit repentina nostra 312.

Scilicet, avolsis radicibus, ut nequit ullam

Displicere ipse oculus rem, seorsum corpore toto 313.

Inter enim jacta est vitæ pausa, vageque

Deerrarunt passim motus ab sensibus omnes 314.

Et nihil hoc ad nos, qui coitu conjugioque

Corporis atque animæ consistimus uniter apti 315."

Areago ere, haien zuzenbidearen zein funtsaren gainean ezagut eta sarista diezazkiokete jainkoek gizonari, hil ondoan, honen ekintza on eta bertutetsuak, haiek beraiek direnez geroz honen baitan bideratu eta eragin dituenak? Eta zergatik gaitzitzen dira eta haren bizkar ekintza biziosoak mendekatzen, haiek beraiek ezarri baitute egoera ahul horretan, eta begi-kliskada batez huts egiteko eragozten ahal dutenez geroz? Ez ote zuen Epikurok giza arrazoiaren itxura handiarekin Platoni hori erantzuki eginen, zuhurtitz honekin ez balu anitzetan bere burua estaliko: ezinezkoa dela izaera hilezinaz egiazko deusen finkatzea hilkorren bidez? Orotan errebelatzeaz baizik ez du egiten, baina bereziki jainkoen gauzetan nahasten delarik. Nork somatzen du guk baino ageriago? Zeren, hastapen egiazko eta huts gabeak eman izan bagenizkio ere, Jainkoak adierazi nahi izan digun egiaren kriseilu sailduaz haren urratsak argitzen bagenu ere, egunero badakusagu, alabainan, ohizko xendratik gutitarik baztertzen eta Elizak marratu eta eraiki bidetik urruntzen edo makurtzen bada ere, behatzen eta tratatzen dela, giza usteen itsaso gaitz, uher eta higikor honetan inguratzen eta zalantzatzen, bridarik eta xederik gabe. Bide handi eta ohi hori galtzen duen bezain sarri, badoa zatikatzen eta ezteusaten mila bidaxka ezberdinetan.

Gizona ez daiteke izaten denaz besterik izan; ez eta irudikatzen ahal bere ahalmenaren arabera baizik. Hantuste handiagoa zaie, dio Plutarkok, gizonik besterik ez direnei jainko eta erdi-jainkoen mintzatzerak eta eztabaidatzerak entseiatzea, ezen ez musika ez dakien gizon bati, kantatzen dutenak epaitu nahi izatea, edo gudazelaira sekula joan ez

zen gizon bati, gerraz eta armez iharduki nahi izatea, bere ezagutzaz landan dagoen lantze baten ondorioak entelegatzen dituela uste izaten ustezkatzeko arin batengatik. Zahargoak gogoetatu zuen, uste dut, jainkotasunaren handigoaren alde zer baiten egitea, gizonarekin parekatzean, haren ahalmenez janztean, eta haren aldarterik ederren eta beharkunderik ahalkegarrien ematean, gure jakiak bazkatzeko eskainiz, gure dantza, ihakinak eta toberak alaitzeko, gure jantziak estaltzeko eta etxeak egoteko, intzentsuen urrinez eta musikaren soinuez, besta eta bazkariak perekatuz, eta, gure pasione makurretara erakartzeko, mendeku basa batez haren zuzenbidea losintxatuz, berak sortu eta zaindu gauzen hondamen eta xahutzeaz alaituz (Tiberio Senpronio bezala, errearazi baitzuten, Vulkanoren ohorezko oparitan, Sardinian etsaien gainean berak irabazi puska aberatsak eta armak; eta Paulo Emiliok, Makedoniakoak Marte eta Minervari; eta Alexandrok, Indiar Ozeanora heldurik, itsasora egotzi zituen, Tetisen faboretan, urrezko ontzi asko); haren aldareak betez, gainera, ez bakarrik ihazi hobengabeen sarraski batez, baina gizonez ere bai, herri anitzek, eta besteen artean gureak, ohitura arruntean baitzuten horrela. Eta banago herririk batere ez dela horren entseia egin gabe,

Sulmone creatos

Quattuor hic juvenes, totidem quos educat Ufens,

Viventes rapit, inferias quos immolet umbris ³¹⁶.

Getarrek³¹⁷ hilezintzat daukate beren burua, eta haien hiltzea beren Zamolxis jainkoaren aldera abiatzeaz baizik ez da. Bost urtetan behin, haren aldera igortzen dute haietarik bat beharrazko gauzen eskatzeko. Ordezkarik hau zozketan bereizten da. Eta igortzeko modua hau da: ahoz jakinarazi ondoan bere mandatuaz, laguntzen dutenatarik hiruk zutik daukate beste hainbeste azkon, besteek haien gainera aurtikitzen dutelarik besaindarka. Gune hilgarrian burdinaztatzen gerta balekio eta bapatean hil baledi, jainkoen faborearen zinezko argudioa zaie; itzur baledi, gaizto eta gaitzesgarritzat jotzen dute, eta igortzen dute beste bat berdin.

Amestris, Xerxesen amak, zaharturik, behin batez bizirik ehortzarazi zituen hamalau mutiko, Persiako etxe hoberenetakoak, herriko erlijioari jarraikiz, lurpeko jainkoren baten eskertzeko.

Gaur egun oraindik ere, Temixtitlaneko idoloak hazten dira haurren odolaz, eta ez dute haur arima garbi horien sarraskiaz baizik maitatzen: zuzenbidea hobengabetasunaren odolaz gose,

Tantum religio potuit suadere malorum ³¹⁸!

Kartagotarrek Saturnori sarraskitzen zizkioten beren seme-alabak; eta ez zuenak erosi egiten zituen, aita eta ama, halarik ere, ofizio horretan itxura alai eta atseginarekin egotera bortxatuak izanik. Ameskeria bitxia zen jainkoen ontasuna ordaindu nahi izatea gure atsekabeaz, lakedemoniarrek bezala beren Diana berekatzen baitzuten mutil gazteen oinazearekin, haren faboretan azotatzen baitzituzten, maiz hiltzerainokoa. Aldarte basa zen arkitektoari saristatu nahi izatea bere eraikuntzaren erauztearekin, eta hobendunei zor zaien zigorra bermatu nahi izatea hobengabeen zigorrarekin; eta Ifigenia gaizoak, Aulidako portuan, arin zezan grekoen armada egin laidoz Jainkoari buruz, bere hiltze eta sarraskiaren bidez:

Et casta inceste, nubendi tempore in ipso,

Hostia conciederet mactatu mæsta parentis ³¹⁹.

Eta bi aita-seme Deziotarren bi arima eder eta eskuzabal haiek, eginkizun erromatarren aldeko jainkoen faborearen erakartzeko, gorputz soilean joan baitziren etsaien erdirik trinkoenera.

Quae fuit tanta deorum iniquitas, ut placari populo Romano non possent, nisi tales viri occidissent? Gainera, ez dagokio gaizkileari bere neurri eta orduaren arabera bere

buruaren azotaraztea; epaileari dagokio, manatzen duen zigorraz baizik ez baitu kontutan hartzen, eta ez baitu zehalditzat ematen ahal pairatzen duenari gogotik datorkiona. Jainkozko mendekuak aitzinetik ematen du gure osoko ezadostasuna haren zuzenbide eta gure nekerako.

Polikrates, Samosen tiranoaren aldartea irrigaria zen ere, bere etengabeko zorionaren ibilaldiaren eteteko eta ordaintzeko, egoztera joan baitzen itsasora zeukan harri bitxirik ederrena, askiesten ziolakoan, zorigaitz antolatu horren bidez, zoriaren iraultza eta gorabeherari; eta honek, haren zuntzunkeriaz burlatzeko, oraino itzularazi zuen harri bitxi hori haren eskuetara, arrain baten sabelean aurkiturik. Eta gero, zertarako koribante eta menadeen³²¹ urratze eta zehakatzek, eta, gure aroaz, musulmanenak, orbaintzen baitituzte beren aurpegiak, urdaila eta soinadarrak beren profetaren saristatzeko, laidoa nahikundean baitatza, eta ez bularrean, begietan, ernaltzeko zatietan, sabelean, sorbaldetan eta zintzurrean. Tantus est perturbatae mentis et sedibus suis pulsae furor, ut sic Dii placentur, quemadmodum ne homines quidem saeviunt.

Egitura natural hau badagokigu ez bakarrik geuri haren erabilerarako, baina Jainkoaren eta beste gizonen zerbitzuari ere: zuzengabea da gaizki erabiltzea geure jakiera, edozein aitzaki den ere geure buruaren hiltzea bezala. Badirudi laxakeria eta tradiketa handia dela gorputzaren ahalmen ergel eta morroien bastartzea eta usteltzea, gogoari arrazoiaren arabera haien zuzentzeko axolaren arintzeko.

Ubi iratos deos timent, qui sic propitios habere merentur? In regiae libidinis voluptatem castrati sunt quidam; sed nemo sibi, ne vir esset, jubente domino, manus intulit.

Horrela ere du gaizto anitzez betetzen zuten beren erlijioa, sapius olim

Relligio peperit scelerosa atque impia facta ³²⁴.

Guretik deus ere ez da, zernahi moduz bada ere, jainkozko izaerarekin alderatzen edo hurbiltzen ahal, hainbat akatsez zikindu eta markatu gabe. Edertasun, ahalmen eta ontasun mugagabe horrek nola jasan dezake egokitze eta antzekotasun zerbait garen bezalako gauza apalarekin, haren jainkozko handitasunaren galtze eta kalte handirik gabe?

Infirmum dei fortis est hominibus, est stultum dei sapientius est hominibus.

Estilpo filosofoak, jainkoek gure ohore eta opariez gozatzen zuten galdeginik, erantzun zuen: “Ahozabala zara zu; bazter gaitezen, horretaz mintzatu nahi baduzu.”

Hala ere mugak ezartzen dizkiogu, haren ahalmena geure arrazoiez setiatuak daukagu (arrazoia deitzen diet gure lilurakeria eta ametsei, filosofiaren baimenarekin, zeren baitio zoroa bera eta gaiztoa eromenetan dabiltzala arrazoiak, baina molde bereziko arrazoia dela); geure adimeneko itxura hutsal eta ahuletara apaldu nahi dugu, guhaur eta geure ezagutza egin duen hura. Ezer eretik ezer ere ez baita egiten, Jainkoak ez zezakeen mundua eraiki gairik gabe. Zer! Jainkoak eskuetan ezarri ote dizkigu bere ahalmenaren giltzak eta azken gakoak? Bere burua behartu du gure jakintzaren mugen ez gainditzera? Emak, gizona, hatzeman ahal dituala haren egitekoen hondar zenbait: uste ote duk erabili izan duela ahal duen guztia ekintza honetan? Ez duk hagoen horko xoko eskaseko orden eta antolabiderik besterik ikusten, ikusten baduk behintzat: haren jainkotasunak badik haratago mugagabeko menekotasun bat; zati hau ez duk deus ere ororen aldean:

omnia cum cælo terraque marique

Nil sunt ad summam summai totius ommem ³²⁶:

herriko araua duk hik aipatzen duana, ez dakik unibertsa zein den. Lot hakio lotzen zaiari, baina ez hura; ez duk heure anakide, edo hirikide, edo adiskide; inola ere harremanetan bada hirekin, ez duk hire fitskeriara apaltzeko, ez eta hiri haren ahalmenaren zuzendaritzaren emateko. Giza gorputza ez duk hodeietara hegaldatzen

ahal, hiretzat duk; eguzkiak bazabilek etengabe bere ohizko bidetik; itsas eta leihorretako mugak ez dituk nahasten ahal; ura egongaitza eta gotortasunik gabea duk; harresi bat, artakarik gabe, sartzinezkoa zaiok gorputz sendo bati; gizonak ez zezakek bere bizia gorde sugarretan; ez zagokek zeruan eta lurrean eta mila lekuetan batean gorputzezki. Hiretzat egin ditik arau horiek; hiri dagozkik. Kristauei lekukotasuna eman ziek denak gainditu dituela nahi izan duenean. Zinez, zergatik, den bezain guztiahalduna, mugatuko lituzke bere indarrak neurri zerbaitetara? Noren faboretan uko eginen lioke bere lehentasunari? Heure arrazoiak ez dik egiantz eta funts gehiagoko gauzarik munduen aniztasuna sinestarazten dianean baino gehiago:

Terramque, et solem, lunam, mare, cætera quæ sunt

Non esse unica, sed numero magis innumerali ³²⁷.

Iragan aroko gogorik ospetsuenek sinetsi dute, eta guretarik zenbaitek ere, arrazoiaren itxurak beharturik. Hainbat non ezagutzen dugun eraikuntza honetan deus ere ez baita bakar eta bat,

Cum in summa res nulla sit una,

Unica quæ gignatur, et unica solaque crescat ³²⁸,

eta espezie guztiak ugaltu baitira hainbatetan ere; nondik eta baitirudi ez dela itxuragarria Jainkoak egin duela ekintza bat bakarra lagunkiderik gabe, eta molde honen gaia osoki akitua izan dela lagun bakar honetan:

Quare etiam atque etiam tales fateare necesse est

Esse alios alibi congressus materiai,

Qualis hic est avido complexu quem tenet æther ³²⁹:

bereziki arimadun bat baldin bada, bere mugimenduek hain sinesgarria egiten dute non Platonek segurtatzen baitu, eta guretarik askok baieztatzen edo gezurtatzera ausartzen ez baitira; zerua, izarrak, eta munduko beste zatiak gorputzez eta arimaz osatu izakiak, hilkorak beren osaketaz baina sortzailearen erabakiaz hilezinak direlako uste zahar hura bezala. Beraz, mundu asko baldin bada, Demokritok, Epikurok eta kasik fisolofia osoak uste izan duen bezala, zer dakigu honen hastapen eta arauak ote dagozkien berdin besteei? Badute, menturaz, beste aurpegia eta beste antolabidea. Epikurok irudikatzen ditu antzekoak edo ez antzekoak. Mundu honetan mugagabeko ezberdintasun bat ikusten dugu bakarrik lekuen urruntasunagatik. Gure gurasoek ediren dituzten lur berri haietan ez da garirik, ez ardorik, ez gure ihizietarik batere ikusten; dena besterik da. Eta, iragan aroan, ikus ezazu munduko zenbat aldeetan ez zen Bakoren ez Zeresen ³³⁰ ezagutzarik. Plinio eta Herodoto sinetsi nahi duenarentzat, eskualde zenbaitetan badira gizon-motak gurearekin hagitz antzekotasun guti daukatenak.

Badira, giza eta basa izaeren artean, molde nahasi eta ezbaiezkoak. Badira gizonak bururik gabe sortzen diren eskualdeak, begiak eta ahoa bularrean eramalik; guztiak androginoak direnak; lau hankatan dabilzkanak, kopetan begi batez baizik ez daukatenak, eta burua zakur batena gehiago dirudiena gurea baino; beheko erdian arrainak direnak eta uretan bizi direnak; emakumeak bost urtetan erditzen direnak eta zortzi baizik bizi ez direnak; burua eta kopetako larrua hain gogorra dutenak non burdinak ez baitezake ausiki eta kontra errebotatzen baita; gizonak bizarrik gabeak direnak; suaren erabilerarik ez ezagutzarik gabeko herriak; besteak hazia kolore beltzekoa isurtzen dutenak.

Eta zer, berez otso, asto, eta gero oraino gizon bilakatzen direnak? Eta, hala bada, Plutarkok dioen bezala, Indietako eskualde batean badirela ahorik gabeko gizonak, usain zenbaitez hazten direnak, gure deskribapenetarik zenbat dira faltsuak? Ez da irri egiteko gai, eta menturaz, arrazoi eta lagunarteko gai ere ez. Gure barreneko eraikuntzaren antolabide eta kausarik gehienak soberazkoak lirateke.

Areago ere, zenbat gauza badira gure ezagutzen naturari markatu eta manatu dizkiogun arau ederrak gudukatzen dituztenak? Eta Jainkoa bera estekatu nahi dugu! Zenbat gauza deitzen dugu miresgarri eta naturaren aurka? Hori egiten ohi du gizon eta herri bakoitzak bere jakinezaren neurriaren arabera. Zenbat berezitasun eta funtsezkotasun gorderik aurkitzen dugu? Zeren, naturaren arabera joatea, guretzat, geure adimenaren arabera joateaz baizik ez baita, berak darraikeen eta guk ikusten dugun bezainbat: haratago dagoena harrigarri eta antolamendurik gabea da. Beraz, honen arabera, aditu eta jantzienentzat dena harrigarri izanen da: zeren giza arrazoiak sinestarazi baitie oinarririk ez funtsik batere ez duela, ez eta elurra zuria den segurtatzeko ere (eta Anaxagorasek dio beltza dela) gauza zerbait baden, ala gauzarik batere ez den; jakintza ala jakineza den (Metrodoro Kiok ukatzen zuen gizonak halakorik lerrakeenik); edo bizi garen ere: Euripides zalantzan dagoen bezala bizia den bizi dugun bizia, ala heriotza deitzen duguna bizia den:

Τιζ δοιδεν ει ζην τουθ ο κεκληται θανειν,

Το ζην δε θνεσκειν εστι. ³³¹

Eta ez itxurarik gabe: zergatik hartzen dugu izatearen izenburua, betiereko gau baten ibilaldi mugagabeko baten ximixta batez besterik ez den eta gure baldintza betiereko eta naturalaren hain eten laburra den istant honetarik? heriotzak harturik istant honen aitzinalde eta gibelalde osoa, eta oraino istant honen zati on bat. Besteek zin dagite higitzerik ez dela, deus ez dabilela, Melisoren jarraitunek bezala (zeren, izate bat bakarra bada, higikunde esferikoak ez baitiezaioke balio, ez eta leku batetik besterako higikundeak, Platonek frogatzen duen bezala) naturan ez dela ez sortzerik ez usteltzerik. Protagorasek dio naturan deus ere ez dela zalantzez besterik; gauza orotaz, berdin eztabaida daitekeela, eta horretaz berorretaz ere, ea berdin eztabaida daitekeen gauza orotaz; Nausifanesez diruditen gauzetan deus ez dela ez dena baino gehiago eta segurtasunik ezaz beste segurtasunik ez dela; Parmenidesek dirudiena ez dela orokorrean gauzarik batere, bat besterik ez dela; Zenonek batere ez dela, eta deus ere ez dela.

Bat balitz, balegoke beste ala bere baitan; beste baitan badago, bi dira; bere baitan badago, bi dira oraindik ere, edukilea eta edukia. Dogma hauen arabera, gauzen natura ez da itzal faltsu edo hutsal batez baizik.

Beti iruditu zait gizon kristau baten baitan mintzo hau neurririk eta begirunerik ezaz beterik dela: Jainkoa ez daiteke hil, Jainkoak ez dezake bere burua gezurta, Jainkoak ez dezake hori edo hura egin. Ez dut on aurkitzen jainkozko ahalmenaren horrela hestea gure hitzaren legepean. Eta esaldi horietan agertzen zaigun itxura zorrozki eta erlijioskiago adierazi beharko zen.

Gure mintzoak baditu bere ahuleziak eta akatsak, gainerako guztiak bezala. Munduko nahasbiderik gehienak gramatikalak dira. Gure auziak ez dira legeen itzulpenaren eztabaidatik baizik sortzen; eta gerrarik gehienak, printzeek hitzarmen eta akordiozko tratatuen garbiki adierazten ez jakiteagatik. Zenbat liskar eta zein inportanteak eragin ditu munduan silaba honen zentzuaren zalantzak: hoc ³³²! Har dezagun logikak berak agertaraziko digun perpausik garbiena bezala. Badiozu: aro ederra da, eta egia badiozu, aro ederra da, beraz. Ez ote da mintzatzeko modu egiazkoa? Oraindik engainatuko gaitu. Hala delarik, jarrai diezaiozun ereduari. Badiozu: gezurra diot, eta egia badiozu, gezurra diozu beraz. Honen ondorioaren antzea, arrazoia, indarra bestearenak bezala dira; halarik ere, hona lohitzuan sarturik garela. Badakuskit beren gogoeta nagusia ezein mintzalmoldeaz ezin adieraz deketeen filosofo pirroniarrak, mintzaira berri bat behar bailukete. Gurea arras etsaiak zaizkien baiezkosaldiez osoki moldaturik baita: Halako molde non, badiotenean: , berehala atxikitzen baitzaie zintzurretik aitorrarazteko hori bederen dakitela, zalantzan daudela. Horrela behartuak izan dira sendagintzaren

alderaketa honetan itzuri egitera, hura gabe haien aldarte adierazina bailitzateke; ahoskatzen dutenean: , edo , badiote esaldi horrek bere burua daramala, garaitikoarekin batean, arabarbak bezala hezabizi gaiztoak kanpora bulkatzen baititu eta haiekin batean bere burua ere bai.

Ameskeria hori segurkiago hartzen da gogoan galdegitearen bidez: “Zer dakit?” nik balantza baten zuhurtitzean daramadan bezala.³³³

Ikusazu nola aitzinetik presta daitekeen begirunerik ezaz beterik den mintzamolde honen kontra. Orain gure erlijioan diren eztabaidetan etsaiak sobera hertsatzen badituzu, esanen dizute arras zakarki ez dela Jainkoaren ahalmenean bere gorputza parabisuan eta lurrean, eta horrekin batean leku askotan egon dadin. Eta aitzineko burlegile horrek³³⁴ nola egiten duen bere mozkina! Ez zaio, behintzat, ez, kontsolamendu arina gizonari, dio, Jainkoak gauza guztietarako ahalik ez izatea; zeren ez baitezake bere burua hil nahi dezanean, gure baldintzean daukagun faborerik handiena baita; ez ditu hilkorrak hilezin bilakatzen ahal; ez zenduak berpizten ahal; ez bizi izan dena bizi izan ez zedin; bere ohoreak eduki dituen eduki izan ez zetzan; iraganaren gainean ahanztearen zuzenbiderik besterik ez edukirik. Eta, gizonaren Jainkoarenganako elkargo hau berdinagoa izan dadin eredu irigarrien bidez, ez dezake egin bi aldiz hamar hogeia izan ez daitezen. Horra zer dioen, eta kristau batek bere ahotik iragaitetik begiratu beharko lukeena, artean, aitzitik, badirudi gizonek bilatzen dutela mintzairako libertate zoro hori Jainkoaren beren neurrira eramateko,

cras vel atra

Nube polum pater occupato,

Vel sole puro; non tamen irritum

Quodcumque retro est, efficiet, neque

Diffinget infectumque reddet

Quod fugiens semel hora vexit ³³⁵.

Badiogunean iragan eta etorkizuneko mendeen mugagabetasuna ez zaiola istant batez baizik Jainkoari; haren ontasuna, jakintza, ahalmena gauza bat eta bera direla haren izatearekin, geure hitzak badio, baina geure adimena ez datxikio. Eta, halarik ere, geure harrokeriak iraganarazi nahi du jainkotasuna geure zetabetik. Eta hortik sortzen dira munduari datxikizkion ameskeriak eta hutsak oro, eramanik eta bere pisutik hain urrun den gauza bere balantzan pisaturik. Mirum quo procedat improbitas cordis humani, parvulo aliquo invitata successu.

Zein ozarki ausikitzen dute estoikoek Epikuro, honek baitio Jainkoari baizik ez dagokiola zinezko izate on eta zorionekoa, eta gizon zuhurrak haren itzalik eta antzekotasunik besterik ez duela! Zein ausarki estekatu diote Jainkoa zoriari (ene irudiko, kristau izeneko zenbaitek oraindik egiten duten bezala!) eta Talesek, Platonek eta Pitagorasek beharraren morroi egin dute! Jainkoa gure begiez ediren nahiaren harrokeria horrek eragin du guretarik pertsonaia handi batek³³⁷ eman diola jainkotasunari gorputzezko molde bat. Horregatik egunero gertatzen zaigu Jainkoari muntako gertakarien ematea bereziki. Pisatzen zaizkigulako, badirudi pisatzen zaizkiola ere eta osokiago eta ernekiago behatzen duela haietan arinak edo jarraipen arruntekoak zaizkigun gertakarietan baino. Magna dii curant, parva negliunt Entzun haren adibidea, argituko dizu haren arrazoiak: Nec in regnis quidem reges omnia minima curant.

Inperio baten edo zuhaitz hosto baten erabiltzea gehiago edo gutiago balitzaio bezala, probidentziak besterik arituko balitz bezala guda baten garaipen eta kukuso baten jauziaren makurtzean! Molde, indar eta orden berean lotzen zaie gauza guztiei haren

manamenduaren eskua; gure interesak ez dakar ezer; gure higikundeek eta neurriek ez dute hunkitzen.

Deus ita artifex magnus in magnis, ut minor non sit in parvis. Geure harrokeriak ezartzen digu beti aurrean itxura biraokoi hori. Geure lanek zamakatzen gaituztelako, Estratonek jainkoak gabetu ditu lanbide mota guztietaz, haien apezak diren bezala. Naturari sor eta iraunarazten dizkio gauzak oro, eta haren pisu eta mugimenduez eraikitzen ditu munduko zatiak, jainkozko epaiketen beldurraz arintzen duelarik giza izaera. Quod beatum aeternumque sit, id nec habere negotii quicquam, nec exhibere alteri. Naturak nahi du gauza berdinetan harreman berdina izan dadin. Beraz, hilkorren zenbaki mugagabeak ondoriatzen du hilezinen zenbaki mugagabe berdina. Hiltzen eta kalteatzen duten gauza mugagabeek aitzinetik ematen dituzte iraunarazten eta aberasten duten beste hainbeste. Jainkoaren arimek bezala, mihirik, begirik, belarririk gabe elkarren artean somatzen dute besteak somatzen duena, eta gure gogoetak epaitzen dituzte: halaber gizonen arimek, loaren edo lilura baten bidez gorputzetik libre eta laxaturik daudenean, asmatzen, aztiatzen eta ikusten dituzte gorputzean nahasirik ikus ez litzaketeen gauzak.

Gizonak, dio San Paulok, ero bilakatu dira, zuhurrak direla ustez; eta Jainkoaren loria ustelezina gizon ustelkorren irudi bilakatu dute.

Ikustazu apur bat jainkotze zaharren eraikuntza hau. Ehorzketaren ospe handi eta hanpatuaren ondoan, suak izekitzen ziolarik piramidearen gaineko aldeari eta zenduaren oheari, arrano bat uzten zuten itzurtzera, goiti hegaldatzearekin, arima parabisura zihoala esan nahi baitzuen. Baditugu mila domina, eta bereziki Faustina³⁴² emakume zintzo horrena, arrano hori irudikatua baita arima jainkotu horiek zeru aldera hatzapatuturik daramatzala. Urrikalgarria da guk geure burua engaina dezagun geure ziminokeria eta asmakeriez,

Quod finxere, timent ³⁴³:

haurrak bezala, izitzen baitira beren lagunari margotu eta belztu dioten aurpegiagatik. Quasi quicquam infelicius sit homine cui sua figmenta dominantur Egin dugunaren ohoratzea urrun da egin gaituenaren ohoratzetik. Augustok ukan zituen Jupiterrek baino tenplo gehiago, hainbat erlijio eta mirakulu sinesmenarekin zerbitzatuak. Tasiarrak³⁴⁵, Agesilaogandik ukan zituen faboreen saritan, joan zitzaizkion esatera kanonizatu zutela: Biziki zoroa da gizona. Ez lekike har baten moldatzen, eta moldatzen ditu Jainkoak mukuruka.

Entzun Trismegisto gure jakintzaren laudoriatzen: Gizonak jainkozko izaera ediren ahal izateak eta egiteak miresgarrien ororen miresmena gainditu du.

Hona filosofiaren eskola beraren argudioak,

Nosse cui Divos et cæli numina soli,

Aut soli nescire, datum ³⁴⁶.

Jainkoa bada, animalia da; animalia bada, zentzua du; eta zentzua badu, ustelkorra da. Gorputzik gabea bada, arimarik gabea da, eta beraz ekintzarik gabea; eta, gorputza badu, hilkorra da. Horra garaipena, ez?

Ez gara munduaren egiteko gai; bada beraz izaera bikainago bat eskua ezarri duena. - Harrokeria ergela litzateke geure buruaren jotzea unibertso honetako deusik osatuena; bada beraz deus hoberik; hori Jainkoa da. -Egoitza aberats eta apain bat dakusazularik, nagusia nor den ez dakizun ere, ez duzu xaguek egina dela esanen. Eta dakusagun zeruko jauregiko egitura jainkozko hau, ez dugu sinetsi behar garen baino nagusi handiago baten egoitza dela? Gorena ez da beti ohoragarriena? Eta gu behean jarriarik gaude. -Arimarik eta arrazoirik gabe deusek ez dezake arrazoigai arimadun bat egin. Munduak egiten gaitu, badu beraz arima eta arrazoia. Gure zati bakoitza gu baino

gutiago da. Gu munduaren zati bat gara. Mundua, beraz, zuhurtziaz eta arrazoi-
hornitua da, eta gu baino ausarkiago. -Gauza ederra da antolabide handi baten
edukitzea. Munduko antolabidea badagokio, beraz, izaera zorioneko bati. -Izarrek ez
digute kalterik egiten; ontasunez beteak dira, beraz. -Hazkurriaren beharrean gaude;
horrela dira, beraz, jainkoak, eta beheiti honetako lurrinez bazkatzen dira. Munduko
ontasunak ez dira Jainkoarentzat; beraz, ez dira guretzat. -Laidostatzea eta laidoturik
izatea berdin dira ergelkeriaren lekukotasunak; zorakeria da, beraz, Jainkoaren beldur
izatea. -Jainkoa on da izatez, gizona lantzez, areago baita. -Jainkozko eta giza
zuhurtziek ez dute beste ezberdintasunik, baizik eta hura betierekoa dela. Iraupena,
beraz, ez da zuhurtziarako bide bat; horregatik horra lagunkideak garela. -Bizia, arrazoa
eta libertatea dugu, ontasuna, urrikaria eta zuzenbidea onesten ditugu; nolakotasun
horiek, beraz, haren baitan dira. Hitz batez, eraikitzea eta desegitea, jainkotasunaren
baldintzak gizonak moldatzen ditu, bere buruarekiko egokieraren arabera. Zein molde
eta zein eredu! Heda, gora, eta hanpa ditzagun giza nolakotasunak nahi dugun
bezainbat; haiza hadi, gizagaizoa, eta areago, eta areago, eta areago ere:

Non, si te ruperis, inquit ³⁴⁷.

Profecto non Deum, quem cogitare non posunt, sed semetipsos pro illo cogitantes, non
illum sed se ipsos non illum sed se ipsos non illi sed sibi comparant.

Gauza naturaletan, ondorioak ez zaie erdizka baizik beren kauei egokitzen: honetan zer
izanen da? Naturaren ordenaren gainean da; haren baldintza sobera gora, sobera urrun
eta sobera nagusi da gure ondoriatzeek lot eta esteka dezaten jasateko. Ez da guregandik
heldzen, bide hau sobera apal da. Ez gara zerutik hurbilago Zenis³⁴⁹ mendiburuan itsas
hondoan baino; iker ezazu, ikusteko, zeure astrolabioa. Jainkoa daramate
emakumeekiko haragizko elkartzeraino: zenbat aldiz, zenbat belaunalditan? Paulina,
Saturninoren emaztea, omen handiko anderea Erroman, Serapis jainkoarekin etzaten
zela uste izanik, bere maitemindu baten besoetan aurkitu zen tenplo horretako apezan
arartekatzeagatik.

Varro, egile latinorik zorrotz eta jakileenak, bere Teologia-ko liburuetan, idazten du
Herkulesen bereterrak, zoritan botatzen, esku batez beretzat, besteaz Herkulesentzat,
haren kontra jokatu zituela afari bat eta neska bat: irabazten bazuen, eskaintzen bizkar;
galtzen bazuen, bere bizkar. Galdu zuen, ordaindu zituen bere afaria eta neska. Honen
izena Laurentina izan zen, gauaz ikusi baitzuen jainko hori bere besoetan, esanik
gainera biharamunean ikusiko zuen lehenak zerutiarki ordainduko ziola bere soldata.
Taruntio izan zen, gizon gazte aberatsa, bere etxera eraman baitzuen eta, denboraren
buruan, herederoa egin baitzuen. Laurentinak, bere aldetik, jainko horri atsegin zaion
zerbaiten egiteko ustetan, herri erromatarra utzi zuen herederoa: horregatik jainkozko
ohoreak eman zitzaizkion.

Nola ez baitzen aski bi aldetarik Platon jatorriz eratorria izan zedin jainkoengandik, eta bere
arrazaren egileztat Neptuno eduki zezan, Atenasen egiatzat hartua izan zen Aristonek, bere
Periktiona ederraz gozatu nahian, ez zezakeela; eta ametsetan Apolo jainkoak gaztigaturik
izan zen oso eta ukitu gabea uzteko erdia izan zedin arte; Platonen aita-ama ziren³⁵⁰. Zenbat
dira, historietan, jainkoek ordezkatu dituen horrelako adartzeak gizaki gaizoen aurka? Eta
seme-alaben faboretan irainki laidostatu senarrak?

Mahomaren erlijioan, jende horren sinesmenagatik, aurkitzen dira Merlin³⁵¹ asko: esan
nahi baita, aitarik gabeko haurrak, izpirituzkoak, jainkozki sorturik birjinen sabeletarik;
eta badaramate hori adierazten duen izen bat.

Ohartarazi behar dugu gauza bakoitzari ez zaiola bere izatea baino deus maiteagorik
(lehoiak, arranoak, itsasurdeak ez dute deus ere hartzen bere ezpeziearen gainetik); eta
bakoitzak badakartzala beste gauza ororen nolakotasunak bere nolakotasunen aldera;

horiek hedatzen eta laburtzen ahal ditugu ongi, baina hori da dena; zeren, harreman eta hastapen horretaz landara, gure irudimena ez daiteke joan, ez dezake beste bat asma, eta ezinezkoa baita hortik atera eta harago iragan dadin. Nondik eta sortzen baitira ondorio zahar hauek: molde orotan, ederrena gizonarena da; Jainkoa, beraz, molde honetakoa da. Inor ez daiteke bertuterik gabe dohatsu izan, ez bertutea arrazoirik gabe izan, ez arrazoirik batere giza itxuraz landan egon; Jainkoa, beraz, giza itxuraz jantzirik da.

Ita est informatum, anticipatum mentibus nostris ut homini, cum deo cogitet, forma occurrat humana

Horretaz zioen atseginki Xenofanesez ihiziek jainkoak moldatzen badituzte, egin ditzan itxurazkoa den bezala, egiazki beren buruaz moldatzen dituzte eta loriatzen dira, gu bezala. Zergatik ez du antzarkume batek esanen ere: "Unibertsoko zati guztiak niri begira daude; lurak balio dit ibiltzeko, eguzkiak argitzeko, izarrek haien eraginaren iradokitzeke; haizeetarik halako abantaila dut, uretarik holakoa; deus ere ez da zerusabai honek ni baino faboragarriago behatzen duenik; naturaren kuttuna naiz; ez ote da gizona zaintzen, gerizatzen eta zerbitzatzen nauena? niretzat ereiten eta ehotzen du; jaten banau, beste hainbat badagi ere bere giza lagunarekin, eta nik egiten ditut hiltzen eta jaten duten harrak." Beste hainbeste lerrake lertxun batek, eta handikiago oraino bere hegaldatzearen libertate eta eskualde eder eta gora horren edukitzeagatik: tam blanda conciliatrix et tam sui est lena ipsa natura .

Beraz, horren berorren arabera, guretzat dira zoriak, guretzat mundua; argitzen du eta ortotsak baderauntsa guretzat; sortzailea eta sortuak, dena da guretzat. Gauzen orokorrak jotzen duen xedea eta heina da. Begira filosofiak gorde duen, bi mila urtetan eta gehiago, zeruko egitekoen erregistroa: jainkoek ez dute egin, ez dira mintzatu, gizonarentzat baizik; ez die beste gogoetarik ez beste ikerpenik ematen: horra gure aurkako gerran,

domitosque Herculea manu

Telluris juvenes, unde perculum

Fulgens contremuit domus

Saturni veteris ³⁵⁴;

hona gure nahasmenduen parte hartzaileak, hainbat aldiz haietan parte hartu dugulako berdina guri bihurtzeko,

Neptunus muros magnoque emota tridenti

Fundamenta quatit, totamque a sedibus urbem

Eruit. Hic Juno Scæas sævissima portas

Prima tenet ³⁵⁵.

Kauniarrak³⁵⁶, bere jainkoen menpetasunaren aldeko axolagatik, haien debozioko egunean armak bizkarrean hartzen dituzte, eta lasterkatzen dute beren auzo osoa, hemendik eta handik beren ezpataz airea jotzen, oldartuz eta kanporatuz horrela jainko arrotzak beren lurraldetik. Haien ahalmenak moldatuak izaten dira gure beharraren arabera: zaldiak sendatzen dituen, gizonak sendatzen dituen, izurritea, ezkabia, eztula, sarna-mota bat, beste bat adeo minimis etiam rebus prava religio inserit deos ; mahatsak sortarazten dituen, baratxuriak; lizunkeriaz arduratzen dena, salmentaz (eskulangile-arraza bakoitzarentzat jainko bat), bere lurraldea eta sinesmena ekialdean duena, mendebaldean:

hic illius arma,

Hic currus fuit ³⁵⁸.

O sancte Apollo, qui umbilicum certum terrarum obtines! ³⁵⁹

Pallada Cecropidæ, Minoïa Creta Dianam,

Vulcanum tellus Hipsipilea colit,

Junonem Sparte Pelopeiadesque Mycenæ!

Pinigerum Fauni Mænalis ora caput;

Mars Latio venerandus ³⁶⁰.

auzo edo familia bat bakarrik duena, bakarrik bizi dena; beharrezko edo nahietsi lagungoan bizi dena.

Juntacque sunt magno templa nepotis avo ³⁶¹.

Hain xume eta herrikoiak dira (zenbakia hogeitamar milaraino hedatzen baita), non bospasei metatu behar baitira galburu baten egiteko, eta badituzte beren izen ezberdinak; ate batean hiru: xafla, txanga eta atalpekoarena; haur batengan lau: xatar, edate, jate eta diti hartzearena; zenbait egiazko, zenbait zalantza eta dudagarriak; zenbait oraindik parabisuan sartzen ez direnak:

Quos quoniam cæli nondum dignamur honore,

quas dedimus certe terras habitare sinamus ³⁶²,

badira fisikoak, poetikoak, zibilak; zenbait jainkozko eta giza izaeren erdikoak, arartekoak, Jainkoarekiko gure mandatariak; bigarren mailako agurtasun molde xumegarri baten bidez agurtuak; izenburu eta ofizioetan mugagabeak; batzuk onak, besteak gaiztoak. Badira zahar eta hautsiak, eta hilkorrek ere bai: Krisipok uste baitzuen munduko azken lehertzean jainkoak oro amaitu behar zirela, Jupiter salbu. Gizonak moldatzen ditu Jainkoaren eta bere artean mila elkargo irrigarri. Ez ote da bere herkidea?

Jovis incunabula Creten ³⁶³.

Hona, gai honen gogoetan, Szevola, pontifize handiak, eta Varro, teologo handiak, beren aroan ematen digun aitzakia: Jendeak jakin ez ditzan egiazko gauza anitz, eta gezurrezko anitz sinets ditzan behar dela: cum veritatem qua liberetur, inquirat, credatur ei expedire, quod fallitur..

Giza begiak ez dakizkieke gauzei ohar non ez den beren ezagutzaren moldepean. Eta ez gara oroitzen zein jauzi egin zuen Faeton³⁶⁵ esteiariak bere aitaren zaldien bridak esku hilkor batez zuzendu nahi izateagatik. Gure gogoan barrentasun berdinean baderor, berdin ezabatzen eta arramaskatzen da, bere ausartziagatik. Filosofiari geldegiten badiozu zerezkoak diren zerua eta eguzkia, zer erantzunen diozu hark baizik eta burdinez, edo Anaxagorasekin, harriz, edo gure erabilerako halako zerbaitez? Zenoni galdegiten zaiola natura zer den? Arkimedesek, egiaz eta segurtasunez gauza guztien gaineko lehentasuna bere buruari ematen dion jakinduria horren³⁶⁶ irakasleak: Ez ote da irudikeria eder bat frogatze geometrikoen edertasun eta itzurezinezko beharrak eginga? Ez, hala ere, hain itzurez in eta erabilgarria: Sokratesek uste izan baitu aski zela hartaz jakitea ematen eta hartzen den lurra neurtu ahal izateraino, eta Polienok, hartan doktore ospetsu eta argia izan baitzen, gutietsi baititu, faltsukeriaz eta itxurazko hutsalkeriaz beterik bezala, Epikuroren baratze gozoko zitu eztiak dastatu ondoren.

Sokratesek, Xenofonen baitan, Anaxagorasekin gogoeta horri buruz, aitzintasunak uste baitzuen beste guztiak baino adituagoa zela zeruko eta jainkozko gauzetan, badio burutik nahasi zela, ez dagozkien ezagutzei neurgabeki darraizkien gizonek orok dagiten bezala. Eguzkia harri izeki bat egiten zuenari buruz, ez zen ohartzen harri bat ez dela sutan argitzen, eta makurrago dena, higitzen dela; eguzkia eta sua bat eta bera egiten zuenari buruz, suak ez dituela begiratzen dienak bezten; suari bekoz beko begiratzen diogula; suak landareak eta belarrak hiltzen dituela. Sokratesen irudiko, eta nire irudiko ere, zeruari buruzko abururik zuhurrena abururik ez izatea da.

Platonek, demonioei buruz mintzatu behar izanik Timeo-n: Gure ahalmena gainditzen duen eginkizuna da, dio. Sinetsi behar dira haiengandik sortuak direla izendatu diren aitzinekoak. Arrazoiaren aurka da jainkoen semeek fedearen ukatzea, haien esana

finkatua ez den arren arrazoi beharrezko ez itxurazkoez, erantzuten digutenez geroz etxeko eta familiako gauzez mintzatzen direla."

Dakusagun argitasun apur bat gehiago dugun giza gauza naturalen ezagutzan.

Eginkizun irigarria da, geure aitorpenaz, geure jakintza iristen ahal ez den gauzei beste gorputz bat moldatuz joan, eta molde faltsu bat eman, geure asmamenekoa: planeten mugimenduan ikusten den bezala, geure gogoa hel ez baitaiteke, ez eta haien jokaera naturala irudikatzen ahal ere, geuretarik ematen dizkiegu gauzazko eragingailu dorpe eta gorputzezkoak:

temo aureus, aurea summæ

Curvatura rotæ, radiorum argentes ordo ³⁶⁷.

Esanen zenuke eduki ditugula orgari, zurgin eta margolariak, hor goiti joan izan direnak higiera ezberdinetako tresnen eraikitza, gorputz zerutiarren inguradura eta esteken antolatza kolore nabarrez beharraren ardatzaren inguruan, Platonen arabera:

Mundus domus est maxima rerum,

Quam quinque altitonæ fragmine zonæ

Cingunt, perquam limbus pictus bis sex signis

Stellimicantibus, altus in obliquo æthere, lunæ

Bigas acceptat ³⁶⁸.

Denak amets eta eromen buruberoak dira. Aileza egun batez naturak nahi bere barrenaren guri irekitzea eta bere higikundeen zuzenketen eta bideen erakustea, eta horretarako gure begien prestatzea! Alajainkoa! zein engainu, zein makurbide aurkituko genuke geure jakintza eskasean: engainaturik nago baldin badu gauza bat bakarrik zuzen eta bere heinean; hemendik abiatuko naiz neure jakinezaz landako beste gauza oro ez jakinik.

Ez ote dut Platonen baitan ikusi jainkozko hitz hau: natura deus ez dela poesia ezageri batez bazik? Menturaz, esan balitz bezala margo oihaleztatu eta ilun bat, goizargi faltsuen ezberdintasun mugagabe batez argizirriztatuz gure ustezkatzeen lantzeko.

Latent ista omnia crassis occultata et circumfusa tenebris, ut nulla acies humani ingenii tanta sit, quæ penetrare in coelum, terram intrare possit.

Eta, zinez, filosofia ez da poesia sofistikatu batez baizik³⁷⁰. Nondik, poetengandik ez bada, ateratzen dituzte aitzineko egileek beren berme-aipuak oro? Eta haiek beraiek izan ziren poetak lehenik, eta filosofia ziharduten beren antzean. Platon josdurarik gabeko poeta batez baizik ez da. Timonek deitzen dio, laidotzat, mirakulu-moldari handia³⁷¹.

Emakumeek bolizko hortzak darabiltzaten bezala jatorrizkoek huts egiten dieten lekuan, eta, beren egiazko larrantzaren orde, gai arrotz zerbaitez bat moldatzen duten bezala; zatarrez eta betegarritz izterrak egiten dituzten bezala, eta kotoinezko gantzak, eta, bakoitzaren ikustean eta jakitean, edertasun faltsu eta mailegatu batez edertzen diren bezala: horrela dagi jakintzak ere (eta gure zuzenbideak berak omen dauzka alegia zenbait bere zuzentasunaren egia finkatzen dutenak); ordain eta aitzinustetzat ematen dizkigu berak asmatuak direla irakasten dizkigun gauzak: zeren Astrologia bere izarren mugimenduen zuzentzeko baliatzen den epiziklo zentrukide eta zentrubakoitz horiek berak ematen baitizkigu gai horretan asmatu ahal duen hoberena bezala; halaber, gainerakoan, filosofiak agertarazten digu, ez dena, edo sinesten duena, baina moldatzen duena itxura eta jendetasun gehiago izanik. Platonek, gure eta ihizien gorputzaren egoerari buruzko hitzaldian dio:

Ez ditu zerura soilik bidaltzen bere estekadurak, tresnagailuak eta inguradurak. Har dezagun gogoan apur bat geure buruaz eta geure egituraz zer dioen. Ez dago argizagi eta zeruko gorputzetan gibelmailatze, ikaratze, goratze, atzeratze, liluratzerik giza gorputz eskas honetan moldatu ez dutenik. Egiazki, hortik arrazoa izan dute mundu xehea³⁷²

deitzeko, hainbat zati eta aurpegia erabili baitituzte haren zutitzeko eta eraikitzeko. Gizonaren baitan dakuskiten higikundeen egokitzeko, geure baitan somatzen ditugun egin eta ahalmen, zenbat zatitan zatikatu dute gure gogoa? Zenbat lekutan ezarri? Zenbat orden eta mailatan sailkatu dute gizagaizo hau, natural eta somagarrien landan? eta zenbat ofizio eta eginkizunetan? Hartaz ametsezko errepublika bat egiten dute. Haiek daukaten eta darabilten gai bat da: desjosteko, antolatze, biltzeko eta moldatzeko ahalmen osoa uzten zaie, bakoitza bere ametsaldiaren arabera; eta ez dute hala ere oraindik menperatzen. Ez bakarrik egiatan, baina ametsetan beraietan ere, ez dute arautzen ahal, haien eraikuntzari, den bezain handia eta mila betatxu ametsezko eta faltsuz birpuskatua bada ere, ihes doakion neurkada edo soinu bat aurkitzen ez deneraino. Eta ez da desenkusatzeko arrazoirik. Zeren, margolariei, zerua, lurra, itsasoak, mendiak, urruneko irlak margotzen dituztelarik, barkatzen baitiegu haien ezaugarri arin bat bakarrik eman diezaguten; eta, gauza ezezagunak bezala, askiesten gara halako itzal eta irudi batez. Baina ateratzen digularik, naturalaren arabera, arrunt eta ezaguna zaigun gai bat, haiengandik eskatzen dugu marratze eta koloreen itxurapen bete eta zehatz bat, eta gutiesten ditugu hor huts badagite.

Onartzen dut neska milesiar hark, Tales filosofoa zerusabaiaren behatzeari etengabe loturik eta beti begiak goiti edukirik ikusiz, iraganbidean ezarri baitzion behatopatzeko zerbait, gaztigatzeagatik hodeietan ziren gauzez bere gogoetak ihardukitzeko aroa litzatekeela bere oinetan zirenez aritu izan zedinean. Zinez aholkatzen zion zeruari baino gehiago bere buruari begiratzeko. Zeren, Demokritok Zizeronen ahotik dioen bezala,

Quod est ante pedes, nemo spectat; cæli scrutantur plagas ³⁷³.

Baina gure baldintzak dakar eskutartean daukagunaren ezagutza argizagiena bezain urrundua eta hodeiez gainean zaigula. Sokratesek Platonen baitan dioen bezala, filosofian nahasten den normahiri egin dakiokela emakume horrek Talesi egin erantzukia, bere aitzinean denetik ez duela ezer ere ikusten. Zeren filosofo orok ez baitaki bere aldamenekoak zer dagien, eta berak ere zer dagien, eta ez daki biak zer diren, ihiziak ala gizonak.

Sebonden arrazoiak ahulak aurkitzen dituzten jende hauek, deus ere jakin gabe ez dutenek, mundua arautzen dutenek, dena dakitenek

Quæ mare compescant causæ; quid temperet annum

Stelleæ sponte sua jussæve vagentur et errent;

Quid premat obscurum Lunæ, quid proferat orbem;

Quem velit et possit rerum concordia discors ³⁷⁴;

ez ote dituzte sekula ikertu, beren liburuen artean, beren izatearen beraren ezagutzeko agertzen diren zailtasunak? Ongi dakusagu behatza higitzen dela, eta oina ere; zati zenbait badabiltzala berenez gure baimenik gabe; eta beste zenbait guk darabiltzagula geure manuaz; oharmen zerbaitek gorritasuna sortzen duela, beste zerbaitek zurbiltasuna; halako irudimenak bare altxatuan³⁷⁵ eragiten duela, halako besteak burumuinean; batak irria eragiten digula, besteak negarra; harako besteak aldaratzen eta harritzen ditu gure zentzu guztiak, eta geldiarazten gure soinadarren mugimendua. Halako gauzarekin urdaila uzkaitez da; halako bestearekin beheragoko zati zerbait. Baina izpirituzko hunkimen batek nola egiten duen halako ebakitaldia gauzaki gizen eta sendo batean, eta haren eragingailu miresgarrien loturaren molde eta jostura, sekula ez du inork jakin. *Omnia incerta ratione et in naturæ majestate abdita* diote Pliniok eta San Augustinek: *Modus quo corporibus adhaerent spiritus, omnio mirus est, nec comprehendi ab homine potest: et hoc ipse homo est*. Eta, halarik ere, ez da zalantzatan ezartzen, giza usteak sinesmen zaharren ondorioz hartzen ohi baitira, manamenduz eta omenez, erlijioa eta legea balitz bezala. Aipalelo bat bezala onartzen da eskuarki uste

ohi dena; egia hori onartzen da bere argudio eta frogen eraikuntza eta tresneriarekin, gehiago ez dabilen ez eta epaitzen den multzo azkar eta sendo bat bezala. Aitzitik, bakoitza, zein lehenka, badoa onartu sinesmen hori gogortzen eta finkatzen bere arrazoiak -tresna arin, malgugarri eta itxura orotarako egokigarri bat baita- ahal duen guztiarekin. Horrela betetzen eta ontzen da mundua motelkeria eta gezurretan.

Gauza gutiri buruz dudatzea eragiten duena oharmen arruntak sekula ez entseiatzea da; hutsa eta ahulezia dauden oinarria ez ohi da ikertzen; ez da adarrei buruz besterik eztabaidatzen; ez ohi da galdegiten hori egia den, baina honela ala horrela aditu izan den. Ez ohi da galdegiten Galenok balioko zerbait esan duen, baina honela ala bestela esan duen. Zinez arrazoa zen gure aburuen libertatearen brida eta bortxatze hori eskola eta antzeetaraino heda zedin. Jakintza eskolastikoaren jainkoa Aristoteles da; debekagarria da haren arauen eztabaidatzea, Espartan Likurgorenak bezala. Haren irakaspenak lege nagusizat balio digu, bestea bezain faltsua baita, menturaz. Ez dakit zergatik ez nituzkeen hain gogotik onartuko edo Platonen ideiak, edo Epikuroren atomoak, edo Leuziporen eta Demokritoren betea eta hutsa, edo Talesen ura, edo Anaximanderen naturaren mugagabetasuna, edo Diogenesen airea, edo Pitagorasen zenbakiak eta simetria, edo Parmenidesen mugagabea, edo Museoren bata, edo Apolodororen ura eta sua, edo Anaxagorasen zati berdinak, edo Enpedoklesen liskarra eta adiskidantza; edo Heraklitoren sua, edo giza arrazoi eder honek, bere segurtasun eta ikusmen garbiaz, sartzen den orotarik sortzen duen aburu eta zuhurtitz nahasmen mugagabe horretarik beste edozein uste, Aristotelesena egiten dudan bezala, gauza naturalen hastapenen gaiari buruz; hastapen horiek hiru zatiez eraikitzen baititu: gaia, moldea eta gabetasuna. Eta zer da hutsalagorik gauzen sortzapenaren kausa gabetasunaren beraren egitea baino? Gabetasuna ezezko bat da; zein aldarte egin ahal ditu hartaz diren gauzen kausa eta jatorria? Hori, halarik ere, inor ez litzateke inarrostera ausartuko, logika ariketatzat baizik. Ez da ezer eztabaidatzen zalantzatan ezartzeko, baina eskolako egilearen erantzuki arrotzetarik gerizatzeko: haren nagusigoa jomuga da, haratagokoari buruz ez da galdegiten ahal.

Arras erraza da, onartu funtsen gainetik nahi denaren eraikitzea; zeren, hasiera horren lege eta arautzearen arabera eraikuntzako garaitiko zatiak errazki zuzentzen baitira, elkar gezurtatu gabe. Bide horretarik aurkitzen dugu geure arrazoa ongi finkatua, eta urrats neurtuetan bagabiltza; zeren geure irakasleek aitzinetik hartzen eta irabazten dute geure sinesmenean gero nahi dutenaren ondoriatzeko behar duten bezainbat leku, geometren moduan, beren galdegite onartuen bidez³⁷⁸; uzten diegun onarpen eta onespenak emanik gure nondik herrestatzea ezker-eskuin, eta beren nahiara itzulkarazteko. Bere aitzinusteetan sinetsia dena, hura gure nagusia eta Jainkoa da; bere funtsen plangintza hain zabal eta erraz hartuko du non, haien bidez, goratzen ahalko baikaitu, nahi badu, hodeietaraino. Jakintzaren lantze eta eztabaidatze honetan baliokotzat hartu dugu Pitagorasen hitza: aditu bakoitza sinetsi izan behar dela bere antzean. Dialektikoak gramatikoari hartzen dio hitzen zentzua; errotorikoak dialektikoagandik mailegatzen ditu argudioen aipaleloak; poetak musikoengandik neurriak; geometrak aritmetikoengandik arauak; metafisikoek funtsezkotzat hartzen dituzte fisikaren ustezkatzak. Zeren jakintza bakoitzak baititu bere aurrez aldetik eman hastapenak, haietan giza aburua alde orotarik estekatua baita. Gerta balekizu huts nagusia den hesi horren kontra behaztopatzera, berehala badute zuhurtitz hau ahoan: ez dela hastapenak ukatzen dituztenen aurka eztabaidatu behar.

Bada, gizonen baitan ez daiteke hastapenik izan, jainkotasunak argitu ez badie; garaitikoetarik, hasiera, erdia eta amaiera, ametsik eta kerik besterik ez da. Aitzinusteen bidez eztabaidatzen dutenei aitzinetik eman behar zaie, aitzitik, eztabaidatzen den axioma bera. Zeren giza aitzinuste orok eta esaldi orok baitu besteak bezainbat

nagusigoa, arrazoiak ezberdintasuna egiten ez badu. Horrela, denak ezarri behar dira balantzan; eta lehenik orokorrak, zanpatzen gaituztenak. Segurtasunaren ustea eromen eta ezinagoko segurtasunik ezaren lekukotasun segurua da; eta ez dago jende zoroagorik eta filosofia gutiagokorik Platonen filodoxoak³⁷⁹ baino. Jakin behar da sua bero den, elurra zuria den, gogor edo beratz zerbait dagoen gure ezagutzan.

Eta ipuin zaharrak egiten diren erantzun horiekin: hala nola berotasuna zalantzatan ezartzen duenari, esaten zaio egotz zedin bera sutara; hormaren hoztasuna ukatzen zuenari, golkoan ezar zezan: ofizio filosofikoari hagitz desegokiak zaizkio. Gure egoera naturalaren arabera utzi izan bagintuzte, itxura arrotzak geure zentzuen bidez agertzen zaizkigun bezala onartzen, eta geure sortzapenaren baldintzak arautu nahikunde soilen gibeletik joatera utzi izan bagintuzte, balukete guri horrela mintzatzeko arrazoirik; baina haiengandik ikasi dugu munduaren epaileak izaten; haiengandik ukan dugu ameskeria hau: giza arrazoa zerusabaiaren azpian eta barrenean den ororen behari nagusia dela, dena besarkatzen duela, dena ahal duela, haren bidez dena jakiten eta ezagutzen baita.

Erantzun hori ona litzateke gizajaleen artean, bizi luze baten zorionaz gozatzen baitute, lasai eta ezti Aristotelesen araurik gabe, eta fisikaren izenaren ezagutzarik gabe. Erantzun horrek hobeki balio luke menturaz eta azkartasun gehiago edukiko luke haien arrazoi eta asmamenetik mailegatuko lituzketen guztiek baino. Horren gaiak lirateke, gurekin batean, ihizi guztiak eta bere baitan lege naturalaren manua oraindik huts eta soil duen oro; baina haiek uko egin diote. Ez didate esan behar: ; esan behar didate sentitzen dudala uste dudana, egiazki sentitzen dudana; eta, sentitzen badut, esan diezadaten gero zergatik sentitzen dudana, eta nola, eta zer; aipa diezadaten izena, etorkia, beroaren edukileak eta jasaileak, hotzarenak, ekiten eta pairatzen duenaren nolakotasunak; edo utz diezadaten haien ofizioa, arrazoiaren bidez baizik deusen ez onartzekoa baita; arrazoa baita haien entseiu guztien froga nagusia; baina, zinez, faltsukeria, huts, ahulezia eta aldixartzez bete den froga da.

Nola frogatu nahi dugu beraren bidez baino hobeki? Bere buruaz mintzaturik ez bazaio sinetsi behar, doi izanen da gauza arrotzen epaitzeko gai; gogoan zerbait hartzen badu bere izate eta helbidea izanen da gutienez. Ariman dago, eta haren zatia edo ondorioa: zeren egiazko eta funtsezko arrazoa, ezaugarri faltsuez haren izena ebasten baitugu, Jainkoaren baitan baitago; hor da bere egoitza eta etxapea, hortik abiatzen da Jainkoak nahi digularik haren izpi zerbaiten erakustea, Palas³⁸⁰ bere aitaren burutik sortu zen bezala munduarekin harremanetan aritzeko.

Dakusagun, beraz, giza arrazoiak bere buruaz eta arimaz irakatsi diguna; ez orokorreko arimaz, kasik filosofia guztiak egiten baititu argizagiak eta lehen gorputzak haren parte hartzaileak; ez eta Talesek, imanaren irudiak eramanez, arimarik gabekotzat hartzen ohi diren gauzei ematen zienaz; baizik eta gureaz, hobeki ezagutu behar dugunaz.

Ignoratur enim quæ sit natura animæ,

Nata sit, an contra nascentibus insinuetur,

Et simul intereat nobiscum morte dirempta,

An tenebras orci visat vastasque lacunas,

An pecudes alias divinitus insinuet se ³⁸¹.

Krates eta Dikearkori³⁸², arimarik ez zela, baina gorputza bazebilela higiera natural batez; Platoni, berez bazebilen gai bat zela; Talesi, atsedetik gabeko izaera bat; Asklepiadesi, zentzuen ariketa bat; Hesiodo eta Anaximandrori, lurrez eta urez osatu gauza; Parmenidesi, lurrez eta suz; Enpedoklesi, odolez,

Sanguineam vomit ille animam ³⁸³;

Posidinio, Kleantes eta Galenori, bero edo gorpuzkera bero bat,

Ignæus est ollis vigor, et cælestis origo ³⁸⁴;

Hipokratesi, gorputzean barrena hedatu izpiritu bat; Varroni, ahotik hartu aire bat, biriketan berotua, bihotzean epeldua eta gorputz osoan zehar hedatua; Zenoni, lau lehengaien funtsa; Heraklides Pontikoari, argia; Xenokrates eta egiptoarrei, zenbaki ibilkor bat; kaldearrei, molde mugatu gabeko bertute bat, habitum quendam vitalem corporis esse,

Harmoniam Græci quam dicunt ³⁸⁵.

Ez dezagun Aristoteles ahantz: gorputza naturalki darabilena, berak entelekia deritzona; beste ezein asmamen bezain hotza, zeren ez baita arimaren izateaz, etorkiaz ez etorkiaz mintzatzen, baina azpimarratzen du soilik ondorioa. Laktantzio, Seneka eta dogmatiko gutiz gehienek aitor dute entelegatzen ez zuten gauza zela. Eta, uste aipatze horren ondoren: Harum sententiarum quae vera sit, deus aliquis viderit dio Zizeronek. Niketz badakit, dio San Bernardok, Jainkoa zein ulertezina den, neure izatearen zatiak ez baititut ulertzen ahal. Heraklitok, dena arimaz eta demonioz beterik zela zioena, uste zuen, hala ere, ez zela arimaren ezagutzaren aldera hain aitzinera joaten ahal non heltzen ahal zen, hain barrena baita haren izatea.

Egoitza baten emateko ez da aharra eta eztabaida gutiagorik. Hipokrates eta Hierofilok burmuinaren hutsunean paratzen dute; Demokrito eta Aristotelesekin, gorputz osoan barrena

Ut bona sæpe valetudo cum dicitur esse

Corporis, et non est tamen hæc pars ulla valentis ³⁸⁷;

Epikurok, urdailean,

Hic exultat enim pavor ac metus, hæc loca circum

Lætitiæ mulcent ³⁸⁸.

Estoikoek bihotz inguruan eta barreanean; Erasistratok, burezurreko mintzari atxikia; Enpedoklesekin, odolean; Moisesekin bezala, horregatik debekatu zuen ihizien odolaren jatea, arima baitatxikio; Galenok uste izan du gorputz zati bakoitzak bere arima duela; Estratonekin bi bekainen artean paratu du. Qua facie quidem sit animus, aut ubi habitet, ne quaerendum quidem est, dio Zizeronek. Gogotik uzten dizkiot gizon honi bere hitzak. Elegintzaz hobetu behar dut haren mintzoa? Gainera deus guti erdiesten da haren asmemenen gaiaren ebastea: bakanak dira, errazak eta jakinak. Baina Krisipok bihotzaren inguruan argudiatzeko duen arrazoia, bere alderdien guztiak bezala, ez da ahanztekoa: Ez da hemendik iragan behar hain pertsonaia handi baten hutsalkeria azpimarratu gabe. Zeren, gogoeta hauek ezinagoko arinak direnez beste, azkenak ez die grekoei baizik frogatzen arima leku hartan izan dezaten. Ez da hain giza adimen presturik sekula lokartzen ez denik.

Esateko, zeren beldur izanen gara? Horra estoikoak, giza zuhurtziaren aita, aurkitzen baitute hondamen baten azpian lehertu gizon baten arima, herrestatzen eta hatsankatzen dela, zamatik ezin arinduz, satartean harrapatu sagu bat bezala.

Zenbaitek uste dute mundua egina izan zela zigortzat: garbitasunean sortuak izan ziren eta beren hutsagatik erori ziren izpirituei gorputzen emateko, lehen sortzapena gorputzik gabekoa izan baitzen; eta, beren izpiritutasunetik urrun edo hurranagoak diren arabera, gorputzen dira arin edo pisukiago. Hortik heldu da hainbat gai sorturen ezberdintasuna. Baina, bere zigorregatik, eguzkiaren gorputzaz jantzi zen izpirituak gaiztotze neurria biziki arraro eta berezi bat izan behar zuen. Gure ikerpenaren bazterrak nahasmendutan erortzen dira denak; Plutarkok historien hasieraz dioen bezala: mapen moduan lur ezagunen ertzea aintziraz, oihan beltzez, basamortuz eta biziezinezko lekuez inguratua dela. Horra zergatik ameskeriarik zarpail eta haurrenak gehiago aurkitzen diren gauzarik goren eta aurreratuenek dihardutenengan, beren jakin nahi eta aitzinustetan murgildurik. Jakintzaren burua eta hasiera zozokeria berdinean elkarri datxikie. Ikusazu Platon hegaldaka bere hodei poetikoetan; ikusazu haren baitan jainkoen mordoiloa. Baina

zertan zuen gogo gizona definitu zuenean bi oinak dituen animalia bat, lumarik gabe; hartaz burlatu gogo zutenei gertaldi irigarri emanik: zeren, oilazikiro bizi bat bipildurik, Platonen gizona izendatuz baitzihoazen.

Eta zer epikuroarrak? Zein ergelkeriaz joan izan ziren lehenik irudikatzen beren atomoek, pisu zerbait eta beheko aldera mugimendu natural bat duten gorputzak direla baitzioten, eta haiek mundua eraiki izan zutela; harik eta beren etsaiek ohartaraziak izan ziren arte, deskribapen horren arabera ezinezkoa zela bil zitezen eta elkarri atxik zekizkien, haien erorketa zuzen eta elkarrekiko zutik zelako eta, beraz, marra paraleloak sortzen zituelako. Horregatik, gehitu behar izan zuten zeharkako mugimendu bat, zorizkoa, eta beren atomoei eman behar izan zizkieten buztan makur eta gakoak, elkarren artean estekatzeko eta josteko gai bilakatzeko.

Eta, halarik ere, beste gogoeta horrekin jazartzen zietenek ez ote zituzten neketan ezartzen? Atomoek moldatu baldin badituzte, zoriaz, hainbat itxura-mota, zergatik ez dira sekula bildu etxe baten edo oinetako baten moldatzeko? Zergatik, beraz, ez da sinesten letra greko zenbaki mugagabeko bat plazaren erdian barreiatu hel litekeela Iliada-ren egiturara? Arrazoigai dena, dio Zenonek, gai ez dena baino hobea da: mundua baino hoberik ez da, arrazoigai da, beraz. Kotak³⁹⁰, argudio horren berorren bidez, mundu matematikoa egiten du; eta musikoa eta organo-jolea egiten du, Zenonena ere den beste argudio honengatik: Osoa zatia baino gehiago da; gu zuhurtzia-gaiak gara eta munduko zatiak: mundua zuhurra da, beraz.

Eredu berdinak mugagabeki ikusten ohi dira, ez bakarrik argudio faltsuenak, baina ezteusenak ere, zutik ezinegonak, beren egileak salatuz ez hainbeste jakinezaz baina zuhurtziarik ezaz, filosofoek elkarri egiten dizkieten erantzukietan beren usteen eta alderdien ezberdintasunen gain. Aski metatuko lukeenak giza zuhurtziaren astakerien mukuru bat ederrak esan ditzake.

Nik gogotik biltzen ditut erakuskari bat bezala, alde batetik aburu sendo eta neurtuak bezain onuragarriak gogoan hartzeko. Gogoeta dezagun hortik gizona, bere zentzua eta arrazoa, zertan hartu behar dugun, pertsonaia handi horiengan, giza jakintza horren gora eraman baitute, hain akats ageriak eta zakarrak aurkitzen diren ber. Niketz, nahiago dut uste izatea jakintza iharduki dutela menturaz, esku guztietarako jostakin bat bezala, eta arrazoiak baliatu direla tresna hutsal eta arin batez bezala, asmamen eta ameskeria mota guztiak aitzinera eramanez, noiz prestuagoak, noiz axolagabeagoak. Gizona oilo bat bezala mugatu zuen Platon horrek berorrek badio beste inon, Sokratesen arabera, ez dakiela egiazki gizona zer den eta hain ezagutza zaileko munduko zati bat zela. Aburuezberdintasun eta aldakortasun horien bidez, eskutik bezala garamatzate, aipatu gabe, haien erabakiezaren erabakira. Haien ofizioa da beren ustearen inoiz ez agertzea aurpegi ageri eta itxuragarrian; gorde izan dute noiz poesiaren alegiazko itzalpean, noiz beste maskarapean; zeren gure akatsak baitakar hau ere: haragi gordina ez dela beti geure urdailarentzat egokia; idortu, aldatu eta usteldu behar da. Haiek gauza bera dagite: inoiz iluntzen dituzte beren uste eta aburu soilak, eta faltsutzen dituzte, jendearen erabilerarako egokitzeko. Ez dute jakinezaren eta giza arrazoiaren ergelkeriaren adierazpen ageria egin nahi, haurren ez beldurtzeko; baina aski agertarazten digute jakintza nahasi eta aldakor baten itxurapean.

Italian, italieraz mintzatzeko neketan zen bati aholkatzen nion, adierazterik besterik bilatzen ez zuen ber, bikain bezala nabarmendu nahi gabe, bakarrik erabil zitzen ahoratzen zitzaizkion lehen hitzak, latinoak, frantsesak, espainolak edo gaskoinak, eta bururatze italiarra haiei gehituz, hutsik gabe zegokiokeela herri hartako hizkuntza zerbaiti, edo toskanera, edo erromatarra, edo veneziera edo piamontera edo napolierari, eta hainbat moduetarik zerbaiti lotuko zitzaiokeela. Gauza bera diot filosofiaz: badu hainbat aurpegi eta aniztasun, hainbat esan du, non gure amets eta

ameskeriak oro aurkitzen baitira. Giza irudimenak ez dezake hor ez den ezer gogoan har, ongian eta gaizkian. Nihil tam absurde dici postest quod non dicatur ab aliquo philosophorum. Librekiago uzten ditut jendartera neure nahikeriak joatera; neure baitan eta eredurik gabe sortuak badira ere, badakit aurkituko dutela haien harremana aldarte zahar batekin; eta hutsik gabe norbaitek esanen duela:

Neure ohiturak jatorrak dira, ez naiz haien eraikitzeke ezein irakaskuntzaz baliatu. Baina, diren bezain zozoak, haien aipatzeko nahikeriak hartu naularik, eta, jendartera apainkiago agertarazteko, neure burua behartu nularik hitzaldiez eta ereduez laguntzera, neuretzat miresgarria izan da, menturaz, hainbat eredu eta hitzaldi filosofikoei egokiak aurkitzea. Zein araubidetakoa zen neure bizia, erabilia eta gauzatua izan ondoren ikasi dut.

Eredu berria: aitzingogo gabeko eta zorizko filosofo bat!

Gure arimarengana itzultzeko, Platonek arrazoa burmuinean, haserrea bihotzean eta nahikundea giblean ezartzea, itxuragarria da arimaren aldartearen itzulpen bat izan dela, gorputz bat soinadar askotan bezala egin nahi zukeen zatiketa eta bereizketa bat baino gehiago. Eta beren aburuetarik itxuragarriena hau da: beti arima bat dela bere ahalmenaz gogoetatzen, oroitzen, entelegatzen, epaitzen, nahi eta lantzen dituen bere garaitiko ariketa guztiak gorputzaren tresna ezberdinen bidez (lemazainak bere ontzia zuzentzen duen bezala, hartaz daukan esperientziaren arabera, orain soka bat tenkatuz edo laxatuz, orain haga bat goratuz edo arrauna erabiliz, ahalmen bakar batek ondorio ezberdinak zuzendurik); eta burmuinean dagoela: ageri baita zati horri ukitzen duten zauriek eta ezbeharrek berehala laidostatzen baitituzte arimaren ahalmenak; hortik, eragozpenik ez da garaitiko gorputz barrenean heda dadin:

medium non deserit unquam

cæli Phœbus iter; radiis tamen omnia lustrat ³⁹²,

eguzkiak zerutik bere argia eta ahalmenak zabaltzen dituen eta haietaz mundua betetzen duen bezala:

Cætera pars animæ per totum dissita corpus

Paret, et ad numen mentis momenque movetur ³⁹³.

Zenbaitek esan dute bazela arima orokor bat, gorputz handi bat bezala, harengandik arima bereziak oro ateraiak baitziren eta harengana itzultzen, gai orokor horretan beti birnahasten,

Deum namque ire per omnes

Terrasque tractusque maris cælumque profundum:

Hinc pecudes, armenta, viros, genus omne ferarum,

Quemque sibi tenues nascentem arcessere vitas;

Scilicet huc reddi deinde, ac resoluta referri

Omnia: nec morti esse locum ³⁹⁴;

beste zenbaitek, biltzen eta atxikitzen besterik ez zutela egiten; besteek, jainkozko gaitik sortuak zirela; besteek, aingeruek eginak, suz eta airez. Zenbaitek, betidanik; zenbaitek, behar orduan berean. Zenbaitek ilargiaren inguraduratik beheitarazten eta itzularazten dituzte. Zahar gehienek, aitagandik semeagana sortuak direla, beste gauza natural guztien modu eta sortzapen berean, hori umeen gurasoenganako antzekotasunagatik argudiatuz,

Instillata patris virtus tibi ³⁹⁵

.....

Fortes creantur fortibus, et bonis ³⁹⁶,

eta ikusten direlako gurasogandik umeengana iragaten, ez bakarrik gorputz ezaugarriak, baina oraindik ere aldarte, egitura eta gogo aiherren antzekotasun bat:

Denique cur acris violentia triste leonum
Seminium sequitur; dolus vulpibus, et fuga cervis
A patribus datur, et patrius pavor incitat artus;
Si non certa suo quia semine seminioque

Vis animi pariter crescit cum corpore toto? 397

horren gain finkatzen dela jainkozko zuzenbidea, umeengan gurasoen hutsa zigortuz; umeen arimaren baitan inprimatua denez geroz inola ere aitazko bizioen kutsadura, eta hauen nahikundearen desarautzeak hunkitzen dituela.

Gainera, arimak jarraipen naturala ez den bestetik baletoz, eta gorputzetik kanpoan beste zerbait izan balira, balukete beren lehen izatearen oroimena, jakinik gogoetatzeko, arrazoinatzeko, eta oroitzeko dauzkan jitezko ahalmenak:

si in corpus nascentibus insinuatur,

Cur superante actam ætatem meminisse nequimus,

Nec vestigia gestarum rerum ulla tenemus? 398

Zeren, nahi dugun bezala geure arimen baldintzari balio emateko, aitzinetik eman behar baitira osoki jakileak, beren soiltasun eta garbitasun naturalean daudelarik. Horrela ziratekeen gorputzeko gartzelaz gabeturik, sartu baino lehen, atera ondoan izanen direla uste dugun bezala. Eta oraindik gorputzean egonik oroitu behar ziren jakintza hartaz, Platonek zioen bezala ikasten duguna bagenekienaren oroitze bat besterik ez zela: bakoitzak, esperientziaz, gezurrezko gauza dela bailerrake. Lehenean, oroitzen ez baikara irakasten zaigunaz baizik eta, oroimenak garbiki eginen balu bere ofizioa, erakarriko bailiguke, bederen, marraldi zerbait irakaspenaz beste. Bigarrenean, garbitasunean zenean zekiena zinezko jakintza zela, gauzak diren bezala ezagutuz bere jainkozko adimenaren bidez, hemen, artean, gezurra eta bizioa onartarazten zaizkio, eta haietan trebatu! Ez baita bere oroimenaz baliatzen ahal, irudi eta gogoeta horiek bere baitan sekula egon ez direnez geroz. Esatea ere gorputzeko gartzelak halako moldez itotzen dituela haren jatorrizko ahalmenak non erabat iraungiak baitira, hori, lehenik, kontrarioa zaio beste honako sinesmen honi: haren indarrak hain handiak, eta gizonek bizi honetan somaten dituzten ondorioak hain miresgarriak direla, non ondoriatu baitira iraganeko jainkotasun eta betierekotasun hori, eta etorkizuneko hilezintasuna:

Nam, si tantopere est animi mutata potestas

Omnis ut actarum exciderit retinentia rerum,

Non, ut opinor, ea ab leto jam longior errat 399.

Bestalde, hemen da, gure baitan eta ez beste inon, arimaren indarrak eta ondorioak gogoan hartu behar direnak; bere garaitiko beteginak hutsal eta ezteusak zaizkio: orainaldiko egoeran ordaindu eta ezagutu behar zaio bere hilezintasun osoa, eta soilik zenbakigarri den giza bizian. Zuzengabea litzateke haren bide eta ahalmenez gabetzea eta desarmatzea, bere bahitze, gartzela, ahulezia eta eritasunaldiko arotik epaiketaren eta mugagabeko iraupen eta betiereko kondena baten ateratzeko; eta hain denbora labur baten gogoetan gelditzea, menturaz bat edo bi ordukoa baita, edo, gehienik jotzera, mende batekoa, betierekotasunarekin instant batek baino araukizunik gehiago ez baitu, bitarteko aldi horretarik haren izate osoaren behin betirako manatzeko eta finkatzeko. Araurik eza gaiztoa litzateke betiereko sari baten ateratzea hain bizi laburretik.

Platonek, eragozpen horretarik itzurtzeko, nahi du etorkizuneko ordainak giza iraupenari dagozkion ehun urteko iraupenara muga daitezen; eta guretarik askok denborazko mugak eman dituzte.

Horrela uste zuten haren sortzapenak giza gauzen baldintza arruntari zerraiola, haren biziak bezala, Epikuro eta Demokritoren ustearen arabera, onartuena izan baita, itxura ageri hauei jarraikiz: jaiotzen ikusten dela gorputza haren gaia izaten den arauz; haren indarrak gorputzekoak bezala ikusten zirela goratzen; ezagutzen zitzaizola haurtzaroan

ahulezia, eta, denboraren buruan, indarra eta heldutasuna, eta gero beherapena eta zahartzaroa, eta azkenean zaharreria,
gigni pariter cum corpore, et una

Crescere sentimus, pariterque senescere mentem ⁴⁰⁰.

Bazekusaten pasione ezberdinen gaia, eta mugimendu nekagarriek erabilia, akidura eta minean erortzen baitzen, aldakuntza eta ganbiamendu, alaitasun, lokartze eta herabe gaia ere, eritasun eta laidoen menpean, urdaila eta oina bezala,
mentem sanari, corpus ut ægrum

Cernimus, et flecti medicina posse videmus ⁴⁰¹;

ardoaren indarraz nahasia eta uhertua; bere jarlekutik erauzia sukar bero baten lurrinez;
sendagailu batzuen emateaz lokartua, eta beste batzuek iratzarria:
corpoream naturam animi esse necesse est,

Corporei quoniam telis ictuque laborat ⁴⁰².

Ikusten zaio haren ahalmen guztien harritzen eta uzkailezen zakur eri baten ausikiagatik, eta ez dela hitzaldiaren bermetasun handirik, ez jakintzarik, ez bertuterik, ez erabaki filosofikorik, eta bere indarren bortxaketarik ezbehar horietaz gabetzen ahal duenik; zakur errabiatu baten tuak, Sokratesen eskuaren gainean isuririk, haren zuhurtzia eta haren irudimen handi eta arautu guztien inarosten, lehendabiziko ezagutzetik hatzik batere ez gelditzerainokoa:

vis animi

Conturbatur [...] et divisa seorsum

Disjunctatur, eodem illo distracta veneno ⁴⁰³;

eta pozoin horrek ez du arima hartan eragozpen handiagorik aurkitzen lau urteko mutiko batenean baino; filosofia osoa, haragizkoa balitz, zoro eta ero bilakatzeko gaia den pozoina; eta Katonek, herioa eta zoria berari lepoa bihurtzen zionak, ez du ispilu baten ikustea pairatzen ahal, edo urarena⁴⁰⁴, izialduraz eta ikaraz lehertua, eroriko balitz, zakur errabiatu baten kutsaduraz, sendagileek hidrofobia deritzoten eritasunean:

vis morbi distracta per artus

Turbat agens animam, spumantes æquore salso

Ventorum ut validis fervere viribus undæ ⁴⁰⁵.

Beraz, honi buruz, filosofiak gizona ongi armatu du garaitiko ezbehar guztien pairatzeko, edo jasankortasunaz, edo, aurkitzeko zailegia bada, hutsik egin ez dezakeen ihesaldi batez, sentimentuaz osoki gabetuz; baina, bere baitan eta indarretan dagoen eta adimen eta erabaki gai den arima bati balio dioten bideak dira, ez filosofo baten baitan arima bat zoro, nahasi, erauzi eta galdu baten arima bilakatzen den eragozpen bati: gertaldi anitzek sortzen dute inarrote bortitzei bezalako bat, pasione azkar batengatik, arimak bere batian sor dezakeena edo zauri batek pertsonaren gune batean, edo urdailaren hatsaldi batek eragozten gaituelarik buruko nahaste eta iraultza batera,
morbis in corporis, avius errat

Sæpe animus: dementit enim, deliraque fatur;

Interdumque gravi Lethargo fertur in altum

Æternumque soporem, oculis nutuque cadenti ⁴⁰⁶.

Filosofoek doi ez dute, iruditzen zait, musika-zurda honetan jo.

Ez munta bereko beste batean baino gehiago. Beti badute ahoan dilema hau, gure izaera hilkorraren arintzeko: . Ez dute sekula beste adarra jotzen: Eta poetei uzten dizkiete etorkizuneko nekeen mehatxuak. Baina hortik josteta ederra dagite. Niri, haien hitzaldietan, anitzetan agertzen zaizkidan bi gabetasun dira. Itzultzen naiz lehenera.

Arima horrek⁴⁰⁷ galtzen du ontasun estoiko gorenaren atsegina, hain berme eta azkar. Gure zuhurtzia ederrak amore eman behar du hemen eta armak utzi. Bestalde, uste dute

ere, giza arrazoiaren hutsalkeriaz, hilkorra eta hilezina bezain ezberdinak diren bi zatien nahastea eta elkargoa irudiezina dela:

Quippe etenim mortale æterno jungere, et una
Consentire putare, et fungi mutua posse,
Desipere est. Quid enim diversius esse putandum est,
Aut magis inter se disjunctum discrepitansque,
Quam mortale quod est, immortalis atque perenni
Junctum, in concilio sævas tolerare procellas? 408
Gainera, haiek sentitzen zuten arima heriotzeari lotzen, gorputza bezala,
Simul ævo fessa fatiscit 409:

Zenonen arabera, loaren irudiak aski erakusten baitigu; zeren uste baitu arimaren ahultze eta erortze bat dela gorputzarena bezalakoa: .Contrahi animum et quasi labi putat atque concidere. Eta, biziaren azkenean, zenbaitengan ikusten dela beren indar eta sendotasunaren irautea, hori gaitzen ezberdintasunari ematen diote, gizonak ikusten diren bezala azken hartan atxikitzea nor zentzu bati, nor besteari, nor entzumenari, nor usainari, aldakuntzarik gabe; eta ez da hain ahultze orokorrik ikusten, zati zenbait oso eta sendo gelditzen ez direnik:

Non alio pacto quam si, pes cum dolet ægri,
In nullo caput interea sit forte dolore 411.

Gure adimenaren ikusmena egiari dagokio, hontzaren begia eguzkiaren distirari bezala, horrela dio Aristotelesek. Nola sinestaraz genezake hobeki, hain argi ageritan hain itsutze zakarren bidez baino?

Zeren, arimaren hilezinaren aburu kontrarioa, Zizeronek baitio lehen aldiz Ferezides Siriok sartua izan dela, liburuen lekukotasunaren arabera behintzat, Tulo erregeren aroaz (beste zenbaitek Talesi ematen diote asmamena, eta besteek besteei), begiramen eta zalantzarik handienekin iharduki den giza jakintzaren zatia baita. Dogmatikorik gogorrenak behartuak izan dira, hein honetan bereziki, Akademiako itzaletako gerizara jotzera. Inork ez daki gai honetan Aristotelesek finkatu duena: ez eta aitzinekoek orokorki, sinesmen zalantzati batez baitarabilte: rem gratissimam promittentium magis quam probantium. Hitz-lanbro eta zentzu zail eta ezinadituzkoen azpian gorde da. Eta bere alderdikideei utzi die bere epaiketaz eztabaida daitezen gaiari buruz baino gehiago. Bi gauzek bilakatzen zien uste hori onargarri: bata, arimen hilezintasunik gabe, ez litzatekeela loriaren esperantza hutsalen bermatzekorik, jendeari sinesmen miresgarriko gogoeta baitzaio; bestea, hunkitze txit erabilgarria dela, Platonek dioen bezala, bizioek, giza zuzenbidearen ikusmen ilun eta zalantziari gordetzen bazaizkio ere, badirautea beti ageri jainkozkoari, jazarriko baitie, hobendunen heriotzaren ondoan ere.

Gizonak badu bere izatearen luzatzeko axola handi bat; bere zati guztietarako prestatu da. Gorputzaren gordetzerako hilobiak dira; izenaren gordetzerako, ospea.

Bere uste osoaz baliatu da bere buruaren birreraikitze, bere zoriaz berantetsirik, eta bere asmamenen bidez habeztatze. Arima, bere nahasmen eta ahuleziaz oinen gainean ezin zutik egonik, bazter guztietarik datxikien eta finkatzen den arindura, esperantza, funts eta kanpoko gorabeheren bila doa; eta, bere asmamenak arin eta ametsetakoagoak moldatzen badizkio ere, haietan bere baitan baino segurkiago eta gogotikago pausatzen da.

Baina miresgarria da nola gure izpirituen hilezintasunaren sinesmen hain zuzen eta garbi honi atxikienak aurkitu diren motz eta ezinduak beren giza indarren bidez finkatzeko: „Somnia sunt non docentis, sed optantis zioen aitzineko batek. Lekukotasun horren bidez gizonak dazaguke zoriari eta menturari zor diola berak bakarrik edireten duen egia, eskuetan erori zaionean ere, ez baitu zertaz atxik eta gorde, eta bere arrazoiak ez baitu meneperatzeko indarrik. Geure adimen eta jakintzak sortu gauzak oro, bai

egiazkoak nola faltsuak, zalantza eta eztabaidagarriak dira. Gure harrokeriaren zigorrerako eta gure eskasgoaren irakaskuntzarako eragin zuen Jainkoak aspaldiko Babeleko dorrearen uher eta nahasmena. Haren laguntzarik gabe hasten dugun oro, haren graziaren kriseilurik gabe dakusagun oro, hutsal eta erokeriaz baizik ez da; egiaren funtsa bera, berdin eta iraunkorra dena, zoriak haren jabegoa ematen digunean, usteltzen eta nahasten dugu geure ahuleziagatik. Gizonak zernahi bere baitarik sortzen badu ere, Jainkoak uzten du hel dadin beti nahasmen horretara berorretara; haren irudia hain zuzenki erakusten baitigu Nemroden hantustea jo zuen eta haren piramidaren eraikuntzaren eginahal hutsalak suntsitu zituen zigor zuzenaren bidez: *Perdam sapientiam sapientium, et prudentium reprobabo*. Hark ekintza hori nahasten duen hizkuntzen eta mintzairen ezberdintasuna, zer da baizik eta giza jakintzaren eraikuntza hutsalak uste eta arrazoen mugagabeko eta betiereko eztabaida eta aharra? Eta onuragarriki nahasten du. Nork edukiko gintuzke ezagutza bihirik bagenu? Saindu honek atsegin handia egin dit: *Ipsa veritatis occultatio aut humilitatis exercitatio est, aut elationis attritio* Zein harro eta ozartasunezko heineraino ez daramagu geure itsutasuna eta zozokeria?

Baina, neure gaiari birratxikitzeke, egiazki arrazoia zen Jainkoaz eta haren graziaren faboreaz bakarrik fida gintzen, hain sinesmen noblearen egiaz, bakarrik haren eskuzabaltasunetik ukaten baitugu hilezintasunaren zitua, betiereko dohatasunaz gozatzean baitatza.

Aitor dezagun lainoki Jainkoak bakarrik esan digula, eta fedeak: zeren ez baita naturaren ez gure arrazoiaren ikasgaia. Eta bere izatea eta indarrak eskuztatzen dituenak, barrenean eta kanpoan, jainkoazko lehentasun hori gabe eta gizona lausengatu gabe dakusanak, hark ez du indarrak eta ahalmenik ikusiko heriotz eta lur urrinik ez duenik. Zenbat eta gehiago ematen, zor, eta bihurtzen diogun Jainkoari, hainbat kristaukiago egiten baitugu.

Filosofo estoikoak jendearen ahotsaren menturazko baieztapenetik daukala dioen hori, ez ote luke gehiago balioko Jainkoarengandik eduk dezan? *Cum de animorum aeternitate disserimus, non leve momentum apud nos habet consensus hominum aut timentium inferos, aut colentium. Utor hac publica persuasione.*

Bada, gai honi buruzko giza argudioen ahulezia ezagutzen da, bereziki, uste horren ondotik gehitu dituzten alegiazko gorabeherengatik, gure hilezintasun hori zein motatakoa zen aurkitzeko. Bazter ditzagun estoikoak –*usuram nobis largiuntur tamquam cornicibus: diu mansuros aiunt animos; semper negant*– arimek ematen baitiete bizi bat honetaz haratagoan, baina mugatua. Usterik orokor eta onartuena eta leku askotan orain arte dirauena, Pitagoras egileztat eman izan dena zen, ez hainbat lehen asmatzailea zelako, baina pisu eta sinesmen asko ukan zuelako haren onespeneraren omenagatik: arimek, gure baitarik abiatuz, ez zuten gorputz batetik bestera itzulikatzeaz baizik egiten, lehoi batengandik zaldi batengana, zaldi batengandik errege batengana, beti ibiltzen horrela etengabe etxez etxe.

Eta berak zioen oroitzen zela Etalides izateaz, gero Euforbio, gero Hermotimo, azkenean Pirrongandik Pitagorasengana iragan izateaz, bere buruaz berrehun eta sei urtetako oroimena ukanik. Zenbaitek gehitzen dute arima horiek igaiten direla zerura eta gero oraino jausten:

O pater, anne aliquas ad cælum hinc ire putandum est

Sublimes animas iterumque ad tarda reverti

Corpora? Quæ lucis miseris tam dira cupido? 418

Origenesek joan eta itzularazten ditu betiere egoera onetik txarrera. Varronek aipatzen duen ustea da 440 urtetako iraultzan biltzen direla beren lehen gorputzera; Krisipok, hori gertatu behar dela denboraldi ez mugatu baten ondoan.

Platonek, baitio Pindaro eta aitzineko poesiatik ukan duela arima prestatzen den aldakuntzezko mugagabeko gertaldien sinesmen hau, beste munduan neke eta sari denborazkorik besterik ez izanik, honetan haren bizia denborazkoaz baizik ez baita, hartan ondoriatzen du zeruko, infernuko eta hemengo berrien jakintza berezi bat, zeren handik iragan, itzuli eta egon baita bidaia anitzetan: hori haren oroimenaren gaia da.

Hona, nonbait haren aitzinamendua: Ongi bizi dena biltzen da dagokion argizagira; gaizki bizi dena, emakumeengana iragaiten da eta, orduan ere, zuzentzen ez bada, bere ohitura biziosoei dagokien ihizi bilakatzen da, eta ez du zigorren azkena ikusiko bere jitezko izaerara itzuli arte, bere baitan ziren nolakotasun zakar, ergel eta basez arrazoiaren indarraren bidez gabeturik.

Baina, ez dut ahanzi nahi batetik besterako gorputzaldatze horri epikurearrek egin erantzukia. Atsegina da. Galdegiten dute zein lehentasuna izanen da baldin eta hilen andana sortuena baino handiagoa gertatzen bada: zeren beren egoitzetik kanporatu arimak metatuko baitira estalpe berri horretan lekua lehenik nork hartzen duen. Eta galdegiten dute ere beren denbora zertan ihardukiko duten egoitza bat presta dakien igurikatzen duten artean. Edo, aitzitik, ihizi gehiago sor balitez hil baino, badiote gaizki leudekeela gorputzak, beren arimaren isurpenaren zain, eta gertatuko litzateke haietarik batzuk hilen liratekeela bizirik izan baino lehen:

Denique connubia ad veneris partusque ferarum

Esse animas præsto deridiculum esse videtur,

Et spectare immortales mortalia membra

Innumero numero, certeraque præproperanter

Inter se, quæ prima potissimaque insinuetur ⁴¹⁹.

Beste zenbaitek arima gelditu dute zenduen gorputzean, gure soinadarren usteltzetik eta hautsetarik sortzen diren suge, har eta beste ihiziei arimaren emateko. Besteek zatikatzen dute atal hilkor batean eta hilezina bestean. Besteek gorputzezkoa dagite eta, hala ere, hilezina. Zenbaitek hilezina dagite, jakintzarik ez ezagutzarik gabe. Badira ere uste izan dutenak kondenatuen arimetarik deabruak egiten zirela (eta gureetarik zenbaitek hala uste izan dute); Plutarkok uste duen bezala jainkoak egiten direla salbatu direnetarik; zeren gauza guti baita, egile honek hau egiten duen bezalako mintzamolde erabakian finkatzen duenik, gainerako orotan modu zalantzati eta nahasi bat erabilirik. "Uste behar da (dio) eta bermeki sinetsi naturaren eta jainkozko zuzenbidearen araberako gizon bertutetsuen arimak gizon baitarik saildu bilakatzen direla; eta saildu baitarik jainko-erdi; eta jainko-erdi baitarik, osoki garbitu eta ikuzi izan diren ondoren, ordaintze-eskaintzen bidez, jasan eta hilgarritasun oroz libratuak izanik, jainko oso eta bete bilakatzen direla, ez arau zibil batengatik, baina egiazki eta itxurazko arrazoiaren arabera, amaiera hagitz dohatsu eta ospetsu bat ukanik." Baina, alderdiko zuhur eta neurtuetarik bat dena, ausartzia handiagorekin guduxkaka ibiltzen eta gain honi buruzko bere mirakuluen kondatzen ikusi nahi duena igortzen dut haren Ilargiaz eta Sokratesen demonioaz hitzaldira, hor, beste inon baino ageriago, frogatzen ahal baita filosofiaren misterioek bitxitasun asko dituztela poesiarenekin partzuergoan: giza adimena galdurik gauza guztiak azkeneraino ikertu eta egiaztatu nahian; geure biziaren ibilaldi luzeak nekaturik eta higaturik haurtzaroan arrotzen garen bezala. -Horra geure arimaren gaiari buruz giza jakintzatik ateratzen ditugun irakaskuntza eder eta seguruak.

Gorputz-zatiez irakasten digunean ez da ausarkeria gutiagorik. Bereiz ditzagun bizpahiru eredu, zeren bestenaz galduko baikinake sendakuntzazko hutsen itsas uher eta gaitz horretan. Jakin dezagun honetean bederen adostasuna ote den: gizonak zein gaiz sortzen duten elkar. Zeren, beren lehengaiari buruz, ez da miraria baldin eta, hain gazua gora eta zaharrean, giza adimena nahasten eta ezabatzen bada. Arkelao fisikoak,

Aristoxenoren arabera bere ikaslea eta maitalea Sokrates baitzen, bazioen gizonak eta ihiziak lurraren beroak atera lohi esnetsu batez eginak izan zirela. Pitagorasek dio geure hazia geure odolik hoberenaren aparra zela; Platonek, bizkar-hezuraren mamiaren jariozea, hori argudiatzen du leku horrek lehenik sentitzen baitu beharren nekea; Alkmeonek, burmuinaren gaiaren zatia; eta hala da, dio, begiak uhertzen baitzaie neurriz gora ariketa horretan lantzen direnei; Demokritok, gorputz-multzo osotik atera gai bat; Epikurok, gorputz eta arimaren funts bat; Aristotelesek, odolaren hazkurritik atera hondakin bat, gure soinadarretan hedatzen den azkena; besteek, barrabiletako beroak egosi eta eho odola, uste baitute hori soberazko eginahaletan odol hutsezko ttanttak isurtzen baitira: itxura gehiago dela baitirudi, itxura zerbait atera baledi hain nahasmen mugagabe batetik. Bada, hazi horren gauzatzeko, zenbat aburu kontrario dira? Aristotelesek eta Demokritok uste dute emakumeek ez dutela hazirik, eta atseginaren beroaz eta mugimenduaz egozten duten izerdi bat besterik ez dela, sortzapenerako deus ere balio ez duena; Galenok eta bere jarraitunek, aitzitik, hazien batzerik gabe sortzapena ez daitekeela egin. Horra sendagileak, filosofoak, lege-gizonak eta teologoak nahaste-barrasteko gatazkan gure emakumeekin, hauek beren fruitua zein epeetan daramatelako eztabaidan. Eta nik laguntzen ditut, neure buruaren ereduz, haietarik hamaika hilabetetako sabelaldia sostengatzen dutenak⁴²⁰. Mundua esperientzia honetaz josia da: ez da emaztetto arruntik eztabaida guzti hauen gain bere ustea ez lerrakeenik, eta ez gintezke ados egon.

Horra aski egiaztatzeko gizona ez dela ikasiagoa bere buruaren ezagutzaz gorputz zatian izpirituzkoan baino. Bere burua berari ezarri diogu aurrean, eta bere arrazoia bere arrazoiari, hartaz zer esanen zigun ikusteko. Iruditzen zait aski erakutsi dudala bere buruaz zein guti aditzen duen.

Eta bere baitan aditzen ez duenak zertan aditzen ahal du?

Quasi vero mensuram illius rei possit agere, qui sui nesciat

Egiazki ederrak kontatzen zizkigun Protagorasek gizona gauza ororen neurria eginik, bakarrik berea sekula ez baitaki. Bere harrotasunak ez dio utziko, bera ez bada, beste izakiak abantaila hori ukan dezan. Bada, berak, bere baitan hain kontrarioa izanik eta uste batek etengabe bestea irauliz, aburu faboragarri hori irrigai bat besterik ez zen, neurria eta neurtzailearen ezteuskeriaren ondoriatzera halabeharrez eramaten gintuena.

Talesek deritzon giza ezagutzari arras zaila gizonarentzat, irakasten dio beste gauza ororen ezagutza ezinezkoa zaiola.

Zuk⁴²², neure ohituraren aurka hain gorputz luze baten hedatzeko nekea zuregatik hartu baitut, ez duzu hutsik eginen zeure Sebonden sostengatzeko egunero ikasia zaren argudiomolde ohituaren bidez, eta hartan landuko duzu zeure gogoa eta ikerpena: zeren azken esgrima-ukaldi hau, ez baita erabili behar hondarreko erremedio bezala baizik. Ukaldi etsi bat da, zeure armak utzi behar baitituzu zeure etsaiarenen galarazteko, eta ukaldi gorde bat, hartaz bakanka eta estalian baliatu behar baita. Ausarkeria handia da zeure buruaren galtzea beste baten galtzeko.

Ez da hil nahi behar mendekatzeko, Gobriasek egin bezala: zeren, oso hertsiki buruz buruko borrokan zelarik Persiako jaun batekin, Dario agerturik ezpata eskuan, jotzeko herabe baitzen, Gobrias hil beldurrez, oihukatu baitzion eman zezan ausarki, biak alde alde jo behar bazituen ere.

Armak eta borroka-baldintzak hain etsiak non sinestezina baitzen ez bata eta ez bestea salba zitekeela, ikusi ditut kondenatzen eskainiak izanik. Portugalدارrek hartu zituzten 14 turkiar Indietako itsasoan, eta haiek, beren gatibotasunez etsiak, deliberatu ziren, eta hala gertatu zitzairen, beren buru, beren nagusi eta ontziaren erraustera, itzeak marruskatuz bata bestearen kontra, hainbateraino non su-pindar bat erori baitzen han zeuden kanoi-polbora barriken gainean.

Hemen badarabiltzagu jakintzen mugak eta azken hesiak, bertutean bezala, haietan ezinagotasuna biziosoa baita. Zaude ohizko bidean, ez dagi on hain zorrotz eta fina izateak. Oroit zaitez zuhurtitz toskaniarrak dioenaz: Chi troppo s'assottiglia si scavezza. Aholkatzen dizut, zure aburu eta hitzaldietan, zure ohitura eta beste gauza orotan bezala, neurtasuna eta epeltasuna, eta berritasun eta arrarokeriatik ihesaldia. Bide bitxi guztiek aspertzen naute. Zuk, zeure handigoak dakarkizun manuagatik, eta, areago ere, nolakotasunik zeureenek ematen dizkizuten abantailengatik, begi-kliskada batez nahi duzuna manatzen ahal baituzu, eman behar diozu kargu hau letretako ofizioa egiten duen norbaiti, oso besterik bermatu eta aberastu zizukeen ameskeria hau. Nolanahi ere, horra aski egin behar duzunarentzat.

Legeei buruz zioen Epikurok gaizkienak hain beharrezkoak zitzaizkigula non, haiek gabe, gizonek elkar janen bailukete. Eta Platonek, gauza beretsua, legerik gabe ihiziak bezala biziko ginatekeela; eta entseiatzen da horren egiaztatzera. Gure gogoia tresna ibiltari bat da, arriskutsu eta ausarta: gogor da arau eta neurriaren hari eratxikitzea. Eta, ene aroan, besteen gaineko bikaintasun arraro eta ohiz landako bizitasun zerbait daukatenak, gutiz gehienak dakuskigu uste eta ohiturako nahastetan gaindituak. Mirakulua da bat zentzudun eta elkargarria aurkitzen bada. Arrazoi da giza gogoari ahal bezain hesi hertsien ematea. Ikerpenean, garaitikoan bezala, zenbatu eta arautu behar zaizkio haren urratsak, antzez markatu behar zaizkio haren bilketako mugak. Lotzen eta estekatzen ohi da erlijioez, legeeaz, azturez, jakintzaz, araez, nekeez eta sari hilkor eta hilezinez; eta oraindik ere ikusten da, bere nahikeriaz eta makurkeriaz, itzurtzen zaiela lotura horiei guztiei. Gorputz huts bat da, nondik atxiki eta jo ez duena; gorputz aldakor eta moldegabe, korapilorik ez harbiderik ez datxizkiona. Zinez, gogo guti da hain arautu, azkar eta ongi sorturik non bere jokaera bere baitan fida daitekeen, eta, neurtasunez eta ausarkeriarik gabe, beren usteen libertatean, aburu arruntez haratago, ibil daitekeen. Egokiago da zainpean ezartzea.

Gogoia ezpata zaurigarria da hartaz arautuki eta zuhurki baliatzen ez dakienarentzat, nagusiarentzat berarentzat ere. Eta ez da abererik begiestalkiak zuzenkiago eman behar zaizkionik haren ikusmenaren loturik eta estekaturik edukitzeko bere urratsen aitzinean, eta hor-hemenka, ohiturak eta legeek marratzen dizkioten mugez haratago ibilkatzetik gordetzeko. Horregatik hobeki izanen zaizu ohiko ibilerari lotzea, zernahi ere den, neurgabeko nahasmen horretara zeure hegaldatzearen egozteko baino. Baina, doktore berri horietarik norbait entseiatzen bada zure aitzinean zorrotzarenaren egitera, bere eta zure osasunaren bizkar, egunero zeure gorteetan hedatzen den izurrite perilos horretaz libratzeko, gordegailu honek, azken beltzean, eragotziko du pozoin horrek min egin diezazun zeuri eta zeure lagungoari.

Gogo zahar haien libertateak eta, beraz, nabarmentasunak filosofian eta giza jakintzetan sortzen zituen uste ezberdinetako gizataldeak, bakoitzak nahi baitzuen erabaki eta hautatu alderdiaren hartzeko. Baina, orain, gizonak ibilaldi berean baitoaz, Qui certis quibusdam destinatisque sententiis addicti et consecrati sunt, ut etiam quae nom probant, cogantur defendere., eta jakintza manamendu eta arau zibilaren bidez hartzen baitugu, eta eskolek ez baitute molde batez baizik eta irakaskuntza eta araubide berdin mugutua, ez da gehiago begiratzen diruek zer pisatzen eta balio duten, baizik eta bakoitzak bere aldian onartzen du denen onespenean eta erabilerak ematen dietena balioaren arabera. Ez da metalaren legeaz auzitan ari, baina haren erabileraz: horrela ezartzen dira gauzak orobat. Medizina onartzen ohi da geometria bezala; esku-jostaketak, liluramenduak, estekadurak, zenduen izpirituekiko harremanak, aztiatzak, horoskopoeak⁴²⁵, eta filosofiarriaren bilketa irrigarri hori ere, dena ezartzen da gezurtamenik gabe. Doi jakin behar da Marteren lekua eskuko triangelu erdian datzala, Venusena hatz lodian, eta Merkurioarena behatz txinkardan; eta erdiko marrak hatz

erakuslearen anbuilua hausten duelarik, oinazkoikeriaren ezaugarria dela; erdiko behazpean huts dagielarik eta erdiko marra naturalak biziarenarekin angelu bat dagielarik bertan, heriotza esteiari baten ezaugarria dela. Emakume baten baitan, naturala zabala bada eta ez badu biziarenarekin angelurik hesten, horrek darakusa ez duela garbitasunik gordeko. Zuhaur deitzen zaitut lekukorako, jakintza honekin ez ote daitekeen gizon bat iragan lagungo guztien artetik omen on eta faborearekin.

Bazioen Teofrastok giza ezagutzak, zentzuek bideraturik, epai zezakeela gauzen kausez neurri zerbaitetaraino, baina lehenbiziko eta hastapeneko kausetara heldurik, gelditu eta hetsi behar zela, edo bere ahulezia edo gauzen zailtasunagatik. Aburu erdiko eta ezti bat da, gure jakintzak garamatzakeela gauza zenbaiten ezagutzaraino, eta ahalmenean neurri zenbait badauzkala, haietaz gaindi erabiltzea ausarkeria baita. Aburu hau goresgarria da eta jende moldatuek sartua; baina gogor da gure gogoari mugen ematea: jakin-nahia eta gosea da, eta ez du gelditzerik gehiago mila urratsetan berrogei eta hamarretan baino. Esperientziak entseiatu batek huts egin zuena, besteak erdietsi duela; eta mende bati ezezaguna zitzaiola, ondokoak argitu duela; eta jakintzak eta antzeak ez direla molde batean eratzen, baizik eta moldatzen eta itxuratzen direla apurka apurka anitz aldiz eskuztatuz eta zuzenduz, hartzek beren umeak itxuratzen dituzten bezala ausarki milikatuz; neure indarrak edireten ahal ez duena ez dut ikertze eta entseiatzetik uzten; eta, gai berri hau eskuztatuz eta oratuz, irekitzen diot darraidanari erraztasun zerbait bere oldera hobeki goza dezan, eta arin eta erabilgarriago egiten diot,

ut hymettia sole

Cera remollescit, tractaque pollice, multas

Vertitur in facies, ipsoque fit utilis usu 426.

Beste hainbeste eginen dio bigarrenak hirugarrenari: horregatik nekeak ez nau etsitu behar, ez neure ezintasunak, zeren neureaz besterik ez baita. Gizonak gauza guztiak egin ditzake, eta berdin deus ez; eta aitortzen badu, Teofrastok dioen bezala, lehengo kausa eta hastapenen jakineza, utz biezat ausarki haren jakintzaren garatikoa: oinarriak huts egiten badio, haren hitzaldia lurrean da; eztabaidatzeak eta galdegiteak ez du beste xederik hastapenez baizik; xede horrek ez badu haren ibilbidea gelditzen, betiereko zalantzara egozten da. Non potest aliud alio magis minusve comprehendere, quoniam omnium rerum una est definitio comprehendendi.

Beraz, itxuragarria da arimak zerbait baleki bere burua ezagut lezakeela lehenik bere; eta, zerbait baleki bere buruaz landa, bere gorputza eta untzia litzatekeela, beste zernahi gauza baino lehen. Eta gaur egun ikusten dira medizinen jainkoak estabaidatzen gure anatomiaz,

Mulciber in Trojam, pro Troja stabat Apollo 428,

noiz igurikatzen dugu ados egon daitezen? Geure buruari hurbilagoak gatzazkio lurraren zurtasunari edo harriaren pisutasunari baino. Gizonak bere burua ez badazagu, nola dazaguzki bere ahalmen eta indarrak? Menturaz, egiazko berri bat badagoke gure baitan, baina menturaz da. Eta bide, modu eta molde beretik onartzen baitira hutsak gure ariman, honek ez du zertaz bereiz, ez zertaz hauta gezurretik egia.

Akademikoek onartzen zuten adimenaren aiher zerbait, eta gordinegi aurkitzen zuten esatea ez zela itxuragarriagoa elurra zuri izan zedin beltz baino, eta ez garela seguruagoak geure eskutik abiatzen den harriaren higitzeaz, zortzigarren esferarenaz baino. Eta zailtasun eta bitxitasun hortik itzurtzeko, gure irudimenean zinez ez baitagoke gaizki baizik, finkatu bazuten ere ez ginela inondik ere jakiteko gai, eta egia lezeztaturik dagoela giza ikusmena sar ez daitekeen erroitz barrenetan, aitortzen zituzten gauza zenbait besteak baino itxuragarriagoak, eta beren adimenean onartzen zuten itxura bati beste bati baino isurmen gehiago ahal izateko indarmena: baimentzen zioten aiher hau, erabakitze oro debekaturik.

Pirroniarren aburua ausartagoa da eta, hainbatik hainbatean, itxuragarriagoa. Zeren uste bati beste bati baino gehiagoko isurmen akademiko hori zer da baizik eta honetan egia itxuragarriago baten ezagutza hartan baino? Gure adimena egiaren molde, marratze, itxura eta aurpegiaren gaia baldin bada, erdirik, sorberririk, eta itzaldurik bezain ongi ikusiko luke osorik. Eskuinez baino hobeki ezkerrez harrarazten dituen egiantzeko itxura hori emenda ezazu; balantza makurtzen duen egiantzeko ontza⁴²⁹ hori multiplika ezazu ehunetan, mila ontzetan, eta azkenean gertatuko da balantza erabat alderdiratuko dela, eta bereizketa eta egia oso bat geldituko dela. Baina, nola uzten dute beren buruaren egiantzera makurtzera, egia ez badazagute? Funtza ez dazagutenaren egiantza nola dazagute? Edo erabat epai dezakegu, edo ez dezakegu erabat. Geure gogo eta zentzuzko ahalmenak funtsik eta oinarririk gabe badira, igerikatzek eta gaindikatzek baizik ez badute egiten, ezertarako uzten dugu geure adimena haien ariketaren zati zerbaitetara joaten, zernahi itxura ematen digula dirudien arren; gure adimenaren jarlekurik seguru eta zorionekoena lasai, zuzen, makurgaitz, ikararik ez inarrosterik gabe dagoena litzateke. Inter visa vera aut falsa ad animi assesum nihil interest.

Aski dakusagu ez daudela gauzak beren molde eta funtsetan gure baitan, eta ez direla beren indar eta manuagatik sartzen: zeren, hala balitz, molde berean onartuko baikenituzke; ardoa bera litzateke eriaren nola sendoaren ahoan. Behatzetan arrailadurak dituenak, edo gogorrak dituenak, beste batek bezalako gogortasun bat aurkituko luke darabilen zur edo burdinean. Gai arrotzak geure oldera bilakatzen dira; badaude geure baitan guk nahi bezala. Bada, geure aldetik hartuko bagenu zerbait aldakuntzarik gabe, giza harbideak aski gai eta berme balira egiari atxikitzeko geure bideez, bide horiek gizon ororen baitan berdinak izanik, egia hori eskuz esku batetik bestera egotziko litzateke. Eta bederen aurkituko litzateke gauza bat munduan, diren hainbaten artetik, orokorreko baieztapen batez gizon orok sinetsia izanen litzatekeena. Baina gure artean eztabaidaturik eta hizkaturik ez den, edo izaten ahal ez den, esaldirik batere ez ikusteak, ongi darakusa gure adimen naturalak ez dakiela garbiki zeri datxikion. Zeren nire adimenak ez baitiezaioke nire lagunarenari onartaraz: neure baitan eta gizon ororen baitan den ahalmen natural batez beste bide batez natxikiola erakusten baitu.

Utz dezagun bazterrean filosofoen berorien artean ikusten den betiereko aburu-nahaste hori, eta gauzen ezagutzan etengabeko eta orokorreko eztabaida hori. Zeren hori aitzinetik emana baita hagitz egiazki: gizonak, badiot jakileak eta hobekien sortuak, adituenak, ezein gauzatan ez direla ados, zerua gure buruen gainean den ere ez; zeren denetaz zalantzan direnak, zalantzan baitira hortaz ere; eta gauza bakar bat konpreni dezakegula ukatzen dutenek, badiote ez dugula konprenitu zerua geure gainean izan dadin; eta bi aburu hauek andanaka dira, alderaketarik gabe, azkarrenak.

Ezberdintasun eta zatikatze mugagabeko horretaz landara, geure buruari geure adimenak ematen digun nahasteaz, eta bakoitzak bere baitan somatzen duen ezbaiaz, ikusterraza da bere jarlekua arras gaizki segurtatua duela. Zein ezberdinki uste dugu gauzei buruz? Zenbat aldiz aldatzen ditugu geure ameskeriak? Egun uste eta sinesten dudana, neure sinesmen osoz uste eta sinesten dut; neure tresna eta indar guztiak datxizkio aburu honi eta bermatzen didate ahal duten ororen gain. Ez nezake ezein egirik besarka ez indar gehiagorekin gorde hau egiten dudana baino. Hatz-behatz oso nagokio, zinez; baina ez ote zait gertatu, ez behin, ehunetan, milatan baizik, eta egunero, beste gauzaren baten besarkatzea tresna hauekin berauekin, baldintza honetan berean, nik gero faltsua iritzi dudana? Behintzat, zuhur bilakatu behar da nor bere bizkar. Anitz aldiz engainatua gertatu banaiz kolore horren aitzakiaz, neure ukimena eskuharki faltsua gertatzen bada eta neure balantza makurra eta zuzengabea, zer segurantza har dezaket aldi honetan besteetan baino gehiago? Ez ote da ergelkeria hainbat aldiz neure buruaren engainatzera uztea gidari batek? Zoriak lekutik aldaratzen bagaitu ere bostehun aldiz,

gure sinesmenean beste aburuen eta besteen ere, ontzi batean bezala, hustutzeaz eta betetzeaz baizik egiten ez badu ere, beti oraingoa eta azkena da egiazkoa eta hutsezina. Honen alde ontasunak, ohorea, bizia, osasuna eta dena utzi behar da, posterior res illa reperta,

Perdit, et immutat sensus ad pristina quæque 431.

Zer ere irakasten bazaigu, zer ere ikasten badugu, beti ere oroitu beharko litzateke gizona dela ematen eta hartzen duena; esku hilkorra da erakusten diguna, esku hilkorra da onartzen duena. Bakarrik zerutik datozkigun gauzek badute sinesteko zuzenbide eta manua; bakarrik, egiaren ezaugarria; ez baitugu ere geure begiez ikusten, ez geure bideez onartzen: irudi saildu eta handi hori ez legoke horren egoitza eskasean, Jainkoak ez baleza erabilera honetarako presta, Jainkoak ez badu birmoldatzen eta gotortzen bere grazia eta fabore berezi eta naturagaindikoaz.

Geure izaera hutsegileak, behintzat, ibilarazi beharko gintuke neurtuki eta begiratukiago geure aldakuntzetan. Oroitarazi beharko liguke, nahi dena harturik ere adimenean, maiz gauza faltsuak onartzen ditugula, eta maiz gezurtatzen eta engainatzen diren tresna hauen berauen bidez.

Bada, ez da miraria gezurtatzen badira, oso gertaldi arinengatik hain aihur eta makurrerrazak izanez. Egia da gure oharrena, gure adimena eta, orokorki, gure gogo ahalmenak pairatzen dutela gorputzaren higikunde eta aldatzeen arabera, etengabeak baitira. Ez ote dugu osasunean gogoia erneago, oroimena azkarrago, arrazoimena biziago eritasunean baino? Pozak eta alaitasunak ez ote dizkidate onartarazten geure gogoari agertzen zaizkigun gaiak, atsekabeak eta goibeltasunak eginarazten duten guztiz beste aurpegiarekin? Uste ote duzu Katulo edo Saforen neurtitzak berdina egiten diotela irri zahar zeken eta zaputuz bati nola gizon gazte sendo eta gartsu bati? Kleomenes, Anaxandridasen semea, erri izanez, bere adiskideek erantzuki egiten zioten aldarte eta ameskeria berri eta ezohituak zituela: . Gure jauregiaren auzietan erabiltzen ohi da solas hau, esaten baita aldarte on, ezti eta beratz zerbaitean beren epaileak aurkitzen dituzten gaizkileez: gaudeat de bona fortuna, goza bedi zorion horretaz; zeren egia baita epaimenak aurkitzen direla batzuetan zigorrara isuriagoak, arantzatzu eta garratzagoak, eta batzuetan errazagoak, eskuragarriagoak eta barkamenara emanagoak. Nork ere bere etxetik hezurreraren mina, bekaitza edo bere morroiaren ebasketa baitarama, ez da dudatu behar halako haren epaiketa aldatu dela alderdi horretara. Areopagoko senatu agurgarri hark gauez epaitzen ohi zuen, beldurrez eta alderdien ikusmenak ustel zezan bere zuzenbidea. Aireak berak eta zeruko zohargiak aldakuntza zerbaite dakarkigu, Zizeronen baitako neurtitz greko honek dioen bezala,

Tales sunt hominum mentes, quali pater ipse

Jupiter auctifera lustravit lampade terras 432.

Ez dira soilik sukarrak, edabeak eta ezbehar handiak gure adimena aldaratzen dutenak; munduko gauzarik xehenek bihurtzeko dute. Eta ez da zalantzan ezarri behar, sentitzen ez badugu ere, etengabeko sukarrak lurreratzen ahal badu gure gogoia, sukar herenak ekartzen duela aldakuntza zerbaite bere neurria eta heinaren arabera. Odol-kolpeak lokartzen eta iraungitzen badu erabat gure adimenaren ikusmena, ez da zalantzan ezarri behar burutik-beherakoak zentzordatu duela; eta, beraz, doi aurkitzen ahal da bizian gure adimena bere beharrezko jarlekuan dagoen ordu bakar bat, gure gorputza hainbeste etengabeko aldakuntzen menpean izanik, eta hainbeste indarrez horniturik non (sinesten diet sendagileei) gogor baita beti ez izatea gaizki dabilen bakarren bat.

Bestalde, gaitz hori ez da hain errazki edireten, non ez den osoki ezinagokoa eta antolabiderik gabea, bitartean arrazoiak baitabil beti, makur, herren eta maingu, eta gezurrarekin nola egiarekin. Hartaz bada, gogor da haren engainatze eta desarautzearen

ediretea. Beti arrazoi deitzen dut bakoitzak bere baitan moldatzen duen hitzaldi itxura hori; arrazoi hori, bere baldintzakoak gai ber baten inguruan ehun kontrario baitaitezke, tresna bat da, berunez eta ezkoz, luzagarri, malgugagarri eta moldagarri alde eta neurri orotara; haren bihurtzeko jakintzaz baizik ez da behar. Epai batek zernahi xede on badu ere, bere burua hurbiletik ez badantzu, jende gutik diharduena, adiskidantzara, ahaidegora, edertasunera eta mendekurako isurmenak, eta ez bakarrik hain pisuko gauzek, baina gauza bat beste bat baino gehiago faborarazten digun zorizko sen horrek, arrazoiaren baimenik gabe bi gai berdinetan hautabidea ematen digunak, edo hutsalkeria berdineko itzal zerbaitek, oharkabea hartzen ahal dute bere adimenean kausa baten gomendioa edo begigoa eta balantzari makurbidea eman.

Nik, neure buruari hurbiletik zelatan nagokionak, begiak etengabe neure gainean ezarriak ditudanak, kanpoan egiteko larririk ez duenaren antzera,

quis sub Arcto

Rex gelidæ metuatur oræ,

Quod Tyridatem terreat, unicæ

Securus 433,

doi ausartuko nintzateke neure baitan aurkitzen dudana hutsalkeria eta ahuleziaren esatera. Oina hain kordoka eta gaizki jarria dut, hain oztopaeraz eta ikarakorra aurkitzen dut, eta ikusmena hain araurik gabea, non baraurik bazkalondokoaz besterik sentitzen bainaiz; osasunak eta egun eder baten argitasunak irri egiten badidate, horra gizon zintzoa nauzula; behatzean hertsatzen nauden maskur bat baldin badut, horra beltzuri, ezatsegin eta helgaitza nauzula. Zaldi-urrats bera iruditzen zait noiz zakar, noiz erraz, eta bide bera ordu honetan laburragoa, beste behin batez luzeagoa, eta moldea bera noiz atseginagoa, noiz gutiago. Orain banaiz zernahiren egiteko, orain deusen ez egiteko; atsegin zaidana ordu honetan, inoiz ere neke izanen zait. Egiten da mila inarrosi neurrigabe eta menturazko ene baitan. Edo aldarte goibela datxikit, edo kolerikoa; eta orain, bere manamendu bereziaz, atsekabea nagusitzen da ene baitan, orain alaitasuna. Liburuak hartzen ditudalarik, halako pasartearen ohartu banintzaien ere neure gogoak hunkitu zuten grazia bikainei, beste behin arrerortzen naiz, alferrik itzulikatzen eta iraultzen dut, alferrik plegatzen eta eskuztatzen, neuretzat mukuru ezezagun eta moldegabea da.

Neure idazkietan berauetan, ez dut beti neure lehen irudimenaren itxura berriz aurkitzen; ez dakit zer esan nahi izan dudana, eta maiz gaikiagotzen naiz zuzentzean eta zentzu berri baten ezartzean, hobeki balio zuen lehenaren galtzeagatik. Joan eta etorriaz besterik ez dagit: neure adimenak ez narama beti aitzina; igerikatzen, ibilkatzen da, velut minuta magno

Deprensa navis in mari vesaniente vento 434.

Maiz (gogotik gertatzen zaidan bezala) ariketa eta eztabaidarako harturik neurez kontrario den aburu baten finkatzea, neure gogoak, alderdi hartarik atxikiz eta itzuliz, hain ongi estekatzen nau non ez baitut lehen ustearen arrazoia aurkitzen, eta hartatik lekutzen naiz. Neure burua herrestatzen dut isurtzen naizen lekura, nolanahi ere den, eta neure pisuak banarama.

Bakoitzak, guti gorabehera, beste hainbeste balerrake bere buruaz, nik bezala begiratuko balio. Predikulariek badakite mintzatzean datorkien hunkimenak sinesmen aldera berotzen dituela, eta haserraldian areago gatzizkiola geure esaldiaren defentsari, geure baitan inprimatzen eta besarkatzen geure zentzu hotz eta pausatuan izanik egiten dugun baino bortiztasun eta onespen gehiagorekin. Soilik aipatzen diozu auzi bat abokatuari, erantzuten dizu kordoka eta zalantzati: ohartzen zara berdina zaiola alderdi baten edo bestearen hartzea sostengatzeko; ausarki ordaindu diozu ausikitzeko eta moduratzeko, hasten ote da erne izaten, borondatea berotu ote zaio? Arrazoia eta jakintza berotzen

zaizkio hainbatik hainbatean; horra gogoari agertzen zaion itxurako eta zalantzarik gabeko egia bat; hor edireten du argi osoki berri bat, eta gogo onean sinesten du, eta horrela gogoan atxiki. Areago ere, ez dakit epailearen eta arriskuaren hunkimen eta bortiztasunaren kontrako hisi eta tematik sortzen den suak, edo omenaren interesak, ez duten halako gizona bidali bere adiskide artean eta libertatean haren alde behatz punta berotu nahi izan ez zukeen aburuaren defendatzera sutaraino.

Gorputzezko aiherrengatik gure gogoak ukaiten dituen astintze eta inarrosteek ahal handia dute harengan, baina oraino gehiago bere baitakoek, beraiek hain harrapatua baita, non menturaz sostengatzen ahal baita beren haizeen erauntsiaz beste abiadurarik eta higierarik ez duela, eta, beraien inarrosterik gabe, ekintzarik gabe legokeela, itsaso erdian haizeek laguntzarik gabe uzten duten ontzi bat bezala. Eta hori lerrakeenak, peripatetikoan alderdiari jarraikiz, ez liguke makur askorik eginen, ezaguna baita gogoaren ekintza eder gehienak datozela ahierren bulkadatik, eta haien beharra badutela. Suhartasuna, diote, ezin osa daiteke haserraldiaren laguntzarik gabe.

Semper Ajax fortis, fortissimus tamen in furore ⁴³⁵.

Eta ez ohi zaie gaizto eta etsaiei aski bortizki jazartzen, haserraturik ez bada. Eta nahi dute abokatuak epailei herra iradoki diezaien zuzenbidearen ateratzeko. Gutiziek zerabilten Temistokles, eta Demostenes ere; eta filosofoak bulkatu dituzte lan, beila eta ibilaldietara; zuzentzen gaituzte ohore, irakaskuntza, osasunera, helburu onuragarriak. Eta aspertasun eta hastioaren jasateko gogo-flakezia horrek balio du kontzientzian penitentzia eta damutasunaren hazteko eta Jainkoaren azoteen sentitzeko gure zigorrarako eta zuzentze politikoaren azoteen ere. Urrikaltasunak balio du barkamenaren akuilutzat, eta geure buruaren gordetzeko eta zuzentzeko zuhurtasuna geure beldurrak iratzarria da; eta zenbat ekintza eder handinahiak? Zenbat harrotasunak? Azkenean, batere bertute gora eta nabarmenik ez da inarroste desarautu zerbait gabe. Izan ote zatekeen epikuroarrak gure egitekoen axola eta grina orotaz Jainkoaren arintzera eraman zituen arrazoiak, haren ontasunaren ondorioak berak ezin burura zitezkeenez gure aldera haren atsedena kordokatu gabe pasioneen bidez, gogoak ekintza bertutetsuetara bideratzen duten ziztada eta axolak bezalakoak baitira? Edo besterik sinetsi izan ote dute eta gogoak bere lasaitasunetik ahalkegarriki aldaratzen duten ekaitzak bezala hartu ote dituzte? Ut maris tranquillitas intelliguntur, nulla, ne minima quidem, aura fluctus commovente: sic animi quietus et placatus status cernitur, quum perturbatio nulla est qua moveri queat.

Zein zentzu eta arrazoi ezberdintasunak, zein irudimenaren kontrastak agertzen dizkigun geure pasioneen bereizkondeak! Zer segurantzak har dezakegu, beraz, hain gauza egongaitz eta higikorretik, bere izaeraz nahastearen jabegoari emana, urrats bortxatu eta mailegatu batez baizik ez ibiliz? Gure adimena eritasun eta zoraldiaren beraren eskuan bada, gauzen hautematea erokeria eta ausarkeriatik hartzera behartua bada, zer segurantzak igurika dezakegu harengandik?

Ez ote da ausarkeriarik filosofian, gizonez uste izatean beren ondoriorik handienak eta jainkotasunari hurbilenak egiten dituztela, beren baitarik kanpoan, ero eta zoro direlarik? Hobekitzen gara geure arrazoiaren ezaz eta haren lokartzeaz. Jainkoen gelara sartzeko eta halabeharraren ibilaldiaren aztiatzeko bi bide naturalak zoraldia eta loa dira. Ikusgarri da honen gogoan hartzea: gure arrazoiari pasioneek dakarkiote aldaratzeaz bertutetsu bilakatzen gara; zoraldiak edo heriotzak dakarren arrazoiaren ezabatzeaz profeta eta jainkozko bilakatzen gara. Sekula ez nuen gogotikago sinetsi. Egia sainduak gogo filosofikoan argitu duen gartasun hutsa da, ateratzen baitio, bere sinesmearen aurka, gure gogoaren egoera lasaia, egoera jarria, filosofiak erdiets diezaiokeen egoerarik sendoa, ez dela bere egoerarik hoberena. Gure beila lokartzea baino lokartuagoa da; gure zuhurtzia zoraldia baino zuhurtasun gutiagokoa; gure ametsek gure

hitzaldiek baino gehiago balio dute. Geure baitan da har genezakeen lekurik makurrena. Baina uste ote du badaukagula ohartzeko argitasuna, gizonagandik bereizirik denean izpirituak dagien ahotsa, hain begi-zorrotz, hain handi, hain oso eta, gizonaren baitan denean, hain lurtiar, ezjakin eta ilun, gizon lurtiar, ezjakin eta ilunaren zati den izpiritutik abiatzen den ahots bat dela, eta, horregatik, ahots fidaezin eta sinesgaitza?

Ez dut inarrote bortitz horien esperientzia handirik (jite beratz eta pisutsukoa izanez) haietarik gehienek bapatean atzipetzen baitute gure gogo bere buruaren ezagutzeko astirik eman gabe. Baina gizon gazteen bihotzean alferkeriak sortzen omen duen pasione hori, astiz eta urrats neurtuetan badabil ere, hagitz ageriki erakusten die haren ahaleginari kontra egitera entseiatu direnei gure adimenak jasaiten duen bilakaera eta aldatze horren indarra. Behiala entseiatu naiz gogor izatera haren jazarteko eta apalarazteko (ez bainaiz bizioak deitzen dituenetarik bat, ez bainarraie ez banaute herrestatzen); somatzen nuen sortzen, hazten eta berretzen neure jazarpenaren kontra, eta azkenean, begiak irekirik eta bizi nintzela, neure hartzen eta nitaz jabetzen halako moldez non, mozkorraldi batez bezala, gauzen irudia hasten baitzitzaidan ohizkoaz besterik iruditzen; banekusan ageriki desiratzen nindoan gauzakiaren abantailak gizentzen eta hazten, eta neure irudimenaren haizeak handitzen eta hanpatzen; neure egitekoaren zailtasunak errazten eta zelaizten, neure arrazoimena eta kontzientzia gibelatzen; baina, su hori airaturik, instant batean, tximista baten argitik bezala, neure gogo birratxikitzen beste ikusmen-mota bati, beste egoera eta aburuari; erretiratzeko zailtasunak iruditzen handiak eta garaitezinak, eta gauzak berak nahikeriaren beroak agertu zidanaz osoki beste gustu eta aurpegikoak. Zein egiazkoagoa? Pirronek ez daki deus. Sekula ez gara eritasunik gabe. Sukarrek bere beroa eta beren hotza daukate; pasione sutsu baten ondorioetarik arrerortzen gara pasione hozpera baten ondorioetara.

Aitzinera egotzi nintzen bezainbatean egozten naiz atzera:

Qualis ubi alterno procurrens gurgite pontus
Nunc ruit ad terras, scopulisque superjacet undam,
Spumeus, extremamque sinu perfundit arenam;
Nunc rapidus retro atque æs tu revoluta resorbens

Saxa fugit, littusque vado labente relinquit ⁴³⁷.

Bada, neure arinkeria honen ezagutzatik, menturaz sortu dut neure baitan aburuen iraupen zerbait, eta ez ditut doi aldatu neure lehenak eta jitezkoak. Zeren, berritasunean zeinnahi itxura bada ere, ez baitut errazki aldatzen, beldurrez eta trukean gal dezadan. Eta, hautatzeko gai ez naizenez, besteren hautatzea hartzen dut eta banago Jainkoak ezarri jarlekuan. Bestenaz, ez nezake etengabe ibilkatzetik gorde. Honela, Jainkoaren graziagatik, osorik begiratu naiz, kontzientziaren inarrosterik ez nahasterik gabe, gure erlijioaren sinesmen zaharretan, gure mendeak sortu dituen hainbat alderdi eta zatiketetan barrena. Zaharren idazkiek, idazki onek diot, erakartzen eta narabilte kasik nahi duten bezala; badantzudana iruditzen zait beti bermeena; elkar gezurtatzen badira ere, aurkitzen dut arrazoa dutela bakoitzak bere aldian. Gogo onek nahi dutenaren itxuragarri bilakatzeko duten erraztasun horrek, eta deus ere ez baita hain bitxirik non ez baitira itxurarik aski ematera entseiatzen, nirea bezalako soiltasun baten liluratzeko, horrek darakusa ageriki haien frogaren ahulezia. Zerua eta izarrak ibili dira hiru mila urtez; mundu osoak horrela sinetsi izan zuen harik eta Kleantes samiarra edo, Teofrastoren arabera, Nizetas sirakusarra finkatzera deliberatu arte lurra zela zebilena Zodiako zehiarkako uztaitik bere ardatzaren inguruan itzuliz, eta, gure aroan, Kopernikok hain ongi finkatu du irakaskuntza hau, non txit arautuki hartaz baliatzen ohi baita ondorio astronomiko guztietan. Zer hartuko dugu hortik baizik ez gaituela berotu behar bietarik zein ote den? Eta nork daki hirugarren uste batek, hemendik mila urtetan, ez dituen aurreko biak iraultzen?

Sic volvenda ætas commutat tempora rerum:
Quod fuit in pretio, fit nullo denique honore;
Porro aliud succedit, et e contemptibus exit,
Inque dies magis appetitur, floretque repertum
Laudibus, et miro est mortales inter honore ⁴³⁸.

Horrela, agertzen zaigularik irakaskuntza berri zer bait, hartaz mesfidatzeko gertaldi handia dugu, eta gogoan hartzeko sorturik izan zedin baino lehen haren kontrarioa arrakastan zela; eta, honek iraulia izan den bezala, geroan sor liteke hirugarren asmamen bat bigarrena berdin joko duena. Aristotelesek sartu dituen hastapenak omenean izan zitezen baino lehen, beste hastapenek askiesten zuten giza arrazoia, hauek orain askiesten gaituzten bezala. Zein jakintza daukate hauek, zein lehentasun berezirik, gure asmamenaren ibilaldia beraietan geldi dadin, eta etorkizuneko aro guztirako ukan dezaten gure sinesmenaren jabegoa? Ez dira beren aitzinekoak ziren baino kanporabidez salbuetsiagoak. Argudio berri batez predikatzen zaidanean, badagokit gogoan hartzea nik ezin askiets dezakedanean beste batek askietsiko duela; zeren ezin errefusa ditzakegun itxura guztien sinestea zozokeria handia baita. Hortik gertatuko litzateke jende xehe guztiak, eta gu guztiok jende xehea gara, edukiko lukeela bere sinesmena haize-orratz bat bezain itzulgarria; zeren haien gogoia, beratz eta jazarpenik gabe izanik, bortxatua izan bailitzateke etengabe beste eta beste hunkimen berrien hartzera, azkenak beti aurrekoaren hatza ezabaturik. Bere burua ahul aurkitzen duenak erantzun behar du, bere aholkuari mintzatuko zaion irakaspenari jarraikiz, edo zuhurrangoengana bildu, hauengana ukan baititu bere ikasketak. Zenbat du medizina dagoela munduan? Parazeltso deritzon etorri berri batek aldatzen eta iraultzen omen du aitzineko arauen ordena, eta badio orain arte ez dela gizonen hilarazteko baizik baliatu. Uste dut errazki egiaztatuko duela hori; baina aurkitzen dut ez litzatekeela zuhurtzia handia neure bizia haren esperientzia berriaren frogan ezartzea.

Ez zaio bakoitzari sinesmenik eman behar, dio arauak, zeren bakoitzak gauzak oro baiterrazke.

Berritasun eta birmoldaketa fisikoen ofizioa gizon batek esaten zidan, aspaldi ez duela, aitzineko guztiak ageriki engainatuak izan zirela haizeen izaera eta ibileretan, ageriki eskuz ukia aziko baitzidan, entzun nahi banuen. Jasankortasun apur bat eduki ondoren haren argudioen entzuten, egiaren itxuraz beterik baitziren: “Nolatan bada, egin nion, itsasoan Teofrastoren legepean zebiltzanak mende balera zihoazen, ekialdera jotzen zutenean? Zeharka zihoazen, edo gibelka? –Zoria da, erantzun zidan: engainatzen ziren gero” Ihardetsi nion orduan nahiago nuela ondorioei jarraitzea arrazoiari baino.

Maiz elkar gezurtatzen diren gauzak dira; eta esan zait geometrian (jakintzetan segurtamenezko hein-burua eskuratu duela uste baitu) aurkitzen direla itzurezinezko frogak, esperientziaren egia iraulirik: Jacques Peletierrek esaten zidan neure etxean ediren zituela bi marra elkarren aldera zihoazenak batzeko, egiaztatzen baitzuen, halarik ere, sekula ez daitezkeela elkarren ukitzera hel, mugagabetasuna arte⁴³⁹; eta pirroniarrak ez dira beren argudio eta arrazoiak baliatzen esperientziaren itxuraren hondatzeko baizik; eta miresgarria da gure arrazoiaren arintasunak noraino jarraiki dien ondorioen ageritasunaren gudukatzeko xede horretan: zeren egiaztatzen baitute ez garela ibiltzen, ez garela mintzatzen, ez dela pisurik ez berorik, gauzarik itxuragarrienak egiaztatzen ditugun argudio-indar berdina. Ptolomeok, pertsonaia handia izan baita, gure munduko mugak finkatu zituen; filosofo zahar guztiek uste izan dute munduko neurria zeukatela, haien ezagutzari ihes egin liezaieketen bazterreko irla zenbaitz salbu; pirronizatzea zatekeen, duela mila urte, kosmografiaren jakintzaren eta bakoitzak onartu lekeen zalantzan ezartzea; Antipoden onartzea heresia zen; hona gure mendean lehor mugagabeko neurkizun bat, ez irla bat edo lurralde berezi bat, baina handigoan

guti gorabehera ezagutzen duguna bezalako zati bat, ediren berri dena. Aro honetako geografoek hutsik gabe segurtatzen dute egun dena edireterik dela eta dena ikusirik,

Nam quod adest præsto, placet, et pollere videtur ⁴⁴⁰.

Menturaz, Ptolomeo behiala engainatu bada bere arrazoiaren oinarrien gain, ez ote litzateke ergelkeria izanen hauek diotenaz fida banendi, eta itxuragarriagoa ez ote den mundua deitzen dugun gorputz handi hau uste dugunaz arras besterik dela.

Platonek dio aurpegiz aldatzen dela zentzu orotan; zeruak, izarrek eta eguzkiak inoiz iraultzen dutela dakusagun ibilbidea, Mendebala Ekialde bilakatuz. Egiptoko sazerdoteek Herodotori esan zioten beren lehen erregez geroztik, hamaika mila urte inguru zuelarik (eta ikusarazi zizkieten beren errege guztien irudiak, biziaren arabera atera giza irudietan) eguzkiak lau aldiz aldatu zela bidetik; itsasoa eta lurra aldizka bata bestean aldatzen zirela; munduaren sortzea mugagabea dela; Aristotelesek eta Zizeronek berdin; eta gure arteko batek⁴⁴¹ betidanik hilkorra dela eta gorabehera askotan birsortua, lekukorako Salomon eta Isaias deiturik, kontrargudio hauetarik itzurtzeko: Jainkoa noizbait izan dela sortzaile sorlanik gabe, langabe egon dela, eta bere langabetik desegin zela egiteko honi loturik, eta, beraz, aldakorra dela. Eskola grekorik ospetsuenean⁴⁴², mundua Jainko bat da beste Jainko handiago batek egina, gorputz eta bere zentruan datzan arima batez osatua da, arima hori musika zenbakitan hedaturik bere inguruan, jainkozko, txit zorioneko, txit handi, txit zuhur, betiereko. Haren baitan daude beste Jainkoak, lurra, itsasoa, izarrak, baitihardute arautu eta etengabeko mugitzean eta jainkozko dantzan, behin hurrantzen, behin urruntzen, gordetzen, agertzen, lerrotik aldatzen, orain aitzinera, orain gibelera. Heraklitok finkatzen zuen mundua suz osatua eta, halabeharraren manuaz, izeki eta sutan desegin behar egun batez, eta oraino egun batez ere birsortu. Eta gizonez badio Apuleiok: Singillatim mortales, cunctim perpetui. Alexandrok bere amari idatzi zion sazerdote egiptoar baten narrazioa haien oroitarrietarik ondoriaturik, mugagabeko nazio horren zahartasunaren lekukotasuna emanez eta egiazki beste herrien sortze eta aitzinatzeak harturik. Zizeronek eta Diodorok badiote beren aroan kaldearrek bazutela larehun mila urte inguruko idazkitegia; Aristotelesek, Pliniok eta bestek, Zoroastro bizi zela Platonen aroa baino sei mila urte lehenago. Platonek dio Saiseko hirikoek badituztela zortzi mila urteko oroimen idatziak, eta Atenaseko hiria aipatu Saiseko hiria baino mila urte lehenago eraikia izan zela; Epikurok, hemen gauzak dakuskigun bezala diren bitartean, berdinak, eta modu berean, beste mundu anitzetan direla. Segurkiago esanen baitzukeen ikusi izan balitu mendebaeko Indietako mundu berri horren gurearekiko, oraingo eta iraganaldiko, berdintasun eta egokitasunak, hain eredu bitxietan.

Zinez, arautegi lurtiar honen aroan gure jakintzara etorri dena gogoan hartuz, maiz miretsi naiz ikusteaz, leku eta arozko hagitz alde handi batean, aburu herrikoï okaztagarri andana handi eta ohiturak eta sinesmen basa batzuen aurkientzak, inondik ere ez baitirudite gure arrazoi naturalari dagozkionik. Giza gogoan mirari egile handia da; baina zerrenda honek badu oraino ere ez dakit zer arrarotasun gehiagorik; izenetan, gorabeheretan eta beste mila gauzetan ere aurkitzen baita. Herri batzuk aurkitzen baitira, dakigunez, gutaz berririk ez edukirik, zirkuntzisia sinesmenean zeukatenak; emakumeek, gizonik gabe, sostengatu estatu eta gobernu handiak; gure baraualdiak eta garizuma itxuratuak zirenak, emakumeengandik baztertzea barne; gure gurutzeak molde ezberdinetan sinesmenean zirenak: hemen hartaz hilobiak ohoratzen ziren, han baliatuak ziren, San Andresena bereziki, gaueko irudikerietarik begiratzeko eta haur-seasken gainean ezartzeko liluratzeen kontra; beste inon aurkitu zuten zurezko bat, goratasun handikoa, euriaren jainkotzat agurtua, eta hori aski lehor barreanean; aurkitu zen gure penitentzia-egileen irudi biziki ageri bat; mitren erabilera, apezen ezkongabetasuna, ihizi sarraskituen erraien bidez aztiatzeko antzea, haragi eta arrainki-mota guztiaren

uztea bizi osoan; ofizioan mintzaira bereziaz eta ez arruntaz apezen baliatzeko modua; eta ameskeria hau: lehen jainkoa bigarren batek, haren anaia bigarrenak, kanporatua izan zela; erraztasun guztiekin sortuak izan zirela, gero, beren bekatuarengatik, kendu izan zitzaizkienak, beren eremua aldatu eta baldintza naturala gaizkiagotu; behiala murgilduak izan zirela zeruko uren uholdeak; mendietako harpe goretan sartu ziren familia gutiez baizik ez zela salbatu, harpe horiek estali baitzituzten ura sar ez zedin, barrenean ihizi-mota asko gorderik; euria aterturik somatu zutenean, zakurrak kanporatu zituztela, haiek garbi eta bustiak itzulirik, uste zuten ura ez zela oraindik behehitu; gero, beste zenbait aterarazirik eta lohizuak itzultzen ikusirik, jalgi ziren munduaren birpopulatzerara, soilik sugeez beterik aurkitu baitzuten.

Lekuren batean aurkitu zen judizio egunaren sinesmena, eta miresgarriki ofendatzen zirela espainolen aurka, zenduen hezurak barreiatzen baitzituzten hilobietako aberastasunen ikertzean, esanez eta hezur berezi horiek ez zirela errazki berriz bilduko; trukezko salmenta, eta ez besterik, feriak eta merkatuak horretarako; enanoak eta jende moldegabea printzeen mahaietako apaindurarako; aztoregintzaren erabilera beren xorien izaeraren arabera; zerga tiranikoak; baratzetako politasunak; dantzak, saltinbankien jauziak; tresnen soinua; armarriak; pilota jokoa, dato eta zorizko jokoa, non eta maiz berotzen baitira beren burua eta libertatea jokatu arte; liluratzez baizik egiten ez den sendagintza; itxurez idazteko moldea; lehen gizon bakar baten sinesmena, jende guztien aita; behiala birjinitate, barautze eta penitentzia osoko gizon bizi izan zen jainko baten agurtasuna, naturaren legea eta erlijioaren zeremoniak predikatzen, heriotza naturalik gabe mundutik desagertu baitzen; erraldioen ustea; beren edabeez horditzeko ohitura eta hainbat edatekoa, erlijiozko apaindurak hilen hezurrez eta buruez margotuak, mezajantzia, ur benedikatua, ihintzaldiak; emakumeak eta morroiak zeinlehenka agertzen direnak beren buruaren erretzeko eta ehortzeko senar edo nagusi zenduarekin; lehen semeak ontasun guztietan heredatzen zuelako legea, eta ez da batere zatirik, obedientziaz baizik, gordetzen gerokoarentzat; manu handiko ofizio zerbaitetara goratzearekin, goratzen denak, berea utzirik, izen berria hartzen duelako ohitura; kisuaeren botatzekoa haur sortu berriaren belaunaren gainean, esaten zaiolarik: ; aztien antzea.

Eredu zenbaitetan ikusten diren gure erlijioaren itzal huts hauek honen zuzentasun eta jainkotasunaren lekukotasuna ematen dute. Ez da bakarrik inola ere agertu honaindiko herri fedegabeko guztietan imitazio zerbaitez, baina barbaro haietan ere amankomun eta naturagaindiko gogora emate baten bidez. Zeren han aurkitu baitzen ere purgatorioaren sinesmena, baina modu berri batez: guk suari demaioguna haiek hotzari demaiote, eta arimak asmatzen dituzte garbituak eta zigortuak ezinagoko hoztasun baten gogortasunaz. Eta ohartu nintzaion beste ezberdintasun irrigarriko eredu honi: zeren, nola aurkitu baitziren beren zakilaren muturra biluzi nahi zuten jendaldeak eta larrua mozten baitzioten musulman edo judutar erara, besteak aurkitu ziren biluzteaz hain bekatu handia egiten zutenak, non lokarri xehez baitzeramaten beren larrua oso artoski hedaturik eta gainetik loturik, mutur horrek airea ikus zezan beldurrez. Eta ezberdintasun horretan ere: guk erregeak eta bestak ohoratzen ditugun bezala geure burua apainduz dauzkagun jantzirik zintzoenez, erlijio zenbaitetan, berezitasun eta manukortasun osoaren haien erregeri erakusteko, azpikoak agertzen zaizkio beren jantzirik zarpailenetan, eta jauregian sartzearekin hartzen dute zirtzil urraturen bat beren onaren gainean, argidura eta apainketa oro nagusiari izan dakion. Baina jarraiki diezaiozun.

Baldin eta naturak beren aintzinatze arruntaren mugetan, beste gauzak oro bezala, hesten baditu ere gizonen sinesmenak, usteak eta aburuak; baldin eta hauek beren iraultza, arrazoia, sortzea, eta heriotza badute, azek bezala; baldin eta zeruak inarrosten

baditu eta badarabiltza bere oldera, zer manakuntza nagusi eta iraunkorra eman behar diegu? Esperientziaz, geure izatearen era airean, aroan eta sortzen garen lurrean datzala eskuz ukitzen badugu, ez bakarrik larru antza, goratasuna, gorpuzkera eta ibilerak, baina oraino ere gogo ahalmenak, et *plaga caeli non solum ad robur corporum, sed etiam animorum facit, dio Vegeziok*; eta Atenas hiriaren jainkosa fundatzaileak finkatzeko bereizi zuen gizonak zuhur egin zitzaizkan herriko aro bat, Egiptoko sazerdoteek Soloni irakatsi bezala, *Athenis tenue coelum, ex quo etiam acutiores putantur Attici; crassum Thebis itaque pingues Thebani et valentes*; halako moldez non, fruituak eta ihiziak ezberdinak sortzen diren bezala, gizonak ere gehiago edo gutiago, gudatiar, zuzen, epel eta manukorrak sortzen baitira: hemen ardoari emanak, hor ebasketari edo lizunkeriari; hemen sineskeriara isuriak, hor sinesgabekeriara; hemen libertatera, hor morrointzara; jakintza edo antze baten gaiak, zakarrak edo argiak, manukorrak edo bihurriak, onak edo gaiztoak, sortu diren lekuko aiherrak zer dakarren arabera, eta izaera berria hartzen dute lekuz aldatzen badira, zuhaitzek bezala; arrazoia baitzen Zirok ez baitzien persiarrei baimendu nahi beren herri garratz eta malkarraren uztea beste ezti eta zelai batera garraiatzeko, esanez lur gizen eta beratzek gizon beratzak egiten dituztela, eta emankorrek gogo antzuak; ikusten badugu noiz antze bat, uste bat loreztatzen, noiz beste bat, eragin zerutiar batengatik; halako mendeak halako izaeren sortzea eta gizamoldearen makurtzea halako edo honako ohiturara; giza gogoak noiz sasoikoak, noiz idorak, gure alorak bezala; zer bilakatzen dira geure buruaren lausengatzeko darabiltzagun lehentasun eder horiek oro? Gizon zuhur bat engainatzen ahal denez geroz, eta ehun, eta herri asko, eta gizamoldea ere gure arabera anitz mendez engainatzen da honetan edo hartan, zer segurantz daukagu inoiz engainatzetik eten dezan eta mende honetan ez dadin engaina?

Gure zozokeriaren beste lekukotasunen artetik, iruditzen zait honek ez duela ahanztea merezi, nahian berean gizonak ez dezakeela behar duena ediren; ez gozatzeaz, baina irudimenaz eta nahikundeaz, ez gaitezke ados izan ea zer behar dugun geure askiesteko. Utz diezaigun geure gogoetari nahi bezala ebakitzea eta jostea, ez du nahi izaten ahalko zer dagokion ere, eta bere burua askiesten:

quid enim ratione timemus

Aut cupimus? quid tam dextro pede concipis, ut te

Conatus non pœniteat votique peracti? 446

Horregatik Sokratesek ez zien jainkoei eskatzen baizik eta haiek on zitzaiola zekitena eman ziezaioten. Lakedemoniarren otoitzak, publikoak eta barrenekoak, soilik zioten gauza onak eta ederrak eman dakizkiela, jainkozko jakintzari utzirik haien bereizte eta hautatzea.

Conjugium petimus partumque uxoris; at illi

Notum qui pueri qualisque futura sit uxor 447.

Eta kristauak Jainkoari otoizten dio egina izan bedi haren borondatea, poetek Midas erregez itxuratzen duten eragozpenean ez erortzeko. Jainkoei otoiztu zien ukituko zukeen guztia urre bilaka zedin. Haren otoitza gauzatua izan zen: haren ardoa urre izan zen, haren ogia urre eta haren oheko luma, eta urrez haren atorra eta jantzia; halako moldez, non zamakaturik aurkitu baitzen bere nahiaren gozatzepean eta jasanezinezko erraztasun batez hertsatua. Bere otoitzak desotoiztu behar zituen,

Attonitus novitate mali, divesque miserque,

Effugere optat opes, et quæ modo voverat, odit 448.

Esan dezagun neure buruaz. Zoriari eskatzen nion, beste zerbait baino gehiago, Saint-Micheleko ordena, gaztea nintzelarik; orduan baitzen aitorensemego frantsesaren ohore-ezaugarri goren eta hagitz arraroa. Irrigarriki eman dit. Heltzeko, neure lekutik goititze

eta goratzeko ordeztu, oso eskuzabalkiagor erabili nau, neure soinburuetaraino eta beherago ere behehitu eta apaldu baitu.

Kleobis eta Bitonek, Trofonio eta Agamedesek, eskaturik, haiek beraien jainkosari, hauek berauen jainkoari, beren urrikaltzeari zegokion saria, heriotza ukan zuten oparitzat, hain dira behar dugunari buruz jainkozko iritziak guretarik ezberdinak.

Jainkoak eman liezazkiguke aberastasunak, ohoreak, bizia eta osasuna bera, noizbait gure kaltetan; zeren atsegin zaigun oro ez baitzaigu beti salbagarri. Baldin eta, sendatzearen ordeztu, heriotza edo gure gaitzen gaizkiagotzea igortzen badigu, Virga tua et baculus tuus ipsa me consolata sunt, bere zuhurtziaren arrazoiengatik egiten du, dagokigunari begiratzen baitio guk genezakeen baino anitzez egiazkiago; eta onera hartu behar dugu, esku txit zuhur eta txit adiskide batetik bezala:

si consilium vis

Permites ipsis expendere numinibus, quid

Conveniat nobis, rebusque sit utile nostris:

Charior est illis homo quam sibi ⁴⁵⁰.

Zeren haiei ohoreen eta karguen eskatzea, gudu batera edo datu jokora egotz zaitzaten eskatzea baita, edo aterabidea ezezagun eta fruitua dudagarri zaizun beste halako gauza batera.

Ez da filosofoen artean hain gatazka bortitzik eta garratzik nola baita gizonaren onik gorenari buruz eraikitzen dena, handik, Varroren kalkuluaren arabera, 288 alderdi sortu baitziren.

Qui autem de summo bono dissentit, de tota philosophiae ratione dissentit.

Tres mihi convivæ prope dissentire videntur,

Poscentes vario multum diversa palato:

Quid dem? quid non dem? Renuis tu quod jubet alter;

Quod petis, id sane est invisum acidumque duobus ⁴⁵².

Horrela erantzun beharko lieke naturak haien ihardespene eta eztabaidei.

Batzuek diote gure ongizatea bertutean dagoela, besteek atseginean, besteek naturari amore ematean; nork jakintzan; nork oinazerik ez izatean; nork itxurek eramatea ez uztean (ameskeria horren antzekoa dirudi Pitagoras zaharraren honek:

Nil admirari prope res est una, Numaci,

Solaque quæ possit facere et servare beatum ⁴⁵³

alderdi pirroniarraren helburua baita); Aristotelesek gogo handitasunari ematen dio deustaz ez mirestea. Eta Arkesilaok bazioen arrazoimenaren ihardokitzeak eta zuzen eta berme egotea ongiak zirela, amore emateak eta onartzeak, aldiz, bizioak eta gaizkiak zirela. Egia da egiazko axiomatzat ezartzen zuen heinean pirronismotik baztertzen zela. Pirroniarrek diotelarik onik gorena Ataraxia dela, arrazoimenaren gelditasuna baita, ez dute entelegatzen modu baiezkor batez esatea; baina beren gogoaren higidurak, erroitzetarik ihes egin eta gauazko airetik estali eginarazten baititu, hark berak agertzen die ameskeria hori eta beste bat ezeztarazten.

Zenbat nahi dudan bizi naizen artean, beste batek, edo Justus Lipsiusek⁴⁵⁴, gelditzen zaigun gizonik jakileenak, gogo hagitz eder eta zuhurrekoa, zinez nire Turnebuser⁴⁵⁵ anaia, nahikundea eduki lezan, eta osasuna, eta lasaitasunik aski liburu batean biltzeko, beren zatiketen eta moten arabera, zintzoki eta jakin nahiz, guk ikus dezagun, filosofia zaharraren aburuak gure izate eta ohituren gaiari buruz, haien eztabaidak, alderdien sinesmena eta jarraipena, egileen eta alderdikideen biziaren egokiera beren arauai, gorabehera oroigarri eta ereduagarrietan. Zer lan eder eta baliagarria litzatekeen!

Bestalde, geure burutik ateratzen badugu geure ohituren araubidea, zein nahasbidera egozten garen! Zeren geure arrazoiak itxuragarriena bezala aholkatzen diguna eskuarki

nor bakoitzari bere herriko legeei obeditzea baita, Sokratesen aburua den bezala, jainkozko aholkuak esana, omen. Eta zer esan nahi du hortik baizik eta gure eginbeharrak ez duela araurik menturazkoaz besterik? Egiak aurpegi berdin eta orotarikoa behar du. Zuzentasuna eta zuzenbidea, gizonak ezagutuko balu gorputz eta zinezko izate batekoa, ez luke lurralde honetako edo hartako ohituren baldintzari estekatuko; bertuteak ez luke persiarren edo hindutarren ameskeriatik bere moldea hartuko. Ezer ez da legeak baino lotuagorik etengabeko nahaste bati. Sortu naizenetik, hiruzpalau aldiz ikusi ditut gure auzokide ingelesanak aldatzen, ez bakarrik gai politikoan, iraupenetik libratu nahi dena baita, baina daitekeen gairik gorenean: erlijioan. Ahalkea eta amorrua baitut, hainbat gehiago zeren behiala nire eskualdekoek hain atxikimendu berezia eduki dioten herria baita, non oraindik gelditzen baitira nire etxean gure aspaldiko ahaidetasunaren hatz zenbait⁴⁵⁶.

Eta gure artean, hemen, ikusi dut biziaren gain debekatua zitzaigun gauza bat zilegi bilakatzen; eta gu, besterik baitugu, gerrako zoriaren menturaren arabera, giza eta jainkozko gorentasunen kontrako gaizkile larri bilakagai gara, geure zuzenbidea zuzengabearen menpean eroriz, jabegoko urte gutiren artean, izate kontrario bat harturik.

Nola sala zezakeen jainko zahar hark⁴⁵⁷ argikiago jainkozko izateari buruzko jakineza giza ezagutzan, eta gizonei irakats erlijioa ez zela beren asmameneko zati batez besterik, beren gizartearen lotzeko egokia, baizik eta aldarrikatuz, egin zuen bezala, bere hiruzangoaren⁴⁵⁸ irakaskuntzaren bila zihoazenei, bakoitzaren egiazko ospamena zegoen lekuko ohiturak gordetzen ikusten zuena zela? Jainkoa! Zer begiramen ez diogu gure sortzaileari zor geure sinesmena debozio ibiltari eta funts gabeko haietaz garbitu gaituelako eta bere hitz sailduaren betiereko oinarrian ezarri!

Zer esanen digu, bada, beharkunde honetan filosofiak? Geure herriko legeei jarraikitzeke? hots, jendalde edo printze baten uste itsas higikor hau, zuzenbidea hainbat kolorez itxuratuko eta hainbat aurpegitan birmoldatuko baitidate beren baitan daitezkeen bezainbat aldartetan? Ez dezaket hain malgugarri eduki arrazoimena. Zein ontasuna da atzo sinesmenean ikusten nuena, eta bihar ez, eta ibai baten marrak krimen bilakatzen duena?

Zein egia mendi hauek mugatzen dutena, haraindiko munduan gezurra dena?⁴⁵⁹

Baina irrigarriak dira, legeei egiazkotasun zerbaiten emateko, diotenean badirela berme, betiereko eta aldaezin zenbait, naturalak deritzotenak, gizakundean markatuak direnak bere baitako nolakotasunaz. Eta, horietarik, nork dagi hirureko zenbakia, nork laurekoa, nork gehiago, nork gutiago: garaitikoa bezain zalantzarik delako ezaugarria. Bada, hain zorigaitzekoak dira (zeren nola, zorigaitzarekin baizik, izenda dezaket hori, hain mugagabeko lege andana batetik ez dadin bat bederen ediren zoriak eta menturaren ausarkeriak utz zezaten herri guztien onesprenak onarturik izatera?) hain dira zorigaitzekoak, diot, non hiruzpalau lege hautetsi horietarik batere ez baita gezurtaturik eta ukaturik ez dena, eta ez herri batek, baina askok. Alabaina, itxurako ezaugarri bakarra, lege natural zenbait argudia ditzaten, onspena orokorra da. Zeren naturak egiazki manatu zigukeenari jarraiki baikeniokeen zalantzarik gabe onspen amankomun batez. Eta ez bakarrik herri bakoitzak, baina gizaki orok, somatuko luke lege horren aitzi eraman nahi zuenak eginen liokeen indarra eta bortxa. Erakuts diezadaten, ikusteko, molde horretako bat. Protagoras eta Aristonek ez zioten legeen zuzenbideari beste funtsik ematen legegilearen manakuntza eta usteaz baizik; eta, hori alde batera utzirik, onak eta zintzoak beren nolakotasunak galtzen zituztela eta balio gabeko izen huts gelditzen. Trasimakok, Platonen baitan, uste du ez dela nagusiaren erraztasunaz beste zuzenbiderik. Mundua hain ezberdin den gauzarik ez da, nola ohituretan eta

legeetan. Halako gauza hemen higuigarria da, beste inon gomendatua dena, Lakedemonian bezala ebasteo sotilezia. Ahaide hurbilen arteko ezkontzak larriki debekatuak dira gure artean, beste inon ohoretan dira, gentes esse feruntur

In quibus est nato genitrix, et nata parenti

Jungitur, et pietas geminato crescit amore ⁴⁶⁰.

Haurren hiltzea, gurasoen hiltzea, emakumeen partekatzea, ebasketen trukatzeta, atsegin-mota guztietarako baimena, hitz batez, deus ere ez da hain soberazkoa non ez den herri baten ohiturak onartua.

Sinesgarria da lege naturalak izan daitezen, beste izakien baitan ikusten den bezala; baina gure baitan galdu dira, giza arrazoi eder hau orotan sarturik menperatzeko eta nagusitzeko, uhertuz eta nahasiz gauzen aurpegia bere hutsalkeria eta aldakortasunaren arabera. Nihil itaque amplius nostrum est: quod nostrum dico, artis est.

Gaiek argidura eta harbide ezberdinak dauzkate; hortik sortzen da nagusiki aburuen ezberdintasuna. Herri batek begiratzen dio gauzaki bati alderdi batetik, eta hor gelditzen da; beste batek, beste batetik.

Ezer ez da hain higuigarri asmatzeko nola nork bere aitaren jatea. Aitzinean ohitura hori zeukaten herriek, alabaina, urrikaltasun eta maitasun ezaugarritzat hartzen zuten, handik bilatuz beren gurasoei hilobirik zuzen eta ohoragarrienaren ematea, beren baitan eta beren muinetan bezala ezarri beren aiten gorputzak eta haien erlikiak, inola ere berpiztuz eta birsortuz beren haragi bizian antzaldatzean egoste eta hazkurriaren bidez. Ikusteko erraza da zein oinazkoikeria eta higuinkeria zatekeen, sineskeria horretan hazi eta bete gizonentzat, lurreko usteltasunera eta ihizi eta harren hazkurria gurasoen hondakinaren egozte.

Likurgok ebasketan bazekusan auzokidearen gauza baten atzipetzean den bizitasuna, arintasuna, ausartzia eta trebetasuna, eta, bakoitzak berea denaren gordetzeari zorrozkiago begiratzean, publikoari datorkion erabilgarritasuna; eta uste zuen eginbehar bikoitz honetarik, oldartzeko eta defendatzeko, fruiturik aterako zela gudu-irakaskuntzarako (herri horri irakatsi nahi zion jakintza eta bertute nagusia baitzen) eta besteren gauzaz jabetzeko nahaste eta zuzengabea baino baliotasun handiagokoa.

Dionisio tiranoak Platoni eskaini zion jantzi bat Persiako erara: luzea, urreztatua eta lurrindua; Platonek ezeztatu zuen, gizona sorturik ez zela emakumeez gogotik jantziko esanez; baina Aristipok onartu zuen erantzun honekin: Ezein apaindurak ezin zuela izaera garbi bat usteltzen ahal. Bere adiskideek erantzuki egiten zioten Dionisiok tu aurpegira egin ziezaiola bihotzean hain guti hartzeko oilakeria: “Arrantzaleek, zioen, ongi jasaten dute burutik oinetaraino itsasoko uhinek bustitzea xarbo baten harrapatzeko” Diogenesek bere azak ikuzten zituen, eta iragaiten ikustean: “Azez bizitzen jakinen bahu, ez huke tirano bat lausengatuko Eta Aristipok: “Gizonen artean bizitzen jakinen bahu, ez huke azarik ikuziko” Horra nola arrazoiak itxuraz hornitzen duen ondorio ezberdinetarako. Bi harbidetako ontzi bat da, ezkerrez eta eskuinez har daitekeena:

bellum, o terra hospita, portas;

Bello armantur equi, bellum hæc armenta minantur.

Sed tamen iidem olim curru succedere sueti

Quadrupedes, et frena jugo concordia ferre:

Spes est pacis ⁴⁶².

Soloni aholkatzen zitzaion semearen heriotzagatik malko ezindu eta ezteusen ez barreiatzeko: “Horrexagatik, zioen, are zuzenkiago barreiatzen ditut, ezteusak eta ezinduak direlako”. Sokratesen emazteak bere dolua emendatzen zuen horrelako gora-

beherarengatik: “ O zeinen zuzengabeki hilarazten duten epaile gaizto horiek!- Nahiago huke, beraz, zuzenbidean izan dadin?” ihardetsi zion.

Guk belarri zulatuak dakartzagu; grekoek morrointza-ezaugarritzat zeukaten hori. Gordetzen gara emakumeez gozatzeko, indiarrek publikoki dagite. Eszitek arrotzak sarraskitzen zituzten beren tenploetan, beste inon tenploek geriza-zuzenbiderako balio dute.

Inde furor vulgi, quod numina vicinorum

Odit quisque locus, cum solos credat habendos

Esse Deos quos ipse colit ⁴⁶³.

Epaile batez mintzatzen entzun dut, Bartolus eta Baldusen⁴⁶⁴ arteko auzi garratz bat eta zailtasun askoz nahastu gai bat aurkitzen zuelarik, bere liburuko bazterrean ezartzen zuena: Adiskidearentzako auzia; esan nahi baita, egia hain uhertua eta eztabaidatua zela non halako auzian faboratzen ahalko bailioke ongi irudituko litzaiokeen alderdiari. Soilik gogo eta jakintza ezagatik ez daiteke orotan ezar: Adiskidearentzako auzia. Gure aroko abokatu eta epaileek auzi guztietan aurpegirik aski aurkitzen dute nahi dutenari egokitzeke. Hain jakintza mugagabea, hainbat usteen manakuntzapean egonik eta hain gai menturazko batez, sortu behar da aburuetako nahaspila ezinagoko bat. Horrela ez da hain auzi garbirik non usteak ezberdinak ez diren. Lagunarte batek epaitu duena, besteak aurka epaitzen du, eta ber-berak ere aurka beste behin batez. Hortik dakuskigu, geure zuzenbidearen manakuntza eta argidura ikaragarri zikintzen duen ausartzia horrengatik, sententzietan ez gelditzeke eredu arruntak, eta epaile batzuegandik besteengana lasterkatzea auzi beraz erabakitzeko.

Bizio eta bertuteari buruzko uste filosofikoen libertateaz, hedatu behar ez den gauza da, aburu anitz aurkitzen baitira isilduak hobe balio dutenak gogo ahulentzat agertuak baino. Arkesilaok zioen lizunkeria ez dela ohargarria zein aldetik eta nondik egiten zen. Et obscoenas voluptates, si natura requirit, non genere, aut loco, out ordine, sed forma, aetate, figura metiendas Epicurus putat”

Ne amores quidem sanctos a sapiente alienos esse arbitrantur. “Quaremus ad quam usque oetatem juvenes amandi sunt. Azken bi pasarte estoiko hauek eta, gai honi buruz, Dikearkoren Platoni erantzukiak, darakusate filosofiarik sendoenak ohitura arruntetik urrundu zenbat baimentze soberazko onartzen duen.

Legeek hartzen dute beren manu-indarra jabego eta ohituratik; arriskatua da beren sorburura eramatea; gizenzen eta goratzen dira ibiltzean, gure errekak bezala; jarraiki iezaiezu malkarrari gora haien iturbururaino, ur-xirripa bat da doi ezagut daitekeena, burgoitzen eta azkartzen dena zahartzearekin. Ikus erreka ospetsu horri, zuzentasunez, beldurrez eta begirunez beterik, lehen ibiltzea eman dioten gogoeta zaharrak: hain arin eta ezteus aurkituko dituzu non dena pisatzen duten eta arrazoiari ematen dioten eta manu-indarrez eta sinesmenez ezer ere onartzen ez duten jende hauek ez baita miresteko beren usteak maiz iritzi publikoetarik hagitz urrunduak badituzte. Eredutzat naturaren lehen irudia hartzen duten jendeak, ez da miraria baldin eta, beren usterik gehienetan, bide arruntetik makurtzen badira. Hala nola, adibidez: haietarik gutik onartu zituzkeen gure ezkontzen baldintza bortxatuak; eta gutiz gehienek emakumeak nahi izan dituzte partzuergoan eta estekatzerik gabe. Gure zeremoniak ezeztatzen zituzten. Krisipok bazioen filosofo batek itzulipurdi dozena bat eginen lituzkela jendartean, eta galtzarik gabe, oliba ale dotzena baten truk. Doi aholkatu ziokeen Klistenesi Agarista ederra, bere alaba, Hipoklidesi ukatzeko, mahai baten gainean zuhaitz sardetuarena⁴⁶⁸ egiten ikusteagatik.

Metroklesak puzker bat laxatu zuen apur bat nabarmenki eztabaidatzean, bere eskolaren aurrean, eta bere etxean zegoen, ahalkez gorderik, harik eta Krates ikustera joan zitzaion arte; eta libertatearen eredu gehituz bere arindura eta arrazoei, nahiara puzkertzeari

lotuz harekin, kendu zion arrenkuratxo hori, eta gainera erakarri zuen bere alderdi estoiko libreagora, ordura arte jarraiki izan zion alderdi peripatetiko gizartekotuagotik.

Zintzotasuna deitzen duguna, estalian egitea zilegi zaigunaren agerian egitera ez ausartzea, ergelkeria deitzen zuten haiek; eta naturak, geure ohiturak eta geure nahikundeak geure ekintzetarik aldarrikatzen dutena isilduz eta ukatuz sotilarena egitea, biziotsat zeukaten. Eta iruditzen zitzaion Venusen ezagerien gutiestea zela bere tenploko baztertze sakratutik erauztea jendearen ikusmenara erakusteko, eta bere josteten oihaletik landara ateratzea apalaraztea zela (ahalkea bika-mota bat da; mesfidantza, gordetzea, mugatzea, apreziatzearen zatiak dira); atseginak oso argiki nahi zuela, bertutearen itxurapean, jostaturik ez izatea bidegurutze erdian, jende arruntaren oinek eta begiek ez gaizki erabilia, bere ohiko geletako gorentasun eta erraztasunik eza deitoratuz. Horregatik, diote zenbaitek, putetxe publikoen kentzea ez da soilik leku hartara mugatua zen lizunkeriaren orotan barreiatzea, baina oraino ere gizonen akuilatzea bizio horretara nekearen bidez:

Mœchus es Aufidiæ, qui vir, Corvine, fuisti;

Rivalis fuerat qui tuus, ille vir est.

Cur aliena placet tibi, quæ tua non placet uxor?

Numquid securus non potes arrigere? 469

Egiaztatze hau mila eredutan ezberdintzen da:

Nullus in urbe fuit tota qui tangere vellet

Uxorem gratis, Cæciliane, tuam,

Dum licuit; sed nunc, positis custodibus, ingens

Turba fututorum est. Ingeniosus homo es 470.

Horretan berean atzipetu filosofo bati galdegiten zitzaion zer zegien. Erantzun zuen guztiz hozki: , horretan aurkitu izanagatik, baratzuriak ereiten aurkitu izan balitzaio baino gehiago gorritu gabe.

Uste dut iritzi samurregi eta begirakorregi batekoa dela, egile handi eta erlijioso batek baitauka ekintza hori hain ezinbestez behartua gordetzera eta ahalkera, non besarkada zinikoen libertatean ez baitezake sinets beharra bururatzen zenik, baina gelditzen zela bakarrik mugimendu lizunkoien itxuratzean, beren eskolako irakaspenaren zartzarkeriari atxikitze; eta, ahalkeak bortxatu eta baztertu zenaren isurtzeko, behar zutela gero itzalaren bilatzea. Ez zuen aski aitzina ikusi haien zirtzilkerian. Zeren Diogenesek, jendartean bere masturbazioaren egiten, zegoen jendearen aurrean opatzen zuen bere sabela ere ase ahal zezan horrela marruskatuz. Zergatik ez zuen karrika erdia baino jantoki egokiagorik bilatzen galdegiten ziotenei: “Gosez nagoelako karrika erdian” erantzuten zien. Haien alderdira nahasten ziren emakume filosofoak, beren pertsonen ere nahasten ziren leku orotan, begirunerik gabe: eta Hiparkia ez zen Kratesen lagunartean onartua izan gauza guztietan haren araubideko ohitura eta azturei jarraikitze baldintzapean baizik. Filosofo hauek baliorik gorena ematen zioten bertuteari eta errefusatzen zituzten moralaz landako irakaskuntzak oro; eta ekintza guztietan beren zuhurraren hautabideari ematen zioten manu-indarririk gorena, legeen gainetik; atseginei ez zieten neurtasunaz eta besteren libertatearen gordetzeaz beste mugarik manatzen.

Heraklito eta Protagorasek, ardoa kiratsa iruditzen baitzaio erriari eta gozoa sendoari, arrauna makurra uretan eta zuzena handik kanpoan dakusatenei, eta gauzakietan aurkitzen diren halako itxura kontrarioetarik, argudiatu zuten gauzaki guztiek zeuzkatela beren baitan itxura horien kausak; eta ardoan bazela erriaren gustuari zegokion kirastasun zerbait, arraunean nolakotasun makur zerbait uretan begiratzen dionari egokituz. Eta horrela garaitikoa. Esan nahi baita dena dagoela gauza guztietan, eta, beraz, ezer ere ezeinetan, zeren ezer ere ez baita oro den lekuan.

Aburu horrek gogoratzen zidan daukagun esperientzia: ez dela zentzurik ez aurpegirik, edo zuzen, edo kirats, edo ezti, edo makur, giza gogoak darabiltzan idazkietan edireten ez duenik. Ahal den hitzik garbi, huts eta osoenean, zenbat faltsukeria eta gezur ez da sortarazi? Zein herexiak ez du funtsik eta lekukotasunik aski ediren, gauzatzeko eta irauteko? Horregatik halako hutsen egileek sekula ez dute froga honetarik baztertu nahi: hitzen aztertzearen lekukotasunetik. Kargutako pertsonaia batek, manu-indarraz frogatu nahi zidalarik filosofarriaren bilketa, hartan erabat murgildurik baita, berriki aipatu zizkidan Bibliako bospasei pasarte, haien gainean baitzioen finkatu zela lehenik bere kontzientziaren arintzeko (zeren ofizioz elizakoa baita); eta, egiazki, asmamena ez zen irrigarria bakarrik, baina oraindik ere ongi egokitua jakintza eder horren defentsari.

Bide horretarik irabazten da alegia asmatzaileen sinesmena. Ez da aztirik, haren hitzen malgutze eta argidura guztien artoski ikertzeko eta biltzeko omenik aski baldin badu, nahi den guztia aiparazten ez zaiona, Sibilei bezala: zerren hainbeste itzulpen molde bada non gogor baita, artez ala makurrez, gogo argi batek gai orotan ediren ez dezan bere heini balio dion itxura zerbait.

Ondorioz, aurkitzen da idazkera lanbrotsu eta zalantzati bat hain maizeko erabilera zaharrean! Egileak gerokotasunaren erakartzea eta bereganatzea irabaz dezake (hori, ez bakarrik jakintzak, baina hainbat edo gehiago ere gaiaren menturazko faboreak irabaz baitezake); bitartean, zozokeriaz ala fineziaz, apur bat ilunez eta ezberdinez agertzen bada ere: berdin zaio! Gogo andana batek, zirikatzen eta inarrosten, hortik adieraziko dute molde-meta bat, berearen arabera, zeharka edo alderantziz, denek ohoratuko baitute. Bere ikasleen bidez aberasturik ikusiko da, Lendit-eko⁴⁷¹ irakasleak bezala.

Hori da ezteuseko gauza asko saritan ezarri dituen, idazki anitz sinesmenean paratu, eta nahi izan den gai-mota orotaz zamatuz: gauza ber batek mila eta mila onartuz, eta nahi dugun bezainbat irudi eta gogoeta ezberdin. Izaten ahal da Homerok esan nahi izan duela esanarazten zaion guztia; eta hainbat eta hain itxura ezberdinetara eman dela non teologoak, legegileak, kapitainak, filosofoak, jakintzaz ari den jende mota oro, ezberdinago eta kontrariokiago ari badira ere, haren baitan bermatzen baitira, eta hura aipatzen baitute: ofizio, ekintza eta egile guztietan nagusi orokor; eginbehar guztietan orotako aholkulari. Nornahik ere orakulu eta aztiatzeen beharra eduki baitu, haren baitan ediren du bere egiterako. Pertsonaia jakile batek, nire adiskideetarik, miresgarri da zenbat eta zein aurkientza harrigarri sortarazten dizkion gure erlijioaren alde; eta ez daiteke errazki uste honetarik bazter: Homeroren xedea dela (egile hori gure mendeko nornahiri bezain ezaguna zaio). Eta horrek gurearen alde ediren duena, aitzinaroan askok ediren zuten beraien alde.

Ikusazu Platon nola astintzen eta inarrosten den: bakoitzak, beregana erakartzeaz ohoratuz, etzaten du nahi duen aldera. Ibiltzen eta sartzen ohi da jendeak onartzen dituen uste guztietan; eta bere buruarekin ezberdintzen ohi da gauzen ibilera ezberdinen arabera. Bere baitan ukarazten dira bere mendean zilegiak ziren ohiturak, gurean ez diren ber. Hori oro biziki eta azkarki, aztertzailearen gogoaz azkar eta bizi den heinean.

Heraklitok zeukan funts horretarik beretik, eta gauza guztiek beren baitan zeuzkatela aurkitzen diren itxurak bere zuhurtitz horretarik, Demokritok osoki ondorio kontrako bat ateratzen zuen, gauzatiek ez zeukatela guk aurkitzen genuenetik ezer, eta ezti bati ezti eta beste bati mingots zitzaionetik, argudiatzen zuen ez zela ez ezti, ez mingots. Pirroniarrek esanen lukete ez dakitela ezti ala mingots den, edo ez bata ez bestea, edo biak: zerren hauek beti jotzen baitute zalantzaren heinik gorenera.

Zirenaitarrek zioten deus ez dela kanpotik sentigarria, eta soilik barreneko hunkimenetik hunkitzen gaituena ohargarria dela, hala nola mina eta atsegina; ez ezagutzen ñabardurarik ez kolorerik, baina bakarrik haietarik datozkigun hunkitze zenbait; eta gizonak ez zuela bere adimenaz beste jarlekurik. Protagorasek uste zuen egia zaiola

bakoitzari, bakoitzari iruditzen zaiona. Epikuroarrek zentzuetan, gauzen oharmenean eta atseginean ezartzen dute adimen oro. Platonek nahi izan du egiari buruzko epaiketa eta egia bera, uste eta zentzuetarik baztertua, gogo eta gogoetaren jabegoan.

Solas honek eraman nau zentzuen gogoetaren gainera, haietan baitago gure jakinezaren funts eta frogarik handiena. Ezagutzen den oro, dudarik gabe, ezagumenaren bidez ezagutzen da; zeren, epaiketa epaitzen duenaren ekintzatik datorrenez, arrazoi da ekintza hori burura dezan bere bideaz eta nahiaz, ez besteren indarraz, gauzak indarraz eta beren izatearen legeaz ezagutuko bagenitu gertatuko litzatekeen bezala. Ezagutza oro, beraz, bideratzen da gure baitan zentzuen bidez: gure nagusiak dira.

via qua munita fidei

Proxima fert humanum in pectus templaque mentis ⁴⁷².

Haietan jakintza hasten eta erabakitzen da. Ororen buru, ez genekike harri batek baino gehiago, ez bageneki hots, usain, argi, gustu, neurri, pisu, bigun, gogor, garratz, kolore, leun, luzera eta barrenik. Horra gure jakintzako eraikuntza ororen zimendu eta hastapenak. Eta zenbaiten arabera jakintza sentimendurik besterik ez da. Nornahik ere, zentzuen gezurtatzera bainaramake, hark banauka zintzurretik, ez nintzake areago gibelaraz. Zentzuak giza ezagutzaren hasiera eta azkena dira:

Invenies primis ab sensibus esse creatam

Notitiam veri, neque sensus posse refelli...

Quid majore fide porro quam sensus haberi

Debet? ⁴⁷³

Ahalik gutiena eman dakiela, beti ere, eman beharko zaie haien bidez eta bitartez bideratzen dela gure irakaspen osoa. Zizeronek dio Krisipok, entseiaturik zentzuen indar eta bertutearen apaltzera, bere buruari eman zizkiola hain alderantzizko argudio bortitzak, non ezin baitzuen bururatu ahal. Horri buruz, Karneades, alderdi kontrariokoa baitzen, arrandiatzen zen Krisiporen arma eta hitz beraietaz baliatzeaz haren beraren gudukatzeko, eta oihukatzen zuen horregatik haren aurka: “A gaizoa heure indarrak galdu hau!”. Gure arabera, ez da zentzugabe ezinagokorik suak berotzen ez duela, argiak argitzen ez duela, burdinean pisurik ez bermetasunik ez dela baino, zentzuek dakarzkiguten berriak baitira, ez egiatasunean horrekin alderatzen ahal den giza sinesmenik ez jakintzarik.

Zentzuei buruz daukadan lehen gogoeta da zalantzan dudala gizona zentzu natural guztiez horniturik dela. Badakuskit ihizi asko bizi oso eta bete baten bizitzen, batzuk ikusmenik gabe, besteak entzumenik gabe: nork daki gure baitan ez ote diren oraino bat, bi, hiru eta beste zentzu anitz eskasean? Zeren, baten bat eskasean bada, geure arrazoimenak ez baitezake akatsa ediren. Zentzuen lehentasuna da gure oharmenaren mugaburua izatea; ezer ez da haietaz haraindi haien edireiteko balia dakigunik; areago ere, zentzu batek ez dezake bestea ediren,

An poterunt oculos aures reprehendere, an aures

Tactus, an hunc porro tactum sapor arguet oris,

An confutabunt nares, oculive revincent? ⁴⁷⁴

Haiek orok badagite gure ahalmenaren marraburua,

seorsum cuique potestas

Divisa est, sua vis cuique est ⁴⁷⁵.

Eta ezinezkoa da berezitsu den gizon bati ez duela ikusten gogoraraztea, ezinezkoa ikusmenaren nahiaraztea eta haren hutsaz urrikiaraztea.

Horregatik ez dugu batere segurantzarik hartu behar geure gogoa daukagunaz askietsia eta ase delako, hark ez daukanez geroz zertaz ohar bere eritasun eta akatsari, halakorik baledi. Ez dakioke deusik esan itsu horri, arrazoiz, argudioz, ez antzeko zerbaitez, haren

irudimenean ezar dezakeenik argi, kolore eta ikusmenez oharmenik batere. Deus ez da gibelagorik zentzua agerira eraman dezakeenik. Ikustea nahi izaten ikusten diren sortzezko itsuek, ez da eskatzen dutena entelegatzen dutelako: guregandik ikasi dute zerbait esan behar dutela, nahi izateko zerbait badutela, gure baitan dena, ontasuna deitzen dutena, eta haren ondorioak; baina ez dakite, halarik ere, zer den, ez zaizkio ohartzen ez hurbiletik, ez urrundik.

Ikusi dut etxe oneko aitorenseme bat, sortzetik itsua, halako adinetik behintzat non ez baitaki ikusmena zer den; hain guti entelegatzen du huts zerk egiten dion, non guk bezala baitarabiltza eta baliatzen baita ikusteari dagozkion hitzez eta ematen die molde oso bere eta berezi bat. Aurkezten zitzaion bera aitabitxi den haur bat, besoetan harturik: Gutarteko batek bezala esanen du: Bada areagorik, zeren gure jostaketak ihiza, pilota eta tiroka baitira, eta hori entzun baitu, zaletzen baita eta lehiatzen, eta uste du guk daukagun partea daukala; berotzen eta laketzen da, eta, halarik ere, belarrietarik besterik ez ditu ukaten. Oihukatzen zaio horra erbi bat, berak zaldia akuila dezakeen zelai batean; eta gero oraindik esaten zaio horra erbi harrapatu bat: horra ere bere atzipetzeaz harroa, besteei entzun dien bezala haiek ere daudela. Pilotari ezkerrez datxikio eta sare osoaz jotzen du; arkabuza tirokatzen du menturaka, eta arrandiatzen da bere jendeek esaten baitiote gora edo zeharkatua dela.

Nork daki gizon orok antzeko ergelkeria ote dagien, zentzu zerbaiten eskasean, eta akats horregatik gauzen aurpegiak zatirik gehiena estalirik zaigun? Nork daki naturaren ekintza askotan aurkitzen ditugun zailtasunak hortik ote datozen? Eta gure ahalmena gaintzen duten ihizien ekintza asko eraginak badira guri huts egiten digun zentzu batek? Eta haietarik zenbaitek badaukate horrela gurea baino ikusmen bete eta osoago bat? Sagarrari gatzizkio kasik geure zentzu guztiez; gorritasuna, leuntasuna, usaina eta eztitasuna aurkitzen diogu; horretaz landara, eduki dezake beste bertuterik, hala nola idortzea edo hertsatzea, ez baititugu haiei atxiki dakizkiekeen zentzurik. Gauza anitzetan, estaliak deitzen ditugun nolakotasunak, imanak burdinaren erakartzeko duen bezala, ez ote da itxuragarriagorik naturan ahalmen oharkorrek izan daitezen, haien epaitzeko eta somatzeko gaiak, eta halako ahalmenik ezak ekar diezagun halako gauzen zinezko izatearen jakineza? Menturaz zentzu berezi bat da oilarrei goizeko eta gauerdiko ordua erakusten diena, eta kantatzera akuilatzen dituen; oiloei, ezein ohitura eta ekintza baino lehen, zapelatzaren beldurra irakasten diena, eta ez antzara edo indioilar batena, ihizi handiagoak badira ere; oilaskoei beraien kontra gatuaren baitan dagoen nolakotasun etsaikorra gatzigatzen diena eta zakurraz ez mesfidatzen, miaukadaren, inola ere ahots eztiaren, aurka armatzen eta ez zaunkadaren, ahots garratz eta oldakorraren, aurka; liztorrei, xinaurrei eta arratoiei dastatu baino lehen gaztarik eta udarerik hoberenaren bereizten, eta oreina, elefantea, sugea, beren sendakuntzarako egokia den belar zerbaiten ezagutzara daramatzana. Ez da zentzurik menpekotasun handi bat ez daukanik, eta bere bidez mugagabeko ezagutza andana bat ez dakarrenik. Ez bagenuke hotsen, armoniaren eta ahotsaren adimena, horrek irudiezinezko nahaste bat lekarkioke gure garaitiko jakintzari. Zeren, zentzu bakoitzaren ahalari datxikionaz landara, zenbat argudio, ondorio eta bururatze ateratzen dizkiegun beste gauzei zentzu baten beste batekiko alderakuntzaz! Gizon aditu batek irudika beza gizaera ikusmenik gabe hastapanean sorturik, eta gogoan har zenbat jakineza eta nahaste lekarkiokeen halako akatsak, gure gogoan zenbat ilun eta itsutze: hortik ikusiko da zenbat axola zaigun egiaren ezagutzarako, geure baitan badago, beste halako zentzu bat, edo bi, edo hiruren gabetzea. Geure bost zentzuen aholkatze eta elkartzearen bidez egia bat moldatu dugu; baina, menturaz, behar zen zortzi edo hamar zentzuren adostasuna eta haien laguntza egiazki eta bere funtsean ikusteko.

Giza jakintza gudukatzen duten alderdiek nagusiki gure zentzuen segurantzarik eza eta ahuleziagatik egiten dute: zeren, ezagutza oro heldu denez geroz gure baitara haien artekatze eta bidez, huts badagite egiten diguten berrian, usteltzen edo aldatzen badute kanpotik dakarkigutena, haien bidez gure gogora isurtzen den argia iluntzen bada iraganbidean, ez baitugu gehiagorik zeri lotu. Ezinagoko zailtasun horretarik sortu dira ameskeria hauek guztiak: gauzaki bakoitzak baduela bere baitan bertan aurkitzen dugun oro; guk aurkitzen uste dugunetik ezer ez duela; eta epikuroarrena, eguzkia ez dela gure ikusmenak uste duena baino handiagoa,

Quicquid id est, nihilo fertur majore figura

Quam nostris oculis quam cernimus, esse videtur ⁴⁷⁶;

ondoan dagoenari gorputz bat handia eta urrundurik dagoenari xumeagoa irudikatzen dioten itxurak, biak egiazkoak direla,

Nec tamen hic oculis falli concedimus hilum...

Proinde animi vitium hoc oculis adfingere noli ⁴⁷⁷;

eta, behingoz, ez dela zentzuetan engainatzerik batere; haien faborepean ibili behar dela, eta beste inon bilatu aurkitzen dugun ezberdintasun eta gezurtatzeen desenkusatzeko arrazoiak; eta are beste edozein gezur eta ameskeriaren asmatzea (haraino badoaz) zentzuak salatu baino lehen. Timagorasek zin zegien, bere begia hertsatu edo zeharkatu eta ere, sekula ez zuela ikusi kriseiluaren argia bikoizten, eta itxura hori ustearen biziotik zetorrela, ez tresnatik. Zentzugabekeria orotan, epikuroarrentzat zentzugabeena zentzuen indar eta ondorioaren ukatzea da.

Proinde quod in quoque est his visum tempore, verum est.

Et, si non potuit ratio dissolvere causam,

Cur ea quæ fuerint juxtim quadrata, procul sint

Visa rotunda, tamen, præstat rationis egentem

Reddere mendose causas utriusque figuræ,

Quam manibus manifesta suis emittere quoquam,

Et violare fidem primam, et convellere tota

Fundamenta quibus nixatur vita salusque.

Non modo enim ratio ruat omnis, vita quoque ipsa

Concidat extemplo, nisi credere sensibus ausis,

Præcipitesque locos vitare, et cætæra quæ sint

In genere hoc fugienda ⁴⁷⁸.

Aholku etsi eta hain guti filosofiko horrek ez du besterik erakusten, giza jakintza ez dagokela arrazoi arrazoigabe, ero eta zoro baten bidez baizik; baina are hobe da gizona, bere buruari balio emateko, hartaz eta beste edozein bidez balia dadin, ameskeriazkoa bada ere, bere beharrezko ergelkeria aitortu baino lehen: egia hain oztopagarria! Ez daiteke itzur zentzuak bere ezagutzaren egiazko nagusiak daitezenetik; baina segurugabeak eta faltsugarriak dira gorabehera guztietan. Hor borrokatu behar da amore eman gabe, eta indar zuzenek huts egiten badigute, temakeria, ausarkeria eta ahalkerik ezaz baliatu.

Epikuroarrek diotena egia baledi, hots, jakintzarik ez dugula zentzuen itxurak faltsuak badira; eta estoikoek diotena, egia bada ere zentzuen itxurak hain faltsuak direla non ez baitigute ezein jakintzarik egiten ahal, ondoriatuko dugu, bi alderdi dogmatista handi horien bizkar, ez dela jakintzarik batere.

Zentzuen ariketaren huts eta segurantza gabeari buruz, bakoitzak nahi bezainbat eredu bil dezake, hain arruntak baitira egiten dizkiguten akats eta engainatzeak. Ibar bateko oihartzunean, tronpeta baten hotsak badirudi gure aitzinetik datorrela, lekoa bat gibelagotik datorrenean:

Extantesque procul medio de gurgite montes

Idem apparent longe diversi licet...
Et fugere ad puppim colles campique videntur
Quos agimus propter navim...
Ubi in medio nobis equus acer obhæsit
Flumine, equi corpus transversum ferre videtur

Vis, et in adversum flumen contrudere raptim ⁴⁷⁹.

Arkabuzeko bala baten erabiltzean behatz erakuslearen azpitik, erdikoa gainetik bihurrikatua delarik, nork bere burua ezinagoraino bortxatu behar du, bat bakarrik besterik ez dela aitortzeko, zentzuek hainbaterainokoan bi itxuratzen baitizkigute. Zeren aldiro ikusten baita zentzuak arrazoimenaren nagusiak direla eta behartzen dutela honek faltsuak direla dakizkien eta epaitzen dituen itxuren edukitzera. Ukiemenekoa bazterrean uzten dut, bere ekintzak hurbilagoak, biziagoak eta mamitsuagoak baititu, gorputzari dakarkion minaren bidez, hainbat aldiz iraultzen baititu erabaki estoiko eder horiek oro, eta sabeletik oihukatzen behartzen baitu dogma hau erabaki osoz bere gogoan finkatu duena: axolagabeko gauza dela sabeleko mina, beste edozein eritasun eta min bezala, zuhurrak bere bertutearen bidez dagoen ontasun eta zoriontasun gorenetik deus ere apaltzeko indarririk aski ez daukalarik. Ez da hain bihotz motelik gure atabal eta tronpeten asotsak berotzen ez duenik; ez hain gogorrik musikaren eztitasunak iratzartzen eta kilikatzen ez duenik; ez hain gogo bihurrik bere burua begirune zerbaitek hunkiturik sentitzen ez denik gure elizetako zabaltasun iluna, apainduren ezberdintasuna, eta zeremonietako araubidea gogoan hartuz, eta gure organoen soinu gartsua eta gure ahotsen hain armonia sendoa entzunez. Gutiespenekin sartzen direnek ere ikara zerbaite sentitzen dute bihotzean, eta bere usteaz mesfidarazten duten beldur zerbaite.

Neuri dagokidanez, ez dut neure burua hain azkarrik sentitzen zentzu lasaian Horazio eta Katuloren neurtitzen entzuteko, aho eder eta gazte batek kantaturik ahots aditu batez. Arrazoia zeukan Zenonek ahotsa edertasunaren lorea zela esanez. Segurtatu nahi izan zait frantses guztiok ezagutzen dugun gizon batek sinestarazi zidala, berak egin zituen neurtitz zenbaiten ozentzean, ez direla berdinak paperaren gainean eta airean, eta neure begiek gezurtatuko zituztela neure belarriak, ahoskerak hainbat sinesmen baitu haren faborera iragaiten diren idazkiei balio eta moldearen ematerakoan. Horretan Filoxenok ez zuen gaizki egin, norbait entzunik bere poema bati doinu txar baten ematen, haren ziren adrailu batzuk lehertuz eta xehekatuz, zioelarik: .

Zergatik erabaki zerbaitez beren burua hil dutenek aurpegia itzultzen zuten emanarazten zuten ukaldiaren ez ikusteko? Beren osasunerako beren burua ebaki eta erre dezaten nahi eta manatzen dutenek ez dezakete zirujauaren prestaketa, tresna eta ekintzaren ikuskizuna jasan? Jakinik ikusmenak ez duela min horretan parte hartzerik batere. Ez ote dira hauek eredu egokiak arrazoimenaren gainean zentzuek duten manakuntzaren egiaztatzeko? Alferrik badakigu adats-trentza horiek morroi edo zerbitzari batengandik mailegatuak direla; gorritasun hori Espainatik etorria dela eta zurbiltasun hori Ozeano itsasotik, oraindik ikusmenak bortxatu behar gaitu gauzakiaren maitagarri eta atsegingarriago aurkitzera, arrazoiaren aurka. Horretan ez baita bere den deusik.

Auferimur cultu; gemmis auroque teguntur
Crimina: pars minima est ipsa puella sui.
Sæpe ubi quod ames inter tam multa requiras:

Decipit hac oculos Aegide, dives amor ⁴⁸⁰.

Zenbat ematen dioten zentzuen indarrari poetek, Nartziso bere itzalaren amodioaz galdurik egiten baitute,
Cunctaque miratur, quibus est mirabilis ipse;
Se cupit imprudens; et qui probat, ipse probatur;

Dumque petit, petitur; pariterque accendit et ardet ⁴⁸¹;

eta Pigmalionen zentzua hain nahasirik bere bolizko estatuaren ikusmenaren hunkitzeaz, non bizia bezala maite eta zerbitzatzen baitu!

Oscula dat reddique putat, sequiturque tenetque,

Et credit tactis digitos insidere membris;

Et metuit pressos veniat ne livor in artus ⁴⁸².

Ezar dadin filosofo bat Parisko Notre-Dameko dorretarik dilinda dagoen burdinari bakanduetako kaiola batean, arrazoi ageriz ikusiko du ez daitekeela eror, eta halarik ere, ezin itzur liteke (teilatu estaltzaileen ofizioan ohitua ez bada) ezinagoko goratasun horren ikusteak ikara eta erauz dezanetik. Lanik aski baitugu gure ezkil-dorreetako galerietan egoteko estalgairik gabe moldatu badira, harrizkoak badira ere. Badira bakarrik gogoeta hori gogoan jasan ez dezaketenik. Egotz bedi habe bat bi dorre horien artean, haren gainetik ibiltzeko behar dugun loditasunekoa: ez da hain bermetasun handiko zuhurtzia filosofikorik kuraia eman diezagukeenik lurrian balitz eginen genukeen bezala haren gainean ibiltzeko. Maiz entseiatu dut hau gure hemengo mendietan (eta halako gauzetaz erdizka baizik ikaratzen direnetarik bat naiz) ez bainuen mugagabeko barrentasun horren ikustea jasaten ahal beldurrik eta zango eta izterren ikararik gabe, neure luzetasuna behar baitzen oraindik hegian osoki izateko, ez nengoke erori gabe neure burua ez banu jakinez arriskuan ezarri. Ohartu nintzen ere, zernahi goratasun izanik ere, malkar horretan apur bat ikusmenaren bermatzeko zuhaitz edo harkaitz konkorr bat agertzen den ber, horrek segurantza erakusten eta dakarkigula, erorketan hartarik laguntza ukan behar dugun gauza balitz bezala; baina erroitz ebaki eta leunei ez diezaiekegula begira ere burua bihurdikatu gabe: ,ut despici sin vertigine simul oculorum animique non possit ikusmenaren gezur ageri bat baita. Filosofo eder hark⁴⁸⁴ begiak lehertu zituen haietarik gogoak zeukan makurraz arintzeko, eta libertate gehiagotan filosofatu ahal izateko.

Baina, horren arabera, belarriak ere iztupaz hetsi behar zituen, Teofrastok baitio dauzkagun tresnarik galgarrienak direla hunkitze bortitzen ukatera gure nahasteko eta aldaratzeko, eta azkenean garaitiko zentzuez bere burua gabetu behar zuen, esan nahi baita bere izateaz eta biziaz. Zeren orok baitute gure arrazoimen eta gogoaren manatzeko ahalmena. Fit etiam saepe quadam, saepe vocum gravitate et cantibus, ut pellantur animi vehementius; saepe etiam cura et timore. Sendagileek badiote badiorela soinu eta musika-tresna zenbaitez erotzerarainokoan inarrosten diren izaera zenbait. Ikusi ditut beren mahai azpian hezur baten kurruskatzea entzun ez zezaketenak egonkortasuna galdu gabe; eta doi bada gizonik karrakek burdinaren karrakatzen dagiten asots garratz eta sarkorrarekin nahasten ez denik; guregandik hurbil mastekatzen entzutean bezala, edo zintzurbidea edo sudurra oztopaturik duen bat mintzatzen entzutean, asko hunkitzen dira haserre eta herrarainokoan. Grakoren xirulari hark, bere nagusiaren ahotsa biguntzen, gogortzen eta bihurdikatzen zuena Erroman hitz egiten zuelarik, zertarako balio zuen soinuaren mugimendu eta nolakotasunak entzuleen arrazoimenaren hunkitzeko eta aldatzeko indarrik ez bazuen? Egiazki bada zeren besta egin zati eder horren bermetasunaz, hain haize arin baten mugimendu eta gorabeherak bere burua eramatera uzten duenean!

Gure adimenari zentzuek dakarkioten gezurkeria bera hartzen dute beraiek ere, beren aldian. Gure gogoa inoiz ere berdin mendekatzen da; gezurretan ari dira eta elkar engainatzen dute zeinlehenka. Haserraldiak inarrosirik badantzugun eta badakusaguna, ez dugu den bezala entzuten,

Et solem geminum, et duplices se ostendre Thebas ⁴⁸⁶.

Maite duguna den baino ederragoa iruditzen zaigu,

Multimodis igitur pravas turpesque videmus

Esse in delitiis, summoque in honore vigere ⁴⁸⁷,

eta itsusiagoa bihotz kontran dugunari. Gizon hastiatu eta ondikatu bati, egunaren argia iruditzen zaio ilun eta goibel. Gure zentzuak ez dira bakarrik aldatuak, baina anitzetan osoki zozotuak gogoaren pasioneek. Zenbat gauza dakuskigu, ohartzen ez gatzazkienak, gogo beste inon arrenkuraturik baldin badugu?

In rebus quoque apertis noscere possis.

Si non advertas animum, proinde esse, quasi omni

Tempore semotæ fuerint, longeque remotæ ⁴⁸⁸.

Badirudi gogoak berbarrenatzen eta moteltzen dituela zentzuen ahalmenak. Horregatik, bada, gizonaren barrena eta kanpoa ahuleziaz eta gezurrez beteak dira.

Gure bizia amets batekin parekatu dutenek arrazoiak eduki dute, menturaz, uste zutena baino gehiago. Amets egiten dugunean, geure gogo bizi da, badagi, badarabiltza bere ahalmen guztiak, iratzarrik denean bezainbat; bigun eta ilunkiago bada ere, ez da gauetik argi bizi batera bezainbateko ezberdintasunean; gauetik itzalera bezalakoa bai: han lotan da, hemen lo dagi, gehiago eta gutiago. Beti iluntasunak dira, iluntasun zimeriarrak⁴⁸⁹.

Lotan iratzarrik gaude, eta iratzarpenean lo dagigu. Lotan ez dakusat hain garbirik, baina iratzarpena ez dut sekula aurkitzen aski argi eta lanbrorik gabe. Loak, bere barrenean, oraindik lokartzen ditu zenbaitetan ametsak. Baina gure iratzarpena inoiz ez da hain ernerik ameskeriak osoki garbi eta ezaba ditzan, iratzarrien ametsak baitira, eta ametsak baino makurragoak.

Geure arrazoiak eta geure gogoak, onartuz lotan sortzen zaizkion ameskeriak eta usteak, eta onetsiz gure ametsetako ekintzak egunekoak egiten dituen bezalako onarpenaz, zergatik ez dugu zalantzan ezarri geure gogoetatzea, geure egitea, beste amets egitea ote den eta gure iratzarpena halako lo bat?

Zentzuak geure lehen epaileak badira, ez dira bakarrik geureak aholkura deitu behar direnak, zeren ahalmen horretan ihiziek baitute guk bezainbat zuzenbide edo gehiago. Egia da zenbaitek entzumena gizonak baino zorrotzagoa dutela, besteek somamena, besteek ukimena edo gustua. Demokritok zioen jainkoek eta ihiziek gizonak baino anitzez ahalmen sentikor osoagoak bazituztela. Bada, haien zentzuen ekintza eta gureen artean, ezberdintasun gaitza da. Gure tuak garbitzen eta idortzen ditu geure zauriak, eta sugea hiltzen du:

Tantaque in his rebus distantia differitasque est,

Ut quod alis cibus est, aliis fuat acre venenum.

Sæpe etenim serpens, hominis contacta saliva,

Disperit, ac sese mandendo conficit ipsa ⁴⁹⁰.

Tuari zer nolakotasun emanen diogu? Geure ala sugearen arabera? Bietarik zein zentzutik egiaztatu dugu bilatzen dugun haren zinezko izatea? Pliniok badio Indietan badirela itsas erbi zenbait pozoin zaizkigunak, eta gu haiei, halako molde non ukitze hutsez hiltzen baititugu: zer dateke egiazki pozoin, gizona ala arraina? Aire-molde batek gizona kutsatzen du, idia kalteatzen ez duenean; beste batek, idia, gizona kalteatzen ez duena: bietarik zein dateke, egiazki eta berez, molde kutsagarria?

Horieria dutenek gauzak oro horiak badakuskite eta guk baino zurbilagoak:

Lurida præterea fiunt quæcunque tuentur

Arquati ⁴⁹¹.

Sendagileek hiposfragma deritzoten gaitza dutenek, larrupean odol isurtze bat baita, gauzak oro gorri eta odoltsu dakuskite. Gure ikusmenaren ekintzak horrela aldatzen dituzten aldarteak, badakigu ihiziengan nagusitzen diren eta arruntak zaizkien? Zeren

baitakuskigu zenbait begi horiak dituztenak gure ikteriziako eriek bezala, besteak gorritasunez odolean dituztenak; haiei itxurakoa da gauzakien kolorea guri iruditzen zaigunaz besterik iruditzea: bietarik zein ustea dateke egiazkoa? Zeren ez baita esanik gauzen izatea gizonari dagokiola soilik. Gogortasuna, zuritasuna, barrentasuna eta samintasuna animalien zerbitzu eta jakintzari dagozkio, gureari bezala; naturak haien erabilera emana baitie guri bezala. Begia hertsatzen dugunean, begiratzen diegun gorputzei luze eta hedatuagoak ohartzen gatzazkie; ihizi anitz badituzte begiak horrela hertsatuak: luzetasun hori, bada, menturaz gorputz horren egiazko molde da, ez gure begiek, beren ohizko jarlekuan, ematen diotena. Begia hertsatzen badugu azpitik, gauzak bikoitzak iruditzen zaizkigu.

Bina lucernarum florentia lumina flammis

Et duplices hominum facies, et corpora bina ⁴⁹².

Belarriak baditugu gauza zerbaitez oztopaturik, edo belarri-hodia hetsirik, hotsa hartzen dugu ohi egiten dugunaz besterik; belarri bilozuak dituzten animaliek, edo belarriaren lekuan hagitz xilo xehe batez bazik ez dutenek, ez dute, beraz, guk aditzen duguna aditzen eta hotsa besterik hartzen dute. Besta eta antzokietan badakusagu, zuziargien kontra ezarriz kolore zerbaitez tindatu berina bat, leku horretan dagoen guztia agertzen zaigula edo berde, edo hori, edo ubel,

Et vulgo faciunt id lutea russaque vela

Et furrugina, cum magnis intenta theatris

Per malos volgata trabesque trementia pendent:

Namque ibi consesum caveai subter, et omnem

Scenai speciem, patrum, matrumque, deorumque

Inficiunt, coguntque suo volitare colore ⁴⁹³,

itxuragarria da, animalien begiek, kolore ezberdinetakoak baitakuskigu, eragin diezaizkieten gorputzen itxurak begiak bezalakoak.

Zentzuen ekintzen epaiketarako, beharko luke, beraz, lehenik ados izan gintezen ihiziekin, bigarrenik geure artean. Inola ere ez baikara; eta aldiro eztabaidetan gabiltza batek baitantzuz, baitakusa edo dastatzen baitu beste batek dagienaz besterik; eta, beste zernahi baino gehiago, eztabaidatzen dugu zentzuek dakarkiguten irudien ezberdintasunaz. Besterik badantzuz eta badakusa, naturaren ohiko arauaz, eta besterik dastatzen du haur batek hogeit eta hamar urteko gizon batek dagienaz, eta honek hirurogei urteko batek dagienaz besterik. Zentzuak batzuegan ilun eta itzaltsuagoak dira, besteengan ireki eta zorrotzagoak. Gauzak besterik hartzen ditugu, garen eta iruditzen zaigunaren arabera. Bada, geure iruditzea hain zalantzakor eta eztabaidatua izanez, ez da mirakulurik esaten bazaigu aitor dezakegula elurra zuri iruditzen zaigula, baina bere izatez halakoa den eta egiaz, ez dezakegula hitz eman: eta, hasiera hau erauzirik, munduko jakintza oro hondoratzen da halabeharrez. Eta zer gure zentzuek elkar oztopatzen dutenaz? Margo batek goraturik dirudi ikusterako, ukimenerako zelai da; esanen ote dugu almizklea atsegin den ala ez, geure usaimena gozatzen baitu eta geure dastamena ofendatzen? Badira belar eta gantzadurak gorputz zati baterako egokiak, beste bat zauritzen dutenak; ezta atsegingarri zaio dastamenari, ezatsegin ikusmenari. Blasoinetan aipatzen diren luma modura moldatu eraztun horiek; bururik gabeko hegatsak, ez da begirik haien zabalera bereiz dezakeenik eta engainu honetarik itzur: alde batetik badoazela zabaltzen, eta bestetik zorrotzen eta hertsatzen, behatzaren inguruan itzularazten badira ere, halarik ere, eskuztatzean iruditzen zaizkizu berdinak zabaltasunean eta orotarik berdinak.

Aspaldian, beren atsegin lagundu nahian, itxuratu gauzakiaren loditzeko eta handitzeko ispilu egokiez baliatzen ziren pertsona haiek, ikusmenezko berretze horren bidez erabili beharreko soinadar horiek gehiago atsegin zekizkien; bi zentzuetarik zeini ematen

zioten lehentasuna, edo soinadar haiek lodi eta handi nahi bezainbat itxuratzen zizkien ikusmenari, edo xehe eta erdeinugarriak itxuratzen zizkien ukimenari?

Gure zentzuak ote dira gaiari baldintza ezberdin horiek ematen diotenak, eta gaiek, beraz, batez baizik ez dute? Jaten dugun ogiaz dakusagun bezala; ogirik besterik ez da, baina geure erabilerak hartaz egiten ditu hezurak, odola, haragia, ileak eta azazkalak:

Ut cibus, in membra atque artus cum diditur omnes,

Disperit, atque aliam naturam sufficit ex se ⁴⁹⁴.

Zuhaitz baten erroak edoskitzen duen izerdia enbor, hosto eta fruitu egiten da; eta airea, bat baizik ez denean, tronpeta bati egokieragatik mila soinu motatan ezberdin egiten da: gure zentzuak ote dira, diot, gauzakien nolakotasun ezberdinak moldatzen dituztenak, eta haiek badauzkate halakoak? Eta zalantza honen gainean, zer erabaki dezakegu haien egiazko izateaz? Areago, eritasunen, ameskeriaren edo loaren gorabeherak gauzak irudiarazten baitizkigu sendoei, zuhurrei eta zahartzen direnei iruditzen zaizkienez besterik, ez ote da itxuragarria gure jarleku zuzenak eta aldarte naturalek badutela ere zertaz eman izate bat gauzei haien baldintzei egokituz, eta beren baitara moldatuz, aldarte desautuek egin bezala? Eta gure osasuna ere haiei aurpegi baten hornitzeko gai dela, eritasuna bezala? Zergatik ez du neurtuak gauzakien modu zerbait bere buruari egokia, neurrigabeak bezala, eta ez die berdin bere izaera inprimatuko?

Aseak moteltasuna demaio ardoari; sendoak, zaporea; egartiak, onkeria.

Bada, gure egoerak bere baitara gauzak moldatuz eta bere arabera aldatuz, ez dakigu gehiago gauzak egiazki zer diren; zeren ezer ez baitatorkigu geure zentzuek faltsuturik eta aldaturik ez bada. Bi puntakoa, eskudra eta erregela makur diren lekuan, haietarik atera arau guztiak, haien neurrira eraiki etxe guztiak, halabeharrez ere huts eta akasduak dira. Gure zentzuen zalantzak zalantzakor bilakatzen ditu egiten duten oro:

Denique ut in fabrica, si prava est regula prima,

Normaque si fallax rectis regionibus exit.

Et libella aliqua si ex parte claudicat hilum,

Omnia mendose feri atque obstipa necessum est,

Prava, cubantia, prona, supina, atque absona tecta,

Jam ruere ut quædam videantur velle, ruantque

Prodita judicis fallacibus omnia primis.

Hic igitur ratio tibi rerum prava necesse est

Falsaque sit, falsis quæcumque a sensibus orta est ⁴⁹⁵.

Bestalde, nor dateke egokia ezberdintasun hauen epaitzeko? Erljiozko eztabaidetan diogun bezala alderdi bati ez besteari estekaturik ez den epaile bat behar dugula, bereizkunderik eta atxikimendurik gabea, kristauen artean ez daitekeena, honetan berdin gertatzen da; zeren, zaharra bada, ez dezake zahartzaroaren sentimenduaz epai, eztabaida horretan bera alderdikidea izanez; gaztea bada, berdin; eria, lo egilea eta iratzarria, berdin. Nolakotasun horietaz guztietaz gabetu norbait beharko litzaiguke, aitzinusterik gabe, aburu horietaz epai dezan, berari ezaxolakoak bezala; eta, horren arabera, beharko litzaiguke izan ez den epaile bat.

Gauzakietarik hartzen ditugun itxurez epaitzeko, epai-tresna bat beharko litzaiguke; tresna horren egiaztatzeko, frogatzea behar dugu; frogatzearen egiaztatzeko, tresna bat: hona harilgailuar⁴⁹⁶ garela. Zentzuek ez baitute gure eztabaida trenkatzen ahal, beraiek zalantzaz beterik izanez, arrazoia izan behar da: ezein arrazoirik ez da beste arrazoirik gabe finkatuko: hona gibelka mugagaberaino garela. Gure irudimena ez dagokie gauza arrotzei, zentzuen bitartez sortua baita; eta zentzuek ez dute gai arrotzik hartzen, baina bakarrik beren pasioneak; eta beraz irudimena eta itxura ez da gaiarena, baina bakarrik zentzuaren pasione eta pairamenarena, aipatu pasionea eta gaia gauza ezberdinak dira; horregatik itxurez epaitzen duenak gaiaz beste zerbaitez epaitzen du. Eta zentzuen

pasioneek gogoari gai arrotzen nolakotasuna dakarkiotela antzekotasunen bidez esanez, gogoa eta adimena nola segurta daitezke antzekotasun horretaz, berez gai arrotzekin batere harremanik ez edukiz? Hala nola, Sokrates ez dazaguenak, haren margo-itxura ikusirik, ez dezake antzik duenez esan. Beraz, halarik ere, itxuren bidez epaitu nahi lukeena: guztien bidez bada, ezinezkoa da, elkar gezurtatzen baitute beren aitzi eta desadostasunez, esperientziaz dakusagun bezala; itxura bereizi zenbaitek arautuko dituzte besteak? Bereizi hori egiaztatu beharko da beste bereizi baten bidez, bigarrena hirugarrenaren bidez; eta horrela ez da sekula bururatuko.

Azkenean, ez da betiereko izaterik, ez gure izatearenik, ez gauzakienik. Gu, geure arrazoimena, eta gauza hilkor guztiak, badoaz etengabe jariatuz eta itzulikatuz. Horrela ez da ez bataz ez besteaz deus ere finkatzen ahal, epailea eta epaitua etengabeko aldaketa eta mugimenduan baitaude.

Ez dugu izatearekin harremanik batere, zeren gizaera oro beti baita sortze eta hiltzearen erdian, bere buruagandik itxura ilun eta goibel batez baizik ez emanez, eta uste segurgabe eta ahul bat. Eta, menturaz, behartzen baduzu zeure gogoa haren izateari atxikitzeke, urari atxikitzea nahi lukeenarena izanen da: zeren hainbat eta gehiago estutu eta hertsatuko baitu berez orotarik dariona, orduan eta gehiago galduko baitu atxiki eta atzeman nahi zuena. Horrela, gauza guztiak aldatze batetik bestera iragaitera behartuak izanez, arrazoiak, hor egiazko gai bat bilatuz, atzipeturik aurkitzen da, izatezko eta iraunkor ezer ezin hatzemanenez zeren dena edo izatera baitator eta oraindik ez da osoki, edo hiltzen hasten da sortua izan baino lehen. Platonek bazioen gorputzek ez zeukatela sekula izaterik, sortzea aldiz bai, uste baitzuen Homerok ozeanoa egin zuela jainkoen aita, eta Tetis ama, guri erakusteko gauzak oro jariatze, higitze eta etengabeko aldatzean daudela: bere aroa baino lehenagoko filosofo guztien uste amankomuna, berak dioen bezala, Parmenides bakarrik salbu, gauzei mugimendurik ukatzen baitzien, haren omena axola handitan baitzuen; Pitagorasek, gai oro jariokor eta erorkor dela; estoikoek orainaldirik ez dela, eta orainaldia deitzen duguna, etorkizun eta iraganaldiaren biltze eta batzeaz baizik ez dela; Heraklitok, inoiz ez dela gizonik ibai berean bi aldiz sartu; Epikarmok, behiala diru mailegutari hartu duena ez duela orain zor; eta bart gaur goizean bazkaltzera gomiatu izan dena gaur datorrela ez gomitaturik, ez baitira haiek berak: besterik bilakatu dira; eta ez zela gai hilkor bat bi aldiz egoera berean aurkitzen ahal, behin barreiatzen baita, behin biltzen; badator eta gero badoa. Halako moldez, non sortzen dena ez baita sekula izateko osotasunera heldu, sortzen dena ez baita inoiz bururatzen, eta inoiz ez da gelditzen, xederatu bezala, baizik eta haziaren ondoren beti badoa batetik bestera aldatuz eta lekutuz. Giza hazitik lehenik egiten den bezala amaren sabelean molderik gabeko fruitu bat, gero haur moldatu bat, gero, sabelaz landan izanez, diti-haur bat; gero mutiko bilakatzen da; gero, ondorioz, mutil bat; gero gizon heldu bat; gero adineko gizon bat; hondarrean zahar karrakoildu bat. Halako moldez, non ondoko adina eta belaunaldia baitoa beti aurrekoa deseginez eta higatuz:

Mutat enim mundi naturam totius ætas,

Ex alioque alius status excipere omnia debet,

Nec manet ulla sui similis res: omnia migrant,

Omnia commutat natura et vertere cogit⁴⁹⁷,

Eta ergelki gara heriotza-mota baten beldur, gaurgero hainbat iragan eta iragaiten ditugun ber. Zeren ez bakarrik, Heraklitok zioen bezala, suaren heriotza airearen sortzapena baita, eta airearen heriotza uraren sortzapena, baina oraindik agerikiago ikus dezakegu geure baitan. Adinaren lorea hiltzen eta iragaiten da zahartzarora datorrenean, eta gaztaroa akitzen da gizon helduaren adinaren lorean, haurtzarora gaztaroon, eta lehen adina haurtzaroon hiltzen da, eta atzoko eguna hiltzen da gaurkoan, eta gaurkoa hilen da biharkoan; eta deusik ez da dirauenik eta beti bat denik. Zeren, hala balitz ere, beti bat

eta bera baldin badiraugu, nola da orain gauza batez alaitzen garena, eta orain beste batez? Nola da gauza kontrarioak maitatzen edo gorrotatzen ditugula, goستن edo gaitzesten? Nola dauzkagu aiherkunde ezberdinak, gogoeta berean sentimendu berari gehiago ez atxikiz? Zeren ez baita itxuragarria aldatzerik gabe har ditzagun beste pasioneak; eta aldatzea jasaten duenak ez dirau bera, eta ber bat ez bada, beraz, ez da ere. Horrela, izateak orobat aldatzen du izatea bakarrik, beti besterik beste batengandik bilakatuz. Eta, beraz, engainatzen dira eta gezurra diote naturaren zentzuek, izatetzat harturik dirudiena, ongi ez jakiteagatik izatea zer den. Baina, egiazki, zer da, bada, izatea? Betikoa dena, esan nahi baita inoiz sortzerik eduki ez duena eta inoiz bururatzerik edukiko ez duena; denborak sekula ez baitakarkio aldakuntzarik batere. Denbora gauza mugikorra baita, itzalean bezala agertzen dena, beti gai isurkor eta jariokorrarekin, inoiz geldi eta iraunkor egon gabe; hitz hauek baitagozkio: lehen eta gero, eta izan da edo izanen da, lehen itxuran ageriki baitarakusate ez dela den gauza; egelkeria handia eta gezur ageria bailitzateke oraindik izatean ez den edo izatetik gelditu den hori dela esatea. Hitz hauei buruz: orainaldi, instant, orain, haien bidez baitirudi nagusiki finkatzen eta bermatzen dugula denboraren aditzea, arrazoiak bere hartan suntsitzen du agertu ordukotzat: berehala ebakitzen eta zatitzen baitu etorkizun eta iraganean, ikusi nahi bezala halabeharrez bitan zatiturik. Beste hainbeste gertatzen zaio neurtzen den naturari, nola neurtzen duen denborari. Zeren deus ere ez baita haren baitan dirauenik, ez gai denik; baina gauzak oro edo sortuak, edo sortzen ari, edo hiltzen ari dira. Horregatik bekakua litzateke Jainkoaz esatea, den bakarra baita, izan zela edo izanen dela. Hitz horiek iraun ez dezakeen eta izatean ez dagokeenaren beherapenak, iraganbideak edo gorabeherak baitira. Horregatik ondoriatu behar da Jainkoa bakarrik dela, ez denborazko neurri baten arabera, baina betierekotasun aldagaitz eta mugiezin baten arabera, ez denborak neurturik, ez beherapen bati estekaturik; haren aitzinean deus ez baita, ez da izanen gero, ez berriagorik, ez gazteagorik, baina egiazko izate bat, orain bakar baten bidez betikoa betetzen baitu; eta deus ez da egiazki denik hura bakarrik baizik, esan ahal gabe: izan da, edo: izanen da; hasterik eta bururatzerik gabe.

Gizon pagano⁴⁹⁸ baten hain ondorio erlijiosoari bakarrik gehitu nahi nioke baldintza bereko lekukotasun bateko hitz hau, gaia etengabe emanen lidakeen hitzaldi luze eta aspergarri honen azkentzerako: “O gauza ezteusa, dio, eta okaztagarria den gizona, gizaeraren gainetik goratzen ez bada! Horra hitz on bat eta nahi onuragarri bat, baina berdinki zentzugabea. Zeren eskubetearen ukabila baino handiago egitea, besatada besoa baino handiagoa, eta gure zangoen hedadura baino gehiago iztapekatu uste izatea, ezinezkoa eta higuingarria baita. Eta gizona bere buruaren eta gizaeraren gain goratzen dela: zeren ez baitu bere begiek baino gehiago ikusten ahal, ez bere harbideek baino gehiago hartzen. Goratuko da Jainkoak, ohi ez bezala, bere eskua luzatzen badio; goratuko da bere bideei uko eginik, eta bere burua utziz goratzera eta goititzera bakarrik zerutiarrek diren bideez.

Gure kristau fedeari dagokio, ez haren bertute estoikoari, aldakuntza jainkozko eta mirakuluzko hori nahi izatea.

XIII

Besteren heriotzaz epaitzeaz

Besteren segurantzaz heriotzean epaitzen dugunean, giza biziaren ekintzarik nabarmenena baita, dudarik gabe gauza bati ohartu behar zaio: nekez sinesten ohi dela hein horretara heldu dela. Jende guti hiltzen da haren azken ordua dela ustetsirik, eta ez da aldirik esperantzaren engainuak gehiago liluratzen gaituenik. Etengabe oihukatzen du belarrietara: “Besteak anitzez eriagoak egon dira hil gabe; gauza ez da uste den bezain etsirik, eta, makurrenera, Jainkoak egin ditu ere beste mirakuluak” Eta hori gertatzen da sinesmen sobera demaiogulako geure buruari. Badirudi gauzen orotasunak pairatzen

duela inondik ere gure suntsitzeagatik, eta gure egoerari urrikaldu zaiola. Hainbat nola gure ikusmen gaiztatuak gauzak baitakuski berdin; eta uste dugu haiek huts egiten diotela hark huts egiten dien heinean: itsasoan gaindi bidaiatzen dutenei bezala, mendiak, zelaiak, hiriak, zerua eta lurra neurkada berean baitatozkie, haiekin batean,

Provehimur portu, terræque urbesque recedunt 500.

Nork zekusan inoiz iraganaldia goresten eta orainaldia gaitzesten ez duen zahartzarorik, mundua eta giza ohiturak zamakatuz bere gabezia eta goibeltasunaz?

Jamque caput quassans grandis suspirat arator,

Et cum tempora temporibus præsentia confert

Præteritis, laudat fortunas sæpe parentis,

Et crepat antiquum genus ut pietate repletum 501.

Dena badaramagu geurekin.

Hortik dator geure heriotzari gauza handia deritzogula, eta hain errazki gertatzen ez dena, eta ez izarren aholku handirik gabe tot circa unum caput tumultuantes deos.. Zenbat eta gehiagotzat hartzen dugun geure burua hainbat gehiago uste baitugu. Nola? Honenbat jakintza galduko litzateke hainbat kalterekin, halabeharraren axolarik gabe? Honen gogo bitxi eta eredugarri baten hiltzeak gogo arrunt eta ezteus batek bezainbat balio du? Bizi hau, beste hainbat estaltzen baitu, hainbat haren menpe baitira, hainbat mundu baitauka bere erabilerako, hainbat kargu bete, lekutzen ote da bere estekatzeko soilari datxikiona bezala?

Gutarik inork ez dauka aski gogoan bat baizik ez dela.

Hortik datoz Zesaren bere lemazainari hitz hauek, mehatxatzen zuen itsasoa baino hantuagoak:

Italiam si, cœlo authore, recusas,

Me pete: sola tibi causa hæc est justa timoris,

Vectorem non nosse tuum;

perrumpe procellas,

Tutela secure mei 503.

Eta hauek:

credit jam digna pericula Cæsar

Fatis esse suis: Tantusque evertere, dixit,

Me superis labor est, parva quem puppe sedentem

Tam magno petiere mari 504.

Eta jendeen sineskeria hau, eguzkiak bere kopetan zeramala, urte batez, haren heriotzaren dolua:

Ille etiam, extincto miseratus Cæsare Romam,

Cum caput obscura nitidum ferrugine textit 505;

eta mila halako, munduak hain errazki uzten baitu bere buruaren liluratzera, gure nahiak zerua aldatzen dutela ustetsiz, eta haren mugagabetasuna ohartzen zaiela gure bereizkeria xeheei: Non tanto coelo societas nobiscum est, ut nostro facto mortalis sit ille quoque siderum fulgor.

Beraz, bermetasun eta iraupenaren uste izatea egiazki galbidean dagoela sinesten ez duenarengan, zernahi gertatu eta ere, ez da arrazoa; eta ez da aski urrats horretan hil dadin, hain zuzen gertaera horretarako prest ez bazen. Gehienei gertatzen zaie beren bermetasun eta hitzen gogortzea hortik omenaren erdiesteko, bizirik uste baitute gozatuko dutela. Hiltzen ikusi ditudanetan, zoriak erabaki ditu itxurak, ez haien xedeak. Eta aitzinean beren burua hil dutenetarik beraietarik, bereiz liteke ongi bapateko heriotza ala denbora duen heriotza den. Enperadore erromatar oinazkoi hark bere

presoetaz zioen heriotza sentiarazi nahi ziela; eta norbaitek giltzapean bere buruaz beste egiten bazuen: , zioen. Heriotza luzatu nahi zuen eta oinazeen bidez sentiarazi:

Vidimus et toto quamvis in corpore cæso

Nil animæ letale datum, moremque nefandæ

Durum sævitiae pereuntis parcere morti 507.

Zinez ez da hain gauza handia erabakitzea, erabat sendo eta lasai, bere buruaren hiltzea; hagitx erraza da jotzeko ordua baino lehen gaiztoarena egitea: halako moldez non Heliogabalok, munduko gizonik emaldituenak, bere atsegin laxoen erdian, bere buruaren beraxki hiltzeko xedea hartu baitzuen, aldiak behartuko zuenean; eta heriotzak bere gaineko bizia gezurta ez dezan, espreski eraiki zuen dorre apain bat, aitzineko aldea urre eta harri bitxizko xaflaz lauaztua baitzen bere buruaren egozteko; eta horrela eginarazi zituen urre, harri bitxi, eta zeta gorrizko loturak urkatzeko; eta zaflarazi urrezko ezpata bat sartzeko; eta pozoina gordetzen zuen esmeralda eta topaziozko ontzietan bere buruaren pozointzeko, hiltzeko molde horietarik guztietarik nahikeriak hartuko zion arabera:

Impiger et fortis virtute coacta 508.

Nolanahi ere, bere prestaketen berazkeriak itxuragarriago egiten du sudurrari odola balerio damutuko zatekeela. Baina ekintzari bortizkiago lotu zaizkionetarik beraietarik ere ikusi behar da (diot) ondorioaren sentitzeko astia ken zezan ukaldi batez izan den: zeren asmatzekoa baita, bizia apurka jariotzen ikusten, gorputzaren sentimendua gogoarenarekin nahasten, damutzeko bidearen eskaintzen, bermetasuna eta iraupena aurkitu zen hain nahikunde galgarrian.

Zesarren gerra zibiletan, Luzio Domizio, Prusian hartua, bere burua pozoindurik, gero damutu zen. Gure aroan gertatu da halako batek, hiltzera deliberatua, eta bere lehen entseian aski aitzina ez emanez, haragiaren egosminak besoa gibelatuz, gero azkarki zauritu zuela berriz bere burua bizpahiru aldiz, baina ez zuen bere burua menperatzen ahal ukaldiaren sartzeko. Palutino Silvanori auzia egiten zitzaionean, bere amatxi Urgulianak aizto bat igorri zion, hartaz bere buruaren hiltzea ezin bururaturik, eginarazi zuen bere jendeek zainak ebaki ziezaizkioten. Albuzilak, Tiberioren aroan, bere buruaren hiltzeko sobera bigunki jotzen, bere jarraitunei eman zien giltzapetzeko eta haien modura hiltzeko bidea. Beste hainbeste egin zuen Demostenes kapitainak Sizilian bere galeraren ondoren. Eta C. Finbriak, ahulkiegi jotzen, hiltzeko otoiztu zion bere morroiari. Aitzitik, Ostoriok, bere besoaz ezin baliaturik baitzen, bere zerbitzariarenaz ez zuen baliatu nahi aiztoari zuzen eta berme atxikitzekeo baizik, eta, abiada harturik, berak eramane zuen zintzurra haren kontra, eta aldeaz alde zulatu zuen. Zinez, zintzurra hormaz ferraturik ez duenak mastekatu gabe irentsi behar duen haragi bat da; eta horregatik Adriano enperadoreak bere sendagileari zuzenki marka eta ingurarazi zion bere ditian hiltzeko kargua eman zionak xederatu behar zuen leku hilgarria. Horra zergatik Zesarrek, galdegiten zitzaionean zein heriotza aurkitzen zuen desiragarriena:

Zesar esatera ausartu bada, ez zait laxakeria haren sinestea.

Heriotza motz bat, dio Pliniok, giza biziaren zorionik gorena da. Hastiatzen dute honen ezagutzea. Heriotzarekin harremanen beldur den eta begiak zabalik jasan ez dezakeen inor ez da horretarako deliberatua izendatzen ahal. Oinazeetan beren azkentzera lasterkatzen eta hiltzearen arintzen eta lehiatzen ikusten direnek ez dute erabakiz egiten: beren buruari kendu nahi diote gogoetatzekeo astia. Hilik izateak ez ditu hastiatzen, baina bai hiltzeak,

Emori nolo, sed me esse mortuum nihili æstimo 509.

Frogatu dut hel naitekeen bermetasun-maila dela, itsaso bezalako arriskueta begi-hertsirik beren burua egozten duten bezala.

Deus ez da, ene arabera, Sokratesen bizian argitsuagorik bere heriotzaren manu-idazkiaren ausnartzeko hogeit eta hamar egun osoren edukitzea baino; denbora horretan orotan hori egosi izana itxaropen txit egiazko batez, hunkitzerik, erauzpenik gabe, eta halako gogoetaren pisuagatik ekintza eta hitz-molde apal eta ezaxolatiago batez tinko eta goratua baino.

Zizeronek idazten dion Ponponio Atiko hark, eria izanez, bere suhi Agripa deiarazi zuen, eta bere adiskideetarik bizpahiru, eta esan zien behin frogatuz geroz ez zuela ezer irabazten sendatu nahiarekin, eta bere biziaren luzatzeko egiten zuen orok mina ere luzatzen eta berretzen ziola, bata eta besteari mugaren ezartzeko deliberatua zela, eskatzen zielarik bere erabakia ontzat har zezaten eta, makurrenera, ez zezaten beren nekea gal desbideratzeko xedetan. Bada, barautzeaz hiltzea hautetsirik, horra haren eritasuna menturaz sendaturik: hiltzeko hartu zuen bideak berriz sendo ezartzen du. Sendagileak eta adiskideak, hain zorioneko gertakariaz besta egiten eta harekin ospatzen, osoki engainaturik aurkitu ziren; zeren ezin baitziezaioketen horregatik ustea aldaraz, esanez nola egun batez ateka hori iragan behar baitzuen, eta hain aitzindurik baitzen, berriz hasteko nekea kendu nahi zuela. Honek, heriotza ezaguturik asti osoz, ez du elkartzean bihotza galtzen, baina are sutzen da; zeren, guduan sartu zeneko kausan aserik izanez, bukaeraren ikusteko ausartziaz sumintzen da. Dastatu eta gozatu nahi izatea, heriotzaren beldur ez izatea baino anitzez harago da.

Kleantes filosofoaren historia oso antzekoa da. Hagin-hobiak hanpatu eta usteldu zitzaizkion; sendagileek aholkatu zioten baraualdi handi batez baliatzea. Bi egunez barauturik, hain ongi hobekitu zen non sendakuntza aldarrikatzen baitute eta baimentzen bere ohizko bizimodura itzultzea. Hark, aitzitik, eztitasun zerbait dastaturik ahultze hartan, erabakitzen du gehiagorik ez gibelatzea eta iragaiten du hainbestez aitzindu zuen urratsa.

Tulio Martzelino erromatar gazteak, bere halabeharreran ordua aitzindu nahian, jasan zezakeen baino gehiago oinazetzen zuen eritasun batetik libratzeko, sendagileek sendakuntza segurua agintzen bazioten ere, adiskideak deitu zituen erabakitzeko. Batzuek, dio Senekak, ematen zioten beraiek bihotz-gabekeria hartuko zuketen aholkua; besteek, lausengukeriaz, atseginagoa izan behar zitzaiona uste zutena. Baina estoiko batek honela zioen: "Ez habil gehiago neketan, Martzelino, axolako gauza erabaki bahu bezala: ez duk gauza handirik bizitzea; hire zerbitzariak eta ihiziak bizi dituk; baina zintzoki, zuhurki eta bermeki hiltzea gauza handia duk. Emak gogoan zenbat duen gauza bera egiten duala: jan, edan, lo egin; edan, lo egin, jan. Etangabe biribilkatzen gaituk uztaidura horretan; ez bakarrik gorabehera gaiztoek eta jasanezinek, baina bizitzeko aseak berak heriotzaren gogoia ematen dik." Martzelinok ez zuen aholka zezan gizonaren beharra, baina lagun zezan gizonarena. Zerbitzariak nahasteko beldur ziren, baina filosofo hark adierazi zien sehiak gogoan behargarriak direla bakarrik nagusiaren heriotza nahietsia izan deneko zalantzarik baldin bada; bestalde, hiltzea bezain eredu txarra litzatekeela eragozte, zeren

Invitum qui servat idem facit occidenti 510.

Gero gaztigatu zion Martzelinori ez litzatekeela gaizki, bazkaltiarrei bazkalazkena ematen ohi zaien bezala, gure bazkariak eginik, bizia amaiturik ere, laguntzaile izan direnei zerbaiten ematea.

Bada, Martzelino izaera eskuzabal eta nasaikoa zen: banarazi zien diru zerbait bere zerbitzariei, eta bihotza arindu zien. Bestalde, ez zuen burdin ez odolaren beharrik; deliberatu zen bizi honetarik joatera, ez ihes egitera; ez herioari itzurtzera, baina entseiatzera. Eta harremanetan ihardukitzeko astiaren emateko, janari oro kendurik, hirugarren egunean, ur epelez bustiarazirik, apurka hil zen, eta ez atsegin zerbait gabe, zioenaren arabera. Egiazki, ahuleziaz hartzen ohi diren alditxartze horiek eduki dutenek

badiote batere minik ez sentitzea, eta gehiago atsegin zerbait, lo eta atsedenerako iragaite batetik bezala.

Horra heriotza ikertu eta ausnarturik.

Baina, bertute eredu orori Katon bakarrik balia dakion, badirudi bere zorionak gaitz edukiarazi ziola bere buruari ukaldi eman zion eskuan, heriotzaren oldartzeko eta atzemateko astirik eduki zezan, arriskuan kuraia indartuz, biguntzeko orde. Eta neri balitzait haren jarlekurik gorenean itxuratzea, haren erraiak urratzen osoki odolatan izan zatekeen, ezpata eskuan baino gehiago, haren aroko itxura-egileek egin zuten bezala. Zeren bigarren heriotza-molde hau lehena baino askoz bortizagoa baitzen.

XIV

Nola gure gogoak bere burua eragozten duen

Doi bi nahi berdinen artean gogo zalantzatu baten asmatzea irudimen atsegina da. Dudaiezinezkoa baita sekula ez duela alderdirik hartuko, jartzeak eta hautatzeak balioaren ezberdintasuna baitakar; eta ezarriko balitzaiguke botila eta urdaiazpikoaren artean, edateko eta jateko nahi berdinarekin, zalantzarik gabe egarritz eta gosez hiltzeko beste erremediorik ez litzatekeela. Eragozpen honetarik itzurtzeko, estoikoek, galdegiten zaienean nondik heldu den gure gogoan bi gauza bereiztezinetak hautatzea, eta zerk dagien ezkutu-andana batetik har dezagun bata bestea baino lehen, denak berdin izanez, eta hobestera garamatzan arrazoirik ez izanez, baderantzute gogo higidura hori ohiz landako eta desarautua dela, gure baitan datorrelarik bulkatze arrotz, menturazko eta zorizko batetik. Gehiago esan liteke, uste dut, ezein gauzarik ez zaigula agertzen ezberdintasun zerbait gabe, arinagoa bada ere; eta, ikusmen edo ukimenerako, beti badela gehiago erakartzen gaituen zerbait, ohargabeki bada ere. Halaber, orotarik berdin gotor den hari bat irudikatzen bada, guztiz ezinezkoa da hauts dadin; zeren, nondik nahi duzu hausdura has dadin? Eta orotarik haustea, ez ohi da naturan. Horri oraino gehituko lizkiokenak edukia edukilea baino handiagoa eta zentrua bere zirkunferentzia bezain handia beren frogatzeen egiatasunaren bidez ondoratzen duten proposamen geometrikoak, eta sekula elkartzen ahal gabe elkarri etengabe hurbiltzen ari zaizkien bi marra aurkitzen dituztenak, eta filosofiarria, eta zirkuluaren karratura, arrazoaia eta ondorioa hain aurkakoak baitira, aterako luke, menturaz, argudio zerbait Plinioren hitz ausart honen laguntzeko, solum certum nihil esse certi, et homine nihil miserius aut superbius.

XV

Gure nahia nekeziaz handitzen dela

Ez da arrazoirik kontrario bat ez duenik, dio filosofoen alderdirik zuhurrenak. Berriki ohartzen nintzaion biziaren gutiesterako zahar batek aipatzen duen hitz honi: “Ezein ontasunik ez diezaguke atseginik ekar, salbu haren galtzerako prest bagaude” In aequo est dolor amissioe rei et timor amittendae ; hortik irabazi nahian biziaren gozoa ez dakigula egiazki atsegina izan, hura gal beldurrez bagara. Aitzitik esan liteke, halarik ere, ontasun horri gatzizkiola eta besarkatzen dugula, hainbat hertsiki eta maitekiago segurantza gutiagokoa zaigula dakusagun eta kendua izan dakigun beldur garen ber. Ageriki ikusten baita, sua sumintzen den bezala hotzaren ondoan, gure nahikundea ere zorrozten dela kontrastaren bidez:

Si nunquam Danaen habuisset ahenea turris,

Non esset Danae de Jove facta parens ⁵¹³,

eta deus ez zaiola berez hain kontraria gure atseginari nola erraztasunetik datorren asetasuna, eta deusek hainbat akuilatzen duenik nola bitxitasunak eta nekeziak. Omnium rerum voluptas ipso quo debet fulgere periculo crescit.

Galla, nega: satiatur amor, nisi gaudia torquent ⁵¹⁵.

Amodioari hats bizian atxikitzeke, manatu zuen Likurgok Lakedemoniako ezkonduak ez zezaketela ari gordepean baizik, eta elkarrekin hatzematea beste batekin bezainbateko ahalkea zatekeela. Deitzeen nekea, atzipetzeen arriskua, biharamuneko ahalkea,
et languor, et silentium...

Et latere petitus imo spiritus 516,
saltsari bizia demaiona da. Zenbat josteta hagitz lizunki atsegingarriak sortzen diren amodioaren idazkien mintza-molde zintzo eta ahalkekorretik! Atseginak berak minaz sumintzea bilatzen du. Anitzez eztiagoa da egosten eta larrutzen duenean. Flora emagalduek bazioen ez zela sekula Ponpeiorekin oheratu bere ausikien ezaugarriak eramanarazi gabe:

Quod petiere premunt arcte, faciuntque dolorem

Corporis, et dentes inlidunt sæpe labellis:

Et stimuli subsunt, qui instigant lædere idipsum,

Quodcunque est, rabies unde illæ germina surgunt 517.

Horrela da orotan; nekeak gauzei balio ematen die.

Ankonako markeserrikoek gogotikago egiten dizkioten beren zinak Donejakueri, eta Galizakoek Loretoko Amabirjinari; Liejan goraipatzen dira Lukako bainuak, eta Toskanan Aspakoak, doi ikusten da erromatarrik Erromako esgrima-eskolan, frantsesez beterik baita. Katon handi hura aurkitzen zen, gu bezainbat, bere emakumeaz hastiatutik berea zen bitartean, eta nahietsi zuen beste batena zelarik.

Garainotegira bidali dut zaldi zahar bat, behorren usaintzearekin ez baitzen menperatzen ahal. Erraztasunak beherala hastiatu du bereei buruz; baina, arrotzei buruz eta bere azpilaren aurrean iragaiten den lehenari buruz, lehen bezala itzultzen da bere intzirin nabarmen eta beroaldi zoroetara.

Gure nahiak gutiesten eta gainditzen du eskuan duena, ez duenaren atzetik lasterkatzeko:

Transvolat in medio posita, et fugientia captat 518.

Guri zerbaiten debekatzea, haren nahiaren ematea da:

nisi tu servare puellam

Incipis, incipet desinere esse mea 519.

Guri osoki ematea, harenganako gutiespenaren sortzea da. Eza eta nasaitasuna eragozpen berean erortzen dira,

Tibi quod superest, mihi quod deficit, dolet 520.

Nahiak eta gozatzeak neketan ezartzen gaituzte berdin. Amoranteen gogortasuna aspergarria da, baina aise eta erraztasuna, egiaren esateko, areago: kexatze eta haserrea daukagun gauza nahietsiaren preziazetik sortzen baitira, amodioa zorrozten eta berotzen dute; baina asetasunak hastioa sortzen du: pasione motel, ergel, laxo eta lokartua da.

Si qua volet regnare diu, contemnat amantem 521:

contemnite, amantes,

Sic hodie veniet si qua negavit heri 522.

Zergatik asmatu zuen Popeak bere aurpegiko edertasunen estaltzea bere amoranteen sustatzeko ez bazen? Zergatik oihalezatu dira aztal azpiraino bakoitzak erakutsi nahi eta bakoitzak ikusi nahi dituen edertasun horiek? Zergatik estaltzen dituzte batzuk besteen azpitik gure eta haien nahia nagusiki datzan zatiak? Eta zertako balio dute gurek beren sahietsak armatu berri dituzten gerizagailutzar horiek⁵²³, non ez den gure nahiaren akuilatzeke eta, urrunduz, haiengana erakartzeko?

Et fugit ad salices et se cupit ante videri 524.

Interdum tunica duxit operta moram 525.

Zetarako ahalke birjinalaren antzea? Hoztasun zentzudun hori, aurpegi larri hori, irakasten diegunok baino hobeki dakizkiten gauzen jakineza itxuratu hori, baizik eta zeremonia eta oztopo horien ororen garaitzeko, gozatzeko eta azpiratzeko nahiaren handitzeko? Zeren ez baita bakarrik atsegina baina oraindik ospea ere, eztitasun beratz eta haur ahalke horren zoratze eta usteltzean, eta larritasun harro eta nagusi baten gure suaren faborepean ezartzean: Sinetsi behar da bihotza beldurrez ikaratzen zaiela, gure hitzen hotsak haien belarrien garbitasuna zauritzen duela, hastiatzen gaituztela eta gure nabarmenkeria indar bortxatu batez onesten dutela. Edertasunak, den bezain ahalduna ere, ez du bere burua gozarazten ahal artekari hori gabe. Ikus Italian, edertasun gehiago, eta finena, salgai den lekuan, nola bilatu behar dituen beste bide arrotz eta beste antzeak bere burua atsegingarri egiteko; eta, zernahi badagi ere, salgai eta publikoa izanik, ahul eta ilaun bilakatzen da: halaber, bertutean berean, bi ekintza berdinetarik eder eta zuzenagotzat daukagu eragozpen eta mentura gehiago duena.

Jainkoaren zuhurtziaren ondorio bat da bere Eliza saildua, dakusagun bezala, hainbat nahasmen eta erauntsiek inarrosirik izan dadin baimentzea, kontraste horren bidez gogo jainkotiarren iratzartzeko, eta hain lasaitasun luzeak murgildu zituen alferkeria eta lokartzetik berreskuratzeko. Kontrapisatzen badugu desbideratzen direnen andanagatik egin dugun galtzea, berriz hats bizian ezarriak izateagatik eta gure lehia eta indarren berpizteagatik datorkigun irabaztearekin, ez dakit onuragarritasunak kaltea ez ote duen gainditzen.

Uste izan dugu gogorkiago lotu dugula gure ezkontzen korapiloa laxatzeko bide ororen kentzeagatik; baina nahikunde eta maitasunaren korapiloa desegin eta laxatu da bortxarena hertsatu den bezainbat. Eta, aitzitik, ezkontzak Erroman hain luzaz eduki zituen ohore eta segurantz, nahi zukeenak hausteko libertatea zen. Maiteago zituen beren emazteak gal zitzaketan ber; eta, dibortzioen libertate osoan, bost urte eta gehiago iragan ziren, inor hartaz balia zedin baino lehen.

Quod licet, ingratum est; quod non licet, acrius urit 526.

Honi buruz gehi liteke zahar baten ustea, oinazeek bizioak zorrozten dituztela moteldu baino gehiago; ez dutela ongi egiteko axola sortzen, arrazoi eta irakaskuntzaren eginkizuna baita, baina bakarrik gaizki egitean atzipeturik ez izateko axola bat:

Latius excisæ pestis contagia serpunt 527.

Ez dakit egia den, baina esperientziaz badakit ez zela sekula bizimodurik hortik birmoldatu. Ohituren antolabide eta araubidea beste bide zerbaitetan dago.

Historia grekoek Eszitiako auzokide argipearren aipamena egiten dute, azoterik eta ofendatzeko makilarik gabe bizi baitira, ez baitzaio inor haien oldartzeari lotzen, eta nornahi salba daiteke haienganatuz, libertate osoan da haien bertute eta bizi-saindutasunagatik. Haiengana jotzen ohi da beste inongo gizonen artean sortzen diren ezberdintasunen zuritsera.

Bada gorde nahi diren baratze eta alorretako hesia kotoiezko hari batez egiten den herri bat, eta gure hobi eta hesiak baino seguru eta bermeago aurkitzen da.

Furem sigmata sollicitant. Aperta effractarius præterit 528.

Menturaz, beste bideen artean, erraztasunak balio du nire etxearen gordetzeko gure gerra zibiletarik. Defentsak oldarpena erakartzen du, eta mesfidantzak laidoa. Soldaduen xedea ahuldu dut, haien ekintzari mentura eta ospe militarren gai oro kenduz, izenburi eta estakurutzat balio ohi baitie. Zuzenbidea hilik den aroan, bihoztoiki egiten dena, beti ohoretsuki egiten da. Neure etxearen hartzea laxo eta gaizki saldurik bilakatzen diet. Ez zaio hetsirik deitzen duen edonori. Hornidura guztizat bada aspaldiko ohitura eta

zeremoniako atezain bat, ez baitu hainbat balio nire atearen defendatzeko, nola apainki eta grazioskiago irekitzeko. Neuregatik izarrek dagitenez beste gerizarik ez zaintzalerik ez dut.

Aitorenseme batek gaizki du defentsan dagoelako erakuspenaren egitea, non ez dagoen osoki. Alderdi batetik ireki dagoena, orotarik dago. Gure aitek ez zuten mugagotorlekurik eraikitzea gogoan. Gure etxeen oldartzeko eta atzipetzeko bideak, bateriarik ez armadarik gabe diot, egunero handitzen dira gordetzekoen gainetik. Gogoak alderdi horretarik zorrozten ohi dira. Gerra-oldea guztioi dagokigu. Defentsa, aldiz, aberatsei soilik. Ene etxea eraikia izan zen arorako gotorra zen. Ez dut deus ere gehitu alderdi horretarik, haren indarra neure kontra bihurtuko litzatekeen beldur nintzateke; gainera, bake-aro batean, desgortortzeko beharra dateke. Arriskutsua da ezin berreskuratzea. Eta neke segurtatzea.

Zeren, barreneko gerretako gaian, zeure sehia beldur zaren alderdikoa baitaiteke. Eta erlijioak estakurutzat balio duenean, ahaideak berauek fidagaitz bilakatzen dira, zuzenbidearen estalpean. Diru publikoak ez ditu gure etxeetako gotorlekuak sostengatuko: akituko litzateke. Guk ezin dezakegu egin geure hondamenik gabe, edo, makur eta laidogarriago, jendearena gabe. Nire galtzearen egoera ez litzateke gerra makurrago bateko. Bestalde, galtzen duzula? Zure adiskideek beraiek badihardute, zure deitoratzen baino gehiago, zure zainketarik eza eta zure ofizioko eginbeharretan jakineza eta ezaxolaren salatzen. Honek dirauen artean, hainbat etxe gerizatu galdurik izateak susmarazten dit galdu direla gerizatuak zirelako. Horrek gogoia eta arrazoiak demaio oldartzaileari. Zainketa orok gerra-aurpegia dakar. Nornahi ere, Jainkoak nahi badu, sar bedi neure etxean: nik ez dut honetara deituko. Gerretako atsedeen-lekua zait. Erauntsi publikotik zoko honen baztertzera entseiatzen naiz, neure gogoan beste zoko bat egin dudana bezala. Gure gerra alferrik aldatzen da moldetarik, ugaltzen eta ezberdintzen alderdi berritan; neuregatik, ez nabil. Hainbat etxe armadetarik neure mailako nik bakarrik, Frantzian dakidanez, zeruari fidatu diot garbiki neurearen geriza. Eta ez diot kendu ez zilarrezko goilarerik, ez izenbururik. Ez dut beldurrez egon nahi, ez erdizka salbatu. Onarpen soil batek jainkoazko faborea erdiesten badu, azkeneraino iraunen dit; bestenaz, aski iraun dut neure iraupena ohargarri eta oroigarri bilakatzeko. Nola? Badu hogeita hamar urte luze.

XVI

Ospeaz

Badira izena eta izana; izena, izana ezagutarazten eta adierazten duen ahots bat da; izena ez da izanaren ez gaiaren zati bat: izanari atxiki puska arrotz bat da, eta hartaz kanpoan. Jainkoa, bere baitan osotasun oro eta betetasun ezinagokoa baita, ez da barrenetik emendatzen eta berretzen ahal; baina haren izena emendatzen eta berretzen ahal da haren kanpoko ekintzei ematen dizkiegun benedikatzeko eta goresmenen bidez. Goresmen hori, haren baitan ezar ez dezakegunez, ongiaren gehitzerik ez baitu ukaten ahal, haren izenari ematen diogu, hartaz kanpoko zaitirik hurbilena baita. Horra nola den solik Jainkoari dagokiola ospe eta ohore; eta ez da arrazoitik urrunduagorik guretzat horren bila aritzea baino: zeren, barrenean eskas eta behartsu izanez, gure izatea akasdu izanez eta beti hobekitzeko beharra edukiz, bertan iharduki behar dugu. Guztiz harro eta hutsak gara; ez dugu haizez eta ahotsez geure burua bete behar; mami sendoagorik behar dugu geure buruaren antolatzerako. Gizon goseti bat arras zozoa litzateke jantzi eder batez hornitzea bilatzen bazkari on bat baino gehiago: lehiatsuenara lasterkatu behar da. Gure ohizko otoitzek dioten bezala: Gloria in excelsis Deo, et in terra pax hominibus Edertasun, osasun, zuhertasun, bertute, eta halako funtsezko zatiren eskasean gaude; kanpoko apaindurak bilatuko dira beharrezko gauzez horniturik gaitezenean. Teologiak zabalki eta egokiago darabil gai hau, baina ni doi aditua naiz.

Krisipo eta Diogenes lehen egileak eta bermeenak izan dira ospearen gutiestean; eta bazioten, atsegin orotan, ez zela galgarriagorik eta ihesgarririk besteren onespentetik datorkiguna baino. Zinez, esperientziak sentiarazten dizkigu tradiketa deitoragarri anitz. Ez da lausengukeriak bezainbat printzeak pozointzen dituen deusik, ez gaiztoek haien inguruan sinesmen gehiagorik irabaz dezaten biderik; ez emakumeen garbitasunaren usteltzeko hain galbide egoki eta arruntik nola haien alatzea eta bazkatzea beren laudorioez.

Sirenek Ulisesen engainatzeko darabilten lehen lilura-mota horretakoa da, Haugi, Ulises, haugi, txit agurgarri

Grezian loratzen denik ohoregarri 529.

Filosofo haiek bazioten munduko ospe guztiak ez duela merezi adimeneko gizon batek bakarrik behatza heda dezan erdiesteko:

Gloria quantalibet quid erit, si gloria tantum est? 530,

bakarrik harengatik diot: zeren maiz ondotik baitakartza erraztasun asko, beraien bidez nahietsigarri bilaka daitekalarik. Uste ona erdiesten digu; besteren laidoentzat gerizatuago bilakatzen gaitu, eta halako gauzak.

Epikuroren oinarri nagusietarik zen; zeren haren alderdiko arau honek: **GORDE HEURE BIZIA**, gizonei eragozten baitie kargu eta ariketa publikoei lotzea, halabeharrez aitzinetik uste baitu ospea gutiets dadin, ageriki ezartzen ditugun ekintzen munduak egin onespén bat baita. Gordetzeko eta geure buruaz beste axolarik ez edukitzeko manatzen digunak, bestek ezaguturik izan gaitzen ez baitu nahi, are gutiago nahi du ohoraturik eta ospaturik izan gaitzen. Horrela aholkatzen dio Idomeneori ekintzak inola ere ez arautzeko uste edo omen amankomunaren arabera, non ez den gizonen gutiesteak dakarzkioketen beste gorabeherazko eragozpenetarik itzurtzeko.

Hitzaldi horiek ezinagoko egiazkoak eta arrazoigarriak dira, ene ustez. Baina gu gara, ez dakit nola, dobleak geure baitan, sinesten duguna ez baitugu sinesten, eta ezin bazter gaitzke gaitzesten dugunetik. Ikus ditzagun Epikuroren azken hitzak, eta hiltzean dioena: handiak dira eta halako filosofoari egokiak, baina badaukate bere izenaren gomendioaren ezaugarri zerbait, eta bere arauetan gaitzetsia zuen aldarte harena. Hona bere azken hatsa baino apur bat lehenago hitzez zioen gutun bat:

EPIKUROK HERMAKORI DIOSALA

"Neure biziaren egun zoriontsu eta azken hau iragaiten nintzelarik, idazten nian hau, halarik ere, pixontzian eta hesteetan halako min batez lagundurik non deus ere ez baitzaio gehitzen ahal haren handigoari. Baina neure asmamen eta hitzaldien oroimenak neure gogoari zekarkion atseginak ordaindurik huen. Beraz, hi, heure haurtzarodanik nire eta filosofiaren alde ukan duan maitasunak eskatzen duen bezala, lot hakio Metrodororen semeen gerizari."

Horra haren gutuna. Eta haren asmamenengatik gogoan sentitzen duela dioen atseginak heriotzaren ondoan erdietsi uste zuen omenari inola ere begiratzen diola itzularazten didana haren testamentuaren manua da: haren bidez nahi baitu Aminomakok eta Timokratesek, bere ondokoek, ordain ditzaten, urtarrileko hilabate guztietan, bere sortegunaren ospamenerako, Hermakok manatu zituzkeen gastuak eta ilargi bakoitzeko hogeigarren egunean, bere eta Metrodororen oroimenaren ohorean batzartu ziratekeen bere ahaide filosofoen ohoratzean egin zatekeen dispendiorako ere.

Aitziko ustearen burua Karneades izan da eta esan du ospea berez nahietsigarria zela: geure hilondoko umeak besarkatzen ditugun bezala berengatik, ezagutzarik ez gozamenik batere izan gabe. Uste hau hutsik gabe izan da arruntago jarraikia, gure ahierrei gehien dagozkienak gogotik ohi diren bezala. Aristotelesek ematen dio kanpoko ontasunen artean lehen maila: bi azken mutur biziosotarik bezala bilatzeko eta ihes egiteko neurgabekieratik baztertzeko da. Uste dut gai honi buruz Zizeronek idatzi zituen

liburuak eduki bagenu ederrak aipatuko lizkigukeela: zeren gizon hura pasione horrek hain zoraturik izan zen non, ausartu balitz, uste dut, gogotik eroriko baitzatekeen besteak erori ziren soberakerian: bertutea bera ez zela nahietsigarria ondotik beti zetxikion ohorearengatik baizik,

Paulum sepultæ distat inertiae

Celata virtus ⁵³¹.

Hain aburu faltsua baita non damu baitut sekula sartzen ahal izan den filosofo izenaren eramateko ohorea zeukan gizonaren adimenean.

Hori egia balitz, publikoan baizik ez litzateke bertutetsu izan behar; eta gogoaren ekintzak, haietan baita bertutearen egiazko egoitza, ez genituzke arau eta antolabideetan eduki behar, baizik eta beste inoren ezagutzan gertatu behar zuten bezainbat.

Ez ote da huts egiten abilki eta sotilki? "Nor bait, hik haren heriotzatik mozkin bat igurikatzen dualarik, oharkabea esertzer doan lekuan suge gorde bat dagoela baldin badakik, dio Karneadesek, gaizki egiten duk gaztigatzen ez badiok; eta hainbat gehiago non heure ekintza hik baizik ez baituk ezagutu behar". Ez badugu geure baitarik hartzen ongi egiteko legea, zigorgabetasuna zuzena bazaigu, zenbat gaiztakeria-mota badugun egunero geure buruaren egozteko! Sesto Peduzeok egin zuena, K. Plotiok bere aberastasunetik bakarrik haren jakintzan ezarri zuenaren fidelki bihurtzea, ez dut hain goresgarri aurkitzen nola huts egin balu gaitzesgarri aurkitu izan nukeen. Eta gure egunetan birraipatzeko on eta egoki aurkitzen dut P. Sestilio Ruforen eredu, Zizeronek salatzen baitu bere kontzientziaren aurka heredentzia baten onartzeagatik, ez bakarrik legeen aurka, baina legeen beraien bidez. Eta M. Krasok eta K. Hortensiok, beren manu eta ahalmenagatik sari zenbaiterako arrotz batek deiturik testamentu faltsu baten ondoregora, horren bidez hark bere zatia ukan zezan, askietsi zuten faltsukerian parte hartzaileak ez izatearekin eta ez zuten mozkin zerbaiten erdiestea errefusatu, aski estaliak salatari, lekuko eta legeenganako gerizan baldin bazeuden. Meminerint Deum se habere testem, id est (ut ego arbitror) mentem suam.

Bertutea hagitx gauza hutsal eta arina da, ospetik ateratzen badu bere gomendioa. Deustarako entseiatuko ginateke haren maila bereiziari atxikaraztera, eta zoritik baztertuko; zeren, zer da omena baino menturazkoagorik? Profecto fortuna in omni re dominatur: ea res cunctas ex libidine magis quam ex vero celebrat obscuratque. Gauzak ezagutuak eta ikusiak izan daitezten zoriaren ekintza hutsa da.

Zoria, bere ausarkeriaren arabera, ospea ematen diguna da. Aski maiz ikusi dut merezimenduaren aitzinean ibiltzen eta anitzetan merezimenduaren gainditzea alde luze batez. Itzala eta ospearen arteko antzekotasunari ohartu zitzaionak nahi baino hobeki egin zuen. Ikaragarri gauza hutsalak dira.

Bera ere badoa inoiz bere gorputzaren aitzinean eta inoiz ere anitzez gainditzen du luzetasunean.

Aitorensemegoari suhertasunean ohorerik besterik ez bilatzen irakatsi diotenek, ,quasi non sit honestum quod nobilitatum non sit hortik zer irabazten dute baizik eta ikusiak ez badira sekula ez menturatzen irakastea, eta ongi ohartzen beren balioaren berri eman dezaketen lekukoak direnez, nabarmendurik ahal izan gabe ongi egiteko mila aldi agertzen diren artean? Zenbat ekintza bereizi eder gordetzen dira gudu baten nahas-mahasean? Halako nahastean besteren ikertzen diharduena ez da doi sartzen, eta bere buruaren aurka eragiten du bere lagunen ekintzez ematen duen lekukotasuna.

Vera et sapiens animi magnitudo honestum illud quod maxime naturam sequitur, in factis positum, non in gloria iudicat. Neure biziaz nahi dudan ospe osoa lasai bizi izatea da: lasai, ez Metrodoro, edo Arkesilao, edo Aristiporen arabera, neure arabera baizik. Filosofiak ororentzat ona den lasaitasunerako biderik batere aurkitzen jakin izan ez duenez geroz, bila beza bakoitzak bere baitan!

Zeri, zoriari baizik, zor diote Zesarrek eta Alexandrok beren omenaren handigo mugagabea? Zenbat gizon iraungi ditu beren aitzinatzearen hasieran, haien ezagutzarik batere ez ditugunak eta haien kuraia bera zeramatenak, beren zoriak ez balitu geldiarazi beren ekintzen sortzean! Hainbat eta hain galbide ezinagokoetan barrena, ez naiz oroitzen irakurri izanaz Zesar sekula zauriturik izan ote zen. Mila hil dira hark iragan zuen perilik xehena baino xeheagoengatik. Ezin konta ahala ekintza eder galtzen bide dira lekukotasunik gabe, bat ezagutzera etorri baino lehen. Beti ez ohi da harresi-artaka baten gainean edo armada baten buruan, nor bere jeneralaren ikusmenean, taulatu batean bezala egoten. Atzipeturik izaten ohi da harresi eta hobiaren artean; oilategi baten aurka menturatu behar da; ohildu behar dira lau arkabuzlari txar baserri batetik; guda-oldetik bakarrik baztertu behar da eta bakarrik iharduki, gertatzen den beharraren arabera. Eta, ohartuz geroz, aurkituko da egiazki gertatzen dela distira gutieneko aldiak arriskutsuenak direla; eta gure aroan gertatu gerretan, oneko jende gehiago galdu da aldi arin eta axola eskasekoetan eta etxola baten eztabaidan, leku zuzen eta ohoragarrietan baino.

Bere heriotza gaizki baliatutzat daukanak, gertaldi nabarmendu batean ez bada, bere heriotza argitu ordez, gogotik iluntzen du bere bizia, menturatzeko gertaldi zuzen asko itzurtzera uzten dituelarik. Zuzenak oro aski argitsuak baitira, nori bere kontzientziak aski oihukatzen diolarik. Gloria nostra est testimonium conscientiae nostrae

Nor ere ez baita oneko gizona jakinen delako baizik, eta jakin ondoren hobeki apreziatuko delako; nork ere ez baitu ongi egin nahi baizik eta bere bertutea gizonen ezagutzara doalako baldintzapean, hura ez da zerbitzu askorik eman dezakeen gizona.

Credo che'l resto di quel verno cose

Facesse degne di tenerne conto;

Ma fur sin'a quel tempo si nascose,

Che non è colpa mia s'hor' non le conto:

Perche Orlando a far opre virtuose,

Più ch'a narrarle poi, sempre era pronto,

Ne mai fu alcun' de li suoi fatti espresso,

Senon quando hebbe i testimonii apresso ⁵³⁷.

Gerrara joan behar da nor bere eginbeharragatik, eta ekintza eder orori, estaliagoak badira ere, eta gogoeta bertutetsuei ere huts egiten ahal ez dien honako sari hau igurikatu: ongi egitetik gogo ongi arautu batek bere baitan onartzen duen askiespena. Nor bere buruagatik izan behar da suharra eta nork bere kuraia egoitza berme eta zoriaren oldarpenen aurka segurtatu batean edukitzea den abantailagatik:

Virtus, repulsæ nescia sordidæ,

Intaminatis fulget honoribus,

Nec sumit aut ponit secures

Arbitrio popularis auræ ⁵³⁸.

Geure arimak ez du erakustaldirako aritu behar, geure baitan, barrenean, gureez beste begirik ez diren lekuan: hor gerizatzen gaitu heriotzaren beldurretik, minetarik eta ahalketik beretik; hor segurtatzen gaitu geure umeen, adiskideen eta ontasunen galtzetik; eta aldia gertatzen denean, bagaramatza gerrako menturetara. Non emolumento aliquo, sed ipsius honestatis decore. Mozkin hori, gutaz egiten den uste faboragarri batez baizik ez den ohorea eta ospea baino biziki handiagoa eta nahi izateko eta igurikatzeko zuzenagoa da.

Herri oso bateko dotzena bat gizon bereizi behar dira gizalur⁵⁴⁰ baten epaitzeko; eta gure aiharren eta ekintzen epaiketa, denik gairik zail eta axolatsuena, jakineza, zuzengabetasun eta egongaizkeriaren ama den jendaila eta saldoaren ahotsean ezartzen dugu. Arrazoa ote da zuhur baten bizia zoroen epaiketen menpean ezartzea?

An quidquam stutius quam quos singulos contemnas, eos aliquid putare esse universos?
Haien atsegina xederatzen duenak ez du sekula gauzatu; molderik ez harbiderik ez duen xedea baita.

Nihil tam inaestimabile est quam animi multitudinis.

Demetriok jendearen ahotsaz irrigarriki zioen ez zuela kasu gehiagorik egiten goititik ateratzen zitzaionaz behehitik ateratzen zitzaionaz baino.

Hark areago dio: Ego hoc judico, si quando turpe non sit, tamen non esse non turpe, quum id a multitudine laudetur.

Ezein antzerik ez gogo malgutasunik eraman gintzake hain gidari desbideratu eta desarautu baten jarraipenera. Bulkatzen gaituen omenen hots eta aburu arrunten nahasmen haizetsu honetan ez da balio duen biderik batere finkatzen ahal. Ez dezagun xedetan har hain helburu igerikor eta ibiltari bat; joan gaitezen beti arrazoiaren gibelatik; berraidu handik jendearen onespentak, nahi badu; eta nola zoriaren menpean osoki baita, ez dugu lege gehiagorik beste bidetik haren igurikatzeko hartarik baino. Bide zuzenari bere zuzentasunagatik lotuko ez banintzaio ere, lotuko nintzaioke ororen buru esperientziaz aurkitu izanagatik zoriontsu eta erabilgarriena ohi dela. Dedic hoc providentia hominibus munus ut honesta magis juvarent. Aitzineko itsas gizonak honela bazioen Neptunori erauntsi handi batez: Neure aroan ikusi ditut mila gizon malgu, nabar, epel, eta nornahik ni baino mundutiar zuhurragoak ustetsi zituzkeenak, galtzen ni salbatu naizen lekuan:

Risi successu posse carere dolos ⁵⁴⁵.

Paulo Emiliok, bere Makedoniarako abialdi ospetsura joanez, Erromako jendeari gaztigatu zion bereziki bere ekintzei buruz haien mihiari atxikitzea bere kanporaldiaren artean. Usteen libertatea hain nahasle handia baita egiteko handietan! Ahots arrunt, kontrario eta laidogarrien aurrean bakoitzak Fabioren bermetasuna ez daukanez: nahiago baitzuen bere manua zehakutzen utzi gizonen ameskeria hutsaletan, bere kargu gaizki bete omen faboragarri eta jendearen onespenarekin baino.

Goraipatzearen sentimenduan bada ez dakit zein eztitasun natural, baina sobera ematen diogu.

Laudari haud metuam, neque enim mihi cornea fibra est;

Sed recti finemque extremumque esse recuso

Euge tuum et belle ⁵⁴⁶.

Ez naiz hainbat axolatzen ea besteren baitan nola naizen, neure baitan nola naizen axolatzen nauen bezala. Aberatsa izan nahi dut neurez, ez maileguz. Arrotzek kanpoko gertakari eta itxurarik besterik ez dakusate; bakoitzak egin dezake bekoki ona kanpotik, barrenean sukarrez eta ikaraz beterik. Ez dakusate nire bihotza, nire aurpegia dakusate. Arrazoi da gerran aurkitzen den zurikeriaren gaitzesteko: zeren zer zaio gizon aditu bati errazagorik, bihotza berazkeriaz beterik, galbideetan itzurtzea eta gaiztoarena egitea baino? Hainbat bide baitira menturatzeko gertaldietarik itzurtzeko non mila aldiz engainatuko baikenuke mundua urrats arriskutsu bati lotu baino lehen; eta orduan ere, behartuak gertaturik, ongi bagenekiko gure jokoa estaltzen aurpegi on eta mintzo segurtatu batez, arima dardaratzen bazaigu ere barrenean. Jende anitzek, eratzun platonikoaren⁵⁴⁷ erabilera edukirik, esku ahurraren alde itzultzen bazen ikustezin bilakatzen baitzuen behatzean zeramana, maiz gordeko lirake gehien azaldu behar den lekuan, eta beharrak seguru bilakatu hain leku ohoragarrian ezarriak egoteko damutuko lirake.

Falsus honor juvat, et mendax infamia terret

Quem, nisi mendosum et mendacem? ⁵⁴⁸

Horra nola konpoko itxurez egiten diren epaiketa horiek oro ikaragarri zalantzati eta dudakorrak diren; eta inor ez da hain lekuko bermerik, nola baitzaio bakoitza bere buruari.

Haietan zenbat guda-laguntzaile ditugu, geure ospearen lagunkideak? Lurrebaki ageri batean berme dirauenak zer dagi horretan haren aitzinean bidea urratzen dioten eta egunkal bost sositako saritan beren gorputzez gerizatzen duten berrogeita hamar aitzindari gaizok ez dagitena?

non, quicquid turbida Roma

Elevet, accedas, examenque improbum in illa

Castiges trutina: nec te quæsiveris extra ⁵⁴⁹.

Geure izenaren handitzea haren hedatze eta aho askotan ereitea deitzen dugu; onartua izan dadin eta handitze hori balia dakion nahi dugu: horra xede horretan daitekeen barkagarriena. Baina eritasun horren sobera badoa harik eta anitzek, nolanahi ere den, beren buruaz mintzaraztea bilatzen dutenerainokoan. Trogo Ponpeiok Herostratoz dio, eta Tito Liviok Manlio Kapitolinoz, omen onaren baino gehiago omen handiaren egarriz zirela. Hori bizio arrunta da. Gehiago axolatzen gaitu gutaz mintza dadin nola mintzatzen den baino; eta aski zaigu geure izena lasterka dadin giza ahoetan barrena, zernahi badabil ere. Ezaguna izateak badirudi nork bere bizia eta iraupena besteren zainpean edukitzea dela. Niketz, neure baitan baizik ez nagoela sentitzen dut; eta neure adiskideen ezagutzan dagoen beste neure bizi horretaz, soil eta bere baitan gogoan harturik, badakit ez dudala mozkinik eta gozamenik jasaiten ametsetako uste baten hutsalkeriagatik baizik. Eta hilen naizenean, are gutiago sentituko dut; eta inoiz menturaz darraizkion egiazko erraztasunen erabilera galduko dut erabat; ez dut omenari atxik nakion harbiderik edukiko, ez hark nondik hunki ez hel niregana.

Zeren, neure izenak ukan dezan uste izatea, lehenik ez dut aski neure den izenik: ditudan bietarik, bata neure arraza ororena da, eta oraino beste batzuen ere. Bada Parisen eta Montpellieren Montaigne deituratzen den familia bat; beste bat Britainian eta Xaintongen-en de la Montaigne. Silaba bakar baten aldaratzeak gure ardatzak nahastuko ditu, halako moldez non nik parte ukanen baitut haien ospean eta haiek, menturaz, nire ahalkean; eta nireak behiala Eyquem deituratu dira, oraindik Ingalaterrako etxe ezagun bati dagokion deitura. Nire beste izenari dagokionez, hartu nahi duen ororentzat da. Horrela ohoratuko dut, agian, zamakari bat neure lekuan. Eta neuretzat ezaugarri berezi bat eduki banu ere, zer ezagutaraz dezake gehiago ez naizenean? Ezatasuna bereiz eta fabora dezake?

Nunc levior cyppus non imprimit ossa?

Laudat posteritas: nunc none manibus illis,

Nunc non e tumulo fortunataque favilla

Nascuntur violæ? ⁵⁵⁰

Baina honetaz mintzatu naiz beste inon⁵⁵¹.

Bestalde hamar mila gizon herbaltzen edo hiltzen diren gudu oso batean, ez dira hamabost gizon mintzagai. Handitasun hagitz bikain bat izan behar da, edo zoriak gehi dezan axolako ondorio zerbait, ez bakarrik arkabuzlari baten baina kapitain baten ekintza berezi bat saritan ezar dezan. Zeren gizon bat, edo bi, edo hamarren hiltzea, heriotzara kuraioski azaltzea, egiazki gutarik bakoitzari zerbait zaion gauza bat da, dena baitoakigu; baina munduarentzat, hain gauza arruntak dira, hainbat ikusten dira egunero, halako hainbat behar dira ondorio nabarmen baten egiteko, non ez baitezakegu gomendio berezirik batere itxaron,

casus multis hic cognitus ac jam

Tritus, et e medio fortunæ ductus acervo ⁵⁵².

Mila eta bosteun urtetan Frantzian armak eskuan hil diren hainbat gizon suharretarik ez dira ehun gure ezagutzara etorriak. Ez bakarrik buruzagien oroimena, baina gudu eta garaipenena ezabatu da.

Munduaren erdia baino gehiagoren zoriak, oroit-idazkirik ezean, ez dabilta beren lekutik eta ezeztatzen dira iraupenik gabe.

Gertakari ezezagunak eskuan eduki banitu, uste nuke biziki errazki ezagunen ordezkatzeari eredu mota guztietan.

Nola, erromatar eta greko beraiengandik, hainbat idazle eta lekukoen artean, eta hainbat ekintza bitxi eta gora, etorri zaigu hain guti guregana?

Ad nos vix tenuis famæ perlabitur aura ⁵⁵³.

Asko izanen da, hemendik ehun urtetara, orokorki oroitzen bada gure aroan bazirela Frantzian gerra zibilak.

Lakedemoniarrek musei sarraski-otoiz bat egiten zieten, gudan sarturik, beren ekintzak ongi eta zuzenki idatziak izan zitezen, ustetsirik jainkozko fabore bat eta ez ohizkoa zela egitate ederrek aurki zitzaten bizia eta oroimenaren ematen jakin zezaten lekukoak.

Uste ote dugu ukitzen gaituen arkabuzaldi bakoitzean eta gertatzen garen arrisku bakoitzean badela bapatean paperaratzen duen idazkari bat? eta ehun idazkarik, horretaz landan, idatz lezakete, haien xehetasunek hiru egunik besterik ez baitute iraunen eta inoren ikusmenera ez baitira etorriko. Ez dugu idazki zaharretarik milarenik ere; zoria da bizia demaiena, labur edo luzeagoa, bere faborearen arabera; eta daukaguna, garaitikoa ez ikusirik, zalantzan ezar dezakegu txarrena ote den. Ez dira historiak egiten hain gauza ezteusez: buruzagia izan behar da inperio edo erresuma baten hartzean; irabazi behar izan dira berrogeitamar gudu, beti zenbaki eskasagoarekin, Zesarrek bezala. Hamar mila lagun on eta kapitain handi anitz hil ziren haren jarraipenean, suharki eta kuraioski, haien izenak iraun ez dutelarik emazteak eta umeak bizi zirelarik baino gehiago,

quos fama obscura recondit ⁵⁵⁴

Ongi egiten dakuskigun berorietaz, egon izan diren hiru hilabete edo hiru urte geroago, ez da sekula egon ez balira baino gehiago mintzatzen. Nornahik ere neurri eta arau zuzenez gogoan hartuko baitu zein jende eta ekintzen ospeak dirauen liburuen oroimean, hark aurkituko du gure mendean azkarki ekintza eta jende guti dela ezein zuzenbiderik eska dezakeena. Zenbat gizon bertutetsu ikusi ditugu beren omena baino gehiago bizitzen, beren aurrean ikusi eta jasan dutenak urte gazteetan txit zuzenki erdietsi ohore eta ospearen iraugitzea? Eta amets eta irudimeneko bizi horretako hiru urteren trukean, bagoaz gure egiazko bizi izatezkoa galtzen eta betiereko heriotza bati estekatzen? Zuhurrek beste helburu eder eta zuzenago xederatzen dute hain axolako eginkizun baterako.

Recte facti, fecisse merces est ⁵⁵⁵ - Officii fructus ipsum officium est ⁵⁵⁶.

Menturaz barkagarria litzaioke margolari edo beste eskulangile bati, edo oraindik erretoriko edo gramatiko bati, bere buruaren lantzea bere ekintzen bidez omenaren erdiesteko; baina bertutearen ekintzak, berez goregiak dira beren balioaz landan beste laudoriorik bilatzeko, eta bereziki giza aburuen hutsalkeria bilatzeko.

Halarik ere, uste faltsu horrek jendeari balio badio gizonen beren eginbeharrean atxikarazteko; jendea horretaz bertuterako iratzartzen bada; printzeak hunkitzen badira munduak Trajanoren oroimenaren benedikatzeko eta Neronena hastiatzeko ikusiz; hunkitzen badute borrero handi horren izenaren ikustea, lehen hain ikaragarri eta beldurgarria, orain nahi duen lehen eskolako mutikoak hain libreki madarikaturik eta iraindurik: orduan handi bedi ausarki eta haz bedi gure artean ahalik gehiena.

Eta Platonek, bere hiritarrak bertutetsu bilakatzeko gauza guztietaz baliaturik, aholkatzen die jendeen omen eta uste onaren ez gutiestea; eta badio, jainkozko argidura

zerbatengatik, gertatzen dela gaiztoek berauek badakitela anitzetan, hitzez eta ustez, onak gaiztoetarik bereizten. Pertsonaia hau eta bere pedagogo⁵⁵⁷ egile miresgarri eta ausartak dira jainkozko ekintza eta irakaspenen gehitzen giza indarrak huts egiten duen orotan; ut tragici poetae confugiunt ad deum, cum explicare argumenti exitum non possunt.

Menturaz horregatik Timonek irainka deitzen zion mirakulu-moldari handia.

Gizonak, beren jakinezagatik, ez baitira aski baliatzen ahal sos on batez, erabil bedi faltsua ere. Legegile orok erabili bidea izan da, eta ez da araubiderik zeremoniazko hutsalkeriaz edo gezurrezko aburuz nahasmen zerbait ez duenik, jendea eginbeharrari atxikarazteko bridatzat balio baitu. Horregatik gutiz gehienek badauzkate beren jatorriak eta hasierak alegiazkoak eta naturagaindiko ezageriez aberastuak. Hori da sasi-erlijioei sinesmena eman diena eta adimeneko jendeak faborarazi dituen; eta horregatik Numak eta Sertoriok, beren gizonak sineskorrago bilakatu nahian, ergelkeria honekin ordaintzen zien: bata Egeria ninfak, besteak bere oreineme zuriak jainkoen aldetik zekarzkiola hartzen zituen aholku guztiak.

Eta Numak bere legee eman manu-indarra jainkosa horren gerizaren izenburupean, Zoroastrok, baktriar eta persiarren legegileak, berei eman zien Oromasis jainkoaren izenpean; Trismegistok, egiptoarrenak, Merkurio; Zamolxisek, eszitenak, Vesta; Karondasek, kaltzidarrenak, Saturno; Minosek, kandiotarrenak, Jupiter; Likurgok, lakedemoniarrenak, Apolo; Drakon eta Solonek, atenastarrenak, Minerva. Araubide orok badauka buruan jainko bat, faltsuki besteek, egiazki Egiptotik atera Judeako jendeari Moisesek eraiki zionak.

Jouinvilleko jaunak dioen bezala, beduinoen erlijioak zekarren, besteak beste, haietarik beren printzearen alde hiltzen zenaren arima zihoala lehenagokoa baino zoriontsu, eder eta azkarrago zen beste gorputz batengana; horren bidez azkoz ere gogotikago menturatzen baitzuten beren bizia.

In ferrum mens prona viris, animæque capaces

Mortis, et ignavum est redituræ parcere vitæ ⁵⁵⁹.

Horra biziki osasungarria den sinesmen bat, hutsalago badaiteke ere. Herri bakoitzak baditu bere baitan halako eredu asko; baina gai honek mereziko luke hitzaldi berezi bat. Neure lehen gaiari buruz oraindik hitz baten esateko, ez diet ere anderei aholkatzen ohorearen deitzea beren eginbeharra: ut enim consuetudo loquitur, id solum dicitur honestum quod est populari fama gloriosum; eginbeharra funtsa dute, ohorea azalik besterik ez da. Ez diet ere aholkatzen guri, beren ezeztapenaren ordainez, estakuru horren ematea: aitzinetik uste baitut beren xedeak, nahikundea eta borondatea, ohoreak ikuskizunik ez duen zatiak baitira, kanpoan haietaz deus ere agertzen ez denez, ekintzak baino oraindik arautuagoak direla.

Quæ, quia non liceat, non facit, illa facit ⁵⁶¹.

Jainkoa eta kontzientziari buruz, nahi izatea egitea bezainbateko laidoa da. Eta berez ekintza estali eta gordeak baitira, erraza litzateke emakumeek zerbait estal ditzaten besteren ezagutzaren aitzinean, hor baitago ohorea, eginbeharrari eta berez garbitasunari dioten isurmenari ez baliote beste begirunerik.

Ohoreko pertsona orok hautatzen du ohorearen galtzea kontzientziaren galtzea baino lehen.

XVII

Harrokeriaz

Bada beste ospe-mota bat, geure balioaz gogoan hartzen dugun uste onegi bat dena. Garen ez bezala itxuratzen gaituen neurgabeko maitasuna da, geure burua berekatzen baitugu: amodiozko pasioneak besarkatzen duen gaiari edertasun eta graziak ematen

dizkion bezala, eta hartuei aurkiarazten die, uste uher eta aldatu batez, maite dutena besterik eta den baino beteagorik.

Ez dut nahi, alde horretarik huts egin beldurrez, gizon batek bere burua gaizki ezagut dezan, eta den baino gutiago dela uste dezan. Adimenak bere zuzenbidea eduki behar du orotarik eta osoki: arrazoa da gai honetan, besteetan bezala, ikus dezan egiak agertarazten diona. Zesar bada, bere burua aurki beza ausarki munduko kapitainik handiena. Zeremoniaz baizik ez gara; zeremoniak garamatza eta gauzen mamia uzten dugu; adarrei gatzizkio eta enborra eta gorputza uzten dugu. Anderei gorritzen irakatsi diegu soilik izendatzen aditzean egiten inola ere lotsatzen ez direnean; ez gara geure soinadarren zuzenki izendatzera ausartzen, eta ez gara apalkeria-mota guztietan erabiltzeko beldur. Zirimoniak debekatzen digu gauza zilegi eta naturalen hitzez aipatzea, eta sinesten dugu; arrazoiak debekatzen digu gauza ez zilegi eta gaiztoen egitea, eta inork ez du sinesten. Hemen aurkitzen naiz zeremoniaren legeek beharturik zeren ez baitu baimentzen nor bere buruaz ongi mintzatzea, ez gaizki mintzatzea. Aldi honetarako utziko dugu.

Zoriak (on edo gaitz deitu behar baita) bizia maila gora zerbaitetan iraganarazi dituenek nortzu direlako lekukotasuna eman dezakete beren ekintza publikoen bidez. Baina metaka baizik erabili ez dituenak, eta beraiek ez badira mintzatzen inor ez baita haietaz mintzatuko, barkagarriak dira ezagutzeko nahia dutenei buruz beren buruaz mintzatzeko ausartzia hartzen badute, Luziloren eredura:

Ille velut fidis arcana sodalibus olim

Credebat libris, neque, si male cesserat, usquam

Decurrens alio, neque si bene: quo fit ut omnis

Votiva pateat veluti descripta tabella

Vita senis ⁵⁶².

Hark paperari aitortzen zizkion bere ekintzak eta gogoetak, eta sentitzen zen bezala margotzen zuen bere burua. Nec id Rutilio et Sacrauro citra fidem aut obtrectationi fuit.

Oroitzen naiz, bada, neure hautzaro minetik nabarmentzen zela neure baitan ez dakit zein gorputz eta keinu itxura harrotasun hutsal eta ergel baten lekukotasuna ematen zuena. Lehenik esan nahi dut hau: ez dela ohiz landakoa geure baitan hain baldintza eta isurmen berezi eta gorpuztuen edukitzea non ez baitugu haien sentitzeko ez ezagutzeko biderik. Eta halako aiher naturaletarik gorputza gogotik datxikio malgudura bati gure jakite eta baimentzerik gabe. Alexandroren burua alderdi batera apur bat makurrarazten zuena bere edertasunaren jakitun zen keinukeria bat zen, eta Altzibiadesen mintzaira beratz eta lodi egiten zuena ere. Julio Zesarrek burua hazkatzen zuen behatz batez, gogoeta nekagarritz beterik den gizon baten itxura baita; eta Zizeronek, uste dut, sudurraren zimurtzeko ohitura zuen, izaera burlagile bat adierazten baitu. Higidura horiek gerta daitezke ohargabeen gure baitan. Badira beste moldatu batzuk, haietaz ez bainaiz mintzatzen, hala nola diotsalak eta agurkadak, hortik erdiesten baita, anitzetan makurrez, apal eta gisako izateko ohorea: izaten ahal da ospez apala. Bonetaldietan⁵⁶⁴ aski eskuzabala naiz, udan bereziki, eta sekula ez dut bihurtzerik gabe onartzen, zernahi mailatako gizonagandik ere, nik sariztatu bat ez bada. Ezagutzen ditudan printze batzuegandik nahiago nuke begiratuagoak eta barreiatzale zuzenagoak balira; zeren, horrela neurririk gabe emanik, ez baitute eraginik. Araurik gabeak badira, ondoriorik gabeak dira. Araurik gabeko jarreretan, ez dezagun Konstantinoren hantuskeria ahantz, jende aurrean beti baitzuen burua zuzenik, hara ez hona itzuli edo makurtu gabe, alde batetik agurtzen zutenei begiratzeko ere ez, gorputza tink geldirik, kotxearen abialdira joatera utzi gabe, jendeen aitzinean tu egitera, zintatzera ez aurpegiaren idortzera ausartu gabe.

Ez dakit neure baitan nabarmendu keinuak lehengo baldintza horietakoak ziren, eta zinez bizio horretara isurmen gorde zerbait baneukan, izaten ahal den bezala, ez dezaket gorputzaren higidurez erantzun; baina, gogoaren abiadurei buruz, hemen aitortu nahi dut zer sentitzen dudan.

Ospe horretan bi zati dira: hots, nork bere buruaren sobera onestea, eta bestearen aski ez onestea. Batari buruz, uste dut gogoeta hauek kontutan ezarri behar direla, gaizto eta areago atsekabe bezala ezatsegin zaidan gogo aldarte batek hertsaturik sentitzen naizela. Entseiatzen naiz zuzentzera; baina ezin erauz dezaket: dauzkadan gauzen balio zuzena behekitzen dudala, dauzkadan ber; eta gauzei balioa goititzen diedala, arrotz, urrundu eta ez neure diren ber. Aldarte hau oso urrun hedatzen da. Manu-indarraren lehentasunak senarrek beren emazteei gutiespen bizioso batez begira diezaieten eginarazten duen bezala, eta aita askok beren seme-alabei; horrela dagit nik, eta bi ekintza berdinen artean beti erabakiko nuke neurearen aurka. Ez hainbat neure aitzinatze eta hobekitze nahiak adimena nahasten didalako eta askiestetik eragozten nauelako, baizik eta, berez, jabegoak edukitzen eta manatzen dugunaren arbuioa sortzen duelako. Urruneko bizimodu eta ohiturak atsegin ditut, eta hizkuntzak; eta ohartzen naiz latinak bere alde liluritzen nauela bere gorentasunagatik, dagokionaz areago, haur eta jende xeheak bezala. Neure auzokidearen ekonomiak, etxeak, zaldiak, balio berdinean, neureak baino gehiago balio du, neurea ez den ber. Gainera, hagitz ezikasiaz naiz neuri dagokidanez. Nik kasik deus ere ez dakidan edo egiteko gai ote naizen ezin erantzun dezakedan gauzetan, miresten dut bakoitzak bere buruaz daukan segurtasun eta agintza. Neure ahalak ez ditut erakuspenean eta haietaz ez dakit ondorioaz baizik: neure buruaz beste zernahiz bezain zalantzatia naiz. Hortik baitator eginbehar batean ongi gertatzen banaiz, neure zoriari ematen diodala neure indarrari baino gehiago: denak menturaz eta beldurrez xederatzen baititut. Halaber, eskuarki badut hau: orokorki gizonari buruz zahargoak ukan dituen aburuetarik gogotikago besarkatzen ditudanak eta gehien estekatzen natzaientak gehien gutiesten, apaltzen eta ezeztatzen gaituztenak dira. Filosofiari sekula ez deritzot hain joko ona nola gure harrokeria eta hutsalkeria gudukatzen duenean, gogo onean ezagutzen duenean bere zalantza, ahulezia eta jakineza. Iruditzen zait aburu publiko eta berezirik faltsuenen unidea gizonak bere buruaz duen uste onegia dela. Merkurioko epizikloaren gainean zaldizkatzen diren jende horiek, zeruan hain barrenean dakusatenek, hortzak jauzarazten dizkirate; zeren nik dagidan ikerpenean, bere gaia gizona baita, hain aburu ezberdintasun ezinagoko bat aurkituz, batzuek besteen gainean hain zailtasunezko labirinto barren bat, jakintzaren eskolan berean hainbat ezberdintasun eta zalantza, gogoan har dezakezu, jende horiek ezin trenkatu ahal baitute beren buruaren ezagutza eta baldintza, etengabe baitute beren baitan eta begien aurrean; ez baitakite beraiek darabiltena nola dabilen, ez guri nola margotzen eta argitzen beraiek datxizkien eta darabiltzaten maratilak, nola sinetsiko diet Niloko ibaiaren goratze eta behekitzearen kausari buruz. Gauzen ezagutzeko jakin-nahia gizonei emana izan zaie zigortzat, dio hitz sainduak.

Baina, neure bereziari etortzeko, biziki zaila da, iruditzen zait, beste norbaitek gutiago maita dezan bere burua, eta are beste norbaitek gutiago maita nazan, neure burua maite dudan baino.

Zori arruntakotzat daukat neure burua, salbu eta daukadan honetan: akats apal eta herrikoien hobendun, baina ez aitortu gabeak ez desenkusatuak; ez dut neure buruari balio ematen salbu eta neure balioa dakidalako.

Osperik bada, neure gorpuzkeraren salaketak gaingiroki isuria da neure baitan, eta ez da gorputzik neure epaiketaren ikusmenara azaltzen denik.

Hartaz ihinztaturik naiz, baina ez tindaturik.

Zeren, zinez, gogoaren ekintzei buruz, edozein moduz bada ere, sekula ez da neuregandik atsegin zitzaidakeen deusik ere abiatu; eta besteren onesprenak ez nau askiesten. Gustu samur eta zaila dut, eta bereziki neuri dagokidanez; etengabe gaitzesten dut neure burua; eta orotarik sentitzen naiz ahuleziaz ilauntzen eta malgutzen. Ez dut neure adimenaren askiesteko neure den ezer. Ikusmena sobera argi eta arautua dut; baina, aritzean, uhertzen da: poesian agerikiago frogatzen dudana bezala. Ezinago maite dut; aski ezagutzen dut neure burua besteren idazkietan; baina, egiazki, haurrarena egiten dut eskua ezarri nahi dudanean; ez dut neure burua jasaten ahal. Ergelarena egin daiteke beste orotan, baina ez poesian,
Mediocribus esse poetis

Non dii, non homines, non concessere columnæ 565.

Aileza Jainkoak zuhurtitz hori egon ledin gure inprimatzaile guztien argitaldegietako aitzinaldean, hainbat neurtitz-egileri sarreraren debekatzeko,
verum

Nil securius est malo Poeta 566.

Zenbat jende ez dugu halakorik! Dionisio aitak ez zuen beretik deus ere bere poesia bezainbat onesten. Joko Olinpikoen aroaz, beste guztiak handitasunez gainditzen zituzten orgetan, poetak eta soinuariak bidali zituen bere neurtitzen antzezteko, erregeki oihalezatu eta urrezatu denda eta geleskin. Neurtitzen aurreratzearekin, ahoskeraren faboreak eta bikaintasunak erakarri zuen hasieran jendearen entzumena; baina, gero, eginaren eskasia pisatu zuelarik, lehenik gutiesteari lotu zitzaion, eta, bere epaiketa ospintzen jarraikiz, berehala jo zuen haserraldira, eta herraz lasterkatu zen haren gelen botatzera eta urratzera. Eta bere orgek ez zutela balioko deusik egin lasterraldian, eta bere jendeak zeramatzan ontziak Sizilia huts egin eta erauntsiak Tarentoko ertzaren aurka bulkatua eta hautsia izan zela, egiazkat zeukan Jainkoen haserraldia zela, bera bezala, poema txar haren kontra sumindurik. Ontzi-ondoratzetik itzuri itsasgizonak ere jende haren aburua bermatuz zihoazen.

Haren heriotza aztiatu zuen orakuloak bazirudien inola ere uste horren azpimarratzea. Bazioen Dionisio bere azkenetik hurbil egonen zela berak baino gehiago balio zutenak garaituko zituen; bera ahalmenez gainditzen zuten kartagotarrak bezala entelegatu zuena. Eta, haiekin gudukaturik, anitzetan garaipena huts egiten eta epeltzen zuen, aztiatze haren zentzura ez jo nahian. Baina gaizki entelegatu zuen: jainkoak markatzen baitzuen, faborez eta makurbidez, Atenasen, lehian joarazi zuelarik Leneiarrak 567 izeneko tragedia, bera baino hobeak ziren poeta tragikoen gainean irabazi zuen abantailaren aroa; haren ondoan, bapatean, hil zen eta hein batean sortu zitzaion alaitasunaren soberagatik.

Neurean barkagarri aurkitzen dudana, zinez, omena ematen zitzaiela dakuskidan beste gauza txarragoekin alderatzean da. Beren baitan beren eginkizunaz gozatzen eta askiesten dakitenen bekaitz naiz, atseginaren erdiesteko modu erraza baita, nork beregandik ateratzen baitu. Bereziki, bermetasun apur bat baldin bada beren temakerian. Azkarrek, ahulek, metaka eta banaka, zeruak eta lurak, deus ere ez duela aditzen oihukatzen dioten poeta bat ezagutzen dut. Ez da horrengatik guztiagatik bere buruari eman dion mailatik apaltzen, berriz hasten da, berriz galdegiten du, eta beti badirau; hainbat gotorrigo eta gogorrigo bere aburuan berari bakarrik baitagokio bermatzea. Neure idazkiak, hain eskaski atsegin zaizkit, non eskuztatzen ditudan aldiro haserretzen байна:z:

Cum relego, scripsisse pudet, quia plurima cerno,

Me quoque qui feci iudice, digna lini 568.

Gogoan badut beti irudi uher zerbait, egin dudan baino hobe den molde bat ametsetan bezala erakusten didana, baina ez dut hatzematen eta erabiltzen ahal. Eta gogoeta hori berori erdi mailakoaz baizik ez da. Hortik argudiatzen baitut iragan aroko gogo aberats eta handi haien ekintzak neure irudimen eta nahikundearen hedadurarik zabalenez arras haratago daudela. Haien idazkiek ez naute soilik askiasten eta betetzen; baizik eta mirespenaz harritzen eta liluratsen naute. Epaitzen dut haien edertasuna; badakusat, bururaino ez bada ere, bai bederen hain barrenki non ezinezkoa baitzait lehiaratzeara. Zernahiri lozen banatzaio ere, eskaintza bat egiten diet graziei, Plutarkok norbaiti buruz dioen bezala, haien faborearen eskuratzeko,

Si quid enim placet,

Si quid dulce hominum sensibus influit,

Debentur lepidis omnia Gratiis ⁵⁶⁹.

Uzten naute orotarik. Dena zarpail da nire baitan; jendetasun eta edertasun eskas da. Ez dakit gauzek balio duten baino gehiago baliarazten. Nire moldeak ez du gaia laguntzen. Horra zergatik behar dudan azkar, harbide askodun eta berez argitzen dena. Herrikoiak eta alaiagoak hartzen ditudalarik, neure buruari jarraikitzeke da, ez baitut zuhurtasun zeremoniatu eta ilun bat maite, jendeak dagien bezala, eta neure buruaren alaitzeke ez neure idazkera, honek larri eta idorxeagoak nahi baititu (idazkera deitu behar badut mintzaira molde eta araugabe bat, mordoilo herrikoia bat eta mugatasunik, zatitzerik eta bururapenik gabeko ibilbide bat, nahasirik, Amafanio eta Rabirioen ⁵⁷⁰ eredura). Ez dakit atsegin egiten, ez alaitzen, ez berekatzen: munduko ipuinik hoberena ihartzen eta zimeltzen zait eskuartean. Ongi dakidanaz baizik ez dakit mintzatzeko, eta gabeturik naiz neure lagun askoren baitan dakusadan erraztasun horretaz: lehen etorriaren jostatzea eta hatsaren gainean jendalde oso baten edukitzea, edo ele-mota guztiez atsegin egitea, nekatu gabe, printze baten belarria, gaiak sekula huts egin gabe, lehen etorriaren erabiltzeke eta solaskidearen aldarteari eta helmenari egokitzeko duen grazia horrengatik. Printzeek ez dituzte doi hitzaldi gotorrak maite, ez eta nik ipuinen egitea. Eskuarki hobekien hartzen diren lehen arrazoiak, errazenak, nik ez dakit erabiltzen: jende arrunterako predikugile txarra. Gai orotaz beti diot gogotik dakizkidan azken gauzak. Zizeronek uste du filosofiazko tratatuetan zatirik zailena hastapena dela. Hala bada, ni bururapenari natxikio.

Haria erabili behar da soinu-mota orotan; bakanenik jokatzen ohi dena zorrotzena da. Beste hainbeste betetasun bada, gutienik, gauza huts baten goratzean nola pisudun baten sostengatzean. Noiz gauzak gaingiroki erabili behar dira, noiz barrenki. Badakit ongi gizon gutiz gehienak apaltasun horretan daudela, gauzak lehen azal horretarik besterik ez hartzeagatik gogoan; baina badakit ere irakaslerik handienak, eta Xenofon eta Platon, maiz ikusten direla molde apal horretara jausten, gauzen esateko eta ihardukitzeko sekula huts egiten ez dieten graziekin bermatuz.

Bestalde, ene mintzairak ez du errazik ez politik batere: latza eta jendetasunik gabea da, bere molde libre eta araugabeak dituelarik; eta hala atsegin zait, neure adimenagatik ez bada ere, neure aiherragatik. Baina ongi ohartzen naiz inoiz sobera uzten nuela neure burua joaten, eta faltsu eta apainkeriatik ihes egin nahian, beste alderdi batetik erortzen naizela:

Brevis esse laboro,

Obscurus fio ⁵⁷¹.

Platonek dio luze eta laburtasunak ez direla mintzairari balio kentzen ez ematen dioten gauzak.

Beste idazkera berdina, bateratu eta aratu horri jarraikitzeke entseiatuko banintzateke ezin nezake egin; eta Salustioaren mozketak eta neurkadak gehiago badagozkio ere neure aldarteari, Zesarri deritzot handiago eta itxuratzeko zailagoa; eta neure aiherrak gehiago

banarama Senekaren mintzairaren imitaziora, horregatik ere gehiago onesten dut Plutarkorena. Egitean bezala, mintzatzean arras lainoki banarraio neure molde naturalari: hortik baitator, menturaz, gehiago dezakedala mintzatzen idazten baino. Mugimenduak eta ekintzak hitzak sustatzen dituzte, bereziki, nik dagidan bezala, supituki mugitzen eta berotzen direnengan. Itxurak, aurpegiak, ahotsak, jantziak, jarlekuak, eman diezaiekete berez gauzek ez daukaten balioa, elejarioak bezala. Mesala kexatzen da, Tazitoren baitan, bere aroko janzkera hertsu batzuetaz, eta elegileek mintzatu behar zuten aulkien moldeaz, beren elegintza ahultzen baitzuten.

Neure frantses hizkuntza, ahoskeran eta besteetan, nahasirik da neure herrialdearen basakeriagatik; ez dut inoiz ikusi eskualde honetako gizonik bere mintzaira hagitz ageriki nabarmendu ez zuenik eta belarri frantses hutsak zauritu ez zituenik. Eta ez da neure perigordieraz biziki aditua izateagatik, zeren hartaz ez baitut alemanaz baino erabilera gehiagorik, eta axola handirik ez dut ere. Mintzaira bat da, inguruan ditudan bezala, alderdi batetik eta bestetik, poitevinera, xantoingera, angumoisinera, limosinera, auverniera: dorpea, narraztua, zakarra. Gutaz biziki gorago, mendi aldera, bada bereziki eder deritzodan gaskoinera bat⁵⁷², idor, labur, adierazkor, egiazki aditzen dudan beste ezein baino mintzaira gizonetzko eta militar bat; hain zainbizi, ahaldun eta zuzen nola frantsesa baita grazios, minbera eta nasai.

Latinari dagokionez, ama-hizkuntzat eman izan baitzait, ohiturarik ezaz galdu dut mintzatzean baliatzeko bizitasuna: eta idazten ere bai, behiala maisu Joanes deiarazten bainuen neure burua. Horra alderdi horretarik zein guti balio dudan.

Giza harremanetan, edertasuna gomendio handiko zati bat da; elkarren arteko antolabiderako lehen bidea da, eta ez da hain gizon basa eta beltzuririk haren eztitasunak inola ere hunkitua sentitzen ez denik. Gorputzak zati handia dauka gure izatean, maila handia du; horrela haren egitura eta osaketa gogoan hartzekoak dira. Makurki ari dira gure zati nagusiak bereizi eta elkarrengandik bahitu nahi dutenak. Aitzitik, iratxiki eta bildu behar dira. Ez zaio gogoari berbaitaritzen, bazterrean ihardukitzen, ez gorputzaren gutiesten eta uzten manatu behar (ez lekike egiten ere tximinokeria itxuratu baten bidez baizik), baina elkarganetzen, haren besarkatzen, maitatzen, laguntzen, zuzentzen, aholkatzen, eraikitzen eta eramaten galtzen denean, ezkontzen, hitz batez, eta senartzat zerbitzatzen; bien ekintzek ez dezaten ezberdin eta kontrarioak irudi, baina adosturik eta berdinek. Kristauek badute elkartzeko honen irakaspen berezi bat: zeren baitakite jainkozko zuzenbideak besarkaten duela gorputz eta arimaren arteko elkargo eta iratxikitze hau, gorputza betiereko sarien gai bilakatzerainokoa; eta Jainkoak gizon osoa dakusala aritzen, eta nahi du osorik har dezan zigorra, edo laudorioa, bere merituen arabera.

Alderdi peripatetikoak, alderdi orotan zibilizatuenak, zuhurtasunari bademaio bi zati elkartu hauen ontasunaren gauzatzeko eta ekartzeko axola bakarra: eta erakusten ditu beste alderdiak, nahasketa honen oharpenari aski ez estekatzeko, zatikaturik, hau gorputzaren alde, hura arimaren alde, huts berdin batez, eta beren gaitik bazterturik, gizona eta beronen gida baita, eskuarki baitiote natura dela.

Gizonen artean izan bide den lehen bereizketa, eta batzuei besteen gaineko lehentasuna eman zien lehen gogoeta, itxuragarria da edertasunaren abantaila izan zela:

agros divisere atque dedere

Pro facie cujusque, et viribus ingenioque:

Nam facies multum valuit viresque vigeant ⁵⁷³.

Bada, erdia baino apur bat beheragoko goratasun batekoa naiz. Akats honek ez du bakarrik itsustasuna, baina oraindik ere eragozpena, bereziki manakuntza eta karguak dauzkatengana: itxura eder eta gorputzezko gorentasun batek bademan nagusigoa esan gabe baitoa.

K. Mariok ez zituen gogotik onartzen sei oin gora ez zituzketen soldadoak. Gorteliarrak⁵⁷⁴ arrazoia du nahi izateko, eraikitzen duen aitorenseme horrentzat, goratasun arrunt bat beste edozein baino lehenago, eta harentzat behatzez erakustarazten duen bitxitasun ororen ezeztatzeko. Baina hautatzekotan erditasun horretan honaindi ala haraindi behar ote den, ez nuke militar batentzat eginen.

Gizon txikiak, dio Aristotelesek, aski politak dira, baina ez ederrak; handitasunean ezagutzen da gogo handigoa, edertasuna bezala gorputz handi eta gora batengan.

Etiopearrek eta indiarrek, dio, beren errege eta epaileen hautaturik, begiratzen zioten pertsonen edertasun eta goratasunari. Arrazoia zeukaten: darraiotenentzat begirunea baita eta etsaiarentzat beldurra, olde baten buruan goratasun eder eta aberats bateko buruzagi baten ikustean:

Ipse inter primos præstanti corpore Turnus

Vertitur, arma tenens, et toto vertice supra est ⁵⁷⁵.

Gure jainkozko errege zerutiarrak, haren gorabehera guztiei axola, erlijio, eta begirunearekin ohartu behar baitzaie, ez du gorputzezko gomendioa ezeztatu, speciosus forma prae filis hominum..

Eta Platonek, neurtasun eta azkartasunarekin batean, edertasuna opatzen die bere errepublikaren zaintzaleei.

Amorru handia da zeuregana zuzen dakizun zeure jendeen artetik, galdegiteko: “Non da jauna?” Eta zeure bizargin edo idazkariari egin zaion bonetaldiaren hondarraz baizik ukan ez dezazun. Filomeno aita sainduari gertatu bezala. Igurikatzen zitzaion egoitza batera bere jendaldetarik lehena heldurik, bere arrotzaintsak, ez baitzuen ezagutzen eta itxura txarrekoa baitzekusan, igorri zuen haren emakumeengana ur ateratzen edo su zirikatzen apur bat laguntzera, Filomenoren zerbitzurako. Bere jarraipeneko aitorensemeek, heldurik eta eginbehar eder horri lotua atzemanik (zeren hutsik gabe obeditu baitzuen egin zitzaion manua), galdegin zioten zer egiten zuen han: “Ordaintzen dut, erantzun zien, neure itsutasunaren isuna”

Garaitiko edertasunak emakumeentzat dira; goratasunaren ederra gizonen edertasun bakarra da. Apaltasuna denean, kopetaren zabal eta biribiltasunak, ez begien zuri eta eztitasunak, ez sudurraren molde erdikoak, ez belarriaren eta ahoaren xumetasunak, ez hortzen antolabide eta zurtasunak, ez gaztainazal koloreko bizar beltzaran baten usutasun ongi batuak, ez ile handituak, ez buruaren biribiltasun zuzenak, ez larrumintzaren gozotasunak, ez aurpegiantzaren atseginak, ez usainik gabeko gorputzak, ez soinadarren arautze zuzenak ez dezakete gizon ederrik egin.

Gorpuzkera badut, bestalde, gotor eta bildurik; aurpegia ez lodia, baina betea; izaera alai eta malenkoniatsuaren artean, erdi odoltsu eta bero,

Unde rigent setis mihi crura, et pectora villis ⁵⁷⁷;

osasuna sendo eta alai, neure adienean aski aitzina arte, bakanka eritasunek nahasirik. Halakoa nintzen, zer orain ez baitut neure burua neurtzen, zahartzarorako etorbideei loturik bainaiz, aspaldi berrogei urteak gaingiturik:

minutatim vires et robur adultum

Frangit, et in partem pejorem liquitur ætas ⁵⁷⁸.

Hemendik aurrera izanen naizena, erdi izate batez baizik ez da izanen, ez da gehiago neure burua izanen. Egunero banoakio ihes eta ebasten neure buruari.

Singula de nobis anni prædantur euntes ⁵⁷⁹.

Trebetasun eta prestutasunik, ez dut sekula eduki; bada, biziki prestu eta bere azken zahartzaro arte iraun zion bizitasun bateko aita baten semea naiz. Ez zuen bere mailako gizonik aurkitu gorputzezko ariketa guztietan harekin berdin zenik: nik gaingitzen ez nauenik aurkitu ez dudana bezala, lasterrean salbu (erdikoetarik bainaiz). Musikaz, ez

ahotserako, hagitz desegokia baitut, ez tresnerako, ezin izan dakidake inoiz ezer irakats. Dantzan, pilotan eta borrokan, ez dut oso jakintza arin eta arrunt batez baizik erdietsi ahal; igerian, esgriman, itzulipurdiketan eta jauzian, deusik ere. Eskuak hain dorpeak ditut, non ez baitakit neuretzat ere idazten: halako moldez, non nahiago baitut zirriboratu dudanaren berriz egitea argitzeko nekea hartu baino lehen; eta ez dut doi hobeki irakurtzen. Uste dut entzuleak unatzen ditudala. Bestalde, letratu ona⁵⁸⁰. Ez dakit gutun bat zuzenik hersten, ez nekien sekula hegatsaren moztan⁵⁸¹, ez mahaian ongi ebakitzen, ez zaldi bati bere kaprestuaren ezartzen, ez ukabilean aztore baten eramaten eta uzten, ez zakurrei, aztorei, zaldiei mintzatzen.

Neure gorputzezko baldintzak, hitz batez, gogoarenekin txit ongi elkargarriak dira. Ez da alairik batere: soilik azkartasun bete eta berme bat. Nekean ongi diraut; baina badiraut, neronek baldin badaramat neure burua, eta neure nahiak naraman bezainbat,

Molliter austerum studio fallente laborem⁵⁸².

Besterik, atsegin zerbaitek eramana ez banaiz, eta neure nahikunde huts eta libreaz beste gidarik badut, ez dut deus ere balio. Zeren, osasuna eta bizia salbu, ez baitut ezeren alde neure azazkalak karrakatu nahi ez gogo oinazeen eta bortxaketaren saritan deus ere erosi,

tanti mihi non sit opaci

Omnis arena Tagi, quodque in mare volvitur aurum⁵⁸³,

ezinagoko alfer, ezinagoko libre, izaeraz eta lantzez. Odola bezain gogotik bademat axola.

Guztiz bere den gogo bat daukat, bere moduz ibiltzeko ohituraturik. Orain arte ez manatzaille ez nagusi beharturik ez edukirik, ibili naiz nahi izan dudana bezain aitzina eta urratsean. Horrek beraztu nau eta besteren zerbitzurako ezteus bilakatu, eta neuretzat baizik ez nau on egin. Eta neuretzat, ez da izaera pisudun, nagi eta alfer hau bortxatu behar izan. Zeren, halako ontasun mailan aurkitu naiz sortzetik non bertan gelditzeko aldia eduki baitut, eta halako zentzu-mailan non aldiaren edukitzeari ohartu banaiz, ez dut ezer bilatu ez hartu ere:

Non agimur tumidis velis Aquilone secundo;

Non tamen adversis ætatem ducimus austris:

Viribus, ingenio, specie, virtute, loco, re,

Extremi primorum, extremis usque priores⁵⁸⁴.

Askieteko jakintzarik besterik ez dut behar, halarik ere, ongi hartzera, izaera-mota guztietan berdinki gogo arautze zaila dena, ohituraz baitakusagu beharkundean errazkiago aurkitzen ugaltasunean baino; zeren, menturaz, gure beste pasioeen ibilbidearen arabera, erabilerak gehiago akuilatzen baitu aberastasun-gosea eskasiak baino, eta neurtasunaren bertutea jasankortasunarena baino arraroagoa da. Eta Jainkoak bere eskuzabaltasunaz eskuan ezarri ontasunez gozatzeaz baizik ez dut egin behar izan. Ez dut lan-mota nekagarriarik batere dastatu. Doi ez dut neure egitekoak baino gehiago erabili behar; edo, erabili behar izan badut ere, neure zoriz eta moduz erabiltzeko baldintzapean izan da, nitaz fidatzen ziren jendeek emanak, hertsatzen ez ninduten eta ezagutzen nindutenak. Zeren adituek oraino ateratzen baitute zerbitzuren bat zaldi motel eta nagi batengandik.

Nire haurtzaroa bera modu bigun eta libre batez zuzendurik izan da, estekatze gogorrez gabeturik. Horrek guztiak axolarako ez gai den izaera minbera batez egin nau. Harik eta dagozkidan galtze eta nahasmenduak gorde egin dakizkidan maitatzerainokoa: neure ordainen kapituluan, ezartzen dut neure ezaxolaren hazte eta zaintzeak kostatzen didana, hæc nempe supersunt,

Quæ dominum fallant, quæ prosint furibus⁵⁸⁵.

Ez dut daukadanaren kontua jakin nahi, neure galtzea zehaztasun gutiagoarekin sentitzeagatik. Neurekin bizi direnei otoizten diet, maitasun eta xede onek huts egiten dietenean, itxura onez neure engainatzea eta ordaintzea. Menperatzen gaituzten ezbarharren zorigaitzaren jasateko bermetasunik ezean, eta eginkizunen arautzeko eta zuzentzeko gogor egoteko ezinean, ahal bezainbat hazten dut neure baitan aburu hau: gauzen gaizkienera hartzekoa, zoriaren baitan osoki utzirik; eta, gaizkienera hori, eztiki eta jasankorki eramatera deliberatzekoa. Hori da lantzen dudana bakarra, eta neure hitzaldi guztiak daramatzadan xedea.

Arrisku batean, ez dut gogoan hainbat ihes nola egingen dudana, nola baitut ihes ez egiteak zein axola guti duen. Geldi banadi, zer dateke? Gertakariak ezin arautuz, neure burua arautzen dut, eta haiei nagokie haiek ez badagozkit. Doi ez dut antzerik zoriaren makurrarazten jakiteko, eta itzurtzeko edo bortxatzeko, eta zuhurtziaz neure heinera gauzen eraikitzen eta zuzentzen. Horretarako behar den axola garratz eta beldurgarriaren jasateko are pairakortasun gutiago dut. Niretzat den jarlekurik nekeena, hertsatzen duten gauzen menpean egotea da, beldur eta itxaropenaren artean nahasirik. Erabakitzeak, gauzarik xumeenak ere, hastiatzen nau; eta neure gogoia sentitzen dut zalantza eta aholkuaren higidura eta inarrote ezberdinen jasateko prestuago, jartzeko eta ezein alderdiren hautatzeko baino gehiago, behin aldia gertaturik. Pasiene gutik eragotzi dit loa; baina neure gogoetan xehenak eragozten dit. Bideetan bezala, gogotik baztertzen naiz malkar eta lerrakorretarik eta egozten naiz egin den lohitsu eta barrenera, handik beheragora ezin bainaiteke joan, eta segurantzaz bilatzen dut; hala maitatzen ditut zorigaitz hutsak, beren antolatzearen ondotik gehiago zirikatzen eta oinaztatzen ez nautenak, eta, lehen oldarrean, zuzenki oinazera bulkatzen nautenak.

dubia plus me torquent mala 586.

Gertakarietan gizonki jotzen naiz; antolaketan, aldiz, haurki. Erorketaren beldurrak sukar gehiago ematen dit zartakoak baino. Jokoak ez du ezkoargia balio. Zikoitzak zama makurragoa dauka bere pasionearekin behartsuak baino, eta jeloskorak adardunak baino. Anitzetan gaitz gutiago bada mahastiaren galtzean auzitaratzean baino. Maila apalena bermeena da. Iraupenaren jarlekua da. Zeure buruarekin baizik ez duzu eginkizunik. Hor finkatzen eta habeztatzen da osoki bere baitan. Askok ezagutu duten aitorenseme haren ereduak ez ote du aire filosofiko zerbait? Adinean sarturik ezkondu zen, lagun on bezala gaztaroa iraganik: eleketari eta eskarniogile handia. Oroiturik nola adargintzak besteen bizkar zeren mintza eta befa eman baitzion, estalpean ezartzeko, nornahik bere dirutan halakoak ediren ohi dituen lekuan hartu emakume batekin ezkondu zen, eta harekin eraiki zituen bere hitzarmenak: . Eta etxean, solaskideekin, ez da bere xede hori baino maizago eta agerikiago diharduen gauzarik: hortik burlarien solas-molas gordeak estekatzen zituen eta erantzuki horren punta kamusten.

Handinahiari buruz, harrokeriaren auzokidea baita, edo alaba hobeki, behar izan zatekeen, neure aitzintzeko, zoria eskutik atxikitza etor zekidan. Zeren, esperantza zalantzati baten alde neketan sartzea eta beren aitzinatzeen hasieran omenera jotzea bilatzen dutenak laguntzen dituzten zailatasun guztien meneratzea, ez bainezake egin; spem pretio nonemo 587.

Lotzen natzaio dakusadan eta daukadanari, eta ez naiz portutik urruntzen,

Alter remus aquas, alter tibi radat arenas 588.

Eta gero, ez ohi da ezertara heltzen aitzinatze horietan lehenik nor bakoitzarena menturatu gabe: eta uste dut daukaguna aski bada sortu eta hazi garen baldintzaren sostengatzeko, erokeria dela atzemanaren uztea emendatzeko zalantzaren gainean. Norbaiti ere zoriak ezeztatzen badio oina non finka eta bere izate lasai eta pausatua non errozta, harako hura barkagarria da daukana menturatzen badu, nola edo hala beharrak bila igortzen baitu.

Capienda rebus in malis præceps via est 589.

Gehiago desenkusutzen diot seme gazteago bati bere heredentzia haizatzen badu, etxeko ohorea kargupean daukanari baino, bere hobenaz baizik ez baita behartsu bilakatzen.

Ongi aurkitu dut bide labur eta errazagoa, iraganaroko neure adiskideen aholkuarekin, nahikunde horren bidaltzeko eta geldirik egoteko,

Cui sit conditio dulcis sine pulvere palmæ 590

neure indarrez zuhurki uste izanez ez zirela gauza handien gai, eta Olivier kantziler zenaren hitz hartaz oroiturik: frantsesek diruditela zuhaitz bati goiti, adarrez adar, iganez doazen tximinoak, eta adarrik gorena heldurik diren arte ez direla gelditzen, eta han daudenean uzkia erakusten dutela⁵⁹¹.

Turpe est, quod nequeas, capiti committere pondus,

Et pressum inflexo mox dare terga genu 592.

Neure baitan erantzukigarri ez diren nolakotasunak berak, ezteusak aurkitzen nituen mende honetan. Nire ohituren erraztasuna izenda liteke berazkeria eta ahulezia; fedea eta kontzientzia aurki litezke arrenkuratiak eta sineskeriatsuak; zintasuna eta libertatea, behargabeak, axolagabeak eta ausartak. Zorigaitzak zerbaiterako balio du: on da mende hagitz galdu batez sortzea; zeren, bestearekiko alderatzean, errazki izaten baitzara bertutetsu aurkitua. Aitahiltzaile eta sakrilegoa bakarrik dena, gure egunetan, on-oneko eta ohoreko gizona da:

Nunc, si depositum non inficiatur amicus,

Si reddat veterem cum tota ærugine follem,

Prodigiosa fides et Tuscis digna libellis,

Quæque coronata lustrari debeat agna 593.

Sekula ez zen printzeentzat aro eta leku gertu eta egokiagorik ontasun eta zuzenbiderako. Bide horretarik fabore eta omenean ezartzera lehiatuko den lehenak, osoki engainaturik naiz bere lagunak gainditzen ez baditu. Indarrak, bortiztasunak, zerbait dezakete, baina ez beti dena.

Badakuskigu merkatariak, herriko epaileak, eskulangileak badoazela suhartasun eta gudu-jakintzan aitorensemegoarekin hein berean: ohorezko gudu publiko eta ezageriak egiten dituzte, hiriak oldartzen eta defendatzen dituzte gure gerretan. Printze batek bere gomendioa itotzen du meta horren erdian. Argi bedi jendetasunez, egiaz, leialtasunaz, neurtasunez eta, oroz gain, zuzenbidez: ezaugarri arraro, ezezagun eta atzerriratuak. Bakarrik jendeen nahikundeaz burura ditzake bere eginkizunak, eta beste nolakotasunik ez du haren nahikundea berekatzen ahal haiek bezainbat: besteak baino askoz ere onuragarriagoak baitzaizkio.

Nihil est tam populare quam bonitas 594.

Honen arabera, aurkituko nintzateke handi eta arraroa, pigmeo eta arrunta aurkitzen naizen bezala iragan mende zenbaiten arabera, haietan arrunta baitzen, beste nolakotasun azkarrik gertatzen ez bazen, bere mendekuetan gizon neurtu baten ikustea, laidoen erresuminean bigun, hitzaren betetzean zuzen, plegurik gabe, arinkeriarik gabe, bere fedea ez egokitzen besteren nahikundeari eta aldiei. Neure fedea haien alde makurtu baino lehenago galbideratuko nituzke eginkizunak. Zeren, orain hain omen handitan den gezurkeria eta itxurakeriazko bertute berri honi buruz, biziki hastiatzen baitut; eta, bizio guztietan, batere ez dut aurkitzen hainbat laxokeria eta bihotz apalkeriaren lekukotasuna ematen duenik. Aldarte beldurti eta zital bat baita maskara batenpean gordetzera joatea, eta nor den bezala erakustera ez ausartzea. Hortik trebatzen dira gure gizonak makurbidean: hitz faltsuen egitera antzetsu izanez, ez dute hitzaren jateagatik kontzientziarik egiten. Bihotz eskuzabal batek ez ditu bere gogoetak gezurtatu

behar; barreneraino erakutsi nahi du bere burua. Edo dena baita on, edo, bederen, dena baita giza araberako.

Aristotelesek gogo handitasuntzat dauka agerian gorrotatzea eta maitatzea, epaitzea, zintasunez mintzatzea, eta besteren onespen edo gaitzespenaren ez ezartzea egiaren gainean.

Apoloniok bazioen esklabuei zegokiela gezurretan aritzea, eta libreei egiaren esatea.

Bertutearen lehen eta funtsezko zatia da. Berez maitatu behar da. Egia dioena kanpotik behartua delako eta balio duelako, eta gezur esateko beldur ez dena, inori axola ez zaionean, ez da aski egiati. Ene gogo, bere izaeraz, gezurra gaitzesten du eta gogoan edukitzea bera hastio du.

Inoiz ihes egin bazait, inoiz ihes zaidan bezala, gogoetatu gabe gertaldiek hatzemanik eta eramanez, badut barreneko ahalke eta damu ziztagarri bat.

Ez da beti dena esan behar, ergelkeria bailitzateke; baina dioguna, gogoetatu bezala izan behar da, bestela gaiztakeria da. Ez dakit zein erraztasun igurikatzen duten etengabe beren buruaren itxuratze eta gordetzetik, non ez den egia diotenean berean sinetsiak ez izatekoa; horrek behin edo bitan engaina ditzake gizonak; baina gorderik izateko aitormen egitea, eta, gure printzeetarik norbaitek egin bezala, atorra sutara egotziko luketela beren zinezko xedeen jakituna balitz aldarrikatzea (aitzineko Metelo Makedoniakoren hitz bat baita) eta itxura egiten ez dakienak erreinatzen ez dakiela, hori da beraiekin solastatu behar direnei diotsena faltsukeria eta gezurrik besterik ez dela gaitzizatzea. Quo quis versutior et callidior est, hoc invisior et suspectior, detracta opinione probitatis. Kanpoan eta barrenean beti ezberdin izateko egoera, Tiberiok bezala, egiten duenaren aurpegiaz eta hitzez bere buruaren liluratzeraz utziko lukeena ergel handia litzateke; eta ez dakit jende horiek zein zati ukan dezaketen jendearekiko harremanetan, egiatzat onar dadin ezer ez eginez.

Egiari buruz maltzur dena, halaber da gezurrari buruz.

Gure aroan, printze baten eginbeharraren finkatzean bakarrik haren eginkizunen ontasuna gogoan hartu dutenek, haren fede eta kontzientziaren axolaren gainean ezarri baitute, zerbait esanen liokete printze bati bere zoriak egitekoak halako moldean antolatu balizkio, non birrantola bailitzake bere hitza behin batez bakarrik janez eta huts eginez. Baina ez ohi da hala. Maiz erortzen da gertaldi berdinean; bake bat baino gehiago egiten ohi da, tratu bat baino gehiago ere. Irabazkizunak bulkatzen ditu lehen maltzurkeriara (eta kasik beti bezala beste gaiztakerietan bezala agertzen da: sakrilegioak, hilketak, bihurraldiak, tradiketak mozkin-mota zerbaitengatik gauzatzen dira) baina lehen irabazkizun horrek ondotik badakartza ezin konta ahala kalte, zingabekeria horren eredu printze hori egotziz harreman eta negoziabide orotarik kanpora. Soliman otomanoen arrazakoak, agintza eta hitzarmen betetzeari buruz axola gutiko arraza baita, ene haurtzaroan, bere armada Otrentora jaustarazi zuelarik, Gratinaroko Merkurino eta Kastroko biztanleak preso atxiloturik zeudela jakinik, hiria errendatu ondoren, haiekin hitzartua zenaren aurka baitzen, manatu zuen libra zitezen: eskualde hartan beste eginkizun handiak eskuarteaz edukiz, desleialkeria hark, orainaldiko erabilgarritasun itxura zerbait bazuen ere, etorkizunerako ekarriko ziokeen kalte gaitzeko omen txar eta mesfidantza bat.

Bada, niketz, nahiago dut nabarmen eta neurgabea izan lausengari eta itxuratia baino.

Aitor dut burgoitasun eta temakeria apur bat nahas daitekeela horrela, bestearekiko begirunerik gabe, oso eta estalgabe egotean; eta iruditzen zait apur bat libreago bilakatzen naizela gutiago izan behar litzatekeenean, eta errespetuaren aurkakotasunaz berotzen naizela. Halaber izaten ahal da, antzerik ezean, neure izaeraren ondotik neure buruaren joatera uzten dudala. Neure etxean daramadan mintza eta egonmoldeko baimentze hau berau handiei aurkeztuz, ohartzen naiz zenbat jausten den nabarmenkeria

eta jendetasunik ezaren alde. Baina, honela eginik naizenaz gain, gogoaz ez dut aski arinik bapateko galdegite batetik itzurtzeko eta itzulitako batez ihes egiteko, ez egia baten itxuratzeko, ez oroimenik aski itxuraturik atxikitzeke; eta ahuleziaz badagit ausartarena. Horregatik zintasunera uzten dut neure burua, eta gogoan daukadanaren esatera, izaeraz eta hitzaldiz, zoriari utziz gertakariaren zuzentzea.

Aristipok bazioen filosofiatik atera zuen fruitu nagusia nornahiri libre eta zabalik mintzatzen zitzaiola zela.

Oroimena zerbitzu miresgarriko tresna da, hura gabe adimenak arraz nekez baitagi bere ofizioa: osoki hutsa egiten dit. Adierazi nahi zaidana, zatika izan behar da. Zeren buru asko diren solasaldi bati erantzutea ez baita neure ahalmenean. Ez nezake mandatu bat onar oharrik hartu gabe. Adierazteko solasaldi bat daukadanean, huts luzeak bada, buruz eta hitzez hitz ikasteko behar apal eta eskas horretara behartua naiz; ez nezake bestela molderik ez segurantzarik eduki, neure oroimenak josteta txar bat egin liezadan beldur izanik. Baina bide hau ez zait zailtasun guttiagokoa. Hiru neurtitzen ikasteko hiru ordu behar ditut, eta gainera, neure idazki batean, antolatzearen aldaratzeko eta hitz baten aldatzeko libertate eta ahalmenak, gaia etengabe aldatuz, gogoan hartzeko zailago bilakatzen du. Bada, ni hartaz gutiagokoa fidatzen, eta hura gehiago nahasten; hobeki baliatzen zait menturaz, axolagabeki eskatu behar dut: zeren hertsatzen badut harritzen baita; eta zalantzan hasi denez geroztik, zenbat eta gehiago zirikatzen dut hainbat eta gehiago behaztopatzen eta tratatzen baita; bere orduan baliatzen zait, ez neurean.

Oroimenean somatzen dudana hau beste alderdi anitzetan somatzen dut. Manatze, behartze eta hertsatzeari ihes banoakio. Errazki eta naturalki dagidana, arautze adierazi eta erabaki batez manatzen badiot neure buruari, ez dakit gehiago egiten. Gorputzean berean, beren baitan libertate zerbait eta ahalmen bereziago bat duten zatiek ukatzen didate inoiz beren obedientzia beharrezko zerbitzuko ordu eta hein batera zuzentzen ditudalarik. Aitzinarautze bortxatu eta nagusitarrak horrek moteltzen ditu; ikaraz edo amorruz kuzkurtzen eta harritzen dira. Behiala, edatera gomitatzen zaituztenei ez erantzutea jendegabekeria basa den lekuan izanez, libertate osoan ari bazitzaian ere, edale onaren egitera entseiatu nintzen hantzen zeuden andereen ohoretan, herriko ohituraren arabera. Baina atsegina izan zen, zeren neure ohitura eta izaeraz gaintzi beharturik izateko mehatxu eta prestaketa horrek halako moldez itzupatu zidan zintzurra, non ez bainezakeen ttanttarik ere irents, janarariaren beharrerako ere edan gabe gertaturik. Mozkorturik eta nahasirik aurkitu nintzen neure irudimenak aitzinetik uste zuen hainbat edararirengatik. Ondorio hau ageriagoa da irudimena sutsu eta ahalduagoa dutenengan; baina, alabainan, naturala da eta inor ez da inolara ere somatzen ez dudarik. Heriotzara kondenatu arkulari bati eskaintzen zitzaien biziaren salbatzea, bere antzearen frogak nabarmen bat egin nahi bazuen: entseiatzea ukatu zuen, bere nahikundearen bortxatze handiegiak eskua desbideraraz ziezaien beldurrez, eta bizi salbatu ordez, arkuan aurkitzen erdietsi zuen omena oraindik ere gal zezan. Beste gauza bat gogoan duen gizon batek ez du hutsik egiten, gutiz goiti beheiti, ibiltzen den lekuan urratsen zenbaki eta neurri beraren egitean; baina, neurtzeko eta zenbatzeko gogoarekin, aurkituko du naturaz eta menturaz egiten zuena ez duela hain zehazki xedez eginen.

Ene liburategia, herriko liburategietan ederretarik baita, etxeke zoko batean jarri da; nahikerian gertatzen bazait bila joan edo idatzi behar dudana zerbait, bakarrik larrainaren iragaitean ihes doakidan beldurrez, zaintzera eman behar diot beste norbaiti. Mintzatzean, neure haritik guti bada ere desbideratzera ausartzen banaiz, hutsik gabe gaitzen dut beti: horregatik banago neure hitzaldietan bortxatu, idor eta hertsirik. Zerbitzatzen nauten jendeak, beren karguen edo herrien izenez deitu behar ditut, oso zaila baitzait haien izenei atxikitzea. Banerrake ongi hiru silaba direla, hots zakarra dela,

halako letraz hasten edo bukatzen dela. Luzez iraunen banu, uste dut neure izena ahanztiko nuela, besteek egin duten bezala. Messala Korvino bi urtez egon zen oroimen hatzik gabe; George Trapezundez esaten baita ere; eta, neure baitarako, maiz ausnartzen dut zein bizia zatekeen haiena, eta zati hori gabe aski geldituko zaidan erraztasun zerbaitekin irauteko; eta, hurbiletik begiratzuz, beldur naiz akats horrek, osorik bada, gogoaren ahalmen guztiak gal ditzan. Memoria certe non modo philosophiam, sed omnis vitae usum omnesque artes una maxima continet.

Plenus rimarum sum, hac atque illac effluo ⁵⁹⁷.

Behin baino gehiagotan gertatu zait hiru orduz lehenago eman edo bestegandik ukan dudan hitz-gakoaren ahanzte, eta neure moltsa non gorde nuen, Zizeronek zernahi badio ere. Bereziki hertsatzen dudana galtzeko bidean ezartzen dut. Oroimena jakintzaren edukile eta ontzia da: hain ahula edukiz, ez dut zeren kexa kasik deus ere ez badakit. Orokorki badakit arteen izena eta zertaz ari diren, baina gehiagorik ez. Liburuak orrialdekatzen ditut, ez ditut ikertzen: gelditzen zaidana jadanik beste batena ezagutzen ez dudan gauza da; hori da bakarrik neure adimena bere mozkina egin duena, bete duten hitzaldi eta irudimenak; egilea, lekua, hitzak eta beste gorabeherak neurehala ahanzten ditut.

Eta, hain bikaina naiz ahanzpenean, non neure idazkiak eta osaketak berak, ez baititut garaitikoa baino gutiago ahanzten. Aldiro aipatzen zait neure burua ni ohartu gabe. Hemen metatu ditudan neurtitzak eta ereduak norenak diren jakin nahi lukeenak esateko neketan ezarriko ninduke⁵⁹⁸; bada, ez ditut ate ezagun eta ospetsuetan baizik eskatu, aberatsak zitezen ez askietsirik, esku aberats eta ohoragarritik ere ez bazetozen: omena arrazoiarekin batean elkartzan da. Ez da mirari handia nire liburuak besteen zoriari badarraio eta nire oroimenak babesik gabe uzten badu idazten eta irakurtzen dudana, eta demadana hartzen dudana bezainbat.

Oroimenaren hutsaz landara, besteak ditut neure jakineza asko laguntzen dutena. Gogo berankorra eta kamustua dut; hodeirik xehenak punta gelditzen dio, halako moldez, non (eredurako) sekula ez bainion aurkeztu asmatzen ahal zuen hain asmakizun errazik. Ez da hain sotilezia hutsalik eragozten ez nauenik. Gogoak bere zatia duen jokoetan, xakean, kartetan, dametan eta bestetan, ez dut marraldirik zakarrenez baizik konprenitzen. Oharmena geldia eta nahasia dut; baina behin batez datxikionari, ongi datxikio, eta arras orokorki, hertsiki eta barrenki besarkatzen du, datxikion denborarako. Ikusmena luze, sendo eta osoa dut, baina lanean errazki nekatzen eta zamakatzen dena; orain ez dezaket liburuekin harreman luzerik eduki besteren zerbitzuren bidez baizik. Entseiatu ez direnei Plinio gazteak irakatsiko die egiteko horri lotzen zaizkionentzat beranteste horrek duen axola⁵⁹⁹.

Ez da hain gogo eskas eta basarik non ez den ahalmen berezi zerbait argitzen ikusten; ez baita hain estalirik non ez den hein batetik distiratzan. Eta nola gertatzen den beste gauza orotan itsu eta lokaturik den gogo bat aurkitzen den, egiteko berezi zerbaitez, bizi, argi eta bikain, irakasleei galdegin behar zaie. Baina gogo ederrak, orokorrak, irekiak eta denetarako prest dira, eta ikasiak ez badira, bai bederen irakasgarriak: neurearen salatzeko baitiot; zeren, ahuleziaz edo axolagabekeriaz (eta gure oinetan dena, eskuartean daukaguna, bizimoduari hurbilenetik begiratzan dionaren axolagabetzea neure aburutik biziki urrundurik den gauza da), ahalkerik gabe ezezagut ez daitezkeen halako gauza arrunt askotan, ez baita nirea bezain ez gai eta ezjakina. Horren eredu zenbait aipatu behar ditut.

Alorretan eta nekazalgoaren artean sortu eta hazia naiz; gozatzen ditudan ontasunen jabegoan aitzintzen nindutenek beren lekua eman didatenez geroztik, baditut eginkizunak eta etxeko antolaketa eskuartean. Bada, ez dakit zenbatzen ez ozkaz ez lumaz; ez ditut gure sos gutiz gehienak ezagutzen; ez dakit bihi batetik besterako

ezberdintasuna, ez lurrean, ez bihitegian, ageriegia ez bada; ez doi neure baratzeko aza eta letxugen artekoa. Ez dakizkit bakarrik lehen lantresnen izenak, ez nekazalgoaren lehen hasierak, haurrek dakizkitenak; lantze mekanikoetan, salgaien garraio eta ezagutzan, fruituen, ardoen, haragiaren ezberdintasunean, gutiago; ez hegaztin baten hezten, zaldi edo zakur baten medikatzen. Eta, ahalke osoa egin behar baitut, ez da hilabeterik orantzak ogiaren egiteko balio zuela jakin gabe harrapatzen ez zaidanik, eta ardoaren irakitea zer zen. Atenasen aitzinean ustezkatu zen matematikarako gaitasun bat egur zama baten argiki antolatzen eta egokitzen ikusten zenaren baitan. Zinez, niregandik aterako zen arras ondorio kontrario bat: zeren, eman dakidan sukalde baten tresneria osoa, eta horra ni goseturik.

Nire aitormenaren marraldi hauen bidez irudika daitezke besteak nire bizkar. Baina, halakoa ere ezagutarazten badut neure burua, naizen bezala ezagutarazten dudan ber, badagit neure egitekoa. Eta ez naiz desenkusatzeko hauek bezalako solasaldi apal eta arinen idatziz ezartzeagatik. Gaiaren apaltasunak behartzen nau. Sala bedi, nahi bada, nire xedea; baina ez nire aurreratzea. Izanez ere, besteren oharrenik gabe, aski baitakusat honek orok balio eta pisatzen duen gutia, eta neure xedearen erokeria. Aski da nire adimena desferratzeko ez bada, haren entseiuak baitira hauek:

Nasutus sis usque licet, sic denique nasus,
Quantum noluerit ferre rogatus Athlas,
Et possis ipsum tu deridere Latinum,
Non potes in nugis dicere plura meas,
Ipse ego quam dixi: quid dentem dente juvabit
Rodere? carne opus est, si satur esse velis.
Ne perdas operam: qui se mirantur, in illos
Virus habe; nos hæc novimus esse nihil 600.

Ez naiz ergelkerien ez esatera beharturik, haien ezagutzean engainatzen ez naizen ber. Eta jakinaren gainean huts egitea, hori hain ohizkoa zait non doi ez baitut besterik egiten: sekula ez dut menturaz hutsik egiten. Deus guti da neure aldarteen ausarkeriari ekintza ez gaien egokitzea, biziosoen egokitzetik ezin bainaiz itzurtzen ahal ere.

Egun batez ikusi nuen, Barleduc-en, Frantzisko bigarrena, erregeri aurkezten zitzaiola, Rene Siziliako erregeren oroimenaren gomendioz, honek egina zuen bere buruaren margo-itxura bat. Zergatik ez zaio berdin onesgarri bakoitzari lumaz bere buruaren margolatzea, arkatzez margolatzen ohi den bezala?

Bada, ez dut oraino ere orban hau ahantzi nahi, jende aurrean agertarazteko arras desegokia: zalantza, munduko eginkizunen eztabaidatzean akats hagitz nahasgarria. Egiteko dudagarrietan ez dakit alderdiaren hartzen:

Ne si, ne no, nel cor mi suona intero 601.

Ongi badakit aburu baten sostengatzen, baina ez hautatzen.

Zeren giza gauzetan, zeinnahi aldetara isurtzen bada ere, itxura anitz agertzen baitira baieztatzen digutenak (Krisipo filosofoak bazioen Zenon eta Kleantes bere irakasleengandik lehen arauak baizik ez zuela ikasi nahi: zeren, froga eta arrazoiei zegokienez, berak ekarriko baitzituen ausarki) zeinnahi aldetara itzultzen banaiz ere, beti aurkitzen dut bertan gelditzeko arrazoirik eta egiantzerik aski. Horrela banatxikie neure baitan hautatzeko zalantza eta libertateari, gertaldiak hertsatzen nauen arte. Eta orduan, egiaren esateko, maizenik luma haizera egozten dut, dioten bezala, eta zoriaren faborean uzten dut neure burua: isurmen eta gorabehera oso arin batek banarama,

Dum in dubio est animo, paulo momento huc atque illuc impellitur 602.

Neure adimenaren zalantza hain berdinki balantzatua da gertaldirik gehienetan non gogotik lotuko bainintzaioke zoriaren eta datoen erabakiari; eta gure giza ahuleziaren gogoeta handiarekin ohartzen natzaie jainkoen historiak berak utzi dizkigun gauza

dudagarrien hautapenen erabakia zoriari eta menturari emateko ohitura horren erduei: Sors cecidit super Mathiam Giza arrazoaia ezpata bikoitza eta arriskatua da. Eta Sokratesen beraren eskuan, haren adiskiderik handiena, ikus ezazu zenbat mutur baduen makila batek.

Horrela, jarraikitzekeo baizik ez naiz gai, eta errazki uzten dut neure buruaren jendaldean eramatera: ez naiz neure indarrez aski fidatzen manatzera ez gidatzera entseiatzeko; atsegin dut neure urratsak besteek marraturik aurkitzea. Bereizketa zalantzati batera menturatu behar bada, nahiago dut bere aburuez gehiago segurtatzen den eta nik neureak baino gehiago besarkatzen dituen halako batenpean izan dadin, neureei finkatze eta oinarria lerrakorra aurkitzen baitiet. Eta ez naiz aldaerrezegia, aurkako aburuetan ahulezia berdin bati ohartzen bainatzaio. .Ipsa consuetudo assentiendi periculosa esse videtur et lubrica. Eginkizun politikoetan bereziki, nahasmen eta ihardespenari zabaltzen den zelai handi bat bada:

Justa pari premitur veluti cum pondere libra

Prona, nec hac plus parte sedet, nec surgit ab illa 605.

Makiaveloren hitzaldiak, adibidez, aski sendoak ziren gairako; izan da, halarik ere, oldartzeko erraztasun handi bat, eta egin dutenek ez dute berorienen oldartzeko erraztasun gutiagorik utzi. Beti edirenen litzateke, halako argudio bati zeren eman ihardespenak, erantzunak, birrerantzunak, hirukunaldiak, laukunaldiak, eta eztabaiden egitura mugagabe hori, gure abokatuek, auzietako faboretan, ahal bezainbat luzatu dutena,

Cædimur, et totidem plagis consumimus hostem 606,

arrazoiek esperientziaz beste oinarririk ez edukiz, eta giza gertakarien ezberdintasunak molde guztietako ereduak erakutsirik. Gure aroko pertsonaia batek badio gure almanaketan, bero dioten lekuan, hotz esan nahi lukeenak, eta heze idorraren ordezt, bermatu beharko balu gertakari bat ala bestea, ez litzatekeela kezkatuko zein alderdiri datxikion, zalantza gertatzen ahal ez den gauzetan salbu, hala nola Eguberrian ezinagoko beroen agintzea, eta San Joan aldera neguko gogorraldiak. Berdin baderitzet gure hitzaldi politikoei: ezartzen zaizuen edozein ustetan, zeure lagunak bezain joko ederra baduzu, hastapen zakar eta ageriegien aurka jotzera ez bazatozen ber. Eta horretaz, nire aldaratearen arabera, eginkizun publikoetan batere molderik ez da hain txarrik, adina eta iraupena daukan ber, aldaketak eta iraultzak baino gehiago balio ez duenik. Gure ohiturak ezinago ustelduak dira, eta isurmen ikaragarri batez makurtzen dira gaizkiagotzearen alde; gure lege eta azturetan, asko badira basa eta izigarriak; halarik ere, egoera hobean gure ezartzeko zailtasunagatik, eta erorketa horren arriskuagatik, ziri bat ezartzen ahal banioke gure errotari eta hein honetan geldiarazi, gogo onean egingen nuke:

nunquam adeo fædis adeoque pudendis

Utimur exemplis, ut non pejora supersint 607.

Gure egoeran aurkitzen dudak gaizkiena egoneza da, eta gure legeek ez dutela gure jantziek baino molde geldiagorik hartzen. Biziki erraza da gobernu baten salatzea eskaskeriagatik, giza gauzak oro horretaz beterik baitira; biziki erraza da bere arau zaharren gutiespena jendalde batengan sortzea: sekula ez zen horretara entseiatu eta gauzatu ez zuen gizonik; baina hondatu denaren ordezt egoera hobe baten finkatzean, honetan asko hoztu dira, entseiatuak zirenetarik.

Neure jokaeratik zati guti egiten diot zuhurtziari; gogotik uzten dut neure buruaren eramatera munduko antolabide publikoan. Zorioneko jendea, manatzen dena manatzen dutenek baino hobeki egiten duena, kausei buruz bere burua nekatu gabe; bere buruaren erabiltzera bigunki uzten duena zeruko ibileraren arabera. Obedientzia ez da hutsa ez lasaia arrazoinatzen eta auzitaratzen duenarengan.

Hitz batez, neure baitara itzultzeko, neure burua ezertan hartzen dudan gauza sekula inork bere burua ezteusetan hartu ez zuena da; neure gomendioa arrunt, ororen eta herrikoia da: zeren, nor axolatu da inoiz ere zentzurik ezaren edukitzeagatik? Bere baitan gezurtamena lekarkeen ustea litzateke: ikusten denean sekula ez dagoen gaitza da; oso zaila eta gotorra da, baina pairalearen ikusmenaren lehen izpiak zulatzen eta ezabatzen duena, eguzkiaren begiradak lanbro itsu bat bezala; gai horretan bere buruaren salatzea desenkusatzea da; eta kondenatzea barkatzea litzateke. Ez zen sekula zamakaririk ez ematxarrik bere eginbeharrerako zentzurik aski zuela gogoan hartu ez zuenik. Errazki ezagutzen dugu besteren baitan kuraiaren, gorputzezko indarraren, esperientziaren, prestutasunaren eta edertasunaren abantaila; baina zentzuaren abantaila ez diogu inori ematen; eta besteren zentzu soil naturaletik abiatzen diren arrazoiak, uste dugu edirenen genituzkeela bakarrik alde horretarik begiratzean. Jakintza, idazkera, eta besteren ekintzetan dakuskigun halako zatiak, arras errazki nabarmentzen dugu geureak gaingitzen badituzte; baina adimenaren eginkizun soilak, bakoitzak uste du bere baitan zegoela halakoen aurkitzea, eta gaizki ohartzen zaie pisu eta zailtasunari, non ez den nekez eta ezinagoko alde alderaezin batez. Horrela bada, gomendio eta laudorio guti igurikatu behar dudan ariketa-mota bat da, eta omen gutiko osaketa-molde bat.

Orduan, norentzat idazten duzu? Liburuetako eremua dagokien jakileek, irakaspenaz beste baliorik ez dazagute eta ez dute gure gogoetan onartzen erudizio eta arteaz beste eginmolderik: Eszipionetarik bat bestetzat hartu baduzu, zer balioko adierazkizunik gelditzen zaizu⁶⁰⁸? Aristoteles ez dazaguenak, haien arabera bere burua ez dazagu horrekin batera. Gogo arrunt eta herrikoiek ez dakusate hitzaldi goratu eta aske baten grazia eta pisua. Bada, bi jende-mota horiek betetzen dute mundua. Hirugarrena, zuri partzuergoan gertatzen zaizuna, berez gogo arautu eta azkartuena, hain arraroa da non doi ez baitu izenik ez mailarik gure artean: erdi denbora galdua da haren atsegintzera entseiatzea eta ahalegitea.

Esaten ohi da naturak egin digun banaketarik zuzenena zentzuarena dela: zeren inor ez baita hark banatu diona askiesten ez duena. Ez ote da arrazoiak? Harago begiratu lukeenak, bere ikusmenaz harago begiratu luke. Uste dut iritzi on eta sendoen edukitzea; baina nork ez du beste hainbeste berez uste? Frogetan dudan hoberenatarik bat neure buruaz dagidan onespen eskasa da; zeren ongi bermatuak egon ez baleude, errazki utziko baitzuketen neure buruari diodan maitasun bereziak liluratzen, dena neure baitara baitarama eta doi ez baita honetaz landara hedatzen. Besteek ezin konta ahala adiskide eta ezagun andana bati ematen diotena, beren ospeari, beren handigoari, nik dena badakart neure gogoaren atsedenera eta neure baitara. Beste inora ihes doakidana ez da berez neure hitzaldiaren antolabidekoa,

mihi nempe valere et vivere doctus ⁶⁰⁹.

Bada, neure iritziak, ezinagoko ausartak eta iraunkorrak aurkitzen ditut neure eskasgoaren kondenatzean. Zinez, hori da beste edozein baino gehiago neure adimenak lantzen duen gai bat. Jendeak beti begiratzen du bekoz beko; nik neure ikusmena biltzen dut barrenean, hor finkatzen eta badihardut: neure baitan baizik ez dut egitekorik, etengabe badut neure burua gogoan, neurtzen eta dastatzen dut. Besteak badoaz beti kanpora, ongi gogoetatzen badute; beti badoaz aurrera,

nemo in sese tentat descendere ⁶¹⁰,

ni neure baitan biribilkatzen naiz.

Egiaren bereizteko gaitasun hau, zernahi ere den neure baitan, eta neure sinesmenaren errazki ez estekatzeko aldarte libre hau, neure buruari zor diot nagusiki: zeren ditudan irudimen bermeenak eta orokorrenak, nolabait esateko neurekin batera sortu zirenak dira. Jitezkoak dira eta osoki nireak. Gordinik eta bakanik sortzen ditut, sortzapen ausart eta azkar batez, baina apur bat uher eta osatugabea; gero finkatu eta gotortu ditut

besteren indarrez eta zaharren hitzaldi sendoen bidez, haiekin ados gertatu bainaiz ustean: haiek atxikimendua segurtatu didate, gozamen eta jabego osoagoa eman didate.

Bakoitzak nahi duen gogo bizitasun eta argitasunaren gomendioa, nik araubidearena nahi dut; ekintza distiratsu eta ageri batena, edo jakintza berezi batena, nik aburu eta ohiturezko antolabide, egokitasun eta lasaitasunarena nahi dut. Omnino, si quidquam est decorum, nihil est profecto magis quam aequabilitas universae vitae, tum singularum actionum: quam conservare non possis, si, aliorum naturam imitans, omittas tuam.

Horra, bada, noraino sentitzen naizen lehen zati horren hobenduna, harrokeriaren bizioa zegokiola nioena. Bigarrenean, hurkoaren aski ez onestea baita, ez dakit hain ongi desenkusatzan ahal naizen; zeren, zernahi ere kosta zaidan, denaren esatera deliberatua bainaiz.

Menturaz, aldarte zaharrekin dudan etengabeko harremanak eta iragan aroko gogo aberats haien Ideiak hastiarazten nau hurkoaz eta neure buruaz ere; edo, egiazki, gauzak aski hala-holakoak sortzen dituen mende batez bizi gara: ez dut inor miresmen handiaren gai ezagutzen; doi ez dut gizonik ezagutzen epai ahal izateko behar duen halako hurbiltasunez; eta neure baldintzak maizenik harremanetan ezartzen dizkidanak, gutiz gehienak, gogoaren lantzeaz axola guti duten jendeak dira, haiei zoriontasun osotzat ohorea eta osotasun orotzat suhartasunaz besterik ez baitzaie eskaintzen. Besteren baitan ederrik dakusadana hagitz gogotik goresten dut: eta maiz uste dudana gainetik gorai patzen dut, neure buruari gezurretan aritzea horraino baimentzen diot. Gai faltsutan ez baitakit asmatzen. Neure adiskideez gogotik ematen dut lekukotasuna haien baitan goresgarri aurkitzen dudana; eta oin bat baliotik oin eta erdi egiten dut gogotik. Baina ez dituzten nolakotasunen ematea, ezin dezaket, eta dauzkaten akatsetarik ageriki defendatzen ere ez.

Neure etsaiei ere, garbiki ematen diet behar dudana ohorezko lekukotasuna. Neure atxikimendua aldatzen da; neure ustea, ez. Eta ez dut neure auzia nahasten berean ez dauden beste gorabeherekin; hain axolatia bainaiz neure ustearen libertateaz, non gaizki uzten ahal baitut edozein pasionerengatik. Gezurretan aritzean, laido handiago egiten diot neure buruari gezurra esaten diodanari egiten diodana baino. Pertsiar herriaz azpimarratzen ohi da ohitura goresgarri eta eskuzabal hau: beren hiltzerainoko etsaiez, azkenerainoko gerra egiten baitiete, ohoreki eta zuzenki mintzatzen direla, haien bertuteak dakarren bezainbat.

Badazaguzkit zati ezberdin ederrak dauzkaten gizonik aski: nork, gogoia; nork, trebetasuna; nork, kontzientzia; nork, mintzaira; nork, jakintza bat; nork, besterik. Baina, orotariko gizon handirik, eta hainbat zati eder elkaturik edukirik, edo halako bikaintasun-mailan non harritu behar den, edo ohoratzen ditugun iragan arokoekin alderatu, neure zoriak ez dit inor erakutsi. Bizirik ezagutu dudana handiena, gogo zati naturaletan diot, eta hobekien sortua, Étienne de la Boétie zen; egiazki gogo bete bat zen eta zentzu orotan aurpegi eder bat erakusten zuena; molde zaharreko gogo bat eta ekintza handiak sortu zituzkeena, haren zoriak nahi izan balu, izaera natural hari jakintzaz eta ikerpenaz asko gehitu baitzion. Baina ez dakit nola gertatzen den (eta, dudarik gabe, gertatzen baita) beste inorengan baino hutsalkeria eta ahulezia gehiago aurkitzen dela jakintza gehiago edukitzeko adierazpena egiten dutenengan, ofizio letratu eta liburuen menpean dauden karguetan sartzen baitira: edo haiengandik gehiago eskatzen eta igurikatzen baita, eta ez baitira haiengan akats arruntak desenkusatzan ahal; edo jakiteko usteak aitzinago egiteko eta agertzeko ausartzia ematen dielako, hortik galtzen eta beren burua gaizki saltzen baitute. Eskulangile batek gai apal batean baino hobeki bere zozokeria darakusan bezala eskuarteaz daukan gai aberats batean, zozoki eta arauen aurka moldatzen eta nahasten baldin badu, eta gehiago gaitzitzen ohi da urrezko estatuan den akatsaz, igeltsuzkoan dagoenaz baino. Beste hainbeste badagite

hauek aitzinatzen dituztelarik berez eta beren lekuan onak liratekeen gauzak: neurtasunik gabe baliatzen baitira, beren oroimena ohoratuz beren adimenaren bizkar. Zizeron, Galiano, Ulpiano eta San Jeronimo ohoratzen dituzte, eta beraiek irrigarri bilakatzen dira.

Gogotik itzultzen naiz gure hezkundearen gaitasunik ezaren hitzaldi horretara⁶¹². Ez du helburutzat eduki gure on eta zuhur bilakatzea, baina jakile: eta bururatu du. Ez digu bertute eta zuhurtasunaren besarkatzen irakatsi, baina haien eratorpena eta etimologia inprimatu digu. Bertutearen deklinatzen badakigu, eta ez dakigu haren maitatzen; eta ez dakigu egitez eta esperientziaz zuhurtasuna zer den, mordoiloiz eta buruz badakigu. Gure auzokideez ez gara arraza, ahaidego eta elkargoen jakiteaz askiesten, adiskidetzat eduki nahi ditugu eta haiekin solasbide eta elkar aditze zerbait eraiki; hark bertutearen definizioak, sailkapenak eta zatiketak irakatsi dizkigu, genealogia baten goitizen eta adarrak bezala, gu eta haren artean trebetasunezko elakatzeko edo barreneko hurbiltasun zerbaiten eraikitzeko beste axolarik gabe. Geure irakaskuntzarako ez dizkigu usterik sendo eta egiazkoenak dituzten liburuak bereizi, baina greko eta latinik hoberena darabiltenak eta, ele eder horien artetik, irudimenean isurarazi digu aitzinaroko aldarterik hutsalenak. Hezkuntza on batek, adimena eta ohiturak aldatzen ditu, Polemon gizon gazte greko galdu hari gertatu bezala, Xenokratesen irakaspen baten entzutera menturaz joanik, ez baitzitzaien bakarrik ohartu irakurlearen elegintza eta jakintzari, eta ez baitzuen etxera eraman bakarrik gai eder baten jakintza, baina fruitu ageriago eta ederrago bat, bere lehen biziaren aldakuntza eta zuzentzea baitzen. Nork somatu du inoiz halako ondoriorik gure irakaskuntzatik?

faciasne quod olim

Mutatus Polemon? ponas insignia morbi,

Fasciolas, cubital, focalia, potus ut ille

Dicitur ex collo furtim carpsisse coronas,

Postquam est impransi correptus voce magistri? ⁶¹³

Jendearen molderik onesgarriena jakinezaz azken mailan dagoena iruditzen zait, eta eskaintzen digu harreman arautuago bat. Nekazarien ohiturak eta usteak eskuharki aurkitzen ditut gure filosofoenak baino aratuagoak egiazko filosofiaren manamenduen arabera. Plus sapi vulgus, quia tantum quantum opus est, sapit.

Kanpoko itxurez epaitu ditudan gizonik nabarmenenak (zeren, neure moduz epaitzeko, hurbilagotik argitu beharko bailirateke), izan dira, gerra eta gudu jakintzaren egitekoan, Gisako dukea, Orleansen hil zena, eta Strozzi mariskala zena. Jakintzako eta bertute ezarrunteko jendeetan, Olivier eta l'Hospital, Frantziako kantzilerrak. Uste dut ere poesiak ukan duela bere arrakasta gure mendean. Egile on mukuru bat badugu ofizio horretan: Aurat, Beze, Buchanan, l'Hospital, Mont-doré, Turnebus. Frantseser⁶¹⁵ dagokienez, uste dut goratu dutela sekula egonen den mailarik garaienera; eta Ronsart eta du Bellay bikaintzen diren zatietan, ez ditut doi aurkitzen betetasun zaharretik urrundua. Adrianus Turnebusek bere mendeko eta aspaldiko inork baino gehiago eta hobeki bazekien zekiena.

Zendu berri den Albako dukearen eta gure Montmorency-ko kunetablearen biziak handiak izan dira eta zorizko elkarren arteko antzekotasun arraro anitz eduki dituztenak; baina honen heriotzaren edertasun eta ospea, Paris eta bere erregeren ikusbegan, haren zerbitzuan eta bere hurbilenen kontra, bere zuzendaritzaz armada garaile baten buruan, eta esku ukaldi batez, hain ezinagoko zahartzaroan, iruditzen zait merezi duela neure aroko gertakari ohargarrien artean ezarria izan dadin.

Halaber ere, Nouë jaunaren ontasun iraunkorra, ohituren ezintasuna, eta kontzientziako ernetasuna, gerrako gizon handia eta hagitx aditua, betidanik hazi den alderdi armatuen halako zuzengabetasun, gaizki saltze, basakeria eta ebasgoaren egiazko eskolan.

Leku askotan izan dut Marie de Gournay le Jars, neure elkargoko alabarengan dudanez esperantzaren publikatzeko atsegina, zinez aitazki baino anitzez ere gehiago maitaturik eta neure baztertasun eta bakartasunean inguratutik, neure izatearen zati hoberenatarik bat bezala. Munduan ez diot hari baizik begiratzen. Gaztaroak asmatzerik eman badezake, gogo hori izanen da egun batez gauzarik ederrenen gai, eta besteren artean adiskidetasun txiki sainduaren betetasuna, oraindik haren sexua igan izan daitekeela irakurtzen ez baitugu. Haren ohituren zintzotasun eta sendotasunak aski dira jadanik, neureganako maitasuna hagitik ugaria baino gehiagokoa, eta halakoa, hitz batez, non deus ere ez baita eskatzen ahal, baizik eta daukan neure amaieraren axolak, aurkitu nauen berrogeita hamar urteengatik, oinaze gutiago eragin liezaion. Emakume, mende honetan, hain gazterik eta bakarrik bere auzoan, ene lehen Entseiei buruz egin zuen aburua, eta ikusi baino lehen, bakarrik nitaz hartu zuen estimuagatik, denbora luzez maitatu eta desiratu ninduen oldarpen ospetsua biziki aipagarri den gorabehera da. Garaitiko bertuteek arrakasta eskas edo ezer ere ez dute ukan aro honetan; baina suhartasuna herriko bilakatu da gure gerra zibilengatik eta zati horretan aurkitzen dira gure artean osotasunarainoko gogo bermeak, eta metaka, haien bereizketa ezinezkoa baita.

Horra, ez ohizko eta ez arruntezko handigoaz ezagutu dudanez oro, orain arte.

XVIII

Gezuramenaz

Alabaina, esanen zait nor bere buruaz idaz gaitzat baliatzeko xede hau gizon arraro eta ospetsuen baitan, beren omenagatik haien ezagutzeko nahikunde zerbait eragin baitzuket, barkagarria litzatekeela. Egia da; aitor dut; eta ongi badakit molde arrunteko gizon baten ikusteko eskulangile batek doi goititzen dituela begiak bere beharretik, bitartean, hiri batera pertsonaia handi eta ohargarri baten heldzearen ikusteko, jostak eta dendak husten dira. Gaitzki doakio bere buruaren ezagutaraztea zeren imitaraz ez duenari, eta bere biziak eta usteek eredutzat balio ahal ez dutenari. Zesarrek eta Xenofonek ukan dute beren adierazpenaren finkagarri eta bermegarria beren ekintzen handigoan, oinarri zuzen eta sendo batean bezala. Horrela opagarriak dira Alexandro handiaren paper egunkariak, Augustok, Katonek, Silak, Brutok eta bestek utzi zituzten beren ekintzen xehetasunak. Halako jendegandik onesten eta ikertzen dira beren itxurak, burdingorritz eta harriz ere.

Baieztape hau oso egiazkoa da, baina apur batez baizik ez dagokit:

Non recito cuiquam, nisi amicis, idque rogatus,

Non ubivis, coramve quibuslibet. In medio qui

Scripta foro recitent, sunt multi, quique lavantes 616.

Ez dut hemen hiri baten erdigunean, eliza edo plaza batean ezartzeko estatua bat eraikitzen:

Non equidem hoc studeo, bullatis ut mihi nugis

Pagina turgescat...

Secreti loquimur 617.

Liburutegi baten xokorako da, eta irudi honetan berriz nire aurkitzeko eta solastatzeko atsegina ukan dezan auzokide, ahaide, adiskide batentzat. Besteek beren buruz mintzatzeko bihotza hartu dute gaia zuzen eta aberats aurkitzeagatik; nik, aitzitik, hain antzu eta iharturik non ez baita arrandiamen susmorik gertatzen ahal.

Gogotik epaitzen ditut besteren ekintzak; neuretarik epaitzeko guti ematen dut beren ezteuskeriagatik.

Ez dut neure baitan hainbat ongirik aurkitzen gorritu gabe esan ahal izateko.

Zein atsegina litzaidakeen honela ere neure aitzinekoen ohiturak, aurpegia, moldea, hitz arruntak eta zoria aipa diezazkidan norbaiten entzutea! Zein erne nintzaiokeen! Zinez,

izaera gaizto batengandik abiatuko litzateke gure adiskide eta aitzinekoen margo-itxuren, haien jantzi eta armetako moldeen gutiestea. Haien idazkiak, sinadurak eta balio zioten ezpata berezi bat gordetzen ditut, eta ez ditut gelatik kanporatu neure aitak eskuarki ohi zeramatzan makila luzeak.

Paterna vestis et annulus tanto charior est posteris, quanto erga parentes major affectus.

Halarik ere, neure gerokotasuna beste nahikundekoa bada, edukiko dut zertaz mendeka: zeren ez bailezakete nitaz kontu gutiago egin, aro horretan, nik haietaz eginen dudana baino. Honetan, publikoarekin dudan harreman guztia haren idazpen ustegabeko eta errazagoaren tresnak hartzen ditudala da. Ordainez, eragotziko dut gurin puska zerbait ur dadin merkatuan.

Ne toga cordyllis, ne penula desit olivis ⁶¹⁹,

Et laxas scombris sæpe dabo tunicas ⁶²⁰.

Eta inork ez banau irakurriko ere, neure denbora galdu ote dut hainbat asti-ordu gogoeta hain onuragarri eta atseginetan iharduki izanagatik? Itxura hau neure gainean moldatuz, hain maiz eraiki eta osatu behar izan dut neure buruaren ateratzeko, non ereduak azkartu eta inola ere moldatu baitu bere burua. Besterentzat neure buruaren margotzean, lehenak ziren baino kolore garbiagoez margotu dut neure baitan. Ez dut neure liburua gehiago egin, neure liburuak egin nauena baino, bere egilearen gai bereko liburua, langai berezi batez, neure biziaren soinadarra; ez langai eta helburu izun eta arrotz batez, beste liburuak oro bezala.

Neure denbora galdu dut neure burua hain etengabeki eta xeheki kontutan hartzeagatik? Bere burua bakarrik ametsez eta mihiez begizatzen dutenek ez dute hain lehenik ikertzen ez zulatzen nola horretaz bere ikerpena, eginbeharra eta ofizioa egiten duenak, iraupeneko idazki bati lotzen baitzaio, bere fede eta indar osoaz.

Atseginik eztenak barrenean egosten dira eta ihes doaz hatzik utzi gabe, eta ez dira bakarrik jendearen ikusmenetik itzurtzen baina beste batenetik ere.

Zenbat aldiz desbideratu nau eginbehar honek gogoeta aspergarrietarik! Eta aspergarritzat zenbatu behar dira arin guztiak. Berezirik ihardukitzeko ahalmen zabal batez hornitu gaitu naturak, maiz deitzen gaitu hartara guri irakasteko alde batez gizarteari gagozkiola zor, baina alderik hoberenean geure buruari. Neure irudimenaren behartzeko antolabide eta xede zerbaitez amestera, eta galtzetik eta haizearen arabera ibilkatzetik zaintzeko, agertzen zaizkion hainbat gogoeta xeheren gorpuzteaz eta idazteaz baizik ez da. Badantzuzkit neure ameskeriak paperaratu behar baititut. Zenbat aldiz, dolutua izanik jendetasunak eta arrazoiak publikoki erantzutea debekatzen zidan ekintza zerbaitez, isuri naizen hemen eta ez irakaspen publikoren gogorik gabe! Eta bai, azote poetiko hauek:

Zart begi'ta muturrean

Zart Sagoinen bizkarrean! ⁶²¹

are hobeki inprimatzen dira paperean haragi bizian baino. Zer, liburuei belarria ernekiago ematen badiet kirikatzen ari bainaiz ea zerbait ebasten ahal dudan neurearen esmaltatzeko eta habeztatzeko?

Ez dut inola ere ikertu liburu baten egiteko; baina inola ere ikertu dut egin nuelako, inola ere ikertzea bada eskuztatzea eta burutik edo oinetarik behin egile bat behin beste baten zimikatzea; ez neure usteen moldatzeko; bai, behin moldatuz geroz, bermatzeko, finkatzeko eta zerbitzatzeko.

Baina nor sinesten dugu bere buruaz mintzatzen, hain aro higatu batez? guti baita, edo batere, beste batez mintzatzen sinets dezakeguna, gezurretan aritzeko interes gutiago denean. Ohituren usteltzearen lehen ezaugarria egiaren ezabatzea da: zeren, Pindarok zioen bezala, egiati izatea bertute handi baten hasiera baita, eta Platonek bere errepublikako buruzagiari eskatzen dion lehen artikulua. Gure oraingo egia ez da izaten

dena, baina beste bati sinestarazten zaiona: dirua deitzen dugun bezala ez bakarrik legezkoa dena baina sinesmena duen faltsua ere. Gure herria aspalditik bizio horregatik erantzukia izan da; zeren Salviano Massiliarrak, Valentiniano enperadorearen arokoa baita, baitio frantsesen baitan gezurretan aritzea eta zinen haustea ez dela bizioa, baina mintzamolde bat. Lekukotasun hau zorroztu nahi lukeenak balerrake orain bertute bat zaiela. Hartan moldatzen eta trebatzen ohi da, ohorezko ariketa batez bezala; zeren itxura egitea mende honetako nolakotasun nabermenetarik bat baita.

Horrela, maiz gogoetatu dut nondik sor litekeen bizio horren erantzukiaz beste edozeinez baino garrazkiago laidostaturik sentitzeko hain hertsiki betetzen dugun ohitura hau; gezurraren aurpegiratzea hitzez egin dakigukeen laidorik gaitzena dela. Horren gain, aurkitzen dut naturala dela zikinduenak garen akatsetarik geure buruaren defendatzea. Badirudi salaketaz gaitzituz eta hunkituz, ukalditik arintzen garela inondik ere; egiazki baldin badugu ere, itxuraz bederen gaitzesten dugu.

Izanen litzateke ere erantzuki horrek badirudi inguratzen duela oilakeria eta bihotz motelkeria? Nork bere hitzaren gezurtatzea baino ageriagorik ote da? eta nork bere jakintzaren gezurtatzea?

Bizio zitala da gezurretan aritzea eta zahar batek oso ahalkegarriki margotzen du dioelarik Jainkoaren gutiesteko lekukotasunaren ematea dela, eta horrekin batera gizonen beldur egotekoa. Ez da joriago itxuratzen ahal haren hastioa, apalkeria eta araurik eza. Zeren, zer irudika daiteke txarragorik gizonekiko beldurti eta Jainkoarekiko ausarta izatea baino? Gure adimena hitzaren bide bakarretik zuzendurik, faltsutzen duenak gizarte publikoa gaizki saltzen du. Gure nahikundeak eta gogoetak harremanetan diren tresnabide bakarra da, gure gogoaren itzultzailea da: huts egiten badigu, ez gatzizkio elkarri, eta dugu elkar ezagutzen. Engainatzen bagaitu, gure harreman osoa hausten du eta gure bizimoldeko esteka guztiak ezabatzen.

India berrietako herri zenbaitek (ez dira haien izenak aipatzen ahal, ez baitira jadanik; zeren eredu harrigarri eta aditugabe bateko konkistaren hondamena izenen eta lekuen ezagutza zaharraren ezeztatzeraino hedatu baita) beren jainkoei giza odola eskaintzen die, baina soilik mihi eta belarrietarik ateraia, gezur aditu eta ahoskatuaren bekatuaren zigortzat.

Greziako lagun on hark bazioen haurrak kurkuluxketan jostatzen dutela, gizonek hitzetan.

Gure gezurtamenen ohitura ezberdinei, eta horretan gure ohoreko legeei eta eduki dituzten aldaketei buruz, bestaldi baterako uzten dut dakidanaren esatea, eta ikasiko dut, ahal badut, zein arotan hasi zen gure hitzen zehazki pisatzeko eta neurtzeko eta haiei gure ohorearen lotzeko ohitura hau. Zeren usterraza baita behiala ez zela erromatar eta grekoen artean. Maiz berri eta arraroa iruditu zait elkarren gezurtatzen eta laidostatzen ikustea auzitan sartu gabe. Haien eginbeharraren legeek bazuketen gureaz beste den bide bat. Zesarri deitzen zaio noiz ebaslea, noiz hordia, sudur aitzinean. Badakusagu elkarren aurka egiten duten irainen libertatea, herri bateko eta besteko gerrako buruzagi handiek diot, hitzak hitzez ordaintzen baitira eta ez baitira beste ondoriotara eramaten.

XIX

Kontzientziaren libertateaz

Eskuarki ikusten dira xede onek, neurtasunik gabe bideratuak badira, gizonak daramatzatela oso ondorio biziosoetara. Frantzia gerra zibilez inarrosirik den gatazka honetan, zalantzarik gabe, alderdirik hoberen eta sendoena herriko erlijio eta bizimolde zaharra gordetzen duena da. Halarik ere, darraizkion gogo oneko jendeen artean (ez bainaiz mintzo estakurutzat baliatzen direnez, edo beren mendeku berezien gauzatzeko, edo beren dirugosearen hornitzeko, edo printzeen faboreari jarritzeko; baina erlijioarekiko egiazko lehiaz, eta beren aberriko bakearen eta egoeraren gordetzeko

maitasun sailduaz egiten dutenez), haietarik, diot, asko ikusten dira pasioneak arrazoiaren mugaz landara eramanez, eta batzuetan harrarazten dizkie aholku zuzengabe, bortitx eta ausartak ere.

Egia da gure erlijioa legez manu-indarraren hartzen hasi zen lehen aro haietan, haien lehiak asko armatu zituela liburu pagano-mota guztien kontra, nondik letretako jendeek jasaten baitute galtze ikaragarri bat. Banago desmasia horrek letrei ekarri diela barbaroen su guztiek baino kalte gehiago. Kornelio Tazito lekuko ona da: zeren Tazito enperadoreak, haren ahaideak, munduko liburutegietan orotan arau adierazien bidez hura ezarri bazuen ere, batere ale osorik ez da itzuri ahal izan gure sinesmenaren aurkako bospasei pasarte hutsalengatik ezeztatu nahi zutenen bilketa axolatsutik. Hau ere egin dute: laudorio faltsueen errazki ematea gure alde zeuden enperadore guztiei eta gure aitzia zeudenek ekintza guztien orokorki kondenatzea, Juliano enperadorearen baitan, Apostata goitizendaturik, ikusterraza den bezala.

Zinez gizon txit handia eta berezia zen, filosofiaren hitzaldiez bere gogoia tindaturik zeukanez, haien arabera bere ekintza guztien arautzeko aitormena egiten baitzuen; eta, egiazki, ez da bertute-motarik batere non eta hark eredu nabarmenik utzi ez duen. Kastitatean (haren biziaren ibilbideak horren lekukotasun ageria ematen baitu) hartaz irakurtzen da Alexandro eta Eszipionen aldarte berdina bat: ema-gatibu hagitx eder askotarik ez zuela bat bakarrik ikusi nahi, bere adin lorean izanik, zeren partoez hila izan baitzen hogeitamar urtetan bakarrik. Zuzenbideari dagokionez, hark berak hartzen zuen alderdien entzuteko nekea; eta jakinahiaz harenganatzen zirenei galdegiten bazien ere zein erlijiotakoak ziren ere, gurearen aldera zeukan etsaigoak ez zion balantzari kontrapisurik batere eman. Berak egin zituen lege on anitz, eta moztu zuen bere aitzinekoek biltzen zituzten zerga eta petxen zati handi bat.

Bi historigile on ditugu haien ekintzen lekuko-ikusleak: haietarik batek, Martzelinok, garrazki gaitzesten du bere historiako leku ezberdinetan eskola eta erretoriko eta gramatiko kristauei irakastea debekatu zuen haren araua, eta badio nahi lukeela ekintza hori isilpean estalia balitz. Itxurakoa da, zerbait garratzagorik egin izan balu gure kontra, ez zukeela ahanzi, gure alderdiari aski isuria baitzen. Garratza zitzagun, egia da, baina ez, hala ere, etsai oinazkoia; zeren gure jendeek beraiek hartaz aipatzen baitute historia hau, Kalkedonia hiri inguruan zebilelarik egun batez, Maris, hango apezpikua, Kristoren gaizki saltzaile gaiztoaren deitxera ausartu zela, eta hark deusik ez zuela egin baizik eta erantzutea: “Hoa, esteiaria, negar egik heure begien galtzea” Eta apezpikuak ihardetsi zuela oraino: “Jainkoari eskerrak zizkioat ikusmenaren kentzeagatik, hire aurpegi axolgabearen ez ikusteko” horretan, diote, jasankortasun filosofiko bat erakutsiz. Eta ekintza hau ez dagokieke ongi gure kontra eragin omen zituen oinazkoikeriei. Kristautasunaren etsaia zen (dio Eutropiok, ene beste lekukoak) baina odolerraino heldu gabe.

Eta, haren zuzentasunari itzultzeko, deustaz ez zaio salatzen ahal salbu eta, haren inperioaren hasieran, Konstantino haren aitzinekoaren alderdiari zerrazkionen aurka baliatu zen gogorkeriaz. Haren heintasunari buruz, bizimodu gudatxar bat bizi zuen beti, eta bakearen erdian gerraren hertsitasunerako prestatuko zatekeenak bezala jaten zuen. Zainketa halakoa zen haren baitan non gaua hiruzpalau zatitan banatzen baitzuen, loari ematen ziona xehena zelarik; garaitikoaz baliatzen zen bera pertsonalki armadaren eta zaindarien egoeraren ikuskatzeko, edo estudiatzeko; zeren, haren beste nolakotasun arraroen artean, oso bikaina baitzen literatura mota orotan. Alexandro handiaz aipatzen zen, etzana izanik, loak bere gogoeta eta ikerpenetarik desbidera zexan beldurrez, ontzi bat ezarrarazten zuela oheari atxikia, eta haren eskuetarik bat bazeukan kanpoan burdingorritzko pilota batekin, loak harturik eta behatzen atxikimenduak laxaturik, pilota horrek, ontzirako erorketaren asotsaz, iratzar zexan amoregatik. Honek hain hedaturik

zeukan gogo nahi zuenari buruz, eta kealdiek hain guti eragotzirik haren barautze bereziagatik, non ongi iragaiten baitzen tresnatze hori gabe. Guda-jakintzari dagokionez, miresgarria izan zen buruazagi handi baten zati orotan; halaber kasik bere bizi osoan izan zen guda-ariketa etengabeko batez, eta gehienetan gurekin Frantzian, aleman eta frankoen aurka. Menturaldi gehiago ikusi eta bere buruaren frogak maizago egin dituen inoren oroimenik doi ez dugu. Bere heriotzak badu Epaminondasenarekin antzekotasun zerbait; zeren ukaldi batek joa izan baitzen, eta erauztera entseiatu zen, eta egin zukeen, gezia zorroztua izanez moztu izana ez balitz eta eskua laxatu. Etengabe eskatzen zuen egoera horretan berean eraman zezaten gatazkara bere soldaduen sustatzeko, haiek hura gabe baitziharduten gudu hura, hagitz sutsuki, gauak armadak bereizi zituen arte. Bere bizia eta giza gauzak gutiespen berezitan zeuzkan, filosofiari zor. Arimen betierekotasunaren sinesmen azkarra zeukan.

Erljio-gaian, hutsik egina zen osoki; apostata goitizendatu zaio gurearen uzteagatik; hala ere uste hau itxurazkoagoa iruditzen zait: sekula ez zatxikiola bihotzez, baina, legeen obedientziagatik, itxura egin zuela inperioa eskuan eduki arte. Berean hain sineskeriatsua zen non bere arokideak burlatzen baitziren; eta partoen aurka garaipena ukan balu badiote munduko idien arraza akiazi zukeela bere sarraskien askiesteko; jakintza aztitzaileaz zozoturik zen ere, eta sinesmena ematen zien asmakizun-molde orori. Hiltzean, bazioen beste gauzen artean, jainkoei gogo ona ezagutzen eta eskertzen ziela zeren ustekabean hil nahi izan baitzuten, aspalditik ohartarazirik bere azkentzearen leku eta orduari, eta ez heriotza beratz edo laxo batez, egokiagoa jende alfer eta minberei, ez ilaungarri, luze eta mingarri batez; eta aurkitu zutela molde goren horretaz hiltzeko gai, garaipenen ibilbidean eta adinaren lorean. Marko Brutoren ameskeria bezalako bat zeukan, lehenik Galian mehatxatu baitzuen eta gero Persian, heriotzeko heinean, agertu baitzitzaion.

Zauriturik sentitu zenean edukiarazten zaion mintzamolde hau: edo, besteen arabera: , gehitzen diren beste mirakuluak bezala, ez zatekeela ahanzi, nire lekukoek entzuna izan balitz, armadan baitzeuden eta haren amaieraren mugimendu eta hitzik xehenak azpimarratu baitituzten.

Eta, nire gaiaren xedera itzultzeko, bere baitan aspaldi berotzen zuen paganismoa, dio Martzelinok; baina, bere armada osoa kristauez baitzen, ez zen agertzera ausartzen. Hondarrean, bere nahikundearen argitaratzeko bere burua aski azkarrik ikusi zuelarik, jainkoen tenploak zabalarazi zituen, eta bide guztiez entseiatu zen idolatriaren ezartzera. Bere xedearen gauzatzeko, Konstantinoplan jendea bereizirik eliza kristaueko apezpiku zatituekin aurkiturik, beregana jauregira etorrazirik, gaztigatu zien berehala desadostasun zibilen iraungitzeko, eta bakoitzak eragozpenik ez beldurrik gabe zerbitza zezala bere erlijioa. Axola handiz eskatzen baitzuen, baimentze horrek zatiketako alderdiak eta azpilanak berretu zituzkeelako esperantzarekin, eta beraz bere aurka jendearen biltzea eta gotortzea eragotziko zukeela haien xede bateratu eta elkartuaren bidez; kristau zenbaiten oinazkoikeriaren bidez entseiatu munduan ez dela gizona bera bezain ihizi beldurgarririk gizonarentzat.

Horra haren hitzak guti gorabehera: gogoetagai baita Juliano enperadorea baliatzen dela zatiketa zibilaren nahasketaren sustatzeko gure erregeak iraungitzeko baliatu berri diren libertateko antolabide bereaz. Esan daiteke, alde batetik, alderdiei brida laxoaren uztea beren ustearen ihardukitzeko, zatiketaren hedatzea eta ereitea dela; kasik emendatzeari esku ematea dela, haien lasterraldia esteka eta eragotz dezan legeen hesirik ez behartzerik ez izanez. Baina, bestaldetik, esanen litzateke ere alderdiei brida laxoaren uztea beren ustearen ihardukitzeko, beraztea eta biguntzea dela erraztasunaren bidez, eta arrarotasun, berritasun eta zailtasunaz zorrozten ohi den eztenaren kamustea dela. Eta

gehiago uste dut, gure erregeen debozioaren ohoretan, nahi zutena ezinik, ahal zutena nahi zutelako itxura egin dutela.

XX

Ez dugu ezer hutsik dastatzen

Gure baldintzaren ahuleziak eragiten du gauzak, beren soiltasun eta hustasun naturalean, ez daitezkeela gure erabilerara etor. Gozatzen ditugun elementuak aldatuak dira, eta metalak berdin: urrea gaizkiagotu behar da beste gai baten bidez gure zerbitzurako egokitzeko.

Bertute hutsak ere, Aristonek, Pirrok eta estoikoek biziaren helburua egiten baitzuten, ez du balio ahal osaketarik gabe, eta atsegin zirenaiko eta aristipoarrak ere ez.

Dauzkagun atsegin eta ontasunetan batere ez da gaizki eta eragozpen nahasketarik gabe, medio de fonte leporum

Surgit amari aliquid, quod in ipsis floribus angat ⁶²².

Gure ezinagoko atseginak badu oihumin eta kexa itxura zerbait. Ez ote zenuke esanen arrenkuraz hiltzen dela? Eta haren iduria bere gorentasunean moldatzen dugularik epiteto eta nolakotasun erikor eta mingarriez itxuratzen dugu: ilauntasun, beraztasun, ahulezia, aldixartze, morbidez ⁶²³; haien ahaidetasun eta gai berekotasunaren lekukotasun handia.

Poztasun sakonak badu larritasun gehiago alaitasuna baino; ezinagoko askiespen beteak lasaitasun gehiago arraitasuna baino. Ipsa faelicitas, se nisi temperat, premit Erraztasunak alatzen gaitu.

Neurtitz greko batek zentzu horretan dioena: hots, ez digutela ematen batere hutsik ez osorik eta gaizki zerbaiten saritan erosten ez dugunik.

Lana eta atsegina, berez hagitz ezberdinak, elkartzen dira hala ere ez dakit zein jostura naturalez.

Sokratesek dio jainko bat entseiatu zela min eta atseginaren oratzera eta nahastera, baina, ezin bururatuz, erdietsi zuela bederen buztanetik batzea.

Metrodorok bazioen goibeltasunean atseginezko nahasmen zerbait badela. Ez dakit besterik esan nahi ote zuen; baina nik ongi irudikatzen dut badela xederik, baimentzerik eta atseginik goibeltasunaren bazkatzean; oraindik nahas daitekeen handinahiaz besterik diot. Goibeltasunaren altzoan berean bada eztitasun eta leuntasun itzal zerbait irri eta lausengu egiten diguna. Ez ote dira hartaz janaria egiten duten izaerak?

est quædam flere voluptas ⁶²⁵.

Eta badio Atalok, Senekaren baitan, geure adiskide galduen oroimena atsegin zaiguna mingatxa ardo zaharregiari bezala,

Minister vetuli, puer, falerni,

Inger mi calices amariores ⁶²⁶;

eta sagar eztiki mingatxak bezala.

Naturak agertzen digu nahasmen hau: margolariek badiote negarra zerbitzatzen duten begitarte higidura eta zimurrek irria zerbitzatzen dutela ere. Zinez, bata edo bestearen adierazpena bururatua izan dadin baino lehen, so egiozu margoaren zuzentzeari: zalantzan zaude zeinen aldera doan. Eta irriaren gailurra malkoekin nahasten da. Nullum sine auctoramento malum est Gizona irudikatzen dudanean erraztasun nahietsigarritz inguraturik (demagun haren soinadar guztiak izan daitezen betirako hartuak sortzapenaren heinik gorenean den bezalako atsegin batek), sentitzen dut makurtzen bere errazaren zamapean, eta badakusat osoki ezindua hain atsegin huts, iraunkor eta orokor baten eramateko. Egiazki, ihes doa hor denean, eta naturalki lehiatzen da itzurtzera, finkatzen ahal ez den eta hondaratzeko beldur den urrats batetik bezala.

Neure buruari xeheki aitor diodanean, aurkitzen dut daukadan ontasunik hoberenak tindura biziosoa duela. Eta beldur naiz Platonek, bere bertuterik berdenean (ni bainaiz bertute-mota horien preziatzaile zintzo eta leiala, beste edozein daitekeen bezainbat), hurbiletik entzun balu bere burua, eta hurbiletik bazentzuen, somatuko zukeela giza nahasmenezko hots makur zerbait, baina iluna eta bakarrik berak somagarria. Gizona, orotan eta orotarik, betatxatze eta nabardurarik besterik ez da.

Zuzenbidearen legeek berek ez dezakete iraun zuzengabeko nahasmen zerbait gabe; eta badio Platonek legeetarik gaitz eta eragozpen guztiak kendu nahi dutenak Hidraren buruaren mozteari lotzen zaizkiola. Omne magnum exemplum habet aliquid ex iniquo, quod contra singulos utilitate publica rependitur, dio Tazitok.

Halaber egia da, biziaren erabilerako eta harreman publikoaren zerbitzurako, badaitekeela soberamen bat gure gogoen garbitasun eta zorrotzasunean; argitasun sarkor horrek badu sotilezia eta jakin-nahi sobera. Dorpetu eta moteldu behar dira eredu eta praktikari manukorrako bilakatzeko, eta loditu eta ilundu bizi ilunpeko eta lurtiar honi egokitzeko. Horregatik gogo arruntak eta hedapen gutiagokoak gertatzen dira egokiago eta zorionekoago egitekoen zuzentzean. Eta filosofiaren uste goratuak eta zorroztuak gaitasunik gabeak aurkitzen dira ekintzarako. Gogoaren bizitasun zorrotz horrek eta nahikunde arin eta antsiatsu horrek nahasten ditu gure harremanak. Giza eginbeharrak zakarki eta gaingirokiago erabili behar dira, eta zati on eta handi bat utzi zoriaren eskubideentzat. Egitekoak ez dira hain barneki eta zorrozki argitu behar. Galtzen gara hainbat argidura eta molde kontrarioen gogoetatzean: Voluntatibus res inter se pugnates obtorpuerant animi.

Simonidesez zaharrek diotena: haren irudimenak agertzen baitzizkion (Hiero erregek egin zion galderaren gain, gogoeta egun asko ukan baitzituen erantzuteko) gogoeta zorrotz eta sotil ezberdinak, itxurazkoena zein ote zen zalantzatuz, egiaz etsitu zen osoki.

Gorabehera eta ondorio guztiak bilatzen eta besarkatzen dituenak hautespena eragozten du. Gogo erdiko batek berdin badarama, eta aski da pisu handiko eta gutiko eginkizunetan. Begira ekonomialaririk hoberenak guri nola diren esaten gutien dakitenak direla, eta eleketari jakile horiek maizenik ez dute balioko zerik egiten. Badazagut eleketari eta ekonomia-mota guztien margolari hagitz bikain bat, eskuen artetik arras negargarriki ehun mila libra errentako jarriotzera utzi duena. Beste bat badazagut bere aholkuko inork baino hobeki aholkatzen duena, munduan ez baita gogo eta jakintzaren erakustaldi ederragorik; halarik ere, egitekoetan, haren zerbitzariak aurkitzen dute osoki besterik dela, zorigaitza kontutan hartu gabe diot.

XXI

Alferkeriaren aurka

Vespasiano enperadoreak, hil zen gaitzaz eria izanik ere, nahi zuen inperioaren egoeraz jakin, eta ohean berean etengabe bururatzen zituen ondorioko egizkizun anitz. Eta haren sendagileak erantzuki eginik osasunerako gauza kaltegarria bezala: . Horra hitz eder bat, nire irudiko, eta printze handi baten gai. Adriano enperadorea baliatu zen gero solas horretaz, eta erregei birraipatu beharko litzaieke maiz, ohartarazteko ematen zaien hainbat gizonen manatzearen kargu hori ez dela kargu alfer bat, eta deusik ez duela hain zuzenki meneko bat bere printzearen zerbitzurako neketan eta menturatan sartzeaz gaitzitzen ahal, nola bitartean haren ikustea egiteko laxo eta hutsaletan beraztua, bere gordepenaz axola edukitzen eta gureaz hain ezaxolatua ikusirik.

Norbaitek sostengatu nahi duenean bere eskuz baino hobe dela printzeak zuzen ditzala bere gerrak besteren bidez, zoriak emanen dizkio beren ordezkariak eginkizun handi bururatu dizkiotenen eredurik aski, eta oraino ere beren egotea onuragarri baino kaltegarriago gertatu zenetak. Baina ezein printze bertutetsu eta sutsurik ez du jasaten

ahalko iharduki dakion hain irakaspen ahalkegarriez. Haren burua saindu baten giza itxura bat bere estatuaren zorionerako bezala gordetzeko estakurupuan, apaltzen dute haren ofizioan, osoki eginkizun gudatiarrean baitatza, eta gaigabekoa aldarrikatzen dute. Badazagut bat garaiturik izatea nahiago lukeena haren alde gudukatzen delarik lotan egotea baino, sekula ez baitzuen lehiarik gabe ikusi bere jendeek berek zerbait handiren egitea bere alde eta bera egon gabe. Eta Selim lehenak arrazoi handiarekin zioen, uste dut, nagusirik gabe irabazten diren garaipenak ez direla osoak; hainbat gogotikago, esan zukeen, non nagusi hori gorritu behar bailitzateke bere izenaren bidez parte hartu nahi izateaz, han ahotsaz eta gogoetaz baizik ez beharturik; eta hori ere ez, halako beharkundean ohorea dakarten uste eta manamenduak lekuan eta eginkizunaren erdian ematen direnak baitira. Ezein lemazainik ez du bere ofizioa gauzatzen leihorrean dagoelarik. Arraza otomaneko printzeek, guda-zorian munduko lehen arraza, sutsuki besarkatu dute uste hau. Eta Baiazeto bigarrenak bere semearekin, baztertu baitziren, jakintzetan eta beste etxeko ariketetan ihardukiz, zartako ederrak eman zizkioten beren inperioari; eta orain erreinatzen dena, Amurat hirugarrena, haien ereduz, ongi hasten da ere berdin aurkitzen. Ez ote zen Ingalaterrako errege Eduardo hirugarrenak gure Charles bosgarrenaz hitz hau zioena: “Sekula ez zen gutiago arma zedin erregerik, eta hainbat egitekorik eman ziezadanik?” Arrazoa zeukan arraro aurkitzean, zoriaren ondorio bezala arrazoiarena baino gehiago. Ni ezik beste aldeko bat bilatzen dute konkistatzaile gudutiar eta gogo handikoen artean Gaztela eta Portugaleko erregeak izendatu nahi dutenek zeren, beren egileen bitartez eta beren egoitza alferretik mila eta berreun lekoatan, alde bateko eta besteko Indietako jabeak egin baitira: jakitekoa baita pertsonalki gozatzea joateko kuraia bakarrik ote daukaten.

Areago bazioen Juliano enperadoreak: filosofo batek eta gizon bihoztoi batek ez luketela izerdirik bota behar ere; esan nahi baita, gorputz beharrei deusik ez ematea ukatzen ahal ez zaienaz baizik, gogoa eta gorputza beti gauza eder, handi eta bertutetsuetan beharturik edukirik. Ahalke zen jende aurrean tu egiten edo izerditan ikusten bazitzaion (gazteria lakedemoniarrak aipatzen baita ere, eta Xenofonek persiarrak), zeren uste baitzuen nekeak, etengabeko lanak eta neurtasunak soberakeria horiek oro egosi eta idortu behar izan zituzketela. Senekak dioena ez da gaizki josia izanen leku honetan, aitzineko erromatarrek beren gazteria zuzena egonaztzen zutela: “Ez zieten beren semeei, zioen, eseririk ikasi behar zuketene deus ere irakasten.”

Ezkuzabaleko gogoa da behar bezala eta gizonki hil nahi izatea ere; baina ekintza ez datza hainbat gure erabaki onean nola gure zori onean. Milak erabaki dute garaitu ala hil gudukatzean, batean eta bestean huts egin baitute: zauriek eta presondegiek nahi hori eragotzirik eta bizi behartu bat mailegaturik. Badira gure nahiak eta ezagutza harritzen dituzten gaitzak: Mulei Moluk, Fezeko erregek, Sebastian Portugaleko erregeren aurka hiru erregeren heriotzagatik eta koroa handi hori Gaztelakoarengana iragaiteagatik ospetsua den gudu hori irabazi berri duena, larriki eria aurkitu zen portugesak armak eskuetan bere erresuman sartu zirenean, eta beti gaizkitzen bazihoan aurretik ikusi heriotza baten aldera. Sekula ez zen gizonik bere buruaz bortizki eta ospetsukiago baliatu. Ahul aurkitu zen bere armadaren sartzeko ospamen zeremoniatsuen jasateko, haien moldearen arabera, handitasunez beterik eta ekintzez osoki josirik baita, eta ohore hori bere anaiari eman zion. Baina izan zen ere utzi zuen buruzagiaren ofizioko gauza bakarra; garaitiko besteak, beharrezkoak eta onuragarriak, hagitx nekez eta zehazki egin zituen; bere gorputza etzanik izanez, baina adimena eta kuraia zutik eta azkarrik, azken hatsa arte, eta nolabait ere harago. Bere etsaiak azpilantzen ahal zuen, neurririk gabe sartuak baitziren bere lurretan; baina ikaragarri hertsaturik zen bizi apur baten eskasean eta gerra horren zuzendaritzan eta estatu nahasi baten eginkizunetan ordezkorik ez edukiz, garaipen odoltsu eta menturazko bat bilatu behar baitzuen, beste bat seguru eta

garbirik esku artean ukanez. Halarik ere, miresgarriki luzatu zuen bere eritasunaren iraupena bere etsaiaren akiazteko eta itsas armadatik eta Afrikako ertzean zeuzkan hirietarik urrun erakartzeko, bere biziaren azken eguna arte, berariaz erabili eta gorde baitzuen ihardunaldi handi horretarako. Gudua biribilera antolatu zuen, alde orotarik oldartuz portugesen ostea; biribil hark, inguratzeraz eta hertsatzeraz etorriz, eragotzi baitzituen ez bakarrik gatazkarako, hagitaz garratza baitzen errege gazte asaldatzailerik horren suhertasunagatik, baina ihesa ere eragotzi zien beren galtzearen ondotik. Eta, aterabide guztiak atzemanak eta hertsia aurkiturik, beren baitara egoztera behartuak izan ziren (coacervanturque non solum cede, sed etiam fuga) eta batzuk besteen gainera metatzeraz, garailei garaipen hagitaz hiltzaile eta oso bat emanez. Hil zorian, bere burua eraman eta garraiarazi zuen beharrak deitzen zuen lekura, eta, erreldoen luzeran lasterkatuz, bere kapitainak eta soldaduak batzuk besteen ondoren sustatzen zituen. Baina guduko zoko bat lehertzera utziz, ezin eragotzi zekion zaldizkatzeraz joan zedin ezpata eskuan. Nahasteraz joateko ahalegintzen zen, bereek gelditurik nork bridatik, nork jantzitik eta estriberetarik. Ahalegin horrek bururatu zuen gelditzen zitzaien bizi apur horren akitzea. Etzanarazi zitzaien berriz. Bera, berpizturik bulkada batez bezala alditxartze hartarik, beste ahalmenik huts egiten zitzaizalarik, bere heriotza isil zedin gatzigatzeko, orduan egin behar zuen manatze nagusia baitzen, bereen artean berri haren bidez etsipen zerbaiten ez sortzeko, hil zen, behatza atxikirik aho hetsiaren aurka, isiltasunaren egiteko keinu arrunta. Nor bizi zen sekula hain luzaroan eta hain aitzinean heriotzean? Nor hil zen hain zutik?

Heriotzaren bihoztoiki erabiltzeko mailarik gorena eta naturalena, ez bakarrik harrimenik gabe, baina axolarik gabe ikustea da, bizimodua libre jarraikiz haren baitan ere. Katonek bezala, lotan eta ikerpenean baitziharduen, halako bat, bortitza eta odoltsua, buruan eta bihotzean edukirik, eta eskuaz atxikirik.

XXII

Posta zaldiez

Ez naiz ariketa horretan ahulenetarik izan, neure handitasuneko (azkar eta apal) jendeei egokia baita; baina ofizioa utzi dut; sobera nekatzen gaitu luzaroan irauteko.

Orain irakurtzen nuen Ziro erregeak, bere erresumako alderdi guztietako berrien errazkiago ukateko, hedadura hagitaz handikoa baitzen, begirarazi zuela zaldi batek zenbat bide egin zezakeen egun batean dena txanda batez, eta alde hartara ezarri zituen berengana letozkeenei emateko zaldi prestuen edukitzeko kargua zeukaten gizonak. Eta zenbaitek badiote joateko abiadura hori lertxunen hegaldatzera datorrela.

Zesarrek dio Luzio Vibulo Rufo, Ponpeiori gatzigatze baten emateko lehia edukiz, harengana abiatu zela gau eta egunez, zaldiz aldatuz arintasunaren egiteko. Eta berak, Suetoniok dioenez, ehun mila egiten zituen egunkal orga alokatu batez. Baina postari sutua zen, zeren ibaiek bidea mozten ziotenean, igerika iragaiten baitzituen; eta ez zen zuzenetik desbideratzen zubi edo ibi baten bilatzeko. Tiberio Neronek, bere anaia Drusoren ikustera joanez, Alemanian eria baitzen, hogeita eta lau orduz berrehun mila egin zituen, hiru orga izanik.

Antioko erregeren aurkako erromatarren gerran, T. Senpronio Grako, dio Tito Liviok, per dispositio equos prope incredibili celeritate ab Amphissa tertio die Pellam pervenit; pasarteak ikusiz, badiardi postak jarriak zirela, eta ez lasterraldi horretarako berriki manatuak.

Bere etxekoei berrien igortzeko Zezinaren asmamenak bazuen askoz ere arintasun gehiago; berarekin zeramatzen ainarak, eta haien habia aldera libratzen zituen bere berriak bidali nahi zituenean, nahi zuenaren adierazteko kolore egokiaz tindatuak, bereekin hitzartu zuenaren arabera. Antzokian, Erroman, familiako aitek usakumeak bazituen golkoan, gutunak estekatzen baitzizkieten egoitzara bere jendeei zerbait igorri

nahi zietenean; erantzunaren ekartzeko heziak ziren. D. Bruto haietaz baliatu zen, Mutinan setiaturik, eta besteek beste lekuetan.

Perun, gizonen gainean lasterkatzen ziren, bizkar gainetik hartzen baitzituen zamak bezala, halako arintasunez non, dena lasterka, lehen garraiariek bigarreni egozten baitzien beren zama urratsik gelditu gabe.

Aditzen dut valakiarrek, Jaun Handiaren postariak, ezin gehiagoko ahaleginak egiten dituztela, bidean aurkitu lehen iragailea zaldirik beheitiarazteko legea baitute, beren zaldirik lehertua emanez; eta neketik gordetzeko gorputzean zehar estekatzen direla oso hertsiki zerrenda luze batez.

XXIII

Xede onerako erabili bide gaiztoez

Naturaren eginkizunen molde orokor honetan harreman eta egokitasun miresgarri bat aurkitzen da, ongi erakusten baitu ez dela menturazkoa ez nagusi ezberdinek zuzendua. Gure gorputzen gaitz eta baldintzak ikusten dira estatu eta bizimoduetan ere; erresumak, errepublikak, sortzen, loreztatzen eta zaharreriaz ilauntzen dira, gu bezala. Aldarteak betaldi alfer eta kaltegarri baten menekoak gara; izan daitezten aldarte onak (zeren horren beldur baitira sendagileak ere; eta, gure artean egonkorrik batere ez baita, badiote osasunaren betetasun sobera alai eta senda antzez gutitu eta apaldu behar zaigula, gure natura leku finkoan ezin jarriarik eta hobekitzeko nora igan ez edukirik, bapatean desantolatzen gibelak dadin beldurrez; horregatik manatzen dizkiete atletei sabeleko garbaldia eta odol-husteak osasun gainerako ugaritasun horren ebastea) izan dadin aldarte gaiztoen betaldia, gaitzen kausa arrunta baita.

Maiz ikusten dira estatuak antzeko betaldi batez eriak, eta garbitze-mota ezberdinak erabiltzen ohi dira. Behin atzerriratzen da familia-andana handi bat haietaz herriaren arintzeko, beste inora baitoaz bila edo besteren bizkar finkatzera. Modu horretaz, gure aitzineko frankoak, Alemania barrenetik abiatuak etorri ziren Galiaz jabetzen eta lehen biztanleen kanporatzera; horrela moldatu zen Italiara, Breno eta besteren menpean, isuri zen gizonen itsasgora mugagabeko hura; horrela gotu eta vandaloek, orain Grezia daukaten jendaldeak bezala, utzi zuten beren sorterrria beste inora zabalkiango bizitzera joateko; eta doi badira munduan halako ibiltzearen ondorioz somatu ez duten bizpahiru zoko. Erromatarrek bide horretaz eraiki zituzten beren koloniak; zerena, beren hiria neurritz gora hanpatzen zela somaturik, behar gutiagoko jendeaz arintzen baitzuten, eta beraiek konkistatu lurreen populatzen eta lantzen igortzen baitzituzten, ez bakarrik gizonen iraunarazteko hats bizian, alferkeriak, usteltzearen amak, eragozpen makurragorik ekar diezaien beldurrez,

Et patimur longæ pacis mala; sævior armis,

Luxuria incumbit ⁶³²;

baina beren errepublikarentzat odol-hustetzat baliatzeko ere eta beren gazteriaren bero sutsuegiaren apur bat barreiatzeko, sobera ausarki hozitzen den enbor horretako adakien kimatzeko eta arintzeko. Horretarako baliatu ziren behiala kartagotarren aurkako gerraz. Brétignyko hitzarmenean, Eduardo hirugarrenak, Ingalaterrako erregeak, ez zuen sartu nahi, gure erregearekin egin zuen bake orokor hartan, Britainako dukerriaren ezberdintasuna, bere gerrako gizonen nondik arindu ukan dezan amoreagatik, eta hemengo eginkizunetan baliatu zen ingeles meta hura ez zedin Ingalaterrara itzul. Gure errege Felipek itsas gaindik gerrara bere seme Jeanen bidaltzea onartu zuen arrazoiatarik bat izan zen, harekin batean bere gudalostean zegoen gazteria irakin mukuru handi baten eramateko.

Aro honetan badira modu berdinez uste dutenak, gure artean dagoen hunkimen bero hau bideratzen ahal baledi auzoko gerraren batera nahietsiz, ordu honetan gure gorputza menperatzen duten aldarte bekatarik hauek, kanporatzen ez badira, gure sukarra indarrean

iraunaraz dezaten beldurrez, eta azkenean gure hondamen osoa ekar dezaten. Eta, zinez, gerra arrotz bat zibila baino anitzez gaitz eztiago bat da; baina ez dut uste Jainkoak hain eginkizun zuzengabea fabora dezan, besteren laidostatzea eta liskartzea gure erraztasunerako:

Nil mihi tam valde placeat, Rhamnusia virgo,

Quod temere invitis suscipiatur heris ⁶³³.

Halarik ere, gure izaeraren ahuleziak bagaramatza maiz beharkunde horretara: bide gaiztoez baliatzera xede on baterako. Likurgok, inoiz izan zen legegilerik bertutetsu eta beteenak, asmatu zuen, bere herriari neurtasunaren irakasteko, molde biziki zuzengabe hau: beren sehiak ziren elotarren indarka hordiaraztea, hala galdurik eta ardotan ehortzirik ikusiz, espartarrek hastia zezaten bizio horren soberakeria.

Gaizkileak, edozein heriotza-motatara kondenatuak baziren ere, egiazki gure barreneko zatien ikusteko eta gertutasun gehiagoren finkatzeko beren antzean, sendagileek erabat bizirik urratuak izan zitezen aitzinean baimentzen zutenek makur gehiago bazeukaten. Zeren, galdu behar bada, barkagarriagoa baita arimaren osasunagatik eginik gorputzarenagatik baino. Erromatarrek jendea hezten zuten bezala suhartasunera eta galbideen eta heriotzaren gutiestera, haien aitzinean gudukatzen, zehakatzen eta elkar hiltzen zuten gladiatoreen eta ezpatarien ikuskizun bortitz haien bidez,

Qui vesani aliud sibi vult ars impia ludi,

Quid mortes juvenum, quid sanguine pasta voluptas? ⁶³⁴

Ohitura horrek bazirauen Teodosio emperadorea arte:

Arripe dilatam tua, dux, in tempora famam,

Quodque patris superst, successor laudis habeto.

Nullus in urbe cadat cujus sit pæna voluptas.

Jam solis contenta feris, infamis arena

Nulla cruentatis homicidia ludat in armis ⁶³⁵.

Egiazki, eredu miresgarri eta jendearen irakaskuntzarako fruitu handikoa zen egunero bere aitzinean, ehun, berrehun, eta mila gizon-bikoteren ikustea, batzuk besteen aurka armaturik, elkarren zehakatzen hain ezin gehiagoko kuraiazko bermetasunaz, non ez baitzitzaien ahuleziaz edo urrikarizko hitzik itzurtzen ikusi, sekula bizkarra eman gabe, ez mugimendu lotsati bat bakarrik egin ere etsaiaren ukalditik baztertzeko, lepoa haren ezpatari ematen eta ukaldiari agertzen. Haietarik askori gertatu zaie, zaurien bortxaz hiltzerainoko eriak izanez, jendeari galdegitera bidaltzea beren eginbeharraz askietsirik ote zen, plazaren gainean etzan baino lehen beren arimak egiteko. Ez zuten bakarrik bermeki gudukatu eta hil behar, baina oraindik ere alaiki: halako moldez, non oihukatzen eta madarikatzen baitzitzaien heriotzaren ukatean bihurtzen ikusten baitzitzaien.

Neskek beraiek zirikatzen zituzten:

consurgit ad ictus;

Et, quoties victor ferrum jugulo inserit, illa

Delitias ait esse suas, pectusque jacentis

Virgo modesta jubet converso pollice rumpi ⁶³⁶.

Lehengo erromatarrak gaizkileez baliatzen ziren eredu hartan; baina gero sehi hobengabeez eta horretarako saltzen ziren libreez baliatu ziren; are senatoreez eta zaldun erromatarrez eta emakumeez ere:

Nunc caput in mortem vendunt, et funus arenæ,

Atque hostem sibi quisque parat, cum bella quiescunt ⁶³⁷

Hos inter fremitus novosque lusus,

Stat sexus rudis insciusque ferri,

Et pugna capit improbus viriles 638.

Hagitz arrotz eta sinesgaitza aurkituko nukeena egunero ikustera ohituak izanen ez bagina, geure gerretan, gizon arrotz mila asko zilarren saritan beren odola eta bizia bahitzen interesik batere ez duten liskarretan.

XXIV

Handigo erromatarraz

Hitz batez baizik ez dut esan nahi gai mugagabe honen gain, aro honetako handigo eskasak harekin alderatzen dituztenen ergelkeriaren erakusteko.

Zizeronen Gutun familiarren zazpigarren liburuan (eta ken bezate gramatikoek familiarren goitzen hori, nahi badute, zeren egiazki ez baita hagitz egokia; eta, familiarren partez, ad familiares ordezkatu dutenek beraientzat atera dezakate argudio zerbait Zesarren bizitzan Suetoniok dioenetik: bazeukala haren gutun-liburu bat ad familiaraes), bada bat, orduan Galian zen Zesarri buruz ari dena, Zizeronek hitz hauek errepikatzen baititu, Zesarrek idatzi zion beste gutun baten amaieran baitziren: “Gomendatu didaan Marko Furio hori Galiako errege egiten diat; eta hire adiskideetarik beste norbait aitzin dezadan nahi baduk, igor iezadak.”

Ez zitzaion berria hiritar erromatar soil bati, orduan Zesar zen bezala, erresumen erabiltzea, zeren Deiotaro erregeri berea kendu baitzion Pergamoko Mitridates deitu aitoren seme bati emateko. Eta haren bizia idazten dutenek berak saldu beste erresuma asko aipatzen dituzte; eta Suetoniok badio ukaldi batez atera zuela, Ptolomeo erregeandik, hiru milioi seiehun mila ezkutu, erresumaren saltzetik aski hurbil izan baitzen:

Tot Galatæ, tot Pontus eat, tot Lydia nummis 639.

Marko Antoniok bazioen jendalde erromatarren handigoa ez zela hainbat erakusten hartzen duenaren bidez nola ematen zuenaren bidez. Eta, Antonio baino mende inguru bat lehenago, ezabatu zuen, besteen artean, hain manu-indar miresgarri bat non, haren historia guztian, ez baitakit haren omenaren izena gorago daraman ezaugarririk: Antiokok Egipto osoa bazeukan eta Txipre eta erresuma hartako beste eskualdeen hartzeko prest zegoen. Haren garaipenen aitzinatzean, K. Popilio senatuaren partez heldu zen harengana, eta hasieratik ukatu zuen haren eskuaren ukitzea ez bazituen zekarzkion gutunak irakurtzen. Erregek irakurririk eta gogoetatuko zuela esanik, Popiliok inguratu zuen zegoen lekua bere makilaz, esaten ziolarik: “Emak senatura eraman dezakedan erantzuna, biribil honetarik abia hadin baino lehen” Antiokok, manakuntza hain hertsigarri baten gogortasunaz harriturik, apur bat gogoetatu ondoren : “Eginen dut, zioen senatuak manatuko didana”. Orduan agurtu zuen Popiliok jendalde erromatarren adiskide bezala. Hain erresuma handi eta hain menturazko aitzinatze bati uko egitea hiru idatzizko marraldiren hunkimenagatik! Arrazoa zuen, zinez, egin zuen bezala, senatuari esatera igortzeko, bere enbaxadoreen bidez, haien manamendua ukan zuela Jainko hilezinengandik etorria balitz bezalako begirunearekin.

Augustok gerrako zuzenbidez irabazi zituen erresuma guztiak bihurtu zizkien galdu zituztenei, edo haietaz arrotzei emaitza egin zien.

Eta honi buruz, Tazitok, Kogidino Ingalaterrako erregez mintzatuz, somarazten digu marraldi miresgarri batez ahalmen mugagabe hori: "Erromatarrek, dio, betiko zaharrarotik, erauziak zituzten erregeak haien erresumen jabegoan uzteko ohitura zeukaten, beren manakuntzapean, erregeak berak zerbitzaritzako tresnatzat eduki zitzaten amoreagatik: ut haberet instrumenta servitutis et reges.

Itxurazkoa da Solimanek, Hungariako erresuma eta beste estatuen emaitza egiten ikusi baitugu, gehiago begira liezaion gogoeta horri aipatzen ohi duenari baino: ase eta zamakutua zela hainbat erregetza eta ahalmenaz!

XXV

Eriarena ez egiteaz

Bada Martzialen baitan epigrama bat, onetarik dena (zeren mota guztietakoak baitira haren baitan), Zelioren historia aipatzen baitu atsegingarriki, Erromako handiki zenbaiti gortearen egitetik itzurtzeagatik -haien jaikitzean egon, lagundu eta jarraiki behar-hezurreriaren edukitzeko irudi egin baitzuen; eta bere estakuru itxuragarriago bilakatzeko, zangoak gantzarazten zituzten, inguratu zituen, eta osoki gizon hezurreriati baten molde eta modua itxuratzen zuen; azkenean, zoriak egin zion egiazki emateko atsegin hori:

Tantum cura potest et ars doloris!

Desiit fingere Cælius podagram 641.

Apianoren lekuren batean uste dut ikusi dudala norbaiten historia antzeko bat, Erromako hirukunen debekuetarik itzuri nahian, zerraizkionen ezagutzatik ihes egiteko, gorderik eta mozturorik egonik, gehitu zuen begibakoitzaren itxuratzeko asmamena. Libertate apur baten berreskuratzera zetorrenean eta begiaren gainean luzaroan eraman zuen xafla desegin nahi zuenean, aurkitu zuen bere ikusmena galdua zela egiazki maskara horren azpian. Izaten ahal da ikusmenaren ahalmena moteldu zela hainbat denbora ariketarik gabe egoteagatik, eta ikus-indar osoa beste begira iragana zela: zeren ageriki somatzen baitugu estalirik daukagun begiak bere lagunari bidaltzen diola bere ondoriotik zati zerbait, halako moldez, non gelditzen dena gizentzen eta hanpatzen baita; halaber alfertzeak, loturen eta sendagailuen beroarekin, erakar ziezaiokeen hezurreriazko aldarte zerbait Martzialen hezurreriatsuari.

Froissarden baitan irakurririk aitorenseme ingeles gazte olde baten agintza, Frantziara iragan eta gure gainean armako ekintzaren bat bururatu arte ezkerreko begia estalirik eramatekoa, maiz kilikatu dut neure burua gogoeta horrekin, beste haiei bezala gerta zekien, eta denak begibakartuak gerta zitezen ekintza gauzatu zutenen aldeko maitaleen aitzinean.

Arrazoia dute amek beren haurrei gaitzesteko okerrak, mainguak, ezkelak, eta pertsonaren beste halako akatsak egiten dituztenean: zeren, hain gorputz samurrak joera gaizto bat ukan dezakeenaz landara, ez dakit nola dirudien zoria jostetan ari dela guri hitza hartzen; eta, itxuraren egiteari loturik, eri bilakatu jendeen eredu asko aditu ditut aipatzen.

Betidanik ikasi dut neure eskua zamatzen, oinez eta zaldiz, zaharo edo makila batez, apaindura bilatu eta bermatu arte, zuzentze handikeriatsu batez. Anitzek mehatxatu naute melekaria hori zoriak, egunen batez, behar bilakatuko zuela. Horretan finkatzen naiz neure arrazako lehen hezurreriatsua izanen bainaiz.

Baina luza dezagun kapitulu hau eta nabartu egin dezagun itsutasunari buruzko beste zati batekin. Pliniok badio norbaitez, lotan itsua zela amesturik, biharamunean hala aurkitu zela aitzineko batere gaitzik gabe. Irudimenaren indarrak laguntzen ahal du, beste inon esan dudana bezala, eta badirudi Plinio aburu horretakoa dela; baina itxurazkoagoa da gorputzak barrenean somatzen zituzten mugimenduak, sendagileek haien kausa edirenen baitute, nahi badute, ametsaren eragingarriak zirela.

Gehi dezagun oraindik solas honetarik hurbil den historia bat, Senekak bere gutunetarik batean aipatzen baitu: "Badakik, dio Luziliori idazten diolarik, Harpaste, ene emaztearen eroa, etxean gelditu dela heredentziaren gomendiotzat: zeren, neure gogoz, mamurro horien etsaia bainaiz, eta ero baten bizkar irri egiteko gogoa badut, ez diat urrun bilatu behar, neure buruaz egiten diat irri. Ero honek ikusmena galdu dik bapatean. Gauza arraroa aipatzen diat baina egiazkoa: ez dik somatzen itsua denik, eta etengabe eskatzen zioke bere gidariari hemendik eramateko, zeren baitio ene etxea iluna dela. Haren baitan irri egiten duguna gutarik bakoitzari gertatzen zaigula sinestea otoizten diat; inork ez diazaguk zikoitza dela, inork ere bekaiztia dela. Oraino itsuek

gidari bat eskatzen ditek, guk geure buruaz baliatzen gaituk. Ez nauk handinahia, esaten diagu, baina Erroman ez dezakek besterik bizi; ez nauk luxuzalea baina hiriak gastu gaitz bat behar dik; ez duk ene hobena herratsua banaiz, oraindik ez badut bizimodu segururik finkatu, gaztaroaren hobena duk. Ez dezagun bila gutaz landan geure gaitza, geure baitan duk, geure erraietan landatua duk. Eta eriak ez garela somatzerik ezak berak sendatze zailago bilakatzen ziguk. Ordu onean ez bagara geure buruaz gogoetatzen hasten, noiz arduratuko gaituk hainbeste zauri eta gaitzez? Eta bazaukeagu medizina biziki ezti bat: filosofia; zeren, besteen atsegina ez baita sendakuntzaren ondotik baizik somatzen, honek batera sendatzen eta atsegina ematen dik."

Horra Senekak dioena, neure xedetik kanpora eraman bainau; baina aldatzean bada irabazterik.

XXVI

Hatz lodiez

Tazitok aipatzen du, errege barbaro zenbaiten artean, hitzarmen segurtatu baten egiteko, haien modua eskuin eskuen elkarri iratxikitzea eta hatz lodien elkarri lotzea zela; eta, hertsatzearen bortxaz, odola burura igan zelarik, zauritzen zituztela zizta arin batez eta gero elkarri xurgatzen zizkietela.

Sendagileek badiote behatz lodiak esku hatz nagusiak direla, eta haien etimologia latina pollere-tik⁶⁴² datorrela. Grekoek ajntivceir deitzen dute, beste esku bat esan balitz bezala. Eta badirudi latinoek ere maiz hartzen dutela esku osoaren zentzu horretan,

Sed nec vocibus excitata blandis,

Molli pollice nec rogata surgit ⁶⁴³.

Erroman faborearen adierazpena zen behatz lodien hertsatzea eta musukatzea,

Fautor utrique tuum laudabit pollice ludum ⁶⁴⁴,

eta desfaborearena haien goratzea eta kanpoko aldera bihurtzea,

converso pollice vulgi

Quemlibet occidunt populariter ⁶⁴⁵.

Erromatarrek gerratik libratzen zituzten hatz lodian zauriturik zirenak, armen atxikidura ez baituten aski finkorik. Augustok ontasunez gabetu zuen zaldun erromatar bat, maltzurkeriaz hatz lodiak moztu baitzizkien bere bi seme gazteei, armeetara joan beharretik desenkusatzeko; eta hark baino lehen, Senatuak Kaio Vatio betirako gartzelara kondenatu zuen eta ontasun guztiez gabetu, eskuin eskuko hatz lodia jakinik mozteagatik bidaia horretarik libratzeko.

Norbaitek⁶⁴⁶, haren izenaz ez bainaiz oroitzen, itsas gudu bat irabazirik, etsai garaituei behatz lodia moztarazi zien, gudukatzeko eta arraunean aritzeko bidearen kentzeagatik.

Atenastarrek eginotarrei moztarazi zizkieten itsas ariketan lehentasunaren ebasteko.

Lakedemonian, irakasleak haurrak zigortzen zituen hatz lodia ausikiz.

XXVII

Ihabalkeria, oinazkoikeriaren ama

Maiz aditu dut ihabalkeria krudelkeriaren ama dela.

Eta esperientziaz ohartu naiz kuraia maltzur eta bihozkabearen kirastasun eta garraztasun hori laguntzen ohi dela emazko biguntasun batez. Krudelenak ikusi ditut negar errazari emanak eta kausa arinengatik. Alexandrok, Feresko tiranoak, antzokian ez zezakeen jasan tragedien emanaldiaren entzutea, hirikideek Hekuba eta Andromakoren zorigaitzetan hasperenka ikus zezaten beldurrez, hura, urrikaririk gabe, oinazkoiki egunero hainbat jende hilarazten zituen. Gogo ahulezia ote zatekeen soberakeria guztietara hain isurgarri bilakatzen zituen?

Suhartasuna (soilik ihardokitzearen aurka aritzea baita bere egitekoa,

Nec nisi bellantis gaudet cervice juvenci ⁶⁴⁷)

gelditzen da etsaia menperaturik ikustean. Baina gogo berazkeria, bera ere bestaliarra dela esateko, lehen oldean sartu ezinik, beretzat hartzen du bigarrena, sarraski eta odolarena. Garaipenen sarraskiak jendailak eta tresneriaren ofizialek eginak izaten ohi dira; eta gerra herrikoietan hainbat krudelkeria aditugabe erakusten duena da xeheriaren jendaila hori sutzen eta harrotzen dela ukondoraino odoleztatzen eta gorputz baten zehakatzen beren oinetan, beste suhartasunaren berririk ez ukanez:

Et lupus et turpes instant morintibus ursi

Et quæcumque minor nobilitate fera est ⁶⁴⁸

zakur oilatiak bezala, etxean urratzen eta ausikitzen baitituzte landetan oldartzera ausartzen ez ziren ihizien larruak. Zer da gure aroan gure liskar guztiak hilgarri egiten dituen; eta, gure aitek mendeku-maila bat zeukatenean, gu hasten garela orain azkenetik, eta hasieratik hiltzeaz baizik ez dela mintzatzen; zer da, ihabalkeria ez bada? Bakoitzak ongi somatzen du ausartzia eta erdeinu gehiago badela bere etsaiaren irabaztean haren bukatzean baino, eta errendiaraztean haren hilaraztean baino. Gainera mendeku gosea hobeki berdintzen eta asetzen dela, bere buruaren sentipenaren ematera xederatzen baita bakarrik. Horra zergatik ez dugun ihizi eta harri bat oldartzen zauritzen gaituenean, haiek gure mendekuaren somatzeko gai ez baitira. Eta gizon baten hiltzea, gure laidoaren gerizan ezartzea da.

Eta Biasek gizon gaizto bati oihukatzen zion bezala: , eta orkomeniarrak gaitzesten zituen zeren Liziskok haien aurka egin tradiketagatik jasan zuen zigorra baitzeturten interesatuak zirenetarik eta zigor haren atsegina zegokienetarik inor ez zen aroan: orobat gaitzesgarria da mendekua egiten zaionak haren sentitzeko bidea galtzen duenean; zeren, mendekatzaileak ikusi behar duen bezala atseginaren ateratzeko, bere mendekagaiak ikusi behar du ere ezatseginaren eta damuaren pairatzeko.

“Damutuko da”, diogu. Eta, pistolakada bat buruan emateagatik, uste ote dugu damutzen dela? Aitzitik, ongi ohartzen bagatzaizkio, aurkituko dugu ihakina egiten digula erortzean; ez gaitu bakarrik herratzen ere eta oso urrun da damutzetik. Eta biziko faboretan laboragarriena ematen diogu, agudo eta oharkabea hiltzea baita. Guk darraizkigun zuzenbideko ofizialengandik gorde, lasterka eta ihes egin behar dugu, eta hura atsedenean da. Hiltzea on da etorri beharreko laidotik itzurtzeko, ez egin denaren mendekatzeko: ausartzia baino gehiago beldurreko ekintza bat da, kuraia baino gehiago oharpenekoa, ekintza baino gehiago defentsakoa. Itxurazkoa da hortik uzten dugula mendekuaren egiazko xedea eta gure omenaren axola; beldur gara, bizirik badirau, halako bat bizkarreratuko digula.

Ez haren kontra baina heure alde hiltzen duk.

Narsingako erresuman antolabide hori ezteusa izanen litzaiguke. Han, ez bakarrik gerrako jendeak, baina eskulangileek ere zuritzen dituzte beren liskarrak ezpata ukaldika. Erregek ez dio zelairik ukatzen gudukatu nahi duenari, eta badoa mailako jendeak direlarik, garaileari urrezko kate bat ematen dio. Baina horren erdiesteko gogoak dituen lehenak gudukatzen ahal du daramanarekin; eta, gudu baten irabazteagatik, badira asko beso aitzinean.

Bertutez uste bagenu beti geure etsaiaren garaileak ginatekeela eta gure lekuan beti menperatuko genukeela, gaizki hartuko genuke ihes joan zekigun, hiltzean dagien bezala: garaitu nahi dugu, baina segurkiago ohorezki baino; eta gure liskarrean amaiera gehiago bilatzen dugu ospea baino. Asinio Poliok, gizon zintzo batentzat, akats berdin bat egin zuen; Plankoren aurka irain zenbait idatziz, hila izan zedin igurikatzen baitzuen argitaratzeko. Itsu bati ihakinaren egitea, gor bati laidoen esatea eta sentimendurik gabeko gizon baten iraintzea zen, haren haserrearen menturaren arriskatzea baino gehiago. Hartaz esaten zen deabruei zegokiela hilen erabiltzea. Nork ere norbaiten

idazkiak gudukatu nahi baititu eta haren hiltzearen ikustea igurikatzen baitu, zer dio ahula eta ezteusa dela baizik?

Aristotelesi esaten zitzaion norbait gaizki mintzatu zela berataz: “Gehiago egin dezala, zioen, zeha nazala, ni han ez naizen ver.”

Gure aitak askiesten ziren irain bat gezurtamen batez mendekatzea, gezurtamen bat ukaldi batez, eta horrela mailaka. Aski suharrak ziren etsai bizi eta laidostatu baten beldur ez izateko. Gu izialduraz dardaraka gara zutik dakusagun bezainbatean. Eta horrela da, gure eguneko aztura ederrak ez ote dakar laidostatu dugunari bezainbat laidostatu gaituenari hiltzerainoko jarraitzea?

Halaber, oilakeriaren irudi bat da gure banakako guduetan bigarren, hirugarren eta laugarrenekin laguntzeko ohitura hau. Behiala buruz buruko lehiak ziren; orain guduak dira. Bakardurak beldurtzen zituen asmatu zuten lehenak: Cum in se cuique minimum fiducia esset. Zeren, naturalki, zernahi laguntzak errazte eta arintze bat baitakar perilean. Behiala hirugarren pertsonaz baliatzen ohi zen desmasia eta amarrurik egin ez zedin begiratzeko eta guduaren zoriaren lekukotasunaren emateko; baina beraiek lotzen direlako molde hau hartu denetik, gomitaturik den oro ez daiteke zintzoki ikusle bezala egon, aldeketasun edo bihotzik eza bizkarrera dakion beldurrez.

Gure ohorearen gerizarako geureaz beste den balio eta indar baten estekatzea bezalako ekintzaren zuzengabe eta apalkeriaz landara, desabantaila aurkitzen diot bere buruaz osoki fidatzen on-oneko gizon bati bere zoria bigarren batenarekin nahastera joatea. Menturarik aski arriskatzen du bakoitzak bere alde, oraindik beste baten alde arriskatu gabe, eta egitekorik aski badu bere bertutean bermatzeko bere biziaren defentsarako, hain gauza maitatua hirugarren eskuetan ezarri gabe. Zeren, aurkakoa ageriki hitzarturik ez bada, lau lagun partida nahasia baita. Zure bigarrena lurrean bada, bi badituzu beso aitzinean, eta arrazoiarekin. Eta amarrua dela esatea, agiriki hala da, ezpata puska batez baizik ez duen gizon bat ongi armaturik edo, osoki sendorik, jada hagitz zauriturik den baten oldartzea den bezala. Baina, guduan irabazi dituzun abantailak badira, baliatzen ahal zara erantzukirik gabe. Berezitasun eta ezberdintasuna ez da pisatzen eta gogoan hartzen borroka hasten den egoeraz baizik; garaitikoaz lot zakizkio zoriari. Eta zu bakarrik zeure gainean hiru dituzularik, zeure bi lagunak hiltzera utzirik, ez zaizu kalte gehiagorik egiten nik, gerran, guretarik bati estekaturik ikusiko nukeenari ezpata ukaldi baten ematean, abantaila berean, eginen nukeena baino. Gizartearen naturak badakar, olde olderen aurka denean (gure Orleanseko dukeak Ingalaterrako Henry desafiatu zuenean bezala: ehun ehunen aurka; hirurehun beste hainbaten aurka, argiviarrak lakedemoniarren aurka bezala; hiruz hiru horaziarrak kuriazarren aurka bezala), alderdi bakoitzeko jendaldea ez dela gizon bakartzat baizik hartzen. Lagunarte den orotan, zoria uherra eta nahasia da.

Badut etxeko interesik hitzaldi honetan; zeren neure anaia, Matecolomeko jauna, Erroman gomitaturik izan baitzen doi ezagutzen ez zuen aitoren seme baten laguntzera, hau defendatzaile bezala beste batek deitua izanez. Gudu hartan menturaz gertatu zen aitzinean bazuela hurbilago eta ezagunago zitzaion bat (nahi nuke arrazona dakizkidan ohorearen lege hauek arrazoiarenak hain maiz jotzen eta nahasten baitituzte); bere gizonaz desegin ondoren, liskarraren bi nagusiak zutik eta osorik oraino ikusirik, joan zen bere lagunaren arintzera. Zer zezakeen gutiagorik? geldi egon behar zuen eta ikusi, zoriak hala nahi izan balu, defentsarako etorri zenaren hiltzea? Ordu hura arte egin zuenak ez zuen deus balio eginbeharrerako: liskarra zalantzan zegoen. Zure etsaiari egiten ahal eta zinez egin behar diozun jendetasuna, molde txarrerak eta desabantaila handi batera menperatu duzularik, ez dakusat nola egin dezakezun, jarraitunik besterik ez zarenean, aharra zure ez denean. Ez zitekeen ez zuzenik, ez gisakorik izan, emana

izan baitzen haren menturara. Horrela libratua izan zen Italiako gartzeletarik gure erregeren bapateko eta ospezko gomendio baten bidez.

Herri nabarmena! ez gara munduari gure bizioen jakinarazteaz askiesten omenez, herri arrotzetara goaz begiz erakusteko. Ezar itzazu hiru frantses Libiako basamortuetan, ez dira hilabate bat elkarrekin egonen zehakatu eta urratu gabe; esanen zenuke ibilaldi hau zati eraiki bat dela arrotzei erakusteko gure tragedien atsegina, eta maizenik gure gaitzez pozten eta burlatzen direnei.

Italiara goaz esgriman ikasteko, eta geure bizien bizkar aritzen gara jakin baino lehen. Irakaskuntzaren manuari jarraikiz, teoria ezarriko behar litzateke praktika baino lehen; guk gaizki darabilgu geure ikasketa:

Primitiæ juvenum miseræ, bellique futuri

Dura rudimenta 650.

Ongi badakit bere xederako on den arte bat dela (bi printze lehengusuen lehian, Espainian, zaharrenak, dio Tito Liviok, armen trebezia eta amarruz, garaitu zituen errazki gazteagoaren indar zentzugabeak), eta, esperientziaz ezagutu dudak bezala, haren ezagutzak ziren baino bihoztoiago bilakatu ditu zenbait; baina berez ez da bertutea, bermea trebetasunetik ukaten baitu eta bere buruaz landako funts bat hartzen baitu. Guduen ohorea kuraiaren sutan datza, ez jakintzarenean; horregatik ikusi dut neure adiskideetarik bat, ariketa horretan jakitun handitzat omendurik, bere aharretan abantaila horren bidea ken ziezazioten armen bilatzea, zori eta segurantzaren menpean zirenak, bere suhartasunari baino gehiago bere esgrimari garaipena eman ez dakion amoreagatik; eta, ene haurtzaroan, aitorensemegoa esgrimari onaren omenetik ihes zebilen gauza laidogarri bezala, eta gordetzen zen ikasteko, egiazko eta jatorrizko bertutea ordezkatzeko duen sotileziako ofizio bat bezala,

Non schivar, non parar, non ritirarsi

Voglion costor, ne qui destrezza ha parte.

Non danno i colpi finti, hor pieni, hor scarsi;

Toglie l'ira e il furor l'uso de l'arte.

Odi le spade horribilmente urtarsi

A mezzo il ferro; il pie d'orma non pate:

Sempre è il pie ferro; è la man sempre in moto;

Ne scende taglio in van, ne punta à voto. 651

Xedeak, torneak, hesiak, gerrako guduen irudia gure aiten ariketak ziren; beste hau hainbat apalagoa da ez baitu xede berezi bati baizik begiratzen, elkarren hondatzen irakasten baitigu, lege eta zuzenbidearen aurka, eta edozein moduz beti ondorio kaltegarriak eragiten dituenak. Zuzen eta onuragarriagoa da gure bizimodua segurtatzen eta ez oldartzen duten gauzetan aritzea, segurtasun publiko eta ororen ospeari buruz doazenak.

Publio Rutilio kontsula lehena izan zen soldaduari armen erabiltzea trebetasunaz eta jakintzaz irakatsi ziona, artea bertuteari iratxiki ziona, ez liskar bereziaren erabilerarako, jende erromatarren gerra eta guduetarako izan zen. Esgrima herrikoi eta zibila. Eta, Zesarren ereduaz gainera, bereei manatu baitzien nagusiki Ponpeioren zaindarien aurpegian jotzea Farsaliako guduan, beste mila gerrako buruzagi horrela entseiatu dira armetako molde berri baten asmatzera, jotzeko eta gerizatzeke molde berria oraingo egitekoaren beharraren arabera. Baina, Filopemenek bera gailentzen zen borroka kondenatu zuen bezala, ariketa horretan erabiltzen ziren prestaketak irakaskuntza gudutiarrari dagozkionez besterik baitziren, hartan bakarrik uste baitzuen ohoreko jendeek ihardu ki behar zutela, uste dut ere, gazteriak bere soinadarrak moldatzen dituen trebetasun hori, itzulunguru eta mugimendu horiek, ez bakarrik ezteusak baina oraino kontrakoak eta kaltegarriak direla militar guduaren erabilerarako.

Gure jendeek ohi darabiltzate arma ezberdinak eta bereziki xederatuak erabilera horretarako. Ikusi dut ez zela ongi aurkitzen aitorenseme bat, ezpata eta puinalera gomitaturik, ager zedin zaldunaren tresneriarekin. Gogoan hartzekoa da Latxesek, Platonen baitan, gure bezalako armen erabiltzeko molde batez mintzatuz, dioela inoiz ez duela eskola hartarik gerra-gizon handirik batere ateratzen ikusi, eta bereziki hango irakasleetarik. Hauei buruz, gure esperientziak beste hainbeste dio. Garaitikoaz baderrakegu bederen batere harremanik eta egokitasunik gabeko jakintzak direla. Bere bizimoduko haurren irakaskuntzan, Platonek debekatzen ditu ukabilen erabiltzeko antzeak, Amikok eta Epeiok sarturik, eta borrokatzekoak, Anteok eta Zertziok sarturik, zeren gazteria gerrako zerbitzurako egokiago bilakatzeko xedeaz besterik baitute eta ez baitute horretarako laguntzen.

Baina banoa neure gaitik aski urrun.

Maurizio enperadoreak, ametsetan eta aztiatze anitzetan gaztigaturik Fokas delako soldadu ezezagun batek hil behar zuela, bere suhi Filipori galdegiten zion nor zen Fokas hori, haren izaera, baldintzak eta ohiturak; eta nola, beste gauzen artean, Filipok esaten baitzion laxo eta beldurtia zela, enperadoreak berehala ondoriatu zuen handik hiltzaile eta oinarekoia zela. Zerk bilakatzen ditu tiranoak hain odoltsak? Beren segurantzaren axola da, eta beren bihotz ihabaliak ez dizkiela segurtatzeko beste biderik ematen baizik eta laidosta ditzaketenen hiltzea, are emakumeak ere, arramaska baten beldurrez,

Cuncta ferit, dum cuncta timet ⁶⁵².

Lehen krudelkeriak berez egin ziren: handik sortzen da mendeku zuzen baten beldurra, gero krudelkeria erreldo bat eragin duena batzuen besteen bidez estaltzeko. Filipino Makedoniako erregek, jende erromatarrekin hainbat hari-matazaren laxatzeko ukan zuenak, bere manuez egin hiltzeen izialdurak nahasirik, aro ezberdinetan laidostatu hainbat familien aurka ezin oldartuz, erabaki zuen hilarazi zituenen seme guztien hartzea, egunez egun hiltzeko eta horrela atsedenaren hartzeko.

Gai ederrek badute beti ongi bere maila ezartzen diren edozein lekutan. Ni, hitzaldien pisu eta onurgarritasunaz axola gehiago baitut haien antolabide eta jarraipenaz baino, ez naiz hemen, apur bat zeharka, historia hagitz eder baten ezartzeko beldur izan behar. Filipok kondenatu besteen artean izan zen Herodiko bat, tesaliarren printze. Haren ondotik, hilarazi zituen haren bi suhiak, bakoitzak seme oso ttiki bat utzirik. Teoxena eta Arko bi alargunak ziren. Teoxena ezin eramana izan zen berriz ezkontzera, aski jarraiturik izan eta ere. Arko eniarren artean lehen gizona zen Porisekin ezkondu zen, eta haur andana eduki zituen, denak adin apalean utzirik. Teoxena, bere ilobei buruzko amazko urrikaldura batek akuilaturik, bere zuzendaritza eta gerizapean edukitzeko, Porisekin ezkondu zen. Horra erregeren manuaren aldarrikapena heldurik. Ama kuraiatsu hori, Filiporen krudelkeriaz eta gazteria eder eta samur horri buruzko haren azpikoen nahasteaz mesfidaturik, ausartu zen esatera hilen zituela bere eskuez eman baino lehenago. Porisek, ihardespen horrek ikaraturik, agindu zion gordetzea eta Atenasera bere arrotz fidel batzuen gerizara eramatea. Enian Eneasen ohoretan ospatzen zen besta batetik hartzen dute aitzakia, eta badoaz. Egunaz zeremonietan eta bazkari publikoan egonik, gauaz itzurtzen dira itsasoz ihes egiteko prestatu zen ontzi batera. Haizea aurkakoa izan zitzaien; eta, biharamunean abiatu ziren lurraren ikusmenean egonez, portuko zaindarien jarraikiak izan ziren. Bitartean, Poris iheserako itsas gizonen lehiatzeari loturik, Teoxena, amodioz eta mendekuz zoraturik, bere lehen xedeari itzuli zen; armez eta pozoinez hornitzen da eta, haien ikusmenera agerturik: "Hona, semeak, orain heriotza zuen defentsa eta libertaterako bide bakarra da, eta Jainkoei beren zuzenbide sailduaren gaia izanen zaie; ezpata zorrotz hauek, edalontzi hauek sarrera irekitzen dizue: kuraia! Eta hi, seme, handiagoa baihaiz, atxiki burdina honi heriotzarik bortitzenaz hiltzeko." Alde batetik aholkulari azkar hau eta bestetik etsaiak beren

zintzurrean edukiz, lehian lasterkatu ziren bakoitza hurbilena zitzaionari buruz; eta, erdi hilik, itsasora egotziak izan ziren. Teoxena, bere haur guztien segurantza hain ospetsuki hornitu izateagik harroturik, bere senarra sutsuki besarkaturik: Eta horrela besarkatuak atxikirik, egotzi ziren; halako moldez, non ontzia eramana izan baitzen bere nagusiez husturik.

Tiranoek, hiltzea eta bere haserrearen sentiaraztea, elkarrekin bien egiteko, beren jakintza osoa erabili dute heriotzaren luzatzeko bide baten edireiteko. Nahi dute beren etsaiak joan daitezen, baina ez hain laster non ez dezaten beren mendekuaren dastatzeko astirik. Horren gain neke handitan dira: zeren, oinazeak bortitz badira, laburrak baitira; luze badira, ez dira beren nahiara aski mingarriak: horra beren tresneria antolatzen. Mila eredu dakuskigu aitzinaroan, eta ez dakit, gogoetatu gabe, ez ote dugun basakeria horren hatz zerbait gordetzen.

Heriotza soilaz harago den guztia krudelkeria iruditzen zait. Gure zuzenbideak ez dezake uste hiltzeko eta lepoa mozteko edo urkatzeko beldurrak egitetik eragotzia izan ez dena su ilaun bat, tenazen edo errotaren irudimenak trabatua izanen dela. Eta ez dakit etsipenera ez ote ditugun egozten: zeren zein egoeratan badagoke errota batean hautsirik edo, molde zaharrear, gurutze bati iltzaturik, heriotzaren zain hogeita lau orduz dagoen gizon baten arima? Josefok badio, Judean erromatarren gerren aroan, zuela hiru egun judu zenbait gurutzefikatu ziren lekutik iraganez, bere adiskideetarik hiru ezagutu zituela eta erdietsi zuela handik kentzea; bi hil ziren, dio, bestea gehiago bizi zen gero.

Kalkondilok, fedeko gizonak, bere aroan eta ondoan gertatu gauzen utzi dituen oroimenetan, ezinagoko oinazetzat aipatzen du Mekmed enperadorea maiz baliatzen zena, gizonen bi zatitan moztaraztekoa gorputzaren erditik, diafragmaren gunetik, eta zimitarra ukaldi batez: hortik gertatzen baitzen bi heriotzaz bezala hiltzen zirela; eta ikusten zen, dio, zati bat eta bestea biziz beterik, geroztik luzaz ikaritzen, oinazez harturik. Ez dut uste somatze handirik badenik mugimendu horretan. Ikusteko ikaragarrienak diren oinazeak ez dira beti pairatzeko bortitzenak. Izigarriago aurkitzen dut beste historiagileek epirotar jaunen kontra aipatzen dutena, larruarazi baitzituen xeheki, hain maltzurki manatu luzapen batez, non biziak hamabost egun iraun baitzien arrenkura horretan.

Eta beste bi hauek: Kresok, bere anaiaren faborittoa zen aitorenseme bat harrapazaririk, eramane zuen hariegile baten sotorra eta hainbat arramaska eta xehakazai baitzuen hariegile haren xarrantxaz eta orraizeez, non hil baitzen. George Sechel, gurutzadaren aitzakipean hainbat gaitz egin zuten Poloniako nekazarien buruzagia, guduan Transilvaniako vaivodak garaitu eta harrapaturik, hiru egunez lotua izan zen asto baten gainean, bakoitzak haren aurka asma zitzakeen oinaze mota guztietara emana, arte hartan ez zitzaien beste presoei edateko ez jatekorik eman. Azkenean, hura bizirik eta ikusirik, haren odolaren edateko eman zitzaion Lukat bere anaia maiteari, honen osasunaren alde eskatzen baitzuen, bere gainean harturik gaiztakeria guztien gogoia; eta bere kapitain faboritoetarik hogeik janarazia izan zen, horzkada hutsez haren haragia urratuz eta puskak irentsiz. Gorputzaren hondarra eta barreneko zatiak, hura hilik, irakinean ezarriak izan ziren, bere beste jarraitunei jateko eman baitzitzaien.

XXVIII

Gauza guztiek badute beren aroa

Katon zentsorea bere buruaren hiltzaile zen Katon gaztearekin alderatzen dutenek bi izaera eder eta molde hurbilekoak alderatzen dituzte. Lehena bereaz baliatu zen begitarte gehiagoetan, eginkizun militarretan eta bere ekintza publikoen ontasunean gailentzen da. Baina gaztearen bertutea, azkartasunean harekin beste edozeinen alderatzea blasfemoa litzatekeenaz landara, anitzez garbiagoa izan zen. Zentsorearena bekaitzez eta handinahiaz arindu behar baita, Eszipionen ohorearen oldartzera ausartu

baitzen, bikaintasun zati orotan hura eta bere mendeko beste edozein baino askoz ere handiagoa izanez.

Beste gauzen artean, hartaz aipatzen dena, bere azken zahartzaroan hizkuntza grekoaren ikastera lotu zitzaiola, gose sutsu batez egarri luze baten berdintzeko bezala, ez zait iruditzen hagitz ohoragarria zaiola. Hori da, hain zuzen, haurtzaroan arrerortzea esaten duguna. Gauza guztiek badute beren aroa, onek ere bai; eta nik baderraket neure paternosterra beharaldiz landan, T. Kintio Flaminio salatu zitzaion bezala, armadako buruzagia izanez bazterrean ikusi baitzitzation, gatazkaren orduan, Jainkoa otoizten ziharduelarik irabazi zuen gudu batean.

Imponit finem sapiens et rebus honestis 653.

Eudemonidasek, Xenokrates hagitz zaharra ikusirik, bere eskolako ikasgaietara lehiatsuki zihoala: "Zer dakike honek, zioen, oraindik ikasten ote duen!"

Eta Filopemenek, Ptolomeo errege goersten zutenei egunero zailtzen baitzuen bere burua armen ariketan: "Ez zaio, zioen, horren adineko errege bati gauza goresgarria haietan aritzea; jada zinez erabili behar zituen."

Gazteak bere prestaketak egin behar ditu, zaharrak haietaz gozatu, diote zuhurrek. Eta gure izaeran azpimarkatzen duten akatsik handiena gure nahiak etengabe gaztetzen direla da. Beti hasten gara berriz bizitzen. Gure ikerpenak eta gure gogoak zahartasuna somatuko beharko lukete inoiz. Zangoa hobian dugu eta gure nahikundeek eta jarraipenek sortzeaz baizik ez dute egiten:

Tu secunda marmora

Locas sub ipsum funus, et sepulchri

Immemor, struis domos 654.

Neure xedeetarik luzeenak ez du urte bateko hedadurarik; gaurgero bukatzerik besterik ez dut gogoan; esperantza eta eginkizun berri orotaz desegiten naiz; neure azken diotsala badagit uzten ditudan leku orotan; eta egunero gabetzen naiz daukadanaz.

Olim jam nec perit quicquam mihi nec acquiritur. Plus superest viatici quam viæ 655

Vixi, et quem dederat cursum fortuna peregi 656.

Hondarrean, neure zahartzaroan aurkitzen dudana arindura guztia da neure baitan moteltzen dituela bizia inarrostean duten nahi eta axola anitz, munduko ibiltzearen axola, aberastasun, handitasun, jakintza, osasun eta neure buruaren axola. Honek mintzatzen ikasten du, betirako isiltzen ikasi behar duenean.

Aro orotan luza daiteke estudiantzea, baina ez eskolatzea: zahar alfabetari baten ergelkeria!

Diversos diversa juvant, non omnibus annis

Omnia conveniunt 657.

Estudiatu behar bada, estudia dezagun gure baldintzari dagokiona, hark bezala erantzun ahal dezagun, galdegin zitzaionean zertarako egin ikerpen horiek bere zahartzaroan: , ihardetsi zuen. Halakoa zen Katon gaztearen estudioa bere amaiera hurbil somaturik, arimaren betikotasunari buruz Platonen hitzaldia baitzen. Ez, sinetsi behar duen bezala, aspaldi ez zelako halako abiatze baterako hornidura mota guztiez beterik: segurantzaz, nahikunde azkarrez eta irakaspenez, Platonek bere idazkietan daukana baino gehiago zeukan; horri buruz, haren jakintza eta kuraia filosofiaren gainetik zeuden. Ariketa horri lotu zitzaion, ez bere heriotzaren zerbitzurako, baina, halako erabaki batez bakarrik bere loa eteten ez duen bezala, horrela zirauen, bereizterik ez aldatzerik gabe, bere ikerpenetan bere biziko beste ekintza ohituekin.

Pretorgoa ukatu berri zitzaion gaua jokoan eman zuen; hil behar zueneko, irakurtzen: biziaren edo ofizioaren galtzea orobat zitzaion.

XXIX

Bertuteaz

Esperientziaz aurkitzen dut alderik aski badela gogoaren jauzi eta boladaldien eta ohitura erabaki eta iraunkor baten artean; eta badakusat deus ez dela guk ahal ez dugunik, are jakinkotasuna bera gainditu arte, dio norbaitek, gehiago baita bere buruaren soraio bilakatzea, horrela jatorriz izatea baino, eta gizonaren ergelkeriari Jainkoaren erabaki eta segurantzaren gehitu ahal izateraino. Baina inarrosaldiaz da. Eta iragan aroko heroi haien bizian inoiz badira aldi miresgarriak gure indar naturalak aski urrundik gainditzen dituztela baitirudite; baina aldiak dira, egiazki; eta sinesteko gogorra da hain baldintza goratuetan gogoaren tindatzen eta bazkatzen ahal dela, harik eta ohizko eta jatorrizko bezala bilaka dakizkion arte. Noizbait guri gertatzen zaigu, gizonen hilortuez baizik ez baikara, geure gogoaren egozte, besteren eredu edo hitzaldiz ernaturik, bere ohikoaz aski urrun; baina hori da bulkatzen eta inarosten duen pasione-mota bat, inola ere bere buruaz landara liluratzen baitu; zeren, zurrumbilo hori gainditurik, baitakusagu, gogoetatu gabe, berez laxatzen eta nagitzen dela, azken moldearen arte ez bada ere, bai bederen hura berriz ez izan arte; halako moduz non orduan, aldiro, xori galdu edo edalontzi hautsi batengatik, hunkitzera baikoaz, guti gorabehera, jende xeheetarik bat bezala.

Antolabide, neurtasuna eta iraupenaz salbu, uste dut gauzak oro egingarriak direla gizon aski arrunt eta orokorki akasduen batek.

Horregatik, diote zuhurrek, gizon baten ongi epaitzeko, nagusiki behar da haren ekintza arruntaren neurtzea eta bere baitan atzemaitea egunero.

Pirron, jakinezaz hain jakintza atsegingarria eraiki zuena, entseiatu zen, beste egiazko filosofoak bezala, bere biziaren erantzunaraztera bere irakaspenari. Eta nola baitzioen giza adimenaren ahulezia hain ezinagokoa zela, non ez baitzen alderdirik edo isurmenik hartzen ahal, eta nahi baitzuen beti zalantzan egonarazi, gauza guztiak ezaxolakoak bezala begiratzuz eta hartuz, aipatzen da beti zirauela molde eta begitarte berean. Solasaldi bat hasia bazuen, ez zuen akitu gabe uzten, mintzatu zitzaiona aldegin baten ere; baldin bazebilen, ez zuen bere bidea hausten zernahi eragozpen agertzen baten ere, bere adiskideek erroitzetarik, orgen jotzetik eta beste ezbeharretarik gerizaturik. Zeren zerbaiten beldur izatea edo itzurtzea bere hastapenen oldartzea baitzatekeen, zentzuei beraiei hautespen eta egitasun oro ukatzen baitzieten. Behin batez jasan zuen ziztaturik eta errerik izatea, halako iraupenez non ez baitziztaion begien kliskatzea ere ikusi.

Gogoaren eramatea irudimen horietara zerbait da; ondorioen gehitzea gehiago da; halarik ere, ez da ezinezkoa; baina halako iraupen eta zintasunez gehitzea non haren ibiltze arrunta finkatzen ahal den, zinez, ohizko erabileratik hain urrunduak diren egitekoetan, kasik sinestezina da egin ahal dadin. Horra zergatik behin batez bere etxean atzemanik bere arreba oso lazki gaitzesten, eta horretan bere soraiotasunari huts egiten ziola erantzunki eginik: “Nola, zioen, oraino ematar honek balio behar du ene arauen lekukotzat?” Beste behin ikusi baitziztaion zakur batengandik defendatzen: “Biziki zaila da, zioen, gizonaren osoki biluztea; beharriari lotu behar zaio eta gauzen oldartzera entseiatu, lehenik egitekoetz, baina, azken beltzean, arrazoiak eta hitzaldiez.”

Duela zazpi edo zortzi urte inguru, hemendik bi lekoatan, oraino bizi den herriko gizon bat, bere emaztearen jeloskeriaz aspaldian gogoaren hautsia edukirik, beharretik zetorren egun batez, eta hark haren ohizko oihukeriez ongi-etorria emanik, halako zoraldian sartu zen non, bere hartan, eskuetan zeukan igitaiak, hura sukarretan ezartzen zuten zatiak osoki mozturik, sudurrera bota zizkion.

Eta aipatzen da gure aitoren seme bat, maitemindua eta sasotsua, amorante eder baten bihotza azkenean beraxturik bere iraupenaz, etsiturik zeren oldarraldian laxo eta ahul aurkitu baitzen, eta

non viriliter

Iners senile penis extulerat caput 658,

bapatean hartaz gabetu zen, egoitzara itzulirik, eta bidali zion, eskaintza oinazkoi eta odoltsua, bere irainaren ordaintzat. Hitzaldiz eta erlijioz izan balitz, Zibelezen apezek bezala, zer esanen genuke hain eginkizun goratuaz?

Duela egun guti, Bergerac-en, Dordoina ibaiatz goiti ene etxetik bost lekoatan, izaeraz ozpin eta herrati zen bere senarrak aurreko gauaz emakume bat oinazetua eta zafratua izanik, deliberatu zen haren zakarkeriatik itzurtzea biziaren saritan; eta, jaikitzean ohi bezala bere auzokideekin elkarturik, bere egitekoetarako gomendiozko hitz zerbait isuririk, bere ahizpa bati eskutik atxikiz, berekin zeraman zubiraino, eta, hartaz azken agurra egin ondoren, jostetan bezala, aldatzerik ez ganbiorik batere erakutsi gabe, goitiz beheti egotzi zen ibaira, bertan galdu baitzen. Honetan den larriena da aholku hori ondu zela gau oso batez bere buruan.

Emakume indiarrez arras besterik da: zeren, haien ohitura izanik senarrek emazte anitz edukitzekoa, eta haietarik maiteenak bere buruaren hiltzekoa bere senarraren ondotik, bakoitza xederatzen baita bere bizi osoaren helburutzat hein eta abantaila horren irabaztera bere lagunak gainetik; eta beren senarrari egin zerbitzu onek ez diote haren heriotzaren lagungoan lehenetsiak izateko gomendioari baizik begiratzen,

...ubi mortifero jacta est fax ultima lecto

Uxorum fuis stat pia turba comis;

Et certamen habent lethi, quæ viva sequatur

Conjugium: pudor est non licuisse mori.

Ardent victrices, et flammæ pectora præbent,

Imponuntque suis ora perusta viris 659.

Gure egunetan oraino idazten du gizon batek Ekialdeko herri horietan ikusi duela ohitura hori sinesmenean, ez baitira emazteak bakarrik beren senarrekin ehortzen, baina hark gozatu zituen esklabuak ere bai. Modu honetan egiten baita. Senarra zendurik, alargunak eskatzen ahal du nahi badu, baina gutik nahi du, hiruzpalau hilabeteko epea bere eginkizunen antolatzeke. Eguna heldurik, zaldi gainean igaiten da, ezteietarako bezala apaindua, eta, itxura larri batez, bere senarrarekin lotara joan balitz bezala, dio, ezker eskuan ispilu bat daukalarik, gezi bat bestean. Horrela apainki ibilirik, adiskideez eta ahaideez lagundurik, eta bestan den jende-meta batez, iristen da halako ikuskizunerako xederatu den leku publikora. Erdian egurrez bete hobi bat duen plaza handi bat da, eta, hari atxikirik, lauzpabost mailaz goraturik den leku bat, honen gainera eramana eta bazkari bikain bat zerbitzatua izaten baita. Bazkalondoan hasten da dantzan eta kantari, eta, ongi iruditzen zaionean, manatzen du sua pitz dadin. Hori eginik, behehitzen eta bere senarraren ahaiderik hurbilenaren eskuari atxikiz, badoaz elkarrekin ondoko ibaira, erazten baita osoki biluzik eta bere jantziak eta bitxiak banatzen ditu adiskideen artean eta uretan murgilduz doa, han bere bekatuen ikuzteko bezala. Handik elkirik, inguratzen da hamalau besabete luzerako oihala hori batez, eta bere senarraren ahaide hari eskua emanik, itzultzen dira goragunera han jendeari mintzatzen baitzaio eta bere semealabak gomendatzen, baldin badu. Hobi eta goragunearen artean hedatzen ohi da oihala bat labe gartsu horren ikusmenaren kentzeko; zenbaitek debekatzen dutena kuraia gehiagoren erakusteko. Adieraztekoa akiturik, emakume batek agertzen dio olioak bete ontzi bat, buruaren eta gorputz osoaren gantzatzeko, baliatu denean sutara botatzen baitu eta, bere hartan, bere burua egozten du. Jendeak aurtikitzen du orduan egur puska andana bat ilaun ez dadin, eta haien alaitasun guztia dolu eta goibeltasun bilakatzen da. Maila gutiagoko pertsonaiak badira, hilaren gorputza eramaten ohi da ehortzi nahi den lekura, eta han bere jarlekuan ezarria, alarguna belauniko haren aurrean hertsiki besarkaturik, eta horrela badirau bien inguruan harresi bat eraikitzen den artean, eta, emakumearen sorbaldaraino goraturik, bereetarik batek, gibeletik burua harturik, lepoa

bihurtzen dio; eta arimak eginik, harresia goratzen eta hesten da bapatean, han ehortzirik gelditzen baitira.

Herri horretan berean, antzeko gauza zerbait bazen haien gimnosofisten baitan: zeren, ez besteren nahigabeaz, ez bapateko aldarte baten oldarpenaz, baina beren arauaren aitormen ageriaz, haien moldeak baitzen, adin zerbait heldurik ziren heinean, edo beren burua gaitzen batek mehatxaturik zekusatelarik, egur pila baten eraikiaraztea, eta gainean ohe ongi apaindu bat; eta beren adiskide eta ezagunak ongi ospatu ondoren, ohe hartan halako erabakimenduaz etzatea non, sua emanik, ez bitzitzazkien zango ez eskurik mugitzen ikusten; eta hala hil zen haietarik bat, Kalano, Alexandro handiaren armada osoaren aitzinean.

Eta ez zen haien artean hala hiltzen ez zen inor saindurik ez zoriontsurik onesten, suak garbirik eta husturik arima igorria, hilkor eta lurtiar zen oro ezeztatu ondoren.

Bizi osoko aitzingogo hori mirakulua egiten duena da.

Gure beste eztabaiden artean, Fatum-arena nahasi da; eta, etorkizuneko gauzak eta gure nahikundea bera behar gertu eta itzuriez in bati lotzeko, iragan aroko argudio honen gainean ohi dago oraino: Gure irakasleek erantzuten baitiote zerbait gertatzen dela ikustea, guk egiten dugun bezala, eta Jainkoak berdin (zeren, dena orainaldian zaiolarik, aurrikusten baino gehiago ikusten baitu), ez dela gertatzera bortxatzea; areago ere, badakusagu gauzak gertatzen direlako, eta gauzak ez dira gertatzen guk dakusagulako. Gertakariak badagi jakintza, ez jakintzak gertakaria. Gertatzen dakusaguna gertatzen da, baina gerta daiteke besterik; eta Jainkoak, bere aitzinjakintzan duen gertakarien kausen erregistroan, badauzka ere menturazkoak deitzen direnak, eta borondatezkoak, gure hautespenerako eman digun libertatepean baitira, eta badaki huts eginen dugula huts egin nahi izanen dugulako.

Bada, jende anitz ikusi dut bere gudalosteen sustatzen ezinbesteko behar horretaz: zeren, gure ordua hein gertu bati estekatua bada, etsaien arkabuzaldiek, ez gure ausartziak, ez gure ihesaldiak, ez baitute aitzinatzen ez gibelatzen ahal. Hori ederra da esateko, baina bila ezazu nork eginen duen. Eta, hala bada ere, sinesmen azkar eta bizi batek ekintzak berdin badaramatzala gibeletik, ahoan hainbatetan dugun fede hori, zinez, miresgarri arina da gure mendeetan, edo ekintzei buruz duen arbuioak erdeinarazi dio haien lagungoa.

Hainbat, non gai beroni buruz, Joinvilleko jaunak, beste edozein bezain lekuko sinesgarria baita, aipatzen baitigu bediunoez, mairuekin nahasi herria, haiekin gudukatu baitzuen San Luis erregek, beren erlijioan hain bermeki sinesten dutela bakoitzaren egunak betierekotasun orodanik aitzinezarriak eta zenbatuak direla aurreko arau itzurrezin batez, non gerrara baitoaz biluzik, ezpata turkiar bat salbu, eta gorputza oihal zuri batez estalirik. Eta bere madarikazio ezinagokotzat, beren artean haserratzten zirelarik, ahotan zutela beti: "Aihintz madarikatua, heriotzaren beldurrez armatzen dena bezala!" Horra gureaz beste den sinesmen eta fede frogak!

Eta maila honetakoa da ere Florentziako bi erlijioso horiek eman zutena, gure gurasoen aroaz. Jakintzazko eztabaida batean zirelarik, hitzartu zuten biek sutan sartuko zirela, jende osoaren aitzinean plaza publikoan, bakoitzak bere alderdiaren egiaztatzeko. Prestaketa guztiak eginak ziren eta gauza hain zuzen egiteko zorian, ezusteko ezbehar batek eten izan zelarik⁶⁶⁰.

Jaun turkiar gazte batek, arma-ekintza nabarmen bat eginik, lotzeko zorian ziren Amurat eta Huniaderen armaden aitzinean, Amuratek galdeginik nork bete zuen hain kuriaizko azkartasun eskuzabalez, hain gaztaro berdean (zeren ikusten zuen lehen gerra baitzen), erantzun zion erbi bat ukan zuela suhertasunaren irakaslerik goientzat: "Egun batez, ihizian nintzelarik, zioen, ediren nuen erbi bat eta, bi erbizakur bikain saihetsean banituen ere, iruditut zitzaidan, hutsik ez egiteko, hobe nuela oraino arkuaz baliatzea,

hagitz joko ona egiten baitzidan. Hasi nintzen gezien aurtikitzen, gezontzian nituen berrogei arte, eta ez bakarrik zauritu gabe baina iratzarri gabe ere. Orogen buruan, erbi-zakurrak laxatu nituen haren ondotik, eta ezin zezaketen ere. Hortik ikasi nuen bere halabeharrez gerizatua izan zela, eta azkonek ez ezpatek ez dutela jotzen gure halabeharraren baimenaz ez bada, haren aurreratzea edo atzeratzea ez baita gure menean." Ipuin honek balio behar du guri erakusteko, bide nabar, geure arrazoia zein malgugarri den irudi-mota orotara.

Pertsonaia bat, handia adinean, izenean, mailan eta irakaskuntzan, ene aitzinean arrandiatzen zen bere fedearen aldakuntza nagusi batera emana izan zela erakarpen arrotz hain bitxi eta, gainera, hain gazki ondoriatu batek, non nik azkarragoa aurkitzen bainuen alderantziz: hark mirakulu deitzen zuen, eta nik ere bai, zentzu ezberdinetan.

Haien historigileek diote, turkiarren artean, beren egunen akitze ezinbesteko eta gaindiezinaren sinesmena hain orokorki ereina izanez, laguntzen duela ageriki periletarik segurtatzen. Eta badazagut hor garbiki bere irabazkina aurkitzen duen printze handi bat, zoriak badarraio bermea ematen.

Gure oroimenez, Orangeo printzearen heriotzarako azpilandu zuten bi horiek baino deliberamenduzko ekintza miresgarriagorik ez da gertatu⁶⁶¹. Harrigarria da nola berotzen ahal zen bigarrena, bere lagunari, ahal zuen guztia ekarririk, hain gaizki gertatu zitzaion eginkizun bat gauzatu baitzuen; eta, molde horretan eta arma berekin, hain mesfidantza berriaren irakaspenaz armatu gizon baten zertzera joan, adiskideen jarraigoaz eta gorputzezko indarrez ahaldun, bere gelan, bere zaindarien artean, osoki bere aldekoa zen hiri batean. Zinez esku ongi deliberatu batez eta pasione azkar batek inarrosi bihotz batez baliatu zen. Puinal bat seguruagoa da hiltzeko; baina, pistola batek baino beso ibiltze eta gotortasun gehiago behar duenez geroz, bere ukaldia huts egiteko edo makurtzeko gaiagoa da. Ez dut zalantzarik hura heriotza seguru batera lehiatzen zela; zeren libra litekeen esperantza ez baitzegokeen gogo sendo batean; eta bere ekintzaren zuzenmoldeak darakusa ez zuela eskasean, eta suhartasuna ere ez. Hain sinesmen ahaldun baten bideak ezberdinak daitezke, zeren gure irudimenak nahi duena egiten baitu bere buruaz eta gutaz.

Orleans ondoan egin zen hiltzeak⁶⁶² ez zuen antzekorik deus; azkartasun baino mentura gehiago izan zen; ukaldia ez zen hilgarria zoriak bilakatu ez balu; eta zaldiz, eta urrundik, zaldiz ere zebilen bati aurtikitzeko, ihesaldian huts egitea baino bere eginkizunean huts egitea hobesten zuen gizon baten egitekoa da. Ondotik zetorrenak erakutsi zuen. Zeren liluratu eta zoratu baitzen hain hiltze goratu baten gogoetarik, eta zentzua osoki galdu eta nahasi zuen ihesaldiaren zuzentzean eta ihardespenetan mihiaren zuzentzean. Zer behar zuen, ibai baten barrenean bere adiskideengana jotzeaz baizik? Peril xumeagoetan egotzi naizen eta arrisku gutiko deritzodan bidea da, ibiak luzetasun zerbait badu ere, zure zaldiak sartze erraza aurkitzen duen eta zuk, uraren joairaren arabera, haraindian ertze erraz aurrikusten duzun ber. Besteak⁶⁶³, bere sententzia izigarria adierazi zitzaionean: "Prest naiz, zioen; harrituko zaituztet neure jasankortasunaz."

Asasinoak⁶⁶⁴, Feniziaren menpean den herria, onetsiak dira musulmanen artean debozio eta ohitura garbitasun handi batengatik. Parabisuaren merezimenduaren erdiesteko biderik segurutzat daukate erljio kontrarioko inoren hiltzea dela. Horregatik, beren arrisku guztiak gutietsiz, hain hilketa onuragarri batentzat, batek edo bik agindu dute, heriotza gertu baten saritan, etsaiaren gudalosteen erdira agertzea haren hiltzeko (hitz hau haien izenetik mailegatu baitugu⁶⁶⁵). Horrela hila izan zen gure Raimond de Tripoli kuntea bere hirian.

XXX

Haur izigarri batez

Ipuin hau osoki soilik joanen da, zeren sendagilei uzten baitiet haren gain gogoetatzea. Herenegun ikusi nuen haur bat, bere aita, osaba eta izeba zirela zioten bi gizonek eta unide batek baitzekarten bere arrarotasunaren bidez erakustetik diru zerbaiten ateratzeko. Garaitiko osoan molde arruntekoa zen, bere zangoen gainean zutitzen zen, bazebilen eta murduskatzen zuen gutiz goiti-beheiti adin bereko besteez bezala; oraino ez zuen hartu nahi unidearen ditiaz beste janaririk; ene aitzinean ahoan sartzera entseiatu zena mastekatzeko zuen apur bat eta oka egiten zuen irentsi gabe; haren oihuek baziruditen berezitasun zerbait zeukatela; bazuen doi hamalau hilabeteko adina. Bere ditien azpitik, bizkarraren hodia iztupaturik eta garaitikoa osorik zeukan bururik gabeko beste haur bati atxikia eta itsasia zegoen; zeren beso motzago bat baitzuen, baina ezbeharrez hautsia izan zitzaion sortzaldian; elkarrekin zeuden bekoz beko, eta haur tikiago batek beste handixeago bat lepotik besarkatu nahi balu bezala. Elkarri zetzizkion jostura eta aldea ez zen lau behatz ingurukoaz baizik, halako moldeaz non, haur osagabe hori biltzen baduzu, azpitik baitakusazu bestearen zilborra; horrela, jostura egiten zen diti eta zilborraren artean. Osagabearen zilborra ez zitekeen ikus, baina bai haren sabelaren gainerako osoa. Loturik ez zena, hala nola osagabearen besoak, ipurdia, izterrak eta zangoak gelditzen baitziren zintzilik eta dilindan bestearen gainean, erdi zangoraino hel zitezkeelarik haien luzetasuna. Unideak gehitzen zigun pixegiten zuela bi lekuetarik; bestearen soinadarrak hazirik eta bizirik ziren ere, eta harenen hein berean, xume eta xeheagoak zirela salbu.

Gorputz bikoitx eta soinadar ezberdin horiek, buru bakar bati egokirik, erregeri balio liezaioke bere legeen batasunpean gure estatuko atal eta zati ezberdinei atxikitzeaz aztiatze faboragarri bezala; baina gertakariak gezurta dezan beldurrez, hobe da aitzinera iragan dadin uztea, zeren gauza eginetan baizik ez baita asmatu behar: Ut quum facta sunt, tum ad conjecturam aliqua interpretatione revocantur. Epimenidesez aipatzen den bezala, gibelka asmatzen zuela.

Medoc-en ikusi berri dut artzain bat, hogeita hamar urte ingurukoa, ernaltze zatien hatzik batere ez duena: hiru zulo ditu, haietarik etengabe bere ura baitario; bizardun da, ausarki, eta emakumeen ukitzea bilatzen du.

Mustroak deitzen ditugunak ez zazkio halakoak Jainkoari, bere ekintzaren neurgabetasunean baitakusa eduki dituen moldeen mugagabetasuna; eta sinestekoa da harritzen gaituen itxura hau badagokiola eta datxikiola gizonari ezezaguna zaion mota bereko beste itxura zerbaiti. Haren orojakintzatik on, ororen eta arauturik besterik ez baita abiatzen; baina guk ez dakusagu antolabiderik ez harremanik.

Quod crebro videt, non miratur, etiam si cur fiat nescit. Quod ante non vidit, id, si evenierit, ostentum esse censet.”

Naturaren aurkakoa deitzen dugu ohituraren aurka gertatzen dena; deus ez da haren arabera baizik, zernahi ere den. Arrazoi orokor honek haiza beza gure baitarik berritasunak dakarkigun hutsa eta harrimena.

XXXI

Haserretzeaz

Plutarko orotarik miresgarria da, baina nagusiki giza ekintzez epaitzen duenean. Ikusten ahal dira Likurgo eta Numaren arteko alderaketan esaten dituen gauza ederrak, haurrak beren gurasoen manatze eta kargura uztea zaigun ergelkeria handiaren gaiari buruz. Gure gobernu gutiz gehienek, Aristotelesek dioen bezala, bakoitzari uzten diote, ziklopeek bezala, bere emakume eta semealaben zuzendaritza bere ameskeria zoro eta ezjakinaren arabera; eta, kasik lakedemoniar eta kretarrak bakarrik legeei manatu diete bere haurreriaren hezkuntza. Nork ez dakusa estatu batean dena haren hezkuntza eta

hazkuntzaren menpean dagoela? Eta hala ere, zuhurtziarik batere gabe, gurasoen eskuetan uzten ohi da, zoro eta gaiztoagoak badira ere.

Beste gauzen artean, gure karriketan barrena ibilki, zenbat aldiz eraiki gogo dut komedia bat, aita edo ama herraz amorratu eta zoratu batek larrutzen, zafratzen eta zanpatzen dakuskidan mutikoen mendekatzeko! Badakuskizu sua eta amorrua begietarik dariela,

rabie jecur incendente, feruntur

Præcipites, ut saxa jugis abrupta, quibus mons

Subtrahitur, clivoque latus pendente recedit 668,

(eta, Hipokratesen arabera, gaitzik perilosena begitarte desitxuratzen dutenak dira), ahots zorrotz eta leherkor batekin unidegotik atera berri denaren aurka. Eta gero horra ukaldika herbaldurik eta zozoturik; eta gure zuzenbidea ohartzen ez zaiola, maingutze eta okertze horiek gure errepublikaren zatiak ez balira bezala:

Gratum est quod patriæ civem populoque dedisti,

Si facis ut patriæ sit idoneus, utilis agris,

Utilis et bellorum et pacis rebus agendis 669.

Ez da usteen zintzotasuna haserreak bezainbat kordokatzen duen pasionerik. Inork ez luke zalantzarik heriotzaz zigortzeko haserreaz bere gaizkilea kondenatu zukeen epailea; zergatik baimentzen zaie guraso eta irakasleei haurren azotatzeko eta zigortzeko haserrean direlarik? Ez da zuzentzea, mendekua da. Zigortzea sendabidetzat hartzen da haurren baitan: jasan ote genezake bere pairalearen aurka xederaturik eta gorromiaturik litzatekeen sendagilea?

Guk, ongi egitekotan, ez genuke eskurik ezarri behar geure zerbitzarien gainean haserreak irauten digun artean. Pultsuak danbatzen gaituen eta hunkimenak somatzen dugun artean, gibela dezagun eginkizuna; gauzak zinez besterik irudituko zaizkigu, geldi eta hotz gaitezenean; pasionea da orduan manatzen duena, pasionea da mintzo dena, ez gu.

Haren bidez, hutsak handiagoak iruditzen zaizkigu, gorputza lanbro baten barrena bezala. Gose dena haragiaz baliatzen da; baina zigortzeaz baliatzera datorrenak ez du gose ez egarri izan behar.

Eta gero, pisu eta jakintzaz egiten diren zigortzeak anitzez hobeki eta fruitu gehiagorekin hartzen ohi dira jasaten dituenaren aldetik. Bestenaz, ez du uste zuzenki zigortua izan dela herraz eta zoramenez inarrosirik den gizon batek; eta zuritzeko aipatzen ditu bere irakaslearen ohiz kanpoko higidurak, haren aurpegiaren sutzea, ohi gabeko biraoak, eta haren egoneza eta lehia ausarta:

Ora tument ira, nigrescunt sanguine venæ,

Lumina Gorgoneo sævius igne micant 670.

Suetoniok aipatzen du, Luzio Saturnino Zesarrek kondenatu izanik, bere kausaren irabazarazteko jendearen aitzinean (bere alde deitu baitzuen) hari gehien baliatu ziona Zesarrek epaiketa hartan erakutsi zuen aiherkundera eta garraztasuna izan zela.

Esatea egiteaz besterik da: gogoan hartu behar da alde batetik predikua eta bestetik predikugilea. Jokaldi ederra egin dute, gure aroan, gure Elizaren egia bere zerbitzarien bizioen bidez erauzi nahi izan dutenek; hark beste nonbaitetik ateratzen ditu bere lekukotasunak; argudiamolde ergel bat da eta gauza guztiak nahastekatuko lituzkeena. Aztura oneko gizon batek uste faltsuak eduki ditzake, eta gaizto batek egia predika dezake, eta sinesten ez duenak ere bai. Zalantzarik gabe, harmonia ederra da egitea eta esatea elkarrekin doazelarik, eta ez dut ukatu nahi esatea, ekintzek darraizkiolarik, manamendu eta eragin gehiagokoa dela. Eudamidasek, filosofo bati gerraz ihardukitzen entzunik, zioen bezala: “Solas horiek ederrak dira, baina dioena ez da sinesgarria, ez baititu belarri ohiturik tronpetaren hotsean”. Eta Kleomenes, erretoriko bati

suhartasunaz elegiten aditurik, irriz lehertzen zen; eta bestea asalaturik, esan zion: “Berdin eginen nuke ainara bat horretaz mintzatuko balitz; baina, arrano bat balitz, adituko nioke gogotik.”. Aurkitzen nuen, uste dut, zaharren idazkietan, gogoan duena dioenak bizikiago jotzen duela itxura dagienak baino. Entzun Zizeroni libertatearen amodioz mintzatzen, entzun Brutori: idazkiek berek darauntsate hau biziaren saritan libertatearen erosteko gizona zela. Zizeron, elegintzaren aita, ari bedi heriotzaren gutiesteaz; ari bedi Seneka ere: hark herrestan darabil ilaunki, eta somatzen duzu sinestarazi nahi dizula berak sinesten ez duena; ez dizu bihotzik ematen, berak ez baitu; besteak berotzen eta sustatzen zaitu. Ez dakusat egilerik, bertuteaz eta ofizioez ari direnak ere, zer izan den xeheki ikertzen ez dudanik.

Zeren eforoek, Espartan, gizon galdu batek jendeari aholku onuragarri bat eskaintzen ikusirik, isiltzeko manatu baitzioten, eta oneko gizon bati eskatu zioten asmamena bere gain hartzeko eta eskaintzeko.

Plutarkoren idazkiek, ongi dastatzekotan, aski agertzen digute, eta uste dut arimaraino ezagutzen ditudala; eta nahi nuke haren biziaren oroimen zerbait ukan dezagun; eta hitzaldi honetara egotzi naiz Aulio Geliori eskertzen diodalako idatziz utzi baitigu nire haserrearen gaiari doakion Plutarkoren ohiturez ipuin hau. Haren esklabu batek, gizon gaiztoa eta biziosoa, baina inola ere belarriak filosofiazko ikasgaietan bazkaturik zituenak, akats batengatik erantzirik Plutarkoren manamenduaz, azotatzen zitzaion artean, hasieran marmaratzen zuen arrazoirik gabe zela eta ez zuela ezer egin; baina, hondarrean, oihuka hasirik eta bere nagusia azkarki iraintzen, erantzuki egiten zion ez zela filosofoa, arrandiatzen zen bezala; maiz entzun ziola esaten itsusia zela gorromiatzea, eta liburu bat egin zuela ere; eta orduan, erabat haserrean murgildurik, hain oinazkoiki zafrarazteak osoki gezurtatzen zituela haren idazkiak. Horri Plutarkok, osoki hozki eta lasai: “Nola, zioen, zoztor hori, zertaz uste duk orain gorromiaturik naizela? Ene aurpegiak, ahotsak, koloreak, hitzak, hunkiturik naizelako lekukotasun zerbait ematen dik? Ez diat uste begi pizturik, ez aurpegi nahasirik, eta oihu ikaragarriak dudanik. Gorritzen ote naiz? Aparra darit? Esatera itzurtzen ote zait gero damuaraziko nauen gauzarik? Dardaran ote naiz? Ikaratzen gorromioz? Zeren, hiri esateko, horiek dituk haserrearen egiazko ezaugarriak.” Eta gero, zafratzen zuenari buruz bihurtzen. “Jarrai iezaiozu zioen, zeure beharrari, honek eta biok eztabaidatzen dugun artean.” Horra haren ipuina.

Arkitas Tarentino, kapitain jenerala izan zen gerra batetik itzulirik, erabiltze txarrez beterik aurkitu zuen bere etxea, eta lurrak larreek janak bere maizterren gobernu txarragatik; eta, deiarazirik: “Hoa, esaten dio, haserreturik ez banendi zehatuko hinduket edereki!” Berdin Platonek, bere esklabuetarik baten kontra beroturik, Espeusipori eman zion zigortzeko eginbeharra, bera eskuaren ezartzeko desenkusaturik haserratua zelakoan. Karilo lakedemoniarrek, harengana sobera ozarki eta ausarki jokatzen zuen elota bati: “Alajainkoak! Zioen, gorromiaturik ez banendi, orain berean hilaraza hinduket”.

Bere baitan laketzen eta gozatzen den pasionea da. Zenbat aldiz, kausa faltsu baten pean hunkiturik, agertzeraz etortzen bazaigu defentsa edo aitzaki on bat, amorratzen gara egia beraren eta hobengabetasunaren kontra? Honi buruz atxiki natzaio zaharraroaren eredu miresgarri bati. Pisok, garaitiko orotan bertute nabarmeneko pertsonaiak, bere soldadu baten kontra ezarriak zeren, alatzetik bakarrik itzulirik, ez baitzekien konturik ematen bere laguna non utzi zuen, segurutzat eduki zuen hil zuela, eta heriotzara kondenatu zuen bapatean. Urkabean zelarik, horra heldu dela bere lagun galdua. Armada osoak beste handia egin zuen, eta bi lagun bereka eta besarkada askoren ondoan, borrarroak badaramatza bata eta bestea Pisonen aitzinera, zeuden guztiek uste edukiz hari berari atsegin handia zitzaiokeela. Baina aitzitik izan zen:

zeren, ahalkez eta amorruez, oraindik irakinean zen bere gartasuna emendatu baitzen; eta, bere pasioneak bertan eman zion argitasun batez, hobengabe bat aurkitu zuelako hiru hobendun egin zituen, eta hiruak hilarazi zituen: lehen soldadua, haren kontrako kondena baitzen; galdu zen bigarrena, bere lagunaren heriotzaren kausa baitzen; eta borrarroa, egin zitzaion manuari ez obeditzeagatik.

Emakume tematiekin harremanak eduki behar dituenak entseiatu ahal dira zein amorrutara egozten diren, haien inarrosteari isiltasuna eta hoztasuna aitzikatzeko zaiolarik, eta haien gorromioaren haztea gutiesten delarik. Zelio elegileak ikaragarri haserre zen bere izaeraz. Harekin afaltzen zuen bati, solasaldi bigun eta eztxiko gizona eta, ez hunkitzeagatik, zioen guztiaren onesteko eta onartzeko alderdia hartu baitzuen, hark, ezin jasanez bere gaitzitzearen horrela janaririk gabe iragan beharra: “Uka iezadak zerbait, alajainkoak! Egi zuen, bi izan gaitezen amoreagatik” Emakumeak, berdin, ez dira hasertzen baizik eta kontraserre gaitezen amoreagatik, amodioaren legeen antzera. Fozionek, garrazki irainka bere solasaldia nahasten zion gizon bati, ez zion isiltzerik eta haren haserrearen akitzeko asti osoa ematerik besterik egin; hori eginik, nahasmen horren batere aipamenik gabe, berriz hasi zen bere solasaldian utzi zuen lekuan. Ez da halako gutiesteria bezain ihardespene samingarrik.

Frantziako gizonik haserretuenaz (eta beti akatsa da, baina gizon militar bati barkagarriagoa: zeren, eginbide horretan, badira hori gabe iragan ez daitezkeen zatiak), maiz diot bere haserrearen bridatzeko gizonik jasankorra dela: hainbat bortiztasun eta zoramenekin baitarabil,

magno veluti cum flamma sonore

Virgea suggeritur costis undantis aheni,

Exultantque æstu latices; furit intus aquaï

Fumidus atque alte spumis exuberat amnis;

Nec jam se capit unda; volat vapor ater ad auras ⁶⁷¹,

non bere burua bortizki bortxatu behar baitu apaltzeko. Eta niketz, ez dut ezagutzen, estaltzeko eta jasateko, halako eginahal egin beharko nukeen pasionerik. Ez nuke zuhurtzia hain sari handitan ezarri nahi. Ez diot hainbat begiratzeko zer egiten duen nola zenbait balio duen gaiztoagorik ez egiteak.

Beste bat arrandiatzen zitzaidan bere ohituren antolabide eta eztitasunaz, egiazki berezia baita. Esaten nion zerbait zela, oroz gain bera bezala maila gorakoen baitan, bakoitzak begiak baititu haien gain, munduari beti agertzea ongi neurturik, baina nagusiena barrenean eta bere buruaren manatzea zela, eta ez zela, ene irudiko, egitekoen ongi erabiltzea barrenetik alatzea: hori egin zuelako beldur bainintzen kanpotik maskara eta itxura arautu horri atxikitzeko.

Haserrearen gordetzean berbaitaratzeko ohi da, Diogenesek Demostenesi zioen bezala, ostatu batean ikusirik izan beldurrez, barreneko aldera gibelatzen baitzen. “Zenbat eta atzerago gibelatzen haizen, hainbat gehiago sartzen haizen”. Aholkatzen dut zapletako bat eman dakion zerbitzariaren masailari, apur bat beharraldiz kanpoan, bortxamen zuhur horren itxuratzeko irudimena oinazetu baino lehenago; eta nahiago nuke neure pasioneen sortzea neure bizkar haien berotzea baino; ilauntzen dira haizatzen eta adierazten; hobe da haien ziztada kanpoan ari dadin gure kontra malgutzeko baino. *Omnia vitia in aperto leviora sunt; et tunc perniciosissima, cum simulata sanitate subsidunt.*”

Neure familian haserretzeko zilegitasuna dutenei gaztigatu nien: lehenik, aurrezki dezaten beren haserre eta ez dezaten zernahitarako barreia; zeren horrek ondorioa eta pisua eragozten baitu; oihukeria ausarta eta arrunta ohitura bilakatzen da eta eragiten du bakoitzak gutietsi dezan; zerbitzari baten kontra bere ebasketagatik erabiltzen duzun hori ez da somatzen baldin eta, edalontzi bat gaizki garbitu edo aulki bat gaizki

ezartzeagatik, ehun aldiz bere kontra erabiltzen ikusi dizuna bera bada; - bigarrenik, ez daitezela airez aire haserra, eta begira dezaten beren gaitzespena hel dakion kexatzen direnari: zeren eskuarki oihukatzen baitute hura etorri baino lehen, eta badiraute oihukatzen abiatu denetik mende bat geroago,

et secum petulans amentia certat ⁶⁷³.

Beren itzalari lotzen zaizkio eta badaramate erauntsi hori inor zigorturik ez interesaturik ez den lekura, hainbateraino non, haien ahotsen abarrotsaz, ez baitaiteke gehiagorik. Berdin salatzen ditut desafiatzen eta asaldatzen direnak aurrekorik izan gabe; rodomontkeria⁶⁷⁴ horiek gorde behar dira xedea dutenerako:

Mugitus veluti cum prima in praelia taurus

Terrificos ciet atque irasci in cornua tentat,

Arboris obnixus trunco, ventosque laccessit

Ictibus, et sparsa ad pugnam produlit arena ⁶⁷⁵.

Haserretzen naizelarik, bizikienaz da, baina ahal dudana labur eta ezageriena da ere; laster eta bortiztasunean galtzen naiz, baina ez nahasmenduan, hitz iraingarri mota oro axola eta bereztasunik gabe egozterainokoa, eta neure ziztadak gehien zauritzen duten uste dudana lekuan egokiro ez ezartzerainokoa: zeren, eskuarki, ez bainaiz mihiaz baizik baliatzen. Hobeki doakie nire zerbitzariei gertaldi handietan xumeetan baino; xumeek oharkabea atzematen naute; eta zorigaitzak nahi du, erroitzean zaudenez geroztik, ez duela axolarik nork bulkatu zaituen, beti bazoaz hondoraino; erorketa lehiatzen, ibiltzen eta akuilatzen da beraz. Gertaldi handietan, askiesten nau hain zuzenak direla non bakoitzak uste baitu haserretze arrazoigarri baten sortzea ikusiko duela; loriatzen naiz haien esperantzaren engainatzen; gogortzen eta prestatzen naiz hauen kontra; burmuinean sartzen zaizkit eta mehatxatzen oso urrun eramateko jarraiki badiet. Errazki zaintzen naiz sartzetik, eta aski azkarra naiz, igurikatzen badut, pasione horren bulkadaren ezeztatzeko, zeinnahi kausa bortitza badu ere; baina atzipetzen eta harrapatzen banau behin batez, banarama, zeinnahi kausa hutsala badu ere. Neurekin iharduki dezaketenekin honela solastatzen dut: “Somatzen duzuenean ni lehenik hunkitu naizela, utz nazazue joatera artez ala makurrez; nik gauza bera eginen dut neure txandan.” Erauntsia ez da sortzen baizik eta bata bestetik gogotik eragiten diren haserretzeetarik, ez baitira hein batean sortzen. Eman diezaiogun bakoitzari bere ibilaldia, hona beti bakean gaudela. Arau onuragarria, baina egiteko zaila. Inoiz ere gertatzen zait haserretuaren itxuraren egitea, neure etxearen zuzenketarako, batere egiazko hunkitzerik gabe. Adinak aldarte ozpinago bilakatzen dizkidan heinean, lantzen naiz oposatzera, eta eginen nuke, hemendik aitzina, ozpin eta zail gutiago izanen naizela izateko aitzakia eta isurmen gehiago dudana ber, lehenik gutiago diren artean izan banaiz ere.

Oraindik hitz bat urrats honen hesteko. Aristotelesekin dio haserrearen armatzat balio diola bertutea eta suhertasunari. Itxurazkoa da; nolanahi ere, ezetz diotenek atseginez baderantzute erabilera berriko arma dela: zeren guk baitarabiltzagu beste armak, honek garabiltza; gure eskuak ez du gidatzen, hura da gure eskua gidatzen duena; datxikigu, ez gatzizkio.

XXXII

Seneka eta Plutarkoren defentsak

Pertsonaia hauekin dudana trebetasunak, eta neure zahartzaroari eta haien hondarrez hutsik eraikia den neure liburuari egiten dioten laguntzak, behartzen naute haien ohorearen defendatzera.

Senekari buruz, ustezko erlijio erreformatukoek beren kausaren defentsarako lasterrarazten dituzten mila liburuttoren artean, noizbait esku onetik abiatzen baitira eta damu handia baita eginbehar hobe bati loturik ez izatea, behin ikusi dut bat, Charles

bederatzigarrena gure errege gaizoaren erreinuaren eta Neronenaren artean atzeman nahi duen antzekotasunaren luzatzeko eta betezeko, Lorenako jaun kardinala zena Senekarekin parekatzen duena: beren zoriak, biak beren printzeen gobernamentuetan lehenak izatekoak, eta horrekin batean beren ohiturak, baldintzak eta ekintzak. Nire irudiko, ohore aski egiten baitio aipatu jaun kardinalari: zeren, hainbat haren gogoia, elegintza, haren erlijio eta erregerekiko lehia, eta hain berri eta arraro izan zen mende batez sortzeko haren zoriona onesten dituztenetarik banaiz ere, eta ontasun publikorako hain beharrezkoa baitzen halako goren eta zuzentasuneko pertsonaia baten edukitzea, jakintsu eta bere karguaren gai: egiaren aitortzeko, ez dut haren gaitasuna inondik ere halakorik onesten, ez haren bertutea Senekarena bezain garbirik ez osorik, ez hain bermerik.

Bada, mintzatzen naizen liburuak, bere xedera heltzeko, Senekaren deskribapen hagitx iraingarri bat egiten du, erantzuki horiek Dion historialariagandik harturik, haren lekukotasuna ez baitut inola ere sinesten; zeren, buru arina izateaz landara, behin Seneka txitzuhurra deitu ondoren, eta behin Neronen bizioen etsai amorratua, beste inon egiten baitu zikoitza, lukuraria, handinahia, laxoa, atseginkoia eta filosofo itxuragilea ezaugarri faltsuekin; haren bertutea hain bizi eta azkar agertzen da haren idazkietan, eta salakuntza horietarik zenbaiti erantzuna hain garbia, hala nola haren aberastasun eta dispendio soberazkoa, non ez baitut lekukotasun kontrariorik sinesten. Areago ere, askoz ere arrazoigarria da halako gauzetan historialari erromatarren sinestea grekoak eta arrotzak baino. Bada, Tazito eta besteak biziki ohorezki mintzatzen dira haren biziaz eta heriotzaz, eta gauza orotan margotzen digute pertsonaia oso bikain eta oso bertutetsua. Eta Dionen epaiketaren kontra ez dut erantzuki honetaz besterik aipatu behar, itzurezina baita: egiteko erromatarretan hain sentimendu eria duela, non Julio Zesarren kausa Ponpeioren aurka eta Antoniorena Zizeronenaren aurka sostengatzera ausartzen baita.

Gatozen Plutarkoren baitara.

Jean Bodin gure aroko egile on bat da, eta bere mendeko izkiriente-andanak baino anitzez adimen gehiagoz lagundurik, eta merezi du epai dadin eta gogoan har dadin. Ausartuxea aurkitzen dut Plutarko ez soilik jakinezaz (horretan utziko bainukeen esatera, hori ez baita neure gaia), baina egile horrek maiz gauza sinestezinak eta osoki alegiazkoak idazten dituela salatzen duen bere Historiaren Metodora-ren pasartea. Soilik direnez besterik esan izan balitu gauzak, ez litzateke erantzuki handia; zeren ikusi ez duguna besteren eskutik hartzen baitugu maileguz, eta badakusat inoiz jakinik aipatzen duela ezberdinki historia bera: hala nola sekula izan diren kapitainik hoberenen epaiketa, Hanibalek egina, besterik baita Flaminioaren bizian, besterik Pirrorenan. Baina gauza sinestezinak eta ezinezkoak diru ontzat hartzeagatik salatzea munduko egilerik adimentsuena adimenik ezaz salatzea da.

Eta hona haren erdua: “Adibidez, dio, aipatzen duenean Lakedemoniako haur batek azeri bati utzi ziola bere sabel osoaren urratzea, eta bazeukan jantzipean gorderik hil arte bere ebasketa agertu baino lehen.” Lehenik adibide hau gaizki hautaturik aurkitzen dut, arras zaila baita gogoaren ahalmenen eginahalen mugatzea, gorputzezko indarren mugatzeko eta ezagutzeko bide gehiago dugun bitartean; eta, horregatik, niri bazitzaidekeen egitekoa, lehenago hautatuko nukeen bigarren mota honetako eredu bat; eta badira sinesgarritasun gutiago dutenak, hala nola, besteen artean, Pirroz aipatzen duen hori, osoki zauriturik izanez, hain ezpata-ukaldi handia eman ziola zati guztiez armaturik zen bere etsai bati, non burutik beheiti arraildu baitzuen eta gorputza bi zatitan hautsi zela. Haren erduan, ez dut hain mirakulu handirik aurkitzen, ez dut onartzen ere Plutarko gerizatzen duen aitzakia, hitz honen gehietzekoa: Diotenaren arabera, ohartarazteko eta gure sinesmena bridapean edukitzeko. Zeren, ez bada zahartasun edo erlijioaren manamenduz eta begirunez onartu gauzetan, ez baitzukeen

berak ere onartu nahi, ez berez sinestezinak diren gauzen sinesteko guri eskaintzea; eta hitz hori: Diotenaren arabera, ez darabilela leku horretan ondorio horretarako, ikusteko erraza da zeren berak beste inon aipatzen baitigu haur lakedemoniarren jasankortasunaren gaiari buruz, bere aroan gertatu ereduak eta sinesteko gaitzagoak: hala nola Zizeronek ere berak baino lehen lekukotasun eman duena, dioten arabera, lekuetan egoteagatik: oraino beren aroan haurrak aurkitzen zirela, Dianaren aldarearen aurrean entseiatzen zitzairen jasankortasun frogaren hartan, azotaturik izatea odola orotarik zerien arte pairatzen zutenak, ez bakarrik oihukatu gabe, baina kexatu gabe ere, eta batzuk bizia gogotik utzi arte. Eta Plutarkok, beste ehun lekukorekin, aipatzen duen hori, eskarian inzentsatzen zuelarik ikatz sudun bat lerraturik haur lakedemoniar baten mangan, utzi zuela besoaren erretzera harik eta haragi egosiaren usaina zeudenei etorri zitzairen arte. Deus ere ez zen, haien ohituraren arabera, omen gehiago zihoakienik, ez irain eta ahalke gehiago jasan behar zutenik, ebasketan harrapataturik izatea baino gehiago. Hain betetik nago gizon haien handitasunaz, non ez baitzait bakarrik iruditzen, Bodini bezala, haren kondaketa sinestezina dela, ez baitut bakarrik arraro eta arrotz aurkitzen ere.

Historia espartarra eredu garrantz eta arraroagoz betetik da: horren arabera, dena mirakulua da.

Martzelinok aipatzen du, ebasketaren gai horri buruz, bere aroan ez zela oraino ediren ahal oinaze-motarik batere, gaiztakeria horretan harrapatu egiptoarrei, haien artean hagitz erabilia baitzen, bakarrik bere izena esanaraz ziezaiekeenik.

Nekazari espainol batek, torturan ezarria Luzio Piso pretorearen hilketaren lagunkideei buruz, oihukatzen zuen, oinazeen erdian, bere adiskideak ez zitezela mugi eta lagun zezaten segurtasun osoz, ez zuela aitorten-hitzik batere erauziko ziokeen minik; eta ez zuen besterik lehen egunean. Biharamunean, berriz bere oinazearen hasteko zeramatelarik, beren zaindarien eskuetarik bortizki inarrosirik, joan zen bere buruaren jotzera harresi baten kontra eta hil zen.

Epikaris, Neronen nerabeen oinazkoikeria, zafraldiak eta tresnak egun oso batez asetuz, nekatuz eta haien sua jasanez geroz, bere azpilanaren aitorten-hitzik gabe; biharamunean torturara eramanez, soinadarrak oro hautsirik, bere jantziko estekailu bat besaulki batetik zirriztito batez iragan eta, buruan sarturik, bere gorputzaren pisuaz urkatu zen. Horrela hiltzeko eta lehen oinazei itzurtzeko kuraia edukiz, ez ote dirudi jakinik eman zuela bere bizia jasankortasunaren frogaren hartan tirano hartaz burlatzeko, eta haren kontra antzeko egitekoetara besteen sustatzeko?

Gure arkulariei galdegiten dienak gerra zibil hauetan eduki dituzten esperientziez, jasankortasun, iraunkortasun eta tematasunen ondorioak aurkituko ditu, gure mende esteiari hauetan eta oraino egiptiarra baino beratz eta ematuagoa den jendaila honen baitan, bertute espartarraz aipatu berri ditugunekin alderatzeko gaiak. Badakit aurkitu direla laborari soilak oin-zolen erretzera, pistola baten erauskarriaz hatz puntan lehertzera, soka lodi batez kopetaren hertsatzearen bortxaz begiak odoletan burutik erauztera utzi direnak bakarrik erreskate saritan ezarri nahi izatea baino lehenago. Bat ikusi dut, hobi batean biluzik hiltzat utzirik, lepoa osoki zauriturik eta hanpaturik oraindik zintzilik zeukan lokarri batek, hartaz gau osoz herrestaturik izan baitzen zaldi baten buztanetik, gorputza ehun lekutan zulaturik puinal-ukaldika, ez baitzitzazkion ematen hiltzeko baina min eta beldurraren eragiteko; hori oro jasan zuena, hitza eta sentimendua galdu arte, erabakirik, esan zidatenez, mila heriotzaz hiltzera (egiazki, pairamenari buruz, bat osorik iragan zuen bezala) deus agindu baino lehen; eta eskualde osoko nekazari aberatsenatarik bat zen. Zenbat ikusi dira jasankorki su ematera eta erretzera utzirik besterengandik mailegatu usteengatik, ezjakinak eta ezezagunak!

Ehun eta ehun emakume ezagutu ditut, zeren baitiote Gaskoinako buruek lehentasun zerbait badutela horretan, burdin berotan ausikiaraziko zenituzkeenak haserrean gogoratu zaien uste bat desausikiarazi baino lehenago. Ukaldien eta aitzikotasunarekin sutzen dira. Inongo mehatxuzko eta makila ukaldizko zuzenketagatik ere bere senarra zorrizu deitzetik eten ez baitzuen eta, uretara egotzirik, oraino itotzean eskuak goratzen zituen eta buru gainean zorrien hiltzeko keinua egiten zuen emakumearen ipuina asmatu zuenak, egiazki, emakumeen temakerian egunero ikusten den irudi ageriaren ipuin bat moldatu zuen. Eta temakeria iraunkortasunaren ahizpa da, bortitz eta bermetasunean bederen.

Ez da daitekeena eta ez daitekeena epaitu behar gure zentzuari sinesgarria eta sinesgaitza zaionaren arabera, beste inon esan dudan bezala; eta akats handia da, halarik ere gizon gutiz gehienak erortzen baitira (ez baitiot Bodinengatik), beraiek egin ez lezaketen edo nahi ez luketenaren sinesteko zailtasunaren egitea. Bakoitzari iruditzen zaio naturaren molde nagusia bere baitan dagoela; eta haren arabera neurtzen eta badakartza beste garaitiko moldeak. Bere moduei ez dagozkienak faltsuak eta izunak dira. Zein ergelkeria zozoa! Nik hautematen ditut gizon zenbait nitaz hagitz urrunez goragoak, zaharren artean bereziki; eta haiei neure urratsez jarraikitzeke neure ezintasuna badazagut ere, banarraie ikusmenaz eta epaitzen ditut horrela goratzen dituzten tresnak, inola ere hauen haziak hautematen baitut neure baitan: gogoen ezinagoko apaltasunaz egiten dudan bezala, ez bainau harritzen eta sinesten baitut. Badakusat haiek igaiteko baliatzen diren itzulingurua; eta miresten naiz haien handigoaz eta biziki ederrak aurkitzen ditudan oldarte horiek besarkatzen ditut; eta neure indarrek ez badezakete ere, neure adimena badatxikie bederen hagitz gogotik.

Aipatzen duen Plutarkok esan gauza sinesgaitzen eta osoki alegiazkoen beste ereduak da eforoek Agesilao isundu zutela beretzat bakarrik hiritarren bihotza eta nahikundearen erakartzeagatik. Ez dakit zein faltsutasun ezaugarria aurkitzen duen; baina Plutarkok hor mintzatzen da guri baino askoz ere ezagunagoak zitzaizkion gauzez, eta ez zen berririk Grezian gizon zigortu eta atzerriratuen ikustea beren hiritarrei sobera laketzeagatik, ostrazismoa eta petalismoa⁶⁷⁶ lekuko.

Oraino bada leku horretan berean Plutarkogatik sumintzen nauen beste salaketa bat, baitio gogo onean alderatu dituela erromatarrek erromatarrekin eta grekoak beraien artean, baina ez erromatarrek grekoekin, lekukoak Demostenes eta Zizeron, Katon eta Aristides, Sila eta Lisandro, Martzelo eta Pelipidas, Ponpeio eta Agesilao, dio; uste izanez grekoak faboratu dituela hain lagun ezberdinen emateagatik. Hain zuzen Plutarkok daukan bikain eta goresgarrienaren oldartzea da: zeren, bere alderaketetan (bere idazkietarik zatirik miresgarriena baita eta, nire iduriko, beretzat laketuena), usteen fideltasun eta zintzotasunak berdintzen baitu haien barrentasun eta pisua. Bertutea irakasten digun filosofo bat da. Dakusagun bermatzen ahal dugun manu-makurreriaz eta faltsukeriazko erantzuki horretaz.

Gogoan har dezakedana da buruan dugun izen erromatarren distira handi eta liluragarri hori dela uste hori eragin ahal duena. Ez zaigu iruditzen Demostenek berdin dezakeela errepublika handi horren kontsul, prokontsul eta pretor baten ospea. Baina gauzaren egia eta gizonak beren baitan gogoan harturik, horretara xederatzen baita gehiago Plutarko, eta beren ohiturak, izaerak, eta jakintza beren zoria baino gehiago, uste dut, Bodinen aitzitik, Zizeronek eta Katonek zor dietela beren lagunei. Haren xederako gehiago hautatuko nukeen Katon gaztearen ereduak Fozioneekin alderaturik; zeren, bikote horretan, ezberdintasun itxuragarriago bat erromatarren abantailan aurkituko bailitzateke. Martzelo, Sila eta Ponpeiori buruz, ongi badakusat haien gerrako ekintzak hanpatu, ospetsu eta hantuagoak direla Plutarkok alderatzen dizkienenak baino; baina ekintzarik eder eta bertutetsuenak, gerran beste inon bezala, ez dira beti ospetsuenak.

Maiz badakuskit kapitainen izenak meritu gutiagoko beste izenen distirak itoak: Labieno, Ventidio, Telesino eta beste asko lekuko. Eta, handik hartzekotan, grekoengatik kexatzekorik banu ez ote nerrake anitzez gutiago alderagarria dela Kamilo Temistoklesekin, Grakotarrak Agis eta Kleomenesekin, eta Numa Likurgoekin? Baina zoramena da hainbat aurpegitako gauzak marraldi batez epaitu nahi izatea.

Plutarkok alderatzen dituelarik ez ditu horregatik berdintzen. Nork litzake xeheki eta gogotikago haien ezberdintasunak ohartaraz? Bekoz beko ezartzen dituelarik Ponpeiok zuzendu garaipenak, armen ekintzak, armaden ahalmenak eta haien irabazteak Agesilaorenekin: “Ez dut uste, dio Xenofonek berak, bizirik balitz, eman bazaio era nahi izan duen guztia Agesilaoren abantailan idaztea, ausartuko litzatekeela alderaketan ezartzera” Mintzatzen da Lisandro Silarekin berdintzeaz: “Ez da, dio, alderatzerik, ez garaipen zenbakitan, ez guduen menturan; zeren Lisandrok ez baitzituen soilik irabazi bi itsas guduz baizik, eta abar.”

Hori ez da erromatarren apaltzea, soilik grekoengana hurbiltzeagatik, ez diezaieke irainik egin, zernahi ezberdintasun bada ere. Eta Plutarkok ez ditu osoki kontrapisatzen; ez du orokorki lehentasunik batere: alderatzen ditu zatiak eta gorabeherak, bata bestearen gibeletik, eta epaitzen ditu bereizirik. Horregatik, faboratzeagatik salatu nahi bazaio, bakandu beharko litzateke uste berezi bat, edo orokorki esan alderatu behar zela halako grekoa harako erromatarrarekin, bailirateke alderatzeko gaiagoak eta hobeki egokigarriak.

XXXIII

Espurinaren historia

Filosofiak ez du uste bere bideez baiziki baliatu dela arrazoia egiten duenean gure gogoaren nagusi gorena eta gure nahikundeen bridapean edukitzeko manua. Hauen artean amodioak sortzen dituenak baino bortitzagorik ez direla uste dutenek beren aburuaren alde badute gorputz eta gogoari datxizkiela eta gizon osoa hark menperaturik dela: halako moldez, non osasuna bera haren menean baita eta sendakuntza inoiz bortxatua baita haientzat bitartekari bezala zerbitzatzera.

Baina, aitzitik, esan liteke gorputzaren nahasmendua apaltzea eta ahulezia dakarrela: zeren halako nahikundeak asegarriak baitira eta materialezko antolabideen gaiak. Askok, nahikunde horrek ematen zizkien etengabeko asaldatzeaz beren gogoan libratu nahian, zati harrotu eta narritatuen ziztatze eta erauzteaz baliatu dira. Besteek haien indarra eta gartsutasuna osoki apaldu dute gauza hotzen ezartze usuaz, hala nola elurra eta ozpina. Gure arbasoen zilizioak erabilera horretakoa ziren; zaldi zurdaz ehundu gaia da, hartaz haietarik zenbaitek atorrak egiten baitzituzten eta besteek giltzurritan oinaztatzeko gerrikoak. Printze batek esaten zidan, aspaldi ez dela, bere gaztaroan, bestaburu egun batez, Frantzisko lehenaren gortean, jende guztia apaindurik baitzen, zilizioz janzteko nahikeria ukan zuela, bere aita zenarena baitzuen etxean; baina, zeinnahi debozio bazuen ere, erantzeko gaua arte igurikatzeko jasankortasunik ez zezakeela eduki, eta luzaz egon zela eri, gehituz ere ez zuela uste bide horrek motel ez lezakeen gaztaroko hain bero garratzik bazenik.

Halarik ere, menturaz ez ditu egosgarrienak dastatu; zeren esperientziak erakusten baitigu halako hunkimendu batek aski maiz dirauela soineko latz eta esteiarien azpian, eta zilizioek ez dituztela beti daramatzatenak bezalakotzen. Xenokratesek gogorkiago egin zuen: zeren bere ikasleek bere neurtasunaren frogatzeko, Lais emagaldutako eder eta ospetsua ohean ezarriarik, biluz gorritan salbu eta bere edertasunaren armak eta apaindura zoraxkak, bere filtroak, nola somatzen baitzuen bere hitzaldi eta arauen gainetik, gorputz ameskoia asaldatzen hasten zela, errearazi zituen bihurraldi horri belarria eman zioten gorputz zatiak. Bitartean, gogoan osoki dauden pasioneek, hala nola handinahiak, zikoizkeriak eta besteek, askoz ere lan gehiago ematen diote

arrazoiari; zeren bere bideez baizik ez baita baliatzen ahal, eta ez dira nahikunde horiek asegarriak, gozamenarekin zorrozten eta emendatzen baitira.

Julio Zesarren eredu bakarra aski izan daiteke guri erakusteko nahikunde horien ezberdintasuna, zeren sekula ez baitzen amodiozko atseginei emanago zen gizonik. Bere buruaz zeukan axola arduratua horren lekukotasun bat da, harik eta orduan erabiltzen ziren biderik lizunkoienez baliatu arte: hala nola gorputz osoaren bipilaraztea eta ezinagoko nabarmentasunezko urrinez zamatzea. Eta berez pertsonaia ederra zen, zuria, gorpuzkera eder eta alaikoa, aurpegia betea, begiak beltzaranak eta biziak, Suetonio sinetsi behar bada, zeren Erroman ikusten diren haren estatuak ez baitagozkio osoki margotze horri. Bere emazteen gain, lau aldiz aldatu baitzituen, Nikomedes Bitiniako erregerekin bere gaztaroko amodioak kontatu gabe, ukan zuen Egiptoko Kleopatra hain erregina ospetsuaren birjintasuna, sortu zitzaion Zesarion ttikia lekuko. Amodioa ere egin zion Eunoe Mauritaniako erreginari, eta, Erroman, Postumia Servio Sulpizioen emazteari, Lolia Gabiniorenari, Tertula Krasorenari, eta Mutia berari, Ponpeio handiaren emazteari, hori baitzen, diote historialari erromatarrek, haren senarrak utzi zuelako kausa, Plutarkok aitor baitu ez zekiela; eta Kurion aita-semeek gero Ponpeiori erantzuki egin zioten, Zesarren alabarekin ezkondu zelarik, egiten zela adardun bilakatu zuen gizonaren suhia, eta hura Egisto⁶⁷⁷ deitzeko ohitura zeukala. Andana horren gain, baziharduen Servilia, Katonen arreba eta Marko Brutoren ama, bakoitzak uste baitu hortik zetorkiola Brutoren aldera zeukan isurmen hura, zeren sortu baitzen beregan sortua zelako itxura zen aroan. Horrela, arrazoa dut, iruditzen zait, galbide horri ezinago emana zen gizontzat eta hagitz izaera maitekortzat hartzeko. Baina handinahiairen beste pasionea, mugagabeki zauriturik baitzen, haren oldartzera etorririk, berehala gibelarazi zuen.

Hori buruz Mahomaz oroitzen naizela, Konstantinopla menperatu zuena eta izen grekoaren hondarreko suntsipena zekarrena, ez dakit bi pasione horiek non aurkitzen diren berdinago balantzaturik: berdin emakoi eta soldadu nekagaitza. Baina, bere bizian bata bestearen lehian agertzen direnean, gartsutasun gatazkatsuak menperatzen du beti amodiozkoa. Eta honek, bere aro naturalaren landan bazen ere, ez zuen berriz manakuntza gorena irabazi azken zahartzaroan aurkitu zen arte, gerren zamaren eramateko gai ez zelarik.

Adibide kontrario bezala, Ladislao Napoliko erregez aipatzen dena ohargarria da: kapitain ona, sutsua eta handinahia, bere handinahiairen helburu nagusitzat xederatu zuen bere atseginarene gauzatzea eta edertasun arraro baten gozamina. Bere heriotza berdin izan zen. Florentziako hiria setio ongi jarraiki baten bidez hain osoki hertsaturik non biztanleak bere garaipenaren antolatzeke prest baitziren, utzi zien mintzatzen aditu zuen edertasun bikaineko haien hiriko neska bat eman ziotenen ber. Emateko bortxa izan zen eta hondamen publikoaren irain pribatuaren bidez bermatzekoa. Bere aroko sendagile ospetsu baten alaba zen, eta hura, hain beharkunde zital batean bahiturik aurkituz, deliberatu zen eginkizun gora batera. Nola bakoitzak bere alaba edertzen baitzuen eta apaindurez inguratu, berak ere eman zion zapi bat hauta urrinean eta itxuran, hartaz neska baliatu behar baitzen beren lehen hurbiltzeetan, emakumeek halako leketan sekula ahanzten ez duten gauza baita. Zapi horrek, haren antzearen ahalmenaren arabera pozoindurik, haragi asalatu eta xilo ireki horietan igurtzirik, hain laster egotzi zuen bere pozoina non haien izerdi bero bapatean hotz bilakaturik, hil baitziren bata bestearen beso artean. Zesarrengana itzultzen naiz.

Bere atseginek ez zioten batere minuturik galarazi, ez batere urratsik desbiderarazi bere handitzerako agertzen ziren gertaldietarik. Pasiore horrek hain nagusiki menperatu zituen garatiko guztiak bere baitan eta bere gogoaz hain manakuntza osoaz jabetu zen, non nahi zuenera baitzeraman. Egiazki damu dut, bestalde gogoan hartzen dudalarik

pertsonaia horren handigoa eta bere baitan zeuden zatiak, hainbat askitasun jakintza-mota orotan non kasik ez baita hark idatzi ez duen zientziarik. Halako elegilea zen, non askok nahiago baitzuten haren elegintza Zizeronena baino; eta berak, nire ustez, ez zuen uste deus ere zor ziola zati horretan; bere bi Antikaton oroz gain idatziak izan ziren Zizeron bere Katon-en baliatu zen ongi esanaren kontrapisatzeko.

Bestalde, sekula izan ote zen harena bezain gogo zaindaria, ekilea eta lanaren jasailea? eta oraino, zalantzarik gabe, bertutearen hazi arraro anitzez ederturik zen, biziak diot, naturalak eta ez itxuratuak. Berezioki neurrizkoa zen eta hain guti minbera bere jatean, non Opiok badio egun batez, agertu baitzitzaion mahaian, saltsa batean, olio medizinatutik olio arruntaren ordeiz, nasaiki jan zuen bere arrotzainaren ez ahalketzeko. Beste behin batez, azotarazi zuen bere okina zerbitzatu izanagatik guztientzat ez zen ogia. Katonek berak esaten ohi zuen bere aberriaren hondamena xederatu zuen neurrizko lehen gizona zela. Eta Katon horrek berorrek egun batez hordia deitu zuenari buruz (hori modu honetan gertatu zen: biak Senatuan zeudelarik, Katilinen azpilanaren gaiak mintzatzen baitzen, Zesarri buruz gogoan behartze bat baitzen, ekarri zitzaion kanpotik gutun bat gordeka. Katonek, uste izanez azpilankideek gaztigatzen zioten zer bait zela, manatu zion eman ziezaion. Menturaz amodiozko gutun bat zen Serviliak, Katonen ahizpak, idazten ziona. Katonek, irakurririk, egotzi zion esaten ziolarik:) hori, diot, gehiago izan zen gutieste eta haserretzearen hitz bat bizio horren erantzuki zuzen bat baino, anitzetan iraintzen ditugun bezala hastiatzen gaituztenak ahora datozkigun lehen irainekin, inola ere badagozkie ere guk lotzen dizkigunei. Gainera, Katonek erantzuki egiten dion bizio hori Zesarri hauteman berri zionaren biziki auzokidea da; zeren Venus eta Bako elkarri baitagokio, zuhurtitzak⁶⁷⁸ dioen arabera.

Baina, ene baitan, Venus anitzez arinagoa da neurtasunaz lagundurik.

Laidostatu zutenen aldetik haren eztitasun eta urrikaltasunaren ereduak zenbatezinak dira; badiot gerra zibila bere aitzintzean zen arokoen besterik, haietaz berak adierazten baitu bere idazkien bidez etsaien bereganatzeko eta bere etorkizuneko menpetasun eta garaipenaren beldur gutiago eginarazteko. Baina esan behar da eredu haiek, haren jatorrizko eztitasunaren lekukotasunaren emateko aski ez badira ere, erakusten digutela bederen konfiantza miresgarri eta kuraiaren handitasun bat pertsonaia horren baitan. Maiz gertatu zaio bere etsaiari arma osoen igortzea, garaitu ondoren, zinaren bidez behartu nahi izan gabe, haren faboratzea ez bazen ere, bederen berari gerra egin gabe irautea. Hiru eta lau aldiz harrapatu ditu halako Ponpeioren kapitainak eta beste hainbat aldiz libre utzi ditu. Ponpeiok bere etsaitzat aldarrikatzen zituen gerrara laguntzen ez zuten guztiak; hark, jakinarazi zuen adiskidetzat zeuzkala egiazki haren kontra ibiltzen ez armatzen ez ziren guztiak. Beste baldintza baten hartzeko, beregandik aldegiten zuten kapitainei oraino armak, zaldiak eta puskak igortzen zizkien. Indarka hartu zituen hiriak, nahi zuten alderdiari jarraikitzeke libertatean uzten zituen, bere eztitasun eta urrikalduraren oroimenaz beste zaindaritzarik eman gabe. Farsaliako bere gudu handiaren bezperan, debekatu zuen ez dadila eskurik ezar, azken beltzean ez bazen, hiritar erromatarren gainean.

Horra marraldi aski ausartak, nire ustez; eta ez da miraria baldin eta, pairatzen ditugun gerra zibiletan, hark bezala beren herriko egoera zaharra oldartzen dutenek haren eredu imitatzen ez badute; ohiz landako ereduak dira soilik Zesarren zoriari eta haren zuhurtzia miresgarriari zorionez zuzentzea dagozkionak. Arima haren handigo alderagaitza gogoan hartzen dudalarik, garaipena barkatzen dut harengandik ezin bereizteagatik, are kausa txit zuzengabe eta gaizto hartan.

Haren urrikarira itzultzeko, haren menpatasunaren aroan eredu jatorri asko ditugu, gauza guztiak haren eskupean izanez, gogoan behartzekorik ez zeukalarik. Kaio Memiok haren kontra hagitz solas ziztakorrak idatzirik, hark garrazki erantzun baitzien;

ez zuen horregatik kontsul egiteko lagundu gabe utzi. Kaio Kalvo, haren kontrako epigrama iraingarri anitz eginik, bereganatzeko adiskideez baliaturik, Zesar deliberatu zen lehenik hari idaztera. Eta gure Katulo ona, hain gogorki oldartu zuena Mamurraren izenpean, harengana joanik desenkusatzera, egun hartan berean afalarazi zuen mahaian. Hartaz gaizki mintzatzen diren zenbaitez ohartarazirik, hitzaldi publiko batean ohartarazia zegoela aldarrikatzeaz besterik ez zuen egin. Haren etsaien hastio baino beldur gutiago zuen. Haren biziaren aurka egiten ziren azpilan eta bilera zenbait edirenik, askietsi zen jakinarazpen baten bidez ezagunak zitzaizkiola agertzea, beste modu batez egileei jazarri gabe. Adiskideengana zeukan begiruneari buruz, Kaio Opio harekin bidaiatuz eta gaizki sentiturik, utzi zion zegoen gela bakarra, eta gau osoa etzan zen zola hutsean eta agerian. Haren zuzenbideari buruz, hilarazi zuen bereziki maite zuen zerbitzari bat, zaldun erromatar baten emaztearekin etzan izanagatik, inor kexatu ez bazen ere. Sekula inork ez zuen neurtasun gehiagorik ekarri bere garaipenean, ez erabakitasun gehiagorik zorigaitzean.

Baina haren isurmen eder horiek aldatuak eta itoak izan ziren handinahiairen pasione zoro hark, harengana hain osoki utzi zuen bere buruaren eramatera non errazki sostengantzen ahal baita hura zetzikiola bere ekintza guztien lema eta endaitzari. Gizon eskuzabal batengandik ebasle publiko bat bilakatu zuen xahutze eta zabaltasun horri hornitzeko, eta hitz zital eta oso zuzengabe hau esanarazi: munduko gizonik gaizto eta galduenak bere handigorako zerbitzuan leialak izan balitzaizkio, bere ahalmenaz maitatu eta aitzinatu zituzkeela hobereneko jendeak bezainbat. Hain ezin gehiagoko hutsalkeriaz zoratu zuen, non bere hirikideen aitzinean, errepublika erromatar handia molderik eta gorputzik gabeko izen bat bilakatu zuela arrandiatzera ausartu baitzen; eta orduan bere erantzunek legetzat balio behar zutela esatera; eta horrela Senatuaren gorputza beregana etortzen onartzera; eta adora zekion eta bere aitzinean jainkozko ohoreak egin zekizkion jasatera. Hitz batez, bizio bakar horrek, nire irudiko, harengan galdu zuen sekula izan zen izaerarik aberatsena, eta haren oroimena hastiagarri bilakatu oneko jende guztientzat, bere herriko hondamenetik eta munduak sekula ikusiko duen errepublikarik ahalduen eta loreztagarrienaren bihurralditik bere ospea bilatu izanagatik.

Pertsonaia handien eredu anitz aurki liteke, aitzitik, atseginak beren egitekoen zuzentzea ahanzarazi dienak, Marko Antonio eta beste zenbait bezala; baina amodioa eta handinahia balantza berdinean balira eta indar berdinekin joko balute elkar, zalantzarik batere ez dut honek irabaziko duela nagusigoaren saria.

Bada, neure etenduretara itzultzeko, asko da gure nahikundeen bridatu ahal izatea arrazoiaren hitzaldiaren bidez, edo bortxaz gure soinadarren beren eginbeharrean egonarztea; baina gure auzokideen alde gure buruaren oinaztatzea, ez bakarrik kilikatzen gaituen pasione ezti horren uztea, besteari atseginak gure buruaren ikustean dugun plazerra eta bakoitzak maitatu eta onetsiak, baina oraindik ere horren kausak diren gure grazien hastiatzea eta higuintzea, eta gure edertasunaren kondenatzea beste inor hartaz berotzen delako; ez dut doi eredurik ikusi. Hau bada: Espurina, Toskanako gizon gaztea,

Qualis gemma micat, fulvum quæ dividit aurum,

Aut collo decus aut capiti, vel quale, per artem

Inclusum buxo aut Oricia terebinto,

Lucet ebur ⁶⁷⁹,

edertasun berezi batez dohaturik, eta hain soberazkoa, non begirik neurtuenek ez baitzezaketan neurtuki haren distira jasan, ez askietsirik orotarik piztuz zihoan hainbat sukar eta su laguntzarik gabe uzteaz, bere burua eta naturak egin zizkion dohai aberatsen aurkako sumintzean sartu zen, haiei besteren hutsa atxiki behar balitzaie

bezala, eta ebaki eta nahasi zuen, jakinik egin zituen zauri eta orbanen bortxaz, naturak hain artoski haren aurpegian zerraion arautze eta neurtasun bete.

Neure ustearen esateko, miresten naiz ekintza horietaz ohoratu baino gehiago: soberakeria horiek neure arauen etsaiak dira. Xedea eder eta kontzientziaduna izan zen baina, neure irudiko, apur bat zuhurtzia eskasekoa. Zer? haren itsustasunak balio bazuen gero gutiestearen eta gorrotoaren bekatura askoren egozteko, edo bekaitzarenera hain gomendio arraro baten ospeaz, edo gezur gaiztoarenera aldarte hori handinahi zoro baten bidez entelegatzen. Ote da molde zerbait bertatik bizioak bere gertaldia sortzen ez duenik, nahi badu, modu zerbaitez aritzeko? Zuzen eta ospetsuagoa zen Jainkoaren dohai haietaz egin zezan bertute eredugarri eta araubide-gai bat.

Bizi zibilean zintzotasun zehatzeko gizon bat estekatzen duten arau arantzatsu andana mugagabe eta egin behar arruntetarik itzurtzen direnek badagite, nire ustez, aurrezkitze eder bat, garraztasun berezizko zirta bat batzen badute ere. Nolabait, ongi bizitzeko neketik itzurtzeagatik hiltzea da. Beste sari bat ukan dezakete; baina zailtasunaren saria, sekula ez zait iruditu ukan zezaten, ez eta neketan deus ez dela munduko jende-ostearen uhinen erdian zutik irauteko baino areagorik, erantzuten eta askiesten zintzoki bere eginbeharren zati guztiak. Menturaz, errazagoa da sexu osotik garbiki baztertzea, norbere emaztearen lagungoan behar bezalako hein osoan irautea baino; eta ezaxolatukiago egoten ahal da beharkundean zuzenki erabili nasaitasunean baino: erabilerak badarama, arrazoiaren arabera, uzteak baino garraztasun handiago batera. Neurtasuna bertute nekeagoa da jasankortasuna baino. Eszipion gaztearen ongi bizitzeak badu mila modu: Diogenesen ongi bizitzeak bat bakarrik. Hobengabetasunean, honek bizi arruntak gainditzen ditu, bikain eta beteek onuragarritasun eta indarrean gainditzen zuten bezainbat.

XXXIV

Julio Zesarren gerra egiteko bideei buruzko oharpenak

Gerrako buruzagi askoz aipatzen da liburu zenbait gomendio berezitan ukan zituztela: Alexandro handiak Homero bezala; Eszipion afrikarrak Xenofon, Marko Brutok Polibio, Karlos bosgarrenak Philippe de Comines; eta aro honetan esaten da Makiavelo oraindik omenean dabilela; baina Strossi mariskala zenak, Zesar hartu baitzuen bere aldetik, zalantzarik gabe hobeki hautatu zuen: zeren, zinez, hori izan behar baitzen gerra gizon ororen laburtegia, gudar artearen egiazko eredurik gorena izanik bezala. Eta oraino Jainkoak daki zein graziaz eta edertasunaz apaindu duen gai aberats hori: hain mintzamolde garbi, hauta eta beteaz non, nire irudiko, munduan ez baitira zati horretan aldera dakizkiokeen idazkirik.

Hemen ezarri nahi ditut, haren gerren gaiari buruz, oroimenean gelditu zaizkidan marraldi berezi eta arraro zenbait.

Bere armada ikara zerbaitez egonez Juba erregek haren kontra zermatzan indar handien zebilen aipuarengatik, bere soldaduek hartu zuten ustea apaldu eta etsaiaren bideak gutitu orde, bilaraziz geroz haien lasaitzeko eta sustatzeko, hartu zuen ohi dugunaren osoki bide kontrario bat: zeren esan baitzien ez zitezela neketan ibil etsaiek zermatzan indarren jakiteko, gaztigu aski gertu bat eduki baitzuen berak; eta orduan haien zenbakia egin zien anitzez ere gainditurik bere armadan zebilen egia eta omena, Xenofonen baitan Zirok gomendatzen duenari jarraikiz; egiaz etsaiak uste baino ahulagoak aurkitzean engainua ez baita hain handia nola, omenez ahulak ustetsirik, hagitz gotorrak gero egiazki aurkitzean.

Bere soldaduak ohitzen zituen, oroz gain, bakarrik obeditzen, beren kapitainaren xedeen ikertzera edo mintzatzeraz nahasi gabe, egiteko zorian baizik ez baitzien adierazten; eta atsegin zuen, haietaz zerbait ediren bazuten, berehala ustez aldatzea haien engainatzeko;

eta maiz, horretarako, aterbe bat leku batean erabakirik, iragaiten zuen aitzina eta ihardunaldia luzatzen, bereziki aro gaizto eta euritsua ari bazuen.

Suitzarrek, Galiako beren gerren hasieran, harengana bidalirik erromatarren lurretan barrena iraganbidearen emateko, hark, bortxaz eragoztera deliberaturik, begitarte ona itxuratu zien, eta egun zenbaiteko epea hartu zuen erantzuteko, bitarte hartaz baliatzeko bere armadaren biltzeko. Jende gaizo horiek ez zekiten bere denboraren zein baliatzaile handia zen; zeren anitz aldiz baitio gertaldien heinean hartzeko jakintza kapitain baten zatirik gorena dela, eta zaulitasuna, bere ekintzetan egiazki ohigabea eta sinesgaitza baita.

Horretan, akordio bateko hitzarmen baten estakurupean bere etsaiaren gain abantailaren hartzekoan, doi ahalkekorra ez bazen, hain guti zen ere bere soldaduengandik suhartasunaz beste bertuterik ez eskatzeko, ez bihurraldiaz eta desobedientziaz beste biziorik ez zigortzeko. Maiz, bere garaipenen ondotik, brida uzten zien libertate osorako, denbora batez gudar obedienciaz arauetarik libratuz, horri gehiturik hain ongi sortu soldaduak zeuzkala non, osoki urringozaturik eta apaindurik, ez baitziren gatazkara sutsuki joan gabe gelditzen. Egiazki, maite zuen aberaski armatuak joan zitezen, eta eramanarazi zizkien uhalaria grabatu, urrezatu eta zilarreztatuak, haien armen gordetzerako axolak defentsarako garratzago bilaka ditzan. Haiei mintzatzen, oraindik darabilgun laguna-ren izenaz deitzen zituen: Augusto haren ondokoak aldatu zuena, ustetsirik hark egin zuela bere egitekoen beharraz eta gogotik baizik ez zerraizkionen bihotzaren perekatzeko;

Rheni mihi Cæsar undis

Dux erat, hic socius: facinus quos inquinat, æquat 680,

baina modu hori apalegia zela enperadore eta armadako buruzagi baten gorentasunarentzat, eta ohituran birrezarri zuen soilik soldaduen deitzea.

Jendetasun horri, hala ere, Zesarrek nahasten zion larritasun handi bat bere soldaduen zapaltzeko. Bederatzigarren legioa bihurturik Plasentziaren ondoan, irainki kanporatu zuen, Ponpeio oraindik zutik bazen ere, eta ez zuen barkatu otoitz askorekin baizik. Eztitasunaz baino gehiago, manakuntzaz eta ausartziaz apalarazten zituen.

Alemanien aldera Rhin ibaiaren iragaiteaz mintzatzen den pasarteaz, badio jende erromatarrarentzat ahalkegarria izanik bere armada ontziz iragan zezan, zubi bat eraikiarazi zuela urrats bermean iragan zedin. Han eraiki zuen bereziki egitura deskribatzen duen zubi miresgarri hura: zeren bere egitekoen ezein lekutan ez baita hain gogotik gelditzen, bere halako eskuz ekintza-motako asmamenen fineziaren erakusteko.

Honi ere ohartu natzaio: bere soldaduen gudu aitzineko sustatzeez kontu handia dagiela; zeren, ezustetsirik edo lehiaturik izan dela erakutsi nahi duenean, beti hori aipatzen baitu, bere armadari hitzaldiaren egiteko astirik ere ez duela izan. Tournaikoen kontra gudu handi haren aitzinean: "Zesar, dio, garaitikoa manaturik, lasterka joan zen zoriak zeraman lekura bere jendeen sustatzeko; eta hamargarren legioa aurkituz, ez zuen esateko astirik, baizik eta bere ohizko bertuteaz oroit zitezen, eta ez zitezela lotsa eta ausarki sostenga zezaten etsaiaren eginahala; eta etsaia gezialdi batera hurbildurik baitzen, guduaren keinua egin zuen; eta handik, arinki beste inora joanik besteen sustatzeko, aurkitu zuen borrokan zirela jadanik." Horra zer dioen pasarte hartan. Zinez, haren mintzoak aski zerbitzu nabarmenak egin zizkion leku anitzetan; eta, haren aroan berean, halako gomendio handitan zen haren gudar elegintza non haren armadako askok biltzen baitzituen haren hitzaldiak; eta bide horretaz bildu dira haren ondoan luzaz iraun duten gutunak. Haren mintzoak grazia bereziak zituen, haren ahaideek eta, besteen artean, Augustok, bildu zenaren aipatzen entzunik, esaldi eta hitzetan ere ezagutzen baitzuen zer ez zen harena.

Manu publikoarekin Erromatik atera zen lehen aldiz, zortzi egunetan heldu zen Errodano ibaira, kotxean zeukalarik bere aitzinean etengabe idazten zuten idazkari bat edo bi, eta gibelean bere ezpata zeramana. Eta zinez, joateaz baizik egin ez balu ere, doi uste daiteke arintasun hori, beti garaile, Galia utzirik eta Pompeiori jarraikiz Brindisira, Italia menperatu baitzuen hemezortzi egunez, itzuli Brindisitik Erromara, Erromatik Espainiako azken mugara baitzihoan, han iragan baitzituen Afranio eta Petreioaren aurkako gerran eta Marseilako setioan ezainagoko hertsialdiak. Handik Makedoniara itzuli zen, armada erromatarra garaitu zuen Farsalian, handik iragan, Pompeiori jarraikiz, Egiptora, menperatu baitzuen; Egiptotik Siria eta Pontoko herrira zetorren, Farnazes gudukatu baitzuen; handik Afrikara, Eszipion eta Juba desegin baitzuen, eta oraindik Italiatik Espainiara itzuli zen Pompeioren semeak desegin baitzituen,

Ocior et Cæli flammis et tigride fæta 681,

Ac veluti montis saxum de vertice præceps

Cum ruit avulsum vento, seu turbidus imber

Proluit, aut annis solvit sublapsa vetustas,

Fertur in abruptum magno mons improbus actu,

Exultatque solo, silvas, armenta virosque

Involvens secum 682.

Avarikoko setioaz mintzatzen, badio bere ohitura zela lanean zeuzkan langileen ondoan gau eta egunez egotea. Ondorioko eginkizun guztietan berak egiten zituen lehen aitzinatzeak, eta haren armada sekula ez zen iragaiten berak lehenik ezaguturik ez zuen lekutik. Eta Suetonio sinesten badugu, Ingalaterrara joateko eginkizuna gauzatu zuenean, bera lehena izan zen ibiaren ikertzeko.

Esan ohi zuen nahiago zuela aholkuz zuzentzen zen garaipena bortxaz baino. Eta, Petreio eta Afranioren aurkako gerran, zoriak erakutsiz abantailarako gertaldi aski ageri bat, ezeztatu zuen, dio, uste izanez, luzamendu gehiago baino mentura guttiagorekin, etsaiak garaituko zituela.

Horrela egin zuen ekimen bat, bere oste osoari beharrik gabe igerika ibaiaren iragaiteko manatzea:

rapuitque ruens in prælia miles,

Quod fugiens timuisset, iter; mox uda receptis

Membra foveant armis, gelidosque a gurgite, cursu

Restituunt artus 683.

Alexandro baino neurtu eta gogoetatuagoa aurkitzen dut bere eginkizunetan: zeren horrek dirudi arriskuen bila eta lasterka doala, aurkitzen duen oro bereizkunderik gabe jotzen eta erasotzen duen erreka oldartsu batek bezala:

Sic tauriformis volvitur Aufidus,

Qui Regna Dauni perfluit Appuli,

Dum sævit, horrendamque cultis

Diluviem meditatur agris 684.

Halaber honek baziharduen bere adinaren lorean eta lehen beroan, bitartean Zesar lotu zitzaion jada heldurik eta aski aitzinaturik. Gainera, Alexandro gorputz-giro odoltsu, herrati eta sutuagokoa zen, eta aldarte hori ardoaz sustatzen zuen, Zesar hartaz hagitz zaindurik baitzen; baina beharraren gertaldiak agertzen edo gauzak eskatzen duenean, sekula ez zen bere buruaz hobeki baliatu zen gizonik.

Niri dagokidanez, iruditzen zait haren eginkizun anitzetan bere buruaren galtzeko erabaki baten irakurtzea, garaiturik izateko ahalketik itzurtzeko. Tournaikeen aurka zuen gudu handi hartan, lasterka joan zen gerizarik gabe, zegoen bezala, etsaien aitzinera agertzerak, bere armadaren burua desegiten zela ikusirik; hori beste asko aldiz

gertatu baitzitzaion. Bereak setiatuak zirela aditurik, mozorroturik iragan zen etsai armadan barrena bere egoteaz haien azkartzera joateko. Dirrakiora iraganik biziki indar gutiekin, eta ikusiz bere armadaren garaitikoa, Antoniok zuzen zezan utzi baitzuen, berant zebilela jarraitzeko, bera bakarrik lotu zitzaion berriz itsasoaren iragaiteari erauntsi handi batez, eta desbideratu zen bere indarren garaitikoaren hartzeko, haraindiko portuak eta itsaso osoa Ponpeiok harrapatua izanik.

Esku armatuaz egin zituen eginkizunei buruz, anitz badira menturatan gudal arrazoiaren hitzaldi oro gaintitzen dutenak; zeren zenbat indar ahulekin abiatu zen Egiptoko erresumaren menperatzera, eta gero, Eszipion eta Jubaren indarren oldartzera joatea, bereak baino hamar aldiz handiagoak? Jende horiek ukan dute ez dakit zein gizagaindiko konfiantza beren zorian.

Eta bazioen eginkizun handiak gauzatu, eta ez ikertu, egin behar zirela.

Farsaliako guduaren ondotik, bere arma aitzinera igorritik Asian, eta ontzi bakar batez Helespontoko mehargunea iraganez, itsasoan aurkitu zuen Luzio Kasio hamar gerra-ontzi handirekin; ez zuen bakarrik haren zaintzeko kuraia, baina harengana zuzen jotzekoa eta errendi zedin manatzekoa; eta erdietsi zuen. Alexiako setio bortitz hura hasirik, larogei mila gizon baitziren defentsan, Galia osoa eraikirik gainera etortzeko eta setioaren biltzeko, ehun eta bederatzi mila zaldi eta berrehun eta berrogei mila oinezko armada bat eraikiz, zein ausartzia eta konfiantza zoroa izan zen bere eginkizunaren ez uzteko eta bi zailtasun hain handiei lotzekoa? Halarik ere, jasan baitzituen; eta kanpokoen aurka gudu handi hura irabazi ondoan, aski laster antolatu zituen bere menera hertsirik zeuzkanak. Beste hainbat gertatu zitzaion Lukulori Tigranozertako setioan, Tigranes erregeren aurka, baina baldintza ezberdin batez, Lukulok borrokatzeko zeuzkan etsaien berazkeria ikusirik.

Alexiako setio horri buruz bi gertaldi arraro ohartarazi nahi ditut hemen: bata, galiarrek, han Zesarrengana joateko bildurik, beren indar guztien zenbatzea eginik, erabaki zutela beren batzarrean jende oste haren zati on baten moztea, nahasmenean eror zitezen beldurrez. Sobera izateko beldurraren eredu hau berria da; baina, ongi hartzera, itxuragarria da armada baten gorputzak eduki behar duela muga zenbaitetara neurtu eta arautu handigo bat, dela haren hazteko zailtasunagatik, dela zuzentzeko eta araupean edukitzeko zailtasunagatik. Behintzat egiaztatzeko erraza litzateke, adibidez, zenbakitan armada izigarri horiek ez dutela doi balioko deusik egin.

Zirot Xenofonen baitan dioenari jarraikiz, ez da gizonen zenbakia, baina gizon onen zenbakia, abantaila egiten duena, garaitikoak eragozpenerako gehiago balio duelarik laguntzarako baino. Eta Baiazetok, bere kapitain guztien aburuaren aurka, Tamerlanen gudukatzeko bere erabakiaren funts nagusitzat hartu zuen bere etsaiaren gizonen zenbaki mugagaitzak nahasmenarako esperantza zerbait ematen ziolako. Scanderbergekin, epaile on eta hagitik adituak, ohi zioen hamar edo hamabi mila guduliar zintzo aski beharko litzaizkioke gerrako buruzagi bati bere omenaren bermatzeko gudal eginbehar-mota orotan.

Gerrako arrazoiari aurkakoa dirudien beste heina da Verzingetorixekin, Galia bihurtu guztien alderdietako burua eta buruzagia izendatua izanik, Alexian bere buruaren hesteko erabakia hartu zuela. Zeren herri oso bat manatzen duenak ez baitu sekula bere burua bahitu behar, soilik bere azken lekua bada eta haren defentsan igurikatzeko baizik ez badu; bestenaz, libre iraun behar du, bere erresumako alderdi guztietara laguntzeko bidearen edukitzeko.

Zesarren baitara itzultzeko, adinaz, berankor eta gogoetatsuago bilakatu zen, bere ahaide Opiok dioen bezala: ustetsirik ez zuela errazki menturatu behar hainbat garaipenen ohorea, zorigaitz bakar batek galaraz baitziezaiokeen. Italiarrek diotena, gazteen baitan ikusten ohi den ausartzia nahasiaren erantzukia egin nahi dutenean,

ohore-behartsuak deiturik, bisognosi d'honore, omenaren gose eta behar handitan egonez, edozein saritan haren bilatzeko arrazoia baitute, aski eskuratu dutenek egin behar ez dutena. Badagoke ospenahi horretan neurtasun zuzen bat, eta asetasun bat nahikunde hartan, besteetan bezala; jende askok horrela dagite.

Erromatar zaharren erlijio hartarik arras urrundua zen, ez baitzuten beren gerretan baliatu nahi bertute soil eta jatorraz baizik; baina oraino bazekarren orain eginen genukeen baino kontzientzia gehiago, eta ez zituen bideak oro onartzen garaipenaren eskuratzeko. Ariovistoren aurkako gerran, harekin mintzatzen zelarik, Ariovistoren zaldunen hobenez hasi zen nahasmen bat gertatu zen; nahasmen hartan, Zesar gertatu zen bere etsaien gaineko abantaila handi bat zeukala; halarik ere, ez zuen hartaz baliatu nahi, fede gaiztoan ihardukitzeko erantzukia egin zekioken beldurrez.

Guduan janzkera aberats eta kolore nabarmen batekoa eramaten ohi zuen bere buruaren ohartarazteko.

Brida hertsia gotzen zien bere soldaduei, eta laburrago zetxikien etsaien hurbilean izanik. Greko zaharrek norbait ezinagoko jakinezaz salatu nahi zutenean, bazioten zuhurtitz arruntez ez zekiela irakurtzen ez igerikatzten. Aburu berori zeukan, igerikan jakitea oso onuragarria zela gerran, eta erraztasun anitz atera zizkion: lehia bazuen, igerikan zeharkatzen zituen aurkitzen zituen ibaiak, zeren oinez bidaiatzea maite baitzuen Alexandro handiak bezala. Egipton, bere buruaren salbatzeko ontzi xume batean sartzera bortxaturik, eta berarekin batera hainbat jende egotzirik, non hondoratzeko zorian baitzen, nahiago zuen itsasora egotzi eta igerika iritsi zen bere armadara, handik berrehun urratsetan baitzen, ezker eskuaz bere taulattoei atxikiz urez landan hortz hutsez eramaten bere armak, etsaia haietaz jabe ez zedin, orduan adinean aski sartua izanik.

Sekula gerra-buruzagirik ez zuen hainbat sinesmenik soldaduen gainean. Bere gerra zibilen hasieran, ehuntariak eskaini zioten arma gizon baten ordaintzea, bakoitzak bere moltsaren gain; eta oinezkoek, beren bizkar zerbitzatzea; aberatsagoak oraino entseiatuz behartsuagoen sostengatzera. Chatilloneko Almirante jaun zenak berriki erakutsi zigun antzeko kasu bat gure gerra zibiletan, zeren bere armadako frantsesek beren moltsetarik ematen baitzuten laguntzen zuten arrotzen ordainketarako; ez dira doi aurkituko hain isurmen gartsu eta prestuaren ereduak molde zaharrean dabiltzanen artean, legeen manamendu zaharpean.

Pasioneak anitzez bizikiago manatzen gaitu arrazoiak baino. Gertatu da, halarik ere, Hanibalen kontrako gerran, hirian jende erromatarraren eskuzabaltasunaren ereduaz, arma gizonak eta kapitainak beren soldata ezeztatu zezaten; eta Martzeloren alderdian mertzenarioak deitzen ziren hartzen zutenak.

Dirrakio ondoan, makurrena edukirik, bere soldaduak bazetozen beren buruaren eskaintzera zigortuak eta zehatuak izateko, halako moldez, non lan gehiago ukan baitzuten haien arintzeko larderiatzeko baino. Bere kohorte bakar batek Ponpeioren lau legio jasan zituen lau orduz baino gehiago, harik eta gezialdika kasik osoki desegina zen arte; luebakian ehun eta hogeita hamar mila gezi aurkitu ziren. Szeva deitu soldadu batek, sarreretarik bat manatzen baitzuen, garaitezina iraun zuen, begi bat lehertua, sorbalda eta izter bat zulatuak, eta bere ezkutua zeharkatua berreun eta hogeita hamar lekutan. Preso harturiko bere soldadu askori gertatu zaie heriotzaren onartzea beste alderdi baten hartzea agindu nahi izatea baino lehenago. Granio Petroniori, Afrikan Eszipionek harturik, bere lagunak hilarazirik, Eszipionek manatu zuen bizia eman zekion, mailako gizona eta pretor baitzen. Petroniok erantzun zuen Zesarren soldaduek biziaren ematera ohituak zirela eta ez hartzera; eta bere burua hil zuen bapatean.

Badira haien atxikimenduaren eredu zenbatezinak; ez da ahortzi behar Saloman, Zesarren alde eta Ponpeioren aurka zen hirian, setiatuak izan zirenen ekitaldia. Marko Oktaviok setiatuak zeuzkan; barrenekoak gauza guztien gabezia handi batera hertsatuak

ziren, haietarik gehienak hilak eta zaurituak izanik, libertatean ezarriak zituzten beren esklabu guztiak, eta beren tresnen zerbitzurako emakume guztien ileen moztera behartuak izan ziren zurden egiteko, janarien eskasgo handi batez gain, eta halarik ere sekula ez errenditzeko deliberatuak. Setio hori luzaz jasan ondoren, Oktavio ezaxolatiago eta bere egitekoan ernetasun gutiagorekin izanik, egun bat bereizi zuten eguerdi inguruan, eta emakumeak eta haurrak harresietan gaindi ezarririk itxuraren egiteko, halako gaitzaldi batez jalgi ziren asaldatzaileen gainera non hautsirik lehen, bigarren eta hirugarren zaintaldea, eta laugarrena eta gero garaitikoa, eta luebakien osoki uztera beharturik, ontzietaraino haizatu zituzten; eta Oktavio bera Dirrakiora itzuri zen, Ponpeio baitzegoen. Ez naiz oroitzen, orain arte, beste adibide baten ikusteaz, setiatuek osoki irabaz ditzaten asaldatzaileak eta gudua garait dezaten, ez eta ateraldi batek atera dezan, ondorioz, guduaren garaipen garbi eta oso bat.

XXXV

Hiru emazte onez

Ez dira dozenaka, bakoitzak dakien bezala, eta bereziki ezkontzaren eginbeharretan; zeren hainbat gorabehera arantzatsuz bete harreman bat baita non gogorra baita emakume baten borondateak osorik luzaz iraun dezan. Gizonek, apur bat baldintza hobekoak izanik ere, lanik aski dute.

Ezkontza baten ezaugarria eta egiazko froga badatza harremanak dirauen denboran: etengabe ezti, atxiki eta erraz izan ote den. Gure mendean, emazteek eskuarkiago gordetzen dute beren ofizio onen eta maitasun suaren agertzea beren senar galduei buruz, orduan bederen entseiatzen dira beren borondate oneko lekukotasunaren ematera. Lekukotasun berankorra eta aroz landakoa! Hortik gehiago frogatzen dute hilik besterik ez dituztela maitatzen. Bizia erretzez beterik da; hiltzea, amodioz eta jendetasunez. Aitek beren seme-alaben aldeko maitasuna gordetzen duten bezala, emazteek berdin gogotik gordetzen dute senarraren aldeko berena begirune zintzo bati atxikitzeko.

Ezageri hori ez da ene gogokoa: alferrik zerlatzen eta arramaskatzen dira⁶⁸⁵, ni banoa gelako zerbitzaritsa eta idazkari baten belarrira: “Nola zeuden? Nola bizi dira elkarrekin?” Maiz oroitzen naiz hitz on hartaz: jactantius maerent, quae minus dolent. Haien marraska hastiagarria zaie biziari eta hutsala hilei. Gogotik desenkusatuko genuke irri egin dadin gero, bizi artean irribarre egin dakigun ber. Ez ote da amorruz berpizteko, nintzenean sudurrera tu egin zidakeena oinen igurtzera etor dakidan ez izaten hasten naizenean. Senarrengatik negar egitean ohorerik bada, ez dagokie irribarre egin zietenek baizik; bizian negar egin dutenek irri egin bezate hiltzean, bai kanpotik nola barrendik. Ez iezaezu begira begi busti eta ahots urrikagarri horri; begira gorpuzkera horri, begitarte horri eta oiha handi horienpean masail horien gozoari: hortik mintzo baita euskaraz. Gutxi dira osasuna hobekitzen ez zaienak, eta horrek ez daki gezurretan. Itxura zeremoniatu horrek ez du hainbat bere gibelera nola aurrera so egiten; ordaintzea baino gehiago hartzea da. Nire haurtzaroan, andere zintzo eta biziki eder batek, oraindik bizi dena, printze baten alarguna, bere apainduraren baitzeukan ez dakit zer gehiagotik gure alargungoaren legeek baimentzen ez dutena; erantzuki egiten ziotenei: “Ez ditudala adiskidantza gehiagorik lantzen, zioen, eta berriz ezkontzeko nahikeriatik landan naizela.”

Gure azturaren ez ukatzeko osoki, hemen hautatu ditut beren senarren heriotzaren inguruan beren ontasun eta maitasunaren eginahalaz ere baliatu diren hiru emazte; halarik ere apur bat erezu bereziak dira, eta hain hertsagarriak, non bizia baitakarte ondorioz.

Plinio gazteak bazuen, bere etxe batetik hurbil, Italian, zati ahalkegarrietan gertatu zitzaizkion zauri zenbaitek ikaragarri oinaztaturik zen auzokide bat. Haren emazteak, hain luzaz ilauntzen ikusirik, otoiztu zion baimentzea berak ikus zezan astiz eta

hurbiletik haren gaitzaren egoera, eta esanen ziola beste inork baino gordinkiago haietarik zer zezakeen itxaron. Harengandik hori erdietsi ondoren, eta xeheki so eginik, aurkitu zuen ezinezkoa zela haietaz senda zitekeen, eta igurikatzeko zeukan oro luzaz bizi mingarri eta ilaunkor baten herrestatzea zela; eta aholkatu zion antolabiderik seguru eta gorentzat bere buruaren hiltzea; eta hain eginkizun latzerako apur bat beratza aurkiturik: "Ez uste, zioen, ene adixkidea, jasaten ikusten dizkiadan minek ez nautela hi bezainbat hunkitzen, eta haietaz libratzeko ez dudala nihaurek ere aholkatzen diadan sendabide honetaz baliatu nahi. Sendatzean lagundu nahi haut eritasunean egin dudan bezala: ken beldur hori, eta gogoan har ezak halako oinazeetarik libratu behar gaituen iraganbide honetan atseginik besterik ez dugula ukanen; zorionez joanen gaituk elkarrekin."

Hori esanik, eta bere senarraren kuraia beroturik, erabaki zuen itsasora egotziko zirela hara enkaratzen zen beren egoitzeko leiho batetik. Eta bizi artean besarkatu zuen maitasun zintzo eta sutsuaren bere azkena arte iraunarazteko, oraino nahi zuen bere besoartean hil zedin; baina huts egin diezaioten eta bere estekatzeen hertsamenduak erorketaz eta izialduraz laxa zitezen beldurrez, gerritik esteka eta lotarazi zuen bere burua harekin batean, eta horrela utzi zuen bere bizia bere senarrarenaren atsedenagatik. Etorki apalekoa zen hori; eta jende-mota horren artean ez da hain berria ontasun arraro bateko ekitaldi zerbait.

extrema per illos

Justitia excedens terris vestigia fecit 687.

Beste biak aitoralabak eta aberatsak dira, haiengan bakanka baitaude bertute ereduak.

Arria, Zezina Peto pertsonaia kontsularren emaztea, beste Arria baten ama zen, Neronen aroan bere bertutea hain omendua zen Trasea Petoren emaztea, eta, suhi honen bidez, Faniaren amaginarreba; zeren gizon eta emakume horien izenen antzekotasunak egainatu baititu asko. Lehen Arria horrek, Zezina Peto bere senarra Klaudio enperadorearen jendeek preso harturik, Eskribonianoren galtzearen ondotik, haren alderdiari baitzerraion, otoiztu zien Erromara preso zeramateniei, haien ontzian har zezatela, bere senarraren zerbitzurako beharko zuten jende andana baino gastu eta eragozpen guttiagokoa izanen baitzitzaiekeen, eta berak bakarrik zerbitzatuko zuela haren gelan, sukaldean eta garaitiko eginbehar guztietan. Haiek ezeztatu zioten; eta berak, hantxe alokatu zuen arrainontzi batera egotzirik, bazerraion molde hartan Esklavoniatik. Erroman zirelarik, egun batez, enperadorearen aurrean, Junia, Eskribonianoren alarguna, beregana trebeki hurbildurik beren zorien elkargoagatik, zakarki baztertu zuen hitz hauekin: "Ni, zioen, hiri mintza nakinan, ez entzun hazadan, heure altzoan Eskriboniano hila izan bitzen? Eta oraino bizi haiz!" Hitz horiek, beste keinu anitzekin, bere ahaideei somarazi zieten bera bere buruaren hiltzekotan zegoela, bere senarraren zoria ezin jasanez. Eta Trasea bere suhiak, horri buruz otoiztuz ez zezan bere burua galdu nahi, eta honela esanik: "Zer! Zezinaren zoria bera ukanen banu, nahi ote zenuke ene emazteak, zure alabak, gauza bera egin lezan? -Nola bada? Nahi nukeen? erantzun zuen: Bai, bai nahi nitek, hirekin nik neure senarrarekin egin dudan bezainbat denbora luzez eta konpontze onez bizi izan balitz." Erantzun horiek berretu zuten hartaz zen axola, eta haren ibiltzei hurbilagotik begira zekien. Egun batez, zaintzen zutenei esan ondoren: "Alferrik egiten duzue, gaizkiago hilaraz nazakezue; baina nire hiltzetik gordetzea, hori ez dezakezu"; jarriarik zen aulki batetik sutsuki egotzirik, joan zen bere indar guztiaz buruaren jotzera ondoko harresiaren aurka; ukaldi hartaz aldixartua eta hagitz zauritua luzaran eroria izanez, oso nekez bere baitara itzularazi ondoren: "Ongi esaten nizuen, zioen, neure buruaren hiltzeko modu erraz bat ukatzen bazenidaten, beste bat bilatuko nuela, gogorragoa bazen ere."

Hain bertute miresgarriaren azkentzea honelakoa zen: bere senarra Petok ez edukirik berez bihotz aski bermerik bere buruaren hiltzeko, enperadorearen krudelkeriak hartaraten baitzuen, egun batez besteen artean, lehenik eginkizun horretarako ematen zion aholkuari dagozkion hitzaldi eta sustatzeez baliatu ondoren, berak hartu zuen senarrak zeraman puinala, eta eskuan atxikia edukirik, sustatzearen bukatzerako: "Egik honela Peto", esan zion. Eta instant hartan, bere bularrean ukaldi hilgarri bat emanik, eta gero zauritik erauzirik, agertu zion, horrekin batera bere bizia amaituz hitz gora, eskuzabal eta hilezin honekin: Paete non dolet. Ez zuen astirik hain gai ederreko hiru hitz horien esateko baizik: "To, Peto, ez zidak minik egiten."

Casta suo gladium cum traderat Arria Pæto,

Quem de visceribus traxerat ipsa suis:

Si qua fides, vulnus quod feci, non dolet, inquit;

Sed quod tu facies, id mihi, Pæte, dolet 689.

Bere naturalean biziago eta zentzu aberatsago batekoa da; zeren ez bere senarraren zauriak eta heriotzak ez bereek ez baitzioten pisatzen, bera aholkulari eta akuilatzailea izan zen ber; baina, eginkizun gora eta bihoztoi hori eginik bere senarraren erraztasun bakarrerako, oraino hari baizik ez dio begiratzen bere biziaren azken hatsaldian, hiltzean berari jarraikitze beldurraren kentzeagatik. Petok bere burua jo zuen berehala ezpata bereaz; ahalke, ene ustez, hain irakaskuntza maite eta preziatuaren beharraren eduki izanagatik.

Ponpeia Paulina, erromatar andere aitoralaba gaztea Senekarekin ezkondu zen honen azken zahartzaroan. Neron haren ikasle ederrak harengana bere morroiak igorriarik haren heriotzaren manuaren adierazteko (modu honetan egiten baitzen: aro hartako enperadore erromatarrek mailako gizon bat kondenatu zutenean, beren ofizialen bidez manatzen zioten haren moldeko heriotza bat hauta zezan, eta har zezan beren haserrearen arabera betearazten zioten halako epe baten buruko, behin hertsatuago, behin luzeago, muga emanaz haren egitekoen antolatze denbora hartan, eta inoiz horren egiteko bidea kenduz denboraren laburtasunaz; eta kondenatuak ihardokitzen baldin bazuen beren manua, bidaltzen zituzten gauzatzeko egokiak ziren jendeak, beso eta zangoen zainak ebakitzen, edo pozoina bortxaz irentsarazten. Baina ohoreko pertsonaiek ez zuten behar hori igurikatzen, eta beren sendagile eta barberek baliatzen ziren horretarako), Senekak aditu zuen bere kargua begitarte lasai eta seguru batez, eta gero eskatu zuen bere testamentuaren egiteko papera; hori kapitainak ukaturik, bere adiskideen aldera itzuliz: "Zor dizuedanaren ezagutzaz, esan zien, deus ere uzten ahal ez dizuedanez geroz, uzten dizuet bederen dudan ederrena, hots, neure ohituren eta biziaren iduria, zuen oroimenean atxikitze eskatzen baitizuet, hori eginez adiskide zintzo eta egiazkoen omena erdiets dezazuen." Eta horrekin batera, behin minaren garraztasuna hitz ezten bidez ematen, pairatzen ikusten baitzituen, behin bere ahotsa gogortzen haien gaitzesteko: "Non dira, zioen, filosofiaren ikasgai eder horiek? Zer bilakatu dira hainbat urtetan zoriaren ezbeharren aurka bildu ditugun hornidurak? Ezezaguna ote zitzaigun Neronen oinazkoikeria? Zer genezakeen itxaron bere ama eta anaia hil zituenarengandik, baizik eta bere irakaslea, hazi eta hezi duena, oraino hilaraz dezan?" Hitz horiek ororentzat esan ondoren, bere emaztearengana itzuli zen, eta, hertsiki besarkatuz, nola, minaren bortxaz bihotzez eta indarrez alditxartzen baitzen, eskatu zion jasan korkiago eraman zezan ezbehar hura bereganako maitasunagatik eta, ez hitzaldiez ez eztabaidez, baina egitez, bere ikerpenetarik atera zuen fruitua erakutsi behar zuen ordua heldu zela, eta zalantzarik gabe heriotza besarkatzen zuela, ez bakarrik minik gabe, baina alaitasunerekin ere: "Horregatik, ene adiskidea, zioen, ez dezanela hire malkoen bidez laidosta, ez dezan irudi heure burua maite dezanala neure omena baino gehiago; apal ezan heure mina eta arin hadi nitaz eta neure ekintzez ukan dunan

ezagutzen, heure biziaren hondarra zuzenduz emana haizen eginbehar zintzoen bidez." Horri, Paulinak, gogoia apur bat berpizturik eta bere kuraiaren gogo handitasuna beroturik maitasun txit zuzen baten bidez: "Ez, Seneka, erantzun zuen, ez naiz zure uzteko neure laguntzarik gabe honelako beharkundean; ez dut nahi uste dezazun zeure biziaren eredu bertutetsuek ez didatela oraindik ongi hiltzen jakiten irakatsi, eta noiz nezake hoberik, ez zintzokiagorik, ez neure atsegin gehiagorik, zurekin besterik? Horrela gogoan har ezazu banoala zurekin batera."

Orduan Senekak, bere ameztearen hain erabaki eder eta ospetsu bat ongi hartuz, eta bere heriotzaren ondotik bere etsaien menpean eta krudelkerian haren uzteko beldurrak libratzeko: "Aholkatu ninan, Paulina, zioen, hire biziaren hobeki zuzentzeko balio zuena; bada, nahiago dun heriotzaren ohorea; egiazki, ez dinat gaitzetsiko; izan bitez iraupena eta erabakia berdinak gure bien amaieran, baina edertasuna eta ospea handiagoa izan dadin hire aldetik."

Hori eginik, denbora berean ebaki zitzaizkien besoetako zainak; baina nola Senekarenek, meharturik hainbat zahartzaroaz nola baraurtasunaz, odolari ematen baitzioten sobera ibilbide luze eta laxo, oraino manatu zuen ebaki zekizkiola izterretako zainak; eta, jasaten zuen oinazeak bere emaztearen bihotza ema zezan beldurrez, eta berak ere hain egoera urrikgarrian haren ikusteko atsekabetik libratzeko, harengandik amultsuki agurtu ondoren, otoiztu zion baimen zezan ondoko gelara eraman zezatela, egin zen bezala. Baina, ziztatze horiek oro oraino aski ez izanik hil arazteko, bere sendagile Estatio Aneori manatu zion pozoinezko edari bat eman ziezaion, ez baitzuen ere doi ondorio gehiagorik: zeren, soinadarren ahulezia eta hoztasunagatik, ez baitzen bihotzeraino iristen ahal. Horregatik, horretaz landara, prestatu zitzaion bainu hagitza bero bat; eta orduan, bere azkena hurbil somaturik, hats zeukan bitartean, etengabe egiten zituen zegoen egoeraren gaiari buruzko hitzaldi bikainak, idazkariak bildu baitzituzten bere ahotsa entzun zezaketen artean; eta gero bere azken hitzek luzaz bazirauten giza eskuetan omen eta ohoretan (galtze hastiagarria zaigu geureganaino etorriak izan ez daitezen). Heriotzaren azken hertsaldiak somatu zituelarik, guztiz odoltsua zen bainuko ura hartuz, buruz beheiti isuri zuen zioelarik: "Eskaintzen diot ur hau Jupiter libratzaileari."

Neron, horretaz orotaz gaitzaturik, Paulinaren heriotza erantzukira etor zekion beldurrez, andere erromatarretan hobekien ahaidetuatarik bat baitzen, eta haren kontra etsaigo berezirik ez baitzuen, lehia osoz bidali zuen zaurien estekaraztera: Paulinaren jendeak berak jakin gabe egin zutena, jada erdi hila eta batere sentimenturik gabe baitzen. Eta bere gogoaren kontra gero bizi zena, oso ohoretsuki eta bertuteari zegokion bezala izan zen, begitartearen histuran erakutsiz zenbait bizi zerion zaurietarik.

Hona neure hiru ipuin hagitza egiazkoak, jende xehari atseginaren emateko geure gisan moldatzen ditugunak bezain atsegin eta tragikoak aurkitzen baititut; eta harritzen naiz horretara ematen direnak gehiago xederatzen ez baitira liburuetan aurkitzen diren hamar mila historia biziki ederren bereiztera, neke gutiago eta atsegin eta probetxu gehiago bailekarkete. Eta haietaz gorputz oso bat erakitzen iharduki nahi zuenak beretik josduraz baizik ez luke eman behar, beste metal baten atxikidura bezala; eta bide horretaz meta lezake mota guztietako gertakari egiazko mukur bat, eginaren edertasunak eskatuko liokeen arabera antolatuz eta ezberdinduz, gutiz goiti beheiti Ovidiok bere Metamorfosia, alegia ezberdin andana handi hori, josi eta betatxatu duen bezala.

Azken bikote honetan, oraindik aipagarria da Paulinak gogotik eskaintzen duela biziaren uztea bere senarraren maitasunagatik, eta bere senarrak behiala heriotza utzi zuela haren maitasunagatik. Guretzat ez da kontrapisu handirik truke horretan; baina, haren aldarte estoikoaren arabera, uste dut Senekak gogoan zuela haren alde hainbat egin zuela, haren faboretan biziaren luzatzean, haren alde hil balitz bezala. Luziliori

idazten dion gutunetarik batez, adierazi ondoren nola sukarrak Erroman harturik, arinki igan zela kotxe batean bere landako etxe batera joateko, geldiarazi nahi zuen bere emaztearen aburuaren kontra, eta berak erantzun ziola zeukan sukarra ez zela gorputzekoa baina lekukoa, honela darrai: "Utzi ninduen joatera, neure osasuna bereziki gomendatuz. Bada, haren bizia neurearen baitan daukadala baitakit, hasi naiz neure buruaren zaintzen haren zaintzeagatik; zahartzaroak emana zidan lehentasuna, gauza anitzetan berme eta erabakiago bilakaturik, galtzen dut oroitzen naizenean zahar honen baitan badela nik on egiten diodan gazte bat. Ez baitut eramaten ahal neure bihoztoikiago maitatzera, hark banarama neure buruaren axolatuikiago maitatzera: zeren zerbait mailegatu behar baitzaie isurmen zintzoei; eta, inoiz, gertaldiek kontrariora hertsatzen bagaituzte ere, biziari berriz atxiki behar zaio, nekez bada ere; arima hortzen artean gelditu behar da, bizitzeko legea, oneko jendeei, ez baitzaie atsegin zaien bezainbat, baina behar duten bezainbat. Nork ere ez baitu bere emaztea edo adiskidea bere biziaren luzatzeko bezainbat maitatzen, eta hiltzera tematzen baita, hura sobera minbera eta beratz da: gogoak hori manatu behar dio bere buruari, gureen onuragarritasunak nahi duenean; inoiz eman behar diegu geure burua geure adiskideei, eta, geuregatik hil nahi bagenu ere, geure nahiaren etetea haien alde. Gogo-handigoaren lekukotasuna da bizitzarengana itzultzea besteren gomendioz, pertsonaia bikain anitzek egin duten bezala; eta ontasun bereziaren ekitaldi bat da zahartzaroari atxikitzea (haren erraztasunik handiena haren iraupenaren ezaxola baita eta biziaren erabilera bihoztoi eta gutiesgarriago bat), somatzen bada eginbehar hori ezti, atsegin eta onuragarri zaiola ongi emana den bati. Eta ez ote da sari biziki atsegingarri bat erdiesten, zeren zer da eztiagorik norbere emazteari hain maitea izatea, non haren gomendioz maiteago bilakatzen bainatzaio neure buruari? Horrela neure Paulinak gomendatu dit ez bakarrik haren beldurra, baizik neurea ere. Ez zait aski gogoan hartzea zein ausarki hil ninteke, baina gogoan hartu dut ere hark zein ausartzia gutirekin jasan lezakeen. Bizitzera bortxatu naiz, inoiz ere gogo handitasuna baita."

Horra haren hitzak, bikainak haren ohitura den bezala.

XXXVI

Gizonik bikainenez

Galdeginen balitzait neure ezagutzara etorri diren gizon ororen bereiztea, iruditzen zait beste ororen gainetik hiru bikainen aurkitzea.

Bata, Homero. Ez Aristoteles edo Varro (adibidez) ez baitziratekeen menturaz hura bezain jakintsuak, ez, agian ere, haren artean berean Virgilio ez baitzaio alderagarria; uzten diet epai dezaten biak dazaguzkitenei. Bataz baizik ez baitazagut, banerrake hau neure helmenaren arabera, ez baitut uste Musak berak erromatarraz harago joan zitezen: Tale facit carmen docta testudine, quale

Cynthus impositis temperat articulis 690.

Halarik ere, epaiketa honetan, oraino ez litzateke ahanzi behar Homerogandik baduela nagusiki Virgiliok bere jakintza, honen gidari eta eskola maisua dela, eta Iliadaren marraldi bakar batek gorputz eta gaia eman diola Eneida handi eta jainkozko horri. Baina nik ez dut horrela pisatzen: nahasten ditut pertsonaia hau miresgarri, kasik gizaeraz gaindian, bilakatzen didaten beste gorabeherak.

Eta, egiaz, maiz harritzen naiz berak, bere manu-indarraz munduan jainkotasun anitz sortu eta omenean ezarri baitu, ez baitu Jainkoaren maila erdietsi. Itsua eta behartsua izanez; jakintzak arauetan eta ikerpen seguruetan idatziak izan zitezen baino lehen izanez, hainbat ezagutu ditu non bizi moduen finkatzera, gerren zuzentzera eta erlijioaz, filosofiaz, edo arteez idaztera nahasi diren horiek oro, izan dadin edozein alderditan, baliatu baitira hartaz gauza ororen ezagutzan irakasle txit bete batez bezala, eta haren liburuez jakintza-mota ororen mindegi batez bezala,

Qui quid sit pulchrum, quid turpe, quid utile, quid non,
 Plenius ac melius Chrysippo ac Crantore dicit ⁶⁹¹;
 eta, besteak dioen bezala,
 A quo, ceu fonte perenni,
 Vatum Pyeriis labra rigantur aquis ⁶⁹²;
 eta besteak,
 Adde Heliconiadum comites, quorum unus Homerus
 Astra potitus ⁶⁹³;
 eta besteak,
 cujusque ex ore profuso
 Omnis posteritas latices in carmina duxit,
 Amnemque in tenues ausa est deducere rivos,
 Unius fœcunda bonis ⁶⁹⁴.

Naturaren araubidearen aurka egin du ahal den sorkuntzarik bikainena; zeren gauzen sortzapen arrunta osatugabea baita; handituz emendatzen eta azkartzen ohi dira; poesiaren eta beste jakintza anitzen haurtzaroa heldu, oso eta bete bilakatu du. Horregatik, izendatzen ahal da poeten lehena eta azkena, hartaz zaharraroak utzi digun lekukotasun ederrari jarraikiz, hura baino lehenagoan hark imita zezakeen inor ez edukirik, ez du haren ondotik hura imita lezakeen inor. Haren hitzak, Aristoteles arabera, ibiltze eta ekintza duten hitz bakarrak dira; hitz mamitsu bakarrak dira. Alexandro handiak, Darioren hondakinen artean kutxatto aberats bat aurkiturik, manatu zuen gorde zekion bere Homeroren sartzeko, gudar egitekoetan zeukan aholkulari hoberen eta fidelena zela esanez. Arrazoi honen beronengatik zioen Kleomenesek, Anaxandridasen semeak, lakedemoniarren poeta zela gudar irakaskuntzaren irakasle hagitz on bat zelako. Goresmen bitxi eta berezi hau ere gelditu zaio, Plutarkoren ustez, gizonak sekula ase ez hastiatu ez dituen munduko egile bakarra dela, irakurleei beti besterik agertzen, eta beti grazia berritan loreztatzen. Altzibiades zoraxka hark, letren ofizio zegien bati Homeroren liburu bat eskaturik, zapletako bat eman zion zeren ez baitzuen batere: gure apezetarik bat laburtegarik gabe hatzemanen lukeenak bezala. Xenofanes kexatzen zitzaion egun batez Hieroni, Sirakusako tiranoari, hain behartsua zela non ez baitzuen bi zerbitzari zertaz hazi: “Eta zer, erantzun zion, Homerok, hi baino anitzez behartsuago baitzen, hazten ditik hamar mila baino gehiago, hila izanik ere” Ez ote zen beraren esatea, Panezioren baitan, Platoni filosofoen Homero deitzen ziolarik?

Horretaz gain, zein ospe aldera daiteke harenarekin? Deus ez da gizonen ahoan bizi haren izena eta eginak bezala; deus hain ezaguna nola Troia, Helena eta bere gerrak, menturaz sekula izan ez zirenak. Gure umeak oraindik deitzen dira hark, duela hiru mila urte, moldatu zituen izenez. Nork ez ditu Hektor eta Akiles ezagutzen? Ez bakarrik arraza berezi zenbaitek, baina herririk gehienek haren asmamenetan jatorria bilatzen dute. Turkiarren enperadore Mahometek, izen horretako bigarrenak, gure aita saindu Pio bigarrenari idatziz: “Harritzen naiz, zioen, nola jaikitzen diren italiarrak neure kontra, troiarrengandik etorki bera daukagun ver, eta haiek neure kontra faboratzen dituzten grekoen gain Hektoren odolaren mendekatzeko nahia baitut haiek bezala.” Ez ote da fartsa eder bat, erregeak, errepublikak eta enperadoreak beren pertsonaia antzeztuz baitoaz hainbat mendetan, unibertso gaitz honek antzokitza balio baitio? Zazpi hiri greko sartu ziren haren sorlekuaren gaineko eztabaidan, haren iluntasunak berak ohore baitzekarkion:

Smyrna, Rhodos, Colophon, Salamis, Chios,
 Argos, Athenæ ⁶⁹⁵.

Bestea, Alexandro Handia. Zeren nork ere gogoan hartzen baitu bere egitekoak hasi zituen adina; hain xede ospetsua bururatu zuen bide eskasa; zerraizkionen munduko kapitainik handien eta adituen artean bere haurtzaro hartan irabazi zuen manu-indarra; zoriak bere hainbat egiteko menturatsu, gutitarik egiten du ausartak ez baitiot, besarkatu eta urgaitu zuen fabore ohiz landakoa:

impellens quicquid sibi summa petenti

Obstaret, gaudensque viam fecisse ruina ⁶⁹⁶;

handitasun hori, hogeita hiru urteko adinean, lur bizigarri osoa iraganik eta bizi erdi batez gizaeraren eginahal osoa erdietsirik, eta ez duzu irudikatzen ahal bere iraupen zilegia eta haren hazkundera bertute eta zorian adinaren muga zuzen bateraino, gizagaindian den zerbait irudikatu gabe; bere soldaduengandik hainbat erret adarren sortaraztea, bere heriotzaren ondotik mundua partzuergoan lau ondokoei utzirik, bere armadako kapitain soilak baitziren, haien ondokoek hain luzaz iraun baitute, jabego handi hori iraunaraziz; bere baitan ziren hainbat bertute bikain, zuzentasuna, neurtasuna, eskuzabaltasuna, hitzen zintasuna, bereen aldeko maitasuna, garaituen aldeko gizatasuna (zeren bere ohiturek ez baitirudite erantzuki zuzenik batere zeukatela, edo, agian, bere ekintza berezi, arraro eta ohiz landako zenbaitek. Baina ezinezkoa da hain ibiltze handien zuzentzea zuzentasunaren arauekin; halako jendeek epaiturik izan nahi dute beren ekintzen xede nagusiaren arabera. Tebasen hondamena, Menandroren eta Efestionen sendagilearen hiltzea, aldi batez hainbat preso persiar, soldadu indiar oste bat, ez bere hitza jan gabe, eta kosiarren hiltzea, haurrak ere, nolabait ekitaldi barkagaitzak dira. Zeren, Klitori buruz, hutsa ordaindurik izan baitzen bere pisuaz harago, ekintza horrek lekukotasuna ematen du, beste orok bezainbat, bere izaerean ontasuna, berez ontasunara bikainki moldatu izaera zen; beraz esan izan da argiki naturagandik zeuzkala bere bertuteak, eta zoriagandik bere bizioak. Eta apur bat bere buruaz hartua eta bere buruaz gaizki aditzeko apur bat ezin egona zenari dagokionez, eta bere azpilei, armei eta Indietan barreiarazi zituen ahoko frenoiei⁶⁹⁷ buruz, gauza horiek oro iruditzen zaizkit bere adinaren eta zoriaren aitzinamendu arraroaren bizkar eman daitezkeela); nork ere gogoan hartzen baititu orobat hainbat gudal bertute, lehia, aurreikusmena, jasankortasuna, arautasuna, zorrotzasuna, gogo handitasuna, xedetasuna, zoriona, Anibalen omenak irakatsi ez baligu ere, gizonetan lehena izan baita; bere pertsonaren mirakulurainoko edertasun eta baldintza arraroak, gorpuzkera eta traza agurgarri hura hain begitarte gazte, gorri eta gartsupean,

Qualis, ubi Oceani perfusus lucifer unda,

Quem Venus ante alios astrorum diligit ignes,

Extulit os sacrum cælo, tenebrasque resolvit ⁶⁹⁸;

bere jakintzaren bikaintasuna eta ahalmena; bere ospearen iraupena eta handigoia, hutsa, garbia, zikinik eta bekaitzik gabea; eta oraino bere heriotzaren ondotik luzaz izan zela erlijiozko sinesmena uste izatea bere irudi-dominek zoriona zekarkietela beren gainean zeramatzatenei; eta errege eta printze gehiagok idatzi dituztela bere egitekoak, beste edozein errege edo printzeren egitekoak idatzi dituzten beste historialariak baino, eta oraindik orain beste historia guztiak arbuiatzen dituzten musulmanek onartzen eta ohoratzen dutela berea lehentasun berezi batez: harako hark aitortuko du, hori oro elkarrekin ezarri, arrazoia eduki dudala Zesar bera baino nahiago izateko, hautaketa zalantzan ezarri ahal didan bakarra baita. Eta ez daiteke uka honen egitekoetan beretik gehiago bazela, eta Alexandrorenetan zoritik gehiago. Gauza berdin anitz zeukaten, eta Zesarrek, menturaz, handiago zenbait.

Leku ezberdinetan barrena munduaren xehakatzeko bi su edo bi erreka ziren,

Et velut immissi diversis partibus ignes

Arentem in silvam et virgulta sonantia lauro;

Aut ubi decursu rapido de montibus altis
Dant sonitum spumosi amnes et in æquora currunt,
Quisque suum populatus iter ⁶⁹⁹.

Baina, Zesarren handinahiak berez neurtasun gehiago balu ere, hainbat zorigaitz badu, bere herriaren hondamena eta munduko gaizkiagotze orokorraren gai zital hori bilaturik, non, zati guztiak bildurik eta balantzan ezarriak, ez bainagoke Alexandroren aldera makurtu gabe.

Hirugarrena eta bikainena, nire irudiko, Epaminondas da.

Osperik, ez zuen urrundik ere besteek bezainbat (halaber hori ez da gauzaren mamiaren zati bat); xedetasun eta suhartasunik, ez handinahiak akuilaturik dena, baina gogo ongi arautu batengan jakintzak eta arrazoiak landa dezaketena, bazuen irudika daitekeen guztia. Bere bertute horren froga Alexandrok eta Zesarrek bezainbat egin du, ene ustez; zeren, bere gerrako eginkizunak ez balitez ere hain usuak eta hantuak, gogoan ongi hartzera beren gorabehera guztietan, haiek bezain pisutsu eta gogorrek dira, eta ausartziaren eta gudal jakintzaren bezainbat lekukotasun badakarte. Grekoek, kontraesanik gabe, beren arteko lehen gizonaren izendatzeko ohorea egin diote; baina Greziako lehena izatea errazki da munduko lehena izatea. Haren jakintza eta askitasunari buruz, gelditu zaigu aburu zahar hau: sekula ez zen hainbat zekien eta hain guti mintzo zen gizonik. Zeren pitagoriko alderdikoa baitzen. Eta mintzo zena, inor ez zen sekula hobeki mintzo. Elegile bikaina eta hagitz sinestarazlea.

Baina, bere ohitura eta kontzientziari buruz, urrundik ere gainditu ditu egitekoen erabiltzera sekula sartu direnak oro. Zeren zati honetan, bakarrik nagusiki neurtu behar dena baita, zein garen egiazki ezagutarazten baitu, eta bakarra kontrapisatzen baitut garaitiko guztiekin bildurik, ez baitzen ezein filosoforik baino apalago gelditu, ez Sokrates bera ere.

Honen baitan, hobengabetasuna nolakotasun jatorra da, nagusi etengabea, berdina, ustelezina. Haren aldean Alexandroren baitan badirudi azpikoa, zalantzatia, nabarra, beratz eta menturazkoa.

Zahargoak uste zuen, beste kapitain handi guztien xeheki ikertzera, bakoitzaren baitan aurkitzen dela ospetsu bilakatzen duen nolakotasun berezi zerbait. Bakarrik honen baitan, bertute eta jakintza orobat bete eta berdina; giza biziaren ofizio guztietan hutsik ez dagiena, izan dadin ekintza publiko edo pribatuan, bake ala gudatiarrean, dela bizitzeko, dela handiki eta ospetsuki hiltzeko. Ez dazagut hainbeste ohore eta amodiorekin begiratzen diodan batere giza molderik ez zoririk. Egia da haren pobreziarako isurmena apur bat zuzenegi aurkitzen dudala, haren adiskiderik hoberenak margoturik den bezala. Eta ekintza hori bakarrik, gora eta oso miresgarria hala ere, garratxa aurkitzen dut, gogoan berean ere, haren imitazioaren nahi izateko. Bakarrik Eszipion Emilianok, hain amaiera harro eta ospetsu bat emanen liokeena eta jakintzen ezagutza hain barren eta orokorra, hautaketaren zalantzan ezar nazake. O zein ezatsegin egin didan denborak gure begietarik lehendabizikoen kentzea, hain zuzen, Plutarkoren⁷⁰⁰ baitan zen bizi-bikoterik gorena, munduko adostasun orokorrez bata grekoen lehena, bestea erromatarrena! Zein gaia, zein langilea! Gizon ez saindu batentzat, baina plantako gizona dioten bezala, ohitura zibil eta arruntetako, gorentasun neurtu batekoa, dakidan bizien artean bizi den bizirik aberatsena, eta zati aberats eta nahietsigarriez apainduena, dena gogoan harturik, Alzibiadesena da, nire irudiko. Baina Epaminondasi buruz, soberazko ontasun baten eredutzat, gehitu nahi ditut hemen haren aburuetarik zenbait.

Bere bizi osoan zeukan poztasunik eztena, bazioen bere aita eta amari eman zien bere Leuktreseko garaipenaren atsegina; anitz jokutzen du, haien atsegina hobetsiz berea, hain ekintza ospetsuagatik hain zuzena eta betea, baino lehenago.

Ez zuen uste goretsigarri zenik, are bere herriaren libertatearen berreskuratzeko, gizon baten hiltzea kausaren ezagutzarik gabe; horra zergatik izan zen hain hotza bere laguna Pelopidasen eginkizunean, Tebasen askatzerako. Uste zuen ere gudu batean alderdi kontrarioan den adiskide baten inkontruari ihes egin behar zaiola, eta harengandik itzuri. Eta etsaien beraien aldetik haren gizatasunak beoziarren aiherkundean ezarri zuelarik, mirakulutsuki lakedemoniarrak behartu ondoren Korinto ondoan Moreako sarreran gordetzera entseiatu ziren iraganbidea irekiarazi ondoan, askietsi baitzuen haien gainetik iragaitea azkeneraino jazarri gabe, kapitain jeneralaren mailaz gabeturik izan zen: oso ohoretsuki halako kausagatik eta gero, beharrez bere mailara berriz goratzen, gertatu zitzairen ahalkegatik, eta ezagutzen zenbat zen haren menpean beren ospea eta osasuna, garaipenak hari jarraikirik, gida zezan leku orotarik, haren itzalak bezala. Bere herriaren goraldia hil zen ere, sortu izan zen bezala, harekin batean.

XXXVII

Seme-alaben gurasoekiko antzekotasunaz

Zati ezberdinen biltze hau halako moldez egiten da, non ez baitut eskua ezartzen alferkeria sobera bigun batek hertsatzen nauenean, eta neure etxean baizik inon ez. Horrela eraiki da molde eta bitarte ezberdinez, gertaldiek gelditzen bainaute noizbait hilabete askoz. Bestalde, ez ditut neure lehen irudimenak bigarren bidez zuzentzen; baina menturaz hitzen bat, baina ezberdintzeko, ez kentzeko. Neure aldarteen aitzinatzea erakutsi nahi dut, eta ikus dadin zati bakoitza bere sortzean. Atsegin nuke lehenago hasi banintz, eta neure aldakuntzen ibilbidearen ezagutzen. Idazteko zerbitzatzen ninduen sehi batek uste zuen posiblekin handi egiten zuela bere moldez hautatu zati zenbaiten ebastea. Horrek bihotza arintzen nau: ez duela nik egin dudan galtze baino irabazte gehiagorik egingen.

Hasi nintzenetik zahartu naiz zazpi edo zortzi urtez; ez da izan hartze berri zerbait gabe. Sabeleko mina ezagutu dut urteen emaitza bezala. Hauekiko harremana eta solasaldi luzea ez da errazki iragaiten halako fruiturik gabe. Ongi nahi nuke, luzaz dihardutenei egiten dizkieten beste emaitza askoren artean, hauta zezaten onargarriago izan zekidan zerbait: zeren ez baitziezadaketen egin haurtzarotik gehiago hastia nintzan bat; izan zen, hain zuzen, zahartzaroaren ezbehar guztietan, gehien beldurtzen ninduen. Maiz gogoetatzen nuen neure baitan sobera aitzinera noala, eta hain bide luzearen egitean, hutsik gabe lotuko nintzaiola hondarrean inkontru ezatsegin zerbaiti. Somatzen eta banioen abiatzeko ordua zela, eta bizia ebaki behar zela bizian eta sendoan, barberoan arauari jarraikiz soinararen bat moztu behar dutenean; zeren tenorez bihurtzen ez zuenari, naturak ordainarazten ohi baitzion hagitz interes gogorrekin. Baina xede hutsalak ziren. Hainbat behar zen ordurako prest izan nendin, non egoera ezatsegin honetan nagoela hemezortzi hilabete inguru duelarik, gaurgero ikasi baitut hartara jartzen. Harremanetan sartua naiz bizi sabelmingarri honekin; aurkitzen dut neure bihotza zertaz arin eta zertaz itxaron. Gizonak hain apaldurik baitira beren izate esteiarira non ez baita hain baldintza gogorrik beren buruaren iraunarazteko onartzen ez dutenik!

Entzun Mezenas:

Debilem facito manu,

Debilem pede, coxa,

Lubricos quate dentes:

Vita dum superest bene est ⁷⁰¹.

Tamerlanek estaltzen zuen gizatasun ergel batez legendunen aurka ziharduen ohiz landako oinazkoikeria, hilaraziz ezagutzara zetozkion bezain sarri, hain nekagarri zeramaten biziak arintzeko, zioen. Zeren ez baitzen haietarik inor nahiago ez zukeenik hiru aldiz legendunago izatea ez izatea baino.

Eta Antistenes estoikoak, hagitx eria izanik eta oihukaturik: “Nork libratuko nau gaitz hauetarik?” Diogenesek, ikustera etorriarik, aizto bat hari agerturik: “Honek, nahi baduk heurehala.-Ez zioat bizi, erantzun zuen, gaitzez baizik.”

Soilik gogoaz hunkitzen gaituzten pairamenek anitzez gutiago atsekabetzen naute beste gizonik gehienak baino: alde, adimenaz (zeren munduak gauza askori baiteritze izigarriak, edo biziaren saritan itzurgarriak, gutiz goiti-beheiti ezaxolak zaizkidanak); alde, zuzenik jotzen naute ezbeharretarako dudak aldarre ergel eta sorario batez, aipatu aldarre neure natural izaeraren zatietan hobereenetarik ustesten baitut. Baina egiazki izateko eta gorputzeako nekeak arraz biziki dastatzen ditut. Eta, halarik ere, behiala aurrikusiz ikusmen ahul, minbera eta Jainkoak neure adinik gehiengian eman didan osasun eta atsedean luze eta zorionekoak beraztu batez, irudimenez hain jasanezinak gogoetatu nituen non, zinez, gero aurkitu dudak gaitza baino beldur gehiago bainuen; hortik ere sinesmen hau berretzen baitut egunero: gure gogoaren ahalmenik gehienek, darabiltzagun bezala, gehiago nahasten dutela biziaren atsedena zerbitzatu baino.

Borrokan nago gaitzetan makur, ustegabeko, mingarri, hilgarri eta antolagaitzenarekin. Dastatu ditut jada bospasei oldarraldi aski luze eta nekagarri; halarik ere, edo engainatzen naiz, edo oraino bada egoera honetan zertaz iraun, gogo heriotzaren beldurrez arindurik daukanarentzat, eta medizina tematzen gaituen mehatxu, jalgipen eta ondorioez arindurik daukanarentzat. Baina minaren ondorioak berak ez du hain mingostasun garrantz eta hertsagarriarik non gizon jarri batek herran eta etsipengian sartu behar duen. Sabelminetik badut, behintzat, mozkin hau: oraino neure gainean gauzatu ahal ez nuen, osoki elkartzeko eta biltzeko heriotzara, hark bururatuko duela; zeren zenbat eta gehiago hertsatuko eta nekatu bainu orduan eta gutiago izanen baitzait heriotza beldurgarria. Bizia bizi, baizik ez atxikitzen irabazi nuen jada; hark oraindik laxatu du adimen hori; eta Jainkoak aileza hondarrean, haren garrantasuna neure indarren gainditzera baletor, ez nazala egotz hiltzearen maitatzeko eta nahi izateko beste bururaino, ez baita bizio gutiagokoa!

Summum nec metuas diem, nec optes ⁷⁰².

Bi pasione dira beldurtzekoak, baina bata badu bere antolabidea besteak baino anitzez prestuagoa.

Bestalde, zeremoniatsua aurkitu dut beti gaitzen jasatean itxura on eta begitarte gutieskor eta jarri baten edukitzea hain gogorki eta zehazki manatzen duen arau hori. Zergatik filosofia, bizi eta ondorioei baizik begiratzen ez dienak, bada kanpoko itxura horietan ihardukitzen? Utz diezaien axola hori antzezle eta erretorika maisuei gure keinuen hainbat munta egiten baitute. Barka diezai gaitzari ahozko laxakeria hori, gogozkoa eta urdailezkoa ez den ber; eta eman diezazkion nahietsizko kexa horiek naturak gure ahalmenetik kanpoan ezarri duen hasperen, hipaka, bihotz panpaka eta zurbil motari. Kuraia ikararik gabe eta hitzak etsipenik gabe direnen ber, askiets bedi! Zer axola du besoak bihurtzeko baditugu, gogoetak bihurtzeko ez ditugun ber! Geuretzat hezten gaitu, ez besterentzat; izateko, ez itxuratzeko. Geldi bedi irakasteko hartu duen gure adimenaren zuzentzean; sabelminaren eginahaletan, gogoak gorde beza bere buruaren ezagutzeko eta bere ibilbide ohizkoari jarraitzeko gai; minaren oldartzen eta jasaten, ez haren oinetara ahalkegarriki ahospetzen; gudurako hunkitua eta berotua, ez apaldua eta erauzia; harreman eta ihardukitze gai hein zerbaitearaino.

Hain ezinagoko ezbeharretan, krudelkeria da guregandik hain ibilbide antolatuaren eskatzea. Jokaera ona badugu, guti da begitarte txarra badugu. Gorputza arintzen bada kexatzen, egin beza; inarrotea atsegin bazaio, iraul eta erabil beza bere burua bere nahikeriara; iruditzen bazaio gaitza inola ere ezabatzen dela (sendagile zenbaitek dioten bezala horrek laguntzen duela emakume haurdunen laxatzerako) bortiztasun handiagorik ahotsaren kanporatzeagatik, edo, bere oinazean laketzen bada, oihuka beza arrontik. Ez

diezaiozun ahots horri ordena joan dadin, baina baimen diezaiozun. Epikurok ez dio bakarrik bere zuhurrari oinazeetan oihukatzea baimentzen, baina gomendatzen dio. Pugiles etiam, quum feriunt in jactandis caestibus, ingemiscunt, quia profundenda voce omne corpus intenditur verique plaga vehementior. Lanik aski badugu gaitzarekin, axaleko arau horiekin nekatu gabe. Baitiot eritasun honen inarrote eta oldarraldien azpian erauntsika ikusten ohi direnen desenkusatzeko; zeren, neure aldetik, begitarte hobearekin iragan bainaiz orain arte, ez, hala ere, neketan sarturik kanpoko neurtasun honen iraunarazteko: zeren ez baitut kontu handirik egiten halako abantailaz, horretan gaitzari ematen diot nahi duen bezainbat; baina, edo neure minak ez dira hain ezinagokoak, edo badakart jenderik gehienak baino bermetasun gehiago. Kexatzen naiz, sutzen naiz ziztada mingotsek hertsatzen nautenean, baina ez nator galtzera, hura bezala, Ejulatu, questu, gemitu, fremitibus

Resonando multum flebiles voces refert 704.

Gaitzaren minean neure burua dastatzen dut eta beti aurkitu dut esateko, gogoetatzeko, erantzuteko beste edozein orduz bezain gaia naizela; baina ez hain iraunkorki, minak nahasten eta desbideratzen naularik. Apalena naukatenean eta daudenek barkatzen nautenean, maiz frogatzen ditut neure indarrak eta neroni lotzen natzaie neure egoeratik urrunenean diren solasei. Dena badezaket bapateko eginahal batez; baina ken ezazu iraupena.

Damurik ez baitut Zizeron ameskari haren ahalmena, neska bat besarkatzen zuela amesturik, aurkitu zuen oihalen erdian bere harriaz arindurik zegoela! Neureek, harigarriki, neskazaletasunaz gabetzen naute!

Soberazko min honen bitarteetan, neure gernubideek ilauntzen direnean, hain bortizki hertsatu gabe, bapatean ezartzen naiz neure ohizko moldeak, gogoak somagarri eta gorputzezko ez den beste asaldabiderik ez baitu hartzen; zinez, halako ezbeharretarako neure buruaren prestatzeko hitzaldien bidez hartu dudaxolari zor baitiot, laborum

Nulla mihi nova nunc facies inopinacue surgit;

Omnia praecepi atque animo mecum ante peregi 705.

Halarik ere, ikasberri batentzat nolabait gogorki erabilia izan naiz, aldaketa arras bapateko eta zakar batez, istanpatean eroria izanik bizimodu oso ezti eta zorioneko batetik irudika daitekeen mingarri eta nekagarrienera. Zeren, berez hagitx gaitz beldurgarria izateaz landara, ene baitan egiten baititu ohi dituen baino anitzez hastapen garratz eta zailagoak. Hain maiz birratxikitzen baitzaizkit oldarraldiak, non kasik ez baitut osasun osorik somatzen. Orain arte, hala ere, gogoia egonazten dut halako jarlekuan non, iraupena ekar banezake, adimenik ezagatik beren buruari ematen dioten sukarrik ez gaitzik besterik ez duten beste mila baino bizimodu hobean aurkitzen bainaiz.

Bada apaltasun zorrotz mota bat, hau bezala, ustekeriatik sortzen dena: geure jakineza ezagutzen baitugu gauza anitzetan eta naturaren eginetan badirela nolakotasun eta baldintza zenbait ohartezinak zaizkigula aitortzeko jendetasuna baitugu, gure jakintzak ez baititu haien bide eta kausak ediren ahal. Adierazpen zintzo eta kontzientziadun honen bidez, aditzea diogun besteei buruz sinetsiko zaigula igurikatzen dugu irabaztea. Ez dugu mirakulu eta zailtasun bitxien bila ibili behar; eskuarki dakuskigun gauzen artean, uste dut badirela hain arrarotasun adiezinak non mirakuluen zailtasun guztia gaitzen baitute. Zein munstro da, sortuak garen hazi ttantta honek badakartzala bere baitan, ez bakarrik gorputz moldearen hatzak, baina gure aiten gogoeta eta aihermenena? Non dauka ur ttantta honek molde zenbatezin hori?

Eta nola badakartzate antzekotasun horiek, hain aitzinamendu ausart eta araurik gabeaz, non bilobak erantzunen baitio bere bigarren aitaxiari, ilobak osabari? Erroman, Lepido

familian, hiru baziren, ez sail berean, baina arteka, mintzez estali begi berarekin sortu zirenak. Tebasen, bazen amaren sabeletik lantza burdina baten moldean zekarren arraza bat; eta ez zekarrena sasikumetzat harturik izaten zen. Aristotelesekin dio, emakumeak partzuergoan ziren herri batean, haurrak beren gurasoei ematen zaizkiela antzekotasunaz.

Sinestekoa da neure aitari zor diodala nolakotasun harrizu hau, zeren bera hil baitzen piztontzian zeukan harri handi batekin ikaragarri oinazeturik; ez zitzaion bere gaitzari ohartu bere adineko hirurogeita zazpigarren urtean baizik, eta hori baino lehen ez zuen inolako mehatxu edo mintzerik giltzurrintan, saihetsetan, ez beste inon; ordura arte osasun zorioneko eta gaitzei guti eman batean bizirik; eta oraino bazirauen zazpi urtez gaitz horretan, bizi azkentze modu hagitx mingarri bat herrestatuz. Sortua naiz bere gaitza baino hogeita bost urte lehenago, bere egoerarik hoberenaren aroan, haren hirugarren umea sortzearen mailan. Non txitatzen zen hainbat denboraz akats horretarako isurmena? Eta, haren gaitzetik hain urrun zegoelarik, eraiki ninduen bere gaiaren zati arin horrek nola zekarren bere aldetik hain ondorio handia? Eta oraino nola hain estalirik non, berrogeita bost urte geroago, hasi bainaiz hartaz mintzen, bakarrik hainbat anaia eta arreben artean, eta denak ama batengandik? Aitzinatze hori argituko didanari sinetsiko diot nahi duen beste hainbat mirakulu; baldin eta, egiten duten bezala, ordainez ez badit ematen gauza bera baino anitzez argitasun zail eta amesgarriago bat.

Barka bezate sendagileek neure libertatea, zeren, isurtze eta lerratze beronen bidez, haien irakaskuntzari buruzko herra eta gutiespena ukan baitut: haien antzearekiko dudak hastiatzea hereditarioa zait. Nire aita bizi zen hirurogeita hamar urte, aitaxi hirurogeita bederatzi, bigarren aitaxia larogei hurbil, batere medizina-motarik dastatu gabe; eta, haien artean, ohizko erabilerakoa ez zena drogatzat hartzen zuten. Medizina eredu ez esperientziak moldatzen da; hala egiten da ere ene ustea. Hara, ez ote da aski esperientzia ageria eta abantailatsua? Ez dakit beren liburuetan hiru edirenen dituzten, supazter eta aterbe berean sortu, hazi eta zenduak, bitartean arau berpean bizirik. Onartu behar didate hau: arrazoa ez bada ere, zoria behintzat ene alde dela; bada, sendagileen artean, zoria baitoa arrazoa baino anitzez hobeki. Ez nazaten har orain beren abantailan; harriturik naizen bezala, ez nazaten mehatxa: amarrukeria litzateke. Egiaren esateko ere, aski irabazi dut haien gainean neure etxeko ereduaren bidez, oraindik geldirik bitez hor. Giza gauzek ez dute hainbat iraupenik: badu berrehun urte, hemezortzi baizik ez dira falta, entseiu honekin diraukigula, lehena sortu baitzen mila larehun eta bigarren urtean. Zinez, arrazoirik aski da esperientzia hau has dakigun huts egiten. Ez diezazkidan erantzuki orain zintzurretik datxizkidan gaitzak: nire aldetik berrogeita zazpi urte sendorik bizitzea, ez ote da aski? nire ibilbidearen azkena balitz ere, luzeenetarik bat litzateke.

Nire aitzinekoek medizina gogoz kontra zeukaten aiherkunde gorde eta jatorrizko batengatik; zeren drogen ikuste hutsak higuintzen baitzuen ene aita. Gaviac-eko jauna, aitazko osaba, eliz gizona, sortzetik eria, eta halarik ere bizi ahul hori 67 urte arte iraunarazi zuena, behiala erorik etengabeko sukar handi eta bortitx batean, sendagileek manaturik izan zen aldarrikatuko zitzaiola, lagundu nahi ez bazuen (laguntza deitzen dute maizenik eragozpen dena), hutsik gabe hila zela. Gizon on hura, sententzia ikaragarri hartaz guztiz iziturik, erantzun zuen: “Hila naiz, bada”. Baina sarri Jainkoak hutsal bilakatu zuen aztiatze hori.

Anaietarik azkena, eta aski urrundik azkena, lau baitziren, Bussagueteko jauna, azpiratu zen bakarrik medizinararen antze horretara, beste antzeekin zeukan harremanagatik, uste dut, parlamentuko gortean aholkularia baitzen, eta hain gaizki gertatu zitzaion non itxuraz izaera gotorragoa izanik, hala ere besteak baino luzaz lehenago hil baitzen, bat salbu, Saint-Micheleko jauna.

Izaten ahal da medizinarekiko hastiatze natural hau haiengandik ukana dudala; baina gogoeta honetaz besterik izan ez balitz, entseiatuko nintzatekeen bortxatzera. Zeren arrazoirik gabe gure baitan sortzen diren gogoeta horiek oro biziosoak baitira, gudukatu behar den eritasun-mota bat; izaten ahal da nik aiherkunde hori neukala, baina bermatu eta azkartu dut daukadan ustean finkatu nauten hitzaldien bidez. Zeren hastio baitut ere bere gustuaren mingotsagatik medizinarene ezeztatzeko gogoeta ere; ez litzateke errazki neure aldarte, egiten diren erretze eta ziztatzerik nekagarrien bidez birrerosteko gaia aurkitzen baitut osasuna.

Eta, Epikurori jarraikiz, atseginak itzurgarriak iruditzen zaizkit beren gibeletik min handiagoak badakartzate, eta minak bilagaiak ondotik atsegin handiagoak badakartzate.

Osasuna balioko gauza da, eta egiazki haren jarraipenean balia dadin ez bakarrik denboraz, baina izerdiaz, nekeaz, ontasunez eta biziaz ere merezi duen gauza bakarra; hura gabe bizia nekagarri eta iraingarri bilakatzen zaigun ber. Hura gabe, atsegina, zuhurtzia, jakintza eta bertutea ilauntzen eta ezabatzen dira; eta aitzitik filosofiak sartu nahi dizkigun hitzaldi berme eta gogorragoei, Platonen irudiaren, gaitz gorak edo apoplexiak joa izanik, oposatzeaz baizik ez dugu egin behar, eta, baldintza hartan, bere arimaren ahalmen gora eta aberats haietaz balia dadin desafiitzea. Osasunara garamatzan bide oro ez daiteke niretzat garratz edo garesti esan. Baina baditut beste itxura zenbait salmenta horretaz orotaz mesfidarazten nautenak. Ez diot ezin daitekeela antze zerbait; ez dela, naturaren hainbat ekintzen artetik, gure osasunaren iraupenerako gauza egokirik; hori egia da.

Ongi aditzen dut badela hezetzen duen sinple zerbait, idortzen duen beste bat; esperientziaz badakit arbiek haizeak sortzen dituztela eta pitusgarriaren hostoek sabela arintzen dutela; badakizkit halako esperientzietarik asko, dakidan bezala arkumeak hazten eta ardoak berotzen nauela; eta Solonek bazioen jatea zela, beste drogak bezala, gosearen eritasunaren aurkako medizina bat. Ez dut gaitzesten mundutik ateratzen dugun erabilpena, ez zalantzan ezartzen naturaren ahalmen eta ugaritasunaz eta haren baliatzeaz gure beharkunderako. Ongi dakusat zarboak eta ainarak ongi baliatzen direla hartaz. Mesfidatzen naiz gure gogoaren asmamenez, gure jakintza eta antzeaz, haren alde utzi baitugu natura eta bere arauak, hartan neurririk ez mugaririk atxikitzen ez baitakigu.

Zuzenbidea deitzen dugun bezala eskura erortzen zaizkigun lehen lekeen nahasketa eta haren emate eta erabilpena, maiz hagitz desegoki eta gaiztoa, eta hartaz burlatzen eta salatzen dutenek halarik ere bertute gora hori iraintzen ez duten bezala, baina bakarrik izenburu sakratu horren gaizki erabiltze eta zikintzearen gaitzestea; halaber, medizinan, ongi ohoratzen dut izen ospetsu hori, haren xedea, haren agintza hain onuragarria gizakidegorako, baina gure artean adierazten duena, ez dut ohoratzen ez onesten.

Lehenik, esperiantziak haren beldur egonarazten nau; zeren, dazagudanez, ez baitut medizinarene menpean dena bezain maiz eri eta berant sendatu jende-motarik ikusten. Haien osasuna bera aldatua eta usteldua da janarauen bortxaketagatik. Sendagileak ez dira askiesten gaitzaren manupean edukitzearekin, osasuna eri bilakatzen dute, gordetzeko beren manupetik itzuri ahal ez dadin inola ere. Osasun iraunkor eta oso batetik ez ote dute etorkizuneko eritasun handi baten gaia ondoriatzen? Maiz egon naiz eri; haien laguntzarik aurkitu ditut neure gaitzak besteak bezain eztiak jasateko (eta kasik mota guztietakoak frogatu ditut) eta laburrak; eta gainera, ez dut haien manamenduen kirastasuna nahasi. Osasuna libre eta osoa dut, erregelarik gabe eta neure ohitura eta atseginarenaz beste araurik gabe. Leku oro zait ona gelditzeko, zeren ez baitzaizkit, eri izanik, sendorik behar zaizkidanez beste erraztasunik. Ez naiz arrenkuratzen sendagilerik, botikariorik eta laguntzarik gabe egoteagatik; gehienak horretaz atsekabetuagoak baitakuskit gaitzaz baino. Zer! beren bizian erakusten ote

digute beren jakintzaren ondorio ageri zerbaiten lekukotasuna eman liezagukeen zoriona eta iraupena?

Ez da herririk mende asko medizinarik gabe izan ez dena, eta lehengo mendeak, esan nahi baita hoberenak eta zorionekoenak; eta munduaren hamarrena ez da hartaz baliatzen orain; ezin konta ahala herrik ez dute ezagutzen, hemen baino sendo eta luzeago bizi baita; eta gure artean jende xehea hura gabe bizi da zorionez. Erromatarrak seiehun urte egon ziren onartu baino lehen, baina, entseiatu ondoren, hiritik kanporatu zuten Katon Zentsorearen bidez, erakutsi baitzeun zein errazki iragan ahal zen hura gabe, larogeita bost urte bizi izanik, eta bere emaztea biziarazirik azken zahartzaroa arte, ez medizinarik gabe, baina bai sendagilerik gabe: zeren gure biziari osagarri aurkitzen zaion guztia medizina izendatzen ahal baita. Bere familia osasunean iraunarazten zuen, dio Plutarkok, erbiaren erabilpenaz (uste dut); arkadiarrek, dio Pliniok, gaitz guztiak sendatzen dituzten bezala behi esneaz. Eta libiarrak, dio Herodotok, eskuarki osasun arraro batez gozatzen dira, beren haurrak lau urte bete dituztenean buruko eta poltsuko zainen erretzeko duten ohitura horrengatik, handik erreumako isurmen orori bidea mozten baitiote. Eta herri honetako jende xeheak, ezbehar orotarako, ahal duten ardorik azkarrenaz baliatzen dira, azafrau eta espeziekin ausarki nahasirik: hori oro zori berdin batekin.

Eta egiaren esateko, antolabideen ezberdintasun eta nahasmen horretarik guztietarik, ororen buru, zer xede eta ondorio bada sabelaren hustutzeaz besterik? Mila etxekok egin dezaketena.

Eta dakit dioten bezain onuragarriki den, eta gure naturak behar ote duen bere hondakinen egotea neurri zerbaiteraino, ardoak bere hondakina duen bezala bere gordepenerako. Maiz badakuskizu kanpoko gorabeheragatik okatzean edo sabel jarioan erortzen diren gizon sendoak, eta hondakinen hustutze handi baten egitea aitzineko beharrik eta ondoko onurgarritasunik gabe, eta gaikiagotze eta kalterekin ere. Platon handiarengandik ikasi nuen behiala, dagozkigun hiru ibiltze-motetarik, garbiketena azkena eta makurrena dela, ezein gizonik, ero ez bada, ez du egin behar, azken beltzean baizik. Gaitza nahasten eta iratzartzen goaz aitzikotasun kontrarioez. Bizimodua izan behar da eztiki ilauntzen eta bere xedera daramana: drogaren eta gaitzaren atzaparkada bortitzak beti gure kaltetan dira, liskarra gure baitan gauzatzen baita eta droga berez laguntza fidagaitza eta gure osasunaren etsai bat baita, gure egoeran nahasmenaren bidez beste helbiderik ez baitu. Utz dezagun apur baten egitera: kukutsuak eta satorrak zaintzen duen antolabideak kukutsuek eta satorrek beren buruaren manatzera uzteko jasangortasun berdina duten gizonak ere zaintzen ditu. Alferrik oihukatzen dugu arre! Erlasteko da, baina ez aitzinatzeke. Antolabide goren eta urrikaririk gabea da. Gure beldurrak, gure etsipenak, atsekabetzen eta berandutzen du gure laguntzatik, erakarri orde; gaitzari zor dio bere ibilbidea, osasunari bezala. Ez du bere buruaren usteltzera utziko bataren faborez eta bestearen eskubideen kaltetan: nahasmenean eroriko litzateke. Jarrai diezaiozun, ala Jainkoa! Jarrai diezaiozun! Badaramatza darraizkionak; ez darraizkionak herrestatzen ditu, eta errabiatzen eta medizinatzen ditu batera. Manaraz iezaiozu garbiketa bat zure burmuinari, hobeki erabilia izanen da zure urdailean baino.

Lakedemoniar bati galdegiten zitzaion zerk biziarazi zuen hain luzaz: “Medizinaren jakinezak” erantzun zuen. Eta Adriano enperadoreak etengabe oihukatzen zuen, hiltzean, sendagileen osteak hil zuela.

Borrokalari txar bat sendagile egin zen: “Biba hi, esaten zion Diogenesek, arrazoia duk; orain lurreratuko dituk lehen lurreratu hautenak.”

Baina zorion hau daukate, Nikoklesen arabera: eguzkiak agertzen duela haien arrakasta eta lurak gorde haien hutsa; eta, horretaz landara, gertakari mota orotaz baliatzeko molde aski abantailatsu bat dute, zeren menturak, naturak, edo beste kausa arrotz batekin

(zenbakia mugaezina baita) gure baitan osagarritik sortzen duena medizinarene lehenasuna da hartaz jabetzea. Haien araupean den pairaleari gertatzen zaizkion gertakari zorioneko guztiak, medizinatik dauzkate. Sendatu nauten eta beren laguntzarako sendagileak deitzen ez dituzten beste mila sendatu dituzten gertaldiez jabetzen dira haien pairaleen baitan; eta, ez behar gaiztoei buruz, edo ukatzen dituzte osoki, pairaleari hobena egotziz hain arrazoi hutsalengatik non beti hutsik gabe halakoetarik andana handi bat aurkitzen baitituzte:

rhedarum transitus arcto

Vicorum inflexu 706;

bere leihoa erdi zabaldu da; ezker saihetsaren gainean etzan da, edo burutik gogoeta neke bat iragan."

Hitz batez, solas bat, amets bat, soaldi bat aitzakirik aski iruditzen zaie hutsez arintzeko. Edo, nahi badute, beren egitekoak gauzatzen dituzte sekula huts egin ez diezaiekeen beste bide honen bitartez: beren ezarpenengantik gaitza sustaturik gertatzen denean, beren antolabide horiek gabe askoz ere besterik makurragotuko zatekeelako segurantz eman guri ordaintzea baita. Burubeheitiko batetik eguneroko sukarrera egotzi dutenak, haiek gabe, etengabekoa ukan zukeen. Ez dute axolarik beren eginbeharren gaizki egiteagatik, kaltea onerako itzultzen baitzaie. Egiazki, arrazoa dute eriarengandik aldeko sinesmenaren emaitza baten eskatzean: zinez, berariaz osoa eta aski arina izan behar da, hain sinesgaitzeko ameskeriei emateko.

Bazioen Platonek, arras egokirik, gezurretan aritzea libertate osoan sendagileei baizik ez zegokiela, gure osasuna haien agintzen hutsalkeria eta faltsukeriaren menpean denez geroztik.

Esopo, hagitz bikaintasun arraroko egilea, jende gutik ediren baitizkio grazia guztiak, atsegin da gaitzak eta beldurrak ahuldu eta apaldu gogo gaizo horien gaietan haiek ebasten duten nagusikeriazko manuaren guri erakusteko. Zeren kontatzen baitu eri batek, bere sendagileak galdeginik zein ondorioa somatzen zuen eman zizkion sendabideetarik: "Izerdi-zurrustetan izana naiz, erantzun zuen.-Hori ona da", zioen sendagileak. Beste behin, berriz galdegin zion nola zihoakion gero: "Ezin hotzagoa izan naiz, egin zuen, eta dardara gorrian.-Hori on da", zerraion sendagileak. Hirugarren aldiz, galdegin zion lehenik nola zegoen: "Sentitzen naiz, zioen, haizatzen eta hanpatzen hidropesiaz bezala.-Horra ongi doala", gehitu zuen sendagileak. Etxeko bat gero etorririk bere egoraz galdegitera: "Zinez, ene adiskide, erantzun zuen, ongi izatearen bortxaz hiltzen naiz."

Egipton bazen lege zuzenago bat, haren arabera sendagileak bere pairalea karguan hartzen zuen, hiru lehen egunetan, pairalearen arrisku eta menturetara; baina, hiru egunak iraganik, bereetara; zeren zein arrazoa bada, Eskulapio, haien patroia, heriotzatik bizitzara Helenaren eramateagatik oinaztargiak joa izan dadin,

Nam pater omnipotens, aliquem indignatus ab umbris

Mortalem infernis ad lumina surgere vitæ,

Ipse repertorem medicinæ talis et artis

Fulmine Phæbigenam stygias detrusit ad undas 707,

eta bere jarraitunak, hainbat arima bizitzatik heriotzara igortzen baitituzte, barkatuak izan daitezen?

Sendagile bat Nikoklesi arrandiatzen zion bere antzea manu handikoa zela: "Egiazki hala dela uste dut, zioen Nikoklesek, hainbat jende zigorgabeki hil dezakeena."

Bestalde, haien lankidegokoa banintz, sakratu eta ezageriako bilakatuko nukeen neure irakaskuntza; aski ongi hasi ziren, baina ez dute berdin bukatu. Hasiera ona zen jainkoak eta demonioak beren jakintzaren asmatzaileen egitea, mintzaira eta idazkera

berezi baten hartzea; filosofiari aditzen bazaio ere zorakeria dela gizon bati aholkatzea bere onerako modu adiezin batez:

Ut si quis medicus imperet ut sumat:

Terrigenam, herbigradam, domiportam, sanguine cassam 708.

Haien antzean arau on bat zen, lantze ameskari, hutsal eta naturagaindiko guztiak laguntzen baititu, behar dela pairalearen fedeak aitzin dezan, esperantza eta segurantzarenean, beren ondorioa eta ekintza. Aipatu araua hainbateraino daramate, non sendagilerik ezjakin eta zarpailena, harengan fidantza duenarentzat, egokiago aurkitzen baitute ezezagun ikasiena baino. Beren drogarik gehienek bereizketa bera nolabait ere ezageri eta jainkozkoa da: apo-armatu baten ezker zangoa, musker baten gernua, elefante baten zimaurra, sator baten gibela, usakume zuri baten hegaltza atera odola; eta guretzat sabelmenduarentzat (hain gutiesgarriki engainatzen baitute gure miseria), xagu-gorotz erraustuak, eta halako tximinokeriak lilura sorginkari baten itxura baitute jakintza sendoa batena baino gehiago. Bazterrean uzten dut haien pilulen zenbaki bakoitza, urteko egun eta besta zenbaiten izendatzea, haien osagaietako belarren biltzeko orduen bereizketa, eta haien itxuraren keinatze larri eta zuhurra, Plinio bera burlatzen baita. Baina huts egin dute, esan nahi dut, hasiera ederrari ez diotela gehitu hau: beren batzarreak eta bilerak erlijioso eta ezageriako ez bilakatzeagatik; ezein gizon arrotzik ez luke sartzerik izan behar, Eskulapioren zeremonia gordeetan bezala. Huts horretarik baitator bakoitzak edirenik haien argudio, asmaketa eta funtsen ahulezia, haien herraz, bekaitzez eta gogo bereziz beteriko ihardespenen garrazkeria, ikaragarri itsua izan behar dela haien eskuartean aski arriskaturik ez bada senditzen. Sekula ez baita ikusi sendagile bat bere lankidearen errezetaz baliatzen zerbait moztu edo gehitu gabe. Hortik gaizki saltzen dute beren antzea, eta erakusten digute gehiago dutela gogoan beren omena, eta beraz beren mozkina, beren pairaleen onura baino. Haien doktoretarik zuhurragoa da zahartzaroan manatu ziena bat bakarrik nahas dadin eri baten ihardukitzera: zeren, balioko zerik egin ez baleza, medizinarek antzeari erantzukia ez da hagitz handia izanen gizon bakar baten hutsagatik; eta, aitzitik, ospea handia izanen da ongi gerta balekio; bitartean, anitz direlarik, ofizioa gaizki omentzen dute, maizago gertatzen baitaie gaizki egitea ongi baino. Askietsi beharko lukete jakintza horren maisu eta egile nagusien aburuetan aurkitzen den betiereko desadostasunaz, liburuetan ibili gizonen ezaguna baita bakarrik, oraino jendeari erakutsi gabe haien artean hazten eta lantzen dituzten eztabaida eta uste iraupenik eza.

Nahi dugu medizinarek eztabaida zaharraren eredu bat? Hierofilok gaitzen jatorrizko kausa hezabizietan ezartzen du; Eristratok, zainen odolean; Asklepiadesek, gure xiloetan isuri atomo ikustezinetan; Alkmeonek, gorputzezko indarren soberan edo eskasgoan; Dioklesok, gorputzeko gaien ezberdintasunean eta arnasten dugun airearen nolakotasunean; Estratok, hartzen dugun janariaren ugaritasun, gordintasun eta usteltasunean; Hipokratesek izpirituen baitan ezartzen du. Bada haien adiskide bat, nik baino hobeki ezagutzen baitute, honi buruz deitoratzen duena gure erabileran den jakintzarik funtsezkoena, gure iraupena eta osasunaren kargua duena baita, zalantzatiena, nahasiena eta aldarterik gehienek inarrosirik dagoena dela zorigaitzez. Ez da arrisku handirik eguzkiaren goratasunean edo zenbatze astronomiko baten zatikian engainatzea; baina hemen, geure izate osoa baitoakigu, ez da zuhurtzia hainbat haize kontrarioen menara geure buruaren uztea.

Gerra peloponesiarraren aurrean, ez zen jakintza horren berri handirik; Hipokratesek omenean ezarri zuen. Honek finkatu zuen oro, Krisipok erauzi zuen; gero, Erasistratok, Aristotelesen ilobak, Krisipok idatzi zuen oro. Haien ondotik enpirikoak etorri ziren, zaharrenaz beste bide osoki ezberdin bat hartu baitzuen antze horren erabileran. Azken horien sinesmena zahartzen hasi zelarik, Herofilok erabileran ezarri zuen beste

medizina-mota bat, Asklepiadesek, bere aldetik, gudukatu eta iraungi zuena. Haien erreldora omenean etorri ziren ere Temisonen usteak, eta gero Musarenak, eta are geroago, Vexio Valensenak, Mesalinarekin zeukan elkargoarekin sendagile ospetsua. Neroen aroan, medizinararen inperioa Tesalori erori zitzaion, bera arte uste zen oro ezabatu eta kondenatu baitzuen. Honen irakaskuntza Marseilako Krinasek apalduzik izan zen, berriz baitzekarren ekintza medizinal guztien arautzea izarretako egun eta ibiltzeetara, ilargiak eta Merkuriok nahi luketeen orduan jan, lo egin eta edan. Honen manua laster izan zen Karinok ordezkaturik, Marseilako hiri bereko sendagileak. Honek ez zuen bakarrik sendakuntza zaharra gudukatzen baina bainu beroen erabilera publikoa eta, hainbat mende lehenagotik, ohitua. Gizonak ur hotzean bainarazten zituen, neguan berean, eta eriak erreketako ur naturalean murgiltzen zituen. Plinioren aroa arte, ezin erromatarrik ez zen medizinararen ihardukitzera apaldu; arrotzek eta grekoek egiten zuten, gu frantsesen artean latinistek egiten duten bezala: zeren, sendagile handi batek dioen bezala, ez baitugu errazki onartzen aditzen dugun medizina, ez biltzen dugun droga baino gehiago. Guaiakoa, zartzaparrila eta kinako zura ekartzen ditugun herriek sendagilerik baldin badituzte, zenbat uste dugu, arroztasun, arrarotasun eta garestitasunaren gomendio honen beronengatik, ospatuko dituztela gure azak eta perrexila? Zeren nor ausartuko da hain urrundik, hain ibiltze luze eta arriskatu baten menturan bilatu gauzen gutiestera? Sendakuntzaren aldakuntza zahar horien ondotik, izan dira beste zenbatezina gure aroa arte, eta maizenik aldakuntza oso eta orokorrak, gure aroan Parazeltsoak, Fioravantik eta Argenterioak eragiten dituzten bezalakoak; zeren ez baitute errezeta bat bakarrik aldatzen, baina, diostatenez, medizinararen egitura eta gorputz-molde osoa, haiek arte haren ofizioa egin dutenak jakinezaz eta amarrukeriaz salatuz. Uzten dizut gogoetatzera pairale gaizoa non den!

Oraindik seguruak bagina, engainatzen direnean, ez gaituela kalteatzen on ez badigu egiten, osaketa arrazoigarria litzateke ongiaren erdiesteko menturatzea galtzearen arriskutan sartu gabe.

Esopok ipuin hau egiten du, mairu esklabu bat erosi zuen batek, ustetsirik kolore hori etorria zitzaiola ezbeharrez eta haren lehen nagusiaren gaizki erabilpenaz, medizinarazi zuen anitz bainu eta edabez axola handiarekin; gertatu zen mairuak ez zuela inola ere bere kolore beltzarana aldatu, baina bere lehengo osasuna osoki galdu zuela.

Zenbat aldiz gertatzen zaigu sendagilearen ikustea batzuek besteei beren pairaleen heriotza leporatzen! Oroitzen naiz neure auzoko hirietan izan zen gaitz hedatu batez, duela urte zenbait, hilgarri eta oso arriskutsua; erauntsi hori iraganik, gizonen zenbaki mugaezin bat eraman baitzuen, eskualde osoko sendagile ospetsuenetarik batek argitaratu zuen gai hau ziharduen liburutto bat, haren bidez ohartzen zaie odol husteaz baliatu zirenei, eta aitortzen du gertatu den kaltearen kausa nagusietarik bat dela. Areago, egileek badiote ez dela batere medizinarik zati kaltegarri bat ez duenik, eta zerbitzatzen gaituztenek berek ofendatzen bagaituzte nolabait, zer egin behar dute osoki beharrez kanpoan ezartzen zaizkigunek?

Neure aldetik, besterik ez balitz ere, uste dut medizinararen gustua hastiatzen dutenei eginahal arriskatu eta kaltegarria dela, haren irenstea hain ordu nahasgarrian hainbat higuintzearekin; eta uste dut horrek eria zigortzen duela ikaragarri hainbeste atsedean beharra duen aroan. Gainera, gure gaitzen kausa finkatzen ohi duten gertaldiak gogoan harturik, hain arinak eta minberak dira non hortik argudiatzen baitut haien drogen ematean huts arras xume batek ekar diezagukeela kalte anitz.

Bada, sendagilearen huts arriskatua bada, aski gaizki doakigu, biziki zaila baita ez dela maiz berriz erori; sobera zati, gogoeta eta gorabeheren beharra du bere xedearen zuzenik bururatzeko; ezagutu behar ditu eria gorpuzkera, giroa, aldarteak, isurmenak, ekintzak, gogoetak berak eta irudimenak; ohartu behar zaie kanpoko

gorabeherei, lekuaren naturari, aire eta aroaren baldintzari, planeten jarleku eta eraginei; gaitzean jakin ditzan kausak, ezaugarriak, ondorioak, egun gakoak; drogan, pisua, indarra, herria, itxura, adina, emateko moldea; eta zati horiek oro jakin behar ditu arautzen eta elkarri egokitzen handik simetria bete baten sortzeko. Han xehenean huts badagi, hainbat maratiletarik bat bakarrik makurtzen bada, hara aski gure galtzeko. Jainkoak daki zati horien gehienek ezagutza zein zaila den: zeren, adibidez, nola edirenen du gaitzaren ezaugarri berezia, bakoitzak ezaugarri mugaezin baten gaia izanik? Zenbat eztabaida eta zalantza duten beren artean gernuen itzulpenaren gain! Bestela nondik letorke gaitzaren ezagutzari buruz haien artean dakusagun eztabaida etengabea? Nola barkatuko genuke hain maiz erortzen diren lepahoria azeritzat hartzeko huts hori? Izan ditudan gaitzetan, zailtasun xeheagoa bazen ere, sekula ez ditut hiru ados aurkitu. Gogotikago azpimarratzen ditut dagozkidan ereduak. Berriki, Parisen, aitorenseme bat sendagileen manuagatik ebakia izan zen, haren pitzontzian ez zen eskuan baino harri gehiagorik ediren; eta han berean, adiskide min zitzaidan apezpiku bat maizki eskatua izan zen, bere aholkurako deitzen zituen sendagilerik gehienek, ebakiarazteko; neronek lagundu nuen beste baten bidez sinestarazteko: zendurik eta irekirik izan zelarik, aurkitu zen ez zuela giltzurrintan beste gaitzik. Gaitz honetan barkagaitzagoak dira, inola ere ukigarria baita. Horregatik zirujia iruditzen zait gertuagoa, baitakusa eta baitarabil dagiena; ustezkatzeko eta asmatzeko gutiago da, bitartean sendagileek ez dute gure burumuina, birika eta gibela agertaraz diezaien speculum matricis-ik.

Sendakuntzaren agintzak berak sinestezinak dira: zeren, ihardukitzeko edukiz maiz batera hertsatzen gaituzten ezbehar ezberdin eta kontrarioak, eta kasik beharrezko harremana daukatenak, hala nola gibelaren beroa eta udailaren hotza, badatoz sinestarazten, beren osagaietarik, honek urdaila berotuko duela, horrek gibela hoztuko duela; batak giltzurrintara, eta pixontziraino, zuzenik joateko eginbeharra du, bere ekintzak beste inon eragin gabe, eta bide luze eta eragozpenez bete horretan bere indarrak eta bertutea gorderik, bere gaitasun ezageriak bideraturik den lekuraino, haren zerbitzurako baita; besteak burumuina idortuko du; hark birika hezetuko du. Nahaspila horretaz edabe bat eginik, ez ote da ameskeria-mota bat bertute horiek nahasmen eta pataska horretarik zatitzen eta bereizten joan daitezen igurikatzea, hain eginbehar ezberdinetara lasterkatzeko? Ezinago beldur nintzateke gal edo alda ditzaten beren etiketak eta nahas ditzaten beren zatiak. Eta nork irudika lezake, nahasmen isurkin hartan, ahalmen horiek ez dezaten elkar ustel, nahas eta alda? Zer, errezeta honen gauzatzea beste egile baten menpean dela, haren fede eta faborera uzten baitugu geure bizia?

Geure janzteko atorrakileak eta galtzagileak ditugun bezala, eta hainbat hobeki zerbitzatuak baikara bakoitza bere gaian baizik ez sartzen den ber, eta bere jakintza dena besarkatzen duen josle batek baino hertsiki eta motzagoa daukan ber; eta gure bazkatzeko, handiek, erraztasun gehiagorako, saldegile eta errekiegileen ofizio ezberdinak dituzten bezala, eginbehar orokorra hartzen duen sukaldari batek ez baitu hain hautaki bururatzen ahal; halaber, gure sendatzeko, arrazoa zeukaten egiptoarrek sendagilearen ofizio orokor horren ezeztatzeko eta lanbide horren ebakitzeko: gaitz bakoitzari, gorputz zati bakoitzari, bere langilea; zeren egokiago eta nahasmen gutiagorekin zerbitzaturik baitzen hari bereziki baizik begiratzen ez baitzitzaien. Gureak ez dira ohartzen orotara ematen dena deusetara ez dela ematen; mundu xehe honen molde osoa menperaezina zaiela. Alabaina, sabeleri baten ibilbidearen gelditzeko beldur baitira sukarraren ez eragiteko, orok, diren bezainbat, baino gehiago balio zuen adiskide bat hil zidaten. Pisutan ezartzen dituzte bere asmakizunak oraingo gaitzen kontra eta, burumuinaren ez

sendatzeko urdailaren kaltetan, urdaila oldartzen dute eta burumuina gaizkiagotzen droga nahasgarri eta liskarregileen bidez.

Antze horren arrazoen ezberdintasun eta ahuleziari buruz, beste edozeinetan baino ageriagoa da. Gauza gosegarriak sabelmindun bati onuragarriak zaizkio, iraganbideak irekiz eta zabalduz, bideratzen baitute legarra eta harria eraikitzen den gai lekedazu hori, eta beheiti daramate giltzurrintan gogortzen eta oratzen hasten dena. Gauza gosegarriak sabelmindun bati galgarriak zaizkio, iraganbideak irekiz eta zabalduz, giltzurrin aldera bideratzen baitute legarraren eraikitzeke gai egokia, haiek gogotik atxikirik daukaten isurmenagatik, gogor da garraiatu denetik asko geldiaraz ez dezaten; areago, menturaz, kanporatzeko zabaldu gabe gelditzen diren hertsigune guztien iragaiteko behar den baino lodixeago den gorputz bat aurkitzen bada, gorputz hori gauza gosegarri horiek kordokaturik, eta, hodi hertsu horietan egotzirik, haien hestera etorririk, heriotza gertu eta hagitz mingarri bat bideratuko du.

Bermetasun berdina daukate gure bizimoduari buruz ematen dizkiguten aholkuetan: On da maiz gernu egitea, zeren izatez baitakusagu pausatzen utzirik asti ematen diogula bere hondakinez eta lohiez arintzeko, pixontzian harriaren eraikitzeke balio baitu; -on da maiz gernu ez egitea, zeren berekin dakartzen hondakin pisutsuak, ez baitira garraiatuko bortiztasunik ez bada, izatez ikusten den bezala bulartuki doan erreka batek garbikiago xahutzen duela iragan lekua, erreka mantso eta laxoak egiten ez duena. Halaber, on da maiz emakumeei ihardukitzea, zeren horrek iraganbideak irekitzen baititu eta legarra eta hondarra garraiatu; - halaber gaitz da, zeren horrek giltzurrinak berotzen baititu, laxatzen eta ahultzen. On da ur berotan bainatzea, horrek biguntzen eta berazten baititu hondarra eta harria pausatzen den lekuak; -halaber gaitz da, kanpoko beroaren ezarpen horrek giltzurrinak laguntzen baititu prest den gaiaren egosten, gogortzen eta harritzen. Bainuetan daudenei osagarriagoa zaie arratsean guti jatea, biharamun goizean hartu behar duten uren edateak ondorio gehiago egin dezan, urdaila hutsik eta ez eragotzirik aurkiturik; -aitzitik, hobe da bazkarian guti jatea uraren egitearen ez nahasteko, oraino bete gabea baita, eta urdailaren hain deblauki ez zamatzea beste lan horren ondotik, eta egosteko ofizioa gauari uzteko, hobeki baitaki egiten egunak baino, gorputza eta gogoia etengabeko ibiltze eta ekintzan baitira.

Horra nola doazen gure bizkar eskudantzatzen eta zealdokatzen beren hitzaldi guztietan; eta ez liezadaketen batere argudiorik eman nik indar berdineko beste bat kontraktotzen ez dudarik.

Ez daitezen, bada, gaitzets nahasmen horretan beren nahikundera eta naturaren aholkura eztiki zuzentzera beren burua uzten dutenak, eta zori arruntara ematen direnak.

Ikusi ditut, neure bidaiei gertaldietan, Kristauerriko kasik bainu guztiak, eta duela urte zenbait hasi naiz haietaz baliatzen; zeren orokorki osagarria ustesten baitut bainua, eta uste dut eragozpen ez xeheak arriskatzeko ditugula geure osasunean ohitura horren galtzeagatik, iragan aroan erabilia izaten baitzen kasik herrietan orotan, eta oraino ere zenbaitetan, gorputzaren egunero ikuztekoa; eta ez dut irudikatzen ahal ez dugula gutiago balio horrela gure soinadarrak zakarturik eta xiloak zoldaz iztupaturik. Eta, haien edateari buruz, lehenik zoriak egin du hori ez dadin inola ere neure gustuaren etsaia izan; bigarrenik, naturala eta soila da, ez baita bederen perilosa, hutsala bada ere; erantzule hartzen baitu mota eta izaera guztietako biltzen den jende andana hori. Eta ezein ondorio ohiz landakorik ez mirakulutsurik aurkitu ez badut ere; baizik eta, egiten ohi den baino xehekiago galdeginez, funts gabeak aurkitu ditut leku horietan ereiten eta sinesten diren halako ekintzen hots guztiak (jendea bere buruaren engainatzen baitoa nahi duen gaian); halarik ere, ez dut ere ur horiek gaizkiagotu duten inor ikusi, eta maltzurkeriarik gabe ez dakieke uka gosea ernatzen dutela, egosketa erraztu eta alaitasun berri zer bait mailegatzen digutela, indarrez sobera ahuldurik joaten ez bada,

nik ez baitut gomendatzen. Ez dira hondamen pisutsu baten birreraikitze; habeztatzen ahal dute makurtze arin bat, edo aldakuntza baten mehatxua zaintzen. Aurkitzen diren lagungoen atseginaz eta ur horiek jarriak ohi diren lekuen edertasunak gomitatzen gaituzten ibiltze eta ariketez gozatzeko alaitasunik aski ez dakarrenak, zalantzarik gabe, haien ondorioaren zatirik hoberen eta seguruena galtzen du. Horregatik, orain arte lekuaren bizitasun, egoitzaren, janariaren eta lagungoen erraztasun gehiagoko bainuak hautatu ditut gelditzeko eta haietaz baliatzeko, Frantzian Banieres-ekoak diren bezala; Alemania eta Lorenako mugan, Plombières-ekoak; Suitzan, Baden-ekoak; Toskanan, Luka-koak, eta bereziki della Villa direlakoak, haietaz maizago baliatu bainaiz eta aro ezberdinetan.

Herri bakoitzak aburu bereziak ditu haien erabilerari buruz, eta haietaz baliatzeko lege eta molde osoki ezberdinak eta, nire esperientziaren arabera, ondorio kasik berdina. Edatea ez da inola ere onartua Alemanian; gaitz orotarako, bainatzen dira eta uretan igelen modura dabilta eguzki batetik bestera. Italian, bederatzi egunez edaten dutelarik, bainatzen ohi dira hogeita hamarrez gutienez, eta ura edaten ohi dute beste drogekin nahasirik haren ekintzaren laguntzeko. Hemen ibiltzea manatzen zaigu haren egosteko; han ohean geldiarazten zaie, hartu duten lekuan, hartaz husturik izan daitezen arte, urdaila eta oinak etengabe berotuz. Alemanek bainuan hodiztatze eta zauri xehetan bentosaztatzeko berezitasuna duten bezala, hala badute italiarrek beren doccie hodieta barrena daramaten ur beroaren itaizurak baitira, eta bainatuz doaz ordu batez goizean eta beste hainbatez bazkalondoan, hilabate baten artean, edo burua, edo urdaila, edo eginkizun duten gorputzaren beste zati bat. Eskualde bakoitzean badira beste ezberdintasun mugaekin; edo, hobeki esateko, ez da kasik antzekotasunik batere batzuetarik besteetara. Hara nola bakarrik joatera neure burua utzi dudan medizinarek zati honek, artifizialtasunik gutienekoa bada ere, baduen ere antze horretan beste orotan ikusten den nahasmen eta zalantza bere zati ona.

Poetek nahi dutena diote hantustasun eta grazia gehiagorekin, bi epigrama hauek lekuko:

Alcon hesterno signum Jovis attigit. Ille,
Quamvis marmoreus, vim patitur medici.
Ecce hodie, jussus transferri ex æde vetusta
Effertur, quamvis sit Deus atque lapis ⁷⁰⁹.
Eta besteak:

Lotus nobiscum est hilaris, cænavit et idem,
Inventus mane est mortuus Andragoras.
Tam subitæ mortis causam, Faustine, requiris?
In somnis medicum viderat Hermocratem ⁷¹⁰.

Horren gainean bi ipuin egin gogo baititut.

Caupeneko baroiak, Chalossen, eta biok partzuergoan bagenuen, gure mendietako oinpean, Lahontan deritzan hedadura handikoa den ontasun baten nagusigoaren eskubidea. Zoko hartako biztanleek, Angrougneko ibarrekoek esaten dena, bazuten bizimodu berezi bat, azturak, jantziak eta ohiturak bereziak, molde eta usuario berezi zenbaitek zuzenduak eta manatuak, aitagandik semeagana onartuak, haien menera apaltzen baitziren haien erabileraren begirunearenaz beste behartzerik gabe. Estatu xume horrek bazirauen betiko zahartzarodanik hain baldintza zorionekoan non ezein auzo epailerik ez baitzen haien egitekoaz ikertzeko nekean izan; ezein abokaturik erabilia batere gaztigurik emateko, ez arrotzik deitu haien aharren iraungitzeko, eta sekula ez zen eskualde hartako inor eskale. Itzurtzen ziren beste munduko hitzarmen eta harremanetarik, haien bizimoduaren garbitasunaren ez aldatzeko: harik eta, beraiek dioten bezala, haietarik bat, beren gurasoen oroimenekoak, gogo andinahi gora batek

akuilaturik, bazihoan erabakitza, bere izenaren sinesmen eta omenean ezartzeko, bere semeetarik batetik Jean edo Pierre nagusi baten egitea; eta idazten irakatsirik ondoko hiri batean, herriko eskribau eder bat egin zuen. Hau, handi bilakaturik, hasi zen haien aztura zaharren gutiesten eta buruan sartzen hemengo eskualdeetako hantustea. Aholkatu zion, ahuntz bat desadartu zitzaion bere lehen lagunari, erret epaileei horren inguruko arrazoia eska liezairen, eta honengandik beste batengana, dena bihurtikatu zuen arte.

Usteltze horren ondotik badiote berehala gertatu zela ondorio makurragoko beste bat, beren alabetarik batekin ezkontzeko eta beren artean laketzeko nahikeria hartu zuen sendagile baten bidez. Hau hasi zitzairen lehenik sukarren izenen irakasten, erreuma eta handitsuak, bihotz, gibela eta hesteen lekuak, ordura arte beren ezagutzatik hagitx urrundurik zen jakintza bat baitzen; eta, baratziaren orde, hartaz ikasi baitzuten gaitz guztien kanporatzen, garratz eta ezinagokoak baziren ere, ohitu zituen, ez tul edo burubeheitiko batengatik, nahaste arrotzen hartza, eta hasi zen salgaiaren egiten, ez bakarrik beren osasunaz, baina beren heriotzaz ere. Zin dagite, ordutik bakarrik, ohartu zaizkiola aire zabalak burua pisutzen ziela, edateak, bero edukirik, kalte zekarrela, eta udazkeneko haizeak udaberrikoak baino hondagarriagoak zirela; sendagintza haren erabileraren ondotik aurkitzen direla ohigabeko gaitz andana batek zamakatuak, eta ohartzen zaizkiola beren gotortasun zaharraren beherapen orokor bati, eta beren biziak erdizka laburturik. Horra nire ipuinetarik lehena.

Bestea, neure menpekotasun legartzua baino lehenago, batzuei akerraren odolaz, giza biziaren gorde eta iraupenerako zeruko mana igorri batez bezala, kasu egiten entzunik, eta adimeneko jendeei droga miresgarri eta ondorio hutsgabeko batez bezala mintzatzen aditurik; nik, beti uste izan baitut beste edozein gizoni dagozkiokeen ezbehar ororen gai nintzela, osasun minean mirakulu hartaz baliatzeko atsegina hartu nuen, eta etxean manatu nuen bazka zekidan aker bat moldearen arabera: udako hilabeterik beroenean baztertu behar baita, eta bazkatzeko belar gosegarriez baizik ez zaizkio eman behar, eta edateko ardo zuriz baizik ez. Menturaz etxean nengoan hil behar zen egunean; etorri zitzaion esatera neure sukaldariak sabelean aurkitzen zituela haren hondakinaren artean elkar joka ari ziren bizpahiru biribil handi. Jakin-nahia nuen tripa horren ororen erakartzeko neure aitzinera, eta irekiarazi nuen larru lodi eta zabal hura; jalgi ziren hiru gorputz handi, esponjak bezain arinak, halako molde non harroak baitirudite, bestalde gogorrak kanpotik eta bermeak, kolore hil askoz ñabarturik; bata biribiltasun betekoa, bala motz baten neurrikoa; beste biak, apur bat xeheagoak, haien biribiltasuna betegabea baitzen, eta badirudi gauzatzen ari zela. Aurkitu dut, abere horiek irekitzen ohi dituztenei galdeginazirik, salbuespen arraro eta ohigabea dela. Itxurazkoa da harri horiek gureen lehengusuak direla; eta, hala bada, aski esperantza hutsala zaio legardunari halako gaitzez hil behar zuen abere baten odolaz sendatzearen ateratzea. Zeren esatea odolak ez duela kutsadura hori somatzen eta ez duela bere ohizko bertutea aldatzen, sinesgarriagoa da gorputz batengan deus ere ez dela sortzen zati ororen azpilan eta harremanen bidez baizik; multzoak osoki dihardu, zati bata bestea baino gehiago ematen badu ere, ekintzen ezberdintasunaren arabera. Horregatik itxura handia bada aker horren zati orotan nolakotasun harrikor zerbait bazela. Ez zen hainbat etorkizunaren beldurrez eta neuregatik, esperientzia horren jakin nahian nintzela; nola baitzen neure etxean, beste anitzetan bezala, emakumeek metatzen dituztela halako droga xeheak jendearen laguntzeko, errezeta bereaz baliatuz berrogeita hamar gaitzetan; eta berentzat hartzen ez duten errezetaz; eta garaitzen dira gertakari askotan.

Bestalde, sendagileak ohoratzen ditut ez, arauari jarraikiz, beharregatik (zeren pasarte horri kontraezartzen baitzaio profetaren beste bat⁷¹¹, Asa errege gaitzetsiz sendagile batengana jotzeagatik), baina beraenganako maitasunagatik, haietan ikusirik gizon

zintzo anitz eta maitagarriak. Ez ditut haiek gaitzesten, baina haien antzea, eta ez diet gaitzespen handirik ematen gure ergelkeriaz beren mozkinaren egiteagatik, zeren jenderik gehienak hala baitagi. Haiena baino xehe eta gorago lanbide askok ez dute zuzengabekeria publikoetan beste funtsik ez bermerik. Neure lagungorako deitzen ditut eri naizenean, eskura aurkitzen badira, eta eskatu ihardukirik izatea, eta besteek bezala ordaintzen diet. Legea ematen diet beroki geriza nadin mana diezadaten, horrela bestela baino nahiago badut; hauta dezakete, porru eta letxugen artean, zertaz nahi duten nire egoskia egin dadin, eta ardo zuria ala gorria manatu; eta horrela nire nahikunde eta ohiturari ezaxola zitzaizkien beste gauza orotan.

Ongi badakit ez dela deusen egitea haien alde, mingostasuna eta arroztasuna medizinen izate bereziaren gorabeherak baitira. Likurgok ardoa manatzen zien eri espartarrei. Zergatik? Zeren sendorik higuintzen baitzuten haren erabilera; halaber, nire auzokide aitorenseme bat hartaz baliatzen da bere sukarretan droga biziki osagarri bezala, zeren berez ezinago gorrotatzen baitu gustua.

Zenbat dakusagu haien artean nire aldartekoa izaten? Beren zerbitzurako medizinen gutiestea eta besteari aholkatzen diotenaz bizimodu libre eta guztiz kontrarioaren hartzea? Zer da hori ez bada gure zozokeriaren ageriki engainatzea? Zeren haiek ez baitute beren bizia eta osasuna guk baino gutiago maite, eta egokituko lizkiokete ondorioak beren irakaspenari, beraiek horren faltsukeria ezagutuko ez balute.

Heriotzaren eta minaren beldurra, gaitzaren jasangaiztasuna, sendatzearen egarri zoro eta neurgabe bat da horrela itsutzen gaituena: laxakeria hutsa da geure sinesmena hain beratz eta erabilgarri bilakatzen diguna.

Gehienek, hala ere, ez dute pairatzen duten bezainbat sinesten. Zeren guk bezala kexatzen eta mintzatzen entzuten baitiet; baina hondarrean erabakitzen dute: “Zer egin nezake, bada?” Jasangaiztasuna berez jasankortasuna baino antolabide hoberik balitz bezala.

Menpekotasun esteiari horretara joatera utzi direnetarik bat ote da engainu-mota guztietara berdin uzten ez dena? bere sendatzearen agintzaren emateko axolagabekeria daukan edozeinen eskupera ezartzen ez dena?

Babiloniarrek beren eriak plazara zeramatzaten; sendagilea jendea zen, iragaileetarik bakoitzak jendetasunez galdeginik haren egoeraz eta, bere esperientziaren arabera, aholku osagarri zerbait emanik. Guk ez dugu doi besterik egiten.

Ez dira emaztetto soil baten nahaste eta edabeak darabiltzagunak; eta, neure aldaratearen arabera, zerbait onartu beharko banu, medizina hori gogotikago onartuko nuke beste edozein baino, bederen beldurtzeko kalterik batere ez den bezainbat.

Homerok eta Platonek egiptoarrez ziotena, denak sendagileak zirela, jende orotaz esan behar da; ez da inor errezeta batez arrandiatzen ez dena, eta bere auzokidearen gainera menturatzeko ez duena, sinetsi nahi bazaio.

Lehengo egunean lagungo batean nintzen, ez baitakit neure lagunetarik zeinek ekarri zuen ehun osagai inguruz osatu pilula mota baten berri; eragin zen besta eta bihotz arintze berezi bat: zeren zein burkaitzak sostengatuko luke hain bateria ugari baten eginahala? Aditzen dut, hala ere, frogatu zutenen arabera, legarrik xehena ere ez zela higitzera apaldu nahi.

Ez naiz gai honetarik bereizten ahal, oraino hitz bat esan gabe honi buruz: beren drogen egitasunaren erantzule bezala ematen digula beraiek egin duten froga. Zatorik gehiena, eta, uste dut, bertute sendagarrietarik bi herenak baino gehiago, sinpleen kintaesentzian edo nolakotasun gordean dautza, hartaz erabilpenik beste irakaspenik ez baitezakegu ukan: zeren kintaesentzia geure arrazoiaren bidez haren kausa aurkitzen ez dakigun nolakotasun batez besterik ez da. Halako frogetan, demonio zerbaiten aholkuz erdietsi dituztela diotenak, askietsirik naiz onartzeaz (zeren, mirakuluei buruz, sekula ez baitut

ukitzen); edo oraino beste bide batez gure erabileran maiz gertatzen diren gauzetarik ateratzen diren frogak: janzen ohi garen artilean menturaz orpoko arrailadurak sendatzen dituen nolakotasun idorle bat aurkitu balitz bezala, eta hazteko jaten dugun arbian ekintza gosegarri bat. Galenok aipatzen du legendun bati gertatu zitzaiola sendakuntzaren hartzea edan zuen ardoaren bidez, menturaz sugedorri bat ontzian erori baitzen. Eredue horretan bidea aurkitzen dugu eta esperientziari itxuragarri zaion gauzatze bat, ihizi zenbaiten ereduaz bideratuak izan direla sendagileek dioten horietan bezala.

Baina, zoriak bideraturik eta menturaz beste gidarik eduki ez dutela dioten beste esperientzia gehienetan, sinestezina aurkitzen dut berrikuntza horren aitzinatzea. Gizona irudikatzen dut bere inguruan begiratzen gauza, landare, animalia, metalen andana mugaezinari. Ez dakit nondik hasaraz haren entseia; eta haren lehen ameskeria orein baten adar gainera egotziko balitz ere, sinesmen aski bigun eta erraz bat eman behar baitzaio, oraindik hainbat eragotzirik aurkitzen da bere bigarren ekintzan. Hainbat gaitz eta hainbat gorabehera agertu izan zaizkio non, bere esperientziaren betetasuna gehitu behar duen hein horretara heldu baino lehen, giza adimenak bere latina galtzen baitu; eta gauza multzo mugagabe honen artetik adar hori zer den aurkitu baino lehen; gaitz zenbatezin honen artetik, epilepsia; hainbat izaeratarik, melankolikoa; hainbat arotarik, neguan; hainbat herrietarik, frantsesa; hainbat adinetarik, zahartzaroa; hainbat zeruko aldaketarik, Venus eta Saturnoren elkarbiltzea; hainbat gorputz zatitarik, behatza; horretan orotan argudiok, ez ustezkatzek, ez ereduak, ez jainkoen mezuk ez gidaturik, baina bakarrik zoriaren mugimenduak, izan beharko zen zori osoki artifizial batez, arautua eta bideratua. Eta gero, sendakuntza eginik, nola segurtu daiteke ez zela gaitza heldu zela bere epera, edo menturaren ondorio bat, edo egun hartan hark edan, edo edan, edo ukitu zuen beste gauza baten ondorioa, edo haren amaxiren otoitzen meritua? Gehiago ere, frogatu hori beterrik izan balitz ere, zenbat aldiz errepikatu zen? Eta zori eta mentura zerrenda luze hori lerrotaturik, arau baten ondoriatzeko?

Eta ondoriaturik, zeinek? Hainbat milioietarik ez dira beren esperientzien idaztera nahasten diren hiru gizonik. Zoriak aurkitu duke, hain zuzen, haietarik bat? Zer, beste batek eta beste ehunek esperientzia kontrariarik egin badute? Menturaz, argi zerbait ikusiko genuke gizonen uste eta arrazoinatze guztiak ezagunak balitzaizkigu. Baina ez da arrazoiak hiru lekukok eta hiru doktorek mana dezaten giza multzo osoa: giza naturak ordezkari izendatu eta bereizi beharko lituzke eta gure sindikoak aldarrikatuak izan zitezen ordezkatzeko ageri batez.

Duraseko andereari

Anderea, urrats honen gainean aurkitu ninduzun berriki ikustera etorri zintzaizkidanean. Esteuskeria hauek noizbait zure eskuartean gerta baitaitezke, nahi dut ere eginen diezun faboreaz egilea hagitxehoraturik sentitzen delako lekukotasuna eraman dezaten. Haietan ezagutuko duzu haren solasaldian ikusi duzun molde eta aire bera. Neure molde arruntaz beste bat hartu ahal banu ere, eta beste modu ohoragarriago eta hobe bat, ez nukeen egin; zeren idazki hauetarik ez baitut atera nahi zure oroimenean naturalera itxura nazaten baizik. Merezi duten baino anitzez ere ohore eta jendetasun gehiagorekin iharduki eta bildu dituzun baldintza eta ahalmen hauek berauek, Anderea, ezarri nahi ditut (baina aldatzerik ez gantziatzen gabe) neure ondorek urte edo egun zenbaitz iraun lezakeen gorputz sendo batean, haien oroimena berriki nahi duzularik aurkituko baitituzu, oroitzeko nekerik hartu gabe; halaber ez baitute balio. Nahi dut neuregan jarraiki diezaiozun zeure adiskidantzen faboreari, sortua izan den nolakotasun hauen berauen bidez. Ez dut inola ere biltzen hilik hobe maita eta onets dakidan bizirik baino.

Tiberioren aldartea irrigarria da, eta arrunta hala ere, axola gehiago baitzuen bere omenaren etorkizun aldera hedatzeko bere aroko gizonei onesgarri eta atsegin bilakatzeko baino.

Munduak goresmena zor dienetarik bat banintz, utziko nioke eta aitzinetik ordain diezadan; aitzin eta meta dadin dena nire inguruan, luzakorki baino gehiago sendoki, iraunkorki baino gehiago beteki; eta ezaba dadin ausarki nire ezagutzarekin batera, eta hots ezti horrek ez dezan nire belarrietan gehiago jo.

Aldarte zozo bat litzateke, gizonen harremanaren uzteko prest naizen ordu honetan, gomendio berri baten bidez haienganatuz joatea. Ez dut konturik batere egiten neure bizian erabili ahal ez ditudan ontasunez. Nor ere bainaiz, paperaz landan izan nahi dut. Neure artea eta lantzea erabiliak izan dira neure buruari balio emateko; neure ikerpenak bizitzen irakasteko, ez idazten. Neure eginahal guztiak ezarri ditut neure biziaren moldatzeko. Horra neure ofizioa eta egina. Beste edozein eginbeharren baino gutiago naiz liburuen egile. Jakintza nahi izan dut neure oraingo izatezko erraztasunen zerbitzurako, ez metagai eta gordekina neure ondokoentzat egiteko.

Balio duenak erakusten du bere ohituretan, solas arruntetan, amodioaz edo liskarrez ihardukitzean, jokoan, ohean, mahaian, bere egitekoen bideratzean eta etxeko ekonomian. Liburu onak galtza txarren azpitik egiten dakuskidanak, lehenik egin zituzketen beren galtzak sinetsi banindute. Galdegiozu espartar bati nahiago duen erretoriko ona izan soldadu ona baino; nik ere ez, sukaldari ona baino, nor zerbitza nazan eduki ez banu.

Ala Jainkoa! Anderea, gorrotatuko nuela gizon trebea idatziz izateko halako gomendioa, eta gizon esteus eta ergel bat besteetan. Oraino nahiago dut ergel bat izatea, honetan eta hartan, neure balioa non erabil hain gaizki hautatu izana baino. Hain guti da zozokeria hauen bidez ohore berri zerbaiten egitera igurikatzen dudana, non anitz eginen baitut erdietsi nuen apurra galtzen ez badut. Zeren, margo hil eta mutu honek ene izate naturalari ebatsiko dionaz landara, ez baitagokio ene egoerarik hoberenari, baina nire lehen indar eta alaitasunetik aski eroria, zimeltze eta minker aldera emanari. Ontziaren hondan nago, sarri beheko eta hondar urrina baitu.

Bestalde, Anderea, ez nintzateke medizinarene ezagerien hain zarpailki inarrostera ausartuko, zuk eta beste hainbatek ematen diozuen sinesmena jakinik, haren egileek beraiek eramana izan ez banintz. Uste dut bi latindar zaharrez baizik ez dituztela: Plinio eta Zeltso. Egun batez ikusten badituzu, aurkituko duzu nik dagidan baino hagitzez zakarkiago mintzatzen direla beren antzeaz: nik zimikatzeaz baizik ez dagit, haiek lepoa mozten diote. Plinio, beste gauzen artean, burlatzen da zertaz, beren sokako azken muturrean daudelarik, aterabide eder hau asmatu baitute: janarau eta drogen bidez oinazetu dituzten erien bidaltzea, batzuk agintza eta mirakuluen laguntzara, besteak ur beroetara. (Ez zaitez haserre, Anderea, ez da hemengoez mintza, denak zure etxearen gerizapean eta garamontarrak baitira.) Badute hirugarren aterabide bat, haiengandik haizatzeko eta gure gaitzen hobekitze eskasaz egin diezaizkiekegun erantzukiez arintzeko, hain luzaz ukan baitituzte manupean non ez baitzaie gure ihardukitzeko batere asmamenik gelditu: beste eskualde bateko airearen ontasunaz goatzera gure bidaltzea baita. Anderea, hara aski dela: baimen nazazu neure gaiaren hariari birratxikitze, baztertu bainaiz zure solastatzeko.

Perikles izan zen, uste dut, nola zegoen galdegini, egin zuena: , lepoari eta besoei estekatu zizkien sorginkeriak erakutsiz. Ondoriatu nahi zuen biziki eria zela hain gauza hutsaletara jo beharraraino heldua baitzen, eta halako moldez bere buruaren tresnatzera uzteraino. Ez diot ez naitekeela eramana izan egun batez sendagileen menpera eta manura neure biziaren eta osasunaren ezartzeko uste irrigarri horretara; eror nintzeke ameskeria hartan; ez dut neure etorkizuneko bermatasunaz erantzuten ahal; baina

orduan ere, norbaitek galdegiten badit nola nagoen, esaten ahalko diot Periklesek bezala: , neure eskua sei drakma opiataz zamaturik erakutsiz: gaitz bortitz baten ezaugarri aski ageria izanen da. Adimena ikaragarri maingurik ukanen dut; jasagaiztasunak eta ikarak hori irabazten badute neure gainean, ondoriatzen ahalko da aski sukar latz bat neure gogoan.

Aski gaizki aditzen dudakausa honen alde ihardukitzeko nekea hartu dut, neure arbasoen bidez neure baitara eratorri den gure sendakuntzaren eta drogen aurkako aiherkunde naturalaren apur bat bermatzeko eta azkartzeko, ez zedin bakarrik aiherkunde ergel eta ausart bat izan, eta molde gehixeago ukan zezan; eta halaber gaitzek hertsatzen nautenean egiten zaizkidan otoitz eta mehatxuen aurka hain berme ikusten nautenek uste ez dezaten temakeria hutsa dela, edo norbait hain fastikagarri izan den non oraino uste duen ospe txirrinta bat dela; gogoeta aski zoroa bailitzateke neure baratzetzain eta mandazainarekin amankomunean daukadanetik ohorea atera nahi izatea. Zinez, ez dut hain bihotza hanturik ez haizaturik, non osasuna bezalako atsegin sendo, haragizko eta mamitsu baten aldatzera bainindoake atsegin ametsetako, izpirituzko eta airezko batengatik. Ospea, Aimonen lau semeena balitz ere, neure aldarteko gizon bati garestiegi erosia zaio, hiru sabelmin oldarraldi ederrak kostatzen bazaizkio. Osasuna, ala Jainkoa!

Gure medizina maite dutenek ukan ditzakete ere beren gogoeta on, handi eta azkarrik; ez ditut neureen kontrako ameskeriak hastiatzen. Hain guti haserretzen naiz neure usteen besteekiko desadostasunaren ikustean, eta gizartearekin elkartezin bilakatzen neureaz besterik den zentzu eta alderdikoa izateagatik: non, aitzitik, nola naturak darraion molderik orokorra ezberdintasuna baita, eta gogoetan gehiago gorputzetan baino, gai arinago eta malgugarriagokoa direnez geroz, arraroago aurkitzen baitut gure aldarte eta xedeen egokitzen ikustea. Eta sekula ez ziren munduan bi uste berdinek, ez bi ilerik edo bi bihirik. Haien nolakotasunik orokorra ezberdintasuna da.